

AGENDA 21

Contenido

I. SAILA: Garrantzi ekonomiko eta soziala.....	8
1. ATALA: Hitzaurrea	8
2. ATALA: Garapen bidean dauden herrialdeen garapen jasangarria bizkortzeko nazioarteko lankidetzeta eta honekin lotutako barruko politikak	10
A. Garapen jasangarria merkataritzaren bidez sustatzea	12
B. Merkataritzaren eta ingurugiroaren elkarren arteko sostengua sustatzea.....	18
C. Garapen bidean dauden herrialdeei behar adina finantza-baliabide ematea.....	21
D. Garapen jasangarrira erraztuko duten politika ekonomikoak bultzatzea	24
3. ATALA: Pobreziaren aurkako borroka	28
Pobreen trebakuntza iraupen jasangarria lortzeko	28
4. ATALA: Kontsumo-moten bilakaera	35
A. Produkzio- eta kontsumo-mota eutsiezinen auzia	36
B. Politika eta estrategia nazionalak lantzea kontsumo-mota eutsiezinen transformazioa sustatzeko	39
5. ATALA: Dinamika demografikoa eta jasangarritasuna	43
A. Joera eta faktore demografikoen eta garapen jasangarriaren artean dagoen harremanaren inguruko ezagutza garatzea eta hedatzea	43
B. Ingurugiro- eta garapen-politika integratuak formulatzea, joera eta faktore demografikoak kontuan hartuta	47
C. Herri mailan ingurugiro eta garapenaren programa integratuak gauzatzea, joera eta faktore demografikoak kontuan hartuta	52
6. ATALA: Giza osasuna babestea eta sustatzea	58
A. Osasunaren lehen mailako arretaren inguruko beharrak asetzea, batez ere nekazaritzako guneetan	59
B. Gaixotasun kutsakorren aurka borroka egitea.....	63
C. Talde zaugarriak babestea	69

7. ATALA: Giza kokapenen garapen jasangarria sustatzea.....	74
A. Guztientzako etxebizitza egokiak ematea.....	77
B. Giza kokapenen administrazioa hobetzea	80
C. Lurraren erabileraren planifikazio eta antolakuntza jasangarria sustatzea.....	86
D. Ingurugiro-azpiegituren integrazioa sustatzea: ura, saneamendua, drainatzea eta hondakin solidoen kudeaketa	90
8. ATALA: Ingurugiroaren integrazioa eta erabakiak hartzeko uneko garapena	94
A. Ingurugiroa eta garapena politika, planifikazio eta kudeaketa mailetan sartzea	94
B. Zuzenbide- eta araudi-esparru eragingarriak ezartzea	100
C. Bitarteko ekonomikoak eta merkatuko eta beste mota batzuetako pizgarriak eraginkortasunez erabiltzea.....	105
D. Kontabilitate-sistema ekologikoak eta ekonomiko integratuak ezartzea	110
II. Saila: Garapenerako baliabideak kontserbatzea eta kudeatzea	115
9. ATALA: Atmosfera babestea.....	115
A. Zalantzen azterketa: erabakiak hartzeko oinarri zientifikoa perfektionatzea	117
B. Garapen jasangarriaren sustapena	119
C. Ozono estratosferikoa agortzearen prebentzioa	128
D. Mugaz gaineko kutsadura	130
10. ATALA: Lurreko baliabideak planifikatzeko eta antolatzeko ikuspegi integratua	134
A. Lurreko baliabideak planifikatzeko eta antolatzeko ikuspegi integratua	135
11. ATALA: Baso-soiltzearen aurkako borroka.....	142
A. Baso mota guztien, basoko lurren eta oihandutako lurraldeen funtzioei eustea	142
B. Baso guztiak babestea, antolakuntza jasangarria eta kontserbazioa areagotzea eta andeatutako lurretan landare-estalkia gehitzea, birgaitzearen, baso-sartzearen, baso-berritzearen eta beste teknika batzuen berritzearen bidez	147
C. Ustiapenerako eta ebaluaziorako metodo eragingarriak bultzatzea, basoetako, basoko lurretako eta zuhaitziak dituzten lurretako ondasun eta zerbitzuen balio osoa berreskuratzeko	155

D. Gaitasuna ezartzea edo sendotzea, basoekin lotutako programen, ikuspegien eta jardueren (merkataritza eta merkataritza-eragiketak barne hartuta) eta basoen planifikazio, ebaluazio eta behaketa sistematikoa egiteko	161
12. ATALA: Ekosistema hauskorren antolaketa: desertifikazioaren eta lehortearen aurkako borroka	166
A. Ezagutzen oinarriak sendotzea. Desertifikazioa eta lehorteak jasateko joera duten lurraldeei eta sistema horien alde ekonomikoei eta sozialei buruzko informaziorako eta behaketa sistematikorako sistemak sortzea	167
B. Lurren degradazioaren aurkako borroka, beste gauza batzuen artean lurren kontserbaziorako jarduerak areagotzearen, baso-sartzearen eta baso-berritzearen bidez	171
C. Pobreziari aurre egiteko eta desertifikaziorako joera duten guneen iraupen-sistemen sustapenerako programa integratuak egitea eta sendotzea	176
13. ATALA: Ekosistema hauskorren antolaketa: gune menditsuen garapen jasangarria	180
A. Mendiko ekosistemen ekologiari eta garrapen jasangarriari buruzko ezagutzak sortzea eta sendotzea	181
B. Arro hidrografikoen eta beste bizimoduen ustiapen integratua sustatzea	185
14. ATALA: Nekazaritza eta landa-garapen jasangarriak sustatzea	190
A. Nekazaritzako politikaren azterketa, planifikazio eta programazio integrala, nekazaritzaren funtzio anitzeko aldea dela eta, bereziki elikaduraren segurtasunaren eta garapen jasangarriaren inguruan	192
B. Herriak parte har dezan lortzea eta nekazaritza jasangarrirako giza baliabideen garapena sustatzea	197
C. Nekazaritza-produkzioak eta laborantza-sistemak hobetzea, nekazaritzarako erabilera eta nekazaritzarako ez den erabilera dibertsifikatuz eta azpiegituraren garapenaren bidez	201
D. Lurreko baliabideen planifikazioa eta nekazaritzarako informazioa eta hezkuntza	205
E. Lurra kontserbatzea eta birgaitzea	209
F. Elikagaien produkzio jasangarrirako eta nekazaritzaren garapen jasangarrirako egokia den ura	212

15. ATALA: Aniztasun biologikoaren kontserbazioa.....	213
16. ATALA: Bioteknologiaren kudeaketa ekologikoki arrazionala.....	223
A. Elikagaien, pentsuen eta lehengai berriztagarrien erabilgarritasuna areagotzea	225
B. Giza osasuna hobetzea.....	230
C. Ingurugiroaren babesa areagotzea	235
D. Segurtasuna areagotzea eta lankidetzarako nazioarteko mekanismoak martxan jartzea	240
E. Bioteknologia ekologikoki arrazionalaren garapena eta aplikazioa erraztuko dituen mekanismoak martxan jartzea	243
17. ATALA: Ozeanoen eta mota guztietako itsasoen –itsaso itxiak eta erdi itxiak barne– eta kostaldeko guneen babesa eta bertako baliabide bizidunen babesa, arrazoizko erabilera eta garapena.....	248
A. Kostako eta itsasoko guneen antolaketa integratua eta garapen jasangarria, horien artean gune ekonomiko eskusiboak.....	250
B. Inguru itsastarra babestea	257
C. Itsas zabaleko itsas baliabide bizidunen ustiapen jasangarria eta kontserbazioa	269
D. Eskumen nazionalera lotutako itsas baliabide bizidunen ustiapen jasangarria eta kontserbazioa.....	276
18. ATALA: Ur gezatako baliabideen horniketa eta kalitatea babestea: ur gezatako baliabideen ustiapenerako, antolakuntzarako eta erabilerarako irizpide integratuak aplikatzea	286
A. Baliabide hidrikoen antolaketa eta ustiaketa integratuak.....	288
B. Baliabide hidrikoen ebaluazioa	297
C. Baliabide hidrikoen, uraren kalitatearen eta uretako ekosistemaren babesa.....	304
D. Edateko uraren horniketa eta saneamendua	313
19. ATALA: Produktu kimikoen kudeaketa ekologikoki arrazionala, nazioartean produktu toxikoen eta arriskutsuen legez kanpoko salerosketa prebenitzea barne	320
A. Produktu kimikoen arriskuen nazioarteko ebaluazioa hedatzea eta bizkortzea	323
B. Produktu kimikoen sailkapena eta etiketatua bateratzea	328

C. Produktu kimiko toxikoei eta produktu kimikoen arriskuei buruzko informazioa trukatzea	331
20. ATALA: Hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionala, hondakin arriskutsuen legez kanpoko salerosketa prebenitzea barne.....	335
A. Hondakin arriskutsuen prebentzioa sustatzea eta ahalik eta gehien murriztea	338
B. Hondakin arriskutsuen kudeaketaren inguruan erakundeen gaitasuna sustatzea eta sendotzea	346
D. Hondakin arriskutsuen legez kanpoko nazioarteko zirkulazioa prebenitzea.....	359
21. ATALA: Hondakin solidoen kudeaketa ekologikoki arrazionala eta erabilitako urekin lotura duten auziak	361
A. Hondakinak ahalik eta gehien murriztea	363
B. Hondakinen berrerabilpena eta birziklatze ekologikoki arrazionala ahalik eta gehien sustatzea	368
C. Hondakinen deuseztatze eta tratamendu ekologikoki arrazionalak sustatzea	374
D. Hondakinez arduratzen diren zerbitzuen irismena areagotzea.....	380
22. ATALA: Hondakin erradioaktiboen kudeaketa kaltegabea eta ekologikoki arrazionala .	386
III. SAILA: Talde nagusiak indartzea.....	391
23 ATALA: Hitzaurrea	391
24. ATALA: Garapen jasangarria eta zuzena lortzeko, emakumearen mesedetan mundu mailan neurriak hartzea	392
25. ATALA: Haurtzaroa eta gaztaroa garapen jasangarrian	400
A. Ingurugiroa babesteko eta garapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko garaian gazteen lana eta beren parte-hartze aktiboa bultzatzea.....	400
B. Haurrak eta garapen jasangarria.....	404
26. ATALA: Herrialde indigenen eta beren komunitateen zeregina onartzea eta sendotzea	407
27. ATALA: Garapen jasangarria lortzeko lanean elkartutako gobernuz kanpoko erakundeen lana sendotzea	412
28. ATALA: Agenda 21 babesteko tokian tokiko agintarien ekimenak	417

29. ATALA: Langileen eta beren sindikatuen papera indartzea	420
30. ATALA: Merkataritzaren eta industriaren papera indartzea.....	424
A. Produkzio garbia bultzatzea	426
B. Enpresen erantzukizuna areagotzea	429
31. ATALA: Komunitate zientifiko eta teknologikoa	432
A. Komunitate zientifiko eta teknologikoaren, erabakiak hartzeko arduradunen eta publikoaren arteko komunikazioa eta kooperazioa hobetzea.....	433
B. Zientzia eta teknologiari buruzko jokabide-kodeak eta gidalerroak indartzea	436
32. ATALA: Nekazarien papera indartzea*	438
IV. SAILA: Gauzatzeko bideak.....	444
33. ATALA: Finantza-eraketako baliabideak eta mekanismoak.....	444
34. ATALA: Ekologikoki arrazionala den teknologiaren transferentzia, lankidetzaren eta ahalmena handitzea	451
35. ATALA: Garapen jasangarria lortzeko zientziaren zeregina	462
A. Antolaketa jasangarriko oinarri zientifikoa sendotzea	464
B. Ezagutza zientifikoak areagotzea	468
C. Epe luzera ebaluazio zientifikoa hobetzea	472
D. Ahalmen zientifikoa areagotzea	475
36. ATALA: Heziketa, trebakuntza eta kontzientziaren hartzea sustatzea	480
A. Heziketa garapen jasangarriari begira berriro orientatzea	481
B. Jendearen kontzientzia areagotzea	488
C. Trebakuntza sustatzea	492
37. ATALA: Garapen bidean dauden herrialdeen gaitasuna areagotzeko mekanismo nazionalak eta nazioarteko lankidetzaren	496
38. ATALA: Nazioarteko akordio instituzionalak	504
A. Batzar Nagusia.....	507
B. Ekonomi eta Gizarte Kontseilua	507
C. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordea	507

D. Idazkari nagusia.....	510
E. Goi mailako koordinaziorako erakundearteko mekanismoa	510
F. Goi mailako kontsulta-erakundea	510
G. Babeserako egitura administratiboa	512
H. Nazio Batuen sistemako organoak, programak eta erakundeak.....	512
I. Lankidetzeta eta gauzatzea lurralde eta azpilurralde mailan.....	517
J. Gauzatzea nazio mailan	519
K. Nazio Batuetako organoen eta nazioarteko finantza-erakundeen arteko lankidetzeta ..	519
L. Gobernu kanpoko erakundeak	521
39. ATALA: Nazioarteko bitarteko eta mekanismo juridikoak	522
A. Garapen jasangarrirako nazioarteko zuzenbidearen alorreko azterketa, ebaluazioa eta ekintza-esparruak.....	525
B. Aplikaziorako mekanismoak.....	526
C. Nazioarteko zuzenbidea eratzeko parte-hartze eragingarriak.....	526
D. Garapen jasangarriaren alorreko eztabaidak	527
40. ATALA: Erabakiak hartzeko informazioa	528
A. Datuen inguruko desberdintasunak murriztea	529
B. Informazioa eskuratzeko aukerak hobetzea	534

I. SAILA: Garrantzi ekonomiko eta soziala

1. ATALA: Hitzaurrea

Gizateria historiaren une erabakigarrian dago. Nazioen arteko eta nazio barruko desberdintasunak handitzeari; txirotasuna, gosea, gaixotasunak eta analfabetismoa areagotzeari eta gure ongizatea baldintzatzen duen ekosistemaren etengabeko okertzeari aurre egin beharko diegu. Hala ere, kezkak ingurugiroan eta garapenean integratzen baditugu eta arreta gehiago jartzen badugu, oinarritzko beharrak ase ahal izango dira, guztion bizi-maila igo ahal izango da, ekosistemen babes eta kudeaketa hobea lortuko da eta etorkizuna ziurragoa eta oparagoa izango da. Nazioek ezin dituzte helburu hauek beren kasa lortu, baina guztiok elkarrekin egin dezakegu garapen jasangarrirako mundu-elkartean.

Mundu-elkarte honek 1989ko abenduaren 22ko Batzar Nagusiko 44/228 ebazpenaren premisetan oinarritu behar du. Ebazpen hau munduko nazioek Nazio Batuen Ingurugiro eta Garapenari buruzko Biltzarra antolatzeke eskatu zutenean onartu zen. Elkarte honen oinarriak ere ingurugiroaren eta garapenaren inguruko auziak era orekatu eta integralean bideratzeko beharra onartzea izan behar du.

Agenda 21ek gaur egungo presazko arazoei heltzen die eta, gainera, mundua mende berriaren desfioei aurre egiteko prestatzen ahalegintzen da. Ingurugiroaren alorrean, garapenaren eta lankidetzaren mailarik goreneko konpromiso politikoaren eta munduko adostasunaren isla da. Agenda arrakastaz gauzatzea batez ere gobernuen betebeharra da. Estrategia, plan, politika eta prozesu nazionalak berebiziko garrantzia dute hau lortu ahal izateko. Nazioarteko lankidetzak ahalegin nazional horiek babestu eta osatu behar ditu. Egoera honetan, Nazio Batuen sistemaren funtsezko eginbeharra izango da. Nazioarte, lurralde eta azpilurralde mailako beste erakunde batzuek ere lagundu behar dute ahalegin honetan. Halaber, gobernu kanpoko erakundeen eta beste hainbat talderen parte-hartze aktiboa bultzatu behar da eta ahalik eta jende gehienak parte hartzea bultzatu behar da.

Garapenari eta ingurugiroari buruzko Agenda 21en helburuak lortzeko, garatzen ari diren herrientzako finantza-baliabide berriak eta osagarriak beharko dira, garapen jasangarria azkartzeko eta munduko ingurugiroaren arazoei aurre egiteko sortuko diren gastu gehigarriak ordaintzeko. Nazioarteko erakundeek Agenda 21 aplikatzeko unean beren gaitasuna areagotzeko ere finantza-baliabideak behar dituzte.

Agendaren arlo bakoitzean gastuen araberako ebaluaketa bat gehitu da. Gauzatzeaz arduratuko diren organismo eta erakundeek ebaluazio hori aztertu eta egokitu egin beharko dute.

Agenda 21en agertzen diren programa-arloak gauzatzeko unean, trantsizioan dauden ekonomiei sortzen zaizkien egoera bereziei arreta berezia jarri beharko litzaieke. Horrez gain, onartu beharra dago herrialde hauek beren ekonomiak transformatu ahal izateko aurrekaririk ez duten zailtasunei aurre egin behar dietela; kasu batzuetan, zailtasun hauek erraz ikus daitezkeen tentsio sozial eta politikoetan islatzen dira.

Agenda 21 osatzen duten programa-arloekin harremanetan ekintzarako oinarriak, helburuak, jarduerak eta gauzatzeko bideak deskribatzen dira. Agenda 21 programa dinamikoa da. Eragileek herrialde eta lurralde bakoitzaren egoeraren, gaitasunaren eta lehentasunen arabera gauzatuko dute, Rioko Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Adierazpenean agertzen diren printzipioak kontuan hartuta. Denborarekin, Agenda 21 garatu egin daiteke, beharrak eta egoerak aldatzearekin batera. Prozesu honek garapen jasangarrirako mundu-elkarte berriaren hasiera finkatu du.

* "Gobernuak" hitzaren barruan Europako Ekonomia Erkidegoa ere sartzen da, eskuduntza duen alorren barruan. Agenda 21 osoan, "ekologikoki arrazoizkoa" "ekologikoki bidegabea eta arrazoizkoa" da, batez ere "energia-iturriak", "ekologikoki bidegabea eta arrazoizkoa", "sistema energetikoak" eta "teknologia" edo "teknologiak" hitzekin agertzen denean.

2. ATALA: Garapen bidean dauden herrialdeen garapen jasangarria bizkortzeko nazioarteko lankidetzeta eta honekin lotutako barruko politikak

Sarrera

Ingurugiroaren eta garapenaren arazoei heltzeko, estatuak mundu mailako elkarte berri bat eratzea erabaki dute. Elkarte horren inguruan, estatu guztiek elkarrizketa jarrai eta konstruktiboa izateko konpromisoa hartu dute, munduko ekonomia eraginkorragoa eta justuagoa izan dadin lortzeko beharrea oinarrituta, nazioen komunitateen artean handitzen ari den interdependentzia kontuan hartuta eta garapen jasangarriak nazioarteko komunitateen programen gai nagusia izan beharko lukeela kontuan hartuta. Bestalde, onartuta dago elkarte honek arrakasta izan dezan garrantzitsua dela liskarrak gainditzea eta benetako lankidetzeta eta elkartasun giroa bultzatzea. Halaber, egoera berrietara egokitzeko garrantzitsua da nazio mailako eta nazioarteko politikak eta nazio askoren arteko lankidetzeta sendotzea.

Herrialdeen politika ekonomikoak eta nazioarteko harreman ekonomikoak garapen jasangarriarekin lotuta daude neurri handi batean. Garapena suspertzeko eta bizkortzeko, nazioarteko giro ekonomiko dinamiko eta egokia behar da, baita nazio mailan politika irmoak ere. Baldintza hauetako edozeinen gabeziak zapuztu egingo du garapenaren prozesua. Kanpoko giro ekonomiko egokia erabakigarria izango da. Garapenaren prozesuak ez du bultzadarik jasoko munduko ekonomiak dinamismorik eta egonkortasunik ez badu eta bere ezaugarria ziurgabetasuna bada. Ondorengo baldintza hauek ematen badira ere ez du bultzadarik jasoko: garapen bidean dauden herrialdeek kanpoko zorrak ordaintzen jarraitu behar badute, garapenerako finantzazioa eskasa bada, merkatuetara sartzeko mugak jartzen dituzten oztopoak badaude eta oinarritzko produktuen prezioak baxuak izaten eta garapen bidean dauden herrialdeen trukerako harremanak kontrakoak izaten jarraitzen badute. 80ko hamarkadan atal hauen historia guztiz negatiboa izan zen eta horri buelta eman behar zaio. Beraz, nazioek garapenerako egindako ahaleginak irmotasunez babestuko dituen nazioarteko giroa sortzeko politikak bultzatzea eta neurriak hartzea ezinbestekoa da. Esparru honetan, nazioarteko lankidetzeta politika ekonomiko nazional egokiak osatzeko eta laguntzeko sustatu behar da, eta ez gutxitzeko edo bakantzeko. Hau garatutako herrialdeetan eta garapen bidean dauden herrialdeetan aplikatu behar da, munduak garapen jasangarriantza aurrera egin dezan.

Nazioarteko ekonomiak ingurugiroaren eta garapenaren alorreko helburuak lortzeko

nazioarteko giro egokia eskaini beharko luke, ondorengo era hauetara:

- a) Merkataritzaren liberalizazioaren bidez garapen jasagarria sustatuz;
- b) Merkataritzak eta ingurugiroak elkarri lagun diezazioten lortuz;
- c) Garapen bidean dauden herrialdeei finantza-baliabideak emanaz eta nazioarteko zorraren auziari aurre eginez;
- d) Ingurugirorako eta garapenerako mesedegarri diren politika makroekonomikoak aurrera eramanez lagunduz.

Batetik, nazioarteko ekonomia-sistemaren elementuak eta, bestetik, gizateriak inguru natural seguruz eta egonkorraz gozatzeko duen beharra lotzeko, nazio eta nazioarte mailan geroz eta ahalegin gehiago egiten ari direla onartzen dute gobernuek. Horrenbestez, gobernuek ingurugiroa, merkataritza eta garapena elkartzen diren puntuetan adostasuna lortzeko prozesuari eusteko asmoa dute, bai nazioarteko foroetan, bai herrialde bakoitzaren politika nazionaletan.

Programa-arloak

A. Garapen jasangarria merkataritzaren bidez sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Alderdi askotako merkataritza-sistema irekia, bidezkoa, segurua, ez diskriminaltzailea eta aurreikusteko modukoa merkataritzako elkartekide guztien onerako izango da; hala ere, sistema horrek garapen jasangarriaren helburuekin bat etorri behar du eta munduko produkzioa, konparaziozko abantailaren oinarriaren gainera, banaketa egokira bideratu behar du. Bestalde, garapen bidean dauden herrialdeen esportazioen merkatuetara errazago iristeak, makroekonomia- eta ingurugiro-politika egokiekin batera, ingurugiroan eragin positiboa izango luke eta, beraz, garapen jasangarriari ekarpen handia egingo lioke.

Esperientziaren arabera, garapen jasangarriak honakoa eskatzen duela: aurreikusteko moduko administrazio publiko eragingarriarekin eta arazoizko ekonomia-kudeaketarekin eta -politikekin konpromisoa hartzea; erabakiak hartzeko prozesuetan ingurugiroarekin harremana duten auziak sartzeko eta interesatutako alde guztien parte-hartzea onartuko duen gobernu demokratikorantz aurrera egitea, herrialde bakoitzaren baldintza zehatzak kontuan hartuta. Ezaugarri hauek ezinbestekoak dira aurrerago aipatzen diren politiken orientazioak eta helburuak betetzeko.

Oinarrizko produktuen sektoreak garapen bidean dauden herrialde askoren ekonomiak kontrolatzen ditu, produkzioari, lanari eta esportazioaren diru-sarrerei dagokienez. 80ko hamarkadako oinarrizko produktuen munduko ekonomiaren ezaugarri nagusia nazioarteko merkatuetan oinarrizko produktu gehienentzako benetako prezio baxuen nagusitasuna eta beherakada izan zen; ondorioz, oinarrizko produktuak esportatzearekin herrialde produzitzaile askok lortutako diru-sarrerak asko jaitsi ziren. Egoera honek oztopatu egin dezake herrialde horiek, nazioarteko merkataritzaren bidez, garapen jasangarriak eskatzen dituen inbertsioak finantzatzeko behar dituzten baliabideak mugitzeko duten ahalmena; aduanako tarifek sortarazitako oztopoek eta beste hainbat oztopok ere eragin dezakete, muga-zergen gehikuntza barne, esportazio-merkatuetara sartzeko mugak jartzen baitituzte. Ezinbestekoa da nazioarteko merkataritzaren desitxuratzeak deuseztatzea. Helburu hau lortzeko, bereziki, nekazaritza sektorearen laguntzak eta babesak -barruko erregimenak, merkatuetara sarbidea eta esportazioentzako diru-laguntzak barne- progresiboki eta nabarmen gutxitu behar dira; horrez gain, industriaren eta beste hainbat sektoreren laguntzak eta babesak ere murriztu behar dira, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako produktore eragingarrienei galera handiak ez eragiteko. Horrenbestez,

nekazaritzan, industrian eta beste hainbat sektoretan merkataritzaren liberalizariora bideratutako ekimenei eta politikei bidea zabaltzen zaie nekazaritzako produkzioak ingurugiroaren eta garapenaren beharrei hobeto erantzun diezaien. Ondorioz, garapen jasangarriari laguntzeko mundu mailan eta sektore guztietan liberalizatu egin beharko litzateke merkataritza.

Nazioarteko merkataritzak erronka eta aukera berriak sortu dituzten eta ekonomiaren alde askotako lankidetzari garrantzi gehiago eman dioten hainbat gertaeraren eragina jasan du. Azken urteotan munduko merkataritza munduko produkzioa baino azkarrago hazi da. Hala ere, munduko merkataritzaren hazkuntza oso modu desberdinean egon da banatuta eta garapen bidean dauden herrialde gutxi batzuek bakarrik lortu dute beren esportazioak modu nabarmenean gehitzea. Presio protekzionistek eta alde bakarreko neurriek merkataritza-sistema irekiaren funtzionamendua arriskuan jartzen jarraitzen dute eta honek garapen bidean dauden herrialdeen esportazioetan eragina du. Azken urteotan biziagotu egin diren integrazio ekonomikoaren prozesuek dinamismoa eman beharko liokete munduko merkataritzari eta merkataritzaren eta garapenaren esparruetan garapen bidean dauden herrialdeen aukerak gehitu egin beharko lituzkete. Azken urteotan garapen bidean dauden herrialde askok beren politiketan berrikuntza ausartak sartu dituzte eta beren merkataritzen liberalizazio unilaterial handizalea eragin dute; Europa erdialdeko eta ekialdeko herrialdeak, berriz, garrantzi handiko aldaketak eta berriztapen-prozesu sakonak eramaten ari dira aurrera, munduko ekonomian eta nazioarteko merkataritza-sisteman sartzeko bidea prestatzeko. Enpresen lana bultzatzeko lanari kasu berezia egiten ari dira, eta, gainera, lehiakortasuna nagusi den merkatuak sustatzen ari dira, lehiakortasunaren defentsarako politiken bidez. SGP kanpoko merkataritzaren politikarako bitarteko erabilgarria izan da, oraindik bere helburuak bete ez badira ere; bitartean, datu elektronikoen trukaketaren bidez egindako komertzioa (IED) errazteko estrategiek merkataritzaren alorrean sektore publikoen eta pribatuen eraginkortasuna hobetzen modu eraginkorrean lagundu dute. Ingurugiro-politiken eta merkataritzaren auzien arteko elkarrekintzak ugari dira eta oraindik ez dira guztiz ebaluatu. Merkataritzako alde askotako negoziazioen inguruko Uruguaiako Erronda ahalik eta azkarren, eta emaitza orekatu, zabal eta positiboekin, amaitzea lortzen bada, munduko merkataritza gehiago zabaltzeko eta liberalizatu ahal izango da, merkataritzaren eta garapenaren alorrean garapen bidean dauden herrialdeen aukerak areagotu egingo dira, nazioarteko merkataritza-sistemari segurtasun gehiago eman ahal izango zaio eta sistema horretan aurreikuspenak egiteko aukera gehiago izango da.

Jarduerak:

Datozen urteetan eta merkataritzako alde askotako negoziazioen Uruguaiiko Erronden emaitzak kontuan hartuta, gobernuek honako helburu hauek lortzen saiatzen jarraitu beharko lukete:

- a) Alde askotako merkataritza-sistema ez diskriminatzailea eta bidezkoa sustatzea, herrialde guztiek eta batez ere garapen bidean dauden herrialdeek, garapen ekonomiko jasangarriaren bidez, beren ekonomiaren egiturak eraldatzeko eta biztanleen bizi-maila hobetzeko aukera izan dezaten;
- b) Garapen bidean dauden herrialdeen esportazioen merkatuetara sartzeko bidea erraztea;
- c) Oinarrizko produktuen merkatuen funtzionamendua hobetzea eta nazio eta nazioarte mailan oinarrizko produktuen politika egokiak, bateragarriak eta koherenteak onartzea, ingurugiroarekin harremana duten iritziak kontuan hartuta, oinarrizko produktuen sektoreak garapen jasangarriari egindako ekarria optimizatzeko;
- d) Hazkunde ekonomikoak eta ingurugiroaren babesak bata besteari laguntzeko nazioko eta nazioarteko politikak sustatzea eta laguntzea.

Jarduerak:

a) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Garapen bidean dauden herrialdeen beharrak kontuan hartuko dituen nazioarteko merkataritza-sistema sustatzea.

Beraz, nazioarteko komunitateak hauxe egin beharko luke:

- a) Protekzionismoa geldiaraztea eta atzera eginaraztea, herrialde guztien eta batez ere garapen bidean dauden herrialdeen onerako munduko merkataritzaren liberalizazio eta hedapena handiagoa lortzeko;
- b) Bidezkoa, segurua, ez diskriminatzailea eta aurreikusteko modukoa izango litzatekeen nazioarteko merkataritza-sistema ezartzea;
- c) Herrialde guztiak munduko ekonomian eta nazioarteko merkataritza-sisteman behar bezala sar daitezen erraztea;
- d) Garapen jasangarria lortzeko, ingurugiro-politikak eta merkataritza-politikak elkarri

lagun diezaioten arduratzea;

- e) Nazioarteko merkataritza-sistema sendotzea, merkataritzako alde askotako negoziazioen Uruguaiako Errondan emaitza orekatu, zabal eta positiboak ahalik eta azkarren lortzeko.

Nazioarteko komunitateak honako hau lortzeko bideak aurkitzen saiatu beharko luke: batetik, oinarritzko produktuen merkatuek gardentasun gehiagorekin eta hobeto funtzionatzea; bestetik, garapen bidean dauden ekonomietan oinarritzko produktuen sektorea gehiago dibertsifikatzea, herrialde bakoitzaren ekonomiaren egitura, herrialde horrek dituen baliabideak eta aukera komertzialak kontuan hartuko lituzkeen makroekonomiaren barruan, eta, azkenik, garapen jasangarriaren beharrak kontuan hartuta, baliabide naturalak hobeto administratzea.

Beraz, herrialde guztiek dagoeneko hartuak dituzten konpromiso guztiak protekzionismoa geldiarazteko eta atzera eginarazteko eta merkatuetara sarbidea gehiago zabaltzeko aplikatu beharko lituzteke, batez ere garapen bidean dauden herrialdeei interesatzen zaizkien sektoreetan. Merkatuetara sartzeko modu hau erraztu egingo da garatutako herrialdeetan, egiturazko doikuntza egokia aurrera eramaten bada. Garapen bidean dauden herrialdeek beren merkataritza-politikak eraberritzen eta hasitako egiturazko doikuntza aurrera eramaten jarraitu behar dute. Beraz, premiazkoa da oinarritzko produktuek merkatuetara sartzeko dituzten baldintzak hobetzea, batez ere oinarritzko produktu primario eta landutako garrantzia murrizten duten oztopoak pixkanaka-pixkanaka gainbegiratu, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Lehiakorra ez den produkzioa bideratzen duten laguntza mota guztiak pixkanaka murriztea ere beharrezkoa da, batez ere produkzioarako eta esportazioarako diru-laguntzak gutxitzea.

b) Kudeaketarekin harremana duten jarduerak:

Garapen jasangarriarako merkataritzaren liberalizazioaren onurak ahalik eta gehien areagotuko dituzten politika nazionalak lantzea.

Garapen bidean dauden herrialdeek merkataritza-sistemaren liberalizazioaren etekinak eskura ditzaten honako politika hauek aplikatu beharko lituzkete, hala dagokienean:

- a) Barruko merkaturako produkzioaren eta esportatzeko merkaturako produkzioaren artean oreka ezin hobea lortzeko barruko bitarteko egokia ezartzea eta esportazioaren aurkako joerak deuseztatzea eta eragingarriak ez diren inportazioen

ordezkapenak geldiaraztea;

- b) Esportazio- eta inportazio-merkatuen eragingarritasuna hobetzeko beharrezkoak diren esparru politikoa eta azpiegitura eta barruko merkatuen funtzionamendua bultzatzea.

Garapen bidean dauden herrialdeek oinarrizko produktuen inguruan honako politika hauek bideratu beharko lituzkete, merkatuaren eragingarritasunarekin bat:

- a) Oinarrizko produktuen sektorearen lanketa eta banaketa hedatzea eta merkaturatzearen praktikak eta lehiakortasuna hobetzea;
- b) Oinarrizko produktuen esportazioen menpekotasuna murrizteko dibertsifikatzea;
- c) Oinarrizko produktuen prezioak finkatzeko garaian, produkzioaren faktoreen erabilera eragingarria eta jasangarria islatzea, ingurugiro- eta gizarte-gastuen eta baliabideek gastuen isla barne.

c) Datuak eta informazioa:

Datuen bilketa eta ikerketa sustatzea.

GATT, UNCTAD eta beste erakunde eskudun batzuek merkataritzaren inguruko datuak eta informazioa biltzen jarraitu beharko lukete. Nazio Batuen idazkari nagusiari UNCTADek administratzen duen merkataritzaren kontrol-neurriei buruzko informazio-sistema indartu dezala eskatu diote. Oinarrizko produktuen merkataritzarako nazioarteko lankidetzaren hobekuntza eta sektorearen dibertsifikazioa.

Oinarrizko produktuen merkataritzari dagokionez zuzenean edo dagokien nazioarteko erakundeen bidez, gobernuek honako hau egin beharko lukete, dagokienaren arabera:

- a) Oinarrizko produktuen merkatuaren funtzionamendua hobe ezina izan dadin lortzen saiatzea, beste batzuen artean, merkatuaren gardentasun handiagoaren bidez. Merkatu honetan, oinarrizko hainbat produktuentzako inbertsio planei, ikuspegiei eta merkatuei buruzko iritziak eta informazioa trukatu beharko lirатеke. Ikerketa-taldeak sortu beharko lirатеke eta produzitzaileen eta kontsumitzaileen artean benetako negoziazioak eraman beharko lirатеke aurrera, merkatuaren joerak kontuan hartuko lituzketen nazioarteko akordio bideragarriak eta eragingarriagoak, edo konponketa hitzartuak, lortzeko helburuarekin. Horren inguruan, kakao, kafe, azukre eta egur tropikalen inguruko akordioei kasu berezia egin behar zaie.

Oinarrizko produktuen inguruko nazioarteko akordioen eta konponketen garrantzia nabarmendu behar da. Honako auzi hauek ere kontuan izan beharko lirateke: osasuna eta lan-segurtasuna, produkzioarekin harremana duten teknologia eta zerbitzuen transferentzia, oinarrizko produktuen merkaturatzea eta sustapena eta ekologiaren inguruko ardura;

- b) Garapen bidean dauden herrialdeen oinarrizko produktuen esportazioen diru-sarreraren defizita konpentsatzeko mekanismoak erabiltzen jarraitzea, dibertsifikazioaren aldeko jarduerak sustatzeko;
- c) Hala eskatzen duten garapen bidean dauden herrialdeei laguntza ematea, oinarrizko produktuen inguruko politikak egiteko eta aplikatzeko eta oinarrizko produktuen merkatuen inguruko informazioa biltzeko eta erabiltzeko;
- d) Garapen bidean dauden herrialdeen jarduerak bultzatzea, esportazio- eta inportazio-merkataritzen eragingarritasuna hobetzeko beharrezkoak diren politika-esparrua eta azpiegiturak era daitezen sustatzeko;
- e) Garapen bidean dauden herrialdeen ekimenak sustatzea, nazio, lurralde eta nazioarte mailako dibertsifikazioaren alde. Gauzatzeko bideak

d) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 8.500 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

e) Gaitasuna areagotzea:

Aipatutako lankidetzak teknikorako jardueren helburua hauxe da: oinarrizko produktuen inguruko politikak egiteko eta aplikatzeko, nazioen baliabideak antolatzeko eta erabiltzeko eta oinarrizko produktuen merkatuen inguruko informazioa lortzeko eta erabiltzeko nazioen ahalmena sendotzea.

B. Merkataritzaren eta ingurugiroaren elkarren arteko sostengua sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Ingurugiroari buruzko politikek eta merkataritzari buruzko politikek elkarri lagundu behar diote. Merkataritza-sistema ireki eta multilateralak baliabideak modu eragingarriagoan esleitzeko eta erabiltzeko aukera ematen du eta, ondorioz, produkzioa eta diru-sarrerak areagotzen eta ingurugiroari egindako presioak gutxitzen laguntzen du. Modu honetan ekonomiaren hazkuntzarako eta garapenerako eta ingurugiroaren babesa hobetzeko baliabide osagarriak ematen ditu. Bere aldetik, ingurugiro egokiak hazkuntzari eta merkataritzaren etengabeko hedapenari eusteko beharrezkoak diren baliabide ekologikoak eta beste mota batzuetakoak eragiten ditu. Merkatu-sistema ireki eta multilateralak, ingurugiro-politika egokiak lagunduta, eragin positiboa izango luke ingurugiroan, eta garapen jasangarriari lagundu egingo lioke.

Ingurugiroaren esparruan nazioarteko lankidetzaren areagotzen ari da eta hainbat kasutan ingurugiroari buruzko akordio multilateralen merkataritzaren antolaketak munduko ingurugiroaren arazoei ekiteko aportazioak izan dira. Beraz, honela erabili dituzte merkataritzako neurriak -kasu zehatz batzuetan guztiz beharrezkoak izan direnak- ingurugiroaren babeserako araudiaren eragingarritasuna areagotzeko. Araudi horrek ingurugiroaren degradazioaren oinarritzko zergatiei heldu behar die, merkataritzan justifikaziorik gabeko murrizketen ezarpena ekiditeko. Ingurugiroari buruzko politikak eta merkataritza-politikak bateragarriak izan daitezten bermatzea da helburua eta garapen jasangarriaren prozesua lagun dezaten bermatzea. Hala ere, kontuan hartu behar da garapen bidean dauden herrialdeen baliozko ingurugiro-arauek garapen bidean dauden herrialdeentzako onartezinak diren gastu sozial eta ekonomikoak eragin ditzaketela.

Jarduerak:

Gobernuek eta GATT, UNCTAD eta nazioarteko beste hainbat erakundek honako helburuak lortu beharko lituzteke, alde askotako foro egokien bidez:

- a) Garapen jasangarriaren mesederako, nazioarteko merkataritza-politikak eta ingurugiro-politikak elkarri lagun diezaieten lortzea;
- b) Merkataritzarekin eta ingurugiroarekin harremanetan dauden auziei dagokienean, hala egokituz gero eztabaidak konpontzeko eta kontziliatzeko prozeduren inguruan, GATT, UNCTAD eta nazioarteko beste hainbat erakunderen funtzioa argitzea;

- c) Nazioarteko produktibitatea eta lehiakortasuna sustatzea eta, ingurugiroarekin eta garapenarekin harremana duten auziei aurre egiteari dagokionean, industriak funtzio eraikitzailea izan dezan saiatzea.

Jarduerak:

Ingurugiroaren/merkataritzaren eta garapenaren inguruko programa bat egitea.

GATT, UNCTAD eta nazioarteko eta lurraldeko beste hainbat ekonomia-erakundek honako proposamenak eta printzipioak azter ditzaten bultzatu beharko lukete gobernuek, dagozkien agintaldietan eta esparru eskudunetan:

- a) Merkataritzaren eta ingurugiroaren arteko harremana hobeto ulertzeko azterketa egokiak egitea, garapen jasangarriaren sustapenerako;
- b) Merkataritzaren, garapenaren eta ingurugiroaren alorretan aritzen direnen artean elkarrizketa bultzatzea;
- c) Ingurugiroarekin harremana duten neurriak hartzen diren kasuetan, nazioarteko betebeharrak beren gardentasuna eta bateragarritasuna bermatzea;
- d) Ingurugiroaren arazoan oinarritako arrazoiei eta garapenari heltzea, merkataritzaren arrazoirik gabeko murrizketek eragingo lituzketen ingurugiroko neurriak ekiditeko moduan;
- e) Merkataritzaren murrizketa eta desitxuraketa ingurugiroko arauari eta araudiei dagozkien desberdintasunetatik eratorritako gastuen diferentziak konpentsatzeko neurri gisa erabil ditzaten ekiditen saiatzea, bere aplikazioaren ondorioz distortsio komertzialak eta joera protekzionista sorraraz baitaitezke;
- f) Ingurugiroarekin harremana duten araudiek eta arauak, osasun eta segurtasun arauak barne, diskriminaziorako inguru justifika ezin eta arbitrarioa edo merkatuaren murrizketa estalia sor ez ditzaten kontuan izatea;
- g) Garapen bidean dauden herrialdeetan ingurugiro- eta merkataritzaren politiketan eragina duten faktore bereziak ingurugiro-arauak aplikatzeko eta edozein neurri komertzial erabiltzeko momentuan kontuan har daitezkeen arduratzea. Nabarmendu beharra dago herrialde aurreratuagoetan baliagarri diren arauak ezegokiak izan daitezkeela eta onartezinak diren gastu sozialak eragin ditzaketela garapen bidean dauden herrialde askotan;
- h) Akordio multilateraletan garapen bidean dauden herrialdeen partaidetza sustatzea, esaterako, trantsiziorako arau berezien bidez;

- i) Herrialde inportatzaileen eskumenekoak ez diren ingurugiroko arazoei aurre egiteko neurri unilateralak ekiditea. Ahal den neurrian, muga-arteko edo munduko ingurugiro arazoak konpontzeko hartu beharreko neurriek nazioartearen adostasunean oinarritu behar dute. Ingurugiroko helburu zehatz batzuk lortzeko bideratuta dauden barruko neurriek neurri komertzialak har daitezela eskatu dezakete, lehenak eragingarriak izan daitezzen. Ingurugiro-politikak bete daitezzen neurri komertzialak hartzea beharrezkoa izanez gero, printzipio eta arau batzuk aplikatu beharko dira. Hauen artean, besteak beste, printzipio hauek sar daitezke: diskriminazio ezaren printzipioa; hartzea erabakitzen den neurri komertzialak merkataritza helburuak lortzeko adina baino gehiago ezin duela murriztu esaten duen printzipioa; ingurugiroarekin harremana duten neurri komertzialen erabileran gardentasuna bermatzeko eta nazioko araudiak behar bezala jakinarazteko obligazioa eta garapen bidean dauden herrialdeen baldintza bereziak eta garapenerako beharrak kontsideratzeko beharra, hauek nazioarte mailan hitzartutako ingurugiro-helburuak lortzeko bidean aurrera egiten duten neurrian;
- j) Behar denean zehaztasun gehiago ezartzea eta GATTen xedapenen eta ingurugiroaren esparruan hartutako hainbat neurri multilateralen arteko harremana argitzea;
- k) Merkataritza-politiken formulazioan, negoziazioan eta aplikazioan jendearen parte-hartzea bultzatzea, herrialde bakoitzaren baldintzen arabera gardentasun gehiago izan dadin sustatzeko;
- l) Ingurugiro-politikek esparru juridiko eta instituzional egokia eskaini dezaten arduratzea, ingurugiroaren babeserako produkzio-sistemaren aldaketek eta espezializazio komertzialek eragindako behar berriei erantzuteko.

C. Garapen bidean dauden herrialdeei behar adina finantza-baliabide ematea

Ekintzarako oinarriak:

Inbertsioa ezinbestekoa da garapen bidean dauden herrialdeek, garapena sostengatzen duen baliabideen oinarria agortu edo hondatu gabe, beren biztanleen gizarte-ongizatea hobetu eta beren oinarritzko beharrez modu jasangarrian arduratu ahal izateko behar duten hazkunde ekonomikoa lortzeko. Garapen jasangarriak inbertsio gehiago eskatzen ditu, eta horretarako kanpoko eta barruko finantza-baliabideak behar dira. Atzerriko inbertsio pribatuak eta erbesteratutako kapitalaren itzulerak inbertsiorako giro egokia eskatzen dute eta finantza-baliabideen iturri garrantzitsuak dira. Garapen bidean dauden herrialde hauetako askok beren finantza-baliabideen transferentzia garbi negatiboa jasan dute hamarkada osoan, eta garai horretan egin beharreko ordainketak, batez ere zorren zerbitzuan, beren diru-sarrerak baino handiagoak izan ziren. Honen ondorio gisa, barruan mugitutako baliabideak atzerrira transferitu behar ziren, garapen ekonomiko jasangarria sustatzeko herrialdean inbertitu beharrean.

Garapen bidean dauden herrialde askoren kasuan, aurretik atzerriarekiko zorpetzearen arazoari irtenbide iraunkorra eman artean garapena berrindartzeak ez du lekurik izango, garapen bidean dauden herrialde askorentzat kanpoko zorraren karga arazo larria dela kontuan hartuta. Zorren zerbitzuaren ordainketek herrialde horiei eragiten dieten kargak hazkundera bizkortzeko eta pobrezia aurre egiteko ahalmena mugatu egin du erabat eta, era berean, inportazioen, inbertsioen eta kontsumoaren kontraesana eragin du. Atzerriarekiko zorpetzea garapen bidean dauden herrialdeen geldialdi ekonomikoaren faktore garrantzitsu bilakatu da. Etengabe bilakatzen ari den zorraren nazioarteko estrategiaren aplikazio energetiko eta iraunkorraren helburua herrialde zordunen kanpoko finantza-bideragarritasuna berrezartzea da eta hazkunderari eta garapenari berriro ekiteak hazkunde eta garapen jasangarria lortzen lagunduko luke. Testuinguru honetan, ezinbestekoa da finantza-baliabide osagarriak kontuan hartzea eta baliabide horiek modu eragingarrian erabiltzea, garapen bidean dauden herrialdeen onerako.

Jarduerak:

Agenda 21en agertzen diren sektoreko eta sektore arteko programak gauzatzeko behar diren baldintza zehatzen inguruko datuak bakoitzari dagokion programa-arloan eta "Finantzaketako baliabideak eta mekanismoak" izenburua duen [33. atalean](#) aipatzen dira.

Jarduerak:

a) Garapenerako laguntza ofizialaren finantzaziorako nazioarteko helburua lortzea:

33. atalean aipatzen den bezala, Agenda 21eko programak laguntzeko baliabide berriak eta osagarriak eman beharko lirateke.

b) Zergaren auziaren inguruan aztertzea:

Banku komertzialek eragindako kanpoko zorrarekin harremanetan, zorraren estrategia berriari esker egiten ari diren aurrerapenak onartu egin dira eta estrategia hori azkarrago aplikatu dadin ahalegintzen ari dira. Herrialde hauetako batzuek doikuntza egokien konbinazio politikoaren edo antzeko neurrien onurak jaso dituzte eta banku komertzialekin eragindako zorrak murriztu egin dira. Nazioarteko komunitateak hauexek bultzatzen du:

- a) Bankuekin zor handiak dituzten herriek banku komertzialarekin eragindako zerga murrizteko neurri analogoak beren hartzekodunekin negoziatzea;
- b) Negoziazio horietan arituko diren taldeek herrialde zordunen funts berrien beharra eta epe ertainera zergaren murrizketa behar bezala kontuan hartzea;
- c) Zorraren nazioarteko estrategia berriari aktiboki parte hartzen duten erakunde multilateralek banku komertzialei eragindako zorrak murrizteko hartutako neurriak laguntzen jarraitzea, finantzazio horren tamaina zergaren strategiaren ebaluazioaren neurrikoa dela segurtatzeko;
- d) Banku hartzekodunek zorraren eta zorraren zerbitzuaren murrizketan parte hartzea;
- e) Inbertsio zuzena erakartzera, zorpetze sostengaezinak ekiditera eta erbesteratutako kapitala itzultzea sustatzera bideratutako politikak sendotzea.

Zordun ofizial bilateralei dagokienez eragindako zorraren arabera, Parisko Elkarrekin herrialde pobreenek eta zor gehien dituztenek arnas pixka bat har dezaten baldintza batzuk prestatu zituen; honela, baldintza hauek aplikatzeko hartutako erabakia pozik entzuteko modukoa da. "Trinidadeko baldintzetatik" eratorritako neurriak aplikatzeko uneko ahalegina ere pozik hartzekoa da; neurri hauen arabera, zordunek duten ahalmenaren proportzioan eta herrialde horietako erreforma ekonomikoentzako laguntza

osagarri diren eran ordainduko dute. Hartzekodun herrialde batzuek hasitako ekimena ere atsegin handiz hartzekoa da, izan ere, zor bilateralak murrizteko erabakia hartu dute batzuek eta hori egiteko aukera duten herrialdeek antzeko neurriak har ditzaten animatzen dituzte.

Zorraren karga handia duten eta diru-sarrera gutxi dituzten herrialdeek hartutako neurriak goratu dira, izan ere, beren zorraren zerbitzuari erantzuten eta beren kaudimena babesten jarraitzen dute kostu handiz. Beren baliabideetarako beharrei arreta berezia jarri behar zaie. Garapen bidean dauden eta beren zorraren zerbitzuarekin jarraitzeko eta kanpoko finantza-obligazioak betetzeko ahalegin berezia egiten ari diren beste herrialde batzuek ere beharrezko laguntza jaso behar dute.

Zor multilateralarekin harremanetan, beren zorra zerbitzatzeko arazo larriak dituzten eta garapen bidean dauden herrialdeentzako irtenbideak bilatzen jarraitzeko presa handia dago, batez ere beren hartzekodunak ofizialak edo finantza-erakunde multilateralak direnean.

Bereziki diru-sarrera gutxi duten eta erreforma ekonomikoaren prozesuan dauden herrialdeen kasuan, finantza-erakunde multilateralek emandako laguntza gustura hartzen da. Erakunde hauek ordainketa berrien moduan eman diete laguntza eta beren funtsak baldintza egokietan erabiltzeko aukera eman diete. Ekonomiaren erreformarako Nazioarteko Moneta Funtsak eta Munduko Bankuak babestutako programak gogo biziz aplikatzen dituzten herrialdeen atzerapenak deuseztatzeko baliabideak sustatzeko, laguntza-taldeak erabiltzen jarraitu beharra dago. Finantza-erakunde multilateralek hartutako neurrien inguruko datuak esker onez hartzen dira, esaterako, SNERi egindako diru-itzulketekin merkataritza-baldintzetan emandako maileguen interesen berfinantzazioa: "bosgarren dimentsioa" izenekoa.

Gauzatzeko bideak:

Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa

D. Garapen jasangarrira erraztuko duten politika ekonomikoak bultzatzea

Ekintzarako oinarriak:

Garapen bidean dauden herriei kalte egiten dien nazioarteko aurkako giroaren eraginez, nazioko baldintzen mobilizazioa eta nazio mailan mobilizatutako baliabideen esleipen eta erabilera eragingarria guztiz garrantzitsuak dira garapen jasangarria sustatzeko. Hainbat herrialdetan honako hauek zuzentzeko politikak behar dira: gastu publikoaren orientazio okerra, aurrekontuetako defizita eta makroekonomiaren beste desoreka batzuk, politika murriztaileak eta kanbio-tasen inguruko desitxuratzeak, inbertsioak eta finantzazioa eta enpresa-jarduerari jarritako oztopoak. Garatutako herrialdeetan politikaren etengabeko erreformak eta doitzeak, aurrezteko tasa egokien barneratzearekin batera, herrialde horietan eta garapen bidean dauden herrialdeetan garapen jasangarriaren trantsizioa laguntzeko baliabideak sortzen lagunduko dute.

Administrazio publiko eragingarri, garbi, zuzen eta arduratsuaren eta eskubide eta aukera pertsonalen arteko harremana bultzatzen duen kudeaketa egokia funtsezkoa da oinarri zabaleko garapen jasangarrirako eta garapenaren maila guztietan ekonomiaren jokabide egokirako. Herrialde guztiek bikoiztu egin behar dute beren ahalegina auzi publiko eta pribatuen kudeaketa eskasari aurre egiteko, baita ustelkeriari aurre egiteko ere; horretarako, fenomeno horren faktore eta eragileak hartu behar dira kontuan.

Garapen bidean dauden herrialde zordun askok zorraren berrantolaketarekin edo mailegu berriekin harremana duten egiturazko doitze-programak gauzatzen dituzte. Programa hauek aurrekontu fiskalaren eta ordainketa-balantzaren kontuen arteko oreka hobetzeko beharrezkoak diren arren, kasu batzuetan aurkako gizarte- eta ingurugiro-eragina sortu dute, baita osasunaren, hezkuntzaren eta ingurugiroaren babeserako sektoreentzako kredituen murrizketa ere. Garrantzitsua da egiturazko doitze-programek ingurugirorako eta garapen jasangarrirako ondorio negatiboak izan ez ditzaten arduratzea, garapen jasangarriaren helburuarekin bateragarri izan daitezen.

Jarduerak:

Herrialde bakoitzaren baldintza zehatzen arabera, beharrezkoa da garapen jasangarrirako baliabideen planifikazio eta erabilera eragingarria bultzatuko duten, baliabideen prezioak jartzeko garaian gizarte- eta ingurugiro-gastuak eta enpresa-jarduerak sustatuko dituzten eta merkataritzaren eta inbertsioen inguruko desitxuratzeeen arrazoiak deuseztatuko dituzten politika ekonomikoaren erreformak finkatzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketarekin harremana duten jarduerak:

Ekonomia-politika eragingarriak sustatzea

Herrialde industrializatuek eta honetarako baldintza egokiak dituzten herrialdeek honako atal hauetan areagotu beharko lukete beren ahalegina:

- a) Nazioarteko ekonomiaren giro egonkorra eta aurreikusi daitekeena sustatzea, batez ere monetaren egonkortasunaren, interesen benetako tasen eta oinarrizko kanbio-tasen gorabeheraren ingurukoa;
- b) Aurrezkiak bultzatzea eta defizit fiskala murriztea;
- c) Politiken koordinazio-prozesuetan garapen bidean dauden herrialdeen interesak eta kezak kontuan hartuko direla ziurtatzea, munduko ekonomian alde batera daudelako gutxien aurreratuta dauden herrialdeen ahalegina babesteko neurri positiboak sustatzeko beharra barne;
- d) Komeni diren politika nazional makroekonomiko eta egiturazkoei ekitea, hazkunde ez inflazionistak sustatzeko, beren kanpoko desoreka nagusiak murrizteko eta beren ekonomien doitze-ahalmena areagotzeko.

Garapen bidean dauden herrialdeek beren ahalegina areagotzeko aukera kontuan hartu behar lukete, ondorengo helburuak lortzeko politika ekonomiko eragingarriak aplikatzeko:

- a) Beharrezko moneta- eta zerga-dizplinari eustea, prezioen egonkortasuna eta ordainketa-balantzaren oreka sustatzeko;
- b) Errealitatearekin bat datozen kanbio-tasak bermatzea;
- c) Nazio mailan aurrezkiak eta inbertsioak areagotzea eta inbertsioen errentagarritasuna hobetzea.

Zehazki, herrialde guztiek baliabideak eragingarritasun gehiagorekin esleitzeko aukera emango luketen eta munduko ekonomiaren inguruko aldatetek eskainitako aukerak hobekien aprobetxatuko lituzteketen politikak landu beharko lituzkete. Hala dagokienean, eta nazioko estrategiak eta helburuak kontuan hartuta, herrialdeek hauxe egin beharko lukete:

- a) Progresuari inefizientzia burokratikoak, oztopo administratiboek, beharrezkoak ez

diren kontrolek eta merkatuaren baldintzen hutsegiteek eragindako oztopoak deuseztatzea;

- b) Administrazioan eta erabakiak hartzeko unean gardentasuna sustatzea;
- c) Sektore pribatua suspertzea eta enpresa-jarduera sustatzea, enpresak sortzeko eta merkatuetara sartzeko erakundeen oztopoak deuseztatuz. Garapen bidean dauden herrialde askotan enpresak sortzea eta funtzionamenduan jartzea konplikatu, garestitu eta mantsotu egiten duten murrizketak, arauak eta betebeharrak erraztea edo deuseztatzea izango litzateke funtsezko helburua;
- d) Oinarri ekologiko arrazoizko eta jasangarriaren gaineko hazkunde ekonomikorako eta dibertsifikaziorako beharrezko inbertsioak eta azpiegiturak sustatzea eta babestea;
- e) Tresna ekonomiko egokien jarduera onartzea, merkatuko mekanismoak barne, garapen jasangarriaren eta oinarrizko beharrak asetzearen inguruko helburuekin bat;
- f) Erregimen fiskalen eta finantza-sektore eragingarrien funtzionamendua sustatzea;
- g) Eskala txikiko enpresek -nekazaritza-enpresek, beste mota batzuetakoek- eta herrialde indigenek eta tokian tokiko komunitateek garapen jasangarriaren helburua lortzeko bete-betean lagun dezaten aukerak sortzea;
- h) Esportazioen aurkako eta inportazioen ordezkapen inefizientearen aldeko jarrerak deuseztatzea eta kanpoko inbertsioen korronteen onurak eskuratzen laguntzen duten politikak ezartzea, helburu sozialen eta ekonomikoen eta garapen nazionalaren esparruan;
- i) Barruko merkaturako produkzioaren eta esportatzeko produkzioaren arteko oreka optimoa erraztuko duen inguru ekonomiko nazionala sor dadin sustatzea.

b) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Garatutako herrialdeetako gobernuek, zuzenean edo nazioarteko eta lurraldeko erakundeen bitartekaritzarekin egiteko aukera duten herrialdeetakoek eta nazioarteko finantza-erakunde nagusiek garapen bidean dauden herrialdeei laguntza tekniko gehiago emateko ahalegina areagotu egin beharko lukete. Laguntza hori honetarako izango litzateke:

- a) Nazioaren politika ekonomiko lantzeko eta aplikatzeko ahalmena areagotzeko, hala eskatuko balitz;
- b) Erregimen fiskal, kontabilitate-sistema eta finantza-sektore eragingarriak sortzeko eta funtzionamenduan jartzeko;

c) Enpresa-jarduera sustatzeko.

Finantza-erakundeek eta garapen-erakundeek beren politikak eta programak aztertzen jarraitu beharko lukete, garapen jasangarriaren helburua kontuan hartuta.

Aspaldidanik onartuta dago garapen bidean dauden herrialdeen arteko ekonomia-lankidetzaz biziagoa ahaleginen osagai garrantzitsua dela, hazkunde ekonomikoa eta ahalmen teknologikoa sustatzeko eta garapenean dagoen munduko garapena bizkortzeko. Ondorioz, nazioarteko komunitateak garapen bidean dauden herrialdeen ahalegina bultzatu eta babesten jarraitu beharko luke, beren arteko ekonomia-lankidetzaz sustatzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 50 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Gaitasuna areagotzea:

Aipatu berri diren garapen bidean dauden herrialdeen politiken aldaketek nazioen ahalegin handiak eskatzen dituzte, administrazio publikoaren, banku zentralaren, administrazio fiskalaren, aurrezkien erakundearen eta finantza-merkatuen esparruan ahalmena areagotzeko.

Atal honetan definitutako lau programa-arloak praktikan jartzeko egiten diren ahalegin bereziak ingurugiroaren eta garapenaren arazoari begira justifikatzen dira, bereziki gutxien aurreratutako herrialdeek aurre egin behar dieten arazoaren bidez.

3. ATALA: Pobreziaren aurkako borroka

Programa-arloak

Pobreen trebakuntza iraupen jasangarria lortzeko

Ekintzarako oinarriak:

Pobrezia arazo konplexua eta alde askokoa da, eta jatorriz bai nazio, bai nazioarte mailakoa da. Ezinezkoa da mundu mailan aplikatu ahal izateko irtenbide uniformeak aurkitzea. Aitzitik, arazoari irtenbidea aurkitzeko, funtsezkoa da pobreziaren aurka borroka egiteko herrialde bakoitzera egokitutako programak izatea, nazioetako jarduerak babestuko dituzten nazioarteko programak izatea eta ahalegin horien onerako nazioarteko inguru egokia sortzeko prozesu paraleloa sortzea. Leku guztietan garrantzi handia izaten jarraitzen dute pobrezia eta gosea desagertarazteak, diru-sarreraren banaketan berdintasun gehiago izan dadin lortzeak eta giza baliabideek garapenak. Pobreziaren aurkako borroka herrialde guztiek komunean duten ardura da.

Baliabideen administrazio jasangarriaz gain, funtsean baliabideen kontserbazioan eta babesean zentratutako ingurugiro-politika guztietan, baliabide horien menpean bizi diren herrialdeak hartu behar dira kontuan. Bestela, politika horrek negatiboki eragin dezake pobreziaren aurkako borrokan eta, luzera begira, baliabideen eta ingurugiroaren kontserbazioan arrakasta izateko aukeran. Era berean, produkzioa oinarri duten baliabideen jasangarritasunaz arduratu gabe ondasunen produkzioa areagotzea helburu duten politika guztiek, lehenago edo geroago, produktibitatearen gutxitzeari aurre egin behar diote, eta honek ere pobrezia areagotzea eragin dezake. Ondorioz, garapen jasangarriaren oinarritzko betebeharrak bat pobreziaren aurkako estrategia zehatza izatea da. Estrategiak une berean pobreziaren, garapenaren eta ingurugiroaren arazoei aurre egiteko ahalmena izan dezan, lehenengo baliabideen produkzioan eta herrialdean zentratu beharko du, eta demografiaren, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuen hobekuntzaren, emakumeen eskubideen eta gazteen funtzioen eta herrialde indigenen eta tokian tokiko herrialdeen arazoak barne hartu beharko lituzke; gainera, administrazioaren hobekuntzari lotutako parte-hartze demokratikorako prozesua barne hartu beharko luke.

Nazioarteko laguntzaz gain, mota horretako neurriak hartu ahal izateko oinarritzkoa da garapen bidean dauden herrialdeen hazkunde ekonomikoa sustatzea; hazkunde horrek, era berean, irankorra eta jasangarria izan beharko luke. Lan-programak eta diru-sarrerak sortzeko planak sendotzearen bidez pobrezia deuseztatzeko neurri zuzenak hartzea ere oinarritzkoa da.

Helburuak:

Epe luzean guztiek ogibide jasangarria izateko helburuak integrazioarako faktorea izan behar du eta berari esker politikek une berean egingo diete aurre garapenaren, baliabideen kudeaketa jasangarriaren eta pobrezia-aren deuseztapenaren auziei. Programa-arlo honen helburuak hauek dira:

- a) Pertsona guztiek lan egiteko eta ogibide jasangarria izateko aukera izatea; helburu hau premiazkoa da;
- b) Finantzaio maila egokiak bultzatuko dituzten eta giza garapenaren politika integratuan zentratzen diren politikak eta estrategiak aplikatzea, diru-sarrerak sortzeko esparrua, baliabideek tokian tokiko kontrola areagotzea, gauzatze-mekanismo gisa gobernuz kanpoko erakundeen eta tokian tokiko agintarien parte-hartze handiagoa barne;
- c) Pobrezia jotako inguru guztietarako ingurugiroaren kudeaketa arrazoizko eta jasangarriarako, baliabideen mobilizazioarako, pobrezia-aren deuseztapenerako eta bere efektuen murrizketarako eta lanerako eta diru-sarrerak sortzeko estrategia eta programak egitea;
- d) Nazioko garapen-planetan eta aurrekontuetan, giza kapitalean inbertsio nukleoak sortzea, nekazaritza-guneetarako, hirigune pobreetara, emakumeentzako eta haurrentzako politika eta programa bereziekin.

Jarduerak:

Lanbide jasangarrien promozio integratuari lagunduko dioten jarduerak eta ingurugiroaren babesak sektore-jarduera ugari eta protagonista-talde handia hartzen dituzten beren barruan, bai herri mailan, bai mundu mailan, eta ikuspegi guztietatik dira funtsezkoak, batez ere herri eta komunitate mailan. Nazio eta nazioarte mailan beharrezkoa izango da jarduera hauek aurrera eramaten lagunduko duten eta lurraldeko eta azpilurraldeko baldintzak kontuan hartuko dituzten neurriak hartzea, dagokion herrialdeari egokitutako tokian tokiko jardueren ikuspegia defendatzeko. Oro har, programek hauxe izan behar lukete kontuan:

- a) Tokian tokiko taldeen eta talde komunitarioen ahalmena areagotzen saiatzea, agintaritza delegatzearen eta kontuak ematearen printzipioari jarraikiz, nahiko baliabide emanez, programa bakoitzak geografiaren eta ekologiaren baldintza zehatzei begira diezaien;
- b) Pobrezia aipatu berri ditugun taldeei ahalik eta gutxien eragin diezaien eta talde horiek egitura jasangarriak sor ditzaten berehalako neurriak hartzea;

Epe luzera, herri, lurralde eta nazio mailan pobrezia deuseztatuko lukeen eta biztanleen arteko desberdintasunak murriztuko lituzkeen garapen jasangarria sortzeko baldintza onenak ezartzeko helburua izango lukeen estrategia prestatzea. Programek gizarte-egoera ahuleko taldeei -batez ere emakumeei, haurrei eta gazteei- eta errefuxiatuei eman behar diete laguntza. Talde horien artean hauek ere egongo dute: jabe txikiak, artzainak, eskulangileak, arrantzaleen komunitateak, lurrik gabeko familiek, komunitate autoktonoak, migranteak eta egituratu gabeko hiriko ekonomia-sektoreak.

Hainbat sektore barne hartuko dituen neurri zehatzak hartzea ezinbestekoa da, bereziki oinarrizko hezkuntzan, osasunaren lehen mailako arretan, amei egin beharreko arretan eta emakumearen promozioan.

a) Komunitateei agintea ematea:

Garapen jasangarria gizarteko maila guztietan lortu behar da. Herri erakundeak, emakumeen taldeak eta gobernuz kanpoko erakundeak berrikuntza-iturri eta herri mailako ekintzetarako iturri garrantzitsuak dira, eta, biziraupen jasangarria bultzatzeko interes berezia izateaz gain, frogatutako ahalmena dute alor horretan. Gobernuek, nazioarteko eta gobernuz kanpoko erakunde egokiek lankidetzan, jasangarritasunaren ikuspegi komunitarioa sustatu beharko lukete. Beste batzuen artean, ikuspegi honek elementu hauek hartu beharko lituzke kontuan:

- a) Emakumeari agintea ematea, erabakiak hartzeko prozesuetan partaidetza osoa izatearen bidez;
- b) Herrialde indigenen eta beren komunitateen kulturaren segurtasuna eta eskubideak errespetzea;
- c) Mekanismo herrikoiak sustatzea edo sortzea, komunitateak beren esperientzia eta ezagutzak partekatzeko;
- d) Garapen jasangarrian eta tokian tokiko baliabide naturalen babesean komunitateen partaidetza areagotzea, beren produkzio ahalmena areagotzeko;
- e) Ikasketa-zentro komunitarioen sarea sortzea, ahalmena areagotzeko eta garapen jasangarria sustatzeko.

b) Kudeaketarekin harremana duten jarduerak:

Gobernuek, nazioarteko erakundeen, gobernuz kanpoko erakundeen eta tokian tokiko erakunde komunitario egokien laguntzarekin eta lankidetzarekin, bai zuzenean, bai zeharka,

honakoa lortzeko neurriak hartu beharko lituzkete:

- a) Herrialde bakoitzaren elementuekin bateragarri diren lan ordaindurako eta lan produktiborako nahiko aukera sortzeko neurriak, lan indarraren aldi baterako handitzeari aurre egiteko eta metatutako eskaera xurgatzeko;
- b) Hala dagokienean, nazioartearen laguntzarekin, dagozkien azpiegiturak, merkataritza-sistemak, teknologia-sistemak, kreditu-sistemak eta antzeko sistemak ezartzeko neurriak. Horrez gain, beharrezko giza baliabideak eratzeko neurriak, aurretik aipatutako neurriei eusteko eta baliabide gutxi dituen jendeari eskaintzeko. Oinarrizko hezkuntzari eta lanbide heziketari eman behar zaie lehentasuna;
- c) Ekonomikoki errentagarriak diren baliabideen produktibitatea asko gehitzeko eta tokian tokiko biztanleek baliabideen erabileratik etekinak ateratzeko neurriak;
- d) Erakunde komunitarioek eta herriak oro har ogibide jasangarria izateko ahalmena emateko aukera izan dezaten neurriak;
- e) Osasunerako eta amen zerbitzurako lehen mailako arretarako sistema martxan jartzeko neurriak; guztiek eduki beharko lukete hauetara sarbidea;
- f) Esparru juridiko berriak sortzeko edo indartzeko aukera kontuan hartzeko neurriak, lurraren kudeaketarako eta baliabideetara eta lurraren jabegora -batez ere emakumeak- iristeko eta bertakoei babes emateko;
- g) Ahal den neurrian, hondatutako baliabideak birgaitzeko neurriak eta politikako neurriak sartu ahal izateko neurriak, gizakien oinarrizko beharrak asetzeko beharrezkoak liratekeen baliabideen erabilera jasangarria sustatzeko;
- h) Mekanismo komunitario berriak sortzeko eta aurretik daudenak indartzeko neurriak, komunitateek behartsuek beren pobrezia-egoerari aurre egiteko behar dituzten baliabideetara sarbidea izateko;
- i) Herriaren partaidetzarako -bereziki pobreen eta batik bat emakumeen partaidetzarako- mekanismoak martxan jartzeko neurriak, tokian tokiko talde komunitarioetan garapen jasangarria sustatzeko asmoz;
- j) Berehala, eta herrialde bakoitzeko baldintza eta sistema juridikoen arabera, emakumeek eta gizonek beren seme-alaben kopurua eta banaketa modu librean eta arduratsuan erabakitzeko eta informaziora, hezkuntzara eta medioetara iristeko eskubide bera izatea lortzeko neurriak aplikatu beharko dira; eskubide horiek askatasunarekin, duintasunarekin eta balio pertsonalekin bat etorri beharko lukete, etika eta kultura iritziak kontuan hartuta. Gobernuak neurri aktiboak hartu beharko

lituzkete osasun prebentiboaren eta sendagarriaren zerbitzuak jartzeko eta sendotzeko programak gauzatzeko; zerbitzu horien barruan hauek egon beharko lukete: ugalketa-osasunerako zerbitzu seguruak eta eragingarriak, emakumeari begira sortuak eta emakumeak administratuak eta, azkenik, familiaren tamainaren inguruko planifikazio arduratsuaren zerbitzu eskuragarriak eta sartzen errazak, askatasunarekin, duintasunarekin eta balio pertsonalekin bat etorriko direnak eta etika eta kultura iritziak kontuan hartuko dituztenak. Programa hauek osasun zerbitzu orokorretan zentratu beharko lukete, jaio aurreko atentzioa eta osasunaren eta aitatasun arduratsuaren inguruko hezkuntza eta informazioa barne. Horrez gain, emakume guztiei beren seme-alabei bularra emateko aukera eman beharko lieke, gutxienez haurra jaio eta lehen lau hilabeteetan. Programa hauek emakumearen funtzio produktiboak eta erreproduktiboak babestu beharko lituzkete, baita beren ongizatea ere, eta haur guztiei baldintza beretan osasun zerbitzurik onenak eskaintzeko arreta berezia jarri beharko lukete; amen eta haurren artean hilkortasun- eta gaixotasun-arriskuak gutxitzeko beharra ere hartu beharko lukete kontuan;

- k) Hiriguneen kudeaketan jasangarritasuna nagusi izango litzatekeen politika integratuak egiteko neurriak;
- l) Elikadura-segurtasuna eta, dagokien kasuan, nekazaritza jasangarriaren inguruan elikaduran autosufizientzia sustatzeko jardueri ekiteko neurriak;
- m) Ingurugiroaren ikuspegitik bideragarri izan daitezkeela frogatutako produkzioarako metodo tradizionalen inguruko eta metodo horien integrazioaren inguruko ikerketak babesteko neurriak;
- n) Egituratu gabeko sektorearen jardueran ekonomian aktiboki onartzeko eta integratzeko neurriak. Horretarako sektore horretako jarduerak baztertzen dituzten araudi eta oztopo guztiak deuseztatu beharko lirateke;
- o) Egituratu gabeko sektorearentzako kreditu-lineak eta beste hainbat erraztasun ireki daitezen aztertzeko neurriak. Era berean, pobreek lurra eskuratu ahal izateko aukerak hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke, produzitzeko modua izan dezaten eta baliabide naturalak eskuratzeko aukera segurua izan dezaten. Kasu askotan, emakumearen egoerari arreta berezia jarri beharko litzaioke. Bideragarritasun-ebaluaketa zorrotzak egin behar dira maileguak jasotzen dituztenek zorrak eragindako krisiak izatea ekiditeko;

- p) Pobreei edateko ur- eta saneamendu-zerbitzua emateko neurriak;
- q) Pobreei oinarrizko hezkuntza emateko neurriak.

c) Datuak, informazioa eta ebaluazioa:

Gobernuek hobetu egin beharko lukete laguntza jaso behar luketen taldeen eta esparruen inguruko informazio bilketa, euri begira prestatuko diren eta euren behar eta asmoekin bateragarri izango diren programak eta jarduerak gauza daitezen errazteko. Programa horien ebaluazioan emakumearen egoera hartu beharko litzateke kontuan, izan ere emakumeak bereziki mespretxatutako taldea dira.

d) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailan:

Nazio Batuen sistemak, bere organoen eta dagokien erakundeen bidez, eta kide diren estatuen, nazioarteko erakundeen eta gobernu kanpoko erakundeen lankidetzarekin, pobrezia arintzeari lehentasuna emateaz gain, honakoa egin beharko luke:

- a) Hala eskatuko balute, gobernuei pobrezia arintzeko eta garapen jasangarrirako ekintza-programa nazionalak egiten eta gauzatzen laguntzea. Honen inguruan, arreta berezia jarri beharko litzateke helburu horiekin harremana duten jardueretan. Jarduerak hauek izango lirateke: pobrezia deuseztatzea eta proiektu eta programa osagarriak egitea, behar izanez gero elikaduraren inguruko laguntzarekin. Horrez gain, enplegua eta diru-sarrerak sortzea babestu beharko litzateke;
- b) Pobrezia deuseztatzeko jardueretan garapen bidean dauden herrialdeen lankidetzaren teknika sustatzea;
- c) Nazio Batuen sistemaren egitura indartzea, pobrezia deuseztatzeko helburua duten neurriak koordinatzeko. Errepika daitezkeen pobrezia-aren aurkako proiektu esperimentalak egiteko eta gauzatzeko eta informazioa trukatzeko koordinazio-zentroak sortzea atal honen barruan sartuko litzateke;
- d) Agenda 21 aplikatzeko kontrol-jardueretan, pobrezia deuseztatzeko emandako aurrerapausoen azterketei lehentasuna ematea;
- e) Nazioarteko egoera ekonomikoa aztertzea, baliabideen korranteak eta egitura doitzeko programak barne, honen barruan ardura sozialak eta ingurugiroarekin harremana duten ardurak kontuan hartuko liratekeela ziurtatzeko. Honen inguruan, nazioarteko erakundeen, organoen eta organismoen politika aztertzea -finantza-

erakundeen politikak barne- pobreei eta behartsuei oinarrizko zerbitzuak bermatzeko;

- f) Nazioarteko lankidetzaren sustatzea pobrezia-aren oinarrizko zergatien aurre egiteko. Garapenaren prozesuak ez du bultzadarik izango garapen bidean dauden herriek kanpoko zorrengatik larrituta jarraitzen duten bitartean, garapenerako finantzazioa eskasa den bitartean, merkatuetako sarbidea mugatzen duten oztopoak dauden bitartean eta oinarrizko produktuen prezioak eta trukerako baldintzak hobetzen ez diren bitartean.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 30.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 15.000 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Kalkulu hauek Agenda 21eko beste zati batzuetako kalkulu batzuekin bat datoz. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberrakoak izango dira.

b) Gaitasuna areagotzea:

Aipatutako jarduerak aurrera eramateko herrialdeen gaitasuna areagotzea oso garrantzitsua da eta lehentasun handia izan behar du. Garrantzi berezia du herrietako komunitate mailan gaitasuna areagotzeak, jasangarritasunari ikuspegi komunitarioa emateko eta esperientziak eta ezagutzak nazio eta nazioarte mailan talde komunitarioen artean trukatzeko aukera emateko mekanismoak ezartzeko eta sendotzeko. Jarduera horiek aurrera eramateko beharrak handiak dira eta Agenda 21eko hainbat sektoreri dagokie; beraz, nazioarteko laguntza behar dute, bai finantza-laguntza, bai laguntza teknologikoa.

4. ATALA: Kontsumo-moten bilakaera

Atal honetan programa-arlo hauek daude:

- a) Produkzio- eta kontsumo-mota eutsiezinen auzia;
- b) Politika eta estrategia nazionalak lantzea, kontsumo-mota eutsiezinen transformazioa sustatzeko.

Kontsumo-moten aldaketaren auziak nahiko izaera zabala duenez, Agenda 21en hainbat zatitan aipatzen da, batez ere energiaren, garraioaren eta hondakinen inguruko ataletan; baita ekonomiarako baliabideen eta teknologiaren transferentzien inguruko ataletan ere. Halaber, atal hau 5. atalarekin (dinamika demografikoa eta jasangarritasuna) batera irakurri behar da.

Programa-arloak

A. Produkzio- eta kontsumo-mota eutsiezinen auzia

Ekintzarako oinarriak:

Pobreziaren eta ingurugiroaren degradazioaren artean harreman estua dago. Pobreziak ingurugiro-tentsio mota batzuk sortzen ditu eta munduko ingurugiroa hondatzen jarraitzeko arrazoi nagusiak kontsumo- eta produkzio-mota eutsi ezinak dira, batez ere industrializatutako herrialdeetan; hauek kezka sortzeko arrazoi larriak dira eta pobrezia eta desoreka areagotu egiten dute.

Ingurugiroa babesteko eta hobetzeko nazioartean hartu beharko liratekeen neurrien eredu gisa, mundu mailan kontsumo- eta produkzio-motetan gaur egun dauden desorekak guztiz hartu behar dira kontuan.

Kontsumo eutsiezinak sortutako baliabide naturalen eskaerari arreta berezia jarri behar zaio, baita baliabide horien erabilera eragingarriari ere, baliabide horien amaiera ahalik eta gehien murrizteko eta kutsadura gutxitzeko helburuarekin batera. Munduko leku batzuetan kontsumoa oso altua den arren, gizateriaren kontsumorako oinarrizko beharrak ase gabe geratzen dira. Horrek hauxe esan nahi du, segmentu aberatsetan bizitza-mota eutsiezina eta gehiegizko eskaera daudela, eta ingurugiroan presio izugarriak ezartzen dituzte. Bien bitartean, segmentu pobreenek ezin izaten dituzte beren elikadurako, osasunerako, etxebizitzako eta hezkuntzako beharrak ase. Kontsumo-moten transformatzeak eskaeran zentratutako era askotako helburuen estrategiak eratzeko, pobreen oinarrizko beharrak asetzeko eta produkzio-prozesuetan xahutzearen eta baliabideen erabilera mugatua murrizteko eskatzen du.

Kontsumo-arazoen garrantzia geroz eta onartuago dagoen arren, oraindik ez dira ongi ulertzen bere eraginak. Ekonomista batzuek ekonomiaren hazkuntzaren kontzeptu tradizionalak zalantzan jartzen ari dira eta baliabide naturalen balioa guztiz kontuan hartuta helburu ekonomikoak ezartzea garrantzitsuagoa dela nabarmentzen ari dira. Hazkunde ekonomikoarekin eta ekonomia demografikoarekin harremanetan, kontsumoaren funtzioari buruz gehiago jakitea beharrezkoa da, nazioarteko eta nazioko politika koherenteak egiteko.

Jarduerak:

Beharrezkoa da ondorengo helburu orokor hauek lortu ahal izateko neurriak hartzea:

- a) Ingurugiroari jasanarazten zaizkion tentsioak murrizten eta gizateriaren oinarrizko beharrei erantzuten laguntzen duten produkzio- eta kontsumo-motak sustatzea;

- b) Kontsumoak duen funtzioa ulertzea eta kontsumo-mota jasangarriagoak sortzeko moduak hobetzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketarekin harremana duten jarduerak:

Nazioarteko ikuspegia izatea, kontsumo-mota jasangarria ezartzeko.

Hasiera batean, herrialdeek ondorengo oinarrizko helburuei jarraitu behar diete kontsumoko auziei eta garapenaren inguruan eta ingurugiroan bizitza-estiloari aurre egiteko beren ahaleaginean:

- a) Herrialde guztiek kontsumo-mota jasangarria bultzatzen saiatu behar dute;
- b) Garatutako herrialdeek kontsumo-mota jasangarria lortzen lehenak izan behar dute;
- c) Garapen bidean dauden herrialdeek garapenaren beren prozesuan pobreen oinarrizko beharrak asetu egingo direla bermatuko duten kontsumo-mota jasangarriak ezartzen saiatu behar dute eta kontsumo-mota eutsiezinak ekidin behar dituzte, batez ere herrialde industrializatuenean, normalean ingurugiroarentzako kaltegarriak direlako, eraginkorrak ez direlako eta gehiegizko gastuak eragiten dituztelako. Honek herri industrializatuen teknologiaren laguntzaren eta beste mota batzuetako laguntzaren beharra areagotu egiten du.

Agenda 21 gainbegiratzeko garaian, kontsumo-mota jasangarrien ondorioz lortutako aurrerapenaren azterketari lehentasuna emango zaio.

b) Datuak eta informazioa:

Kontsumoaren inguruko ikerketak egitea

Estrategia orokor honi babesa emateko helburuarekin, politikak formulatzeaz arduratzen diren gobernuek edo ikerketarako erakunde pribatuek, interesaturik dauden lurraldeko eta nazioarteko ekonomia- eta ingurugiro-erakundeekin elkarlanean, ondorengoa egiteko ahalegin berezia egin beharko lukete:

- a) Produkzioaren eta kontsumoaren inguruko datu-basea handitzea edo sustatzea eta aztertze metodoak garatzea;
- b) Produkzioaren eta kontsumoaren, ingurugiroaren, berrikuntzaren eta egokitzapen

teknologiaren, ekonomiaren hazkundearen eta garapenaren eta faktore demografikoen arteko harremana ebaluatzea;

- c) Materialen dentsitate altuko hazkunde ekonomikoa alde batera uzten ari diren ekonomia industrial modernoaren egituretan egun gertatzen ari diren aldaketen eraginak aztertzea;
- d) Ekonomia zein modutan hazi daitekeen, zein modutan egin dezakeen aurrera eta, era berean, energiaren eta materialaren erabilera eta material kaltegarrien produkzioa zein modutan murrizten duen kontuan hartzea;
- e) Mundu osoan, epe luzera Lurrak jasan ahal izango dituen kontsumo-mota orekatuak zehaztea. Hazkunde ekonomikoa jasagarriaren eta oparotasunaren kontzeptu berrien garapena.

Hazkunde ekonomikoaren egungo kontzeptuak eta aberastasun eta oparotasun kontzeptu berriak sortzeko beharra kontuan hartu beharko lirateke; kontzeptu berri horrek bizitza estiloen aldaketaren bidez bizi-maila hobetzen lagundu beharko luke, Lurraren baliabide mugatuaren menpe gutxiago egon beharko luke eta bere ahalmerarekin bat etorri beharko luke. Honek kontu nazionalen eta garapen jasagarriaren beste adierazle batzuen sistema berrien sorrera islatzen du.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko mailan:

Faktore ekonomikoak eta demografikoak eta garapeneko faktoreak aztertzeko nazioarteko sistemak badauden arren, beharrezkoa da kontsumo- eta produkzio-motek, bizitza-estilo jasagarriek eta ingurugiroari buruzko auziei kasu gehiago egitea.

Agenda 21en aplikazioa gainbegiratzeko garaian lehentasuna eman beharko zaie funtzioaren azterketari eta produkzio- eta kontsumo-motek ondorioek eta jasagarriak ez diren bizitza-estiloek eta garapen jasagarriekin duten harremanak.

d) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak adierazi duenez, programa hau gauzatzeko ez da finantza-baliabide osagarri asko behar.

B. Politika eta estrategia nazionalak lantzea kontsumo-mota eutsiezinaren transformazioa sustatzeko

Ekintzarako oinarriak:

Ingurugiro-kalitatearen eta garapen jasangarriaren helburuak lortzeko, produkzioan eraginkortasuna eta kontsumo-motan aldaketa beharko dira, baliabideen erabilera ezin hobeari eta hondakinak ahalik eta gehien murrizteari lehentasuna emateko. Kasu askotan, horrek dauden produkzio- eta kontsumo-motak -industria-elkarteek garatu dituztenak eta munduko leku gehienetan imitatzen direnak- berriro orientatzeko eskatuko du.

Azkenaldian sortzen ari diren joera eta orientazio positiboak indartuz, progresua lortzea posible da, industriaren, gobernuen, familien eta pertsonen kontsumo-mota era nabarmenean aldatzea helburua duen proiektuaren zati gisa.

Jarduerak:

Datozen urteotan, gobernuak, dagokien erakundeekin elkarlanean, helburu zabal hauek lortzeko ahalegina egin behar lukete:

- a) Produkzio-prozesuetan eraginkortasuna sustatzea eta hazkunde ekonomikoaren prozesuan kontsumo antiekonomikoa murriztea, garapen bidean dauden herrialdeen beharrak kontuan hartuta;
- b) Produkzio- eta kontsumo-mota jasangarriagoetara iristeko aldaketa areagotuko lukeen politikaren egitura nazionala garatzea;
- c) Batetik, produkzio- eta kontsumo-mota jasangarriak bultzatuko lituzketen balioak eta, bestetik, garapen bidean dauden herrialdeei ekologikoki arrazoizkoa den teknologia transferitzea sustatuko luketen politikak indartzea.

Jarduerak:

a) Energiaren eta baliabideen erabilera eraginkortasun gehiagoz egin dadin sustatzea:

Ondasunen eta zerbitzuen produkzioan unitateko erabiltzen den energiaren eta material kopuruaren murrizketak ingurugiroko tentsioa arintzen eta produktibitate eta lehiakortasun ekonomikoa eta industrialak areagotzen lagun dezake era berean. Horrenbestez, gobernuak, industria-sektorearen laguntzarekin, energia eta baliabideak ekonomikoki era eragingarriagoan

eta ekologikoki arrazionalagoan erabiltzeko ahalegina areagotu egin beharko lukete. Hori guztia ondorengoaren bidez lortu beharko litzateke:

- a) Dagoeneko badauden eta ekologikoki arrazoizkoak diren teknologiak hedatu daitezkeen sustatuz;
- b) Ekologikoki arrazoizkoak diren teknologien ikerketa eta garapena bultzatuz;
- c) Garapen bidean dauden herrialdeei laguntza emanez, teknologiak modu eraginkorren erabil ditzaten eta beren egoera zehaztutara hobekien egokitzen diren teknologiak garatu ditzaten;
- d) Energia iturri berrien eta berriztagarrien ekologikoki arrazoizko erabilera sustatuz;
- e) Baliabide natural berriztagarrien ekologikoki arrazoizko erabilera eta erabilera jasagarria bultzatuz.

b) Hondakinen eraketa ahalik eta gehien murriztea:

Era berean, gizarteak bitarteko eragingarriak garatu behar ditu geroz eta handiagoak diren material eta hondakin-produktu kopuruak deuseztatzeko arazoari aurre egiteko. Gobernuak - industria-sektorearekin batera-, familia-unitateek eta oro har jendeak adostutako ahalegina egin behar dute geroz eta hondakin eta hondakin-produktu gutxiago sortzeko. Hori guztia ondorengoaren bidez lortu beharko litzateke:

- a) Prozedura industrialaren eta kontsumitzailearen mailan birziklatzea sustatuz;
- b) Ontziratze eta paketatze garaian beharrezkoak ez diren materialak murriztuz;
- c) Ikuspegi ekologikoki arrazoizkoagoak diren produktuak sar daitezkeen sustatuz.

c) Ekologikoki arrazoizkoak diren erosketa-erabakiak hartzeko jendeari eta familiei laguntzea:

Indartu beharreko gertaera esanguratsuetako bat herrialde askotan sortu den kontsumitzaile-talde berria da; kontsumitzaile hauek ekologiaren ikuspegitik kontzienteagoak dira. Hori kontsumo ekologikoki arrazoizkoaren barruko produktuak merkaturatzeko geroz eta interes handiagoa duten industria-sektoreko talde batzuk gehitu behar zaizkio. Gobernuak eta nazioarteko erakundeek, sektore pribatuarekin batera, irizpideak eta metodoak garatu behar

dituzte, prozesu osoan zehar eta produktuen bizitza-ziklo guztian ingurugiroan sortutako eraginak eta baliabideen beharrak ebaluatzeko. Ebaluazio horren emaitzak adierazle argiekin jakinarazi behar dira kontsumitzaileak eta erabakiak hartu behar dituztenak informatzeko.

Gobernuek, industria-sektoreen eta beste talde interesatuen laguntzarekin, ingurugiroarekin harremana duten produktuetan argibide ekologikoak dituzten etiketatzeak eta informazio-programak sendotu behar dituzte, kontsumitzaileak zerbaitetan oinarritutako aukeraketa egiteko aukera izan dezan.

Horrez gain, gobernuek kontsumitzaile informatua heda dadin ere sustatu behar dute eta pertsoneri eta familia-unitateei ekologian oinarritutako aukeraketa egiten lagundu behar diete. Hori guztia ondorengoaren bidez lortu beharko litzateke:

- a) Kontsumoari dagozkion aukerak eta jokaerak dituzten ondorioei buruzko informazioa emanaz, ekologikoko arrazoizkoak diren produktuen erabilera eta eskaera sustatzeko;
- b) Kontsumitzaileengan produktuek osasunean eta ingurugiroan duten eraginari buruzko kontzientzia sortuz, horretarako kontsumitzailearen babeserako legeak eta ekologiararen inguruko argibideak dituzten etiketak erabiliz;
- c) Espresuki kontsumitzaileari begira prestatutako programak sustatuz, hala nola birziklatzea, ordainketa-sistemak eta ontzika dirua itzultzeko gordailu-sistemak.
- d) Gobernuen erosketen bitartez egindako gidaritzaren bidez

Gobernuek ere beren papera jokatzen dute kontsumoan, bereziki sektore publikoak ekonomian leku nagusia duen herrialdeetan, eta enpresa-erabakietan eta jendearen iritzietan eragin nabarmena izan dezake. Horrenbestez, gobernu horiek beren organismoen eta sailen erosketak ikuskatu beharko lituzkete, ahal den neurrian beren erosketa-politiken alde ekologikoa hobetzeko moduan, nazioarteko merkataritzaren printzipioen aurreiritzirik gabe.

d) Ekologikoki arrazoizkoak diren prezioak jartzeko promozioa:

Produzitzaileari eta kontsumitzaileari energiaren, materialen eta baliabide naturalen kontsumoak eta hondakinen eraketak ordezkatzan duten gastu ekologikoaren berri ematen ez dieten prezioen pizgarririk eta merkatuaren argibiderik gabe, dirudienez, etorkizun hurbilean ezin izango da kontsumo- eta produkzio-moten aldaketa esanguratsurik lortu.

Bitarteko ekonomiko egokien erabilerarekin, kontsumitzailearen jokaeran eragina izaten hasi dira. Bitarteko horien artean, besteak beste, ingurugiro-kargak eta -zergak, ordainketa-sistemak eta gordailuen diru-itzultzeak daude. Prozesu hau herrialde bakoitzaren baldintzak kontuan hartuta bultzatu beharko litzateke.

e) Garapen jasagarria lagunduko duten balioak indartzea:

Gobernuek eta sektore pribatuko erakundeek kontsumo jasangarrirantz jokaera positiboagoak sustatu beharko lituzteke honakoaren bidez: hezkuntzaren bidez, publikoak kontzientzia hartzeko programen bidez eta ekologikoki arrazoizkoak diren teknologiak erabiliko lituzketen edo produkzio- eta kontsumo-mota jasagarria bultzatuko luketen produktuen eta zerbitzuen publizitate positiboaren eta antzeko bitartekoen bidez. Agenda 21en aplikazioa aztertzeke garaian, politika eta estrategia nazional horien garapenean lortutako progresua ebaluatzeke aukera behar bezala hartu beharko litzateke kontuan.

Gauzatzeko bideak:

Programa honen oinarrizko interesa kontsumo- eta produkzio-mota eutsiezinen aldaketan datza eta kontsumo-motak eta bizitza-mota jasagarriak bultzatzen dituzten balioetan. Gobernuen, kontsumitzaileen eta produzitzaileen ahalegin bateratua eskatzen du horrek. Emakumeek eta familiek kontsumitzaile gisa jokatzeko duten paperari eta beren erosketahalmen konbinatuak ekonomian izan dezakeen eraginari aparteko garrantzia eman behar zaie.

5. ATALA: Dinamika demografikoa eta jasangarritasuna

Atal honetan hiru programa-arlo daude:

- a) Joera eta faktore demografikoen eta garapen jasangarriaren artean dagoen harremanaren inguruko ezagutza garatzea eta hedatzea;
- b) Ingurugiro- eta garapen-politika integratuak formulatzea, joera eta faktore demografikoak kontuan hartuta;
- c) Herri mailan ingurugiro eta garapenaren programa integratuak gauzatzea, joera eta faktore demografikoak kontuan hartuta.

Programen arloak

A. Joera eta faktore demografikoen eta garapen jasangarriaren artean dagoen harremanaren inguruko ezagutza garatzea eta hedatzea

Ekintzarako oinarriak:

Joera eta faktore demografikoen eta garapen jasangarriaren artean harreman sinergikoa dago.

Munduko populazioaren hazkundearen eta produkzioaren eta kontsumo-mota eutsiezinen arteko konbinazioak geroz eta presio larriagoak eragiten ditu bizitzari eusteko Lurraren ahalmenean. Prozesu interaktibo horiek lurraren, uraren, airearen, energiaren eta beste baliabide batzuen erabilerari eragiten diote. Kudeaketa zuzena ez denean, azkar hazten diren herriek ingurugiroaren alorreko arazo handiak izaten dituzte. Hirien kopurua eta tamaina handitzeak herriko gobernuaren eta udal kudeaketaren auziei arreta handiagoa jartzeko eskatzen dute. Giza faktoreak funtsezko elementuak dira harremanen sare korapilatsu honen azterketarako eta kontuan hartu beharko lirateke garapen jasangarrirako politikak behar bezala formulatzeko. Politika horietan joera eta faktore demografikoen arteko harremanei, baliabideen erabilerari, teknologiaren hedapen egokiari eta garapenari erreparatu beharko litzaieke. Herrietako politiketan gizakiek ingurugiroan eta garapenean duten eragina ere kontuan hartu beharko litzateke. Beharrezkoa da alde honen ulermena areagotzea, maila guztietan erabakiak hartzen dituztenen artean, eta nazio- eta nazioarteko-politikek oinarritzat har dezaketen informazioa hobeto ematea. Informazio hori interpretatzeko kontzeptuzko egoera sortzea ere beharrezkoa da.

Ezinbestekoa da ingurugiroan gizakiaren jarduerak eragiten duten efektu kaltegarria eta giza

populazioan ingurugiroaren aldaketek eragindako efektu kaltegarriak arintzeko estrategiak garatzea. 2020an munduan 8.000 milioi biztanle izatea espero da. Dagoeneko, munduko biztanleen % 60 kostaldean bizi da eta 2,5 milioi biztanle baino gehiago dituzten hirien % 65 munduko kostaldeetan daude kokatuta; horietako asko itsasoaren gaur egungo mailan edo itsasoaren maila baino beherago daude.

Jarduerak:

Ahal bezain azkar ondorengo helburuak lortu beharko lirateke:

- a) Joera eta faktore demografikoak ingurugiroarekin eta demografiarekin harremana duten gaien munduko azterketetan sartzea;
- b) Dinamika demografikoaren, teknologiaren, kulturaren portaeraren, baliabide naturalen eta bizitzari eusten dioten sistemen artean dagoen harremana hobeto ulertzea;
- c) Sentsibilitate ekologiko handiko eremuetan eta herriguneetan giza urrakortasuna ebaluatzea, komunitateak finkatutako beharrak kontuan hartuta, maila guztietan jarduerak gauzatzeko lehentasunak zehazteko.

Jarduerak:

Joera eta faktore demografikoen eta garapen jasangarriaren arteko elkarreragina ikertzea.

Nazioarteko, lurraldeko eta nazioko erakundeek honako jarduera hauek gauzatzeko aukera hartu beharko lukete kontuan:

- a) Prozesu demografikoen, baliabide naturalen eta bizitzari eusten dioten sistemen artean sortzen diren elkarreraginak zehaztea, besteak beste garapenaren maila desberdinengatik sortzen duten lurraldeko eta azpilurraldeko aldaerak kontuan hartuta;
- b) Ingurugiroaren aldaketei buruz egiten ari diren lanean, joera eta faktore demografikoak integratzea, nazioarteko, lurraldeko eta nazioko ikerketa-sareen ezagutza espezializatua erabiliz, batetik, ingurugiroaren aldaketetan gizakiaren garrantzia ikertzeko eta, bestetik, gune urrakorrak identifikatzeko;
- c) Batetik, ekintzarako lehentasuna duten guneak zehaztea eta, bestetik, giza populazioarengan ingurugiroaren aldaketak sortutako eraginak eta ingurugiroan giza populazioaren aldaketak sortutako eraginak arintzeko estrategiak eta programak

lantzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarra idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 2 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Biztanleen, ingurugiroaren eta garapenaren auziak barne hartzen dituzten ikerketen programak indartzea:

Diziplinarteko ikerketak gehitu egin beharko lirateke, analisi demografikoa gizarte-zientzietan oinarritutako ingurugiroaren eta garapenaren ikuspegi zabalagoan integratzeko asmoz. Erakundeek eta nazioarteko adituen sareek hobetu egin beharko lukete beren ahalmen zientifikoa, komunitateen esperientzia eta ezagutzak guztiz kontuan hartuta, eta diziplinarteko ikuspegiak aplikatzerakoan eta teoria eta praktika elkartzekoan bereganatutako esperientzia hedatu beharko lukete.

Ereduak formulatzeko modu hobekak landu beharko lirateke, gaur egungo giza jardueren emaitza posibleak aurreikusteko, bereziki atal hauen emaitzak aurreikusteko: joera eta faktore demografikoekin harremana duten efektuak, biztanleko baliabideen erabilera eta aberastasunaren banaketa. Horrez gain, geroz eta maizago gertatzen diren fenomeno klimatikoek eta ingurugiroaren aldaketa metatuek tokian tokiko bizibideak deusezta ditzaketenez, hauen emaitza gisa espero daitezkeen korrante migratorio nagusiak aurreikusteko erreduak formulatzeko modu hobekak beharko lirateke.

c) Informazioa sustatzea eta hedatzea:

Informazio soziodemografikoari itxura egokia eman beharko litzaioke datu fisikoekin, biologikoekin eta sozioekonomikoekin harremanetan jartzeko. Bateragarri diren leku- eta

denbora-eskalak, informazio geografiko eta kronologikoa eta tokian tokiko iritzi eta jarretan oinarritutako jokabideen munduko adierazleak ezartzea ere komeni da.

Baliabide erabilgarriak modu eragingarrian administratzeko beharraren inguruan, jendea maila guztietan sentsibilizatu beharko litzateke, beren erabilera jasangarria segurtatzeko, garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleen garapenerako beharrak kontuan hartuta.

Emakumearen baldintzak hobetzearen eta herriaren dinamikaren artean dauden oinarritzko loturei buruzko jendearen informazioa gehitu egin beharko litzateke. Hori emakumea atal hauetan sartuz bideratu beharko litzateke: hezkuntzan, osasunaren eta ugalketa-garbitasunaren lehen mailako arreta-programetan, independentzia ekonomikoan eta erabakiak hartzeko prozesuen etapa guztietan baldintza beretan izan beharreko partaidetza eragingarrian.

Garapen jasangarriarekin harremana duten atalen inguruan egindako ikerketen emaitzak hedatu egin beharko lirateke, txosten teknikoen, argitalpen zientifikoek, hedabideen, ikastaro praktikoen, bileren eta beste modu batzuen bidez, iritzi publikoa jakinaren gainean egoteko eta erabakia hartu behar izaten dituzten funtzionarioek maila guztietan aplikatu ahal izateko.

d) Erakundeen gaitasuna eta lankidetzaren garatzea edo hobetzea:

Dagokienaren arabera, bai herrialde industrializatuak, bai garapen bidean dauden herrialdeetako ikerketa-erakundeak eta nazioarteko, lurraldeko, nazioarteko eta beste sektore guztietako (sektore pribatua, tokian tokiko komunitateak, gobernu kanpoko erakundeak eta zientzia-erakundeak) organoen arteko lankidetzaren eta informazio trukaketa areagotu egin beharko lirateke.

Garapen bidean dauden herrialdeetako nazio- eta herri-agintarien, sektore pribatuaren eta gobernu kanpoko erakundeak ahalmena areagotzeko ahalegina bikoiztu egin beharko litzateke, oso azkar hedatzen ari diren hiriguneetako kudeaketa hobetzeko dagoen geroz eta behar handiagoari aurre egiteko.

B. Ingurugiro- eta garapen-politika integratuak formulatzea, joera eta faktore demografikoak kontuan hartuta

Ekintzarako oinarriak:

Orokorrean, garapen jasagarria sustatzeko planetan dauden joera eta faktore demografikoak kontsumoaren, produkzioaren, bizitza-motaren eta jasagarritasunaren jarraibideetan epe luzera eragin kritikoa duten elementuak direla onartuta dago. Hala ere, etorkizunean beharrezkoa izango da politika orokorrak formulatzeko eta garapen-planak egiteko unean auzi hauei kasu gehiago egitea. Hala behar izanez gero, ekintza-politika eta -programak ete formulatu eta gauzatu beharko dira. Politika horiek joera demografikoei lotutako hazkunde demografikoaren eraginak ebaluatu beharko lituzkete eta, era berean, esparru honetan trantsizioa ekarriko luketen neurriak aurreikusi. Ingurugiroko arazoak eta biztanleen arazoak garapenaren ikuspegi integratuan bateratu beharko lirateke; ikuspegi honen funtsezko helburuek hauek izan beharko lukete: pobrezia arintzea, bizibidea bermatzea, osasun ona eta bizi-kalitatea segurtatzea, emakumearen baldintzak hobetzea, beren diru-sarrerak eta hezkuntzara eta trebakuntza profesionalera sarbideak areagotzea, emakumeen helburu pertsonalak gauzatzea eta gizabanakoaren eta komunitateen eskubideak onartzea. Garapen bidean dauden herrialdeetan hazkunde demografikoaren inguruan gerta daitezkeen hainbat hipotesiren arabera hirien tamaina eta kopurua asko haziko dela kontuan hartuta, beharrak asetzeaz gehiago arduratu beharra dago, batez ere emakumeen eta haurren beharrak asetzeaz; horretarako udalaren kudeaketa eta tokian tokiko gobernuaren kudeaketa hobea beharrezkoa da.

Helburuak:

Herrietako arazoak nazio mailako politikarako eta erabakiak hartzeko planifikazio- eta formulazio-prozesuetan sartzen jarraitu beharko lukete. Emakumearen eskubideak bete-betean onartuko liratekeen herrietako politika eta programak aplikatzeko aukera aztertu beharko litzateke.

Jarduerak:

Ingurugiroaren/merkataritzaren eta garapenaren inguruko programa bat egitea.

Gobernuek eta dagokien erakundeek, beste gauza batzuen artean, ondoren aipatuko ditugun jarduerak abia ditzakete, laguntza-erakundeen babes egokiarekin, eta 1994an egingo den Herrien eta Garapenaren inguruko Nazioarteko Biltzarrean honen inguruan informa dezakete,

batez ere Herri eta Ingurugiro Batzordeari.

a) Nazio mailan joera eta faktore demografikoen eraginak ebaluatzea:

Joera eta faktore demografikoen eta ingurugiro-aldaketen arteko harremanak eta ingurugiroa hondatzearen eta aldaketa demografikoaren osagaien arteko harremanak aztertu beharko lirateke.

Migrazioaren arrazoi gisa ingurugiro-faktoreen eta faktore sozioekonomikoen elkarreraginaren inguruko azterketak egin beharko lirateke.

Biztanle-talde zaurgarriak (esate baterako, lurrik gabeko nekazariak, gutxiengo etnikoak, errefuxiatuak, migratzaileak, egokitu gabe dauden pertsonak, familiaburu diren emakumeak) zein diren zehaztu beharko litzateke, batez ere beren egitura demografikoak garapen jasangarrian eragin zehatzak izan ditzakeenean.

Adinaren arabera egindako herriaren banaketaren ondorioak kontuan hartu beharko lirateke, familian diru-sarrerak sortzeko eta baliabideen eskaerarako eta familiako kargetarako; gastu hauen barruan, esaterako, hauek sartuko lirateke: gazteen hezkuntza, mediku asistentzia eta adineko jendearentzako laguntza..

Herrialde bakoitzeko biztanleen gehiengo dentsitatearen azterketa egin beharko litzateke, giza beharrak eta garapen jasangarria asetzearen barruan, eta kasu berezia egin beharko litzateke baliabide kritikoei -urari eta lurri- eta ingurugiroko faktoreei -ekosistemen egoerei eta aniztasun biologikoari-.

Talde indigenen eta tokian tokiko komunitateen bizibide tradizioaletan joera eta faktore demografikoen eraginak aztertu beharko lirateke nazio mailan; hemen barruko presio demografikoen eraginez lurraren erabilera-motan izandako aldaketak ere sartuko lirateke.

b) Informazio-euskarri nazionala sortzea eta sendotzea:

Joera eta faktore demografikoen eta ingurugiroaren inguruko datu-base nazionalak eratu beharko lirateke; honela, lurralde ekologikoetako datuak (ekosisteman oinarritutako irizpideak) banandu egingo lirateke. Gainera, lurraldeka herriari eta ingurugiroari buruzko ohar deskribatzaileak prestatu beharko lirateke.

Zenbait gunetan, joera eta faktore demografikoen ingurugiro-eraginek jasangarritasuna

kolokan jartzen dute edo kolokan jartzen dutela dirudi. Gune horiek zein diren zehazteko metodoak eta tresnak asmatu beharko lirateke, eta, horretarako, bai ingurugiro-prozesu naturalekin harremanetan dauden egungo datu demografikoak, bai proiektzioak erabili beharko lirateke.

Herri mailan hainbat taldek dinamika demografikoaren aurrean izandako erreakzioen azterketak egin beharko lirateke, batez ere ingurugiroaren presioaren eraginpean dauden guneetan eta hondatzen ari diren hiriguneetan.

Beste irizpide batzuen artean, biztanleen sexuaren eta adinaren arabera datuak banatu egin beharko lirateke, baliabide naturalen erabilerarako eta antolakuntzarako sexuaren arabera lanaren banaketaren ondorioak kontuan hartzeko helburuarekin.

c) Ezaugarri demografikoak politiketan eta planetan sartzea:

Giza kokalekuen inguruko politikak formulatzerakoan, beharrezko baliabideak, hondakinen eraketa eta ekosistemaren egoera hartu beharko lirateke kontuan.

Hala egokituz gero, aldaketa demografikoen ondorio zuzenak eta eragindakoak ingurugiroaren eta garapenaren inguruko programetan sartu beharko lirateke eta bere ondorioak demografia jarraibideetan ebaluatu beharko lirateke.

Herri mailako helburuak finkatu eta programa nazionalak gauzatu beharko lirateke. Plan eta programa hauek ingurugirorako eta garapen jasangarrirako plan nazionalekin bateragarri izan beharko lukete eta gizakiaren askatasunarekin eta duintasunarekin eta beren balio pertsonalekin bat egon beharko lukete.

Gazteentzako eta adinduentzako politika sozioekonomiko egokiak egin beharko lirateke; politika hauek, besteak beste, familia-babeserako eta estatu mailako sistemak aurreikusitako beharko lituzkete.

Ingurugiroan nahasteak eragingo lituzketen edo eurek sortuko lituzketen migrazio mota desberdinei aurre egiteko politikak eta programak egin beharko lirateke; horretarako bereziki emakumearen eta talde zaugarrien egoera kontuan hartu beharko litzateke.

Garapen jasangarriaren aldeko programetan, dagokien nazioarteko eta lurraldeko erakundeek biztanleen arazoak kontuan eduki beharko lituzkete, ingurugiroaren eraginez

migratutako eta lekualdatutako pertsoneri buruzkoak barne.

Nazio mailan, ingurugiroari eta garapenari buruzko estrategia nazionaletan herri-politiken integrazioa aztertu eta begiratu beharko litzateke.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 2 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintza, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberrakoak izango dira.

b) Herrien eta garapen jasangarriaren arteko elkarreraginaren kontzientzia areagotzea:

Joera eta faktore demografikoen eta garapen jasangarriaren arteko elkarreraginari buruz gizarteko sektore guztiak sentsibilizatu beharko lirateke. Herri eta nazio mailako neurriak hartzeko ahalegin berezia egin beharko litzateke. Herriaren eta garapen jasangarriaren inguruko heziketa hezkuntza formalean eta ez-formalean koordinatu eta sartu beharko litzateke. Herriaren inguruko hezkuntza-programei garrantzi berezia eman beharko litzateke, batez ere emakumearentzako programei. Programa hauen, ingurugiroaren kontserbazioaren eta osasunaren inguruko lehen mailako zerbitzu-prestazioen arteko lotura nabarmendu egin beharko litzateke.

c) Erakundeak indartzea:

Nazioko, lurraldeko eta herriko egituren ahalmena areagotu egin beharko litzateke joera eta faktore demografikoekin eta garapen jasangarriarekin harremana duten arazoei aurre egiteko. Horretarako beharrezkoa litzateke herriko arazoez arduratzen diren organo eskudunak sendotzea, garapen jasangarriarako helburu nazionalekin bateragarri izango liratekeen politikak egiteko helburuarekin. Horrez gain, beharrezkoa litzateke gobernuen, ikerketa-erakunde nazionalen, gobernuz kanpoko erakundeen eta tokian tokiko

komunitateen artean elkarlana areagotzea arazoan analisiak egiteko eta politikak ebaluatzeko.

Nazio Batuen organo eta erakunde eskudunen, gobernu kanpoko erakundeen eta tokian tokiko komunitateen ahalmena areagotu egin beharko litzateke, bakoitzari dagokion kasuan, garapen jasangarria sustatzeko politikak egiteko laguntza eskatzen duten herrialdeak babesteko eta, hala egokituz gero, migratzaileei eta ingurugiroaren eraginez lekualdatutako pertsoneri laguntzeko.

Herri eta ingurugiro mailako jardueren koordinazio hobearen bidez garapen jasangarria sustatuko luketen erakundearteko politikari eta programa nazionaleri babes gehiago eman beharko litzaieke.

d) Giza baliabideen garapena indartzea:

Nazioarteko eta lurraldeko zientzia-erakundeek lagundu egin behar liekete gobernuari, hala eskatuz gero, demografoak eta herri- eta ingurugiro-espezialistak trebatzeko garaian herriaren eta ingurugiroaren arteko elkarrekiko ekintzari buruzko azterketak sartzen; kontuan hartu beharreko ekintza hori mundu mailakoa, ekosistema mailakoa eta herri mailakoa izango litzateke. Trebakuntza horren barruan herriaren eta ingurugiroaren eta estrategia integratuak formulatzeko metodoen arteko loturei buruzko ikerketak sartu beharko lirateke.

C. Herri mailan ingurugiro eta garapenaren programa integratuak gauzatzea, joera eta faktore demografikoak kontuan hartuta

Ekintzarako oinarriak:

Populazio-programak eragingarriagoak dira sektorearteko politika egokiekin batera gauzatzen badira. Herri mailako jasangarritasuna lortzeko, ezinbestekoa da joera eta faktore demografikoak barne hartuko dituen egitura berria asmatzea. Egitura horrek, besteak beste, faktore hauek hartu beharko lituzte kontuan, ekosistemen egoera, teknologia eta gizakien kokapena, egitura sozioekonomikoa eta baliabideen eskuragarritasuna. Populazio-programek plan sozioekonomikoekin eta ingurugiro-planekin bateragarri izan beharko lukete. Garapen jasangarrirako programa integratuetan harreman estua egon beharko litzateke, batetik, joera eta faktore demografikoen inguruko neurrien eta, bestetik, herriaren beharrak asetzen dituzten baliabideen antolakuntzaren eta garapenerako helburuen artean.

Helburuak:

Baliabide naturalen antolakuntza- eta garapen-programekin batera populazio-programak gauzatu beharko lirateke herri mailan. Programa hauek baliabide horien erabilera jasangarria bermatu beharko lukete eta populazioaren bizi-kalitatea eta ingurugiroaren egoera hobetu beharko lituzkete.

Jarduerak:

Gobernuak eta tokian tokiko komunitateak -emakumeen erakunde komunitarioak eta nazioetako gobernuz kanpoko erakundeak barne-, beste gauza batzuen artean, eta plan, helburu, estrategia eta lehentasun nazionalen arabera, aurrerago aipatzen diren jarduerekin has daitezke, kasuaren arabera nazioarteko erakundeen laguntzarekin eta lankidetzarekin. Gobernuak Agenda 21 gauzatu ondoren lortutako esperientziaren berri eman dezakete 1994an egingo den Herrien eta Garapenaren inguruko Nazioarteko Biltzarrean eta, batez ere, herrien eta ingurugiroaren batzordean.

a) Ekintza-esparrua prestatzea:

Kontsultarako prozesu eragingarria egin eta jarri beharko litzateke martxan, gizarteko talde interesatuekin, eta bertan programen osagai guztien formulazioak eta zehaztapenak kontsulta nazionalako prozesu zabal batean oinarrituta egon behar dute; prozesu honen

barruan komunitate mailako bilerak, lurralde mailako ikastaro praktikoak eta nazio mailako seminarioak sartuko lirateke. Beharren, aurreikuspenen eta mugen inguruko gizonen eta emakumeen iritziak programetan behar bezala isla daitezen eta irtenbideak esperientzia zehatzetan oinarrituta egon daitezen utzi beharko luke prozesu honek. Prozesu honetan behartsuen eta gizarte-egoera ahuleko taldeen partaidetzari lehentasuna eman beharko litzaioke.

Programa integratuak eta alde askotakoak martxan jartzeko politika nazionalak aplikatu beharko lirateke; programa hauetan emakumeari, gune kritikoetan bizi diren talde behartsuenei eta beste talde zaugarriari kasu berezia egin behar litzaieke eta, gainera, programa hauek aldaketaren eta garapen jasangarriaren eragile eragingarri gisa aritzerik izango luketen taldeen partaidetza onartu beharko lukete. Helburu asko dituzten programak nabarmendu egin beharko lirateke, bereziki, ekonomiaren garapen jasangarria sustatuko luketenak, joera eta faktore demografikoen eragin negatiboak gutxitu egingo lituzketenak eta epe luzera ingurugiroko kalteak ekidingo lituzketenak. Dagokienaren arabera, beste batzuen artean ondorengo auzi hauek ere sartu beharko lirateke: elikadura-segurtasuna, lurren jabetzaren segurtasuna, gutxieneko etxebizitza eta ezinbesteko azpiegituraren horniketa, hezkuntza, familiaren ongizatea, ugalketan garbitasuna, familientzako kreditu-planak, baso-berritzeko programak, ingurugiroaren kontserbazioa eta emakumearen enplegua.

Esparru analitikoa ezarri beharko litzateke garapen jasangarriaren aldeko politiken elementu osagarriak zehazteko eta herriaren dinamikan bere eraginak ebaluatzeke eta zaintzeko mekanismo nazionalak finkatzeko.

Emakumeak herriari eta ingurugiroari buruzko programetan eta garapen jasangarriaren lorpenean betetzen duen paperari arreta berezia jarri beharko litzaioke. Proiektuetan gizarte-, ekonomia- eta ingurugiro-etekinak lotzeko aukera baliatu beharko litzateke, emakumearentzako eta beren familientzako. Emakumearen aurrerapena ezinbestekoa da eta hezkuntzaren, trebakuntzaren eta politiken formulazioaren bidez bultzatu beharko litzateke, hauxe onartzeko eta sustatzeko: ondasunak, giza eskubideak eta eskubide zibilak, lana aurrezteko teknikak eta lanerako aukerak izateko duten eskubidea eta hauek lortzeko bidea eta erabakiak hartzeko prozesuetan beren parte-hartzea areatzeko aukera. Populazio-programek eta ingurugiro-programek emakumeak mobilizatzeko aukera izatea utzi beharko lukete emakumearen bizi-baldintzak hobetzeko, garapen ekonomikoan parte

hartzeko ahalmena areagotzeko eta bere etekinez gozatzeko. Gizonen eta emakumeen analfabetismo-tasen arteko desberdintasuna murrizteko neurri zehatzak hartu beharko lirateke.

b) Joera eta faktore demografikoen aldaketak sustatzeko eta jasangarritasuna lortzeko programak babestea:

Ez dagoen kasuetan, ugalketarako garbitasun-programa eta -zerbitzuak jarri beharko lirateke martxan, edo, bestela, daudenak hobetu egin beharko lirateke, edozein arrazoiengatik gertatzen den amaren eta haurraren heriotza-tasa murrizteko eta gizonek eta emakumeek askatasunez eta duintasunez eta balio pertsonalak kontuan hartuta nahi adina seme-alaba izateko aukera emateko.

Gobernuek premiazko neurri aktiboak hartu beharko lituzkete, herrialde bakoitzaren baldintza eta sistema juridikoen arabera, emakumeek eta gizonek beren seme-alaben kopurua eta banaketa askatasunez eta arduraz erabaki ahal izateko eskubide berbera izan dezaten eta, beharraren arabera, informazioa, hezkuntza eta bitartekoak eskuratzeko aukera izan dezaten askatasunarekin, duintasunarekin eta beren baloreekin bat, etika eta kultura iritziak kontuan hartuta.

Gobernuek neurri aktiboak hartu beharko lituzkete osasun prebentiboko eta sendagarriko zerbitzuak ezartzeko eta sendotzeko programak gauzatu ahal izateko. Programa horietan hauxe sartu beharko litzateke: ugalketa-osasunaren zerbitzu seguru eta eragingarriak, emakumean zentratuak eta emakumeak administratuak eta, kasuaren arabera, familiaren tainaren planifikazio arduratsurako zerbitzu eskuragarriak eta sartzen errazak, beren askatasunarekin, duintasunarekin eta balio pertsonalekin bat, iritzi etniko eta kulturalak kontuan hartuta. Programek osasunaren zerbitzu orokorrak -jaino aurreko arreta eta osasunaren eta gurasotasun arduratsuen inguruko hezkuntza eta informazioa barne-hartu beharko lituzkete barruan, eta emakume guztiei beren seme-alabei bularra emateko aukera eman beharko liekete, gutxienez haurrak lau hilabete bete arte. Programek emakumearen funtzio produktiboa eta ugalketa-funtzioa babestu beharko lituzkete, baita beren ongizatea ere, eta arreta berezia jarri beharko lukete haur guztiei baldintza beretan osasun-zerbitzu onenak eskaintzeko beharrean; horrez gain, heriotza-tasaren arriskua eta amen eta haurren gaixotasunak murrizteko beharra ere kontuan hartu beharko lituzkete.

Nazioko lehentasunaren arabera, herrialde bakoitzeko kultura-ezaugarriak kontuan hartuko lituzketen informazio- eta hezkuntza-programak egin beharko lirateke, gizonei eta emakumeei erraz uler daitezkeen ugalketako garbitasunaren inguruko mezuak helarazteko.

c) Baldintza instituzional egokiak eratzea:

Sektore ezberdinei babesa ematea eta esparru instituzional egokia sortzea sustatu behar da, herriaren jarduerak errazteko. Horretarako herrialde bakoitzeko agintari politiko, lokal, erlijioso eta tradizionalen; sektore pribatuaren eta komunitate zientifikoaren babesa eta ardura behar dira. Esparru instituzionala finkatzeko garaian, emakumeen erakunde nazionalak ere parte hartu beharko lukete.

Herriaren jardueretarako asistentzia emaile bilateralen eta multilateralen bidez koordinatu beharko litzateke, garapen bidean dauden herrialde guztien populazioaren inguruko beharrak kontuan hartzeko; horretarako herrialde hartzaileen koordinazio orokorraren funtzioa guztiz errespetatu behar da, baita beren lehentasunak eta estrategiak ere.

Herri eta nazioarte mailako koordinazioa hobetu egin behar da. Lanerako metodoak hobetu egin beharko lirateke, eskura dauden baliabideak modu hobean erabiltzeko, esperientzia kolektiboaz baliatzeko eta programak hobeto gauzatzeko. PNBfk eta beste erakunde batzuek herrialde hartzaileekiko eta emaleekiko nazioarteko lankidetzajardueren koordinazioa sendotu egin beharko lukete, geroz eta handiagoak diren beharrei aurre egiteko nahiko funts badaudela ziurtatzeko.

Herri, nazio eta nazioarte mailan populazio- eta ingurugiro-programei buruzko proposamenak formulatu beharko lirateke, behar zehatzei aurre egiteko eta jasangarritasuna lortzeko. Egokia izanez gero, aldaketa instituzionalak egin beharko lirateke zahartzaroko segurtasuna familiako kideen esku bakarrik egon ez dadin.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Konderentziaren idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 7.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du,

nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 3.500 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Ikerketa:

Ekintza-programa zehatzak lantzeko ikerketak egin beharko lirateke; beharrezkoa da proposatutako ikerketa-gaien artean lehentasunaren arabera ordena bat jartzea.

Herriek ingurugiroaren aldaketei nola erantzuten dieten aztertzeko ikerketa-soziodemografikoak egin beharko lirateke.

Politika demografikorako bitarteko egokiak erabiltzen lagunduko luketen faktore soziokulturalak eta politikoak sakonago aztertu beharko lirateke.

Familiaren tamaina arduratsua planifikatzeko egokiak diren zerbitzuen beharren aldaketen ikerketak egin beharko lirateke, talde sozioekonomikoen eta lurralde geografiko desberdinen artean dauden desberdintasunak kontuan hartuta.

c) Giza baliabideak eta ekintzarako ahalmena garatzea:

Giza baliabideen eta ekintzarako ahalmenaren garapena, bereziki emakumearen hezkuntza eta trebakuntza, berebiziko garrantzia duen auzia da eta populazio-programetan lehentasun handia du.

Ikastaro praktikoak antolatu beharko lirateke programen eta proiektuen administratzaileei populazio-programen eta ingurugiroaren garapen eta babesaren beste helburuen arteko loturak finkatzen laguntzeko.

Material didaktikoak egin beharko lirateke, baita gidak eta eskuliburuak ere, planifikazioaz eta erabakiak hartzeaz arduratuta dauden funtzionarioentzako eta populazio-, ingurugiro- eta garapen-programetan parte hartzen duten beste partaideentzako.

Gobernuen, zientzia-erakundeen, lurralde bakoitzeko gobernuz kanpoko erakundeen eta beste lurraldeetako antzeko erakundeen arteko lankidetzak sustatu beharko litzateke.

Erakunde lokalekin lankidetzan sustatu beharko litzateke jendea sentsibilizatzeko, frogaketa-proiektuak praktikan jartzeko eta izandako esperientzien inguruko informazioa zabaltzeko.

Atal honetan emandako aholkuek ez dute inola ere aurretik epaitu behar Herrien eta Garapenaren inguruko Nazioarteko Biltzarraren (1994) erabakia. Biltzar hori populazioaren eta garapenaren inguruko auziak aztertzeke foro egokia izango da, Mexiko Hirian 1984an izandako Herrien Nazioarteko Biltzarraren aholkuak ¹ eta emakumearen aurrerapenerako etorkizunera begira egindako Nairobiko Estrategiak kontuan hartuta. Estrategia hauek Nairobin 1985ean egindako biltzarrean erabaki ziren (Nazio Batuen Erakundeak Hamarkadan Emakumearentzako Lortutakoaren Azterketarako eta Ebaluaziorako Munduko Biltzarraren Txostena: Berdintasuna, Garapena eta Bakea²).

¹ Herrien Nazioarteko Biltzarraren Txostena, 1984, Mexiko Hiria, 1984ko abuztuaren 6tik 14ra (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.84.XIII.8), I. atala.

² Nazio Batuen Erakundeak Hamarkadan Emakumearentzako egin dituen Lorpenen Azterketarako eta Ebaluaketarako Munduko Biltzarraren Txostena: Berdintasuna, Garapena eta Bakea, Nairobi, 1985eko uztailaren 15etik 26ra (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.85.IV.10), I. atala, A saila.

6. ATALA: Giza osasuna babestea eta sustatzea

Sarrera

Osasunaren eta garapenaren arteko harremana zuzena da. Munduko populazioaren hazkundearekin batera, bai pobrezia eragiten duen garapen eskasak, bai gehiegizko kontsumoa eragiten duen garapen ezegokiak ingurugiroarekin harremana duten osasun arazo larriak ekar ditzakete garatutako herrialdeetan eta garapen bidean dauden herrialdeetan. Agenda 21eko ekintzarako gaiek munduko biztanleen lehen mailako osasun arretaren beharrari heltzen diote, izan ere garapen jasangarria eta lehen mailako osasun arreta lortzearekin integratzen dira, ingurugiroko arazoak kontuan hartuta. Osasunaren, ingurugiroaren eta sozioekonomiaren inguruko hobekuntzen loturak sektorearteko jarduerak gauzatzeko eskatzen du. Esparru hauen barruan, hezkuntza, etxebizitza, herri-lan eta talde komunitario arloez gain, enpresak, eskolak eta unibertsitateak eta erlijio-, hiri- eta kultura-erakundeak sartzen dira eta beren helburua herriak bere komunitateetan garapen jasangarria segurtatzea izango litzateke. Zuzenketa- eta tratamendu-neurrien menpe bakarrik egon beharrean, garrantzi berezia du prebentzio-planak sartzeak. Herrialdeek planak egin behar dituzte, atal honetako programa-arloekin harremanetan lehentasuna duten neurriak hartzeko; programa-arlo hauek gobernuen, gobernuz kanpoko erakundeen eta tokian tokiko komunitateen maila desberdinetako lankidetzeta-planifikazioetan oinarritzen dira. Jarduera hauen koordinazioak nazioarteko erakunde egokien esku egon behar du, esate baterako OMEren esku.

Atal honetan programa-arlo hauek aztertuko dira:

- a) Osasunaren lehen mailako arretaren inguruko beharrak asetzea, batez ere nekazaritzako guneetan;
- b) Gaixotasun kutsakorren aurka borroka egitea;
- c) Talde zaugarriak babestea;
- d) Hiriko osasun-arazoak konpontzea;
- e) Kutsadurak eta ingurugiro-arriskuek eragindako osasun-arriskuak gutxitzea.

Programa-arloak

A. Osasunaren lehen mailako arretaren inguruko beharrak asetzea, batez ere nekazaritzako guneean

Ekintzarako oinarriak:

Osasuna inguru fisikoaren, espiritualaren, biologikoaren eta ekonomiaren eta sozialaren elkarreragina kontrolatzeko gaitasunaren azken aukeraren menpe dago. Populazio osasuntsurik gabe ezinezkoa da garapen orekatua lortzea. Baina garapenaren jarduera gehienek, gehiago ala gutxiago, ingurugiroan eragina dute, eta honek, era berean, osasunean arazo ugari sortzen edo larriagotzen ditu. Bestetik, garapen falta berez osasun arazo askoren jatorria da eta arazo horiek garapenaren bidez bakarrik arindu daitezke. Osasunaren sektoreak ezin du berak bakarrik bere kabuz oinarrizko beharrak asetzeko helburua lortu, garapen sozialaren, ekonomikoaren eta espiritualaren mende dago eta, era berean, garapenean zuzenean laguntzen du. Ingurugiro-baldintzak aldeko izatearen menpe ere badago; honek, beste gauza batzuen artean, hauxe eskatzen du: uraren eta saneamendu-zerbitzuen hornidura hobea, elikagaien horniketa seguru gehiago eta elikadura egokia. Ondorengo honi ere arreta berezia jarri beharko litzaioke: elikaduraren segurtasunari, kutsadura deuseztatzeari lehentasuna emanda; politika hedatuei eta jasangarriei, kontsumorako eta saneamendurako ur egokiaren horniketa ziurtatzeko asmoz, batez ere kutsadura kimikoari eta mikrobien bidezko kutsadurari aurre hartzeko, eta, azkenik, osasun-hezkuntza sustatzeari, immunizazioari eta oinarrizko sendagaien horniketari. Familiaren tamainaren planifikazio arduratsuan alde kultural, erlijioso eta sozialak kontuan hartuz gero -askatasunarekin, duintasunarekin eta balore pertsonalekin bat- eta alde etiko eta sozialak kontuan hartuz gero, planifikazio horrekin harremana duten hezkuntzak eta zerbitzu egokiek ere laguntzen dute sektorearteko jarduera hauetan.

Jarduerak:

2000 urtea baino lehen osasuna lortzeko estrategia orokorraren barruan, helburuak honako hauek dira: hiriko, hiri-inguruko eta baserri giroko populazioaren oinarrizko osasunaren beharrak asetzea; beharrezkoak diren ingurugiro-higienizazio zerbitzu espezializatuak ematea eta hiritarren, osasunaren sektorearen, lotura duten sektoreen eta osasunaren harremanik ez duten sektoreen (merkataritza-, gizarte-, hezkuntza- eta erlijio-erakundeak) parte-hartzea koordinatzea, osasunaren arazoak konpontzeko. Lehenik eta behin gehien behar duten populazio-taldean osasun-zerbitzuak asebate behar dira, batez ere nekazaritzako guneean bizi direnen zerbitzuak.

Jarduerak:

Gobernu nazionalak eta tokian tokiko agintariak, gobernuz kanpoko erakundeen eta dagokien nazioarteko erakundeen laguntzarekin, eta herrialde bakoitzaren baldintza zehatzak kontuan hartuta, osasunaren sektoreko programak indartu egin beharko lituzkete; gainera, nekazaritzako guneei arreta berezia jarri beharko liekete, ondorengo helburuak lortzeko:

a) Osasunaren sektorean oinarrizko azpiegiturak sortzea eta zaintza- eta planifikazio-sistemak ezartzea:

- i) Lehen mailako osasun arretarako sistemak egitea eta sendotzea. Sistema hauek praktikoak, komunitatean oinarrituak, zientifikoki arrazoizkoak, sozialki onargarriak eta beharrei egokituak izan beharko lukete; horrez gain, kontsumorako edateko ura, elikagai seguruak eta saneamendua izateko oinarrizko beharrak ase beharko lituzkete;
- ii) Osasunaren sektorearen eta berarekin harremana duten gobernuko eta dagokien erakundeetako maila guztietako sektoreen arteko koordinazioa hobetzeko mekanismoak sendotzea eta mekanismoen erabilerari laguntza ematea;
- iii) Ordain daitezkeen arrazoizko irizpideak lantzea eta aplikatzea, osasun-zerbitzuak martxan jartzeko eta mantentzeko;
- iv) Gizarte-zerbitzuei babesa ematen zaiela ziurtatzea eta, hala behar izanez gero, babesa areagotzea;
- v) Estrategiak prestatzea, horien artean osasun fidagarriko adierazpenak, aurrerapenak behatzeko eta osasun-programen eragingarritasuna ebaluatzeko;
- vi) Beharrezko baliabideen ebaluazioaren oinarrian, osasun-sistemak finantzatzeko moduak aztertzea eta hainbat finantzazio-mota finkatzea;
- vii) Eskoletan osasunaren inguruko hezkuntza, informazio trukaketa, laguntza teknikoa eta trebakuntza sustatzea;
- viii) Talde zaugarrien aldetik zerbitzuen kudeaketa autonomoen ekimenak babestea;
- ix) Egokia denean, ezagutza eta esperientzia tradizionalak osasun-sistema nazionaletan sartzea;
- x) Hedapen-jardueretarako beharrezkoak diren logistika-zerbitzuak sustatzea, batez ere

nekazaritzako guneetan;

- xi) Nekazaritzako guneetako ezinduentzako errehabilitazio-jarduerak sustatzea eta sendotzea, egoitza komunitatean dutela.

b) Ikerketarako eta metodologiak ezartzeko laguntza ematea:

- i) Komunitateak ingurugiroaren higienizazioko jardueretan etengabe parte hartzeko mekanismoak martxan jartzea, komunitatearen finantza-baliabideak eta giza baliabideak erabiltzeko optimizazioa barne;
- ii) Ingurugiroaren higienizazioari buruzko ikerketak egitea, portaeraren eta osasun zerbitzuak hedatzeko eta hiri-inguruetako populazio-taldeen -zerbitzu eskasak edo zaurgarriak dituztenen- artean zerbitzu hauen erabilera ugaltzeko moduen ikerketak barne. Honen helburua prebentzio-zerbitzuak eta osasunaren arreta-zerbitzuak hobetzea da;
- iii) Prebentzioaren eta sendaketaren inguruko ezagutza tradizionalen ikerketa egitea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 40.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 5.000 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Osasunaren arreta-sistemen eta -zerbitzuen planifikaziorako eta kudeaketarako metodo berriak entseatu beharko lirateke eta osasunaren sektorearen azpiegituretan teknologia egokiak sartzeko erak aurkitzera bideratuta dauden ikerketak lagundu beharko lirateke. Osasunaren sektorerako teknologia zientifiko arrazoizkoak garatzeko unean batez ere tokian tokiko beharretara egokitzeko ahalmena eta teknologia horri eusteko aukerak

hartu beharko lirateke kontuan, komunitatearen baliabideekin osasunaren arretarako erabiltzeko ekipoaren mantentze-lana eta konponketa barne. Informazioaren eta ezagutza teknikoen erabilera eta transferentzia komuna errazteko programak prestatu beharko lirateke, komunikabideak eta material didaktikoak barne.

c) Giza baliabideen garapena:

Sektorearteko irizpideak aplikatzea indartu egin beharko litzateke, osasun-zerbitzuetako pertsonalaren hezkuntza-sistemen erreformari ekiteko, "Osasuna guztiontzako 2000 urtean" proiektuaren estrategietara egokitzea ziurtatzeko. Barruti mailan administrazio eskumenak areatu daitezten egindako ahaleginak babestu egin beharko lirateke, osasunaren oinarriko arreta-sistemen funtzionamendu eragingarria eta garapen sistematikoa ziurtatzeko. Trebakuntza praktikoko trinkorako iraupen motzeko programak prestatu beharko lirateke, komunikaziorako, komunitatearen antolakuntzarako eta portaeraren aldaketa errazteko ahalmen eraginkorra nabarmenduz, garapen sozialean aritzen diren tokian tokiko sektore guztietako langileak bakoitzari dagozkion funtzioak bete ditzan prestatzeko. Hezkuntza-sektorearekin lankidetzan, osasun-hezkuntzako programa bereziak prestatu beharko lirateke, eta programa hauetan osasunaren arreta-sisteman bereziki emakumearen betebeharra hartuko da kontuan.

d) Gaitasuna areagotzea:

Osasunaren arreta-zerbitzuak eskaintzeko babes zuzena emateaz gain, gobernuek beren beharrak asetzeko unean komunitateen parte-hartzea bultzatzeko, errazteko eta sustatzeko estrategiak aurrera eramateko aukera aztertu behar lukete. Hartu beharreko neurri nagusietako batek hauxe izan beharko luke: osasunaren sektoreko eta komunitate mailan lan egingo duten eta osasunaren sektorearekin lotura duten beste sektore batzuetako langileak talde-lanerako, mobilizazio sozialerako eta garapeneko beste eragile batzuei laguntza emateko prestatzea. Programa nazionalen barruan, hiriko, hiriaren inguruko eta, nekazaritzako guneetan, barrutiko osasun-zerbitzuen sistemak ezartzea; barruti mailan osasunerako arreta-programak ezartzea eta, azkenik, kontsulta-zerbitzuak sortzea eta babestea egon beharko lukete.

B. Gaixotasun kutsakorren aurka borroka egitea

Ekintzarako oinarriak:

Behien eta agente kimiko terapeutikoen inguruan egin diren aurrerapenekin, gaixotasun kutsakor asko kontrolpean izatea lortu da. Hala ere, oraindik gaixotasun kutsakor garrantzitsu asko dago berengan ingurugiro-kontrola ezartzea behar-beharrezkoa dutenak, bereziki uraren eta saneamenduaren horniketaren alorretan. Gaixotasun horiek kolera, zirineria-gaixotasunak, leishmaniasia, malaria eta eskistosomiasia dira. Kasu guztietan, ingurugiroaren higienizazioarako neurriak -bai osasunaren lehen mailako arretaren zati direnak, bai osasunaren sektore desberdinetakoak direnak- osasunaren eta higiearen inguruko hezkuntzarekin batera, ezinbesteko osagai dira, eta kasu batzuetan osagai bakarrak, gaixotasunen aurkako borrokaren estrategietan.

2000 urterako giza immunoeskariaren birusaren infekzio-maila 30 eta 40 milioi pertsona artean areagotuko dela aurreikusi da eta herrialde guztientzako pandemiaren ondorio sozioekonomikoak suntsitzaileak izango direla, bereziki emakumeentzat eta haurrentzat. Osasunaren sektorearentzako zuzeneko gastuak bestela ere kontuan hartzekoak izango badira ere, pandemiaren zeharkako gastuekin alderatuta txikiak izango direla esan daiteke, hau da, diru-sarrerak galtzearekin harremana duten gastuekin eta lanerako indarraren produktibitatea gutxitzearekin alderatuta. Pandemiak industriaren eta zerbitzuen sektoreen hazkuntza oztopatu egingo du eta giza gaitasuna eta berregokitze profesionala eratzeko gastuak asko handituko ditu. Nekazaritzako sektoreak eragina bereziki eskulan asko behar den produkzioetan nabarituko du.

Jarduerak:

Hainbat helburu ezarri dira, nazioarteko foroetan egindako kontsulta zabalaren bitartez, ia gobernu guztien, dagokien Nazio Batuen organismoen (OME, UNICEF, PNB, UNESCO, GNB eta Munduko Bankua) eta gobernu kanpoko hainbat erakunderen parte hartzearekin. Helburuetan (orain aipatuko direnak barruan daude, baina ez dira horiek bakarrik) herrialdeek hala dagokienean aplikatu ditzaten aholkatzen da, kulturaren, gizartearen eta erlijioaren aldean programazioari, arauari, lehenetara eta baliabideen erabilgarritasunari dagokienean herrialde bakoitzaren egoera zehatzaren arabera egokituta, askatasunarekin, duintasunarekin eta balio pertsonalekin bat eta baldintza etikoak kontuan hartuta. Beharrezkoa da herrialde bakoitzeko plan nazionalari (1990 Hamarkadan Haurren biziraupenerako, Babeserako eta Garapenerako

Munduko Adierazpena aplikatzeko ekintza-plana³) herrialde horretako egoera zehatzei dagozkien helburuak finkatzea. Nazio mailako plan hauek osasun publikoko sektoreak koordinatu eta zaindu behar ditu. Helburuetako batzuk hauek dira:

- a) Drakunkuliasia (Gineako zizarearen gaixotasuna) 2000 urtea baino lehen deuseztatzea;
- b) Poliomielitisa 2000 urtea baino lehen sendatzea;
- c) 2000 urtea baino lehen, onkozerziasia (ibaietako itsutasunaren) eta legenarra eragingarritasunez kontrolatzea;
- d) 1995 urtea baino lehen elgorriak jotakoen hildako kopurua % 95 jaitea eta, immunizazioaren aurreko mailekin alderatuta, elgorri kasuak % 90 jaitea;
- e) Ahalegin iraunkorraren bidez, osasunaren eta garbitasunaren inguruko hezkuntza ematea eta, batetik, kontsumorako edateko ura eta, bestetik, estoldetako urak deuseztatzeko osasun neurriak guztiek izan ditzagun segurtatzea, urak kutsatutako gaixotasunak, besteak beste, kolera eta eskistosomiasia, neurri handi batean gutxitzeko. Ondorengo kopuru hauek murrizten ere saiatu behar da:
 - i. 2000 urtea baino lehen, beherakoak jota hildako pertsonen kopurua % 50 eta %70 artean jaitea garapen bidean dauden herrialdeetan;
 - ii. 2000 urtea baino lehen, garapen bidean dauden herrialdeetan haurren beherakoaren eragina gutxienez % 25 eta % 50 artean jaitea;
- f) 2000 urtea baino lehen, bost urte baino gutxiago dituzten haurren artean arnas aparatuko infekzioek eragindako heriotza-tasaren herena gutxienez jaisteko programak prestatzea, bereziki hilkotasun-tasa altuko herrialdeetan;
- g) 2000 urtea baino lehen, munduko haurren % 95ek arnas aparatuko infekzioei aurre egiteko arreta egokia jasotzea, beren komunitatean eta kontsultako lehen mailan;
- h) 2000 urtea baino lehen, paludismoa osasun arazo larria den herrialde guztietan gaixotasun honi aurre egiteko programei ekitea eta paludismo endemikoa errotu den guneetan egoerari eusteko programei ekitea;
- i) 2000 urtea baino lehen, parasito-infekzioak endemikoak diren herrialdeetan kontrolerako programak aplikatzea eta, oro har, 1984ko mailekin alderatuta, eskistosomiasiarene eta beste trematodiasien eragina, hurrenez hurren, % 40 eta % 25

³ A/45/625 eranskina.

- jaistea; horrez gain, filariasiaren eragina, prebalentzia eta intentsitatea kontuan hartzeko moduan murriztea;
- j) HIESaren aurkako borrokan nazio eta nazioarteko ekintzak mugiaraztea eta bateratzea, giza immunoeskasiaren birusaren infekzioa ekiditeko eta infekzio horren ondorio pertsonal eta sozialak gutxitzeko;
 - k) Tuberkulosiaren berragerpena eragozte; horretarako arreta berezia jarri behar zaie hainbat antibiotikori erresistentzia egiteko moduei;
 - l) Hobetutako txertoen inguruko ikerketak bizkortzea eta, ahal den neurrian, gaixotasunei aurre hartzeko txertoak erabiltzea.

Jarduerak:

Gobernu guztiek, osasun publikoaren planekin, lehentasunekin eta nazioaren helburuekin bat, osasunaren babeserako ekintza-plan nazionala prestatzeko aukera aztertu beharko lukete, nazioarteko lankidetzaren eta babes egokiek. Plan hauek, gutxienez, honako osagai hauek eduki beharko lituzke:

a) Osasun publikoaren sistema nazionalak:

- i) Gaixotasun kutsakorrek sortzen dituzten ingurugiroaren arriskuak identifikatzeko programak;
- ii) Epidemiologia-datuak zaintzeko sistemak. Sistema horiek gaixotasun kutsakorren sarrera, hedapena edo larriagotzea modu egokian aurreikusten lagundu beharko dute;
- iii) Parte hartzeko programak, HIESari aurre egiteko ekintza-prebentiboaren eta borrokaren inguruan Munduko Estrategian ezarritako printzipioekin bat datozen neurriak barne;
- iv) Gaixotasun kutsakorrei aurre egiteko txertoak;

b) Informazio publikoa eta osasun-hezkuntza:

Gaixotasun kutsakor endemikoen arriskuen inguruko informazioaren bidez heztea eta informazio hori hedatzea eta gaixotasun kutsakorrei aurre egiteko ingurugiroaren higienizazioaren metodoen kontzientzia sortzea, komunitateek gaixotasun horien aurkako borrokan funtzio bat izan dezaten;

c) Sektorerako lankidetzaren eta koordinazioa:

- i) Osasunaren sektorean esperientzia duten profesionalak, esate baterako, planifikazioko, etxebizitzako eta nekazaritzako sektoreetan atxikitzea;
- ii) Trebakuntza profesionala, arriskuen ebaluazioa eta kontrolerako teknologiaren garapena eragingarritasunez koordinatzeko arauak prestatzea;

d) Gaixotasun kutsakorrek hedatzen laguntzen duten ingurugiro-faktoreen kontrola:

Gaixotasun kutsakorrek aurreikusteko eta kontrolatzeko moduak aplikatzea, honako atal hauek kontuan hartuta: uraren eta saneamenduaren horniketaren kontrola, uren kontaminazioaren aurkako borroka, elikagaien kalitatearen kontrola, sektoreen aurkako borroka integratua, hondakinen bilketa eta deuseztapena eta ekologikoki arrazoizkoak diren ureztatzeen erabilpena;

e) Osasunaren lehen mailako arreta-sistema:

- i) Prebentzio-programak sendotzea, elikadura egokiari eta orekatuari arreta berezia jarritz;
- ii) Diagnostiko goiztiarra egiteko programak sendotzea eta prebentziorako eta tratamendurako neurriak goiz hartzeko ahalmena hobetzea;
- iii) Emakumeek eta haurrek giza immunoeskasiaren birusaren infekzioei dieten urrakortasuna murriztea;

f) Ikerketen babesa eta metodologiaren lanketa:

- i) Diziplina anitzeko ikerketa areagotzea eta hedatzea, bereziki gaixotasun tropikalak arintzeko eta mesede egin diezaieketen ingurugiro-baldintzak kontrolatzeko egin beharreko ahalegina barne;
- ii) Interbentziora bideratutako azterketak eratzea, kontrol politikak sortu eta prozeduren eraginkortasunaren ebaluazioa egin ahal izateko datu epidemiologikoen oinarri sendoa eduki ahal izateko;

- iii) Populazioaren eta osasun-zerbitzuetako langileen ikerketak egitea, kulturaren, portaeren eta gizartearen arloetako faktoreek kontrol prozeduretan duten eragina zehazteko;

g) Teknologien lanketa eta hedapena:

- i) Gaixotasun kutsakorren aurkako borroka eragingarria izateko teknologia berriak lantzea;
- ii) Ikerketen emaitzak hedatzeko erarik onena zein den zehazteko azterketen promozioa egitea;
- iii) Laguntza teknikoa ematea, ezagutzen eta esperientzien trukea barne.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 3.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 300 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Gaixotasunen prebentzioarako eta kontrolerako jardueren artean, gaixotasun kutsakorren kontrol integralen estrategia nazional eragingarriagoak egiteko behar diren oinarri epidemiologikoak, sozialak eta ekonomikoak ezartzera bideratutako ikerketak ere sartu beharko lirateke. Beharrezkoa izango litzateke ingurugiroaren kontrolerako modu eragingarriak tokian tokiko garapenaren baldintzetara egokitzea.

c) Giza baliabideen garapena:

Lanbide-trebakuntzako nazioko eta lurraldeko erakundeek gaixotasun kutsakorren prebentzioari eta kontrolari sektorearteko irizpide zabalarekin heldu beharko liekete; irizpide horren barruan epidemiologiaren, komunitateetan gaixotasunen prebentzioari eta kontrolari

buruzko trebakuntzaren, immunologiaren, molekulen biologiaren eta txerto berrien aplikazioaren alorretako trebakuntza sartu beharko litzateke. Osasun-hezkuntzaren inguruko materiala prestatu beharko litzateke, komunitateko langileek erabiltzeko eta amei etxeko zirineria-gaixotasunen prebentzioari eta tratamenduari buruzko hezkuntza emateko.

d) Gaitasuna areagotzea:

Osasunaren sektoreak gaixotasun kutsakorren banaketaren inguruko datu egokiak bildu beharko lituzke eta gaixotasun kutsakorren arriskua prebenitzen, arintzen eta ezabatzen beste sektoreekin kolaboratzeko eta erantzuteko beharrezko gaitasun instituzionala garatu beharko luke, ingurugiroaren babesaren bidez. Politikak zehazten dituztenen eta erabakiak hartzen dituztenen laguntza jaso beharko litzateke eta profesionalen eta, oro har, gizarte osoaren laguntza mugiarazi, eta komunitateak antolatu egin beharko lirateke autosufizientziara bideratzeko.

C. Talde zaugarriak babestea

Ekintzarako oinarriak:

Osasunaren oinarritzko beharrak asetzeaz arduratzeaz gain, talde zaugarriak -bereziki haurrak, gazte helduak, emakumeak, herri indigenak eta oso behartsuak- babesteko eta hezteko ahalegin berezia egin behar da, garapen jasangarria lortzeko ezinbesteko neurri gisa. Adinduen eta ezinduen osasunerako beharrei ere kasu berezia egin behar zaie.

Jaioberriak eta haurrak. 15 urtetik beherakoak munduko populazioaren herena dira. Haur horien guztien artean, urtean gutxienez 15 milioi hiltzen dira honako arrazoi hauetako batengatik: erditzeko garaian izandako traumatismoarengatik edo asfixiarengatik, arnas aparatuko infekzio larriarengatik, malnutrizioarengatik, gaixotasun kutsakorrengatik edo beherakoarengatik, azken finean, istripuengatik eta ekidin zitezkeen gaixotasunengatik. Malnutrizioak eta ingurugiroko aurkako zenbait faktorek haurren osasunean populazioko beste taldeetan baino eragin handiagoa dute eta, gainera, haur asko eskulan merke gisa edo prostituziorako esplotatzen dituzte.

Gazteak. Herrialde guztietako esperientzia historikoak frogatzen duen bezala, gazteak bereziki zaugarriak dira gazteen garapen egokirako ezinbestekoak diren laguntza sozialen era tradizionalak ahultzen dituzten garapen ekonomikoarekin lotura duten arazoekiko. Urbanizazioak eta ohitura sozialen aldaketek drogen erabilera okerra, nahigabeko haurduntzak eta gaixotasun benereoak, HIESa barne, areagotu egin dituzte. Gaur egun, munduko biztanleen erdia baino gehiago 25 urtetik beherakoak dira eta bostetik lau garapen bidean dauden herrialdeetan bizi dira. Ondorioz, garrantzitsua da esperientzia historikoa errepika ez dadin ahalegintzea.

Emakumea. Oraindik ere, garapen bidean dauden herrialdeetan emakumearen osasun egoerak eskas samarra izaten jarraitzen du eta, gainera, 80eko hamarkadan beren pobrezia eta malnutrizioa areagotu eta beren osasun egoera orokorra okertu egin ziren. Garapen bidean dauden herrialdeetako emakume gehienek oinarritzko hezkuntza izateko aukerarik gabe eta beren osasuna sustatzeko, ugalketa funtzioaren kontrol arduratsua egiteko eta beren egoera sozioekonomikoa hobetzeko mediorik gabe jarraitzen dute. Arreta berezia jarri behar litzaioke jaioaurreko arreta-zerbitzuak emateari, jaioberrien osasuna segurtzeko.

Herrialde indigenak eta beren komunitateak. Herrialde indigenek eta beren komunitateek munduko populazioaren zati handi bat osatzen dute. Beren esperientziaren emaitzak nahiko antzekoak dira, izan ere lurrekin tradizionalki izan duten harremana funtsean aldatu egin da. Langabeziaren, etxebizitza faltaren, pobrezia eta osasun txarraren arazoetan era neurrigabe

azaltzen dira. Herrialde askotan talde indigenak populazio orokorra baino bizkorrago hazten dira. Ondorioz, garrantzitsua da osasunaren inguruko ekimenak herrialde indigenei begira bideratzea.

Jarduerak:

Talde zaugarrien babeserako helburu nagusiak hauek dira: gizabanako guztiei beren ahalmen osoa (garapen osasuntsua, fisikoa, mentala eta espirituala) garatzeko aukera ematea; gazteei era osasuntsuan bizitzeko eta beren osasuna ziurtatzeko eta mantentzeko aukera ematea; emakumeek gizartean funtsezko betebeharra edukitzeko modua izatea eta herrialde indigenei laguntza gehiago eskaintzea, hezkuntzako, ekonomiako eta teknika arloko aukeren bidez.

Hautzaroaren aldeko Munduko Batzarrean haurren biziraupenarekin, babesarekin eta garapenarekin harremana duten helburu garrantzitsuak finkatu ziren, eta helburu hauek Agenda 21erako ere balio dute. Laguntzarako helburuek eta helburu sektorialek atal hauekin dute harremana: emakumearen osasuna, hezkuntza eta elikadurarekin; haurren osasunarekin; urarekin eta saneamenduarekin, oinarrizko hezkuntzarekin eta bereziki egoera zailean dauden haurrekin.

Gobernuek premiazko neurri aktiboak hartu beharko lituzkete, herrialde bakoitzaren baldintza eta sistema juridikoen arabera, emakumeek eta gizonak beren seme-alaben kopurua eta banaketa modu librean eta arduratsuan erabaki ahal izateko eskubide berbera izan dezaten eta, beharraren arabera, informazioa, hezkuntza eta bitartekoak eskuratzeko aukera izan dezaten, askatasunarekin, duintasunarekin eta beren baloreekin bat, etika eta kultura iritziak kontuan hartuta.

Gobernuek neurri aktiboak hartu beharko lituzteke osasun prebentiboaren eta sendagarriaren zerbitzuak ezartzeko eta sendotzeko programak gauzatzeko. Zerbitzu hauen barruan bi atal hauek sartu beharko lirateke: ugalketako osasun zerbitzu seguru eta eragingarriak -emakumeari begira prestatuak eta emakumeak administratuak- eta familiaren tamaina arduratsuen inguruko planifikaziorako zerbitzu eskuragarriak eta sartzen errazak, askatasunarekin, duintasunarekin eta beren baloreekin bat, etika eta kultura iritziak kontuan hartuta. Programak osasun orokorreko zerbitzuak ematera zentratu beharko lirateke, jaioaurreko arreta eta osasunaren eta gurasotasun arduratsuen inguruko hezkuntza eta informazio barne; horrez gain, emakumeei beren seme-alabei bularra emateko aukera eman beharko litzaieke, gutxienez haurrak lau hilabete bete arte. Programek emakumearen funtzio produktiboa eta ugalketa-funtzioa babestu beharko lituzkete, baita beren ongizatea ere. Gainera, batetik, haur guztiei baldintza beretan osasun-zerbitzu hobekak emateko beharrari eta, bestetik, amen eta haurren gaixotasunerako eta heriotzerako arriskua jaisteko beharrari arreta berezia jarri beharko liekete.

Jarduerak:

Gobernu nazionalak, tokian tokiko erakundeekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlanean, programak sortu edo hobetu beharko lituzkete ondorengo alorretan:

a) Jaioberriak eta haur txikiak:

- i) Haurrentzako osasunaren oinarrizko arreta-zerbitzua indartzea, osasunaren lehen mailako arreta-zerbitzuak ematearen barruan, jaio aurreko arretaren, amagandiko edoskitzearen, immunizazioaren eta elikaduraren inguruko programak ezartzea barne;
- ii) Hezkuntza-kanpaina handia egitea, beherakoa sendatzeko aho bidez errehidratatzeko terapiaren inguruan, arnas bideen infekzioak tratatzearen inguruan eta gaixotasun kutsakorren prebentzioaren inguruan;
- iii) Esparru juridikoa sortu, zuzendu eta aplikatu dadin sustatzea haurrak esplotazio sexualetik babesteko eta lantokietan babesteko;
- iv) Konposatu kimikoek ingurugiroan eta lantokian dituzten eragin toxikoetatik haurrak babestea;

b) Gazteak:

Osasun-sektorean eta hezkuntza sozialean gazteentzako zerbitzuak indartzea, osasunaren arazo zehatzen inguruan informazioa, hezkuntza eta aholkularitza hobek emateko, drogen erabilera desegokia eta tratamendu hobek barne;

c) Emakumeak:

- i) Nazio eta komunitate mailan, erabakiak hartzeko unean emakume-taldeek parte hartzea, osasunerako arazoak zehazteko eta osasun auziak emakumearen eta garapenaren nazioko ekintza-programetan sartzeko;
- ii) Adin guztietako emakumeak eskolara edo helduen hezkuntza-ikastaroetara joan daitezkeen eta berehala utz ez ditzaten pizgarri zehatzak ematea; atal honetan osasun-hezkuntzako ikastaroak eta lehen mailako osasun arretaren, etxeen higienizazioaren eta amaren osasunaren babesaren inguruko trebakuntza ere sartuko litzateke;

- iii) Emakumearen bizi-ziklo osoko osasunari eta elikadurari buruzko ezagutzaren, jarreraren eta praktikaren inguruko erreferentziazko inkestak eta azterketak egitea, bereziki ingurugiroaren degradazioaren ondorioen barruan baliabideen egokitasunaren inguruan;

d) Herri indigenak eta beren komunitateak:

- i) Baliabideen bidez eta kudeaketa autosufizientziaren bidez, osasun prebentiboaren eta sendagarriaren zerbitzuak indartzea;
- ii) Osasun-sisteman ezagutza tradizionalak eta esperientziak sartzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 3.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 300 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Hezkuntzaren inguruko erakundeak, osasunaren sektorekoak eta ikerketaren sektorekoak indartu egin beharko lirateke, talde zaugarrien osasuna hobetzen lagun dezaten. Talde horien arazo berezien inguruko ikerketa sozialak hedatu egin beharko lirateke eta arazo horientzako irtenbide malguak eta pragmatikoak aplikatzeko moduak ezarri beharko lirateke; honen barruan prebentziorako neurriei arreta berezia jarri beharko litzaieke. Osasunaren sektorean gazteen, emakumeen eta herrialde indigenen inguruan interesa agertzen duten gobernuei, erakundeei eta gobernuz kanpoko erakundeei laguntza teknikoa eman beharko litzaieke.

c) Giza baliabideen garapena:

Haurren, gazteen eta emakumeen osasunaren babeserako giza baliabideen garapenerako lanean hiru atal hauek sartu beharko lirateke: hezkuntza-erakundeak sendotzea, osasunaren babeserako hezkuntzako metoko interaktiboak sustatzea eta eragina duten taldeen artean informazioa hedatzeko gizarteko komunikabideak gehiago erabiltzea. Horretarako ezinbestekoa da profesionalki langile gehiago prestatzea -erizainak, emaginak, sendagileak, gizarte-zientzietan espezialistak eta hezitzaileak- osasuneko zerbitzu komunitarioetarako. Amak, familiak eta komunitateak heztea ere ezinbestekoa da eta hezkuntza, osasun publiko, populazio eta antzeko ministerioak sendotzea ere bai.

d) Gaitasuna areagotzea:

Hala behar denean, gobernuek ondorengoa bultzatu beharko lukete:

- i) Haurren, gazteen, emakumeen eta herrialde indigenen osasunarekin zerikusia duten arazoen inguruan aritzen diren organismoen eta taldeen artean informazioa trukatzeko sinposio nazionalak, multinazionalak eta lurraldeartekoak eta beste hainbat bilera antolatzea;
- ii) Emakumeen, gazte-taldeen eta herrialde indigenen erakundeak bultzatzea, osasun-zerbitzuak errazteko eta haurrei, gazteei, emakumeei eta herrialde indigenei ingurugiro osasuntsua segurtatzeko esparru juridikoak sortzearen, zuzentzearen eta aplikatzearen inguruan kontsulak egiteko.

7. ATALA: Giza kokapenen garapen jasangarria sustatzea

Sarrera

Herrialde industrializatueta, hirien kontsumo-motak munduko ekosistemaren gainean zama handia ezartzen ari dira, eta, bien bitartean, garapen bidean dauden munduko giza kokapenetan lehengai gehiago, energia gehiago eta garapen ekonomiko gehiago behar dute, hain juxtu oinarrizko ekonomia eta gizarte arazoak gainditzeko. Munduko leku askotan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, giza kokapenen baldintzak okertzen ari dira sektore horretan egiten diren inbertsio txikien ondorioz; inbertsio horiek herrialde horien baliabideen muga globalen ondorio dira. Azken datuen arabera -etadatu eguneratuak daude hori baieztatu ahal izateko- diru-sarrera gutxi dituzten herrialdeetan, gobernu zentralaren gastuen batez bestekoaren % 5,6 bakarrik bideratu zen etxebizitzarako, aisialdirako, gizarte segurantzarako eta ongizaterako⁴. Babeserako erakundeen gastuak eta nazioarteko finantzazioa ere oso baxuak dira. Esate baterako, dohaintzen bidez finantzatutako Nazio Batuen sistemaren gastu guztien % 1 bakarrik bideratu zuren 1988an giza kokapenetara⁵; bestalde, 1991n hiriaren garapenerako eta uren eta estolderiaren horniketarako Munduko Bankuaren eta Sustapenerako Nazioarteko Elkartearen (SNE) maileguak, hurrenez hurren, % 5,5 eta % 5,4 igo ziren, beren mailegu guztiak kontuan hartuta⁶.

Bestalde, eskura dagoen informazioak adierazten du giza kokapenen sektorean lankidetzaren teknikoaren jarduerak inbertsio handiak sortzen dituztela sektore publiko eta pribatuan. Esate baterako, Garapenerako Nazio Batuen Programak 1988an giza kokapenekin harremana duten

⁴ Ez dago kopuru orokorrik ez barruko gastuen inguruan, ez giza kokapenetara zuzenduta garapenerako asistentzia ofizialen inguruan. Hala ere, 1991ko Munduko Garapenaren inguruko Txosteneko datuek -diru-sarrera gutxi dituzten eta garapen bidean dauden 16 herrialderentzako emanak- adierazten dute gobernu zentralak etxebizitzarako, aisialdirako eta gizarte-segurantzarako eta gizartearen ongizaterako dituzten gastuen kopurua % 5,6koa zela 1989an; kopururik altuena Sri Lankarena zen % 15,1ekin, etxebizitza-programa energetikoa hasi baitu. Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen herrialde industrializatueta, urte berean, gobernu zentralaren etxebizitzako, aisialdirako eta gizarte-segurantzarako eta gizartearen ongizaterako kopurua gutxieneko % 29,3ren eta gehiengo % 49,4ren artekoa zen; batez bestekoa, berriz, % 39koa zen (Munduko Bankua, Munduko Garapenaren inguruko Txostena, 1991, munduko garapenari buruzko adierazleak, 11. taula (Washington, D.C., 1991)).

⁵ Ikusi Nazioarteko Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako zuzendari nagusiaren txostena. Txosten honetan Nazio Batuen 1988ko sistemaren operazio-jardueren inguruko aurretiko datu estatistikoak agertzen dira (A/44/324-E/1989/106/Add.4, eranskina).

⁶ Munduko Bankua, Urteko txostena, 1991 (Washington, D.C., 1991).

lankidetzaren teknikoetan gastatutako dolar bakoitzak 122 dolarreko inbertsio osagarria sortu zuen, GNBPKo laguntza-sektore guztien artean altuena⁷.

Hau giza kokaguneen sektoreetarako sustatzen den "ikuspegi bultzagilearen" oinarria da. Kanpoko asistentziak, 2000. urterako eta geroko, biztanle guztien -geroz eta gehiago diren langabetuak, hau da diru-sarrerarik gabeko taldea, barne- bizitzeko eta lanerako baldintzak hobetzeko behar diren barruko baliabideak sortzen lagunduko du. Era berean, herrialde guztiek hiriaren garapenaren ingurugiroaren ondorioak onartu egin behar dituzte eta era integratuagoan aurre egin behar diete; horrez gain, hirietako eta nekazaritzako gunetako behartsuen, langabetuen eta geroz eta gehiago diren diru-sarrerarik gabeko pertsonen beharrei lehentasuna eman behar diete.

Giza kokapenen helburua

Giza kokapenen helburu nagusia bertako bizitzaren kalitate soziala eta ekonomikoa eta ingurugiroaren kalitatea eta bizitzeko eta lanerako guztien baldintzak hobetzea da, bereziki hiriguneetako eta nekazaritzako gunetako behartsuena. Hobekuntza horrek oinarri hau izan behar du: lankidetzaren teknikoetako jarduerak, sektore publikoen eta pribatuen eta komunitateko sektoreen arteko lankidetzak eta komunitateko taldeen eta interes bereziko taldeen -esate baterako, emakumeen, herrialde indigenen, adinduen eta ezinduen- partaidetza. Ikuspegi horiek giza kokapenen estrategien oinarri izan behar dute. Estrategia horiek egiteko garaian, herrialdeek atal honetan agertzen diren zortzi programa-arloen artean lehentasunak finkatu beharko dituzte, plan eta helburu nazionalekin bat eta gizarte- eta kultura-gaitasuna kontuan hartuta. Horrez gain, herrialdeek estrategia horiek talde baztertuetan eta babesgabeetan izango duten eragina zaintzeko neurri egokiak hartu beharko lituzkete, bereziki emakumeen beharrak kontuan hartuta.

Atal honetako programa-arloak hauek dira:

- a. Guztientzako etxebizitza egokiak ematea;
- b. Giza kokapenen administrazioa hobetzea;
- c. Lurraren erabileraren planifikazio eta antolakuntza jasangarria sustatzea;
- d. Ingurugiro-azpiegituraren integrazioa sustatzea: ura, saneamendua, drainatzea eta hondakin solidoen kudeaketa;
- e. Giza kokapenetan energia- eta garraio-sistema jasangarriak sustatzea;

⁷ GNBPKo, "GNBPKo laguntza jasotzen duten proiektuekin harremana duten inbertsio-konpromisoak, 1988", 1. taula, "Inbertsio-konpromisoen sektoreen arteko banaketa 1988-1989an".

- f. Hondamendietara emanak diren lurraldeetako giza kokapenen planifikazioa eta kudeaketa sustatzea;
- g. Eraikuntzaren industrian jarduera jasagarriak sustatzea;
- h. Giza baliabideen garapena sustatzea eta giza kokapenen aurrerapenerako gaitasuna areagotzea.

Programa-arloak

A. Guztientzako etxebizitza egokiak ematea

Ekintzarako oinarriak:

Etxebizitza seguru eta osoa edukitzea ezinbestekoa da pertsonen ongizate fisiko, psikologiko, sozial eta ekonomikorako, eta nazioko eta nazioarteko funtsezko ekintza izan behar du. Etxebizitza egokia izateko eskubidea oinarritzko giza eskubidea da eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenean agertzen da. Hala ere, balioztatuta dagoenaren arabera, gaur egun gutxienez 1.000 milioi pertsonak ez du etxebizitza seguru eta osorik eta nazio eta mundu mailan neurri egokiak hartzen ez badira, kopuru hau asko handituko da mende honen amaierarako eta aurrerago.

Arazo honi aurre egiteko munduko programa nagusietako bat Etxebizitzaren 2000 urtera arteko Munduko Estrategia da, eta 1988ko abenduan onartu zuen Batzar Nagusiak (43/181 ebazpena, eranskina). Babes zabala jaso duen arren, Estrategiak politika eta finantza aldetik babes gehiago behar du mendea amaitzerako guztiei etxebizitza egokia emateko helburua lortu ahal izateko.

Helburuak:

Helburua azkar hazten ari diren herrialdeei eta hirietako eta nekazaritzako gunetako baztertutako behartsuei etxebizitza egokiak ematea da, ingurugiroaren garapenaren eta etxebizitzaren hobekuntzaren ikuspegitik begiratuta ikuspuntu bultzatzaile eta arrazoizkoaren bitartez.

Jarduerak:

Jarduera hauei ekin beharko litzaieke:

- a) Guztiek etxebizitzak izateko hartu beharreko lehen neurri gisa, herrialde guztiek beren biztanle behartsuei eta bizilekurik ez dutenei etxebizitzak emateko neurriak hartu beharko lituzkete, eta bitartean, nazioarteko komunitateak eta finantza-erakundeek behartsuei etxebizitza emateko garapen bidean dauden herrialdeen ahalegina babesteko neurriak hartu beharko lituzkete;
- b) Herrialde guztiek etxebizitzarako estrategia nazionalak onartu edo sendotu beharko lituzkete, eta estrategia horiek, kasuaren arabera, Etxebizitzaren 2000 urte arteko Munduko Estrategiaren printzipio eta aholkuetan oinarrituta egon beharko lukete.

- Biztanleak beren etxeen edo lurren utzarazte bidegabeen aurka legez babestu beharko lirateke;
- c) Herrialde guztiek, hala dagokienean, hiriko eta nekazaritzako guneeetako behartsuentzako, langabetuentzako eta diru-sarrerarik gabekoentzako etxebizitzak lortzeko egindako ahalegina babestu beharko lukete bitarteko hauen bidez: batetik, kodeak eta araudiak onartuz edo aurretik daudenak egokituz, lurrak, finantzazioa eta materialak kostu gutxirekin eskuratzeko aukera errazteko, eta, bestetik, erregularizazioaren sustapen aktiboaren bidez eta kokapen espontaneoan eta hiriko auzo-zuloen hobekuntzaren bidez, hiriko etxebizitzaren defizitarentzako konponbide praktikoko gisa eta berehalako neurri gisa;
 - d) Herrialde guztiek, hala dagokienean, hiriko eta nekazaritzako guneeetako behartsuei etxebizitza eskuratzeko aukera erraztu beharko liekete etxebizitza- eta finantzazio-planak eta beren egoeretara egokitutako mekanismo berritzaileak onartuz eta erabiliz;
 - e) Herrialde guztiek babestu eta landu beharko lituzkete etxebizitzarako estrategia ekologikoki arrazoizkoak nazio, estatu/lurralde eta herri mailan, sektore pribatuaren, sektore publikoaren eta komunitatearen arteko lankidetzaren bidez eta komunitateko erakundeen laguntzarekin;
 - f) Herrialde guztiek, eta bereziki garapen bidean dauden herrialdeek, hala dagokienean, landetatik hirirako migrazioaren fenomenoaren eraginak gutxitzeko programak egin eta aurrera eraman beharko lituzkete, nekazaritzako bizi-baldintzak hobetuz;
 - g) Herrialde guztiek, hala dagokienean, jendea beste leku batean finkatzeko programak egin eta aurrera eraman beharko lituzkete, norberaren herrialdearen barruan lekualdatutako biztanleen arazo partikularrei aurre egiteko;
 - h) Herrialde guztiek, hala dagokienean, etxebizitzako estrategia nazionalak aplikatzearen inguruan informazioa bildu eta aplikazio hori zaindu egin beharko lukete, besteak beste, Giza Kokapenen Batzordeak onartutako zaintzako arauak eta Giza Kokapenetarako Nazio Batuen Zentroa (Habitat) eta Munduko Bankua elkarrekin egiten ari diren etxebizitzaren kalitate-adierazleak erabiliz;
 - i) Alde biko eta alde askotako lankidetzaren sendotu beharko litzateke, garapen bidean dauden lurraldeetako etxebizitzako estrategia nazionalak gauza daitezen babesteko;
 - j) Bi urtetik behin, Etxebizitzako 2000 urtera arteko Munduko Estrategian eskatzen denaren arabera, munduko aurrerapenen inguruko txostenak egin beharko lirateke, eta nazio mailako neurriak eta nazioarteko erakundeen eta alde biko emaileen laguntzarako jarduerak barne hartu beharko lituzkete.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 75.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 10.000 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Izenburu honi dagozkion beharrei buruz atal honetako gainerako programa-arloetan hitz egiten da.

c) Giza baliabideen kudeaketa eta gaitasuna areagotzea:

Garatutako herrialdeek eta finantzazio-erakundeek babes berezia eman beharko liekete garapen bidean dauden herrialdeei, guztientzako -baita diru-sarrerarik gabekoentzako ere- etxebizitza izateko ikuspegi bultzatzailea hartuta, eta honen barruan ikerketa-erakundeak eta gobernu funtzionarioentzako, profesionalentzako, komunitateko erakundeentzako eta gobernu kanpoko erakundeentzako trebakuntza-jarduerak sartu beharko liriateke, teknologia egokiak lantzeko tokian tokiko gaitasuna areagotzearen bidez.

B. Giza kokapenen administrazioa hobetzea

Ekintzarako oinarriak:

Mendea amaitzen denerako, munduko biztanle gehienak hirietan biziko dira. Hirietako asentamenduek, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetakoek, ingurugiroaren eta garapenaren munduko krisiaren sintomak azalarazten badituzte, nazio-produktu gordinaren % 60 sortzen badute eta administrazioaren alorreko lanak behar bezala egiten badituzte, beren produktibitateari eusteko ahalmena garatzeko aukera, beren biztanleen bizi-baldintzak hobetzeko aukera eta baliabide naturalak era jasangarrian administratzeko aukera izango dute.

Metropoliko gune batzuk hainbat erakunde politiko edo administratibo baino harantzago hedatzen dira (barrutiak eta udalak), hiri-sistema jarraia osatzen duten arren. Kasu askotan, heterogeneotasun politiko honek inguruaren antolakuntzarako programa zabalen aplikazioari kalte egiten dio edo zaildu egiten du.

Helburuak:

Helburua hirietako asentamenduen antolakuntza jasangarria lortzea da, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, bertako biztanleen, bereziki baztertuen eta babesgabeen, bizi-baldintzak hobetzeko gaitasuna areagotzeko; honela garapen ekonomikoaren helburu nazionalak lortzen laguntzen da.

Jarduerak:

a) Hiriko administrazioa hobetzea:

- 1) Kudeaketa sendotzeko dagoen esparrua hau da: Garapenerako Nazio Batuen Programaren, Munduko Bankuaren eta Giza Kokapenarako Nazio Batuen Zentroaren (Habitat) Hiriko Administrazioaren Programa, hau da, garapen bidean dauden herrialdeei hiri-kudeaketako arazoei aurre egiten laguntzeko aurrez adostutako munduaren ahalegina. Interesa duten herrialde guztietara hedatu beharko litzateke 1993-2000 urteen artean. Hala dagokienez, nazioko planekin, helburuekin eta lehentasunekin bat eta gobernuz kanpoko erakundeen eta tokian tokiko agintarien ordezkarien languntzarekin, herrialde guztiek jarduera hauei ekin beharko lietekete, nazio, estatu/lurralde eta herri mailan, dagokien programen eta erakundeen laguntzarekin:

- a) Hiri-kudeaketarako lurren antolakuntza, hiri-antolakuntza, azpiegitura- eta finantza-kudeaketa eta herri-administrazio alorretan arauak onartzea eta aplikatzea;
- b) Hiriko guneetan pobrezia gutxitzeko ahaleginak bizkortzea, esate baterako neurri hauen bidez:
 - i) Hiriko guneetako behartsuentzat lana sortzea, bereziki emakumeentzako, hiriko azpiegiturak eta zerbitzuak sortuz, hobetuz eta kontserbatuz eta egituratu gabeko sektoreetan -hala nola, konponketetan, birziklatzeetan, zerbitzuetan eta saltoki txikietan- jarduera ekonomikoak bultzatuz;
 - ii) Hiriko guneetako biztanle behartsuenei laguntza zehatzak ematea, beste gauza batzuen artean gosea eta etxebizitza falta gutxitzeko azpiegitura sozialak sortuz eta komunitate mailan zerbitzu egokiak emanez;
 - iii) Komunitatean oinarritutako indigenen erakundeak, boluntarioen erakunde pribatuak eta gobernuz kanpoko hainbat erakunde mota sor daitezen bultzatzea; bereziki, pobrezia gutxitzen eta diru-sarrera gutxiko familien bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten erakundeak sor daitezen bultzatzea;
- c) Auzi ekologikoei eta sozialei aurre egiteko hirigintzako estrategia berritzaileak onartzea, honakoaren bidez:
 - i) Diru-laguntzak murriztuz eta diru-sarrera gehiago dituzten biztanleei ematen zaizkien ingurugiro-zerbitzuei eta kalitate handiko beste hainbat zerbitzuri (esate baterako, uraren horniketa, saneamendua, zakarren bilketa, bideak eta telekomunikazioak) dagozkien gastuak berreskuratuz;
 - ii) Azpiegituren mailan hobetuz eta hiriko gune pobreenetan zerbitzuak emanez;
- d) Bizi-kalitatea eta ingurugiroaren kalitatea hobetzeko tokian tokiko estrategiak lantzea; estrategia horietan lurren erabileraren eta antolakuntzaren inguruko erabakiak eta sektore publikoaren eta pribatuaren inbertsioak sartu beharko dira eta giza baliabideak eta baliabide materialak mugiarazi beharko dira, honela giza osasuna babestuko duten lanbide ekologikoki arrazoizkoak sortzeko.

b) Hiriko datuen sistemak sendotzea:

1993-2000 urteen artean herrialde guztiek, dagokien kasuetan, enpresa-sektorearen parte-hartze aktiboarekin, hainbat hiritan proiektu esperimentalak gauzatu beharko lituzkete hiriko datuak biltzeko, analisia egiteko eta ondoren hedatzeko, ingurugiroan

sortutako eraginei buruzko analisiak barne, herri, estatu/lurralde, nazio eta nazioarte mailan, eta hirien inguruko datuak kudeatzeko gaitasuna sortu beharko lukete⁸. Nazio Batuen Habitat, NBIP eta GNPB erakundeek laguntza teknikoa eta datuak kudeatzeko sistemen ereduak eskaini ditzakete.

c) Tarteko hirien garapena sustatzea:

Garapen bidean dauden herrialdeetako hiri-aglomerazio handietako presioa arintzeko, tarteko hirien garapenerako estrategiak eta politikak onartu behar dira, honako bi helburu hauekin: batetik, nekazaritzako gunetako langabetuentzako lanerako aukerak sortzeko eta, bestetik, nekazaritzako gunetan oinarritutako ekonomia-jarduerak sortzeko. Hala ere, ezinbestekoa da hiriko guneen antolakuntza arrazoizkoa, hirien hazkuntza neurrigabeak baliabideen degradazioa lur gehiagotara zabal ez dezan eta gune irekiak, laborantzarako lurrak eta ingurabide berdeak urbanizatzeko presioak areagotu ez daitezen.

Beraz, hala dagokienean, herrialde guztiek hirigintzako prozesu eta politika guztiak aztertu beharko lituzkete hazkundeak ingurugiroan duen eragina ebaluatzeko eta hazten ari diren hiri ertainen beharretara, baliabideen gaitasunera eta ezaugarrietara egokitutako hirigintza- eta kudeaketa-irizpideak aplikatzeko. Kasuaren arabera, nekazaritzako bizimodutik hiriko bizimodurako aldaketa errazteko jardueretan eta asentamendu motetan ere jarri beharko lukete arreta. Horrez gain, maila txikiko jarduera ekonomikoen garapena sustatu beharko lukete, bereziki elikagaien produkzioa, herrietan diru-sarrerak sortzeko eta baztertuen dauden nekazaritzako guneen tarteetan ondasunak eta zerbitzuak sortzeko.

Hiri guztiek, bereziki garapen jasangarriaren inguruko arazo larriak dituztenek, nazioko legeekin, arauekin eta araudiekin bat, arazo horiei aurre egiteko eta beren garapena era jasangarrian bideratzeko programak egin eta sendotu beharko lituzkete. Ahalegin horiek babesteko nazioarteko ekimen batzuk badaude Habitaten Hiri jasangarrien programan eta OMEren Hiri osasuntsuen programan, eta areagotu egin beharko lirateke. Munduko Bankuaren, garapenaren lurraldeko bankuen, alde biko erakundeen eta konprometitutako

⁸ Mota honetako programa esperimental bat, Hirien inguruko Datuen Programa, jadanik martxan da Giza Kokapenatarako Nazio Batuen Zentroan (Habitat), eta programa honen helburua datuak biltzeko, lantzeko eta errekuaratzeko ordenagailuko programak sortzea eta bertan parte hartzen duten hiriei ematea da, ondoren herri, nazio eta nazioarte mailan trukeak egiteko eta hedatzeko.

aldean, bereziki nazioarteko eta nazioko herri-agintarien ordezkarien beste ekimen batzuk ere sendotu eta koordinatu beharko lirateke. Kasuaren arabera, hiriek ondorengo egin beharko lukete:

- a) Partaidetza-irizpidea instituzionalizatzea, hiriaren garapenean parte hartzen dutenen (sektore publikoa, sektore pribatua eta komunitateak), bereziki emakumeen eta herrialde indigenen, arteko elkarriketa etengabea oinarri duen hiriko garapen jasangarrirako;
- b) Hiriko ingurugiroa hobetzea, horretarako antolakuntza soziala eta ingurugiroaren kontzientzia sustatuz, honakoaren bitartez: beharrezkoak diren zerbitzu publikoak zehazteko tokian tokiko komunitateen parte-hartzearen bidez, hiriko azpiegituraren horniduraren bidez, zerbitzu publikoak hobetzearen bidez eta eraikuntza zaharrak, esparru historikoak eta beste hainbat elementu kultural babestearen eta birgaitzearen bidez. Gainera, "lan berde"en programak sustatu beharko lirateke, batetik, beren kasa aurrera egiten duten giza garapeneko jarduerak eta, bestetik, sektore egituratuetan eta egituratu gabeetan diru-sarrerara gutxiko hiriko biztanleei lanerako aukerak sortzeko;
- c) Herriko gobernu-organoen ahalmena sendotzea, hiriaren hazkuntza azkarrarekin eta arrazoizkoarekin lotzen diren garapenaren eta ingurugiroaren arazo ugariari modu eragingarriagoan aurre egiteko, hirien mota askotako beharrak barne hartzen dituen eta hirigintzako jarduera ekologikoki arrazoizkoetan oinarritzen diren planifikaziorako irizpide zabalagoen bidez;
- d) Nazioarteko "hiri jasangarrien sarean" parte hartzea, esperientziak trukatzeko eta nazioko eta nazioarteko teknika- eta finantza-laguntzak mugiarazteko;
- e) Ekologikoki arrazoizkoak eta kulturalki sentiberak diren programak egin daitezten sustatzea, hiriko eta nekazaritzako kokapenen garapen jasangarrirako estrategia gisa eta hiriko garapena deszentralizatzeko eta lurraldeen arteko desadostasunak murrizteko era gisa;
- f) Dagokien nazioarteko erakundeekin, ingurugiroaren kalitatea hobetzeko herri-ekimenentzako baliabideak sustatzeko mekanismoak ezartzea;

- g) Talde komunitarioak, gobernuz kanpoko erakundeak eta partikularrak prestatzea, beren ingurua antolatze eta hobetzeko aginpidea eta ardurak har ditzaten, ingurugiroaren arretaren kontzeptua hartzen duten partaidetza-bitartekoen, -tekniken eta -irizpideen bitartez.

Herrialde guztietako hiriek beren arteko lankidetzak sendotu egin beharko lukete, esparru honetan ari diren gobernuz kanpoko erakundeen laguntzarekin, esate baterako erakunde hauen laguntzarekin: Herri mailako Agintarien Nazioarteko Batasuna International (ANBI), Ingurugiroaren alorreko ekimen lokaletarako nazioarteko kontseilua (ICLEI) eta Senidetutako hirien mundu mailako federazioa.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 100.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emando dituen 15.000 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberrakoak izango dira.

b) Giza baliabideen kudeaketa eta gaitasuna areagotzea:

Garapen bidean dauden herrialdeek, nazioarteko lankidetzak egokiarekin, hiriko administratzaileen eta teknikarien eta eurekin lotura duten beste talde batzuen trebakuntzan eta heziketan arreta jartzeko aukera aztertu beharko lukete. Talde honek hiriaren hazkuntza eta garapen ekologikoki arrazoizkoa arrakastaz administratzeko ahalmena izan beharko luke eta beste hiri batzuetako esperientzia berritzaileak aztertze eta egokitzeko behar adina ezagutza tekniko eduki beharko luke. Horretarako, hezkuntza-mota guztiak erabili beharko liriteke, bai eskolako irakaskuntza, bai hedabideen erabilera, bai ikasketak praktikoen aukera.

Gainera, garapen bidean dauden herrialdeek trebakuntza eta ikerketa teknologikoak sustatu beharko lituzkete, hondakinen murrizketaren, uraren kalitatearen, energia

aurreztearen, arriskurik gabeko produktu kimikoen produkzioaren eta gutxiago kutsatzen duen garraioaren alorretan, emaileen, gobernuz kanpoko erakundeen eta enpresa pribatuen ahalegin bateratuaren bidez.

Aurreko paragrafoetan iradokitzen den bezala, garapen bidean dauden herrialdeek, laguntzarekin, garatutako gaitasuna sortzeko jardueretan pertsonen eta talde funtzionalen trebakuntza sartzeaz gain, konponketa instituzionalak, administrazioako jarduerak, erakundeen arteko loturak, informazio-korronteak eta kontsulta-prozesuak sartuko lukete.

Horrez gain, Hiriko Administrazioaren Programak eta antzeko nazioarteko jarduerak, alde biko eta alde askotako erakundeekin lankidetzan, partaidetza-egitura sortzeko ahaleaginean garapen bidean dauden herrialdeei babesa ematen jarraitu behar lukete, sektore pribatuaren, gobernuz kanpoko erakundeen eta behartsuen, bereziki emakumeen eta desabantaila duten pertsonen, giza baliabideak mugiaraziz.

C. Lurraren erabileraren planifikazio eta antolakuntza jasangarria sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Lurren baliabideak eskuratzeko aukera ingurugiroari kalte gutxi egiten dioten bizi-tza-mota jasangarrientzako ezinbesteko osagaia da. Lurreko baliabideak bizi-tza-sistemen (gizakien bizi-tza-sistemaren) oinarri dira eta lurra, energia, ura eta giza jardura guztiak egiteko aukera ematen dute. Azkar hazten diren hiriguneetan lurra eskuratzeko geroz eta zailagoa da, industriaren, etxebizitzaren, merkataritzarekin, nekazaritzaren, lurren jabetzaren egituraren eta gune irekiak izateko beharren eskaera dela eta. Horrez gain, hiriko lurren kostuaren igoerak behartsuei lur egokiak eskuratzeko aukera eragozten die. Nekazaritzako guneetan, jardura eutsiezin batzuek hondatu egiten dute ingurugiroa eta pobretutako nekazaritzako lurren errendimendua gutxitu egiten dute. Jardura horiek, esate baterako, bazterreko lurren ustiapena, merkataritza interesengatik ekologiaren aldetik ahulak diren guneen eta basoen inbasioa eta lurrik gabeko nekazaritzako herrialdeen inbasioa dira.

Helburuak:

Helburua giza kokapenen garapenerako lurren beharra asetzea da, planifikazio fisikoaren eta lurren erabilera ekologikoki arrazoizkoaren bidez familia guztiek lurra edukitzeko aukera izateko eta, hala dagokienez, lurren herriaren eta taldeen jabetza eta kudeaketa bultzatzeko⁹. Arreta berezia jarri beharko litzaieke ekonomia eta kultura aldetik emakumeek eta herrialde indigenek dituzten beharrei.

Jarduerak:

Garapen bidean dauden herrialde guztiek, hala dagokienez, lurreko baliabideen inbentario nazional osoa egiteko aukera aztertu beharko lukete, lurren informazio-sistema ezartzeko. Informazio-sistema horretan lurra baliabideen erabilera egokienaren arabera sailkatu egongo liriteke eta, babeserako neurri bereziak hartu ahal izateko, ekologiaren aldetik ahulak diren eta hondamenerako aukera gehiago dituzten guneak bereizita egongo liriteke.

Ondoren, herrialde guztiek lurren baliabideak antolatzeko plan nazionalak egin beharko lituzkete, esate baterako, baliabide horien garapenerako eta erabilerarako gida. Horretarako ondorengoak egin beharko lukete:

⁹ Horretarako lurreko baliabideen antolakuntzarako politika integratuak behar dira, eta Agenda 21eko 10. atala gai honen ingurukoa da (Lurreko baliabideak planifikatzeko eta antolatzeko ikuspegi integratua).

- a) Hala dagokienean, hiriaren garapenaren politika publiko ekologikoki arrazoizkoa, lurren erabilera, etxebizitza eta hiriaren zabalkuntzaren antolaketa bideratzeko lege nazionala promulgatzea;
- b) Hala dagokienean, garapenerako taldearen beharrak aseko dituen lurren merkatu eragingarriak sortzea, beste gauza batzuen artean lurren erregistro-sistemak hobetuz eta salerosketen prozedurak erraztuz;
- c) Pizgarri fiskalak sortzea eta lurren erabilera kontrolatzeko neurriak hartzea, ikuspegi ekologikotik lurren baliabide mugatuen erabilera arrazionalagoa egiteko planifikazirako konponbideak barne;
- d) Sektore pribatuaren eta publikoaren eta komunitateen arteko elkarreak bultzatzea, lurren baliabideen antolakuntzaren inguruan, giza kokapenen garapenerako;
- e) Hiriko eta nekazaritzako kokapenetan komunitatean oinarritutako lurren baliabideen babeserako jarduerak sendotzea;
- f) Erabiltzaile guztiek -bereziki herrialde indigenek, emakumeek, tokian tokiko komunitateek, hiriko gunetako diru-sarrera gutxi dituzten biztanleek eta nekazaritza geuneetako behartsuek- lurak edukitzeko aukera izan dezaten lurak edukitzeko era egokiak ezartzea;
- g) Hiriko eta nekazaritzako gunetako behartsuek lurak izan ditzaten ahaleginak sustatzea, etxebizitza seguruak eta osasungarriak eraikitze, lortzeko edo hobetzeko lurak eta azpiegitura-zerbitzuak erosteko mailegu-programak barne;
- h) Lurren antolakuntzarako jarduera hobeak gautzatzeko babesa ematea; hauen barruan nekazaritzarako, industriarako, garraiorako, hiriaren garapenerako, gune berdeetarako, erreserbetarako eta beste ezinbesteko behar batzuetarako lurren behar lehiakorrek egongo lirateke;
- i) Politikak aurrera eramateko ardura dutenek ekologiaren aldetik ahulak diren gunetan planifikatu gabeko kokaguneak egitearen ondorio negatiboak uler ditzaten bultzatzea eta helburu hori duten lurren erabileraren eta beharrezko kokaguneen inguruko nazio- eta herri-politika egokiak uler ditzaten bultzatzea.

Nazioarte mailan, alde biko eta alde askotako erakundeek eta programek Lurreko baliabideak antolatzeko jardueren munduko koordinazioa hobetu egin beharko lukete; esate baterako,

GNBP, FAO, garapenerako lurraldeetako bankuak, interesa duten erakundeak eta GNBP/Munduko Bankua/Habitat programa bateratua daude honen barruan. Horrez gain, garapen bidean dauden herrialdeetan aplika daitezkeen lurren antolakuntzako jarduera jasangarrien esperientzien transferentzia sustatzeko neurriak hartu beharko lituzkete.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 3.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 300 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Herrialde guztiei, bereziki garapen bidean dauden herrialdeei, bakarka edo lurraldeko edo azpilurraldeko zati gisa, lurren baliabideak antolatzeko teknika modernoek baliatzeko aukera erraztu beharko litzaieke; teknika horien artean, besteak beste, hauek egongo lirateke: informazio geografikoa eskuratzeko sistemak, satelite bidez ateratako argazkien bilduma eta urruneko behaketako beste teknika batzuk.

c) Giza baliabideen kudeaketa eta gaitasuna areagotzea:

Lurren baliabideen planifikazio eta kudeaketa jasangarrian, herrialde guztiek ingurugiroari buruzko trebakuntza-jarduerak antolatu beharko lituzkete eta garapen bidean dauden herrialdeei lagundu beharko liekete, babeserako eta finantzatzeko nazioarteko herrialdeen bidez. Honen helburua honakoa izango litzateke:

- a) Irakaskuntzaren alorrean, nazioko, estatuko/lurraldeko eta herrietako erakundeek hezkuntzarako eta ikerketarako ahalmena sendotzea, lurren antolaketako profesionalak eta teknikariak trebatzeko;
- b) Lurren auziez arduratzen diren gobernuko ministerioen eta organismoen

azterketa erraztea, batetik, lurren baliabideen antolakuntzarako mekanismo eragingarriagoak eratzeko eta, bestetik, aldian-aldian, langileak lurren baliabideak antolatzeko dauden teknika eguneratuetara ohitu daitezen, lanean administratzaileentzat eta langileentzat erreparorako ikastaroak antolatzeko;

- c) Hala egokituz gero, organismo horiei ekipo modernoak ematea, esate baterako, ordenagailuak eta ordenagailuetako programak eta ikuskapenerako ekipoak;
- d) Aurretik dauden programak sendotzea eta nazioartean eta lurraldeen artean lurren antolakuntzari buruzko informazioa eta esperientzia trukatzeko ekimenak sustatzea, lurraren antolaketa-zientzien eta antzeko jardueren inguruko elkarte profesionalak sortuz; esate baterako ikastaro praktikoak eta mintegiak.

D. Ingurugiro-azpiegituren integrazioa sustatzea: ura, saneamendua, drainatzea eta hondakin solidoen kudeaketa

Ekintzarako oinarriak:

Baliabide hidrikoekin, airearen kalitatearekin eta saneamendurako eta hondakinen kudeaketarako ingurugiro-azpiegitura izatearekin harremana duten parametro asko daude, eta parametro horiek hiriko garapenaren jasangarritasuna definitzen dute. Erabiltzaileen dentsitatea dela eta, urbanizazioak, ongi administratzen bada, ingurugiro-azpiegitura jasangarria sortzeko aukera bikainak eskaintzen ditu, prezioak finkatzeko politiken eta irakaskuntza-programa egokien bidez; ekonomiaren eta ingurugiroaren aldetik arrazionalak diren sarbide-mekanismo zuzenen bidez ere izan daitezke. Hala ere, garapen bidean dauden herrialde gehienetan oro har dagoen osasun txarra eta ekidin zitekeen urteko heriotza-tasa handia ingurugiro-azpiegituraren eskasiaren edo gabeziaren ondorio izan daitezke. Herrialde horietan baldintzak okertu besterik ezin daitezke egin, beharrak geroz eta handiagoak baitira eta gobernuek behar bezala erantzuteko duten ahalmena gainditu egiten baitute.

Giza kokapenetan, bereziki hiriko eta nekazaritzako gune behartsuetan, azpiegitura ekologikoki arrazionalaren horniketarako ikuspegi integratua garapen jasangarrirako inbertsioa da eta bizi kalitatea hobetu, produktibitatea handitu, osasuna hobetu eta medikuntza terapeutikorako eta pobrezia arintzeko inbertsioen karga murriztu egin ditzake.

Jarduera gehienek kudeaketa ikuspegi integratuaren bidez hobetuko litzateke eta jarduera horiek Agenda 21en agertzen dira, ondorengo ataletan: [6](#) (Giza osasuna babestea eta sustatzea), [9](#) (Atmosfera babestea), [18](#) (Ur gezatako baliabideen kalitatea babestea eta hornitzea) eta [21](#) (Hondakin solidoen kudeaketa ekologikoki arrazoizkoa eta estoldetako urekin lotura duten auziak) ataletan.

Jarduerak:

Helburua 2025. urterako kokaleku guztietan ingurugiro-azpiegituren instalazio egokiak izan daitezen segurtatzea da. Helburu hori lortzeko, garapen bidean dauden herrialde guztiek 2000 urterako beren nazio-estrategietan azpiegitura eta planifikazio ekologikoaren integrazio hobea segurtatzeko beharrezkoak diren giza baliabideen, tekniken eta finantzen alorreko gaitasuna sendotzeko programak sartu beharko lituzkete.

Jarduerak:

Herrialde guztiek giza kokapenen azpiegituren alde ekologikoak ebaluatu beharko lituzkete, guztiek hondakinak kudeatzeko helburu nazional jasangarriak ezarri beharko lituzkete eta guztiek ingurugiroa, giza osasuna eta bizi-kalitatea babesteko teknologia ekologikoki arrazionala erabili beharko lukete. Alde biko eta alde askotako organismoen laguntzarekin, kokapenetako azpiegiturak eta programa ekologikoak sendotu beharko liriateke; programa ekologiko hauek planifikazioan, garapenean, kontserbazioan eta ingurugiro-azpiegituren (uren horniketa, saneamendua, drainatzea, hondakin solidoen kudeaketa) kudeaketan giza kokapenen irizpide integratua bultzatzera bideratuta egon beharko lukete. Organismo horien arteko koordinazioa eta tokian tokiko agintarien, sektore pribatuaren eta talde komunitarioen nazioarteko eta nazioko ordezkarien laguntza berdin-berdin sendotu beharko liriateke. Ahal den neurrian, ingurugiro-azpiegiturak sortzen parte hartzen duten organismo guztien jarduerak ekosistemetan edo metropoli-guneetan oinarritutako kokapenen planteamendua islatu beharko lukete eta beren barruan, programen jardueren artean, ikuskapena, ikerketa aplikatua, beharrezko egituren sorkuntza, teknologia egokien transmisioa eta lankidetzak teknikoak sartu beharko liriateke.

Nazio eta herri mailan laguntza eman beharko litzaieke garapen bidean dauden herrialdeei, uraren horniketarako, energiarako, saneamendurako, drainatze-lanerako eta hondakin solidoen kudeaketarako irizpide integratuak onar ditzaten. Bestalde, kanpoko finantza-erakundeek irizpide horiek aplikatu egingo direla ziurtatu beharko lukete, bereziki, komunitatearen bizi-baldintzak eta baliabideak barne hartzen dituzten araudietan eta arauetan oinarritu ez diren planifikatu gabeko kokapenetan ingurugiro-azpiegiturak hobetzeko.

Herrialde guztiek, hala dagokienez, ingurugiro-azpiegiturak sortzeko ondorengo irizpideak onartu beharko lituzkete:

- a) Ahal den neurrian, ingurugiro-kalteak murrizteko edo ekiditeko politikak onartzea;
- b) Erabaki guztiak ingurugiroan izandako eraginen ebaluazioetan oinarrituta egon daitezen begiratzea eta ondorio ekologiko guztien gastuak kontuan har ditzaten begiratzea;
- c) Tokian tokiko jarduerekin bat datorren garapena sustatzea eta tokian tokiko baldintzetarako egokiak diren teknologiak onartzea;
- d) Azpiegitura-zerbitzuen benetako gastuak erreperatatzeko politikak sustatzea eta, era berean, etxe guztiei oinarritutako zerbitzuak eskaintzeko planteamendu egokiak (diru-laguntzak barne) izateko beharra onartzea;
- e) Hainbat herriri eragiten dieten arazo ekologikoak konpontzeko konponbide

bateratuak aurkitzea.

Dagoeneko badauden programen inguruko informazioa interesa duten herrialdeen eta herri-erakundeen artean hedatzeko aukera erraztu eta sustatu beharko litzateke.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 65 milioi ingurukoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Ahal den neurrian, dagoeneko badauden programetako bitarteko zientifikoak eta teknologikoak koordinatu egin beharko lirateke. Horretarako ondorengoa egin beharko litzateke:

- a) Ingurugiro-azpiegituren programetako eta proiektuetako politika integratuen alorrean ikerketak bizkortzea; ikerketa hauek gastuen arabera etekinen eta ingurugiroan sortutako eragin orokorren analisisian oinarrituta egon beharko lukete;
- b) "Benetako eskaera" ebaluatzeko moduak sustatzea, teknologiak aukeratzeko irizpide gisa ingurugiroaren eta garapenaren inguruko informazioa erabiliz.
- c) Giza baliabideen garapena eta gaitasuna areagotzea.

Finantza-erakundeekin laguntzarekin eta babesarekin, herrialde guztiek, hala dagokienez, herriaren trebakuntza- eta partaidetza-programak antolatu beharko lituzkete. Programa horien helburua honakoa izango litzateke:

- a) Hedabideekiko jendearen pertzepzioa, ikuspegiak eta ingurugiro-azpiegituren instalazioen horniketen onurak areagotzea, bereziki, herrialde indigenen, emakumeen, diru-sarrera gutxi dituztenen eta behartsuen artean;

- b) Azpiegituren zerbitzu integratuen planifikazioaren inguruko eta baliabideen - ekologikoki arrazionalak eta sozialki onartzekoak diren baliabideen- erabilera eragingarrirako sistemen kontserbazioaren inguruko ezagutza teknikoa duten profesionalen taldea prestatzea;
- c) Tokian tokiko agintarien eta administratzaileen gaitasuna sendotzea, tokian tokiko komunitateekin eta sektore pribatuarekin batera azpiegitura-zerbitzu egokien prestazio integraturako;
- d) Baliabide juridiko eta araudi egokiak onartzea, elkarrekiko diru-laguntzen konponketak barne, ingurugiro-azpiegiturarentzako behar adina onura eta ekonomikoki eskuragarri diren onurak herriko talde baztertuei, bereziki behartsuei, eskaintzeko.

8. ATALA: Ingurugiroaren integrazioa eta erabakiak hartzeko uneko garapena

Sarrera

Atal honetako programa-arlo ondorengoak dira:

- a) Ingurugiroa eta garapena politika, planifikazio eta kudeaketa mailetan sartzea;
- b) Zuzenbide- eta araudi-esparru eragingarria ezartzea;
- c) Bitarteko ekonomikoak eta merkatuko pizgarriak eta beste mota batzuetako pizgarriak eragingarritasunez erabiltzea;
- d) Kontabilitate-sistema ekologikoak eta ekonomiko integratuak ezartzea.

Programa-arloak

A. Ingurugiroa eta garapena politika, planifikazio eta kudeaketa mailetan sartzea

Ekintzarako oinarriak:

Gaur egun, herrialde askotako erabakiak hartzeko sistemetan, politika, planifikazio eta kudeaketa mailan, ekonomia-, gizarte- eta ingurugiro-faktoreak bereizteko joera dago. Honek gizarte-talde guztien –governuak, industria eta partikularrak barne– jokoeran eragiten du, eta garapenaren eragingarritasunerako eta jasangarritasunerako ondorio garrantzitsuak ditu. Agian beharrezkoa da doikuntza egitea edo erabakiak hartzeko prozesua funtsean berriro formulatzea, herrialde bakoitzaren baldintza zehatzen arabera, ingurugiroa eta garapena ekonomia eta politikaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuaren ardatz izan daitezen, faktore horien integrazio osoa lortzeko. Azken urteotan, gobernu batzuek erakunde ofizialen egiturak berritzeari ekin diote, ekonomiaren, zergen, energiaren, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren, merkataritzaren, garraioaren eta beste hainbat atalen inguruko politikak erabakitzeko garaian sistematikoki ingurugiroari eta politika horiek ingurugiroan izan dezaketen eraginari jaramon gehiago egiteko. Halaber, elkarrizketa-modu berriei ekiten ari dira, ingurugiroarekin eta garapenarekin harremana duten ikuspegi eragingarriak ezartzeko prozesuan gobernuen, industriaren, zientziaren, ekologia-taldeen eta iritzi publikoaren artean integrazio hobea lortzeko. Aldaketa horiek bultzatzeko lana batez ere gobernuak egin behar dute, hala ere, kasu askotan nazioko, lurraldeko eta nazioarteko erakundeen, bereziki Nazio Batuen Ingurugiro Programaren (NBIP), GNBPrek eta Munduko Bankuaren, lankidetzaz ezinbestekoa izango da. Herrialdeen arteko esperientzien trukaketa ere garrantzitsua izan

daiteke. Plan, jomuga eta helburu nazionalak; arau, araudi eta lege nazionalak eta herrialde bakoitzaren egoera zehatzak integrazio hori gauzatzeko esparrua eratzen dute. Egoera honetan, kontuan hartu behar da ingurugiro-arauek gastu ekonomiko eta sozial ugari eragin ditzaketela garapen bidean dauden herrialdeetan modu uniformeetan aplikatzen badira.

Jarduerak:

Helburu nagusia erabakiak hartzeko prozesua hobetzea edo berregituratzea da, auzi sozioekonomikoen eta ingurugiroari buruzkoen azterketan guztiz integratzeko moduan eta jendearen parte-hartze zabalagoa lortzeko moduan. Herrialdeek beren lehentasunak beren baldintza, behar, plan, politika eta programa nazionalen arabera zehaztu beharko lituzketela kontuan hartuta, helburu hauek proposatzen dira:

- a) Ekonomiaren, sektorearen eta ingurugiroaren politiken, estrategien eta planen azterketa nazionalak egitea, ingurugiroarekin eta garapenarekin harremana duten auzien apurkako integrazioa lortzeko;
- b) Erakundeen azpiegiturak sendotzea erabakiak hartzeko prozesuaren maila guztietan ingurugiroaren eta garapenaren auzien integrazio osoa gerta dadin uzteko;
- c) Erabakiak hartzeko prozesuaren maila guztietan erakundeen, taldeen eta interesa duten partikularren parte-hartzea errazteko mekanismoak sortzea edo hobetzea;
- d) Barruko mailan prozedura zehatzak ezartzea, erabakiak hartzeko prozesuan ingurugiroaren eta garapenaren auzi guztiak sartzeko.

Jarduerak:

a) Erabakiak hartzeko prozesuak hobetzea:

Ingurugiroari eta garapenari buruzko erabakiak hartzeko prozesuaren integrazioan oinarritzen da behar nagusia. Horretarako, gobernuek azterketa nazionalak egin beharko lituzkete eta, hala dagokien kasuetan, erabakiak hartzeko prozesuak hobetu egin beharko lituzkete, ekonomiaren, gizartearen eta ingurugiroaren auziak ekonomikoki eragingarria, sozialki zuzena eta arduratsua eta ekologikoki arrazionala den garapenaren prozesuan apurka integratzea lortzeko. Herrialde bakoitzak zehaztuko ditu bere lehentasunak, bere plan, politika eta programa nazionalen arabera, ondorengo jarduerak gauzatzeko:

- a) Maila guztietan eta ministerio guztietan erabakiak hartzeko prozesuan ekonomiako, gizarteko eta ingurugiroko faktoreak integra daitezen lortzea;
- b) Barne mailako politiken esparrua onartzea; esparru horrek erabakiak onartzeko oinarri gisa epe luzerako sektorearteko ikuspuntua islatu beharko luke. Gainera, esparrua onartzeko garapenaren prozesuan esku hartzen duten politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta ingurugiroaren inguruko auzien arteko loturak kontuan hartu beharko dira;
- c) Barne mailako hedabide zehatzak ezartzea, neurri fiskalak eta aurrekontua barne, sektoreetako, ekonomiako, gizarteko eta ingurugiroko politiken, planen eta bitartekoen koherentzia ziurtatzeko; mekanismo hauek hainbat mailatan aplikatu beharko lirateke eta garapen prozesuan interesa dutenak elkartu beharko lituzke;
- d) Garapen-prozesua sistematikoki ikuskatzea eta ebaluatzea; horretarako aldian-aldian giza baliabideen, ekonomiako eta gizarteko baldintzen eta joeren eta ingurugiroaren eta baliabide naturalen garapenaren egoerari buruzko azterketak egin beharko lirateke; honen osagarri, urtero ingurugiroko eta garapeneko azterketak egin daitezke, sektoreek eta gobernuetako sailek garapen jasangarriaren lorpenak ebaluatzeko;
- e) Ekonomia- eta sektore-politikek ingurugiroan izango dituzten eraginen inguruan gardentasun- eta erantzukizun-baldintzak egon daitezen arduratzea;
- f) Jendeak behar duen informazioa eskura izan dezan ziurtatzea, jendearen iritzia har dadin erraztuz eta beren partaidetza eragingarria onartuz.

b) Planifikazio- eta kudeaketa-sistemak hobetzea:

Erabakiak hartzeko prozesuaren ikuspegi integratuagoa lortzeko helburuarekin, agian beharrezkoa da prozesu horretan erabiltzen diren datu-sistemak eta metodo analitikoak hobetzea. Gobernuak, hala dagokienean nazioarteko eta nazioko erakundeekin laguntzarekin, planifikazio- eta kudeaketa-sistemaren egoera aztertu beharko lukete eta, beharrezko den kasuetan, gizarteko, ekonomiako eta ingurugiroko auzien azterketa integratua errazteko prozedurak aldatu eta sendotu egin beharko lituzkete. Herraldeek beren lehentasunak zehaztuko dituzte, beren plan, politika eta programa nazionalekin bat, ondorengo jarduerak gauzatzeko:

- a) Planifikazio- eta kudeaketa-prozesuaren fase guztietan datuen eta informazioaren erabilera hobetzea, gizarteko, ekonomiako eta ingurugiroko datuak sistematikoki eta aldi berean erabiliz; elkarrekintzen eta sinergien analisia nabarmendu egin beharko litzateke eta metodo analitikoek aukera zabalaren erabilera sustatu egin beharko litzateke, ikuspuntu desberdinak izateko;
- b) Prozedura analitiko zabalak onartzea, erabakien ondorioen aurretiko eta aldi bereko ebaluazioa egiteko, ekonomiaren eta ingurugiroaren eta bi sektore hauen artean dagoen harremanaren ondorioak barne; prozedura horiek, proiektuez gain, politikak eta programak ere hartu beharko lituzkete beren barruan; analisiaren barruan gastuen, irabazien eta arriskuen ebaluazioa ere sartu beharko litzateke;
- c) Helburu anitzen azterketa eta behar berrien doikuntza onartzen dituzten planifikazio-irizpide malguak eta integratzaileak onartzea; horretarako ekosistemen edo arro hidrikoen mailan esparruen integrazio-irizpideak erabilgarriak izan daitezke;
- d) Kudeaketako sistema integratuak onartzea, bereziki baliabide naturalen antolakuntzarako; metodo tradizionalak eta autoktonoak aztertu beharko lirateke eta, erabilgarriak izanez gero, erabili egin beharko lirateke; ezingo lirateke emakumearen funtzio tradizionalak baztertu kudeaketa-sistema berriak sartzearen ondorioz;
- e) Lurralde mailan garapen jasangarrirako irizpide integratuak onartzea, mugakideak diren guneak barne, egoera eta behar partikularrak ezartzeko baldintzekin lotuta;
- f) Planifikaziorako eta kudeaketarako baliabide politikoak (juridikoak, araudikoak eta ekonomikoak) erabiltzea, erabakiak hartzeko unean eraginkortasun-irizpideak sar daitezten lortzeko; baliabideak aldi-aldi aztertu eta egokitu beharko lirateke eragingarriak izaten jarrai dezaten;
- g) Planifikazio- eta kudeaketa-funtzioak agintaritzaren publikoko mailarik baxuenen esku uztea, baina eragingarritasuna tartean sartu gabe; bereziki, emakumearen partaidetza lortzeko berei eskainitako aukera eragingarriak eta zuzenak eskaintzeko onurak aztertu beharko lirateke;
- h) Tokian tokiko komunitateek industriako eta ingurugiroko ustekabeko istripuen planifikazioaren jardueran parte har dezaten prozedurak ezartzea, eta tokian tokiko arriskuen inguruko informazioaren trukeari eustea.

c) Datuak eta informazioa:

Herrialdeek garapen jasagarria lortzeko bidean egindako aurrerapenak zaintzeko eta ebaluatzeko sistemak egin ditzakete, ekonomia-, gizarte- eta ekologia-espektru osoan aldaketa guztiak neurtzen dituzten adierazleak jarritz.

d) Garapen jasangarrirako estrategia nazionala onartzea:

Gobernuek, hala dagokienean nazioarteko erakundeen laguntzarekin, garapen jasangarrirako estrategiak onartu beharko lituzkete; estrategia hau, besteak beste, Biltzarrean hartutako erabakien aplikazioan oinarrituta egongo litzateke, bereziki Agenda 21ekin harremana duten erabakien aplikazioan. Estrategia horrek garapenerako plan nazionala kontuan hartu behar du eta herrialde bakoitzean martxan dauden ekonomiako, gizarteko eta ingurugiroko planak eta politikak bateratu beharko lituzke. Planifikazioko egungo jardueretan lortutako esperientzia eta Biltzarrerako txosten nazionalak, kontserbaziorako estrategia nazionalak eta ingurugiroari buruzko ekintza-planak herrialdeak bultzatutako garapen jasangarriaren estrategian erabili eta sartu beharko liriateke. Helburuek gizarte aldetik arduratsua den garapen ekonomia ziurtatu behar dute eta, era berean, etorkizuneko belaunaldientzako baliabideen oinarria eta ingurugiroa babestu beharko dituzte. Estrategia ahalik eta parte-hartze handienarekin egin beharko litzateke eta egoeraren eta uneko ekimenen ebaluazio sakonean oinarritu beharko litzateke.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 50 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Ingurugiroaren eta garapenaren arteko elkarrekintzak ikertzea:

Gobernuek, nazioko eta nazioarteko zientzia-komunitatearen eta nazioarteko erakundeen laguntzarekin, hala dagokienean gizarte-, ekonomia- eta ingurugiro-sistemen eta beste sistema batzuen barruan dauden elkarrekintzak aztertu beharko lituzkete. Ikerketa hori politiken inguruko erabakiak hartzerakoan laguntza emateko eta kudeaketa-jarduerak hobetzeko orientazioa emateko helburu zehatzekin egin beharko litzateke.

c) Hezkuntza eta trebakuntza biziagotzea:

Herrialdeek, nazioko, lurraldeko eta nazioarteko erakundeekin lankidetzan, hala dagokienean, erabakiak hartzeko eta gauzatzeko prozesuen hainbat etapatan ingurugiroa eta garapena integratzeko ezinbestekoak diren giza baliabideak egon daitezzen edo alor horretan trebatzeko aukera egon dadin arduratu behar lukete. Horretarako, hezkuntza eta trebakuntza teknikoa hobetu egin beharko lirateke, bereziki emakumeena eta neskatilena, kasuko diziplina arteko irizpideak teknika-, lanbide- eta unibertsitate-irakaskuntzan eta beste ikasketa-programa batzuetan integratuz. Funtzionario publikoen, planifikatzaileen eta administratzaileen trebakuntza sistematikoa ere egin beharko litzateke; atal honetan herrialde bakoitzeko baldintza zehatzen arabera beharrezkoak diren integrazio-irizpideei eta planifikazio- eta kudeaketa-teknika egokiei lehentasuna eman beharko litzateke.

d) Kontzientzia publikoa sustatzea:

Herrialdeek, nazioko erakundeekin eta taldeekin, komunikabideekin eta nazioarteko komunitatearekin lankidetzan, iritzi publikoa oro har eta elkarte espezializatuak ingurugiroa eta garapena aldi berean kontuan izatearen garrantziaz ohartarazteko neurriak hartu beharko lituzkete eta informazioaren eta iritzi publikoaren truke zuzena errazteko mekanismoak ezarri beharko lituzkete. Gizarte-taldeen ardurak eta talde hauek egin ditzaketen ekarpenak nabarmentzeko ahalegin berezia egin beharko litzateke.

e) Erakunde nazionalen gaitasuna sendotzea:

Gobernuek, hala dagokienean nazioarteko erakundeekin lankidetzan, nazioko erakundeen gaitasuna sendotu beharko lukete ekonomiako, gizarteko eta ingurugiroko auziak erabakiak hartzeko eta gauzatzeko prozesuko maila guztietan sar ditzaten. Sektoreen ikuspegi mugatuen bazterketari eta sektoreen arteko koordinazio eta lankidetzaren osoa lortzeko neurriak hartzeari lehentasuna eman behar litzateke.

B. Zuzenbide- eta araudi-esparru eragingarriak ezartzea

Ekintzarako oinarriak:

Herrialde bakoitzaren baldintza berezietara egokitutako legeak eta araudiak ingurugiro- eta garapen-politikak martxan jartzeko bitarteko garrantzitsuenak dira, ez "agintea eta kontrola"ren bidez bakarrik, baizik eta ekonomia-planifikazioa aurrera eramateko eta merkatuko baliabideak ezartzeko esparru arau-emaile gisa ere bai. Hala ere, eta sektore horrekin harremana duten testu juridikoen bolumena etengabe handitzen ari den arren, promulgatutako xedapen gehienak zatikakoak dira, alde oso konkretuak arautzen dituzte edo betetzeko eta behar bezala doitzeko ez dute mekanismo instituzionalaren eta agintariaren behar adina babes.

Herrialde guztietan lege aldetik aldaketak egiteko beharra etengabea den arren, garapen bidean dauden herrialdeetan bereziki beren legeen eta araudien hutsuneen eragina jasaten dute. Ingurugiroa eta garapena herrialde bakoitzeko politiketan eta jardueretan modu eragingarrian integratzeko ezinbestekoa da lege eta araudi integratuak egitea eta indarrean jartzea; lege eta araudi hauek praktikan aplikatu egin beharko lirateke eta printzipio sozial, ekologiko, ekonomiko eta zientifiko arrazionaletan oinarritu beharko lirateke. Halaber, ezinbestekoa da onartzen diren legeak, araudiak eta arauak aztertze eta betearazteko programa bideragarriak formulatzea. Baliteke herrialde askok beren helburuak lortzeko laguntza teknikoa behar izatea. Esparru honetako lankidetzak teknikoaren beharraren barruan, informazio juridikoa, aholkularitza-zerbitzuak, trebakuntza espezializatua eta erakundearen gaitasunaren handitzea sartzen dira.

Nazio, estatu, lurralde eta herri mailan legeak eta araudiak promulgatzea eta aplikatzea ere ezinbestekoa da ingurugiroarekin eta garapenarekin lotura duten nazioarteko hitzarmen gehienak aplikatzeko; horren adibide garbiak askotan neurri legislatiboaren inguruan informatzeko tratatuetan sartzen diren obligazioak dira. Biltzarra prestatzearen inguruan, indarrean dauden hitzarmenen azterketa egin da eta azterketa horretan adierazi da eremu honetan legeak betetzeko arazo ugari dagoela eta gauzatze nazionalak eta, hala dagokien kasuetan, gaiarekin lotura duten tekniken laguntza hobetzea ezinbestekoa dela. Nazioaren lehenetsunak formulatzeko garaian, herrialdeek nazioartean dituzten betebeharrak hartu behar dituzte kontuan.

Helburuak:

Helburu nagusia, herrialde bakoitzaren baldintza berezien arabera, nazio, estatu, lurralde eta herri mailako lege, araudi, baliabide eta mekanismo hertsatzaileen bidez ingurugiro- eta garapen-politikak integratzea da. Herrialde bakoitzak bere beharren eta plan, politika eta programa nazionalen, eta dagokion kasuetan lurralde mailakoen, arabera bere lehentasunak zehaztuko dituela kontuan hartuta, helburu hauek proposatzen dira:

- a) Ingurugiroaren eta garapenaren alorretako berrikuntza juridiko eta araudiaren berrikuntza eragingarrien inguruko informazioa hedatzea, betetzerakoan bitarteko hertsatzaileak eta pizgarriak gehituz, batetik, gehiago erabil daitezzen bultzatzeko eta, bestetik, nazio, lurralde, probintzia eta herri mailan onar daitezzen bultzatzeko;
- b) Hala eskatzen duten herrialdeei garapen jasangarria gidatzen duten beren legegintza- eta arautegi-esparruak modernizatzeko eta sendotzeko laguntza ematea, balio sozialak eta tokian tokiko azpiegiturak kontuan hartuta;
- c) Legeak betetzen diren ebaluatzen eta bultzatzen duten eta betetzen ez badira behar bezala erantzuten duten nazioko, estatuko, lurraldeko eta herriko programak formulatu eta gauzatu daitezzen sustatzea.

Jarduerak:

a) Legeen eta araudien eragingarritasuna areagotzea:

Gobernuek, hala dagokienean nazioarteko erakunde eskudunen laguntzarekin, aldi-aldian beren legeak eta araudiak eta honekin lotura duten mekanismo instituzionalak ebaluatu beharko lituzkete, praktikan eragingarriak izan daitezzen lortzeko; mekanismo horiek, ingurugiroarekin eta garapen jasangarriarekin harremanetan, nazio, estatu, herri eta udalerrri mailan dauden eta honekin lotura duten erakunde eta administrazio izaerakoak izango lirateke. Helburu hori lortzeko formulatzen diren programetan jendearen kontzientzia sustatzea, orientatzeko materialak prestatzea eta banatzea eta trebakuntza espezializatua ematea sartu beharko lirateke, ikastaro praktikoek, mintegien, hezkuntza-programen eta legeak eta araudiak formulatzeaz, aplikatzeaz, zaintzeaz eta betearazteaz arduratzen diren funtzionario publikoen hitzaldien bidez.

b) Prozedura judicial eta administratiboak ezartzea:

Gobernuek eta legegileek, hala dagokienean nazioarteko erakunde eskudunen laguntzarekin, ingurugiroari eta garapenari kalte egiten dieten eta lege kontrakoak izan

daitezkeen kasuetan edo legeak ezartzen dituen eskubideak hausten dituzten kasuetan kalte-ordainak emateko eta konpontzeko prozedura judicial eta administratiboak ezarri beharko lituzkete eta interes juridiko aintzatetsia duten pertsoneri, taldeei eta erakundeei eskuratzeko aukera erraztu beharko litzaieke.

c) Informazio juridikoa eta laguntza-zerbitzuak ematea:

Gobernuarteko eta gobernuz kanpoko erakunde eskudunek hala eskatzen duten gobernuei eta legegileei ingurugiroari eta garapenari (garapen jasangarriaren eskubidea) buruzko infomazio juridikoaren zerbitzuen programa integratua emateko lagundu dezakete, bereziki herrialde hartzailearen antolamendu juridiko eta administratiboaren behar partikularrei egokituta. Sistema horien barruan, nazioko sistema juridikoen inbentario eta azterketa zabalak sar litezke. Orain arteko esperientziek informazio juridikoaren zerbitzu espezializatuak eta aholkularitza juridikoa bateratzearen erabilgarritasuna frogatu dute. Nazio Batuen sistemaren barruan, datu-baseak bikoiztea ekidingo litzake eta horrek lanaren banaketa erraztuko luke. Erakunde hauek ordenamendu juridiko nazional zehatzen azterketak egiteko merezimenduak eta aukera aztertu ditzakete.

d) Lankidetzaren sarea ezartzea, garapen jasangarriko eskubidearen trebakuntzarako:

Nazioarteko eta unibertsitateko erakunde eskudunek lagundu egin beharko lukete, edukien barruan gradu ondoko programak eta lanean trebakuntza-zerbitzuak ezartzeko, bereziki ingurugiroaren eta garapenaren zuzenbide-ikasketak egin nahi dituzten garapen bidean dauden herrialdeetako abokatu-laguntzaileei bideratuta. Trebakuntzaren barruan, indarrean dauden legeen etengabeko aplikazioa eta hobekuntza; negozioarekin, idazketarekin eta bitartekotzarekin lotura duten teknikak eta instruktoreen trebakuntza sartuko lirateke. Era horretako jarduerak gauzatzen dituzten gobernuarteko eta gobernuz kanpoko erakundeek dagokien unibertsitateekin elkarlanean aritu beharko lukete ikasketa-programen planifikazioa bateratzeko eta interesa duten gobernuei eta babesle izan daitezkeenei aukera onenak eskaintzeko.

e) Ingurugiroari eta garapenari buruzko nazioko, estatuko, probintziako eta herriko legeak betetzeko eta aztertzeko programa nazional eragingarriak egitea:

Herrialde bakoitzak garapen jasangarriarekin lotutako legeak eta araudiak ahalik eta gehien betetzeko estrategia integratuak formulatu beharko lituzke; horretarako, hala dagokionean,

nazioarteko erakundeen eta beste herrialdeen laguntza jaso beharko luke. Estrategietan hauxe gehitu beharko litzateke:

- a) Betearaz daitezkeen legeak, araudiak eta arauak; lege, araudi eta arau hauek printzipio ekonomikoetan, sozialetan eta ekologikoki arrazionaletan eta arriskuen ebaluazio egokian oinarrituta egon beharko lukete eta arau-hausteak zigortzeko, konpentsazioak eskuratzeko eta etorkizunean hausteak ekiditeko zigorrek izan beharko litzukete;
- b) Bete daitezten sustatzeko mekanismoak;
- c) Betetzearen inguruko datuak biltzeko, betetzea aldi-aldi aztertzeko, arau-hausteak antzemateko, hertsadura neurrietan lehentasunak ezartzeko, neurri horiek modu eragingarrian aplikatzeko eta betetze- eta hertsadura-programen eragingarritasuna aldi-aldi ebaluatzeko gaitasun instituzionala;
- d) Ingurugiroari eta garapenari buruzko legeak eta araudiak formulatzeko eta aplikatzeko unean jendeak eta taldeek parte hartzeko mekanismoak.

f) Nazioarteko baliabideen osagarri diren jarduerak juridikoak nazio mailan zaintzea:

Nazioarteko hitzarmenen alde kontratugileak, dagokien nazioarteko bileren idazkaritzari kontsulta eginda, hala dagokienean, onartutako neurri juridikoen eta araudiaren neurrien inguruan informatzeko jarduerak eta prozedurak hobetu beharko litzukete. Nazioarteko hitzarmenetako alde kontratugileek barruko neurri osagarrien inguruko laginketa-inkestak egin ditzakete interesaturik dauden estatu subiranoen onarpenarekin.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 2 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Programaren oinarria funtsean uneko lanak jarraitzea da, bereziki datu juridikoen bilketa-, itzulpen- eta ebaluazio- lanak jarraitzea.

Dauden datu-baseen arteko lankidetzaren areagotzeak lanaren banaketa egokiagoa (esate baterako, aldizkari ofizialen eta erreferentziazko beste iturri batzuen datuak geografia eremuaren arabera taldekatuz) ekarriko duela espero daiteke eta, hala dagokionean, datuen normalizazio handiagoa eta bateragarritasuna.

c) Giza baliabideen garapena:

Trebakuntza-sarean parte hartzeak garapen bidean dauden herrialdeetako profesionali onurak ekarriko dizkiela espero da eta emakumearen trebakuntzarako aukerak hobetzea ekarriko duela ere bai. Gradu ondoko eta laneko trebakuntza mota honetako eskaera handia dago. Orain artean egin diren azterketei eta aplikatu beharreko neurriei buruzko mintegiak, ikastaro praktikoak eta hitzaldiak oso egokiak eta ongi uztartutakoak izan dira. Jarduera horien helburua baliabideak garatzea da (bai giza baliabideak, bai baliabide instituzionalak), garapen jasangarriarekin harremana duten nazio eta herri mailako legeak, araudiak eta arauak etengabe aztertzeke eta aplikatzeko programa eragingarriak formulatzeko eta gauzatzeko.

d) Gaitasun juridikoa eta instituzionala sendotzea:

Programaren zati handi baten helburua herrialdeen gaitasun juridikoa eta instituzionala hobetzea izango da ingurugiroaren araudiak eta garapen jasangarriak eta esparru horretako xedapenak promulgatzeak eta aplikatzeak sortutako barruko arazoei aurre egiteko. Baliabideen lurralde mailako zentroak sor litezke, eta laguntza emango litzaieke ordenamendu juridikoetako talde linguistikoentzako edo kulturalentzako datu-base espezializatuak eta trebakuntza-zerbitzuak ezartzeko.

C. Bitarteko ekonomikoak eta merkatuko eta beste mota batzuetako pizgarriak eraginkortasunez erabiltzea

Ekintzarako oinarriak:

Ingurugiroari buruzko legeak eta araudiak oso garrantzitsuak dira, baina ezin da ingurugiroak eta garapenak sortarazten dituzten arazoak beren kasa konponduko diren zain egon. Gobernuen prezioek, merkatuek eta zerga- eta ekonomia-politikek ere betebeharrak nabarmena dute ingurugiroarekin harremana duten jarrerak eta jokaerak finkatzeko garaian.

Azken urteotan, gobernu askok, bereziki herrialde industrializatuak, baina baita Europa erdialdeko eta ekialdeko eta garapen bidean dauden herrialdeetako gobernuak ere, geroz eta gehiago jo dute ikuspegi ekonomikoetara, bereziki merkatura bideratutakoetara. Besteak beste, adibideen artean "kutsatuz gero ordaindu" printzipioa eta "baliabide naturalak erabiltzen dituenak ordaindu egin behar du" kontzeptu berriak daude.

Nazioarteko eta nazioko babes-egoera ekonomikoaren barruan eta beharrezko esparru juridikoa eta araudiaren esparrua izanda, ikuspegi ekonomikoak eta merkatura orientatutako ikuspegiak ingurugiroari eta garapenari buruzko auziei aurre egiteko ahalmena hobetu egin dezakete kasu askotan. Hau ondorengo eginez lortuko litzateke: kostoen arabera konponbide eragingarriak bilatuz, prebentziorako eta kutsadura kontrolatzeko neurri integratuak aplikatuz, berrikuntza teknologikoak sustatuz, jendearen jokaera ekologikoan eraginez eta garapen jasagarriaren helburuak lortzeko finantza-baliabideak emanez.

Ezinbestekoa da irizpide ekonomikoaren eta merkatura orientatutako irizpideen erabilera eragingarriagoa eta orokorragoa lortzeko eta aztertzeko lan egokia egitea, garapenarekin harremana duten herrialde bakoitzeko baldintza zehatzetara egokitutako politiken, legeen eta araudien esparru zabalaren barruan, osagarri diren eta batak bestea sendotzen duten politika ekonomikoetara eta ekologikoetara aldatzeko prozesu orokorraren parte gisa.

Jarduerak:

Herrialdeek beren lehentasunak beren beharren eta plan, politika eta programa nazionalen arabera zehaztuko litzaketela kontuan hartuta, helburua hurrengo urteetan aurrerapen nabarmenak egitea da, ondorengo oinarritzko hiru helburuak lortzeko:

- a) Ingurugiro-gastuak ekoizleen eta kontsumitzaileen erabakietan gehitzea, ingurugiroa "doako ondasun" gisa hartzeko joerari buelta emateko eta gastu horiek gizarteko beste

sektore batzuetara, beste herrialde batzuetara edo etorkizuneko belaunaldietara aldatzeko joerari buelta emateko;

- b) Gastu sozialak eta ekologikoak ekonomia-jardueretan sartzeko bidean aurrera egitea, prezioek baliabideen eskasia eta guztizko balioa modu egokian isla ditzaten eta ingurugiroaren degradazioari aurrea hartzen lagun dezaten;
- c) Hala dagokien kasuetan, garapen jasangarriarekin harremana duten baliabide eta politika ekonomikoen idazketan merkatuen printzipioen erabilera gehitzea.

Jarduerak:

a) Politika nazionalak hobetzea edo aldatzea:

Epe motzera, gobernuek apurka-apurka esperientzia areagotu egin beharko lukete baliabide ekonomikoen eta merkatuko mekanismoen bidez, beren politikak berriro orientatuz, nazioko planak, lehentasunak eta helburuak kontuan hartuta. Hori ondorengoa lortzeko egin beharko lukete:

- a) lkupegi ekonomikoen, arau-emaielen eta boluntarioen (autonomoen) konbinazio eragingarriak ezartzeko;
- b) Garapen jasangarriaren helburuarekin bat ez datozen diru-laguntzak kentzeko edo murrizteko;
- c) Aurretik dauden pizgarri ekonomikoen eta fiskalen egiturak berritzeko, ingurugiroaren helburuak eta garapena lortu ahal izateko;
- d) Kutsaduraren aurkako borrokan eta baliabideak modu arrazionalagoan antolatzeke lanean, merkatu berriak sor daitezzen laguntzen duten politiken esparrua ezartzeko;
- e) Garapen jasangarriarekin koherentea izango den prezien egitura lortzeko.

Bereziki, gobernuek, hala dagokienean merkataritzarekin eta industriarekin lankidetzan, baliabide ekonomikoak eta merkatuko mekanismoak eragingarritasunez erabiltzeko modua aztertu beharko lukete, honako alorretan:

- a) Energiarekin, garraioarekin, nekazaritzarekin eta basogintzarekin, urarekin, hondakinekin, osasunarekin, turismoarekin eta hirugarren sektoreko zerbitzuekin harremana duten alorretan;

- b) Munduko eta mugaz haraindiko auzietan;
- c) Ekologikoki arrazionala den teknologia egiteko eta sartzeko garaian eta, 34. atalaren arabera, garapen bidean dauden herrialdeetara egokitzeko, hedatzeko eta aldatzeko garaian.

b) Garapen bidean dauden herrialdeen eta beren ekonomia aldatzen ari diren herrialdeen baldintza berezien inguruan hausnartzea:

Ahalegin berezia egin beharko litzateke baliabide ekonomikoen eta merkatuko mekanismoen erabilera garapen bidean dauden herrialdeen eta beren ekonomia aldatzen ari diren herrialdeen baldintza berezietara egokitzeko, ekonomiaz eta ingurugiroaz arduratzen diren lurraldeko eta nazioarteko erakundeen laguntzarekin eta, hala dagokienez, ikerketa-institutu pribatuen laguntzarekin. Helburu hori lortzeko ondorengo auzi beharko litzateke:

- a) Herrialde horiei baliabide ekonomikoak eta merkatuko mekanismoak aplikatzeko arazoen inguruko laguntza teknikoa ematea;
- b) Lurraldeka mintegiak egin daitezten sustatzea eta, agian, lurraldeko zentro espezializatuak ezartzea.
- c) Baliabide ekonomikoen eta merkatuko mekanismoen aplikazio eragingarrien inbentarioa prestatzea.

Baliabide ekonomikoen eta merkatuko mekanismoen erabilera oso berria dela kontuan hartuta, prozedura horiekin herrialdeetan lortutako esperientziari buruzko informazioa aktiboki trukatzeko sustatu beharko litzateke. Horren inguruan, gobernuek baliabide ekonomikoen aplikazio eragingarria aztertzeko dagoen informazioa trukatzeko bitartekoen erabilera bultzatu beharko lukete.

c) Baliabide ekonomikoen eta merkatuko mekanismoen funtzioa uler dadin sustatzea:

Gobernuek baliabide eta pizgarri ekonomikoen aplikazio eragingarrien ikerketak eta analisiak sustatu beharko litzateke, ekonomiaz eta garapenaz arduratzen diren lurraldeko eta nazioarteko erakundeen eta ikerketa-institutu pribatuen laguntzarekin eta babesarekin. Horretarako funtsezkoak diren ondorengo arazoei kasu berezia egin beharko liekete:

- a) Baldintza nazionaletara egokitutako ingurugiroko zergen funtzioa;

- b) Lehiakortasunaren eta nazioarteko merkataritzaren inguruan baliabide eta pizgarri ekonomikoen ondorioak eta etorkizunean nazioarteko lankidetzaren eta koordinazio potentzialaren beharra;
- c) Baliabide batzuk erabiltzeak eragin ditzakeen gizarte- eta banatze-ondorioak.

d) Prezioak finkatzeko azterketa egiteko mekanismoak ezartzea:

Ezinbestekoa da, batetik, hala dagokionean, prezioak finkatzeko politikak aplikatzeko abantaila teorikoak hobeto ulertzea eta, bestetik, horren inguruko neurriak hartzeko ondorio praktikoak hobeto ulertzea. Ondorioz, nazio eta nazioarte mailan eta, kasu bakoitzaren arabera, merkataritzarekin, industriarekin, enpresa handiekin, enpresa transnazionalekin eta beste talde sozialekin lankidetzan, ondorengo aztertu beharko litzateke:

- a) Ingurugiroaren kostuak barruan hartuko dituen prezio-politika finkatzeko ondorio praktikoak, garapen jasangarriaren ondorioak lor daitezen laguntzeko;
- b) Herrialde esportatzaileen lehengaien prezioak finkatzeko ondorioak, garapen bidean dauden herrialdeen prezioak finkatzeko politiken ondorioak barne;
- c) Ingurugiroaren babeserako kostuak ebaluatzeko erabilitako metodologiak.

e) Garapen jasangarriaren ekonomiaren ulermena hobetzea:

Baliabide ekonomikoen inguruan interes gehiago izateak, merkatuko mekanismoak barne, garapen jasangarriaren ekonomia hobeto ulertzeko hitzartutako ahalegina ere eskatzen du. Helburu hori lortzeko, ondorengo egin beharko litzateke:

- a) Goi-mailako irakastegiak bultzatzea, beren ikasketa-programak azter ditzaten eta garapen jasangarriaren ekonomiari buruzko ikasketak sendo ditzaten;
- b) Lurraldeko eta nazioarteko ekonomia-erakundeek eta ikerketa-institutu pribatu eskudunek funtzionario nazionalentzako prestakuntza-ikastaroak eta mintegiak antola ditzaten bultzatzea;
- c) Sektore pribatuarentzako eta beste talde batzuentzako trebakuntza-programak antola ditzaten, merkataritza eta industria –ekologiari buruzko arazoetan esperientzia duten industria-enpresa handiak eta enpresa transnazionalak barne– bultzatzea.

Gauzatzeko bideak:

Programa honen barruan gobernuen politikak doitzea eta berriro orientatzea sartzen da. Horrez gain, ingurugiroaz arduratzen diren eta esparru honetan eskudunak diren nazioarteko eta lurraldeko erakunde ekonomiko eta ekologikoen parte-hartzea ere behar da, enpresa transnazionalak barne.

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 2 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

D. Kontabilitate-sistema ekologikoak eta ekonomiko integratuak ezartzea

Ekintzarako oinarriak:

Kudeaketa ekonomikoan integrazio jasangarrirantz eman beharreko lehen pausoa ingurugiroaren funtsezko funtzio zehatza erabakitzea da, ondasun naturalen iturri den aldetik eta gizakien eta beste giza jarduera batzuen ondasun-ekoizpenak eratutako azpiproduktuen hustuleku den aldetik. Garapen jasangarriak dimentsio soziala, ekonomikoa eta ekologikoa dituenek, garrantzitsua da nazioko kontabilitate-prozedurak ondasunen produkzioa eta zerbitzu ordainduak ohiko eran neurtzeko lanera ez mugatzea. Ezinbestekoa da esparru komuna finkatzea, esparru horren arabera kontu subsidiarioetan sektore guztien eta nazioko ohiko kontuetan sartzen ez diren elkarteko jarduera guztien ekarpenak biltzeko, balio teknikoaren eta bideragarritasunaren inguruko baldintzak kontuan hartuta. Herrialde guztietan kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren sistemak sortzeko programak onartzea proposatzen da.

Jarduerak:

Helburu nagusia egungo kontabilitate ekonomikoaren sistema nazionalak zabaltzea da, sistema hauen barruan ingurugiro-dimentsioa eta dimentsio soziala sartzeko; kide diren estatu guztietan, gutxienez baliabide naturalentzako kontu subsidiarioen sistemak gehitu beharko lirateke. Kide diren estatu guztietan ahalik eta azkarren ezarri beharko liratekeen kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren ondoriozko sistemak, etorkizun hurbilean, nazioko kontabilitate-sistema tradizionalen osagarri gisa hartu beharko lirateke, ez ordezkatzeko mekanismo gisa. Kontabilitate-sistema ekologiko eta ekonomiko integratuak garapenaren inguruan hartu beharreko erabakien prozesu nazionala osatzen duten atalak izango lirateke. Kontabilitateko erakunde nazionalak estatistika ekologikoaren sail nazionalekin, geografia-zerbitzuekin eta baliabide naturalez arduratzen diren sailekin elkarlana aritu beharko lukete. Ekonomikoki aktiboaren definizioa lan produktiboak baina ordaindu gabeak egiten dituzten pertsonen hedagarri egiteko zabal liteke. Honela, bere ekarpena behar bezala neurtu eta erabakiak hartzeko prozesuan kontuan har liteke.

Jarduerak:

a) Nazioarteko lankidetzaren sendotzea:

Nazio Batuen Erakundeko Idazkaritzaren Estatistika Bulegoak ondorengoa egin beharko luke:

- a) Nazioen kontu-sistemaren kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren eskuliburuan agertzen diren metodoak kide diren estatu guztien eskura ezartzea;
- b) Nazio Batuen Erakundeko beste erakunde eskudun batzuekin lankidetzan, onartutako behin-behineko kontzeptuak eta metodoak –esate baterako, nazioen kontu-sistemen eskuliburuan proposatzen direnak– garatzen, probatzen eta hobetzen jarraitzea eta ondoren normalizatzea. Gainera, kide diren estatuek prozesu guztiko lanen egoerari buruzko informazioa jaso beharko lukete;
- c) Nazioarteko beste erakunde batzuekin lankidetzan, talde txikitan, nazioko kontularien, ingurugiroan espezialista diren estatistikarien eta nazioko langile teknikoaren trebakuntza koordinatzea, kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren sistemak sortzeko, egokitzeko eta hobetzeko.

Idazkaritzako Ekonomiaren eta Gizartearen Garapenerako Sailak, Nazio Batuen Erakundeko beste erakunde eskudunekin lankidetzan, hauxe egin beharko luke:

- a) Kide diren estatu guztietan, ekonomiaren eta gizartearen planifikaziorako beren programetan eta erabakiak hartzeko prozeduretan garapen jasangarriko adierazleen erabilera sustatzea, nazio mailan kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren sistemak garapen ekonomikoaren planifikazioan eragingarritasunez sartzeko helburuarekin;
- b) Datu ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak biltzeko sistema hobea aukera dadin sustatzea.

b) Nazioko kontabilitate-sistemak hobetzea:

Nazio mailan, programa nazioko kontuez arduratzen diren erakundeek onartu ahal izango lukete bereziki, estatistika ekologikoez eta baliabide naturalez arduratzen diren sailekin lankidetzan, analisi ekonomiko nazionaletan espezialista direnei eta nazioko planifikazio ekonomikoaz arduratzen direnei laguntzeko. Erakunde nazionalak funtsezko lana egin beharko lukete, ez sistemaren gordailuzain gisa bakarrik, baizik bere egokitzapenarekin, ezarpenarekin eta erabilera jarraiarekin harremanetan ere. Ordaindu gabeko produkzio-lanak, esate baterako, etxeko lanak edo haurren zainketa, hala dagokienean, kontu nazional subsidiarioetan eta estatistika ekonomikoetan gehitu beharko lirateke. Denboraren erabilerari buruzko ikerketak lehen pauso izan litezke kontu subsidiario horiek

egiteko prozesuan.

c) Ebaluazio-prozesua ezartzea:

Nazioarte mailan, Estatistika Batzordeak berak izandako esperientzia bildu eta aztertu egin beharko luke eta kide diren estatuei aholkuak eman beharko lizkieke ondoren kide diren estatuetako kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren sistema egiteko eta martxan jartzeko sortzen diren arazo teknikoaren eta metodologikoen inguruan.

Gobernuek lurren baliabideei, urei, energiari eta abarrei eragiten dieten programa ekologikoei sortutako prezioen aldaketak zuzentzeko neurriak zehazten eta aztertzen saiatu beharko lukete.

Gobernuek ondorengo egitera bultzatu beharko lituzkete enpresak:

- a) Informazio ekologiko egokia ematen dezaten bultzatu beharko lituzkete; horretarako akziodunei, hartzekodunei, langileei, gobernuetako agintariei, kontsumitzaileei eta oro har jendeari txosten argiak eta zehatzak aurkeztu beharko lizkiekete;
- b) Garapen jasangarriaren kontabilitaterako metodoak eta arauak egin ditzaten eta aplikatu ditzaten bultzatu beharko lituzkete.

d) Datuen eta informazioaren bilketa hobetzea:

Gobernuek kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren sistema nazionalak ezartzeko datuen bilketan beharrezko hobekuntzak sartzeko kontuan hartu beharko lukete, kudeaketa ekonomiko arrazionalari pragmatikoki laguntzeko. Ingurugiroari buruzko datuak eta informazioa biltzeko eta analizatzeko eta datu ekonomiko gisa integratzeko gaitasuna areagotzeko lana nabarmendu egin beharko litzateke eta sexuka banatutako datuak ere sartu beharko lirateke. Inguru fisikoaren gaineko kontuak egiten ahalegindu beharko litzateke. Nazioarteko erakunde emaileek sektorearteko datuen bankuen ezarpena finantzatzeko aukera kontuan izan beharko lukete, garapen jasangarriaren planifikazio nazionala informazio zehatz, fidagarri eta egokian oinarritu dadin eta nazioko baldintzei erantzun diezaien.

e) Lankidetzaren teknika sendotzea:

Nazio Batuen Erakundeko Idazkaritzaren Estatistika Bulegoak, Nazio Batuen erakunde eskudunekin lankidetzan, herrialdeen arteko lankidetzaren teknikorako dauden mekanismoak sendotu egin beharko lituzke. Honen barruan, bereziki, kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren sistemen ezarpenei buruzko esperientziaren trukea sartu beharko litzateke, batez ere komertzializatu gabeko baliabide naturalen ebaluazioari eta datu-bilketaren prozedurak normalizatzeari dagokienean. Baliabide mota hauen balorazioan esperientzia duten industria-enpresa handiak eta enpresa transnazionalak tartean direla, enpresa komertzialen eta industriaren lankidetzaren izaten ere saiatu beharko litzateke.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 2 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberrakoak izango dira.

b) Erakundeak sendotzea:

Kontabilitate-sistema ekologiko eta ekonomiko integratua martxan jartzeko:

- a) Garapen bidean dauden herrialdeen erakunde nazionalak sendo litezke, planifikazioaren eta erabakiak hartzearen alorretan ingurugiroaren eta garapenaren integrazio eragingarria lortzeko;
- b) Estatistika Bulegoak beharrezko laguntza teknikoa eman beharko lieke kide diren estatuei, Estatistika Batzordeak ezarri beharreko ebaluazio-prozesua kontuan hartuta; Estatistika Bulegoak laguntza tekniko egokia eman beharko luke kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuko sistemak ezartzeko, Nazio Batuen erakunde eskudunekin lankidetzan.
- c) Informazio-teknologiaren erabilera areagotzea

Informazio-teknologiak garapen bidean dauden herrialdeetara egokitzeko eta hedatzeko jarraibideak eta mekanismoak egin eta hitzartu litezke. Datuen kudeaketarako teknologiarik aurreratuenak onartu beharko lirateke kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratuaren sistemaren erabilera heda dadin eta ahalik eta eragingarriena izan dadin.

c) Nazioaren gaitasuna sendotzea:

Gobernuek, nazioarteko komunitatearen babesarekin, erabakiak hartzeko datuak biltzeko, metatzeko, antolatzeko, ebaluatzeko eta erabiltzeko beren gaitasun instituzional nazionala sendotu beharko lukete. Beharrezkoa izango da, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, maila guztietan, kontabilitate ekologiko eta ekonomiko integratua ezartzearekin harremana duten sektore guztiez arduratuko diren langileak trebatzea. Trebakuntza horren barruan analisi ekonomiko eta ekologikoaz, datu-bilketaz eta kontabilitate nazionalaz arduratzen diren langileen heziketa teknikoa gehitu beharko litzateke; zuzendaritzako langileen trebakuntza ere gehitu beharko litzateke, informazioa era pragmatikoan eta egokian erabil dezaten.

II. Saila: Garapenerako baliabideak kontserbatzea eta kudeatzea

9. ATALA: Atmosfera babestea

Sarrera

Atmosfera babestea lan zabala eta dimentsio anitzekoa da eta ekonomia-jardueraren hainbat sektorek parte hartzen dute. Gobernuari eta gainerako erakundeei aztertutako atmosfera babesten saia daitezten aholkatzen zaie eta, hala dagokienez, atal honetan adierazten diren aukerak eta neurriak aplikatu ditzaten.

Atal honetan aipatzen diren arazo asko nazioarteko hitzarmenetan aztertzen direla kontuan hartzen da; hitzarmenak, besteak beste, ondorengoak dira: Ozono-geruza babesteko Vienako Hitzarmena (1985); ozono-geruza kaltetzen duten substantziei buruzko Montrealgo Protokoloa (1987), zuzendutako bertsioa kontuan hartuta; Klimaren aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa (1992) eta nazioarteko beste bitarteko batzuk, lurraldeetakoak barne. Hitzarmen horietan azaltzen diren jardueren kasuan, ondorengoak ulertu behar da: atal honetan agertzen diren aholkuek ez dituzte gobernuak baliabide juridiko horietan adierazten diren neurriak gainditzen dituzten erabakiak hartzeri behartzen. Hala ere, atal honen esparruan, gobernuak baliabide juridiko horiekin bateragarri diren neurri osagarriak hartzeko aukera dute.

Halaber, atal honetako helburuak lortu ahal izateko egiten diren jarduerak modu integralean garapen sozial eta ekonomikoarekin koordinatu behar dira liratekeela kontuan hartzen da, bere gain ondorio negatiboak izatea ekiditeko, hazkunde ekonomiko jasagarria eta pobrezia aurre egitea lortzeko dagokienez garapen bidean dauden herrialdeen legezko lehentasuneko beharrak guztiz kontuan hartuta.

Testuinguru honetan, Agenda 21eko [2. ataleko](#) A programa-arloari erreferentzia berezia egin zaio (Garapen jasagarria merkataritzaren bidez sustatzea).

Atal honen barruan lau programa-arlo hauek daude:

- a) Zalentzen azterketa: erabakiak hartzeko oinarri zientifikoa perfektionatzea;
- b) Garapen jasagarriaren sustapena:
 - i. Energiaren garapena, eragingarritasuna eta kontsumoa;
 - ii. Garraioa;

- iii. Industriaren garapena;
- iv. Lurreko eta itsasoko baliabideen garapena eta lurren ustiapena;
- c) Ozono estratosferikoa agortzearen prebentzioa;
- d) Mugaz gaineko kutsadura atmosferikoa.

Programa-arloak

A. Zalantzen azterketa: erabakiak hartzeko oinarri zientifikoa perfektionatzea

Ekintzarako oinarriak:

Klima aldaketaren inguruko eta klimaren aldakortasunaren, airearen kutsaduraren eta ozonoa agortzearen inguruko egonezinak zientzia-, ekonomia- eta gizarte-informazio eskaera berria sortu du, alor horretan oraindik dauden zalantzak gutxitzeko. Ezinbestekoa da atmosferaren eta kaltetutako ekosistemen ezaugarri anitzak iragartzeko ulermena eta gaitasuna hobetzea, osasunean duten eragina eta faktore sozioekonomikoekiko elkarreragina iragartzeko ulermena eta gaitasuna hobetzea ere ezinbestekoa da.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburu nagusiak hauek dira: mundu, lurralde eta herri mailan Lurreko atmosferari eragiten dieten eta era berean berak eragiten dituen prozesuak hobeto ulertzea da, beste batzuen artean prozesu fisikoak, kimikoak, geologikoak, biologikoak, ozeanikoak, hidrologikoak, ekonomikoak eta sozialak barne; nazioarteko lankidetzaren gaitasuna areagotzea eta biziagotzea; eta, azkenik, aldaketa atmosferikoen eta aldaketa horiek arintzeko hartutako neurrien eta erantzunen ondorio ekonomikoak eta sozialak hobeto ulertzea.

Jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera, Nazio Batuen Erakundeko organo eskudunekin eta, hala dagokienean, gobernuarteko eta gobernuz kanpoko erakundeekin eta sektore pribatuarekin elkarlanean, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Atmosferari eragiten dieten eta atmosferak berak eragiten dituen prozesu naturalekin harremana duten ikerketak bultzatzea, baita garapen jasangarriaren eta aldaketa atmosferikoen arteko lotura kritikoei buruzko ikerketak ere, gizakien osasunean, ekosistemetan, ekonomiaren sektorean eta gizartean duten eragina barne;
- b) Klimaren Behaketaren Munduko Sistemaren eta bere osagaien estaldura geografiko orekatuagoa ziurtatzea, Atmosfera Globalaren Zaintza barne; horretarako, beste batzuen artean, behaketa sistematikoaren estazio osagarrien ezarpena eta funtzionamendua erraztu egin behar dira eta datu-base horien garapenari, erabilerari eta irisgarritasunari lagundu egin behar zaie;
- c) Alor hauetan lankidetzaren sustatzea:
 - i. Atmosferako aldaketen eta gorabeheren inguruko detekzio goiztiarraren

sistemaren garapenean;

- ii. Aldaketa eta gorabehera horiek aurreratzeko ahalmena sortzean eta hobetzean eta ingurugiroan eta sozioekonomian izango dituen eraginak ebaluatzean;
- d) Metodologiak garatzeko eta kutsatzaile atmosferikoen mugak zehazteko ikerketetan laguntzea; horrez gain, ondorengo ikerketa hauetan ere lagundu beharko litzateke: klima-sistemarekin interferentzia antropogeno arriskutsuak eragin ditzaketen berotegi-efektuko gasen kontzentrazio-maila atmosferikoa neurtzeko eta ekosistemari era naturalean egokitzen uzten ez dioten erritmo aldaketa konexuak neurtzeko ikerketetan;
- e) Gaitasun zientifikoa areagotu dadin eta adituen eta langile teknikarien parte-hartzea eta trebakuntza erraz daitezela sustatzea eta datu eta informazio zientifikoen trukea sustatzea, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan. Gainera, berekin elkarlanean aritzea, datuen ikerketaren, bilketaren, antolaketaren eta ebaluazioaren eta atmosferarekin harremana duten behaketa sistematikoen alorretan.

B. Garapen jasangarriaren sustapena

1. Energiaren garapena, eragingarritasuna eta kontsumoa

Ekintzarako oinarriak:

Energia ezinbestekoa da ekonomiaren eta gizartearen garapenerako eta bizi-kalitatea hobetzeko. Hala ere, munduko energia gehien teknologia etengabe egongo ez balitz ez irauteko moduan edo munduko kopuruak nabarmen igoko balira ez irauteko moduan sortzen eta kontsumitzen da. Berotegi-efektuko gasen eta beste gas eta substantzia batzuen isuri atmosferikoak kontrolatzeko beharra bi atal hauetan oinarritu beharko litzateke geroz eta gehiago: batetik, energiaren produkzioaren, transmisioaren, banaketaren eta kontsumoaren eraginkortasunean eta, bestetik, geroz eta handiagoa den sistema energetikoen, ekologikoki arrazionalaren, dependentzian, batez ere energia-iturri berrien eta berriztagarrien dependentzian¹⁰. Energia-iturri guztiak atmosfera, giza osasuna eta ingurugiroa bere osotasunean errepestatzeko moduan erabiltzea ezinbestekoa izango da.

Garapen jasangarriaren bidean jarraitu ahal izateko behar den energia ekologikoki arrazionalaren horniketa areagotzeko egungo oztopoak deuseztatzea beharrezkoa da, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan.

Jarduerak:

Programa-arlo honen oinarrizko eta azken helburua energiaren sektoreak atmosferan eragiten dituen efektu kaltegarriak murriztea da, dagokienaren arabera, politikaren eta programen sustapenaren bidez; programa eta politika hauek energia-sistema ekologiko arrazionalen eta ekonomikoen, bereziki berrien eta berriztagarrien, ekarpena areagotzera bideratuta egongo lirateke eta hori gutxiago kutsatzen duten eta eragingarriagoak diren energiaren produkzioaren, transmisioaren, banaketaren eta erabileraren bidez lortuko litzateke. Helburu horrek zuzentasunaren beharra, energiaren behar adina horniketa eta energiaren kontsumoaren areagotzea islatu beharko lituzke garapen bidean dauden herrialdeetan eta, neurri handi batean, erregai fosilen eta kontsumo energetiko maila altuko produktu konexuen edo/eta beste energia-iturri batek ordezkatzeko zailak diren erregai fosilen produkzioaren,

¹⁰ Energia-iturri berriak eta berriztagarriak hauek dira: energia heliotermikoa, eolikoa, hidroelektrikoa, geotermikoa; eguzki-energia fotovoltaikoa; biomasa-energia; itsas eta giza energia eta abere-energia. Energia hauei buruzko datuak Energi Iturri Berrien eta Berriztagarriaren Ustiapenari eta Erabilerari buruzko Batzordearen txostenean daude, eta Biltzarrerako espresuki prestatu ziren.

lanketaren eta esportazioaren edo/eta kontsumoaren diru-sarreraren menpe bizi diren herrialdeen egoera kontuan izan beharko luke. Klimaren aldaketaren ondorio kaltegarrien aurrean guztiz ahulak diren herrialdeen egoera ere kontuan hartu beharko litzateke.

Jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera, Nazio Batuen Erakundeko organo eskudunekin eta, hala dagokienean, gobernuarteko eta gobernuz kanpoko erakundeekin eta sektore pribatuarekin elkarlanean, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Ekonomikoki bideragarriak eta ekologikoki arrazionalak diren energia-iturrien bilaketan eta garapenean laguntzea, garapen jasagarria lortzeko ahaleaginean energiaren horniketa areagotzeko aukera sustatzeko, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;
- b) Nazio mailan garapen jasangarrirako politika energetikoaren eta ekonomikoaren eta ingurugiro-politikaren erabaki integratuak hartzeko metodologia egokien garapena sustatzea, beste batzuen artean ingurugiro-inpaktuaren ebaluazioaren bidez;
- c) Teknologia hobeen eta energia-erregimendu altuko jardueren –esate baterako, dagokien sektore guztietan teknologia endogenoen– ikerketa, garapena, transferentzia eta erabilera sustatzea; honen inguruan, energia sortzeko sistemak birgaitzeari eta modernizatzeari arreta berezia jarri behar zaie, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;
- d) Energia-sistema ekologikoki arrazionalak –besteak beste energia-sistema berriak eta berriztagarriak– ezartzeko teknologien eta jardueren ikerketa, garapena, transferentzia eta erabilera sustatzea; gai honetan kasu berezia egin behar zaie garapen bidean dauden herrialdeei;
- e) Erakundeen eta zientziaren ahalmena eta planifikaziorako eta kudeaketarako ahalmena areagotu daitezen sustatzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, geroz eta energia eragingarriagoak eta gutxiago kutsatzen dutenak garatzeko, ekoizteko eta erabiltzeko;
- f) Energia-horniketaren egungo iturriak aztertzea, oro har energia-sistema ekologikoki arrazionalen, bereziki energia-sistema berrien eta berriztagarrien, ekarpena ekonomikoki era eragingarrian nola areagotu daitekeen zehazteko, herrialde bakoitzaren ezaugarri sozial, fisiko, ekonomiko eta politikoak kontuan hartuta eta, hala dagokienean, ezartzeko eta erabiltzeko unean edozein oztopo gainditzeko neurriak

aztertuz eta aplikatuz;

- g) Lurralde eta azpilurralde mailan, dagokienaren arabera, energia-iturri berrietatik eta berriztagarrietatik abiatuta, energia-planak koordinatzea eta energia ekologikoki arrazionalaren banaketa eragingarriaren bideragarritasuna aztertzea;
- h) Garapen sozioekonomikoari eta ingurugiroari buruzko lehentasun nazionalen arabera, neurri administratiboak, sozialak eta ekonomikoak barne hartzen dituzten gastuen araberrako programa eta politika eragingarriak ebaluatzea eta, hala dagokienean, sustatzea, errendimendu energetikoa hobetzeko helburuarekin;
- i) Energia-planifikaziorako, energiaren eraginkortasunari buruzko programak kudeatzeko eta energia-iturri berriak eta berriztagarriak garatzeko, sartzeko eta sustatzeko ahalmena areagotzea;
- j) Nazio mailan energiaren errendimenduari eta isurketei buruzko arau eta aholku egokiak sustatzea¹¹, ingurugiroaren aurkako efektuak ahalik eta gehien murriztuko dituzten teknologien garapenera eta erabilerara bideratuta;
- k) Batetik, nazio, azpilurralde eta lurralde mailan heziketa-programak gauza daitezen eta, bestetik, energiaren erabilera eragingarriaren eta energia-sistema ekologikoki arrazionalen kontzientzia piztu dadin sustatzea;
- l) Sektore pribatuarekin elkarlanean, hala dagokienean, produktuei etiketak jartzeko programak egitea edo gehitzea, erabakiak hartzeko ardura dutenei eta kotsumitzaileei energia eragingarriagoa erabiltzeko aukeren inguruan informazioa emateko.

¹¹Honen barruan lurraldeetako erakundeek sustatutako integrazio ekonomikoaren arauak eta aholkuak sartzen dira.

2. Garraioa

Ekintzarako oinarriak:

Garraioaren sektoreak garapen ekonomikoan eta sozialean funtsezko zeregin positiboa du eta, zalantzarik gabe, garraioaren beharrak areagotu egingo dira. Hala ere, garraioaren sektorea ere isuri atmosferikoen iturri denez, beharrezkoa da dauden garraio-sistemak berrikustea eta zirkulazio- eta garraio-sistemen kudeaketa eta diseinu eragingarria lortzea.

Jarduerak:

Programa-arlo honen helburu nagusia gastuen arabera eta dagokienaren arabera politika edo programa eragingarriak egitea eta sustatzea da, atmosferari kalte egiten dioten isurpenak eta garraioaren sektoreko aurkako beste ingurugiro-eragin batzuk, kasuaren bakoitzaren arabera, mugatzeko, murrizteko edo kontrolatzeko, garapenaren lehentasunak eta herriko eta nazioko egoera zehatzak eta segurtasun-alderdiak kontuan hartuta.

Jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera, Nazio Batuen Erakundeko organo eskudunekin eta, hala dagokienean, gobernuarteko eta gobernuz kanpoko erakundeekin eta sektore pribatuarekin elkarlanean, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Dagokienaren arabera, garraio-sistema ekonomikoagoak, eraginkorragoak, gutxiago kutsatzen dutenak eta seguruagoak garatzea edo sustatzea, bereziki nekazaritzako eta hiriko taldeko garraio integratuko sistemak sustatzea; horrez gain, bide-sare ekologikoki arrazionalak garatzea eta sustatzea, lehentasun sozialak eta ekonomikoak eta garapen jasangarriko lehentasunak ezartzeko beharrak kontuan hartuta, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;
- b) Nazioarte, lurralde, azpilurralde eta nazio mailan, garraio seguruen, eragingarrien – bereziki baliabideen erabilerari dagokienean– eta gutxiago kutsatzen dutenen teknologien erabilgarritasuna eta transferentzia eskura izan daitezen eta trebakuntza-programa egokiak gauza daitezen erraztasunak ematea, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan;
- c) Hala dagokienean, ingurugiroaren eta garraioaren arteko harremanari buruzko informazioa biltzeko, aztertzeko eta trukatzeko betebeharra sendotzea; gai honetan isurketen behaketa-sistemari eta garraioaren inguruko datu-basea sortzeari arreta

berezia jarri behar zaie;

- d) Garapen sozioekonomikoari eta ingurugiroari buruzko lehentasun nazionalen arabera, neurri administratiboak, sozialak eta ekonomikoak barne hartzen dituzten gastuen araberrako programa eta politika eragingarriak ebaluatzea eta, hala dagokienean, sustatzea, atmosferari kalte egiten dioten efektuak ahalik eta gehien murrizten dituzten garraiobideen erabilera sustatzeko;
- e) Hiriko eta lurraldeko kokapenetan planifikaziorako estrategiak eta garraioaren planifikaziorako estrategiak integratzeko mekanismoak garatzea edo perfektionatzea, garraioak ingurugiroan eragiten dituen efektuak murrizteko;
- f) Nazio Batuen barruan eta bere lurraldekako batzordeen barruan, garraioari era ingurugiroari buruzko lurralde mailako hitzaldiak antolatzea bideragarria den aztertzea.

3. Industriaren garapena

Ekintzarako oinarriak:

Industria ezinbestekoa da ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko eta lanaren eta diru-sarreraren iturri garrantzitsua da; ondorioz, industriaren garapena funtsezkoa da ekonomiaren hazkunderako. Era berean, industria baliabideen eta materialen erabiltzaile nagusia da eta, beraz, industria-jarduerak atmosfera eta oro har ingurugiroa kaltetzen duten isurketak egiten dituzten.

Atmosferaren babesa heda liteke, beste gauza batzuen artean, industrian baliabideen eta materialen eragingarritasuna areagotuz, kutsadura murrizteko teknologiak instalatuz edo hobetuz, klorofluorokarbonoak eta ozono-geruza kaltetzen duten beste sustantziak egokiagoengatik ordezkatzuz eta hondakinak eta azpiproduktuak murriztuz.

Jarduerak:

Programa-arlo honen oinarrizko helburua industriaren garapena suspertzea da atmosfera kaltetzen duten efektuak ahalik eta gehien gutxitzeko moduan, beste gauza batzuen artean, industria-produkzioan eta kontsumoan baliabide eta material guztien eragingarritasuna areagotuz, kutsadura murrizteko teknologiak hobetuz eta teknologia ekologikoki arrazional berriak sortuz.

Jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera, Nazio Batuen Erakundeko organo eskudunekin eta, hala dagokienean, gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakundeekin eta sektore pribatuarekin elkarlanean, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Garapen sozioekonomikoari eta ingurugiroari buruzko lehentasun nazionalen arabera, neurri administratiboak, sozialak eta ekonomikoak barne hartzen dituzten gastuen araberako programa eta politika eragingarriak ebaluatzea eta, hala dagokienean, sustatzea, industriaren kutsadura eta atmosferari kalte egiten dioten efektuak ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin;
- b) Industria bultzatzea, gutxiago kutsatzen duten, seguruagoak diren eta baliabideak eta materialak –adibidez, energia– eragingarritasun gehiagorekin erabiltzen dituzten teknologiak, produktuak eta prozesuak sortzeko gaitasuna areagotzeko eta sendotzeko;

- c) Batetik, industria-teknologia horiek sortzen eta transferitzen eta, bestetik, teknologia horiek kudeatzeko eta erabiltzeko beharra finkatzen laguntzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;
- d) Ingurugiro-inpaktuaren ebaluazio-sistemak egitea, hobetzea eta aplikatzea, industria-garapen jasagarria sustatzeko;
- e) Materialen eta baliabideen erabilera eragingarria sustatzea, produktuen bizitza-zikloak kontuan hartuta, baliabideak eragingarritasun gehiagorekin erabiltzearen etekin ekonomikoak eta ingurugiro-etekinak lortzeko eta hondakin gutxiago sortzeko;
- f) Gutxiago kutsatzen duten eta eragingarriagoak diren industria-teknologiaren eta -prozesuen sustapena babestea, gune bakoitzean energia, bereziki energia-iturri berriztagarriak eta seguruak, eskuratzeko aukerak kontuan hartuta industriaren kutsadura eta atmosferarentzako eragin kaltegarriak mugatzeko helburuarekin.

4. Lurreko eta itsasoko baliabideen garapena eta lurren ustiapena

Ekintzarako oinarriak:

Lurraren baliabideen eta ustiapenen inguruko politikak eragiten dituzte atmosferan eta atmosferak berak ere eragina du berengan. Lurreko eta itsasoko baliabideekin eta lurraren ustiapenarekin harremana duten jardura batzuek berotegi-efektuko gasen hustulekuak gutxitu egin ditzakete eta isurketa atmosferikoak areagotu egin ditzakete. Aniztasun biologikoaren galerak klimaren aldaketen aurrean eta airearen kutsadurak eragindako kalteen aurrean ekosistemaren erresistentzia gutxitu egin dezake. Atmosferaren aldaketek eragin handia izan dezakete basoetan, aniztasun biologikoan eta ur gezatako eta itsasoko ekosistemetan eta ekonomiaren jardueretan, esate baterako nekazaritzan. Askotan, sektore desberdinetako politiken helburuak ez datoz bat, eta horregatik nahitaezkoa da era integratuan kontuan hartzea.

Jarduerak:

Pograma-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Itsasoko eta lurreko baliabideen erabilera eta lurren ustiapen egokiarentzako jarduerak sustatzea; bereziki ondorengoak lortzen laguntzen dutenak:
 - i. Kutsadura atmosferikoa gutxitzea edota berotegi-efektuko gasen isurketa antropogenoak mugatzea;
 - ii. Kasu bakoitzari dagokionaren arabera, berotegi-efektuko gasen hustuleku guztiak kontserbatzea, jasangarritasunez kudeatzea eta hobetzea;
 - iii. Baliabide naturalak eta ingurugiro-baliabideak kontserbatzea eta jasangarritasunez erabiltzea;
- b) Lurreko eta itsasoko baliabideen erabilerari eta lurraren ustiapenari buruzko politikak eta programak planifikatzeko eta aplikatzeko garaian, benetakoak diren eta gerta daitezkeen aldaketa atmosferikoak eta beren ondorio sozioekonomikoak eta ekologikoak guztiz kontuan har daitezen begiratzea.

Jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera, Nazio Batuen Erakundeko organo eskudunekin eta, hala dagokienean, gobernuarteko eta gobernuz kanpoko erakundeekin eta sektore pribatuarekin elkarlanean, ondorengoak egin beharko lukete:

- a) Garapen sozioekonomikoari eta ingurugiroari buruzko lehentasun nazionalen arabera, neurri administratiboak, sozialak eta ekonomikoak barne hartzen dituzten gastuen araberako programa eta politika eragingarriak ebaluatzea eta, hala dagokienean, sustatzea, lurraren erabileraren jarduera ekologikoki arrazionalak bultzatzeko;
- b) Lurraren ustiapenaren jarduera ezegokiak eta kutsakorrak atzera botarazten dituzten eta lurreko eta itsasoko baliabideen erabilera jasangarria bultzatzen duten politikak eta programak aplikatzea;
- c) Batetik, Lurreko eta itsasoko baliabideekin eta lurraren ustiapenarekin harremana duten eta, bestetik, aldaketa eta gorabehera atmosferikoak hobeto jasaten lagunduko duten jarduerak landu eta erabili daitezen sustatzeko aukerak aztertzea;
- d) Bakoitzari dagokionaren arabera, berotegi-efektuko gasen hustulekuen eta biltegien kontserbazioan edo hobekuntzan ustiapen jasangarria eta lankidetzaz sustatzea, bereziki biomasan, basoetan eta ozeanoetan eta lurreko, kostako eta itsasoko beste ekosistema batzuetan.

C. Ozono estratosferikoa agortzearen prebentzioa

Ekintzarako oinarriak:

Orain dela gutxi zabaldutako datu zientifikoek analisiak ziurtarazi egin du klorofluorokarbonoetatik (CFC) eratorritako kloro eta bromo errektiboen, haloien eta beste antzeko sustantzia artifizial batzuen ondorioz sortutako Lurraren ozono-geruza estratosferikoaren etengabeko kaltetzearen inguruko susmoa. 1985eko ozono-geruza babesteko Vienako Hitzarmena eta 1987ko ozono-geruza kaltetzen duten sustantziei buruzko Montrealgo Protokoloa (Londresen 1990ean zuzendu zutena) nazioarte mailan aurrerapen garrantzitsuak izan baziren ere, ozono-geruza kaltetzen duten sustantzien kloro kopurua gehitu egin da. Joera hau Protokoloan adierazten diren kontrol-neurriak aplikatuz gero aldarazi daiteke.

Jarduerak:

Pograma-arlo honen helburuak hauek dira:

- a) Vienako Hitzarmenean eta Montrealgo Protokoloan eta 1990eko bere zuzenketan finkatutako helburuak lortzea, txosten horietan garapen bidean dauden herrialdeen behar eta baldintza berezien inguruan adierazten dena eta ozono-geruza kaltetzen duten sustantziak eskuratzeko aukera barne. Ozono-geruza kaltetzen duten sustantzien eskaera gutxitzen duten teknologia eta produktu naturalak sustatu beharko lirateke;
- b) Ozono-geruza estratosferikoaren kaltetzearen eta aldaketaren eraginez Lurreko gainazalera iristen diren erradiazio ultramoreen efektu negatiboak arintzeko estrategiak sortzea.

Jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera, Nazio Batuen Erakundeko organo eskudunekin eta, hala dagokienean, gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakundeekin eta sektore pribatuarekin elkarlanean, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Montrealgo Protokoloa eta 1990eko bere zuzenketak berrestea, onartzea edo onestea; berehala Vienako eta Montrealgo funts fiduzarioei eta Behin-behineko Funts Multilateralari ekarpenak egitea; eta, hala dagokionean, Montrealgo Protokoloaren eta bere aplikazio-mekanismoen arabera gauzatzen ari diren jardueri laguntzea,

- besteak beste, CFCen eta ozono-geruza kaltetzen duten gainerako sustantzien ordezkoen horniketan eta Protokoloaren baldintzak bete ahal izateko garapen bidean dauden herrialdeen teknologiak erraz transferitzeko aukeran;
- b) Ozonoa Behatzeko Munduko Sistema gehiago hedatu dadin laguntzea, alde biko eta alde anitzeko funtsen bidez behaketa sistematikorako estazio berriak egin eta martxan jar daitezkeen lagunduz, bereziki hego hemisferioko inguru tropikalean;
 - c) Ozono estratosferikoa kaltetzeak osasunean eta ingurugiroan dituen eraginen inguruan eta ozono estratosferikoa kaltetzearen inguruko informazio zientifikoaren eta bere ondorio teknologikoen eta ekonomikoen etengabeko ebaluazioan aktiboki parte hartzea; eta ebaluazio horien arabera justifikatuak eta bideragarriak diren beste neurri batzuk kontuan hartzea;
 - d) Lurreko gainazalera iristen diren erradiazio ultramore gehigarrien efektuei buruzko ikerketen emaitzak oinarritzat hartuta, gizakien osasunaren, nekazaritzaren eta itsas ingurunearen alorretan neurri zentzagarriak eta egokiak hartzeko aukera aztertzea;
 - e) Montrealgo Protokoloaren arabera, CFC eta ozono-geruza kaltetzen duten gainerako sustantziak ordezkatzeko; horretarako kontuan hartu behar da ordezkapen honen egokitasuna era integralean ebaluatu beharko litzatekeela eta ez atmosferaren edo ingurugiroaren arazoaren konponbideari egiten dion ekarpenaren arabera soilik.

D. Mugaz gaineko kutsadura

Ekintzarako oinarriak:

Mugaz gaineko kutsadurak gizakien osasunean eta ingurugiroan eragin kaltegarriak ditu, esate baterako, zuhaitzak eta basoak desagertarazi egiten ditu eta ur-masak azidotu egiten ditu. Kutsadura atmosferikoa zaintzen duten sareak ez dira era berean arduratzen lurralde guztiez eta garapen bidean dauden herrialdeek ordezkaritza txikia dute. Europa eta Ipar Ameriketatik kanpoko isurketei buruzko datu fidagarrien faltak mugaz gaineko kutsadura neurtzeko aukera asko mugatzen du. Ingurugiroan eta osasunean kutsadura atmosferikoaren eraginei buruzko informazioa ere ez da nahikoa hainbat lurraldetan.

Urrunerako mugaz gaineko kutsadura atmosferikoari buruzko 1979ko Konbentzioak eta bere protokoloek lurraldeko erregimena ezarri dute Europan eta Ipar Ameriketara; erregimen hau kutsadura atmosferikoen eta horren inguruko informazioaren behaketa sistematikorako eta ebaluaziorako azterketa eta programa kooperatiboen prozesuan oinarrituta dago. Programa hauek mantendu eta hedatu egin behar dira eta beren emaitzak munduko beste lurraldeekin elkarbanatu behar dira.

Jarduerak:

Programa-arlo honen helburuak hauek dira:

- a) Kutsadura atmosferikoaren iturri finkoek eta mugikorrek sortutako kutsadura kontrolatzeko eta neurtzeko teknologiak sortzea eta aplikatzea eta ekologikoki arrazionalak diren beste teknologiak sortzea;
- b) Prozesu naturalek eta jarduera antropogenoek sortarazitako mugaz gaineko kutsadura atmosferikoaren iturriak eta tamaina sistematikoki behatzea eta ebaluatzea;
- c) Mugaz gaineko kutsadura atmosferikoaren mugimenduak eta efektuak neurtzeko eta zehazteko ahalmena sendotzea eta horren inguruko ereduak egitea, beste jarduera batzuen artean, informazioaren trukearen eta adituen formazioaren bidez, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;
- d) Istripu industrialek eta nuklearrek, hondamendi naturalek eta baliabide naturalen nahita egindako eta halabeharrezko suntsiketek sortutako mugaz gaineko kutsadura atmosferikoa ebaluatzeko eta arintzeko ahalmena garatzea;
- e) Lurraldeko hitzarmen berriak onar daitezen sustatzea, mugaz gaineko kutsadura mugatzeko, eta aurretik dauden hitzarmenak aplikatzea;

- f) Mugaz gaineko kutsadura atmosferikoak eta bere efektuek eragindako isurketak murrizteko estrategiak egitea.

Jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera, Nazio Batuen Erakundeko organo eskudunekin eta, hala dagokienean, gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakundeekin, sektore pribatuarekin eta finantza-erakundeekin elkarlanean, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Mugaz gaineko kutsadura atmosferikoaren aurka borroka egiteko lurraldeetako hitzarmenak onartzea edota sendotzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, honako alorretan: behaketa eta ebaluazio sistematikoa, ereduaren prestakuntza eta kutsadura atmosferikoaren iturri mugikorretatik eta finkoetatik datozen isurketak mugatzeko teknologien garapena eta trukaketa. Egoera honetan, erradiazio ultramoreen, ingurugiroaren azidotzearen eta basoei eta oro har begetazioari fotooxidanteek eragindako kalteen garrantzia, arrazoiak eta eragin sozioekonomikoak eta osasunean dituzten eraginak gehiago nabarmendu beharko lirateke;
- b) Industriako istripuek, hondamendi naturalek, nahita egindako suntsiketek edota baliabide naturalen istripuek eragindako mugaz gaineko kutsadura atmosferikoarekin harremanetan, alerta goiztiarraren sistemak eta interbentzio-mekanismoak onartzea edo sendotzea;
- c) Trebatzeko aukerak ematea eta datuen eta informazioaren eta nazioko edota lurraldeko esperientzien trukaketa erraztea;
- d) Lurralde mailan eta alde anitz eta alde biko mailetan elkarlanean aritzea, mugaz gaineko kutsadura atmosferikoa ebaluatzeko, atmosferara isurketak gutxitzeko eta ingurugiroko, ekonomiako, gizarteko eta beste alorretako bere eraginei aurre egiteko neurri zehatzak barne hartzen dituzten programak egiteko eta gauzatzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Nazioarteko eta lurraldeko lankidetzak:

Indarrean dauden bitarteko juridikoek bitarteko horien helburuekin harremana duten egitura instituzionalak sortu dituzte eta horren inguruan egin beharrekoak testuinguru horretan jarraitu behar luke. Gobernuek jarraitu eta areagotu egin beharko lukete beren

lankidetzan, lurralde eta mundu mailan, eta Nazio Batuen sisteman. Testuinguru honetan, Agenda 21en [38. atalean](#) (Nazioarteko akordio instituzionalak) aipatzen diren aholkuei erreferentzia egitea ezinbestekoa da.

b) Gaitasuna areagotzea:

Herrialdeek, Nazio Batuen organo eskudunekin, nazioarteko emaileekin eta gobernu kanpoko erakundeekin elkarlanean, baliabide teknikoak eta finantza-baliabideak mugiarazi beharko lituzkete eta garapen bidean dauden herrialdeek lankidetzan teknikoak bultzatu beharko lukete, dagokien sektore guztietan, garapen jasangarria sustatzeko eta atmosfera babesteko beren gaitasun teknikoak eta kudeaketarako, planifikaziorako eta administrazioarako gaitasuna sendotzeko.

c) Giza baliabideen garapena:

Ezinbestekoa da herri, nazio eta nazioarte mailan, garapen jasangarriaren sustapenari eta atmosfera babesteari buruzko hezkuntza-programak eta kontzientzia hartzeko programak onartzea eta sendotzea, dagokien sektore guztietan.

d) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak A programa-arloko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 640 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuak ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

Biltzarreko idazkaritzak B programa-arloko jarduerak lau etapetan gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 20.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du eta nazioarteko komunitateak mesede gisa edo dohaintza moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuak ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen

araberakoak izango dira.

Biltzarreko idazkaritzak C programa-arloko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 160 eta 590 milioi dolarren artekoa izango dela balioztatu du eta dohaintza edo mesede moduan emango dira. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

Biltzarreko idazkaritzak laguntza teknikoaren eta programa esperimentalaren gastuak 32 eta 33 paragrafoetan gehitu ditu.

10. ATALA: Lurreko baliabideak planifikatzeko eta antolatzeko ikuspegi integratua

Sarrera

Normalean lurra entitate fisiko gisa bere topografiaren eta espazio-izaeraren arabera definitzen da; ikuspegi integratu zabalagoa hartuz gero, baliabide naturalak ere kontuan hartzen dira: lurzoruak, mineralak, ura eta biota barne hartzen dituen lurra. Osagai hauek ekosistematan antolatuta daude, eta ekosistema horiek bizitzaren sostengatzaile diren sistemen segurtasunari eta ingurugiroaren produkzio-ahalmenari eusteko ezinbesteko lana egiten dute. Lurren baliabideak ezaugarri horiek guztiak aprobetxatzeko moduan erabiltzen dira. Lurra baliabide mugatua izango da bere antolaketa baldintzen eta ematen zaion erabileraren arabera eta sostengatzen dituen baliabide naturalek denborarekin aldatzeko aukera duten bitartean. Gero eta handiagoak diren gizakiaren beharrak eta jardura ekonomikoen areagotzeak geroz eta presio handiagoa eragiten dute lurren baliabideengan, kompetentzia eta gatazkak eragitzen dituzte eta lurra eta bere baliabideak modu desegokian erabiltzea eragiten dute. Etorkizunean gizakiaren beharrak era jasangarrian ase nahi badira, ezinbestekoa da gatazka horiek orain konpontzea eta lurraren eta bere baliabideen erabilera baliagarri eta eragingarriagoa bideratzea. Planifikatzeko ikuspegi integratua eta ingurune fisikoaren eta lurraren erabileraren kudeaketa lortu ahal izateko era praktikoa da. Lurraren erabilera guztiak ongi aztertuta, gatazkak murriztu egin daitezke, oreka eragingarriagoa lor daiteke eta garapen sozial eta ekonomikoa ingurugiroaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotu daitezke; horrela, garapen jasangarriaren helburuak lortzen lagunduko litzateke. Ikuspegi integratu honen muina lurraren eta bere baliabideen erabileraren aldeekin harremana duten planifikazioaren eta kudeaketaren jardura sektorialak koordinatzean datza.

Atal honetako gai nagusia programa-arlo bakarra da, lurren baliabideen planifikazio eta antolakuntza integratua, eta ondorengoari buruzkoa da: erabakiak hartzeko egitura, gaur egungo politikak, planifikazioko eta antolakuntzako prozedurak eta lurraren baliabideen ikuspegi integratua zehazten lagun dezaketen metodoak berrantolatzeari eta, behar denean, indartzeari buruzkoa. Hala ere, ez ditu planifikazioaren eta ordenazioaren alde operazionalak bere gain hartzen, atal hauek egokiago aztertzen baitira dagokien programa sektorialen arloetan. Programa-arlo hau garapen jasangarria lortzeko asmoz hartu beharreko erabakien prozesuaren alde intersektorial garrantzitsuaz arduratzen denez, zuzenean arazo honi buruzkoak diren beste arlo batzuekin harreman estua du.

Programa-arloak

A. Lurreko baliabideak planifikatzeko eta antolatzeko ikuspegi integratua

Ekintzarako oinarriak:

Lurreko baliabideak elkarrekin harremanetan dauden helburu ugari lortzeko erabiltzen dira eta beren artean lehia dezakete; ondorioz, komeni da erabilera guztiak ongi prestatu eta antolatzea. Integrazioa bi mailatan egin beharko litzateke, batetik, ingurugiro-, gizarte- eta ekonomia-faktoreak (esate baterako, hainbat sektore ekonomiko eta sozialen ondorioak ingurugiroan eta baliabide naturaletan) eta, bestetik, ingurugiroko gai guztiak eta baliabideak batera (hau da, airea, ura, biota, lurra eta baliabide naturalak eta geologikoak) kontuan hartuta. Guztiak batera arduratzeak aukera eta konpentsazio egokiak eskaintzen ditu, eta produktibitatea eta erabilera jasangarria maila gorenera igoarazten ditu. Lurrari erabilera desberdinak emateko aukera finkatzearen eta garatzearen inguruko proiektu garrantzitsuetan edo, bestela, lurren eskaintza merkaturatzen denean planteatzen da. Horrek, era berean, lurren antolaketa jasangarriaren era tradizionalak berrindartzeko aukera ematen du edo dibertsitate biologikoa edo zerbitzu ekologiko kritikoak kontserbatzeko babestea merezi duten lur gisa hartzeko aukera.

Hainbat teknika, esparru eta prozesu konbina daitezke azterketa integratua errazteko. Bai alde nazional eta lokalean, bai ekosistema edo inguruan, bai ekintza-plan zehatzen garapenean, planifikazio eta antolaketa prozesuarentzako ezinbesteko laguntza dira. Bere elementu asko jadanik badaude, baina bere aplikazioak orokor bihurtzea, garatzea eta indartzea beharrezkoa da. Programa-arlo honen helburu nagusia erabakiak hartzeko prozesua koordinatzeko esparrua eskaintzea da; beraz, edukiak eta funtzio operazionalak ez dira dokumentu honetan agertzen, eta Agenda 21en barruan dagokien jarduera sektorialean agertzen dira.

Jarduerak:

Helburu orokorrak lurra onura jasangarri gehien ziurtatuko dituen moduan erabiltzea eta lurren baliabideen antolaketa jasangarri eta integralera bilakaera bultzatzea dira. Hau betetzeko momentuan, ingurugiro-, gizarte- eta ekonomia-arazoak hartu behar dira kontuan. Batez ere, atal hauek hartu beharko lirateke kontuan: babestutako guneak, jabego pribatua edukitzeko eskubidea, herri indigenen eta beren komunitateen eskubideak, tokian tokiko komunitateak eta, besteak beste, nekazaritzan eta landa-garapenean emakumeak betetzen duen paper ekonomikoa. Zehatzago esateko, helburuak hauek dira:

- a) Lurraren erabilera egokia eta lurreko baliabideen antolakuntza sostengarria errazteko politikak aztertzea eta hobetzea, gehenez ere 1996 urtea baino lehen;
- b) Lurren eta beren baliabideen planifikazio-, antolakuntza- eta ebaluaketa-sistemak hobetzea eta sendotzea, gehenez ere 2000 urtea baino lehen;
- c) Lurrekin eta bere baliabideekin harremana duten erakunde eta koordinazio-mekanismoak sendotzea, gehenez ere 1998 urtea baino lehen;
- d) Lurren ustiapenaren eta antolakuntzaren inguruko erabakiak hartzeko garaian interesdunen, batez ere komunitateen eta tokian tokiko herrien, esku-hartze eta partaidetza aktiboa errazteko mekanismoak sortzea, gehenez ere 1996 urtea baino lehen.

Kudeaketa-jarduerak:

Laguntzarako politikak eta tresna arau-emaileak egitea

Gobernuek, dagokienaren arabera, politikek eta tresna arau-emaileek lurraren ustiapen egokia eta bere baliabideen antolakuntza sostengarria erraz ditzaten arduratu beharko lukete, lurraldeko eta nazioarteko erakundeen laguntzarekin.

Arreta berezia jarri beharko litzateke nekazaritza-lurretan. Helburu hau lortzeko hauxe egin beharko lukete:

- a) Ingurugiro-, gizarte-, demografia- eta ekonomia-arazoak kontuan hartuko dituzten helburu objetiboak eta politiken formulazioak ezartzeko metodo integratua egitea, nazio, lurralde eta herri mailan;
- b) Lurren ustiapen jasangarria eta baliabideen antolakuntza egokia bultzatzeaz gain, lurren baliabideen oinarria, demografia-arazoak eta lekuan lekuko biztanleen interesak kontuan hartu beharko lituzkeen politikak egitea;
- c) Araudiaren alorra –batez ere legeena–, araudia bera eta aplikatzeko prozedurak berrikustea, lurraren ustiapen jasangarria eta lurren baliabideen antolakuntza egokia errazteko zer hobetu behar den azalarazteko eta landu daitezkeen lur produktiboak beste zerbaitetarako erabiltzeko egiten diren aldaketak mugatzeko;
- d) Baliabide ekonomikoak erabiltzea eta sustapen eta mekanismo instituzionalak sortzea, lurren erabilera egokia eta lurren baliabideen antolakuntza jasangarria bultzatzeko;
- e) Politiken formulazioa bateragarri den behe-mailako agintari publikoaren esku uzteko printzipioa zabaltzea, neurri eraginkorrak hartuz eta tokian tokiko biztanleen partaidetza bultzatuz.

Planifikazio- eta antolakuntza-sistemak sendotzea

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen laguntzarekin, planifikazio- eta antolakuntza-sistemak aztertu, eta behar izanez gero berrikusi, egin beharko lituzteke, ikuspegi integratua errazteko. Helburu hau lortzeko haxe egin beharko lukete:

- a) Ingurugiro-osagaien integrazioa (esate baterako, airearen, uraren eta beste baliabide naturalena) errazteko planifikazio- eta ordenazio-sistemak onartzea, paisaiaren planifikazio ekologikoa edo arreta unitateetan (hala nola, ekosistemetan edo arroetan) jartzen duten beste sistema batzuk erabiliz;
- b) Denborarekin garapenaren eta ingurugiroaren helburuak integrazteko aukera emango luketen esparru estrategikoak onartzea; horren adibide garbiak dira hauek: iraupen jasangarriaren sistemak, nekazaritza-garapena, Lurraren Kontserbazio/Zaintzarako Munduko Estrategia, ingurugiroaren oinarritzko arreta (PEC) eta abar;
- c) Lurren ustiapenaren eta inguru fisikoaren planifikaziorako esparru orokorra ezartzea, esparru horretan plan espezializatu eta plan sektorial zehatzagoak garatu ahal izateko moduan (esate baterako, gune babestuetarako, nekazaritzarako, basoetarako, giza-kokalekuetarako edo nekazaritza-garapenerako); kontsulta-organoak ezartzea, proiektuen planifikazioa eta gauzatzea bizkortzeko;
- d) Lurraren antolakuntza-sistemak eta baliabide naturalak sendotzea, ohiko eta tokian tokiko metodo egokiak barne; praktika horien adibide garbiak dira artzaintza, Hema erreserbak (lurren erreserba islamiko tradizionalak) eta nekazaritza terrazatan;
- e) Programak finantzatzeko irizpide berritzaileak eta malguak aztertzea eta, behar izanez gero, ezartzea;
- f) Lurraren gaitasunari buruzko inbentario zehatzak prestatzea, nazio eta herri mailan lurren baliabideen esleipen, antolakuntza eta ustiapen egokia bideratzeko.

Planifikazio- eta ordenazio-sistema egokiak aplikatzeko promozioa

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen laguntzarekin, planifikazio- eta antolakuntza-sistemen hobekuntza, garapen eta aplikazio generalizatua bultzatu beharko lituzkete; sistema horiek lurrak eta beren baliabideak antolatzeko metodo integratuen eta jasangarrien aplikazioa erraztu beharko lukete. Helburu hau lortzeko haxe egin beharko lukete:

- a) Lurren eta beren baliabideen ustiapenaren inguruko datuen interpretazio eta azterketa integralerako hobetutako sistemak onartzea;
- b) Ingurugiroaren, gizartearen eta ekonomiaren efektuak eta hainbat neurriren arrisku, balio eta onurak aztertzeke teknikak eta prozedurak sistematikoki aplikatzea;
- c) Lurren baliabideen eta ekosistemen funtzioak eta balioak nazioen kontuetan gehitzeko metodoak aztertzea eta saioak egitea.

Kontzientzia hartzea

Gobernuek, dagokien mailan, nazioko erakundeekin eta interesa duten taldearekin lankidetzan eta nazioarteko eta lurraldeko erakundeen laguntzarekin, sentsibilizazio-kanpainak abiarazi beharko lituzkete, herriak lurren eta beren baliabideen antolakuntza integratuaren garrantzia eta jendeak eta talde sozialek horren inguruan bete ahal izango luketen papera onar eta uler ditzan. Era berean, lurren ustiapena eta beren antolakuntza jasangarria egokiago gauzatzeko baliabideak eskaini beharko lituzkete.

Jendearen partaidetza sustatzea

Gobernuek, dagokien mailan, nazioko erakundeekin lankidetzan eta dagokien nazioarteko erakundeen laguntzarekin, erabakiak hartzeko eta gauzatzeko prozesuan sektore guztien partaidetza aktiboa erraztuko eta bultzatuko luketen prozedura berritzaileak jarri beharko lituzkete martxan; prozesu horietan batez ere orain arte baztertuta egon diren taldeak sartuko lirateke, hala nola, haurrak, herri indigenak, beren komunitateak eta tokian tokiko beste komunitateak.

Datuak eta informazioa:

Informazio-sistemak sendotzea

Gobernuek, dagokien mailan, nazioko erakundeekin lankidetzan eta nazioarteko eta lurraldeko erakundeen laguntzarekin, lurren erabileraren eta antolakuntzaren inguruko erabakiak hartzeko beharrezkoak diren informazio-sistemak sendotu beharko lituzkete eta etorkizunean eremu horretan izango diren aldaketak ebaluatu. Horretarako, bai gizonen, bai emakumeen beharrak hartu beharko lituzkete kontuan. Helburu hori lortzeko ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Mundu, lurralde, nazio eta herri mailan lurren baliabideekin harremana duten ingurugiroko, ekonomiako eta gizarteko datuen informazio sistemak, behaketa

- sistematikoa eta ebaluazioa indartzea eta, era berean, lurren produkzioarako ahalmena eta lurren erabilera motak eta antolakuntza sendotzea;
- b) Lurraren inguruko egungo datu sektorialen sistemen eta lurren baliabideen arteko koordinazioa sendotzea eta datuak biltzeko eta ebaluatzeko nazioaren gaitasun indartzea;
 - c) Modu ulergarrian herriko sektore guztietan, batez ere tokian tokiko komunitateen eta emakume-taldearen artean, lurren erabileraren eta antolakuntzaren inguruko erabakiak modu egokian hartzeko beharrezkoa den informazio tekniko egokia zabaltzea;
 - d) Komunitatearen kudeaketa-sistemak eta balio baxua duten sistemak bultzatzea, lurren baliabideen (lurrak barne), baso-gainazalaren, basoko animalien eta landareen, klimaren eta beste hainbat elementuren egoerari eta aldaketa-prozesuari buruzko informazioa biltzeko.
 - e) Nazioarte eta lurralde mailako lankidetzak eta koordinazioa. Lurraldeko mekanismoa ezartzea.

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen laguntzarekin, lurren baliabideen inguruko informazio trukea eta lurraldeko lankidetzak sendotu beharko lituzkete. Helburu hori lortzeko ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Lurraren eta ingurune fisikoaren erabilera planifikatzeko programa nazionalak bultzatuko dituzten lurralde-politikak aztertzea eta egitea;
- b) Lurraldeko herrialdeetan lurraren eta ingurune fisikoaren erabileraren inguruko planak egin daitezkeen bultzatzea;
- c) Informazio-sistemak sortzea eta trebakuntza bultzatzea;
- d) Sareen eta beste sistema egokien bidez, nazio eta herri mailan prozesuaren inguruan izandako esperientziei buruzko informazioa eta lurren baliabideen planifikazio eta antolakuntza integratuaren eta parte-hartzailearen emaitzei buruzko informazioa trukitzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 50 milioi dolarrekoa izango da eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-

baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauatzeko aukeratutako estrategien araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Lurren baliabideen sistemak zientifikoki hobeto ulertzea

Gobernuek, dagokien mailan, nazioko eta nazioarteko komunitate zientifikoarekin lankidetzan eta nazioko eta nazioarteko erakunde eskudunen laguntzarekin, tokian tokiko medioek ikerketa egokiak egiteko aukera sustatu eta babestu beharko lukete. Ikerketa horiek lurren baliabideen sistemari buruzkoak eta garapen jasangarriarengan eta antolakuntza praktikan izango luketen ondorioei buruzkoak izan beharko lukete. Jokaeraren arabera, ondorengori eman beharko litzaioke lehentasuna:

- a) Lurren ekoizpenaren eta ekosistemen funtzioen ahalmen potentzialaren ebaluaketa;
- b) Elkarrekintza ekosistematikoa eta lurreko baliabideen eta gizarte-, ekonomia- eta ingurugiro-sistemen elkarrekintza;
- c) Ingurugiroko, ekonomiako, gizarteko, kulturako eta politikako faktoreak kontuan hartuta, lurren baliabideei aplikatu dakiekeen adierazle jasangarriak zehaztea.

Proiektu esperimentalen bidez ikerketako emaitzekin saioak egitea

Gobernuek, dagokien mailan, nazioko eta nazioarteko komunitate zientifikoarekin lankidetzan eta nazioko eta nazioarteko erakunde eskudunen laguntzarekin, proiektu esperimentalen bidez, metodo perfektionatuak lurren baliabideak planifikazio eta antolaketa integratuari aplikatzeko aukera ikertu eta probatu beharko lukete, faktore tekniko, sozial eta instituzionalak kontuan hartuta.

c) Giza baliabideen garapena:

Hezkuntzaren eta trebakuntzaren hobekuntza

Gobernuek, dagokien mailan, tokian tokiko agintariekin, gobernuz kanpoko erakundeekin eta nazioarteko erakunde eskudunekin lankidetzan, lurren eta beren baliabideen planifikaziorako eta antolakuntza jasangarriko beharrezkoak liratekeen giza baliabideen garapena sustatu beharko lukete.

Tokian tokiko ekimenei pizgarriak eskainiz eta herri mailan kudeaketa ahalmena, batez ere emakumeena, gehituz lortu beharko litzateke hori. Hori lortzeko ondorengo egin beharko litzateke:

- a) Eskoletako eta prestakuntza tekniko, profesional eta unibertsitarioko ikasketan diziplinarreko ikuspegiari eta ikuspegi integratzaileari garrantzia ematea;
- b) Dagokien sektore interesatuei ahalmena ematea, lurren baliabideez modu integratu eta jasangarrian arduratu daitezkeen;
- c) Komunitateak, dagokien hedadura-zerbitzuak, talde komunitarioak eta gobernu kanpoko erakundeak lurraldeen antolakuntza-tekniketan eta beste leku batzuetan arrakasta izan duten metodoetan trebatzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Teknologia-gaitasuna sendotzea

Gobernuek, dagokien mailan, beste gobernu batzuekin lankidetzan eta nazioarteko erakunde eskudunen laguntzarekin, bi helburu sustatu beharko lituzkete: batetik, hezkuntza eta trebakuntza zentratu eta kontzentratuan ahalegina eta, bestetik, teknika eta teknologien transferentzia, nazio, estatu edo probintzia eta herri mailan planifikazioen eta garapen jasangarrien prozesuko elementuei laguntzeko.

Erakundeak indartzea

Gobernuek, dagokien mailan, nazioarteko eta Lurraldeko erakunde eskudunen laguntzarekin, hauxe egin behar lukete:

- a) Lurren baliabideez eta baliabide naturalez arduratzen diren erakundeen aginduak berriro aztertzea eta, behar izanez gero, berrikustea, agindu horietan ingurugiro-, gizarte- eta ekonomia-gaien diziplinarreko integrazioa zehazki sar dezaten;
- b) Lurren erabileraz eta baliabideen antolakuntzaz arduratzen diren erakundeen arteko koordinazioa sendotzea, arazoaren eta estrategia sektorialen integrazioa errazteko;
- c) Erabakiak hartzeko orduan tokian tokikoaren ahalmena indartzea eta goragoko mailekin koordinazioa hobetzea.

11. ATALA: Baso-soiltzearen aurkako borroka

Programa-arloak

A. Baso mota guztien, basoko lurren eta oihandutako lurraldeen funtzioei eustea

Ekintzarako oinarriak:

Zuhaitzen eta basoko lurren funtzio ekologiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak babestu eta garatzeko politika, metodo eta mekanismoetan hutsune ugari daude. Herrialde garatu asko airearen kutsadurak eta suteek beren basoetan eragindako kalteen efektuei aurre egin behar diete. Sarritan, nazio mailan, neurri eta ikuspegi eragingarriagoak eskatzen dira honako hauek hobetzeko eta bateratzeko: politiken adierazpena, planifikazioa eta programazioa; neurri eta baliabide legislatiboak; garapen motak; oro har, jendearen eta, bereziki, emakumearen eta herri indigenen parte-hartzea; gazteen parte-hartzea; sektore pribatuaren funtzioa, tokian tokiko erakundeak, gobernuz kanpoko erakundeak eta kooperatibak; ezagutza tekniko eta diziplinarteko ezagutzen garapena eta giza baliabideen kalitatea; basogintzari buruzko gauzak zabaltzeko jarduerak eta hezkuntza publikoa; ikerketarako ahalmena eta ikerketei babes eta, azkenik, egitura eta mekanismo administratiboak, horien artean, sektorearteko koordinazioa, dezentralizazioa, ardura eta pizgarriak esleitzeko sistemak, informazioaren zabalkuntza eta harreman publikoak. Hau bereziki garrantzitsua da ustiapen jasangarriari ikuspegi arrazoizko eta globala eta basoei ikuspegi ekologikoki arrazoizkoa aplikatzeko. Basoen eta basoko lurren funtzioak indartze instituzional egokiaren eta aproposaren bidez babesteko beharra agerian geratu da hainbat erakunderen txosten, erabaki eta gomendiotan; besteak beste, ondorengo erakundeen erabaki, txosten eta gomendietan: FAO, Egur Tropikalen Nazioarteko Erakundea, NBIP, Munduko Bankua, Natura eta bere Baliabideak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna eta beste erakunde batzuk.

Jarduerak:

Programa-arlo honetako helburuak ondorengoak dira:

- a) Basogintzako arazoez arduratzen diren erakunde nazionalak indartzea; basoen antolakuntzarekin, kontserbazioarekin eta garapen sostengarriarekin harremana duten jardueren garrantzia eta eragingarritasuna areagotzea eta basoko ondareen eta zerbitzuen ustiapena eta produkzio sostengarria era eraginkorrean ziurtatzea, bai garatutako herrietan, bai garapen bidean dauden herrietan; 2000. urterako, nazioko erakundeen ahalmen eta eskumenak

sendotzea, basoak babestu eta kontserbatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzeko, jarduteko esparrua zabaltzeko eta, ondorioz, basoen antolakuntzarekin eta garapenarekin harremana duten programen eta jardueren eraginkortasuna gehitzeko;

- b) Giza gaitasunaz eta gaitasun tekniko eta profesionalaz gain, ezagutza espezializatuak eta eskumenak indartzea eta areagotzea, basoen eta basoko lur eta bere eratorrien –eta basoetako etekinak atera daitezkeen beste gune batzuen– antolakuntzarako, kontserbaziorako eta garapen sostengarrirako politikak, planak, programak, ikerketak eta proiektuak egiteko eta aurrera eramateko.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan, nazioarteko, lurraldeko eta azpilurraldeko erakunde eskudunen laguntzarekin, behar den kasuetan, mota guztietako basoen eta landaretzaren, inguruko lurren eta basoen eratorrien baliabideen funtzioak sustatzeko erakundeen ahalmena areagotu egin beharko lukete, sektore guztietan ingurugiroaren garapen jasangarria eta kontserbazioa babesteko. Behar den eta ahal den kasu guztietan, hori aurretik dauden egituren eta mekanismoen indartze edo aldaketaren bidez eta bakoitzaren funtzioen lankidetzeta eta koordinazioa areagotzearen bidez lortu beharko litzateke. Aurreikusitako jarduera nagusien artean hauek daude:

- a) Egitura eta egitura administratiboak arrazionalizatzea eta sendotzea; honek hau eskatzen du: behar adina langile izatea eta ardurak esleitzea, erabakiak hartzeko gunea deszentralizatzea, azpiegitura-zerbitzuak ematea eta ekipoak hornitzea, sektoreen artean koordinazioa egotea eta komunikazio-sistema eragingarria izatea;
- b) Nazio mailan, basoarekin harremana duten jardueretan sektore pribatuaren, sindikatuen, nekazaritza-kooperatiben, tokian tokiko komunitateen, herrialde indigenen, gazteen, emakumeen, erabiltzaileen eta gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartzea bultzatzea, eta trebakuntza-programak eta informazioa eskura ditzaten sustatzea;
- c) Baso- eta landaretza-mota guztiei, inguruko lurrei eta basoko baliabideei dagozkien neurri eta programak aztertzea eta, behar izanez gero, berrikustea, eta lurren

- erabilerarako eta ustiapenerako beste politika eta legeekin harremanetan jartzea;
legeria egokia eta beste neurri batzuk sustatzea, lurrari kontrolatu gabeko beste erabilera batzuk ematea saihesteko;
- d) Nazioen eta, behar izanez gero, lurraldeen eta azpilurraldeen helburuen, programen eta irizpideen definizioa barne hartuko duten planak eta programak lantzea eta gauzatzea, aplikatzeko eta ondoren hobetzeko;
 - e) Basoko auzien inguruan jendearen hezkuntzarako eta hedapenerako sistema eragingarria ezartzea, garatzea eta mantentzea, zuhaitzen, basoen eta basoko lurren funtzioei eta balioei dagokienean basoen ezagutza, estimua eta antolakuntza hobetzeko;
 - f) Basogintzari buruzko kontuen eta basogintzako industriaren hezkuntzaz eta trebakuntzaz arduratuko diren erakundeak sortzea edo daudenak indartzea, espezialista adituez eta gaituez osatutako talde egokia eratzeko profesional, tekniko eta espezializatu mailan, batez ere gazteen eta emakumeen artean;
 - g) Ikerketa-zentroak eratzeta edo daudenak sendotzea, basoen eta basoko produktuen alde desberdinak ikertzeko, esate baterako, basoen antolakuntza bideragarria, aniztasun biologikoa, aireak garraiatzen dituen kutsatzaileen efektuak, tokian tokiko herrien eta herri indigenen basoko baliabideen erabilera tradizionala eta basoen antolakuntzatik eratorritako merkataritza-sarrereren eta beste balio ez-monetarioen areagotzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan, hala behar izanez gero nazioarteko, lurraldeko, azpilurraldeko eta alde biko erakundeen laguntzarekin eta eurekin lankidetzan, programak planifikatu eta ebaluatzeko beharrezko datu-baseak eta oinarritzko informazioa sortu beharko lituzkete. Ondoren jarduera zehatzenak aipatzen dira:

- a) Lurren sailkapenaren eta erabileraren inguruko informazioa biltzea, pilatzea, aldian-aldian eguneratzea eta banatzea honako hauei buruzko datuak barne hartuta: basoko azala, basogintzarako lur egokia, desagertzeko zorian dauden espezieak, balio ekologikoak, lurren erabilera tradizionalaren balioa edo herri indigenen erabilera, biomasa eta produktibitatea. Era berean, auzi demografikoen eta sozioekonomikoen eta basoko baliabideen inguruko informazio korrelatiboa biltzea, pilatzea, aldian-

- aldian eguneratzea eta banatzea, bai maila mikroekonomikoan, bai maila makroekonomikoan, eta basoko programa horiek aldian-aldian aztertzea;
- b) Beste datu-sistema batzuekin eta iturri egokiekin loturak ezartzea basoen antolakuntza, kontserbazioa eta ustiapena laguntzeko, dauden sistemak –hala nola, informazio geografikoari buruzkoak– behar den neurrian garatzen edo sendotzen ari diren bitartean;
- c) Jendeak informazio hori eskura dezan bitartekoak ezartzea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan, eta erakundeek laguntza tekniko espezializatua eta beste mota batzuetakoa emateko eta ikerketarako nazioarteko jarduerak sustatzeko elkarlana egin beharko lukete, bereziki teknologiaren transferentzia eta trebakuntza espezializatua hobetzeko eta ikerketen emaitzetara eta izandako esperientziara sarbidea ziurtatzeko. Beharrezkoa da koordinazioa sendotzea eta basoko auziez arduratzen diren nazioarteko erakundeen jarduera hobetzea, interesa duten herrialdeei lankidetzeta eta laguntza teknikoa emateko, basoen antolakuntzari, kontserbazioari eta garapen jasangarriari begira.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 2.500 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 860 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidadunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berriazko programen araberrakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Adierazitako planifikazio-, ikerketa- eta trebakuntza-jarduerak bitarteko zientifiko eta teknologikoak osatuko dituzte, programa eta bere produktuak gauzatzeko. Programak sortutako sistemak, metodologiak eta ezagutza teknikoak eraginkortasuna hobetzen

lagunduko dute. Hartu beharreko neurri zehatzen artean hauek egon beharko lukete:

- a) Esparru sozialean lorpenak, oztopoak eta arazoak aztertzea, programak formulatu eta gauzatu daitezten laguntzeko;
- b) Ikerketaren arazoak eta beharrak eta proiektu zehatzen ikerketen planifikazioa eta gauzatzea aztertzea;
- c) Giza baliabideen, ezagutza espezializatuak eskuratzearen eta trebakuntzaren inguruko beharrak ebaluatzea;
- d) Basogintzako programak eta planak gauzatzeko unean metodologia eta ikuspegi egokiak formulatzea, probatzea eta aplikatzea.

c) Giza baliabideen garapena:

Basogintzaren inguruan hezkuntzako eta lanbide-heziketako osagai zehatzek giza baliabideen garapenean lagunduko dute modu eraginkorrean. Osagai horien artean hauek daude:

- a) Maila guztietako unibertsitaterako ikasketa-programei eta espezializazio- eta ikerketa-programei ekitea;
- b) Zerbitzuaren aurretik eta zerbitzuan zehar trebakuntza-programak sendotzea maila teknikoan eta lanbide-heziketa mailan; era berean, irakasleak hezi daitezten eta ikasketa-programak eta material eta metodo didaktikoak era daitezten bultzatzea;
- c) Basogintzako nazioko erakundeetako langileei trebakuntza berezia eskaintzea, besteak beste, proiektuen formulazioari, beren bideragarritasuna zehazteari eta aldian-aldian egin beharreko ebaluazioari buruz.

d) Gaitasuna areagotzea:

Programa-arlo hau basogintzako sektorearen gaitasunaren garapenari buruzkoa da eta programetako jarduera guztiek helburu hori lortzen laguntzen dute. Gaitasun hori sortzean eta hobetzean, aurretik dauden sistemak eta esperientziak ahalik eta gehien erabili beharko lirateke.

B. Baso guztiak babestea, antolakuntza jasangarria eta kontserbazioa areagotzea eta andeatutako lurretan landare-estalkia gehitzea, birgaitzearen, baso-sartzearen, baso-berritzearen eta beste teknika batzuen berritzearen bidez

Ekintzarako oinarriak:

Munduko baso guztiak kontrolaezina den degradazioak eta lurraren beste erabilera batzuen aldaketak mehatxatuta egon izan dira eta daude ondorengo arrazoiengatik: gizakiaren beharrak areagotu egin direlako; nekazaritza hedatu egin delako; ingurugiroarentzat kaltegarria den eta, esaterako, basoetako suteei eta legez kanpoko ustiaketari aurre egiteko neurri egokien gabezia barne duen antolakuntza desegokia delako; basoen ustiapen komertziala sostengaezina delako; artzaintzaren eraginez eta arauz kanpo animaliek zuhaitzetako adarrak jan egiten dituztelako; aireak garraiatzen dituen kutsatzaileen efektua kaltegarria delako; ekonomiako beste sektore batzuek hartzen dituzten erabakien eraginez eta pizgarri ekonomikoen eraginez. Basoa galtzearen eta degradatzearen eraginak ondorengoak dira: lurraren higadura, aniztasun biologikoaren galera, basoko faunaren eta floraren habitatei kalteak eta arroen degradazioa, bizi-kalitatea okertzea eta garapeneran aukerak gutxitzea.

Gaur egungo egoerak neurriak berehala hartzera behartzen du eta neurri horiek koherenteak izatea, basoko baliabideak kontserbatu eta areagotzeko behararengatik. Gainazal berdeak gune egokietan sortzea eta horretarako beharrezko jarduera guztiak modu eraginkorrak dira jendearen kontzientzia eta basoko baliabideak babesteko eta antolatzeke lanean parte-hartzea areagotzeko. Hori dela eta, lurren erabileraren eta edukitzearen inguruko azterketak eta tokian tokiko beharrak sartu beharko lirateke, eta gune berdeak sortzeko ekintza-mota desberdinen helburu zehatzak zerrendatu eta argitu beharko lirateke.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Herrialde garatuetako eta garatze bidean dauden herrietako gune egokietan, basoak kontserbazio- eta antolakuntza-jarduerekin zaintzea eta lur basotsuak eta zuhaitzietako lurak zabaltzea edo mantentzea, honakoaren bidez: baso naturalen kontserbazioa; basoen babes, birgaitze eta birsorkuntza; baso-sartzea; baso-berritzea eta zuhaitzak landatzea. Honen guztiaren helburua oreka ekologikoa leheneratzea eta gizateriaren ongizateari basoen ekarpena eta beren beharren asebetetzea gehitzea izango litzateke;

- b) Basoko sektorerako ekintza-plan edo -programa nazionalak prestatzea eta, behar izanez gero, gauzatzea, basoen antolakuntza, kontserbazio eta garapen jasangarria helburu hartuta. Programa edo plan horiek lurraren beste erabilera mota batzuekin osatu beharko lirateke. Testuinguru honetan, beren ekimenez eta nazioarteko komunitatearen laguntzarekin, 80 herrialde baino gehiagotan ekintza-plan edo -programa nazionalak gauzatzen ari dira basogintzaren inguruan, Tropikoetako Basogintzako Ekintza Planaren barruan;
- c) Garapen jasangarriaz eta, behar izanez gero, dauden eta etorkizunean egongo diren basoko baliabideen kontserbazioaz arduratzea;
- d) Basoko baliabideen ekarpen ekologikoari, biologikoari, klimatikoari, soziokulturalari eta ekonomikoari eustea eta ekarpen horiek gehitzea;
- e) Printzipioen baimendutako adierazpena, nahitaezko indar juridikorik gabea, modu egokian aplikatu dadin erraztea eta laguntzea Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrak onartutako baso mota guztien antolakuntzaren, kontserbazioaren eta garapen jasangarriaren inguruko munduko adostasuna lortzeko, eta printzipio horien aplikazioaren oinarriaren inguruan, nazioartean hitzartutako konponbide mota guztien beharra eta bideragarritasuna kontuan hartzea mota guztietako basoen antolakuntzaren, kontserbazioaren eta garapen jasangarriaren inguruan nazioartean lankidetzaren, lankidetzaren, beste batzuen artean, baso-sartzearen, baso-berritzearen eta birgaitze-jardueren bidez.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek baso mota bakoitza sailkatzearen garrantzia onartu beharko lukete, basoko baliabideen kontserbazio eta antolakuntzako epe luzeko politikaren barruan, eta lurralde edo arro bakoitzean unitate jasangarriak zehaztu beharko lituzkete, baliabide horien kontserbazioaz arduratzeko. Gobernuek, sektore pribatuaren parte-hartzearekin; gobernuz kanpoko erakundeek; tokian tokiko talde komunitarioek; herri indigenek; emakumeek; tokian tokiko dependentzia publikoek eta, oro har, publikoak landare-estaldura kontserbatzeko eta hedatzeko neurriak hartu beharko lituzkete ekologikoki, sozialki eta ekonomikoki bideragarria den lekuetan, lankidetzaren teknikoaren eta babesteko

beste modu batzuen bidez. Gauzatu beharko liratekeen jarduera nagusiak hauek dira:

- a) Basoko ekosistema guztien eta zuhaiztiak dituzten lurren antolakuntza jasangarriaz arduratzea, basoko jardueren planifikazioaren, antolakuntzaren eta gauzatze egokiaren hobekuntzaren bidez. Atal honetan, inbentarioa prestatzea, beharrezko ikerketak egitea eta andeatutako baso naturalak birgaitzea ere sartuko lirateke, beren produktibitatea eta ingurugiroarekiko beren ekarpena berrezartzeko. Horretarako honakoei arreta berezia jarriko zaie: zerbitzu ekonomikoen eta ekologikoen inguruan gizakiaren beharrei, egurretik eratorritako energiari, nekazaritzari eta basogintzari, zuraekin zerikusirik ez duten basoko produktuei eta zerbitzuei, arroen eta lurraren babesari, basoko faunaren eta floraren antolakuntzari eta basoko baliabide genetikoei;
- b) Testuinguru nazional bakoitzean komeni denaren arabera, gune babestuen sistemak –beren funtzio eta balio ekologiko, sozial eta espiritualarengatik kontserbatutako unitate-sistemak barne– ezartzea, hedatzea eta antolatzea. Gainera, ondorengoa egiteko neurriak hartzea: basoak sistema eta paisaia ekologiko adierazgarritan kontserbatzeko eta helduta dauden baso primarioak kontserbatzeko; basoko flora eta fauna kontserbatzeko eta antolatzeko; egokia denaren arabera, munduko ondarea eta kultura- eta natura-ondarea babesteko, Munduko Ondareko lekuak Kobentzioaren arabera izendatzeko; in situ eta ex situ jarduera egokiak barne, baliabide genetikokoak kontserbatzeko eta baliabide biologikoak arazoiz erabiltzeko eta, azkenik, herri indigenen, basoko biztanleen eta tokian tokiko komunitateen ohiko habitata eta aniztasun biologikoa kontserbatzeko ardurak izan daitezen laguntzeko;
- c) Tarteko guneen eta trantsizioen antolakuntza sortzea eta bultzatzea;
- d) Behar denean, gune menditsuetan, lur altuetan, soildutako lurretan, andeatutako nekazaritza-lurretan, lur elkor eta erdielkorretan eta kostaldeko guneetan landaretza berritzeko jarduerak egitea, basamortutzeari aurre egiteko, higadura arazoak ekiditeko eta andeatutako lurrak birgaitzeko babeserako funtzio eta programa nazionalak –basogintza komunitarioa, basogintza soziala eta basoko artzaintza barne– errazago prestatzeko, era berean, maila nazionalean

basoek karbonoaren biltegi eta hustuleku gisa duten betebeharra kontuan hartuta;

- e) Baso artifizial, industrial eta ez industrialak garatzea, ekologikoki arrazoizkoak diren basogintza-programa nazionalak eta leku egokietan basoak birpopulatzeko edo baso-birsorkuntzarako programa nazionalak laguntzeko eta bultzatzeko eta dagoeneko badauden baso artifizialen egoera hobetzeko. Horrek helburu industrialak, ez industrialak eta komertzialak izango lituzke, gizakiaren beharrak asetzeko eta baso naturalak zaintzeko laguntza gehiago eman dezaten. Tarteko laborantzak sustatzeko eta gauzatzeko eta laborantza-sailtako inbertsioen errentagarritasuna hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke, laboreak tartekatuz eta zuhaizpean etekin ekonomiko handiko landareak landatuz;
- f) Lehentasun gisa, baso artifizialentzako plan nazional edo nagusia garatzea edo dagoeneko egon badago sendotzea, beste gauza batzuen artean beren kokapena, hedadura, espezieak eta birgaitu beharreko baso artifizialetako gune konkrituak zein diren jakinaraziz, etorkizuneko garapenerako alde ekonomikoa kontuan hartuta eta tokian tokiko espezieei lehentasuna emanez;
- g) Basoak kutsaduraren, suteen, izurriteen eta gaixotasunen aurka gehiago babestea, baita gizakiaren ekintza kaltegarrien aurka ere; ekintza hauen artean, besteak beste, hauek daude: basoak legez kanpo ustiatzea, mineralak erauzteak, nekazaritza-sailtan gehiegizko errotazioa egitea eta landare eta animalia exotikoak sartzea. Horrez gain, mota guztietako basoen antolakuntzarekin eta birsortzearekin harremana duten arazoak hobeto uler daitezkeen ikerketak garatzea eta azkartzea, eta landareen eta landaretza-materialen mugen arteko garraioa ebaluatzeko eta kontrolatzeko neurri egokiak sendotzea edo hartzea;
- h) Hiriko basogintzaren garapena sustatzea hiriguneak, hiri-inguruak eta nekazaritzako giza kokaguneak berdatzeko, helburu honekin: aisialdirako eta produkziarako eta arbolak eta baratzeak babesteko;
- i) Basoekin harremana duten edozein motatako programak eta jarduerak aurkezteko, egiteko eta gauzatzeko momentuan, guztiok –gazteak, emakumeak, herri indigenak eta tokian tokiko komunitateak barne– parte

hartzeko aukerak sortzea edo hobetzea; horretarako arreta berezia jarri behar zaie tokian tokiko beharrei eta balio kulturelei;

- j) Laborantzen errotazio suntsitzailea mugatzea eta eragozten saiatzea, zergati sozialei eta ekologikoei begiratuta.

b) Datuak eta informazioa:

Kudeaketa-jardueren artean hauek egon beharko lukete: bilerak egitea, datuak eta informazioak biltzea eta aztertzea eta erreferentzia gisa erabiltzeko ikerketak egitea. Ondoren jarduera zehatz batzuk aipatzen dira:

- a) Ikerketak egitea eta lurraren erabilera zehazteko planak egitea eta gauzatzea, honela, berdatzea, landaketa, baso-sartzea, baso-berritzea eta basoko birgaitzea modu egokian egiteko;
- b) Lurraren erabilerearen eta basoen inbentarioaren eta antolakuntzaren inguruko informazioa –nekazaritza migratorioaren eta basoa hondatzen duten beste eragile batzuen datuak barne– sendotzea eta eguneratzea basokoak diren eta basokoak ez diren baliabideen antolakuntza eta erabilera planifikatzeko;
- c) Baliabide genetikoaren eta bioteknologiaren inguruko informazioa finkatzea eta behar denean inkestak eta ikerketak emaitzak gehitzea;
- d) Herri indigenek zuzaitzei eta basoei buruz duten jakinduriaren eta basoak erabiltzeko beren moduaren inguruan azterketak eta ikerketak egitea, basoko baliabideen antolakuntza jasangarrirako ekintzen planifikazioa eta gauzatzea hobetzeko;
- e) Baso artifizialean erabiltzen diren espezien "espezia-lekua" elkarrekintzaren inguruko ikerketa-datuak biltzea eta aztertzea eta aldaketa klimatikoek basoetan izan dezaketen eragina eta basoek kliman izan dezaketena ebaluatzea. Gainera, baso mota desberdinekin harremanetan karbonoaren zikloaren inguruko ikerketa sakona hastea, aholkularitza zientifikoa eta laguntza teknikoa emateko;
- f) Basoen erabilera eta antolakuntza jasangarriarekin zerikusia duten beste datu eta informazio iturriekin loturak sortzea eta datu horiek eta

informazio hori eskuratzeko aukera hobetzea;

- g) Faunarekin eta basoarekin duen harremanaren inguruko ikerketak barne hartuta, basoen antolakuntzarekin eta birgaitzearekin harremana duten arazo eta mekanismo naturalen ezagutza eta ulermena hobetzeko ikerketak garatzea eta areagotzea;
- h) Basoko eremuen egoerari eta inguruan eragiten duten inmisioei eta isurpenei buruzko informazioa sendotzea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gune egokien berdatzea lan garrantzitsua da eta mundu mailan eragin handia du. Nazioarteko eta lurraldeko komunitateak lankidetzeta teknikoa eta beste baliabide batzuk eman beharko lituzke programa-arlo honetarako. Nazioen ahalegina laguntzeko nazioarteko izaera duten jarduera espezifikoen artean hauek egon beharko lukete:

- a) Kooperazio jarduerak gehitzea, zuhaitzen eta basoen osasunari eta ekosistema adierazgarrien kontserbazioari eragiten dieten kutsatzaileak eta mugen arteko ondorioak murrizteko;
- b) Karbonoaren xurgatzearen, airearen kutsaduraren eta ingurugiroko beste arazo batzuen lurraldeko eta azpilurraldeko ikerketak koordinatzea;
- c) Informazioa eta esperientzia dokumentatzea eta trukitzea antzeko arazoak eta ikuspegiak dituzten herrien onurarako;
- d) Koordinazioa indartzea eta, besteak beste, FAO, OIMT, NBIP eta UNESCO nazioarteko erakundeen ahalmena areagotzea, basoen antolakuntzarako, kontserbaziorako eta garapen jasangarrirako eta 1992 eta 1993 artean garatu beharreko 1983ko Egur Tropikalen Nazioarteko Akordioaren bernegozioaziorako laguntza teknikoa emateko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 10.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 3.700 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta

governuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean governuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Teknologiaren eta trebakuntza-jardueren datuen analisia, planifikazioa, ikerketak, transferentzia eta garapena programaren jardura osatzen duten atalak dira eta gauzatzeko bitarteko teknologikoei eta zientifikoei osatzen dute. Nazioarteko erakundeek honako hau egin beharko lukete:

- a) Basoko jardura nagusiekin lotutako bideragarritasun-azterketak eta plan operazionalak egitea;
- b) Zerrendatutako jarduerentzako egokia den eta ekologikoki arrazoizkoa den teknologia lantzea eta aplikatzea;
- c) Material genetikoaren hobekuntzarekin eta bioteknologia aplikatzearekin harremana duten neurriak areagotzea, produktibitatea eta ingurugiro presioari tolerantzia hobetzeko. Besteak beste, honen barruan atal hauek egon beharko lukete: zuhaitz mota berriak, hazien teknologia, haziak eskuratzeko sareak, germoplasma-bankuak eta "in vitro" teknikak eta in situ eta ex situ kontserbazioa.

c) Giza baliabideen garapena:

Aipatutako jarduerak modu eraginkorrean gauzatzeko ezinbesteko baliabideen artean hauek daude: ezagutza espezializatueta trebatzea eta ezagutza horiek eskuratzeko instalazioak eraikitzea, lanerako baldintza egokiak sortzea eta jendea motibatzea eta kontzientziatzea. Jardura espezifikoaren artean hauek daude:

- a) Planifikazioan, antolakuntzan, ingurugiroaren kontserbazioan, bioteknologian eta beste hainbat alorretan trebakuntza espezializatua ematea;
- b) Eredu gisa eta trebakuntza-zentro gisa balioko duten erakustaldiak egiteko guneak ezartzea;
- c) Tokian tokiko erakundeei, komunitateei, gobernuz kanpoko erakundeei, jabe pribatuei,

emakumeei, gazteei, nekazariei, herri indigenei eta nekazaritza-migratorioan jarduten duten nekazariei laguntzea hedatze-jardueren, sargaien horniketaren eta trebakuntzaren bidez.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, sektore pribatuak, tokian tokiko erakundeek eta komunitateek, herri indigenek, sindikatuek eta gobernuz kanpoko erakundeek programaren jarduerak gauzatzeko ahalmena areagotu egin beharko lukete, nazioarteko erakunde eskudunen laguntzarekin. Ahalmen hori programaren jarduerekin batera garatu eta sendotu beharko litzateke. Ahalmena gehitzeko behar diren ezinbesteko jardueren artean hauek daude: testuinguru arau-emaileak eta juridikoak sortzea, erakunde nazionalak sortzea, giza baliabideak garatzea, ikerketa eta teknologia sustatzea, azpiegiturak garatzea, jendearen kontzientzia areagotzea eta abar.

C. Ustiapenerako eta ebaluaziorako metodo eragingarriak bultzatzea, basoetako, basoko lurretako eta zuhaitziak dituzten lurretako ondasun eta zerbitzuen balio osoa berreskuratzeko

Ekintzarako oinarriak:

Basoak eta basoko lurrak dituzten aukera izugarriak oraindik ez dira guztiz ustiatu garapenerako garrantzi handiko baliabide gisa. Basoen antolakuntza hobekien areagotu egingo luke ondarearen eta zerbitzuen produkzioa eta, bereziki, basoko egur-produktu direnen eta ez direnen errendimendua; honek, gainera, lana eta diru-sarrerak sortzen, transformazioaren eta merkataritzaren bidez basoko produktuen balioa gehitzen eta dibisen sarreraren kontribuzioa eta inbertsioen errendimendua igotzen lagunduko luke. Basoko baliabideak berriztagarriak direnez, ingurugiroaren kontserbazioarekin modu jasangarrian eta bateragarrian administra daitezke. Baso-politikak egiterakoan basoko baliabideen ustiapenaren efektua guztiz kontuan eduki beharko litzateke, basotik atera daitezkeen gainerako produktuekin batera. Halaber, basoen balioa kaltegarriak ez diren erabilerekin bidez gehitu daiteke, hala nola, turismo ekologikoaren eta material genetikoaren horniketa antolatuaren bidez. Hitzartutako ekintza bat beharrezkoa da jendea basoen balioaz eta bere ekarpenen onuraz ohartzeko. Basoen biziraupena eta gizakiaren ongizateari egiten dioten etengabeko ekarpena neurri handi batean jardura honen arrakastaren araberakoa da.

Jarduerak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Zuhaitzen, basoen eta basoko lurren balio sozialen, ekonomikoen eta ekologikoen onarpena handitzea, baita basorik ezak eragindako kalteen ondorioen onarpena ere; zuhaitzen, basoen eta basoko lurren balio sozial, ekonomiko eta ekologikoa nazioko kontabilitate ekonomikoaren sisteman barne hartuko dituen metodologiak erabil daitezkeen bultzatzea; lurraren ustiapenarekin, ingurugiroaren babesarekin eta garapenaren beharrek bateragarri izango den garapen sostengarriaz arduratzea.
- b) Baso eta landaretza mota guztien eta lurren eta basoen beste baliabide batzuen erabilera eragingarri, arrazoizko eta jasangarria bultzatzea. Hau basoko produktuak lantzeko industria eraginkorren garapenaren, balio erantsia duten bigarren mailako transformazioen eta basoko produktuen merkataritzaren bidez egingo litzateke, basoko baliabideen antolakuntza jasangarriaren oinarriaren gainera, eta basoko egur-produktu direnen eta ez direnen balio osoa barne hartzen duten planekin bat;

- c) Egurretarako eta energia-horniketarako basoen eta zuhaitzen erabilera eraginkorragoa eta jasangarriagoa sustatzea;
- d) Basoko guneen erabilera eta ekarpen ekonomiko zabalagoa sustatzea, basoen antolakuntzan eta planifikazioan turismo ekologikoa sartuz.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, behar izanez gero, sektore pribatuaren, zientzia-erakundeen, herri indigenen, gobernuz kanpoko erakundeen, kooperatiben eta enpresarioen laguntzarekin, ondoren aipatzen diren jarduerak egin beharko lituzkete maila nazionalean behar bezala koordinatuta, nazioarteko erakundeen finantza-lankidetzarekin eta lankidetz teknikoarekin:

- a) Inbertsioa, eskaintza eta eskaera bateratzearen eta ingurugiro-inpaktuaren analisiaren azterketa zehatzak egitea, zuhaitzen eta basoen erabilera arrazionalizatzeko eta hobetzeko eta pizgarrien plan egokiak eta arauzko neurriak –lurraren joeraren inguruko neurriak barne direla– ezartzeko, inbertsioak erakartzeko eta baliabide hauen kudeaketa hobea sustatzeko;
- b) Ikuspegi zientifikotik arrazoizko irizpideak eta arauak adieraztea mota guztietako basoen antolakuntza, kontserbazio eta garapen jasangarrirako;
- c) Ekologikoki arrazoizkoak eta ekonomikoki bideragarriak diren basoen ustiapenerako metodoak eta praktikak –planifikazioa eta antolamendua barne– hobetzea; ekipoen erabilera, biltegien instalazioak eta garraio bideak hobetzea, hondakinak gutxitzeko eta, ahal bada, ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Horrez gain, basoko egur-produktu direnen eta ez direnen balioa hobetzea;
- d) Baso naturalen, zuhaitzak dituzten lurren eta baso artifizialen erabilera eta ustiapen hobea sustatzea, ahal den neurrian, jarduera egokien –ekologikoki arrazoizkoak eta ekonomikoki bideragarriak diren jardueren– bidez; jarduera horien artean basogintza eta beste landaretza eta animalia espezie batzuen antolakuntza egongo lirateke;
- e) Basoko produktuen bigarren mailako transformazioa sustatzea eta laguntzea, mantendutako balioa eta beste etekin batzuk gehitzeko;
- f) Egurraz aparte, egur-produktu ez diren basoko produktuak eta basoko beste baliabide batzuk sustatzea eta ezagutaraztea (esate baterako, sendabelarrak, tinduak, zuntzak,

- gomak, erretxinak, pentsuak, balio kulturala duten produktuak, ontzi-bideak, banbua), parte hartzeko programa eta jarduera sozioforestalen bidez; jarduera horien artean transformazioaren eta bere erabileren ikerketak egongo lirateke;
- g) Baso-lanketaren industriaren –egurrarekin aritzen direnen eta ez direnen– eragingarritasuna garatzea, hedatzea eta hobetzea, besteak beste, bihurtze-teknologia eraginkorra eta uztaren eta lanketaren hondakinen erabilera jasangarri hobea kontuan hartuta; ikerketaren, erakusketaren eta merkaturatzearen bidez gutxien ezagutzen diren baso naturaletako espezieak sustatzea; balio erantsia duen bigarren mailako lanketa sustatzea lana, diru-sarrerak eta mantendutako balioa hobetzeko eta basoko produktuen merkatuak eta beren salerosketa sustatzea eta hobetzea, dagokien erakundeen, politiken eta zerbitzuen bidez;
- h) Basoko faunaren eta floraren antolakuntza –turismo ekologikoa eta nekazaritza barne– sustatzea eta laguntzea eta zooteknia eta basoko espezieen hazkuntza bultzatzea eta laguntzea, nekazaritzako diru-sarrerak eta lana areagotzeko eta ingurugiroari kalterik egin gabe etekin ekonomiko eta sozialak eskuratzeko;
- i) Baso-enpresa txikiak eta egokiak sustatzea nekazaritzaren garapena eta tokian tokiko enpresa-ahalmena laguntzeko;
- j) Basoen balio osoa islatzen duten ebaluazio zabalak egiteko metodoak hobetzea eta sustatzea, balio hori egur-produktuak direnen eta ez direnen merkatuen azpiegituran sartzeko helburuarekin;
- k) Basoko baliabideen ekologikoki arrazionala den ustiaketaekin bat datozen nazioko garapen- eta merkataritza-politikak eta basoen garapen jasangarria bateratzea, esate baterako, baso tropikalen antolakuntza jasangarrirako ETNEren arauak erabiliz;
- l) Nazioko programak egitea eta onartzea, basoen balio ekonomikoa eta ekonomikoa ez dena zenbatzeko, edo dauden programak sendotzea.

b) Datuak eta informazioa:

Antolakuntzaren helburuek eta jarduerak aurretik datuen eta informazioen analisia, bideragarritasun azterketa, merkatu azterketa eta informazio teknologikoaren analisia eginak izateko eskatzen dute. Egin beharreko jardueren artean hauek daude:

- a) Basoko produktuen eta zerbitzuen eskaintza eta eskaera aztertzea, behar denean bere erabilera eraginkorraz arduratzeko;

- b) Bideragarritasun inbertsioak eta azterketak –ingurugiro-inpaktuaren ebaluaketak barne– egitea, basoko produktuak lantzeko enpresak eratzeko;
- c) Gutxien ezagutzen diren espezieen ezaugarriak aztertzea, beren sustapenerako eta merkaturatzerako;
- d) Basoko produktuen merkatuak aztertzea, salerosketa sustatzeko eta merkataritza-informazioa jasotzeko;
- e) Informazio teknologiko egokia eskuratzeko bideak erraztea, basoko baliabideek erabilera hobea sustatzeko.

c) Lankidetzak eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Trukerako harremanen teknologiaren, espezializazioaren eta promozioaren transferentzien inguruko nazioarteko erakundearen eta nazioarteko komunitatearen lankidetzak eta laguntzak, alde bakarreko murrizketetara jo gabe eta GATTeko akordioaren edo alde anitzeko beste akordio komertzialen aurkako basoko produktuen debekura jo gabe eta merkatuko mekanismo eta pizgarri egokiek batera, mundu mailako ingurugiro-arazoei heltzen lagunduko dute. Beste jarduera espezifikoa nazioarteko erakundearen koordinazioa eta jarduera sendotzea izango da, bereziki FAO, ONUDI, UNESCO, NBIP, NMG/UNTAD/GATT, ETNE eta LANE erakundeena, programa-arlo honetan laguntza teknikoa eta orientazioa emateko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 18.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 880 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberrakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Programaren jarduerak aurrera eramán ahal izateko ikerketa eta azterketa ugari egin behar dira eta teknologia ere hobetu egin behar da. Hori guztia gobernuek koordinatu beharko lukete, nazioarteko erakunde eta instituzio eskudunekin lankidetzan eta beren babesarekin. Jarduera zehatzen artean hauek daude:

- a) Egur-produktu direnen eta ez direnen ezaugarrien eta beren erabileren inguruko ikerketak egitea, beren ustiapena hobetzeko;
- b) Ekologikoki arrazionalak diren eta gutxiago kutsatzen duten teknologiak garatzea eta aplikatzea, basoan erabili ahal izateko;
- c) Garapenaren ikuspegiaren eta planifikazioaren analisirako ereduak eta teknikak lantzea;
- d) Egur-produktuak ez diren basoko produktuen garapenaren ikerketa zientifikoak eta erabilera sustatzea;
- e) Basoen balio osoa zehazteko metodologia egokiak lantzea.

c) Giza baliabideen garapena:

Programa-arlo honen arrakasta eta eraginkortasuna langile espezializatuen disponibilitatearen araberakoak izango dira. Honen inguruan, heziketa espezializatua faktore garrantzitsua da. Puntu honetan, berriro ere emakumearen integrazioa nabarmendu beharko litzateke. Programa garatzeko giza baliabideen garapenean –bai alde kuantitatiboa, bai kualitatiboa kontuan hartuta–, honako jarduera hauek hartu beharko lirateke kontuan:

- a) Programak gauzatzeko beharrezkoak diren espezialitateak garatzea, maila guztietan trebakuntza-zentro bereziak sortzea barne;
- b) Berrikusketa-ikastaroak antolatzea, beka-programak eta ikasketa-birak barne, espezialitate eta ezagutza teknikoak eguneratzeko eta produktibitatea hobetzeko; edo, bestela, aurretik dauden ikastaroak sendotzea;
- c) Ikerketarako, planifikaziorako, analisi ekonomikorako, ikuskapenerako eta ebaluaziorako ahalmena sendotzea, basoko baliabideak hobeto erabil daitezen laguntzeko;
- d) Sektore pribatuaren eta kooperatiboaren eraginkortasuna eta ahalmena sustatzea, zerbitzuak eta pizgarriak emanez.

d) Gaitasuna areagotzea:

Ahalmena areagotzea, dagoeneko badagoen ahalmena areagotzea barne hartzen duena, jarduera-programen elementu inplizitua da. Administrazioaren hobekuntza, politika eta planak, erakunde nazionalak, giza baliabideak, ahalmen zientifikoa eta ikerketarako ahalmena, teknologiaren garapena eta ikuskapena eta ebaluazioa jarduera honen elementu garrantzitsuak dira.

D. Gaitasuna ezartzea edo sendotzea, basoekin lotutako programen, ikuspegien eta jardueren (merkataritza eta merkataritza-eragiketak barne hartuta) eta basoen planifikazio, ebaluazio eta behaketa sistematikoa egiteko

Ekintzarako oinarriak:

Ebaluazio eta behaketa sistematikoak epe luzerako planifikaziorako funtsezko osagaiak dira, bai eragin kualitatiboak, bai eragin kuantitatiboak zehazteko eta hutsuneak konpontzeko. Hala ere, mekanismo hau basoko baliabideen antolakuntzan, kontserbazioan eta ustiapenean ahazten den aldeetako bat izaten da. Kasu askotan, azalerari eta baso-motei, ustiapenaren bolumenari eta beste hainbat atali buruzko oinarrizko informazioa faltan izaten da. Garapen bidean dauden herrialde askotan funtzio hauek aurrera eraman ahal izateko azpiegiturarik eta mekanismorik ez dute. Egoera hau zuzentzeko beharra premiazkoa da, basoen zeregina eta garrantzia hobeto ulertzeko eta bere kontserbazioa, antolakuntza, birsorkuntza eta ustiapen jasangarria modu errealistan eta eraginkorrean planifikatzeko.

Jarduerak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Basoen eta basoko lurren ebaluazio eta behaketa sistematikorako sistema berriak sendotzea edo jartzea, basoko baliabideen, baso-sartzeko prest dauden lurren eta lurren jabetzaren erregimenaren kalitatean eta hedaduran programek, proiektuek eta jarduerak izango duten eragina ebaluatzeko. Horrez gain, sistemak etengabeko ikerketa eta analisisien prozesuan buru-belarri sartzea; prozesu horrek, era berean, erabakiak hartzeko eta planifikatzeko unean beharrezkoak diren aldaketak eta hobekuntzak sartzeko aukera eman beharko luke. Prozesu hauetan nekazaritza herrien parte-hartzea bultzatu beharko litzateke;
- b) Ekonomistei, planifikatzaileei, erabakiak hartu behar dituztenei eta tokian tokiko komunitateei basoko baliabideei eta lurri buruzko informazio zuzena eta eguneratua ematea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek eta instituzioek, nazioarteko organismo eta erakunde eskudunekin lankidetzan, eta unibertsitateek eta gobernuz kanpoko erakundeek basoen eta basoekin lotutako programen eta prozesuen ebaluazio eta behaketa sistematikoak egin beharko lituzkete, etengabe

hobetzeko.

Hauek guztiek ikerketarekin eta antolakuntzarekin lotutako jardueri uztartuta egon beharko lukete eta, ahal den guztietan, dagoeneko badauden sistema nagusietan oinarritu beharko lukete. Ondoren jarduera batzuk aipatzen dira:

- a) Alde kuantitatiboak eta kualitatiboak eta basoko gainazalaren eta baliabideen aldaketak sistematikoki ebaluatzea eta behatzea, lurren sailkapena eta erabilera eta nazio mailan bere egoeraren eguneratzea barne. Jarduera hori, behar izanez gero, politiken eta programen formulaziorako oinarri gisa planifikazioarekin elkartzea;
- b) Programa eta prozesuen ebaluazio eta behaketa sistematikorako sistema nazionalak ezartzea. Programa eta prozesu hauek definizioen, irizpideen, arauen eta interkalibrado metodoen adierazpenak eta ahalmenaren sustapena izango lituzkete barnean, neurri zuzengarriak hartzeko eta, gainera, programen eta proiektuen formulazioa eta gauzatzea hobetzeko;
- c) Basoen bilakaerarako jardueren eraginak kalkulatzeko eta funtsezko aldagaiak kontuan hartuta kontserbazio proposamenak egitea, behar izanez gero, finantza- eta teknologia- alorretan nazioaren beharren bilakaera ebaluatzeko. Besteak beste, funtsezko aldagaiak hauek dira: bilakaeraren helburuak, gastuak eta etekinak, basoek beste sektoreei egiten dieten ekarpena, komunitatearen ongizatea, ingurugiro-baldintzak eta dibertsitate biologikoa eta beren eraginak herri, lurralde eta mundu mailan;
- d) Basoko baliabideen ebaluaketa eta behaketa sistematikoak egiteko sistema nazionalak lantzea. Sistema hauek beharrezkoak diren datuen ikerketa eta analisisa hartu beharko lituzkete beren barruan eta, ahal den neurrian, egurrarekin harremanetan dauden edo ez dauden basoko mota guztietako produktu eta zerbitzuen isla izan beharko lukete. Gainera, emaitzak planetan eta estrategietan sartu beharko liriateke eta, ahal den neurrian, nazioko kontabilitatean eta planifikazioan;
- e) Sektoreen eta programen artean beharrezkoak diren loturak sortzea eta informazioa eskuratzeko aukerak hobetzea, planifikazioaren eta programazioaren ikuspegi holistikoa bultzatzeko.

b) Datuak eta informazioa:

Programa-arlo honetarako ezinbestekoa da datu eta informazio fidagarriak izatea. Gobernuak, behar izanez gero nazioarteko erakunde eskudunekin lankidetzan, datuak eta informazioa

etengabe aldatzeko konpromisoa hartu beharko lukete eta elkartrukatzeaz arduratu beharko lukete. Berriazko jardueren artean hauek daude:

- a) Aurretik dagoen informazioa biltzea, finkatzea eta trukatzea eta programa honekin harremana duten erreferentziazko oinarritzko informazioa lortzea;
- b) Datuen eta informazioaren jarduerak barne hartzen dituzten programentzako metodologiak bateratzea, zehaztasunez eta koherentziaz arduratzeko;
- c) Esate baterako baso-sartzeko baliagarriak diren lur egokien inguruan azterketa bereziak egitea;
- d) Ikerketarako laguntzak sustatzea eta ikerketen emaitzak eskuragarri izateko bideak erraztea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Nazioarteko komunitateak programa-arlo honetan beharrezkoa den laguntza teknikoa eta finantza-laguntza eman beharko lieke gobernuei. Horretarako ondorengoa hartu beharko litzateke kontuan:

- a) Kontzeptuzko esparru bat eta irizpide, arau eta definizio onargarriak ezartzea, basoko baliabideen ebaluazio eta behaketa sistematikorako;
- b) Mekanismo instituzional nazionalak ezartzea basoen ebaluazio eta behaketa sistematikoa koordinatzeko, edo dauden mekanismoak sendotzea;
- c) Informazioa trukatzeko dauden lurraldeko eta munduko sareak sendotzea;
- d) Nazioarteko erakundeen ahalmena sendotzea programa-arlo honetan laguntza teknikoa eta orientazioa eman ditzaten eta esparru honetan erakunde horien jardura hobetu dadin. Besteak beste, erakunde hauen ahalmena sendotu beharko litzateke: Nazioarteko Nekazaritza Ikerketen inguruko Aholkularitza Taldea (CGIAR), FAO, ETME, NBIP, UNESCO eta ONUDI.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 750 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 230 milioi inguru barne.

Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

Garapena azkartzeko gorago aipatutako kudeaketa-jarduera eta datuen eta informazioaren bilketa gauzatu egin behar dira. Munduko ingurugiroarekin harremana duten jarduerak mundu mailako ingurugiro-arazoak ebaluatzeko eta ebatzeko informazio nagusia hobetuko dutenak dira. Nazioarteko erakundeen ahalmena sendotzeko langile-talde teknikoa eta nazioarteko hainbat erakunderen gauzatzeko-ahalmena hobetu egin behar dira herrialdeen beharrak asetzeko.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Ebaluazio eta behaketa sistematikoaren jarduerak ikerketaren, eredu estatistikoaren formulazioaren eta berrikuntza teknologikoaren alorretan ahalegin berezia eskatzen dute. Hori guztia antolakuntzarekin harremana duten jarduerekin elkartu da. Jarduera horiek, beren aldetik, aldizkako ebaluazioen eta behaketen edukiera teknologikoa eta zientifikoa hobetuko dute. Jarduera horien osagai zientifiko eta teknologiko zehatzen artean ondorengoak daude:

- a) Ebaluazio eta behaketa sistematikoaren jarduerarekin harremana duten metodo eta eredu tekniko, ekologiko eta ekonomikoak lantzea;
- b) Datu-sistemak eta datuen prozesatze-sistemak ezartzea eta estatistika-ereduak formulatzea;
- c) Lekuan bertan azterketak egitea eta telebehaketa-azterketak egitea;
- d) Geografia-informaziorako sistemak ezartzea;
- e) Teknologia ebaluatzea eta hobetzea.

Hori guztia gainerako programa-arloetako antzeko osagaiekin eta jarduerekin lotu eta elkartu behar da.

c) Giza baliabideen garapena:

Programaren jarduerak ondorengo atal hauetan giza baliabideak garatzeko beharrak eta bitartekoak aurreikusten dituzte: espezializazioa (esate baterako, telebehaketa-tekniken erabilera, kartografia eta estatistika-ereduak), trebakuntza, teknologien transferentzia, beken

kontzesioa eta lekuan bertan egindako erakustaldia.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, nazioarteko erakunde eta instituzio eskudunekin lankidetzan, programa hau gauzatzeko behar adina ahalmen garatu beharko lukete. Hori programako beste multzo batzuetako ahalmena gehitzearekin lortu beharko litzateke. Ahalmena gehitzeak, besteak beste, honako alde hauek hartu beharko lituzke bere baitan: politiken formulazioa; administrazio publikoa; instituzio nazionalen hobekuntza; giza baliabideen, trebakuntza tekniko espezializatuaren eta ikerketa-ahalmenaren garapena; teknologiaren garapena; informazio-sistemen ezarpena; programen ebaluazioa; sektorearteko koordinazioa eta nazioarteko lankidetzak.

e) Nazioarte eta lurralde mailako kooperazioaren finantzazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 750 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 230 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberrakoak izango dira.

12. ATALA: Ekosistema hauskorren antolaketa: desertifikazioaren eta lehortearen aurkako borroka

Sarrera

Ekosistema hauskorrek sistema garrantzitsuak dira eta ezaugarri eta baliabide bereziak dituzte. Sistema horiek basamortua, lur erdielkorak, mendiak, padurak, uharte txikiak eta kostaldeko gune batzuk dira. Ekosistema hauek gehienetan lurralde mailakoak dira, muga nazionalak gainditu egiten baitituzte. Atal hau desertuko lurretako, lur elkor eta erdielkorretako eta gune sub-heze lehorretako baliabideei buruzkoa da. Mendien garapen jasangarriari buruzkoa 13. atala da; uharte txikiak eta kostaldeko guneak 17. atalean aztertu dira.

Desertifikazioa gune elkorretako, erdielkorretako eta sub-heze lehorretako zoruen degradazioa da eta hainbat faktoreren ondorioz gertatzen da, besteak beste, aldaketa klimatikoaren eta gizakiaren jardueren ondorioz. Desertifikazioak, gutxi gorabehera, munduko populazioaren seirenari eragiten dio eta lur lehorren % 70 hartzen du, 3.600 milioi hektarea inguru eta munduko azalera osoaren laurdena. Pobrezia orokortuz gain, desertifikazioaren eragin bistakoenak hauek dira: 3.300 milioi hektarea larreren degradazioa, mantenurako ahalmen gutxi duten lur hauen azalera osoaren % 73; lurren emankortasunaren galera eta lehorreko laboreen lur marginaletan osatzen dituzten lur lehorren egituraren % 47ren degradazioa; eta biztanle aldetik dentsitate handiko eta nekazaritza-ahalmen handiko lur lehorretan labore ureztatuen lurren % 30en degradazioa.

Desertifikazioaren aurkako borrokan lehentasuna eman behar litzaioke oraindik degradazioak kaltetu gabeko edo maila txikian kaltetutako lurretan neurri prebentiboak aplikatzeari. Hala ere, ezin dira oso degradatuta dauden lurrak ahaztu. Ezinbestekoa da desertifikazioaren eta lehortearen aurkako borrokan, tokian tokiko komunitateek, nekazaritza-erakundeek, gobernuek, gobernuz kanpoko erakundeek eta nazioarteko eta lurraldeko erakundeek parte hartzea.

Atal honetako programa-arloak ondorengoak dira:

- a) Ezagutzen oinarriak sendotzea. Desertifikazioa eta lehorteak jasateko joera duten lurraldeei eta sistema horien alde ekonomikoari eta sozialei buruzko informaziorako eta behaketa sistematikorako sistemak sortzea;
- b) Lurren degradazioaren aurkako borroka, beste gauza batzuen artean lurren kontserbaziorako jarduerak areagotzearen, baso-sartzearen eta baso-berritzearen bidez;

- c) Pobreziari aurre egiteko eta desertifikaziorako joera duten guneen iraupen-sistemen sustapenerako programa integratuak egitea eta sendotzea;
- d) Desertifikazioaren aurkako programa zabalak sustatzea eta programa horiek garapenerako plan nazionaletan eta planifikazio ekologiko nazionaletan integratzea;
- e) Lehorreak izateko joera duten guneetan, lehorteari aurre egiteko eta lehorrea izanez gero laguntzeko plan zabalak eta autolaguntzaren konponketak prestatzea. Errefuxiatu ekologikoen arazoari aurre egiteko programak formulatzea;
- f) Herriaren parte-hartzea eta ingurugiroari buruzko hezkuntza sustatzea, desertifikazioaren aurkako borroka eta lehortearen eraginei aurre egiteko jarduerak nabarmenduz.

Programa-arloak

A. Ezagutzen oinarriak sendotzea. Desertifikazioa eta lehorreak jasateko joera duten lurraldeei eta sistema horien alde ekonomikoei eta sozialei buruzko informaziorako eta behaketa sistematikorako sistemak sortzea

Ekintzarako oinarriak:

Nazio Batuen Erakundeko Ingurugiro Programak (NBIP) desertifikazioa areagotzearen munduko egoerari eta erritmoari buruzko azterketak egin zituen 1977an, 1984an eta 1991n, eta azterketa horiek frogatu dute desertifikazioaren prozesuaren inguruan oinarrizko ezagutzak falta direla. Munduko behaketa sistematiko egokirako sistemek desertifikazioaren aurkako programa eragingarriak formulatzea eta programa horiek gauzatzea errazten dute. Informazio egokia sortzeko eta banatzeko nazioarteko, lurraldeko eta nazioko erakundeen ahalmena ez da nahikoa, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan. Desertifikazioaren eta lehortearen prozesuen dinamika ulertu ahal izateko ezinbestekoa da informaziorako eta behaketa sistematikorako sistema integratua eta koordinatua izatea; sistema hauek teknologia egokian egon beharko lukete oinarrituta eta mundu, lurralde, nazio eta herri mailakoak izan beharko lukete. Hori desertifikazioari eta lehorteari aurre egiteko neurri egokiak hartzeko eta baldintza sozioekonomikoak hobetzeko garrantzitsua da.

Jarduerak:

Programa-arlo honetako helburuak ondorengoak dira:

- a) Ingurugiroari buruzko informazioa koordinatzeko zentro nazionalak sortu edo sendotu daitezten sustatzea; zentro horiek gobernu bakoitzeko ministerioak koordinatzeko gune

izan beharko lukete eta normalizaziorako eta babeserako behar diren zerbitzuak eskaini beharko lituzkete. Gainera, desertifikazioari eta lehorteari buruz informatzeko sistema nazional guztiek azpilurralde, lurralde eta lurraldearte mailan lotura izan dezaten arduratu beharko lukete;

- b) Behaketa sistematikorako lurraldeko eta munduko sareak sendotzea eta klimaren gorabeherek eta gizakiaren jarduerak eragindako lurren degradazioa eta desertifikazioa behatzeko sistema nazionalak ezartzea, horrez gain, neurriak hartzeko lehentasuna duten alorrak zehaztea;
- c) Nazio eta nazioarte mailan desertifikazioa eta lurren degradazioa behatzeko sistema iraunkorrak ezartzea kaltetutako guneeetan bizi-baldintzak hobetzeko.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Nazio mailan ingurugiroari buruzko informazio-sistemak sortzea edo sendotzea;
- b) Nazio, lurralde edo probintzia eta herri mailan ebaluazioak sendotzea eta dagoeneko martxan dauden ingurugiroari buruzko informazio- eta behaketa-sistemen artean lankidetzan izan dadin eta sareak sor daitezen arduratzea. Martxan dauden sistema horietako batzuk hauek dira: Ingurugiroaren Zaintzarako programa eta Saharako eta Sahelgo Behatokia;
- c) Ingurugiroari buruzko datuak aztertzeke nazioko erakundeen ahalmena sendotzea, aldaketa ekologikoez arduratu ahal izateko eta nazio mailan ingurugiroari buruzko informazioa etengabe eskuratu ahal izateko.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Desertifikazioaren eta lurren degradazioaren ondorio ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak zehazteko bitartekoak aztertzea eta ikertzea eta nazioarte mailako ikerketa horien emaitzak desertifikazioaren eta lurren degradazioaren ebaluazioan sartzea;

- b) Klimaren, lehortearen eta desertifikazioaren eragin sozioekonomikoen arteko lotura aztertzea eta ikertzea eta ikerketa horien emaitzak neurri zehatzak hartzeko erabiltzea.

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Desertifikazioaren eta lehortearen arazoarekin harremana duten programen inguruan egindako datu-bilketen eta ikerketen lan integratua babestea;
- b) Datu-bilketarako eta ikerketarako sare integratuak sortzeko nazio, lurralde eta mundu mailako programak babestea; horretarako zoruen eta lurren degradazioaren inguruko ebaluazioak egin beharko dira;
- c) Meteorologia eta hidrologia alorretan nazioko eta lurraldeko behaketa sistematikorako sareak eta sistemak sendotzea, oinarrizko nahiko informazio bil dadin arduratzeko eta nazioko, lurraldeko eta nazioarteko zentroyen artean komunikazioa izan dadin arduratzeko.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Lurraldeko programak eta nazioarteko lankidetzarako jarduerak sendotzea; esate baterako, ondorengo erakunde hauek sendotzea: Sahelen lehortearen aurka borroka egiteko Estatuarteko Batzorde Iraunkorra (CILSS), Lehorteari eta Garapenari buruzko Gobernuarteko Autoritatea (AISD), Hego Afrikaren garapena koordinatzeko biltzarra (CCDAM), Magreb arabiarren Batasuna eta lurralde mailako beste erakunde batzuk eta Saharako eta Sahelgo Behatokia eta antzeko erakundeak;
- b) Osagai zabal gisa, desertifikazioari, lurren degradazioari eta giza baldintzei buruzko datu-basea sortzea edo garatzea; datu-base honetan parametro fisikoak eta sozioekonomikoak gehitu beharko lirateke.
 - a) Datu-base horrek aurretik dauden zerbitzuetan oinarrituta egon beharko luke eta, behar den neurrian, zerbitzu osagarrietan, hala nola Ingurugiroaren Zaintzan eta helburu honekin sendotutako nazioarteko, lurraldeko eta nazioko beste informazio-sistema batzuetan;
 - b) Erreferentzia puntuak zehaztea eta progresurako adierazleak definitzea, desertifikazioaren aurkako borrokan egindako behaketa sistematikoko eta aurrerapenaren ikuskapenerako

herri eta lurralde mailako erakundeen lana errazteko. Herri mailako parte-hartzearen adierazleei arreta berezia jarri beharko litzaieke.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 350 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 175 milioi dolar inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Gobernuek, dagokien mailan eta desertifikazioaz eta lehorteaz arduratzen diren nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Baliabide naturalen inbentarioak egitea eta daudenak eguneratzea, esate baterako, baliabide hauen ingurukoak: energia, ura, zorua, mineralak, landareak eta animaliak; eta beste baliabide hauenak ere bai: elikadura, etxebizitza, lana, osasuna, hezkuntza eta populazioaren denbora- eta espazio-banaketa;
- b) Informazio-sistema integratuak sortzea, behaketa sistematikorako, kontabilitaterako eta ingurugiroan eraginak ebaluatzeko;
- c) Nazioarteko organoek gobernuekin elkarlanean aritu beharko lukete ingurugiroaren behaketa sistematikorako eta lehortearen eta desertifikazioaren aurkako borrokarako teknologia egokiak eskuratu eta garatu daitezen errazteko.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta desertifikazioaren eta lehortearen arazoez arduratzen diren nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunekin elkarlanean, behaketa sistematikoaz eta desertifikazioaren eta lehortearen ebaluazioaz arduratzen diren langileen gaitasun profesionalak eta teknikoak sustatu behar lituzkete.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, dagokien mailan eta desertifikazioaren eta lehortearen arazoez arduratzen diren nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunekin elkarlanean, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Herri eta nazio mailako erakundeak sendotzea. Honela, behaketa sistematikorako eta desertifikazioaren ebaluaziorako langileak, taldeak eta finantza-baliabideak eman beharko lizkiekete;
- b) Ingurugiroari buruzko informazioa biltzeko eta erabiltzeko tokian tokiko biztanleen parte-hartzea sustatzea, bereziki emakumeena eta gazteena, hezkuntzaren eta informazioaren zabalkuntzaren bidez.

B. Lurren degradazioaren aurkako borroka, beste gauza batzuen artean lurren kontserbaziorako jarduerak areagotzearen, baso-sartzearen eta baso-berritzearen bidez

Ekintzarako oinarriak:

Desertifikazioak 3.600 milioi hektarea ingururi eragiten dio, hau da, lur lehorren % 70eri eta munduko azalera osoaren laurdenari. Larreen, lehorreko laboreen lurren eta labore ureztatuen desertifikazioari aurre egiteko, oraindik desertifikazioak kaltetu ez dituen edo gutxi kaltetu dituen guneeetan prebentzio-neurriak hartu beharko lirateke; erdi desertifikatutako lurretako produktibitateari eusteko neurri zentzatzailak aplikatu beharko lirateke eta larriki edo oso larriki desertifikatutako lur lehorrak errekuiperatzeko birgaitze-neurriak onartu beharko lirateke.

Landare-estalkia handitzeak lur lehorrak dauden guneeetan oreka hidrologikoa bultzatuko eta egonkortuko luke eta lurraren kalitateari eta produktibitateari eusten lagunduko luke. Oraindik degradatu gabeko lurretan prebentzio-neurriak aplikatzeak eta lur erdi lehorretan edo oso degradatuetan –horien artean dunen mogimenduek kaltetutakoetan– neurri zentzatzailak edo birgaitzeak aplikatzeak lurren mantenurako gaitasuna eta ekosistema ahuletako baliabide biotikoen kontserbazioa bultzatuko lituzkete. Neurri horiek lurraren erabilera ekologikoki arrazionala, sozialki onargarria eta bidezkoa eta ekonomikoki bideragarria onartzearen bidez aplikatu beharko lirateke.

Jarduerak:

Programa-arlo honetako helburuak ondorengoak dira:

- a) Oraindik desertifikazioaren eragina jasan ez duten guneeetan edo oso gutxi jasan dutenetan, eraketa naturalak (basoak barne) era egokian antolatzea, aniztasun biologikoa kontserbatzeko, arroak babesteko, bere produkzioaren jasangarritasunerako eta nekazaritzaren garapenerako eta beste helburu batzuetarako. Herrialde indigenek ere parte hartu beharko lukete helburu hau lortzeko jardueretan;
- b) Erdi desertifikatutako edo oso desertifikatutako lur lehorrak birgaitzea, nekazaritzarako erabiltzeko. Horrez gain, bere produktibitateari eustea, beste gauza batzuen artean zoruaren eta uraren kontserbazioaren bidez, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza garatzeko;
- c) Landare-estalkia areagotzea eta antolakuntza-jarduerak egitea, desertifikazioak edo lehortea kaltetutako edo desertifikaziorako edo lehorterako joera duten lurraldeetako baliabide biotikoak babesteko, batez ere ondorengo jardueren bitartez: baso-sartzea eta baso-berritzea, komunitatearen agrosilbikultura eta basogintza eta landaretza mantentzeko planak;
- d) Basoko baliabideen antolaketa hobetzea, horien artean egurraren antolaketa. Egurraren kontsumoa gutxitzea erabilera eta kontserbazio eragingarriagoaren bidez eta beste energia-iturri batzuen, horien artean ordezkiko energia-iturrien, ustiapena eta erabilera sustatzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin behar lukete:

- a) Oraindik kaltetu gabeko edo gutxi kaltetutako lur lehor ahuletan prebentziozko neurri zuzenak aplikatzea berehala, ondorengoa aurrera eramanez: i) lurraren erabileraren politika eta jarduera hobek, produkzio jasangarria areagotzeko; ii) nekazaritzako eta abeltzaintzako teknologia egokiak, ekologikoki arrazionalak eta ekonomikoki bideragarriak; eta iii) lurren eta uren baliabideen antolaketarako teknika hobek;
- b) Baso-sartzeko eta baso-berritzeko programa bizkortzaileak egitea, lehortea jasaten duten eta berehala hazten diren espezieak erabiliz; bereziki tokian tokiko espezieak erabili

beharko lirateke, leguminosoak eta antzekoak barne. Programa hauek komunitatean oinarritutako agrosilbikultura-planekin batera garatu beharko lirateke. Gai honen inguruan, eskala handiko baso-sartzeko eta baso-berritzeko planak gauzatzea kontuan hartu beharko litzateke, bereziki ingurubide berdeak sortuz, neurri horien onura anitzak kontuan hartuta;

- c) 19. paragrafoko a) tartean adierazitako neurriez gain, berehala neurri zentzatsaile zuzenak aplikatzea guztiz desertifikatutako eta erdi desertifikatutako gune lehorretan produktibitatea berrezartzeko eta mantentzeko;
- d) Lurren, uren eta laboreen antolaketa hobetuen sistemak sustatzea, ureztatutako soro landuen gatzitzearen aurka borroka egin ahal izateko; lehorreko laboreen lurrak egonkortzea eta lurren erabilera-motetan lurren eta laboreen antolaketa-sistema hobetuak sartzea;
- e) Komunitatearen parte-hartzearekin baliabide naturalen, horien artean larreen, antolaketa sustatzea. Hori teknologia berritzaileak edo bertako teknologia egokituak kontuan hartuta nekazaritzako herrien beharrak asetzeko eta kontserbazioaren helburuak aintzat hartzeko egin beharko litzateke;
- f) Legeen eta beste bitarteko batzuen bidez gune ekologiko berezien babes eta in situ kontserbazioa sustatzea, desertifikazioaren aurka borroka egiteko eta, era berean, aniztasun biologikoa babes dadin zaintzeko;
- g) Lur lehorretako basoen garapenean inbertsioak egin daitezten sustatzea, hainbat pizgarriren, esaterako legezko neurrien, bidez;
- h) Zurezko baliabideengan egindako presioa gutxitzen duten energia-iturriak, horien artean ordezko energiak eta hobetutako sukaldeak, ustiatu eta erabili daitezten sustatzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Tokian tokiko jarduerak hobetzeko ekintzetan oinarrituta, lurren erabilerarako ereduak lantzea, lurren degradazioa ekiditeko. Eredu horiek desertifikazioa eragiten duten giza jardueren faktore naturalen eta eratorritako faktoreen aniztasuna ulertzen lagundu beharko lukete. Era berean, eredu horiek jarduera berrien eta ohiko jardueren arteko

elkarreragina adierazi beharko lukete, lurren degradazioa ekiditeko eta sistema ekologikoak eta sozialak errekueratzeko duten gaitasuna islatzeko;

- b) Ingurugiroaren segurtasunaren inguruko iritziak kontuan hartuta, lehortea jasaten duten, berehala hazten diren, produktiboak diren eta lurraldeko ingururako egokiak diren landare espezieak prestatzea, probak egitea eta sartzea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Nazio Batuen erakundeek, nazioarteko eta lurraldeko erakundeek, gobernu kanpoko erakundeek eta alde biko erakunde eskudunek ondorengo egin beharko lukete:

- a) Lurren degradazioaren aurkako borrokan beren funtzioak koordinatzea eta kaltetutako herrialdeetan baso-berritzeko, agrosilbikulturako eta lurren antolaketarako sistemak sustatzea;
- b) Teknologia garatzeko eta hedatzeko, trebakuntzarako eta programak gauzatzeko lurraldeko eta azpilurraldeko jarduerak babestea, lur lehorren degradazioa geldiarazteko.

Gobernu interesdunek, Nazio Batuen erakunde eskudunek eta alde biko erakundeek lur lehorren degradazioaren aurkako jardueren koordinazioa sendotu beharko lukete, jarduera horietaz arduratzeko gobernuarteko edo lurraldeko erakundeak dauden kasuetan, esaten baterako, CILSS, AISD, CCDAM eta Magreb Arabiarraren Batasuna.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 6.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 3.000 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuak ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Gobernuak dagokien mailan eta tokian tokiko komunitateek, nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Basoen, basoko lurren, larreen eta landaretza naturalaren inguruko bertako ezagutzak desertifikazioari eta lehorteari buruzko ikerketetan erabiltzea;
- b) Posible den lekuetan, metodo tradizioaletan zentratutako ikerketa-programa integratuak sustatzea honako gaien inguruan: uren eta lurren baliabideen babes, errekupeazioa eta kontserbazioa eta lurren erabileraren kudeaketa.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek dagokien mailan eta tokian tokiko komunitateek, nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Lurren erabiltzaileak, bereziki emakumeak, lurren erabilerarako sistema hobek aplikatzeko eragile nagusi izan daitezten mekanismoak ezartzea lurren degradazioari aurre egiteko; agrosilbikulturako lurak ere hartu beharko lirateke kontuan;
- b) Desertifikaziorako eta lehorterako joera duten gunetan hedatze-zerbitzuak sustatzea, batez ere gunek elkorretan lurren eta uren baliabideak hobeto antolatu ahal izateko nekazariak eta abeltzainak trebatzeko.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek dagokien mailan eta tokian tokiko komunitateek, nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Nazioko legedi egokiaren bidez, lurraren erabilera-politika berriak instituzionalizatzeko hartu beharreko neurriak prestatzea eta onartzea; lurraren erabilerak ekologikoki arrazionala eta garapenera bideratutakoa izan beharko luke;
- b) Komunitatean oinarritutako herri mailako erakundeei, bereziki nekazarien eta abeltzainen erakundeei, babes ematea.

C. Pobreziari aurre egiteko eta desertifikaziorako joera duten guneen iraupen-sistemen sustapenerako programa integratuak egitea eta sendotzea

Ekintzarako oinarriak:

Desertifikaziorako eta lehorteetarako joera duten guneean, baliabideen egungo iraute- eta ustiaketa-sistemek ez dute bizi-baldintza egokiei eusten uzten. Gune elkor eta erdielkor gehienetan, nekazaritzan eta artzaintzan oinarritutako iraute-sistema tradizionalak, lehortearen eta demografiaren presioa areagotzearen efektuak kontuan hartuta, urriak eta eutsiezinak izaten dira. Pobrezia faktore oso garrantzitsua da degradazio- eta desertifikazio-tasak bizkortzeko garaian. Ondorioz, ordeko iraute-sistemekin batera, nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako sistemak hobetzeko neurriak hartu behar dira larreen antolaketa jasangarria lortzeko.

Helburuak:

Pograma-arlo honen helburuak hauek dira:

- a) Nekazaritzako komunitateak eta artzainen taldeak trebatzea, sozialki bidezkoa eta ekologikoki arrazionala den oinarria eredu gisa hartuta beren garapenaz eta lurren baliabideen antolaketaz ardura daitezen;
- b) Produkzio-sistemak hobetzea, nekazaritzaren garapenaren ikuspegi osoa hartuta baliabide naturalen kontserbaziorako onartutako planaren barruan produktibitate gehiago lortzeko;
- c) Iraute-sistema desberdinak eskaintzea, lurreko baliabideengan egindako presioa murrizteko; era berean, diru-iturri osagarriak ematea, bereziki nekazaritzako populazioari, eta, ondorioz, beren bizitza-maila hobetzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Nazio mailan, lurren baliabideen antolaketaren ikuspegi deszentralizatuarekin harremana duten politikak onartzea; politika horien bidez nekazaritzako erakundeetan ardurak delegatu egin beharko lirateke;

- b) Herrixken eta artzainen lurretako antolaketaz arduratzeko nekazaritzako erakundeak sortzea edo sendotzea;
- c) Herri eta nazio mailan sektorearteko mekanismoak prestatzea eta garatzea, erabilerari eta lurren jabetzari dagokienean lurrak edukitzeko erregimenak ingurugiroan eta garapenean sortutako ondorioez ardua daitezen. Nekazaritzako gunetan bizi diren emakumeen, artzain-taldeen eta nomaden jabetza-eskubideak babesteari kasu berezia egin beharko litzaioke;
- d) Herrixka mailan bereziki artzainen interes komuneko jarduera ekonomikoez arduratuko diren elkarteak sortzea edo sendotzea (helburu komertzialak dituen baratzezaintza, nekazaritzako produktuen transformazioa, abelazkuntza, artzainak eta abar);
- e) Nekazaritzako gunetan maileguak eta aurrezkiaren mobilizazioa sustatzea, gune horietan banku-sistemak ezarriz;
- f) Herri mailan produkziarako eta merkaturatzeko azpiegiturak eta gaitasuna garatzea, herriko biztanleek iraute-sistema desberdinen promozio-jardueretan eta pobrezia aurre egiteko jardueretan parte har dezaten bultzatuz;
- g) Nekazaritzako enpresarioentzako eta herriko taldeentzako txandakako mailegu-funtsa sortzea, familiarteko industria eta enpresa komertzialak sor daitezen eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako maileguak eman daitezen errazteko.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Programa-arlo honetako egoera hobeto ulertzeko, erreferentziazko azterketa sozioekonomikoak egitea, bereziki baliabideekin eta lurren jabetzarekin, lurrak antolatzeke era tradizionalekin eta produkzio-sistemen ezaugarriekin harremana duten alorretan;
- b) Baliabide naturalen (zoruak, ura eta landaretza) eta beren degradazio-egoeraren inbentarioa prestatzea, bereziki tokian tokiko biztanleen ezagutza oinarri hartuta (esate baterako, nekazaritzako guneen ebaluazio azkarra);

- c) Herrialdearen baldintza sozial, ekonomiko eta ekologikoetara egokitutako teknologia-sistemei buruzko informazioa zabaltzea;
- d) Iraute-sistema desberdinen garapenari buruzko informazioa lurralde agroekologikoen artean trukatu eta hedatu dadin sustatzea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Lur elkorren eta erdielkorren tekniken eta metodoen inguruko ikerketak egiten dituzten erakundeen arteko informazio trukaketa eta lankidetzeta sustatzea, lurren, lanaren eta produkzio-sistema bideragarrien produktibitatea hobetzeko;
- b) Nazioarteko eta gobernu kanpoko erakundeen komunitateak finantzaturako programak eta proiektuak eta pobrezia arintzeko eta iraute-sistema desberdinak sustatzeko programak eta proiektuak gauzatzeko ekintzak koordinatzea eta bateratzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa-arlo honetako kostuak 3. atalean (Pobreziaren aurkako borroka) eta 14. atalean (Nekazaritza eta landa-garapen jasangarriak sustatzea) sartu ditu.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Lurren erabileraren inguruko ikerketa aplikatuak egitea, tokian tokiko ikerketa-erakundeen laguntzarekin;
- b) Informazioaren eta esperientziaren aldizkako komunikazioa eta trukaketa erraztea, nazio, lurralde eta lurraldearte mailan eta dibulgazioaz arduratzen diren funtzionarioen eta ikertzaileen artean;
- c) Teknologien sarrera eta erabilera babestea eta sustatzea diru-sarrereren ordezkotzat iturriak sortzeko.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Nekazaritzako erakundeetako kideak antolakuntza-tekniketan trebatzea eta nekazariak eta artzainak teknika berezietan trebatzea, esate baterako, zoruen eta uraren kontserbazioan, ur-bilketan, agrosilbikulturaren eta eskala txikiko ureztaketan;
- b) Dibulgazioaz arduratzen diren eragileak lurren antolaketa integratuan komunitateak parte-hartzeko tekniketan trebatzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, desertifikaziorako joera duten lurretako biztanleen pobrezia arintzeko estrategiak garapenerako plan eta programa sektorialetan eta nazionaletan sartzeaz arduratzeko mekanismoak sortu eta mantendu beharko lituzkete.

13. ATALA: Ekosistema hauskorren antolaketa: gune menditsuen garapen jasangarria

Sarrera

Mendiak uraren, energiaren eta aniztasun biologikoaren iturri garrantzitsu dira. Horrez gain, ezinbesteko baliabideen iturri ere badira, hala nola, mineralen eta basoko eta nekazaritzako produktuen iturri, eta aisialdirako gune. Gure planetako ekologia konplexua eta interdependentea ekosistema garrantzitsu honetan ordezkaturik dago, beraz, mendi ingurua ezinbestekoa da munduko ekosistemak bizirik irauteko. Hala ere, mendiko ekosistemak azkar aldatzen ari dira. Lurren higadura bizkortua, luiziak eta aniztasun genetikoaren eta habitataren pobretze azkarra jasateko arriskua dute. Mendiko biztanleen artean pobrezia orokorra da eta tokian tokiko ezagutzak galtzen ari dira. Honen guztiaren ondorio gisa, munduko gune menditsu gehienetako ingurugiroa hondatuta dago. Beraz, berehala hartu behar dira mendiko biztanleen garapen soziala eta ekonomikoa eta mendiko baliabideak behar bezala antolatzeko neurriak.

Gutxi gorabehera munduko biztanleen % 10 mendiko baliabideen menpe bizi da. Ehuneko askoz handiagoak erabiltzen ditu mendiko hainbat baliabide, esate baterako ura. Mendiak aniztasun biologikoaren eta arriskuan dauden espezieen erreserba dira.

Atal honek bi alorretako programak ditu munduko mendi guztiei dagokienean ekosistema hauskorren arazoaren ikerketan sakontzeko. Alorrak ondorengoak dira:

- a) Mendiko ekosistemen ekologiari eta beren garapen jasangarriari buruzko ezagutzak sortzea eta sendotzea;
- b) Arro hidrografikoen eta beste bizimoduen ustiapen integratua sustatzea.

Programa-arloak

A. Mendiko ekosistemen ekologiarri eta garrapen jasangarriari buruzko ezagutzak sortzea eta sendotzea

Ekintzarako oinarriak:

Giza faktoreak eta faktore naturalak direla eta, mendietako oreka ekologikoa erasotzen erraza da. Mendiak gunerik ahulenak dira atmosferako klima-aldaketan aurrean. Ezinbestekoa da ekologiarri, baliabide naturalen indarrari eta jarduera sozioekonomikoei buruzko berariazko informazioa izatea. Neurri bertikalak direla eta, mendiek tenperatura-, euri- eta intsolazio-gradienteak sortzen dituzte. Mendi baten hegal batean klima mota desberdinak egon daitezke, esate baterako, tropikala, subtropikala, epela eta alpinoa, eta horietako bakoitzak habitata anitzagoa duen mikrokosmos bat osatzen du. Hala ere, mendiko ekosistemak ez dira behar bezala ezagutzen. Ondorioz, ezinbestekoa da mundu mailan mendiei buruzko datu-basea sortzea, mendiko ekosistemen garapen jasangarriari laguntzeko programak gauzatzeko.

Jarduerak:

Pograma-arlo honen helburuak hauek dira:

- a) Mendiko ekosistemetako zoruen, basoen, uren ustiapenen eta landare- eta animalia-baliabideen ikerketak egitea, lurraldeko eta nazioarteko erakundeetan kontuan hartuta;
- b) Datu-baseak eta informazio-sistemak sortzea eta mantentzea, lurraldeko eta nazioarteko erakundeetan kontuan hartuta, ingurugiro-ebaluazioa eta mendiko ekosistemen antolaketa integrala errazteko;
- c) Munduko lurralde menditsuetan, teknologien eta nekazaritza- eta kontserbazio-jardueren alorretan ezagutza ekologikoen egungo oinarria hobetzea eta garatzea tokian tokiko komunitateen parte-hartzearekin;
- d) Komunikazio-sarea eta informazioa trukatzeko zentroa sortzea eta sendotzea gaur egun mendien arazoak arduratzen diren erakundeentzako;
- e) Mendiko ekosistema hauskorak babesteko lurraldeko jardueren koordinazioa hobetzea; horretarako lurraldeko baliabide juridikoak barne hartzen dituzten mekanismo egokiak aztertu behar dira;
- f) Informazio-sistemak eta datu-baseak ezartzeko informazioa sortzea, ingurugiroko arriskuen eraginaren eta mendiko ekosistemetan hondamendi naturalen eraginaren ebaluazioa errazteko.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Aurretik dauden erakundeak sendotzea edo erakunde berriak sortzea, herri, nazio eta lurralde mailan, mendiko ekosistemetak lurren eta uren inguruko ezagutza ekologikoen diziplinarteko oinarria sortzeko helburuarekin;
- b) Tokian tokiko biztanleei pizgarriak eskaintzen dizkieten politika nazionalak sustatzea, ingurugiroari kalterik egiten ez dieten laborantzako eta kontserbazioko teknologiak eta jarduerak aplikatzeko;
- c) Ezagutzen eta analisisien oinarria hedatzea, ekosistema hauskorrez arduratzen diren nazio eta lurralde mailako erakundeen arteko lankidetzarako eta informazioa trukatzeko mekanismoak sortuz;
- d) Nekazariei eta tokian tokiko biztanleei pizgarriak eskaintzen dizkieten politikak sustatzea kontserbazio- eta birsorkuntza-neurriak aplikatzen;
- e) Gune menditsuetako ekonomiak dibertsifikatzea, beste batzuen artean mendiko inguruaren antolaketa integralaren printzipioak kontuan hartuta turismoa sartuz edo garatuz;
- f) Basoarekin, larreekin eta basoko faunarekin eta florarekin harremana duten jarduera guztiak integratzea, berariazko mendiko ekosistemei eusteko;
- g) Espezie adierazgarri asko dituzten guneetan eta lekuetan erreserba natural egokiak ezartzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Munduko lurralde menditsuen analisiak egitea eta gune horien aniztasun klimatikoa barne hartzen duen zaintza meteorologikorako, hidrologikorako eta fisikorako eta uren banaketarako azpiegiturak sortzea eta mantentzea;

- b) Batetik, zoruen, basoen eta uren erabilera mota desberdinen eta, bestetik, landareen, animalien eta landu daitezkeen landareen baliabide genetikoaren inbentarioa prestatzea; inbentario honetan lehentasuna eman behar zaie desagertzeko arriskuan dauden espezieei. Baliabide genetikoak in situ babestu beharko lirateke gune babestuak sortuz, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera tradizionalak hobetuz eta baliabideen balio posiblea ebaluatzeko programak sortuz;
- c) Higaduraren, uholdeen, luizien, lurrikaren, elur-jausien eta beste arrisku natural batzuen aurrean ahulenak diren eta arriskuan dauden guneak zein diren adieraztea;
- d) Industrialdeetatik edo aldameneko hiriguneetatik datorren airearen kutsadurak mehatxaturik dauden gune menditsuak zein diren adieraztea.

c) Lankidetzaren nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek eta gobernuarteko erakundeek ondorengoa egin behar lukete:

- a) Nazioarteko lankidetzaren koordinatzea eta erakunde espezializatuen artean informazioa eta esperientzia trukatzeko, esate baterako erakunde hauen artean: Munduko Bankua, NGNF eta lurralde eta nazioarte mailako beste erakunde batzuk, gobernuak, ikerketa-erakundeak eta mendiko guneen garapenaz arduratzen diren gobernu kanpoko erakundeak;
- b) Mendiko guneen garapenaz arduratzen diren nazioarte, lurralde eta herri mailako gobernu kanpoko erakundearen jarduerak eta herri-ekimenak koordinatzea lurralde, nazio eta nazioarte mailan. Besteak beste, erakunde hauen jarduerak koordinatzea: Nazio Batuen Unibertsitatea, Woodland Mountain Institute (WMI), Mendien ustiapen integraturako nazioarteko zentroa (ICIMOD), International Mountain Society (IMS), Afrikako Mendien Elkarte eta Mendiak babesteko Andeetako elkarte. Horrez gain, erakunde horiei informazioa eta esperientzia truka ditzaten laguntzea;
- c) Mendiko ekosistema ahulak babesteko, mekanismo egokiak aztertuz, horien artean lurraldeko baliabide juridikoak aztertuz.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko

(1993-2000) batez besteko gastua 50 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien arabekoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko programak sendotu beharko lituzkete, baita lurraldeko eta nazioarteko erakundearen arteko hedapen-lana ere, bereziki meteorologia, hidrologia, silbikultura, edafologia eta fitologia alorretan.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Trebakuntza- eta hedapen-programak gauzatzea, mendiko ekosistementzako egokiak izango liratekeen teknologia eta jarduera ekologikoki arrazionalen inguruan;
- b) Bekak eta diru-laguntzak emanez goi-mailako hezkuntza babestea, mendietan eta muinoetan ingurugiro-azterketak egiteko. Laguntza hauek bereziki mendietako herrialde indigenetako pertsonei zuzenduta egon behar lukete;
- c) Nekazariei, bereziki emakumeei, ingurugiroaren alorrean heziketa eskaintzea, nekazaritzako guneetako herrialdeei mendietako garapen jasangarriarekin harremana duten ekologiararen auziak hobeto uler ditzaten laguntzeko.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ekosistema hauskorretako ekonomien garapen jasangarriaren inguruko ikerketarako, trebakuntzarako eta informazioaren hedapenerako beharrezkoak diren oinarri instituzionalak sortu beharko lituzkete, bai nazio mailan, bai lurralde mailan.

B. Arro hidrografikoen eta beste bizimoduen ustiapen integratua sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Gutxi gorabehera munduko biztanleen erdiari eragiten dio modu batera edo bestera mendiko ekologiak eta arro hidrografikoen degradazioak. Munduko biztanleen % 10 mendietako hegal garaietako guneetan bizi da eta % 40 behealdeko eta erdialdeko ondoko gunez arduratzen da. Arro hauek narriadura ekologikoaren aldetik arazo larriak dituzte. Esate baterako, Hego Ameriketako Andeen inguruetan, nekazaritzako populazioaren zati handi batek lurren narriadura azkarrari egin behar dio aurre gaur egun. Halaber, populazioaren hedapena dela eta, nekazaritzaren produkzioari asko laguntzen dioten Himalaiako mendiak eta gune altuak, hegoekialdeko Asia eta ekialdeko eta erdialdeko Afrika lur marjinalen laborantzek mehatxaturik daude. Gune askotan arazo horri gehiegizko artzaintza, baso-soiltzea eta biomasa-estalkiaren pobretzea gehitu behar zaizkio.

Lurren higaduraren eraginak suntsitzaileak izan daitezke mendi-hegaletan lehorreko nekazaritzaren menpe bizi diren nekazaritzako guneetako biztanle askorentzat. Pobrezia, langabezia eta osasunaren eta saneamenduaren egoera txarra arazo orokorrak dira. Arro hidrografikoen ustiapen integraturako programak tokian tokiko biztanleen parte-hartze eragingarriaren bidez sustatzea ezinbestekoa da desoreka ekologikoak larriagotzen jarrai ez dezan. Lurren, uren, landareen eta animalien baliabide naturalen oinarria kontserbatzearen, hobetzearen eta erabiltzearen ikuspegi integratua beharrezkoa da, baita giza baliabideena ere. Horrez gain, beste bizimodu batzuk sustatzeak mendiko ekosistemetan bizi den nekazaritza-populazio handiaren bizi-maila hobetzen lagunduko du, bereziki produkzioaren oinarria areagotzeko lan planak eginez.

Helburuak:

Pograma-arlo honen helburuak hauek dira:

- a) 2000 urterako, mendiko arroetan, bai laborantza-lurren, bai landu ezin daitezkeen lurren ustiapenaren planifikazio- eta antolaketa-sistema egokiak sortzea, lurraren higadura ekiditeko, biomasaren produkzioa areagotzeko eta oreka ekologikoari eusteko;
- b) Diru-sarrerak sortzeko jarduerak –esate baterako, arrantza eta turismo orekatuak eta ingurugiroari kalterik egiten ez dion meatzaritza– sustatzea eta azpiegitura eta zerbitzu sozialak hobetzea, batez ere tokian tokiko komunitateen eta herrialde indigenen bizimodua babesteko;
- c) Kaltetutako herrialdeentzako xedapen teknikoak eta instituzionalak egitea, hondamendi

naturalen eragina arintzeko, arriskuen prebentzio- eta zonifikazio-neurriak, alerta goiztiarreko sistemak eta ebakuazio-planak aplikatuz eta larrialdietarako erreserbak sortuz.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Lurren higadura ekiditeko neurriak hartzea eta sektore guztietan higadura gutxitzeko jarduerak sustatzea;
- b) Arro hidrografikoen ustiapenerako lan-taldeak edo batzordeak sortzea, erakundeen lanaren osagarri izan daitezten eta maila administratibo guztietan tokian tokiko ekimenak – bereziki abeltzaintzakoak, basogintzakoak, baratzegintzakoak eta nekazaritza garatzeko direnak– babesteko zerbitzu integratuak martxan jar ditzaten;
- c) Herriko baliabideen kudeaketan, legeria egokiaren bidez, biztanleen parte-hartzea sustatzea;
- d) Tokian tokiko erakundeei eta komunitateei herriaren parte-hartzean oinarritutako garapena sustatzeko proiektuak prestatzen laguntzen dieten gobernuz kanpoko erakundeak babestea;
- e) Basoko flora eta fauna eta aniztasun biologikoa babestu daitezkeen edo parke nazional bihurtu daitezkeen gune mehatxatuak kontserbatzeko mekanismoak martxan jartzea;
- f) Nekazariei eta tokian tokiko biztanleei pizgarriak eskaintzen dizkien politika nazionalak formulatzea, kontserbaziorako neurriak har ditzaten eta ekologiari kalterik egiten ez dioten teknologiak erabil ditzaten;
- g) Familiako industrietan eta nekazaritza-prozesatzeetan diru-sarrerak sortzeko jardueri ekitea, esate baterako sendabelarrak eta landare usaintsuak landatuz eta prozesatuz;
- h) Orain arte aipatutako jarduerak garapenean emakumeen, herrialde indigenen eta tokian tokiko komunitateen parte-hartze osoa lortzeko beharra kontuan hartuta gauzatzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Nazio, estatu edo lurralde mailan, behaketa sistematikorako eta ebaluaziorako azpiegiturak mantentzea eta sortzea, eguneroko jardueretarako informazioa osatzeko eta proiektuek ingurugiroan eta sozioekonomian izango duten eragina zehazteko;
- b) Nekazaritzako komunitateen mailan, beste bizimoduen eta produkzio-sistema dibertsifikatuaren inguruko informazioa sortzea honako gaien inguruan: urteko laboreak eta zuhaitzen laboreak, abelazkuntza, hegazti-hazkuntza, erlezaintza, arrantza, industria komunitarioak, merkatuak eta garraioa. Diru-sarrerak izateko aukeren inguruan ere sortu beharko litzateke informazioa, emakumearen papera guztiz kontuan hartuta eta planifikazio- eta gauzatze-prozesuan sartuta.

c) Lankidetzaz nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Honako talde hauen barruan dauden eta ikerketek eta trebakuntzaz arduratzen diren nazioarteko institutuen funtzioak indartzea: Nazioarteko Nekazaritza Ikerketari buruzko Kontsulta Taldea (NNIKT), Lurrik Ikertzeko eta Antolatze Nazioarteko Batzarra (LIANB) eta arroetako antolaketei aplikatutako lurraldeko ikerketa-zentroak, esate baterako Woodland Mountain Institute eta Mendien ustiapen integraturako nazioarteko zentroa (ICIMOD);
- b) Mendikateak eta ibai-arroak elkarren artean dituzten herrialdeen artean, lurralde mailako lankidetzaz eta datuen eta informazioaren trukea sustatzea bereziki hondamendiek eta uholdeek kaltetutako herrialdeetan;
- c) Arroen ustiapenez arduratzen diren gobernuz kanpoko erakundeekin lankidetzarako lotura ezartzea eta lotura horri eustea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 13.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 1.900 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte

aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

Mendiko ekosistemetan beste bizimodu mota batzuk sustatzeko funtsen banaketak pobrezia-aren aurkako programaren zati ere izan behar luke edo herrialde bakoitzean ordezko bizimoduak bilatzeko programaren zati. Gai hauek ondorengo atal hauetan aztertu dira: 3. atala (Pobrezia-aren aurkako borroka) eta 14. atala (Nekazaritza eta landa-garapen jasangarriak sustatzea).

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologiak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Ingurugiroaren babesa eta garapenaren funtzioa batzen dituzten proiektu pilotuak martxan jartzeko aukera aztertzea. Horretarako ingurugiroaren antolaketarako ohiko sistemak edo jarduerak kontuan hartu beharko liriateke, bereziki ingurugiroan eragin onuragarriak dituztenak;
- b) Arro hidrografikoen eta nekazaritzako ustiapenen berariazko baldintzetara egokitzeko teknologiak sortzea, tokian tokiko gizonen, emakumeen, ikertzaileen eta eragileen partaidetzan, bereziki nekazaritzako guneetan esperimenduak eta entseguak egiten dituztenen partaidetzan oinarritutako ikuspegiaren bidez;
- c) Landaretza kontserbatzeko teknologiak sustatzea, higadura ekiditeko, hezetasuna in situ erregulatzeko eta laborantza-teknologiak, zuhainen produkzioa eta agrosilbikultura hobetzeko, batez ere tokian tokiko biztanleen artean sartzeko merkeagoak, arruntagoak eta errazagoak diren produkzio-motak hobetzeko.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin behar lukete:

- a) Hainbat gairen inguruan tokian tokiko biztanleen trebakuntzaren eta ezagutzen hedapenaren diziplina anitzeko eta sektorearteko ikuspegia sustatzea. Besteak beste, gaiak ondorengoak izango liriateke: etxeko produkzio-sistemak, landu daitezkeen eta ezin

- daitezkeen lurren kontserbazioa eta erabilera, drainatze-kanalen tratamendua eta lur azpiko uren birkarga, abelazkuntza, arrantza, agrosilbikultura eta baratzegintza;
- b) Giza baliabideak garatzea, hezkuntza, osasuna, energia eta azpiegitura eskura izateko aukerak emanez;
- c) Herri mailan hondamendiei aurre hartzeko eta ondorioak arintzeko ulermena eta prestakuntza sustatzea, alerta goiztiarreko eta iragarpenak egiteko teknologiarik berrienekin batera.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, arroak antolatzeke zentro nazionalak sortu eta sendotu beharko lituzkete, alde sozioekonomikoen, teknologikoen, legislatiboen, finantzarioen eta administratiboen eta ingurugiro-aldeen ikuspegi integrala bultzatzeko eta organo arau-emaileei eta administratiboei, lursailtako langileei eta nekazariei arroen ustiapenean babesa emateko.

Sektore pribatuak eta tokian tokiko komunitateek, gobernuekin elkarlanean, herri mailako azpiegituraren garapena sustatu behar lukete –komunikazio-sareak eta eskala txikiko eta ertaineko proiektu hidroelektrikoen gauzatzea barne– familiako industriari babesa emateko eta merkatuetara sarbidea errazteko.

14. ATALA: Nekazaritza eta landa-garapen jasangarriak sustatzea

Sarrera

2025. urterako, munduko populazioaren % 83 garapen bidean dauden herrialdeetan biziko da; ehuneko horren kopurua 8.500 milioi pertsona izatea aurreikusi da. Hala ere, etengabe hazten ari den populazioaren elikagaien eta oinarrizko nekazaritzako beste produktu batzuen eskaera asetzeko eskura izango diren baliabideen gaitasuna eta teknologiak zalantzarazkoak dira oraindik. Nekazaritzak erronka honi aurre egin beharko dio eta horretarako bereziki hauxe egin beharko da: dagoeneko erabiltzen diren lurren produkzioa areagotzea eta marjinalki laborantzarako bakarrik egokiak diren lurren ustiapen biziagoa ekiditea.

Nekazaritza eta landa-garapen jasangarrietarako baldintza egokiak sortzeko ezinbestekoa da nazio eta nazioarte mailan nekazaritza-, ingurugiro- eta makroekonomia-politikak ongi egokitzea, garatutako herrialdeetan eta garapen bidean dauden herrialdeetan. Nekazaritza eta landa-garapen jasangarrien helburu nagusiak elikagaien produkzioa era jasangarrian areagotzea eta elikagaien segurtasuna hobetzea dira. Horrela, hezkuntzaren alorreko ekimenak jarri beharko dira martxan, pizgarri ekonomikoak erabili beharko dira eta teknologia berri eta egokiak garatu beharko dira, ondorengo bermatzeko: nutrizio aldetik egokiak diren elikagaien horniketa, talde ahulek hornigai horiek eskura izateko aukera eta merkatuetarako produkzioa; pobrezia arintzeko diru-sarreraren erabilpena eta sorrera eta, azkenik, baliabide naturalen antolaketa eta ingurugiroaren babesa.

Ezinbestekoa da zabalkuntza demografikoari erantzuteko aukera gehien ematen dituzten nekazaritzako lurren gaitasuna mantentzeko eta hobetzeko lehentasuna ematea. Hala ere, aukera gutxiago dituzten lurren baliabideak kontserbatzea eta birgaitzea ere beharrezkoa da gizakia/lurra harreman jasangarriari eusteko. Nekazaritza eta landa-garapen jasangarrien bitarteko nagusiak hauek dira: nekazaritza-politikaren erreforma eta nekazaritza-erreforma, herriaren parte-hartzea, diru-sarreraren dibertsifikazioa, lurren kontserbazioa eta sargaien kudeaketa hobea. Nekazaritza eta landa-garapen jasangarrien arrakasta neurri handi batean hainbat eragileren parte-hartzearen eta babesaren araberakoa izango da, bereziki nekazaritzako herrien, gobernuen, sektore pribatuaren eta nazioarteko lankidetzaren teknikoaren eta zientifikoaren parte-hartzearen eta babesaren araberakoa.

Atal honetako programa-arloak ondorengo dira:

- a) Nekazaritzako politikaren azterketa, planifikazio eta programazio integrala, nekazaritzaren funtzio anitzeko aldea dela eta, bereziki elikaduraren segurtasunaren eta garapen jasangarriaren inguruan;
- b) Herriak parte har dezan lortzea eta nekazaritza jasangarrirako giza baliabideen garapena sustatzea;
- c) Nekazaritza-produkzioak eta laborantza-sistemak hobetzea, nekazaritzarako erabilera eta nekazaritzarako ez den erabilera dibertsifikatuz eta azpiegituraren garapenaren bidez;
- d) Lurreko baliabideen planifikazioa eta nekazaritzarako informazioa eta hezkuntza;
- e) Lurrak kontserbatzea eta birgaitzea;
- f) Elikagaien produkzio jasangarrirako eta nekazaritzaren garapen jasangarrirako egokia den ura;
- g) Baliabide fitogenetikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria, elikagaiak produzitzeko eta nekazaritza jasangarrirako;
- h) Baliabide zoogenetikoaren kontserbazioa eta erabilera jasangarria nekazaritza jasangarrirako;
- i) Nekazaritzako izurriteen aurkako borroka integratua;
- j) Landareen elikadura jasangarria elikagaien produkzioa areagotzeko;
- k) Produktibitatea hobetzeko nekazaritza-energiarako trantsizioa;
- l) Ozono-geruza estratosferikoa kaltetzearen eraginez sortutako erradiazio ultramoreek animalien eta landareen duten eragina ebaluatzea.

Programa-arloak

A. Nekazaritzako politikaren azterketa, planifikazio eta programazio integrala, nekazaritzaren funtzio anitzeko aldea dela eta, bereziki elikaduraren segurtasunaren eta garapen jasangarriaren inguruan

Ekintzarako oinarriak:

Beharrezkoa da garapen jasangarriaren asmoak politikaren analisiarekin eta nekazaritzako planifikazioekin bat egitea, herrialde guztietan eta bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Gomendioek zuzenean plan eta programa errealistak eta operatiboak egiten lagundu beharko lukete epe ertain eta luzera; beraz, neurri zehatzak hartzen ere lagunduko lukete eta honen atzetik aplikazioak babesten eta zaintzen.

Nekazaritza eta landa-garapen jasangarrietarako politika nazionalaren esparru koherentearen falta orokorra da eta ez da garapen bidean dauden herrialdeetako kontua bakarrik. Bereziki, ekonomia aldetik planifikazio-sistematik merkatu-sistemara trantsizio-prozesuan dauden herrialdeetan esparru hori behar dute ingurugiroaren auziak jardura ekonomikoan sartzeko; horien artean nekazaritza legoke. Herrialde guztiek sakon ebaluatu beharko lituzkete politika horiek, ondorengo ataletan sortzen dituzten eraginak konpentsatzeko neurri egokiak hartu ahal izateko: elikaduraren eta nekazaritzaren sektoreen emaitzetan, elikagaien segurtasunean, nekazaritzaren ongizatean eta nazioarteko merkataritza-harremanetan. Kasu honetan, elikagaien segurtasunean garrantzi gehien duena funtsean nekazaritzaren produkzioa era jasangarrian hobetzea eta herriak bere kultur ohiturekin bat datozen nahiko elikagai eta elikagai-horniketa jasotzeko eskubidea nabarmen hobetzea da.

Erabaki politiko egokiak nazioarteko merkataritzan eta kapitalen korronteetan aplikatzea ere beharrezkoa da honakoa gainditzeko: a) ingurugiroarentzako politika sektorialek eta makroekonomiek sortzen dituzten gastuen inguruko kontzientzia falta eta, beraz, jasangarritasunarentzako bere mehatxua; b) jasangarritasunaren inguruko gaiak politikan eta programetan sartzeari buruzko kalifikazio eta esperientzia urria; eta c) analisirako eta egiaztapenerako bitartekoen egokitasun eskasa¹².

Helburuak:

Programa-arlo honetako helburuak ondorengoak dira:

- a) 1995erako, honakoa lortzeko programa aztertzea eta, hala behar izanez gero, martxan

¹² Programa-arlo honetako auzi batzuk 3. atalean (Pobreziaren aurkako borroka) daude azterturik

jartzea: ingurugiroaren garapena eta garapen jasangarria elikadura- eta nekazaritza-sektoreen politiken analisietan eta dagokien analisi-, formulazio- eta aplikazio-politiketan integratzea;

- b) Gehienez ere 1998 baino lehen, sektorearteko plan operatiboak, programak eta politikaren alorreko neurriak mantentzea eta, hala behar denean, garatzea, elikagaien ekoizpen jasangarria eta garapen jasangarriaren alorrean elikagaien segurtasuna hobetzeko;
- c) Gehienez ere 2005 baino lehen, garapen bidean dauden herrialdeen, bereziki gutxien aurreratuta dauden herrialdeen, ahalmenari eustea eta hobetzea, herrialde bakoitzak politikaren, programazioaren eta planifikazioaren alorretako jarduerak bere kasa gauzatu ditzan.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Elikadura-segurtasunari buruzko politika nazionalaren analisia egitea; analisi honen barruan, besteak beste, atal hauek sartu beharko lituzkete: elikagaien banaketaren maila egokiak eta egonkortasuna eta familia guztiek elikagaiak eskuratzeko aukera;
- b) Nazioko eta lurraldeko nekazaritza-politika aztertzea, beste gauza batzuen artean kanpo-merkataritzarekin, kanbio- eta prezio-politikekin, nekazaritzari ematen zaizkion diru-laguntzekin eta zergekin eta lurraldeko ekonomiaren integrazioarako antolaketarekin lotuta;
- c) Lurrak eskura izatean eta jabego-eskubideetan positiboki eragiteko politikak aplikatzea, ekoizpenari eusteko eta banaketa geldiarazteko beharrezkoa den lursailen gutxienerako tamaina behar bezala kontuan hartuta;
- d) Demografiaren joera eta populazioaren mugimenduak aztertzea eta nekazaritzako ekoizpenerako gune kritikoak zein diren zehaztea;
- e) Nekazaritza eta landa-garapen jasangarrietara, elikadura-segurtasunaren hobekuntzara eta nekazaritza-teknologia egokien garapenera eta transferentziara bideratutako politikak, legeak eta araudiak eta pizgarriak formulatzea, martxan jartzea eta egiaztatzea; hala behar izanez gero, teknologia egokien barruan

- nekazaritza jasangarrirako sargai baxuen sistemak sartuko lirateke;
- f) Nazio eta lurralde mailako alerta-sistema goiztiarrak babestea, elikadura-segurtasunerako laguntza-sistemen bitartez, elikagaien eskaintza eta eskaera eta familiek elikagaiak eskuratzeko dituzten aukeretan eragiten duten faktoreak kontrolatzeko;
 - g) Herri, nazio eta lurralde mailan, produktuen bilketa, biltegiatzea, lanketa, banaketa eta merkaturatzea hobetzeko politikak aztertzea;
 - h) Nekazaritza-proiektu integratuak formatzea eta gauzatzea; proiektu hauetan baliabide naturalekin harremana duten beste jarduera batzuk ere sartu beharko lirateke, esate baterako, bakoitzari dagokionaren arabera, larreen, basoen eta basoko fauna eta floraren antolaketa;
 - i) Nekazaritza jasangarriaren garapena sustatuko duten gizarte- eta ekonomia-ikerketak eta politikak bultzatzea, bereziki ekosistema ahuletan eta jende asko bizi den gunetan;
 - j) Elikagaiak eskuratzeko aukeran eragiten duten biltegiatze eta banaketa arazoak zein diren zehaztea; hala behar denean, arazo horiek gainditzeko ikerketak babestea eta ekoizleekin eta banatzaileekin elkarlanean aritzea, hobetutako jarduerak eta sistemak aplikatzeko.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Lurralde eta nazio mailan nekazaritzaren eta elikagaien inguruko alerta-sistema goiztiarrari buruzko informazioa aplikatzeko eta hobetzeko aktiboki laguntzea;
- b) Azterketak eta ikerlanak egitea, ekoizpenari eta elikagaien eta nekazaritzaren planifikazioari dagokionez baliabide naturalen egoerari buruzko erreferentziatzko informazioa eduki ahal izateko. Horren helburua ondorengoa izango litzateke: baliabide horien gaineko erabilera anitzen eraginak ebaluatzeko eta analisirako metodologiak eta bitartekoak, esate baterako ingurugiro-kontularitza, onartzea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Nazio Batuen organismoek –esaterako FAOk, Munduko Bankuak eta NGNFk–, lurralde mailako erakundeek eta alde biko erakunde emaileek eta beste erakunde batzuek, norberaren agintaldiaren barruan, gobernuekin ondorengo jardueretan elkarrekin lan eginez funtzio bana bere egin beharko lukete:

- a) Azpilurralde mailan, nekazaritza-garapen jasangarriko eta elikadura-segurtasunerako estrategia integratuak aplikatzea elikadura-segurtasuna sustatzeko. Bereziki lurralde mailako ekoizpena eta merkataritzarako aukerak –lurraldeko ekonomia integratziorako antolaketa-ko aukerak barne– erabiltzen dituzten estrategiak aplikatu beharko lirateke;
- b) Nekazaritzako garapen jasangarria lortzeko bidean eta printzipio egokiekin bateragarri izateko moduan, ingurugiroari eta garapenari, merkataritza-sistema irekiagoa eta ez diskriminazionala ezartzeari eta merkataritza-hesi justifikaezinak ez aplikatzeari buruzko nazioarteko hitzarmenak sustatzea. Honen bitartez, beste politika batzuekin batera, nekazaritza- eta ingurugiro-politikak integratzearen prozesua erraztu egingo litzateke, bata besteari babes emateko moduan;
- c) Nazio, lurralde eta nazioarte mailan sistemak eta sareak eratzea eta sendotzea nekazaritzaren eta ingurugiroaren egoeraren arteko elkarreragina hobeto ulertzeko, ekologikoki arrazionalak diren teknologiak zehazteko eta datu-iturrien, politiken eta analisirako tekniken eta bitartekoen trukea errazteko.

Aplikatzeko bitartekoak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 3.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 450 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta gobernuz kanpoko erakunde eskudunen babesarekin, elikagaien ekoizpena eta elikadura-segurtasuna, biltegiatzea, ekoizpenaren zaintza eta banaketa hobetzeko teknologiak aplikatzen lagundu beharko liekete familiei eta nekazaritza komunitateei.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Tokian tokiko ekonomistak, planifikatzaileak eta analistak erakartzea eta trebatzea, nazio eta nazioarte mailako politikak aztertzeari ekiteko eta nekazaritza-jasangarrirako esparrua finkatzeko;
- b) Emakumeak lurrak eskuratzeko aukera izan dezan neurri juridikoak hartzea eta nekazaritzaren garapenean izan behar duen parte-hartzeari buruzko aurreiritziak gainditzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, nekazaritza ministerioa, baliabide naturalak eta planifikazioa sendotu beharko lituzkete.

B. Herriak parte har dezan lortzea eta nekazaritza jasangarrirako giza baliabideen garapena sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Atal honetan politika eta baliabideen kudeaketa integratua uztartzen dira. Komunitatea baliabide batzuen menpe bizi da eta baliabide horien gainean zenbat eta kontrol handiagoa egin, orduan eta handiagoa izango da giza baliabideak garatzeko pizgarria. Era berean, gobernuek epe luzeko eta laburreko baldintzak indargabetuko lituzketen bitarteko arau-emaeleak promulgatu beharko lituzkete. Hau norbera bere kabuz aritzeko ahalmena sustatzean, lankidetzan, informazioaren horniketean eta erabiltzaileen erakundeen babesean zentratuta bideratu beharko litzateke. Honela, atal hauek nabarmendu beharko lirateke: kudeaketa-motak; baliabideen ustiapena aldatuko luketen hitzarmenak; lurraren, uraren eta basoen erabilerarekin harremana duten eskubideak eta betebeharrak; merkaturen eta prezioen funtzionamendua eta informazioa, kapitalera eta sargaietara sarbidea. Honek trebatzeko eta gaitasuna areatzeko eskatzen du garapen jasangarria lortzeko jardueretan arduraren gehiago hartu ahal izateko¹³.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Bereziki emakumeek, gazteek, herrialde indigenek, tokian tokiko komunitateek eta lur-jabe txikiek eta herriak eta herri mailako erakundeek nekazaritza eta landa-garapen jasangarrien alorretan duten parte-hartzearen garrantziaz jendearengan kontzientzia areagotzea;
- b) Nekazaritzako guneetako biztanleek –bereziki emakumeek, lur-jabe txiki diren nekazariak, lurrik gabeko baserritarrek eta herrialde indigenek– nekazaritzako eta basoko baliabideak eta baliabide hidrikoak, teknologia eta produktuen finantzazioa, merkaturatzea, lanketa eta banaketa behar bezala eskuratzeko aukera egokiak izan ditzaten arduratzea;
- c) Nekazaritzako herri mailako erakundeen barruko kudeaketa eta ahalmena eta hedapen-zerbitzuak sendotzea eta garatzea eta komunitatean oinarritzko mailan erabakiak hartzeko

¹³ Programa-arlo honetako arazo batzuk 8. atalean (Ingurugiroaren integrazioa eta erabakiak hartzeko uneko garapena) eta 38. atalean (Garapen bidean dauden herrialdeetan nazioaren gaitasuna areagotzeko nazio mailako mekanismoak eta nazioarteko lankidetzak) aipaturik daude.

gunea deszentralizatzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Nekazaritza-hedadurako zerbitzuak eta nekazaritzako zerbitzuak eta erakundeak hobetzea eta garatzea eta baliabide naturalen antolaketarako eta elikadura-segurtasuna lortzeko jarduerak gauzatzea, bizirauteko nekazaritzaren eta labore komertzialen nekazaritzaren inguruko beharrak kontuan hartuta;
- b) Lurreko, uretako eta basoko baliabideak errazago eskura daitezen lortzeko dauden neurriak aztertzea eta berriro bideratzea eta emakumeei eta talde gutxietsiei eskubideen berdintasuna bermatzea. Horretarako ahalegin berezia egin beharko litzateke nekazaritzako herrialdeetan, herrialde indigenetan eta tokian tokiko komunitateetan;
- c) Lurren eta pertsonen eta komunitateen inguruko tituluak, eskubideak eta ardurak argi esleitzea, nekazaritzako baliabideetan inbertsioak sustatzeko;
- d) Nekazaritzaren garapenerako deszentralizazio-politiken inguruko arauak sortzea, nekazaritzako erakundeak berrantolatuz eta sendotuz;
- e) Hedatzearen, trebatzearen, prezioak finkatzearen, sargaiak banatzearen, kredituaren eta zerga-ordainketen inguruko politikak lantzea, beharrezkoak diren pizgarriak sortzeko eta pobreek produkzioa laguntzeko zerbitzuak eskura izateko;
- f) Babes- eta trebakuntza-zerbitzuak eskaintzea ondorengo kontuan hartuta: baldintzen aldaera eta lekuaren araberako nekazaritza-jarduerak; tokian tokiko nekazaritzako sargaien erabilera egokia eta kanpoko sargaien ahalik eta erabilera txikiena; tokian tokiko baliabide naturalen ahalik eta erabilera handiena eta energia-iturri berriztagarrien kudeaketa eta, azkenik, nekazaritza mota desberdinei buruzko informazioa trukatzeko sistemen ezarpena.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo gai hauei buruzko informazioa bildu, aztertu eta banatu beharko lukete: giza baliabideak, gobernuen zeregina, gizartearen berrikuntzaren barruan tokian tokiko komunitateak eta gobernu kanpoko erakundeak eta nekazaritzaren garapenerako estrategiak.

c) Nazioarte eta lurralde mailan lankidetzaren eta koordinazioa:

Nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Gobernu kanpoko erakundeekin egiten dituzten jarduerak sendotzea ondorengoa lortzeko: herriaren parte-hartzeari eta herri mailako erakundeei buruzko informazioa biltzea eta hedatzea, garapen parte-hartzaileko metodoak probatzea, giza baliabideen garapenerako formazioa eta hezkuntza bultzatzea eta nekazaritzako erakundeen kudeaketa-egiturak sendotzea;
- b) Eskuratzeko moduan dagoen informazioa gobernu kanpoko erakunde bidez zabaltzen laguntzea eta nazioarteko nekazaritza-sare ekologikoa sustatzea, balio ekologikoa duten nekazaritza-moduen aplikazioa eta garapena bizkortzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 4.400 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 650 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuak ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berriazko programen araberrakoa izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Herriak garapenean eta nekazaritzako teknologien transferentzian parte har dezan bizkortzea, tokian tokiko jarduera eta ezagutza ekologikoak gehituz;
- b) Partaidetza-moduen, kudeaketa-estrategien eta tokian tokiko erakundeen inguruko ikerketa aplikatuen programak egitea.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, administratzaile publikoei eta baliabideen erabiltzaile-taldeetako kideei heziketa teknikoa eta kudeaketari buruzkoa eman beharko liekete, herriak nekazaritzaren garapenean duen parte-hartzearen printzipioen, moduen eta onuraren inguruan.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, kudeaketa-estrategiak eta -mekanismoak eta kontabilitateko eta kontu-ikuskaritzako zerbitzuak jarri beharko lituzkete martxan, nekazaritzako herri mailako erakundeentzako eta giza baliabideen garapenerako erakundeentzako. Horrez gain, erabakiak hartzeko, diru-sarrerak lortzeko eta gastuetarako ardua administratiboak eta finantza-arduerak herri mailako agintarien esku utzi beharko lituzkete.

C. Nekazaritza-produkzioak eta laborantza-sistemak hobetzea, nekazaritzarako erabilera eta nekazaritzarako ez den erabilera dibertsifikatuz eta azpiegituraren garapenaren bidez

Ekintzarako oinarriak:

Ezinbestekoa da nekazaritzako produkzioa biziagotzea oinarrizko produktuen etorkizuneko eskaerari erantzuteko eta bazterreko lurretara hedatzea eta ekosistema hauskorak hartzea ekiditeko. Ingurugiroko tentsioengatik eta merkatuetako gorabeherengatik zaugarritasuna areagotzen ari da, izan ere, kanpoko sargaien erabilera hazten ari da eta produkzio- eta laborantza-sistema espezializatuak garatzen ari dira. Beraz, ezinbestekoa da ekoizpen-sistemen dibertsifikazioaren bidez nekazaritzako ekoizpena areagotzea, tokian tokiko baliabideak erabiltzeko garaian ahalik eta eragingarritasun gehien lortzeko eta, era berean, ingurugiroko arriskuak eta arrisku ekonomikoak gutxienekora murrizteko. Nekazaritzako ustiapen-sistemen aplikazioa areagotu ezin daitekeen kasuetan, erabilerako beste aukera batzuk zehaztu eta garatu litezke, nekazaritzako ustiapenen barruan eta ustiapenetatik kanpo. Esate baterako aukerak hauek izan daitezke: familia-industria; basoko floraren eta faunaren ustiapena; akuakultura; arrantza-tokiak eta nekazaritzarekin zerikusirik ez duten jarduerak, adibidez herrixketan industria arineko produktuen fabrikazioa; nekazaritzako produktuen eraldaketa; agroindustria; olgeta-jarduerak eta turismoa.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Nekazaritza-produktibitatea era jasangarrian hobetzea; dibertsifikazioa, eragingarritasuna, elikadura-segurtasuna eta nekazaritzako diru-sarrerak areagotzea eta, era berean, ekosistemarentzat kaltegarriak diren arriskuak ahalik eta gehien gutxitu daitezen arduratzea;
- b) Nekazariak beren kasa moldatzeko ahalmena areagotzea, nekazaritzaren azpiegitura garatzeko eta hobetzeko eta nekazaritzako produkzio- eta ustiapen-sistema integratueterako ekologikoki arrazoizkoak diren teknologien transferentzia errazteko. Teknologia horien artean ondorengoak sartuko lirateke: tokian tokiko teknologiak eta prozesu biologiko eta ekologikoen ustiapen jasangarriko teknologiak; azken hauen barruan egongo lirateke agrosilbikultura, basoko fauna eta floraren kontserbazio eta antolaketa jasangarria, akuakultura, barruko uretako arrantza eta zooteknia;
- c) Nekazaritzaren alorrean eta alor horretatik kanpo lanerako aukerak sortzea, bereziki

behartsuentzako eta bazterreko inguruetan bizi diren biztanleentzako, beste gauza batzuen artean lur lehorretan irauteko aukerako proposamenak kontuan hartuta.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Nekazaritzaren sektorearen familien artean nekazaritza-kudeaketako teknologia integratuak garatzea eta hedatzea. Esate baterako teknologia hauek garatzea eta hedatzea: laboreen txandaketa, ongari organikoen erabilera eta produktu agrokimikoak gutxiago erabiltzen dituzten beste teknika batzuk eta elikagai-iturriak ustiatzeko eta kanpoko sargaiak eraginkortasunez erabiltzeko teknikak. Era berean, hondakinak eta azpi produktuak erabiltzeko eta uzten aurretik eta ondoren izango dituzten galerak aurreikusteko teknikak hobetu beharko lituzkete. Atal honetan, bereziki, emakumearen lana kontuan hartu beharko litzateke;
- b) Nekazaritzaren alorretik kanpo lanerako aukerak sortzea, nekazaritza-prozesatzeko unitate pribatu txikien, nekazaritza-zerbitzuetarako zentroen eta azpiegitura konexuak hobetzearen bidez;
- c) Herri mailan lortutako inbertsio-kapitalen baliabideak erabiltzen dituzten nekazaritzako finantza-sareak sustatzea eta hobetzea;
- d) Sargaiak eta nekazaritza-zerbitzuak eskuratzeko eta nazio eta herri mailako merkatuetara erraz sartzeko beharrezkoa den nekazaritzako-azpiegitura ematea eta elikagaien galerak gutxitzea;
- e) Nekazaritzako azterketak, teknologia egokien proba praktikoak eta nekazaritzako komunitateekin elkarrizketak martxan jartzea eta jarduera hauei eustea, zailtasunak eta oztopoak zein diren jakiteko eta konponbidea aurkitzeko;
- f) Nekazaritza eta silbikultura alorretako eta baliabide hidrikoen eta arrantza-tokien alorretako jardueren integrazio ekonomikorako aukerak aztertzea eta zehaztea. Gainera, baliabideak ustiatzeko modu gisa, basoen antolaketa bizkortzeko eta nekazariak (nekazaritza-silbikultura) zuhaitzak landatzeko beharrezkoak diren neurri eragingarriak hartzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Berrikuntza teknikoek eta pizgarriek familien diru-sarreran eta nekazarien ongizatean dituzten ondorioak aztertzea;
- b) Nekazaritzakoak diren eta ez diren programak martxan jartzea eta sostengatzea, tokian tokiko ezagutzak biltzeko eta erregistratzeko.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailan:

Nazioarteko erakundeek –esaterako FAOk–, NGNFk, nekazaritzako nazioarteko ikerketazentrotan –esaterako GCIAlk– eta lurralde mailako zentrotan munduko agroekologia-sistema nagusiak ebaluatu beharko lituzkete eta, horrez gain, beren hedadura, ezaugarri ekologikoak eta sozioekonomikoak, hondatzeko dagoen aukera eta bere produktiorako potentziala ere ebaluatu beharko lituzke. Horrek teknologien garapenerako eta trukerako eta ikerketen inguruko lurraldeko lankidetzarako oinarri gisa balio dezake.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 10.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 1.500 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berriazko programen araberrakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo ikerketa-sistemak sendotu beharko lituzkete: alde batetik, ezaugarri berezi eta agroekologiko desberdineko guneak dituzten lurraldeetako

nekazaritza-produkzioaz arduratzen direnak; bestetik, areagotzearen, dibertsifikazioaren eta barruko eta kanpoko sargai maila desberdinen analisi konparatiboak barne hartzen dituztenak.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Eskolatzeko akademikoaren eta ez akademikoaren bidez, nekazarien eta nekazaritzako komunitateen hezkuntza- eta lanbide-heziketa sustatzea;
- b) Nekazaritza-zerbitzuen tekniken eta eskala txikian nekazaritzako prozedura-tekniken alorretan, enpresaburuei, gerenteei, bankariei eta merkatariei zuzendutako kontzientzia hartzeko eta trebatzeko programak martxan jartzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Antolatzeko beren ahalmena hobetzea, nekazaritzarekin harremana ez duten jardueren eta nekazaritzako industriaren garapenaren inguruko auziez eztabaidatzeko;
- b) Kreditu-zerbitzuak eta nekazaritzako azpiegiturak hedatzea, produktuen lanketarekin, garraioarekin eta merkaturatzearekin harremanetan.

D. Lurreko baliabideen planifikazioa eta nekazaritzarako informazioa eta hezkuntza

Ekintzarako oinarriak:

Lurzoruaren ustiapen irrazionala eta kontrolik gabea lurreko baliabideen degradazioaren eta pobretzearen arrazoi nagusietako bat da. Gaur egun lurrari ematen zaion erabilerak ez ditu aintzat hartzen benetako aukerak, sostengurako oinarriak, lurren baliabideen mugak eta espazioan duen aniztasuna. Egun munduan 5.400 milioi biztanle bizi dira eta mende amaierarako 6.250 milioi izango direla kalkulatu da. Hazten ari den populazioaren beharrei erantzuteko elikagaien ekoizpena areagotzeko beharrak izugarri handiagotuko du baliabide natural guztien gain –lurreko baliabideak barne– egiten den presioa.

Pobrezia eta desnutrizioa endemikoak dira lurralde askotan.

Nekazaritzako eta ingurugiroko baliabideen suntsiketa eta degradazioa arazo larriak dira. Baliabide hidrikoen eta lurreko baliabideen ekoizpena areagotzeko eta kontserbatzeko teknikak erabiltzen dira dagoeneko, baina ez dira aplikatzen era zabalean eta sistematikoan. Lur bakoitzean eta gune klimatiko bakoitzean jasangarriak diren produkzio-sistemak eta lurraren erabilerak zein diren zehazten lagunduko duen ikuspegi sistematikoa behar da; horrez gain, ikuspegi horren barruan ikuspegi hori aplikatzeko beharrezkoak diren mekanismo ekonomikoak, sozialak eta instituzionalak sartu beharko lirateke¹⁴.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak hauek dira:

- a) Planifikazio-prozedurak bateratzea, nekazariak planifikazio-prozesuan parte har dezaten lortzea, lurren baliabideei buruzko datuak biltzea, datu-baseak sortzea eta martxan jartzea, antzeko ahalmena duten lurren guneak definitzea eta baliabideen ustiapen eragingarria eta ekologikoki arrazionala sustatzen dituzten mekanismoak sortzeko kontuan hartu behar diren baliabideen inguruko arazoak eta balioak zehaztea;
- b) Nazio eta herri mailan nekazaritzako planifikaziorako erakundeak sortzea lehentasunak finkatzeaz, baliabideak bideratzeaz eta programak gauzatzeaz ardura daitezen.

¹⁴ Atal honetako gai batzuk 10. atalean (Lurreko baliabideak planifikatzeko eta antolatzeke ikuspegi integratua) daude aztertuta.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Nazio eta herri mailan, nekazaritzako lurren eta lurreko baliabideen erabileraren inguruko planifikaziorako, antolaketarako, heziketarako eta informaziorako jarduerak sortzea eta sendotzea;
- b) Barruti eta herrixka mailan nekazaritzako lurretako baliabideen planifikaziorako, antolaketarako eta kontserbaziorako taldeak sortzea eta talde horiei eustea, arazoak zehazten, konponbide teknikoak eta kudeaketako konponbideak lantzen eta proiektuak gauzatzen laguntzeko.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin behar lukete:

- a) Ahal den neurrian ondorengoari buruzko informazioa biltzea, etengabe behatzea, eguneratzea eta hedatzea: alde batetik, baliabide naturalen ustiapena eta bizi-baldintzak, klima, faktore hidrikoak eta lurrarekin harremana duten faktoreak; eta, bestetik, lurraren erabilera, landare-estalkiaren eta animalia espezieen banaketa, basoko landareen erabilera, produkzio-sistemak eta beren errendimendua, gastuak eta prezioak eta nekazaritzako lurren eta lur hauen ondokoen erabileran eragina duten alde soziala eta kulturala;
- b) Informazioa zabaltzeko, eztabaidak sustatzeko eta kudeaketa-taldeen trebakuntza suspertzeko programak martxan jartzea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Nazio Batuetako organismoek eta lurraldeetako erakunde eskudunek ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Nazioarteko, lurraldeko eta azpilurraldeko lan-talde teknikoak sendotzea edo talde berriak sortzea. Talde hauei espresuki ondorengoa sustatzeko jarritako mandatuak eta

aurrekontuak esleitu beharko litzaizkieke: nekazaritzako lurren baliabideen ustiapen integratua, planifikazioa, datuen bilketa, ekoizpenaren simulazio-ereduen hedapena eta alor honi buruzko informazioaren hedapena;

- b) Nazioarte mailan onargarriak diren metodologiak sortzea, datu-baseak ezartzeko, lurren erabilera deskribatzeko eta era askotako helburuak optimizatzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 1.700 milioi dolarreko izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 250 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Datu-baseak eta geografiako informazio-sistemak sortzea. Informazio horrek honetarako aukera eman behar du: nekazaritzaren inguruko informazio fisikoa, soziala eta ekonomikoa biltegitatzeko eta nabarmentzeko eta gune ekologikoak eta garapenerako guneak definitzeko;
- b) Lurren unitateentzako produkzio-sistemen eta lur egokien erabileraren konbinazioak aukeratzea, era askotako helburuen optimizazio-prozeduren bidez, eta horniketa-sistemak eta tokian tokiko komunitateen parte-hartzea sendotzea;
- c) Arro hidrografikoen eta landutako azalaren alorretan planifikazio integratua sustatzea lurren galera gutxitzeko eta gainazaleko eta lur azpiko baliabide hidrikoak kutsadura kimikotik babesteko.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Nazio, barruti eta herrixka mailan profesionalak eta planifikazio-taldeak trebatzea, ikastaro akademikoen eta ez akademikoen, bidaien eta elkarreraginaren bidez;
- b) Nekazaritzako lurren erabilerarekin eta antolaketarekin harremana duten politikari, garapenari eta ingurugiroari buruzko auzien inguruan, alor guztietan eztabaidak sortzea, komunikabideen, hitzaldien eta mintegien programen bidez.

d) Gauzatzeko bideak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Nazio, barruti eta herrixka mailan, lurren baliabideen kartografia- eta planifikazio-unitateak sortzea, erakundeen eta diziplinen artean eta gobernuen eta pertsonen artean lotura eta koordinazio-puntu gisa balio dezaten;
- b) Gobernuko eta nazioarteko erakundeak sortzea eta sendotzea, nekazaritzako baliabideen ikerketaz, antolaketaz eta ustiapenez arduratzeko. Horrez gain, esparru juridikoa arrazionalizatzea eta sendotzea eta ekipo eta laguntza teknikoa eskaintzea.

E. Lurrak kontserbatzea eta birgaitzea

Ekintzarako oinarriak:

Lurren degradazioa garatutako herrialde askok eta garapen bidean dauden herrialde askok aurre egin beharreko ingurugiro-arazo garrantzitsuena da. Lurren higadura nahiko arazo larria da garapen bidean dauden herrialdeetan eta, bestalde, gatzitzea, uholdeak, lurzorua kutsadura eta lurren emankortasunaren galera areagotzen ari dira herrialde guztietan. Lurren degradazioa larria da, populazioa handitzen ari den unean eta elikagai, zuntz eta erregai gehiago ekoizteko lurren eskaera areagotzen ari den unean gune handien produktibitatea gutxitzen ari delako. Lurren degradazioaren aurka borroka egiteko hedatutako ahaleginek arrakasta mugatua izan dute orain arte, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Nazio eta lurralde mailan lurrak kontserbatzeko eta birgaitzeko programak behar dira, behar bezala eta epe luzera begira sortutakoak, eta, horrez gain, programarekin batera babes politiko segurua eta finantzazio egokia behar da. Lurren erabileraren planifikazioak eta bere zonifikazioak degradazioaren arazoari erantzuteko ekarpenak egin beharko lituzketen arren, berehala geldiarazi behar dira eta kontserbazio- eta birgaitze-programak jarri behar dira martxan gehien kaltetutako guneetan eta gune ahulenetan.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) 2000 urterako, dagokionaren arabera, lurreko baliabideei buruzko azterketa nazionalak martxan jartzea edo aztertzea. Azterketa hauetan atal hauei buruzko xehetasunak ere sartuko lirateke: lekua, hedadura eta lurren degradazio-maila;
- b) Programa eta politika zabalak prestatzea eta martxan jartzea ondorengoa lortzeko: degradatutako lurrak berreskuratzeko; arriskutan dauden guneak kontserbatzeko; lurren baliabideen planifikazio orokorra, antolaketa eta ustiapena hobetzeko eta nekazaritzaren garapen jasangarria lortzeko lurren emankortasuna kontserbatzeko.

Jarduerak:

a) Gauzatzeko bideak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Alde batetik, lurren degradazioaren arrazoi fisikoak, sozialak eta ekonomikoak eta, bestetik, lurren antolaketa ezegokia eragiten dituzten lurrak eskuratzeko erregimena, merkataritza-sistema ezegokiak eta nekazaritzako prezioak finkatzeko sistemak ezabatzeko eta konpontzeko programak lantzea eta gauzatzea;
- b) Pizgarriak eta, hala behar denean eta ahal denean, baliabideak ematea, tokian tokiko komunitateek lurrak kontserbatzeko eta birsortzeko beren programak planifikatzen, gauzatzen eta mantentzen parte har dezaten;
- c) Gatzitzeak eta uholdeek degradatutako lurrak birgaitzeko programak prestatzea eta gauzatzea;
- d) Nekazaritzarako bideratuta era jasangarrian ustiatzeko aukera duten landu gabeko lurren etengabeko aprobetxamendurako programak prestatzea eta gauzatzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Aldian-aldean ikerketak egitea, beren lurren baliabideen hedadura eta egoera ebaluatzeko;
- b) Lurreko baliabideei buruzko datu-base nazionalak sortzea eta daudenak sendotzea. Datu-base hauetan zein lur dauden degradatuta, zein hedadura duten eta larritasuna zenbaterainokoa den eta arriskua duten guneak zein diren adierazi beharko da. Horrez gain, datu-basearekin harremanetan martxan jarritako kontserbazio- eta birgaitze-programen gorabeherak ebaluatzea;
- c) Tokian tokiko kontserbazio- eta birgaitze-jarduerei eta nekazaritzako ustiapen-sistemei buruzko informazioa biltzea eta kontserbatzea. Informazio honek ikerketa- eta hedatze-programentzako oinarri gisa balio beharko luke.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailan:

Nazio Batuetako organismoek, lurraldeko erakundeek eta gobernu kanpoko erakunde eskudunek ondorengoa egin behar lukete:

- a) Lehentasuna duten kontserbazio- eta birgaitze-programak prestatzea. Programa hauen barruan gobernuari eta lurralde mailako erakundeari aholkularitza emateko zerbitzuek egon beharko lukete;

- b) Lurralde eta azpilurralde mailan sareak ezartzea, zientzialariek eta teknikariek esperientzia trukatzeko aukera izan dezaten, programak guztien artean egin ditzaten eta lurren kontserbazioari eta birgaitzeari buruzko teknologien artean arrakasta izan dutenak hedatu ditzaten.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 5.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 800 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, baserriko familiez osatutako komunitateei leku bakoitzerako egokiak diren nekazaritzako ustiapenerako teknologiak eta sistemak ikertzen eta sustatzen lagundu beharko liekete. Teknologia eta sistema horiek, era berean, lurrak kontserbatzen eta birgaitzen eta nekazaritzako produkzioa –besteak beste kontserbazioari zuzendutako agrosilbikultura, terrazetako laborantza eta laborantza mistoa– areagotzen lagundu behar lukete.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, langileei lursailei buruzko trebakuntza eta lurren erabiltzaileei kontserbaziorako eta birgaitzeko tokian tokiko tekniken eta teknika modernoan erabilerari buruzko trebakuntza eman behar liekete. Horrez gain, hedapen lanak gauzatzen dituzten langileentzako eta lurren erabiltzaileentzako prestakuntza-zentroak sortu beharko lituzkete.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Ikerketa-erakunde nazionalen gaitasuna garatzea eta sendotzea, lurren erabiltzaileen baldintza fisikoentzako eta sozioekonomikoentzako egokiak diren kontserbazio- eta birgaitze-jarduera eragingarriak zehazteko eta aplikatzeko;
- b) Lurrak kontserbatzeko eta birgaitzeko politika, estrategia eta programa guztiak martxan dauden programa konexuekin, ingurugiroan eragiteko ekintza-programa nazionalekin, oihan tropikaletako ekintza-planarekin eta garapenerako programa nazionalekin batera koordinatzea.

F. Elikagaien produkzio jasangarrirako eta nekazaritzaren garapen jasangarrirako egokia den ura

Programa-arlo hau 18. ataleko (Ur gezatako baliabideen horniketa eta kalitatea babestea) zatia da.

15. ATALA: Aniztasun biologikoaren kontserbazioa

Sarrera

Agenda 21eko atal honetako helburuen eta jardueren xedeak aniztasun biologikoaren kontserbazioa hobetzea, baliabide biologikoak era jasangarrian erabiltzea eta Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena babestea dira.

Gure planetako funtsezko ondasunak eta zerbitzuak geneen, espezieen, populazioaren eta ekosistemen aniztasunaren eta aldakortasunaren arabekoak dira. Baliabide biologikoei esker elikatzen eta janzten gara eta baliabide hauek ostatua, botikak eta sostengu espirituala ematen dizkigute. Basoetako, sabanetako, belardietako eta larreetako, basamortuetako, tundretako, ibaietako, aintziretako eta itsasoetako ekosistema naturaletan dago Lurreko biodibertsitate zatirik handiena. Nekazarien lurrak eta lorategiak ere oso garrantzitsuak dira erreserba gisa; bestalde, gene-bankuek, lorategi botanikoez, parke zoologikoez eta beste hozi-plasma erreserbek ere ekarpen txiki baina garrantzitsuak egiten dituzte. Gaur egungo biodibertsitatearen pobretzea hein handi batean giza jardueraren emaitza da eta giza garapenarentzako mehatxu larria da.

Programa-arloak

Aniztasun biologikoaren kontserbazioa

Ekintzarako oinarriak:

Azken 20 urteotan ahalegin handia egin den arren, munduko aniztasun biologikoa galtzeko prozesua ez da eten, batez ere habitaten suntsiketarengatik, gehiegizko laborantzarengatik eta kutsadurarengatik eta kanpoko landareak eta animaliak era eta gune ezegokian kokatu direlako. Baliabide biologikoez etekin jasangarrien errendimendu potentzial handia duen kapitala osatzen dute. Ezinbestekoa da lehenbailehen neurriak hartzea geneak, espezieak eta ekosistemak kontserbatzeko eta mantentzeko, baliabide biologikoak era jasangarrian antolatzeko eta erabiltzeko. Nazio eta nazioarte mailan biodibertsitatearen ebaluazio, azterketa eta behaketa sistematikorako gaitasuna sendotu egin behar da. Ekintza nazionala eta nazioarteko lankidetzara eragingarriak behar dira ekosistemak in situ babesteko, baliabide genetikoak eta biologikoak ex situ kontserbatzeko eta ekosistemen funtzioak hobetzeko. Tokian tokiko komunitateen parte-hartzea eta babesa ezinbestekoak dira helburu honek arrakasta izan dezan. Bioteknologiaren egungo aurrerapenak nekazaritzarentzako, osasunarentzako,

ongizatearentzako eta ingurugiroko helburuak betetzeko landareetako, animalietako eta mikroorganismoetako material genetikoak duen gaitasun potentziala nabarmendu egin dute. Era berean, testuinguru honetan bereziki nabarmendu behar da estatuek eskubide subiranoa dutela beren ingurugiro-politikekin bat beren baliabide biologikoak ustiatzeko; halaber beren biodibertsitatea kontserbatzeaz, beren baliabideak era jasangarrian erabiltzeaz eta beren jurisdikziopean edo kontrolpean egiten diren jarduera guztiek jurisdikzio nazionalaren mugetatik kanpo dauden guneetako edo beste estatuetakoa biodibertsitate biologikoan kalterik ez eragiteaz arduratu behar dute.

Helburuak:

Gobernuek, dagokien mailan eta Nazio Batuen organismoen babesarekin; lurraldeko, gobernuarteko eta gobernuz kanpoko erakunde eskudunen babesarekin eta sektore pribatuaren eta finantza-erakundeen babesarekin, herrialde indigenak eta beren komunitateak eta faktore sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta, ondorengoak egin beharko lukete:

- a) Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena berehala indarrean jar dadin presio egitea, ahalik eta parte-hartzerik zabalena;
- b) Nazio mailan estrategiak lantzea, aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta baliabide biologikoen erabilera jasangarrirako;
- c) Garapenerako nazio mailako estrategietan eta planetan aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta baliabide biologikoen erabilera jasangarrirako estrategiak sartzea;
- d) Ikerketen eta garapenaren, baliabide biologikoen eta genetikoen erabileraren eta bioteknologiaren etekin nagusiak baliabide horien iturrien eta erabiltzen dituzten artean era zuzenean banatzeko neurri egokiak hartzea;
- e) Herrialdeko ikerketak egitea, behar denaren arabera, aniztasun biologikoaren kontserbazioari buruz eta baliabide biologikoen erabilera jasangarriari buruz. Horrez gain, gastuen eta etekinen analisiak egitea; puntu honetan alde sozioekonomikoei erreferentzia berezia egin behar zaie;
- f) Mundu mailan aldizka biodibertsitateari buruzko txostenak prestatzea eta eguneratzea, ebaluazio nazionaletan oinarrituta;
- g) Herrialde indigenek eta beren komunitateek baliabide biologikoak era jasangarrian erabiltzeko eta aniztasun biologikoa kontserbatzeko erabiltzen dituzten metodo eta

ezagutza tradizionalak aztertzea eta sustatzea eta bereziki emakumearen funtzioa nabarmentzea. Horrez gain, talde horiei metodo eta ezagutza tradizionalen erabileraren etekin ekonomiko eta komertzial nagusietan parte hartzeko aukera ematea¹⁵;

- h) Bioteknologiaren hobekuntzarako, eraketarako, garapenerako eta erabilera jasangarrirako eta kalterik egin gabe bere transferentziarako –bereziki garapen bidean dauden herrialdeetara transferitzeko– mekanismoak martxan jartzea, bioteknologiak aniztasun biologikoaren kontserbazioari eta baliabide biologikoen erabilera jasangarriari egiten dien ekarpen potentziala kontuan hartuta¹⁶;
- i) Nazioarte eta lurralde mailan lankidetzazabalagoa sustatzea, biodibertsitateak eta ekosisteman dituen funtzioek duten garrantzia zientziaren eta ekonomiaren aldetik uler daitezzen sustatzeko;
- j) Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmenean definitzen den moduan, baliabide genetikoaren jatorrizko herrialdeek edo baliabide genetikoak ematen dituzten herrialdeek, bereziki garapen bidean daudenek, garapen bioteknologikoaren eta baliabide horietatik eratorritako produktuen erabilera komertzialaren etekinak eskuratzeko dituzten eskubideak martxan jartzeko neurriak eta xedapenak prestatzea^{17, 18}.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek dagokien mailan; politika eta jarduera nazionalekin bat; Nazio Batuen organismo eskudunen lankidetzarekin eta, hala behar denean, gobernuarteko erakundeen lankidetzarekin; herrialde indigenen eta beren komunitateen, gobernu kanpoko erakundeen eta beste talde batzuen babesarekin, merkataritza- eta zientzia-elkarteak barne, eta nazioarteko eskubidearen arabera, hala behar denean, ondorengoa egin beharko lukete:

¹⁵ Ikus 26. atala (Herrialde indigenen eta beren komunitateen zeregina onartzea eta sendotzea) eta 24. atala (Garapen jasangarria eta zuzena lortzeko, emakumearen mesedetan mundu mailan neurriak hartzea).

¹⁶ Ikus 16. atala (Bioteknologiaren kudeaketa ekologikoki arrazionala).

¹⁷ Ikus 16. atala (Bioteknologiaren kudeaketa ekologikoki arrazionala).

¹⁸ Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmeneko 2. artikuluan (Erabilitako hitzak) bi definizio hauek ematen dira: "Baliabide genetikoaren jatorrizko herrialdea'z ari garenean baliabide genetiko horiek in situ baldintzetan dituen herrialdeaz ari gara. 'Baliabide genetikoak ematen dituen herrialdea'z ari garenean in situ –basoko espezieen eta espezie etxekotuen populazioak barne– eta ex situ –jatorriz herrialde horretakoak izan ala ez izan– iturrietatik eskuratutako baliabide genetikoak ematen dituen herrialdeaz ari gara."

- a) Ekintza-estrategia, -plan edo -programa berriak lantzea, aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta baliabide biologikoak era jasangarrian erabiltzeko, beharrezkoa den hezkuntza- eta trebakuntza-lana kontuan hartuta¹⁹;
- b) Sektoreen eta trantsektoreen planetan, programetan eta politiketan aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta baliabide biologikoak eta genetikoak era jasangarrian erabiltzeko estrategiak gehitzea; puntu honetan bereziki nekazaritzarako eta elikadurarako lurreko eta uretako baliabide biologikoen eta genetikoaren garrantzi berezia nabarmendu behar da²⁰;
- c) Alde batetik, herrialdeko ikerketak egitea; bestetik, aniztasun biologikoaren kontserbaziorako edo baliabide biologikoen erabilera jasangarrirako garrantzitsuak diren aniztasun biologikoaren osagaiak ezagutzeko, aniztasun biologikoan ondorio garrantzitsuak dituzten jarduerak eta prozesuak aztertzeko eta aniztasun biologikoaren kontserbazioaren eta baliabide biologikoen eta genetikoaren erabilera jasangarriaren ondorio ekonomiko potentzialak ebaluatzeko beste metodo batzuk erabiltzea eta, azkenik, lehenetsia duten neurriak proposatzea;
- d) Sektore ekonomikoan eta sozialean eta beste sektore batzuetan pizgarri eragingarriak diren neurriak hartzea, aniztasun biologikoaren kontserbazioa, baliabide biologikoen erabilera jasangarria eta ekoizpen-sistema jasangarriak sustatzeko; esate baterako, biodibertsitatea erabiltzen, mantentzen edo areagotzen duten nekazaritzako, agrosilbikulturako, silbikulturako eta larreen eta basoko floraren eta faunaren antolaketa-erakunde metodo tradizionalak sustatzeko²¹;
- e) Legeria nazionalari kalterik egin gabe, aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta baliabide biologikoen erabilera jasangarria izateko bizimodu tradizionalen isla diren komunitate indigenen eta tokian tokiko komunitateen ezagutzak, berrikuntzak eta jarduerak errespetatzeko, erregistratzeko, babesteko eta aplikatzeko laguntzeko neurriak hartzea. Hori lortzeko etekinetan parte-hartze bidezkoa eta zuzena lortzeko egin beharko litzateke. Horrez gain, komunitate

¹⁹ Ikus 36. atala (Heziketa, trebakuntza eta kontzientzi hartzea sustatzea).

²⁰ Ikus 14. atala (Nekazaritza eta landa-garapen jasangarriak sustatzea) eta 11. atala (Baso-soiltzearen aurkako borroka).

²¹ Ikus 14. atala (Nekazaritza eta landa-garapen jasangarriak sustatzea) eta 11. atala (Baso-soiltzearen aurkako borroka).

horiek, emakumeak barne, ekosistemen kontserbazioan eta kudeaketan parte hartzeko mekanismoak sor ditzaten sustatzea²²;

- f) Epe luzera, ekosistemek funtzionatzeko biodibertsitateak duen garrantziari eta ondasunen produkzioan, ingurugiro-zerbitzuetan eta garapen jasangarriari laguntzen dioten beste balio batzuetan ekosistemek duten funtzioari buruzko ikerketak egitea; horretarako kasu berezia egin behar zaie biologiari eta lurreko eta uretako funtsezko espezieen erreproduzitzeko gaitasunari. Horien artean hauek egongo lirateke: tokian tokiko espezieak eta kultibatutako espezieak; behatzeko eta inbentarioak egiteko teknika berriak; biodibertsitatea kontserbatzeko eta garapenak aurrera egiteko beharrezkoak diren baldintza ekologikoak eta ekosistema naturalen menpe dauden elikadura-ohiturak eta gizartearen jokaera. Lan hauek guztiak herrialde indigenen eta beren komunitateen, bereziki emakumeen, ahalik eta parte-hartzerik zabalenaekin egin beharko lirateke²³;
- g) Beharrezkoa denean, ondorengoa lortzeko neurriak hartzea: batetik, ekosistemak, habitat naturalak, aukeraketaren bidez lortutako barietate primitiboak eta eurekin ahaidetutako basoko barietateak in situ kontserbatuz aniztasun biologikoa kontserbatzeko; eta, bestetik, beren inguru naturalean espezie bizigaiak mantentzeko eta indartzeko. Horrez gain, ex situ neurriak hartzea, ahal izanez gero jatorrizko herrialdean. In situ neurrien barruan babestutako lurreko, itsasoko eta uretako eremuen sistemak indartzea sartu beharko litzateke, bereziki guneha ahul zingiratsuak, ur geza izan ala ez izan, eta urertzeko ekosistemak –estuariokoak, koralezko arrezifeak eta mangladiak– mantentzeko²⁴;
- h) Kaltetutako ekosistemen berritzea eta berriztapena eta mehatxaturik edo arriskuan dauden espezieen berreskuratzea sustatzea;
- i) Jabetza pribatuko lurretan biodibertsitatearen kontserbazioa eta baliabide biologikoen eta genetikoaren erabilera jasangarria sustatzeko politikak formulatzea;

²² Ikus 26. atala (Herrialde indigenen eta beren komunitateen zeregina onartzea eta sendotzea) eta 24. atala (Garapen jasangarria eta zuzena lortzeko, emakumearen mesedetan mundu mailan neurriak hartzea).

²³ Ikus 26. atala (Herrialde indigenen eta beren komunitateen zeregina onartzea eta sendotzea) eta 24. atala (Garapen jasangarria eta zuzena lortzeko, emakumearen mesedetan mundu mailan neurriak hartzea).

²⁴ Ikus 17. atala (Ozeanoen eta mota guztietako itsasoaren –itsaso itxiak eta erdi itxiak barne– eta kostaldeko guneen babesa eta bertako baliabide bizidunen babesa, arazoizko erabilera eta garapena).

- j) Garapen ekologikoki arrazionala eta jasangarria sustatzea, babestutako guneen inguruko lurretan, gune hauen babesa sendotzeko;
- k) Prozedura egokiak onartzea, proposatutako proiektuek ingurugiroan sor ditzaketen kalteak ebaluatzeko, aniztasun biologikoari kalte nabarmenak eragingo dizkiela aurreikusi den kasuetan; horretarako, dagoen informazioa eskuragarriago izateko eta, hala behar denean, jendeak parte hatzeko neurriak hartuz. Horrez gain, aniztasun biologikoari buruzko politiken eta programen ondorioen ebaluazioa sustatzea;
- l) Hala behar denean, maila egokian, baliabide biologikoekin harremana duten inbentario-sistema nazionalak, araudiak edo kudeaketa eta kontrola ezar eta hobe daitezen sustatzea;
- m) Bere osagaietan eta ekosistemei emandako zerbitzuetan agertutako aniztasun biologikoaren balioa gehiago ulertu eta hauteman dadin bultzatzeko neurriak hartzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek dagokien mailan; politika eta jarduera nazionalekin bat; Nazio Batuen organismo eskudunen lankidetzarekin eta, hala behar denean, gobernuarteko erakundeen lankidetzarekin; herrialde indigenen eta beren komunitateen, gobernu kanpoko erakundeen, merkataritza- eta zientzia elkarten eta beste talde batzuen babesarekin eta nazioarteko eskubidearen arabera, hala behar denean, ondorengoa egin beharko lukete²⁵:

- a) Aldian-aldean, aniztasun biologikoaren kontserbazioari eta baliabide biologikoen erabilera jasangarriari buruzko informazioa biltzea, ebaluatzea eta trukitzea;
- b) Nazio mailan, herrialdeei buruzko azterketen bidez onartutako aniztasun biologikoaren osagaien laginketa eta ebaluazio sistematikorako metodoak lantzea;
- c) Ekosistemen egoerari buruzko metodoen lanketekin hastea edo jarraitzea eta dagokien mailako azterketak hastea edo segitzea eta baliabide biologikoei eta genetikoei buruzko oinarritzko informazioa biltzea, horien artean lurreko, uretako, kostaldeko eta itsasoko ekosistemetako baliabideei buruzkoak. Horrez gain, tokian tokiko biztanleen eta indigenen eta beren komunitateen parte-hartzearekin inbentarioak prestatzen hastea;

²⁵ Ikus 40. atala (Erabakiak hartzeko informazioa).

- d) Herrialde bakoitzean lurreko eta uretako espezieen kontserbazioaren eta erabilera jasangarriaren ondorio eta etekin ekonomiko eta sozial potentzialak zehaztea eta ebaluatzea, abiapuntu gisa herrialdeei buruzko ikerketetan lortutako emaitzak hartuta;
- e) Orain arte deskribatutako zehaztapen-, laginketa- eta ebaluazio-lanen bidez lortutako datuak eguneratzea, aztertzea eta interpretatzea;
- f) Era eta une egokian, informazio egokia eta fidagarria biltzea, ebaluatzea eta ematea, tokian tokiko herrialdeen eta indigenen eta beren komunitateen parte-hartzearekin eta babesarekin maila guztietan erabakiak hartzeko.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek dagokien mailan; Nazio Batuen organismo eskudunen lankidetzarekin eta, hala behar denean, gobernuarteko erakundeen lankidetzarekin; herrialde indigenen eta beren komunitateen, gobernu kanpoko erakundeen, merkataritza- eta zientzia-elkarteen eta beste talde batzuen babesarekin eta nazioarteko eskubidearen arabera, hala behar denean, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta baliabide biologikoen eta genetikoen erabilera jasangarrirako interesgarriak diren datuak eta informazioa trukatzeko nazio edo nazioarte mailako bitartekoak eta sareak sendotzea eta martxan jartzea²⁶;
- b) Aldizka, mundu mailan, biodibertsitateari buruzko txostenak prestatzea eta eguneratzea, herrialde guztietan egindako ebaluazio nazionaletan oinarrituta;
- c) Aniztasun biologikoaren eta baliabide biologikoen eta genetikoen erabilera jasangarriaren alorretan lankidetzeta teknikoa eta zientifikoa sustatzea; gaitasun nazionalaren garapenari eta sendotzeari kasu berezia egin beharko litzaieke ondorengo bidez: giza baliabideak sendotuz, erakundeak sortuz eta teknologiaren transferentziaren edota ikerketa- eta kudeaketa-erakundeen

²⁶ Ikus 40. atala (Erabakiak hartzeko informazioa).

garapenaren bidez –esate baterako, herbarioak, museoak, gene-bankuak eta laborategiak– biodibertsitatearen kontserbazioarekin harremanetan²⁷;

- d) Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmeneko xedapenak alde batera utzi gabe, atal honetarako teknologi hauen transferentzia erraztea: batetik, aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta baliabide biologikoen garapen jasangarrirako interesgarriak diren teknologiak eta, bestetik, baliabide genetikoak erabiltzen dituzten eta, 34. atalaren arabera, ingurugiroari kalte hautemangarririk egiten ez dieten teknologia biologikoak. Puntu honetan teknologiaren barruan bioteknologia sartzen da²⁸, ²⁹;
- e) Konbentzioetako aldean artean lankidetzak eta nazioarteko ekintza-planak sustatzea, aniztasun biologikoa kontserbatzeko ahalegina areagotzeko eta koordinatzeko eta baliabide biologikoen erabilera jasangarria lortzeko;
- f) Aniztasun biologikoaren kontserbazioarekin eta baliabide biologikoen erabilera jasangarriarekin harremana duten nazioarteko eta lurraldeko bitartekoei, programei eta ekintza-planei ematen zaien babesak sendotzea;
- g) Arriskuan dauden eta izurriteak sortzen ez dituzten espezie migratzaileen kontserbazioa eta garapen eragingarrirako hartu beharreko nazioarteko neurrien koordinazioa –mugaz haraindiko lurretan gune babestuak ezartzeko eta antolatzekeo babes-maila egokiak barne direla– hobe dadin sustatzea;
- h) Inkesten, datu-bilketen, laginketen, ebaluazioaren eta gene-bankuen mantenuaren inguruko nazio mailako ahalegina sustatzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 3.500 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 1.750 milioi inguru

²⁷ Ikus 34. atala (Teknologia ekologikoki arrazionalaren transferentzia, lankidetzak eta gaitasuna areagotzea).

²⁸ Ikus 16. atala (Bioteknologiaren kudeaketa ekologikoki arrazionala).

²⁹ Ikus 34. atala (Teknologiak ekologikoki arrazionalaren transferentzia, lankidetzak eta gaitasuna areagotzea).

barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Aipatutako gai zehatzen barruan, ondorengoa formulatzeko beharra dago:

- a) Erreferentzia-azterketak eta inbentarioak egiteko eta baliabide biologikoen ebaluazio eta laginketa sistematikorako metodo eragingarriak;
- b) Aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta baliabide biologikoen erabilera jasangarrirako metodoak eta teknologiak;
- c) Ex situ kontserbaziorako metodo hobetuak eta dibertsifikatuak, epe luzera ikerketarako eta garapenerako garrantzitsuak diren baliabide genetikoak kontserbatzeko.

c) Giza baliabideen garapena:

Hala dagokionean ezinbestekoa da ondorengoa egitea:

- a) Aniztasun biologikoaren kontserbazioarekin eta baliabide biologikoen erabilera jasangarriarekin harremanetan, zientziaren eta teknologiaren alorretako langile trebatuak eraginkortasun gehiagorekin areagotzea edota erabiltzea;
- b) Heziketa zientifikorako eta teknikorako programak eta administratzaileak eta profesionalak trebatzeko programak mantentzea edo eratzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, azterketarako, aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta baliabide biologikoen erabilera jasangarrirako neurriekin harremanetan;
- c) Gobernuetan, merkataritza-enpresetan eta kreditu-erakundeetan, politikak formulatzeko eta erabakiak hartzeko maila guztietan, aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta baliabide biologikoen erabilera jasangarrirako beharrezkoak diren neurrien garrantzia uler dadin bultzatzea. Horrez gain, gai horiek hezkuntza-programetan sar ditzaten sustatzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Hala dagokionean ezinbestekoa da ondorengoa egitea:

- a) Aniztasun biologikoaren kontserbazioaz edo mota horretako erakunde berriak sortzeaz arduratzen diren erakundeak sendotzea eta aniztasun biologikoaren institutu edo zentro nazionalak edo antzeko mekanismoak sor daitezen bultzatzea;
- b) Dagokien sektore guztietan, aniztasun biologikoaren kontserbazioaren eta baliabide biologikoen erabilera jasangarriaren inguruko ahalmena sendotzen jarraitzea;
- c) Bereziki gobernuetan, merkataritza-enpresetan eta alde biko eta alde anitzeko garapenerako erakundeetan, aniztasun biologikoari buruzko arazoak, izan ditzakeen etekinak eta ordezkapenerako gastuen kalkulua formuzio-prozesuetan, aplikazio-prozesuetan eta proiektuen ebaluazio-prozesuetan integrazteko ahalmena areagotzea, baita aniztasun biologikoaren inguruan proposatutako garapenerako proiektuen ondorioak ebaluatzeko prozesuetan integrazteko ahalmena ere;
- d) Dagokien mailan, erakunde publiko eta pribatu hauen ahalmena areagotzea: batetik, gune babestuen planifikazioaz eta kudeaketaz arduratzen direnen ahalmena eta, bestetik, sektoreartean beste erakunde publikoekin, gobernu kanpoko erakundeekin eta, hala dagokienean, herrialde indigenekin eta beren komunitateekin koordinatzeaz eta planifikatzeaz arduratzen direnen ahalmena.

16. ATALA: Bioteknologiaren kudeaketa ekologikoki arrazionala

Sarrera

Bioteknologia modernotik sortutako teknika berrien integrazioa da bioteknologia, eta bioteknologia tradizionalerako ikuspegiak ongi frogatuta ditu. Bioteknologia garatzen hasi berria den eta ezagutza bolumen handia hartzen duen esparrua da; horrez gain teknika multzo bat da eta teknika hauen bidez gizakiak azido desoxirribonukleikoan (ADN) sartutako aldaketa zehatzak lortzeko aukera ematen du. Beraz, landareen, animalien eta sistema mikrobianoen material genetikoan aldaketak egiteko aukera ematen du, produktu eta teknologia erabilgarriak lortu arte. Bioteknologiak berak bakarrik ezin ditu ingurugiroko eta garapenerako funtsezko arazo guztiak konpondu, beraz, aukerei errealismoz begiratu behar zaie. Hala ere, ekarpen handia egin dezake, esate baterako, osasunean arreta hobetuz, nekazaritza jasangarriko jardueren bidez elikagaien segurtasuna areagotuz, edateko uraren horniketa hobetuz, lehengaiak egiteko industri garapenerako prozesu eragingarriagoak bultzatuz, baso-sartze eta baso-berritze modu jasangarriak sustatuz eta hondakin arriskutsuak desintoxikatuz. Bioteknologiak mundu osoan elkarrekin sortzeko aukera berriak ere sortzen ditu bi herrialde multzoren artean: alde batetik, baliabide biologikoetan –baliabide genetikoak barne– aberatsak diren eta eta bioteknologiaren bidez baliabide horiez baliatzeko beharrezko inbertsioak eta ezagutza espezializatuak ez dituzten herrialdeen eta, bestetik, garapen jasangarriaren beharrei erantzuteko baliabide biologiko horiek transformatzeko beharrezko ezagutza teknikoak dituzten herrialdeen artean³⁰. Bioteknologiak baliabide horiek kontserbatzen lagundu dezake, esate baterako, ex situ tekniken bidez. Ondoren aipatuko diren programa-arloak ondorengo egiteko dira: bioteknologiaren kudeaketa ekologikoki arrazionala segurtatzeko aplikatu behar diren eta nazioartean hitzartu diren printzipioak berresteko, jendearen konfiantza sustatzeko, bioteknologiaren aplikazio bideragarrien garapena bultzatzeko eta kudeaketa hori erraztuko duten mekanismo egokiak ezartzeko, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Hori guztia lortzeko ondorengo jarduerak egin beharko lirateke:

- a) Elikagaien, pentsuen eta lehengai berriztagarrien erabilgarritasuna areagotzea;
- b) Giza osasuna hobetzea;
- c) Ingurugiroaren babesa areagotzea;

³⁰ Ikus 15. atala (Aniztasun biologikoaren kontserbazioa).

- d) Segurtasuna areagotzea eta lankidetzarako nazioarteko mekanismoak martxan jartzea;
- e) Bioteknologia ekologikoki arrazionalaren garapena eta aplikazioa erraztuko dituen mekanismoak martxan jartzea.

Programa-arloak

A. Elikagaien, pentsuen eta lehengai berriztagarrien erabilgarritasuna areagotzea

Ekintzarako oinarriak:

Munduko populazioaren kontsumorako beharrak handitzen ari dira eta behar horiek asetzeko egin beharreko lanik zailena ez da elikagaien horniketa areagotzea, baizik eta banaketa era esanguratsuan hobetzea eta era berean nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzio-sistema bideragarriagoak ezartzea. Produktibitatea areagotzeko lan honen zati handi bat garapen bidean dauden herrialdeetan lortu beharko da. Zeregin hau aurrera eramateko bioteknologia nekazaritzan, ingurugiroan eta giza osasunaren zaintzan aplikatu beharko da, behar bezala eta ekologiari kalterik egiteko arriskurik gabe. Bioteknologia modernoan egiten diren inbertsio gehienak industrializatutako aldean egin dira. Ezinbestekoa da inbertsio handi gehiago egitea eta giza baliabideak bioteknologiaren alorrean garatzea, batez ere garatutako herrialdeetan.

Helburuak:

D programa-arloaren arabera, segurtasun neurri egokiak aplika daitezkeen bultzatzeko beharra kontuan hartuta, ondorengo helburuak proposatzen dira:

- a) Ahal den neurrian, labore nagusien, abeltzaintzaren eta espezie urtarren errendimendua areagotzea. Horretarako ondorengo egin beharko da: bioteknologia modernoaren baliabideen konbinazioa erabili; landareen, animalien eta mikroorganismoen metodo konbentzionalak hobetu eta material genetikoko baliabide anitzenak, bai hibridoak, bai originalak, erabili³¹. Era berean, basoko produkzioaren errendimendua areagotu egin beharko litzateke, basoen ustiapen jasangarriaz arduratzeko³²;

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen laguntza eta gobernuz kanpoko erakundeen, sektore pribatuaren eta erakunde akademikoaren eta zientifikoaren babesa beharko lituzkete. Honen bidez, eta dagokien mailan, animalien, landareen eta mikroorganismoen genetika hobetu beharko lukete. Horretarako bioteknologia tradizionalak eta modernoak erabili beharko lituzkete, nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzio jasangarria areagotzeko eta elikagaien segurtasuna lortzeko. Hori bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan aplikatu beharko litzateke eta arreta berezia jarri beharko litzaioke aldatetarekin lortu nahi

³¹ Ikus 14. Atala (Nekazaritza eta landa-garapen jasangarriak sustatzea).

³² Ikus 11. atala (Baso-soiltzearen aurkako borroka).

denaren ezaugarriak aurrez zehazteari. Horretarako, batetik, nekazarien beharrak eta, bestetik, aldaketa horiek ikuspuntu sozioekonomikotik, kulturaletik eta ekologikotik eragingo dituzten ondorioak hartu beharko lirateke kontuan. Halaber, garapen sozial eta ekonomiko jasangarria sustatzeko beharra ere hartu beharko litzateke kontuan eta arreta berezia jarri beharko litzateke bioteknologiaren erabilerak ingurugiroaren integritatea mantentzeko lanean eragin ditzakeen ondorioei.

Zehazki, gobernuek ondorengo egin beharko lukete:

- a) Errendimendua, nutrizio-kalitatea eta egin ondorengo elikagaien eta pentsuen iraupena areagotzea, uzten aurretik eta ondoren janaria ez galtzeko prebentzio-lanak barne izango dituzten jardueren bidez;
- b) Gaixotasunen eta izurriteen aurrean izan beharreko erresistentzia garatzen jarraitzea;
- c) Besteak beste izurriteek eta gaixotasunek sortutako tentsioak eta kausa abiotikoak jasaten dituzten barietate begetalak garatzea;
- d) Etorkizunean gizakien elikadurarako eta industria lehengaiak hornitzeko garrantzitsuak izan daitezkeen eta behar bezala aprobetxatzen ez diren nekazaritzako barietateen erabilera sustatzea;
- e) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzio jasangarria errazten duten prozesu sinbiotikoen eragingarritasuna areagotzea;
- f) Landareen, animalien eta mikrobioen hozi-plasmak arriskurik gabe kontserbatu eta trukatu daitezkeen laguntzea; horretarako, arriskuak ebaluatzeko eta kudeatzeko prozedurak aplikatu beharko lirateke, azkar zabaltzeko metodo eragingarriagoen bidez izurriteak eta gaixotasunak detektatzeko diagnostikoak egiteko teknika berriak sartuz;
- g) Diagnostikoak egiteko eta txertoak jartzeko teknikak hobetzea, giza kontsumorako edo ganadua elikatzeke diren produktuetan gaixotasunen zabalkuntzari aurrea hartzeko eta toxinen edo infekzio-organismoen ebaluazioa azkar egiteko;
- h) Azkar hazten diren landareen artean barietate produktiboenak zehaztea, bereziki egurraren produktiorako eta zabalkuntza azkarrerako metodoak lantzea ahalik eta gehien hedatzeko eta erabiltzeko;
- i) Bioteknologiako hainbat teknikaren aplikazioa ebaluatzea, arrainen, algen eta uretako

beste espezie batzuen produkzioa areagotzeko;

- j) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzio jasagarria sustatzea, dauden ikerketa-zentroen gaitasuna eta ekintzarako esparrua sendotuz eta hedatuz. Helburua, nekazaritzako eta abelazkuntzako produktuak eta prozesuak hobetzeko ikerketak sustatuz eta gainbegiraturaz, beharrezko bolumen kritikoa lortzea litzateke. Produktu eta prozesu horiek balio produktiboa eta ekologikoa izateaz gain, ikuspegi ekonomikotik eta sozialetik bideragarriak izan behar dute, eta betiere segurtasuna kontuan hartu behar da;
- k) Bioteknologia egokiak tradizionalekin integra daitezen sustatzea, genetikoki aldatutako landareak landatzeko, animalia osasuntsuak hazteko eta basoko baliabide genetikoak babesteko;
- l) Elikagaiak, pentsuak eta lehengai berriztagarriak ekoizteko erabili behar diren bioteknologiatik eratorritako materialen erabilgarritasuna areagotzeko prozesuak lantzea.

b) Datuak eta informazioa:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Elikagaiak produzitzeko teknologia desberdinek eskaintzen dituzten aukeren ebaluazio konparatzaileak aztertzea. Hori nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen nazioarteko merkataritzan bioteknologiaren eraginak ebaluatzeko sistema batekin egin beharko litzateke;
- b) Diru-laguntzak ezabatzearen ondorioak aztertzea eta nekazaritzan erabiltzeko modukoak ez diren substantzia kimikoen erabilerak sortutako gastuak islatzen dituzten beste mekanismo ekonomiko batzuk erabiltzeko aukera aztertzea;
- c) Organismoek ingurugiroan eta osasunean sortzen dituzten eraginei buruzko datu-bankuak eta informazioa sortzea eta mantentzea, arriskuen ebaluazioa errazago egiteko;
- d) Garapen bidean dauden herrialdeek teknologia erosteko, transferitzeko eta egokitzeko aukera azkartzea, elikagaien segurtasuna bultzatzen duten jarduera nazionalak babesteko.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin eta dauden beharren arabera, ondorengo jarduerak sustatu beharko lituzteke, aniztasun biologikoari buruzko nazioarteko hitzarmenak eta akordioak kontuan hartuta:

- a) Hozki-plasmaren kontserbazioarekin eta trukearekin eta hozki-plasma eskuratzeko aukerekin harremana duten kontuetan elkarlana egin dadin kontuan hartzea; jabetza intelektualaren eskubide eratorriak eta patentatu gabeko berrikuntzak, horien artean nekazariaren eta hautatzailearen eskubideak, kontuan hartzea eta bioteknologiaren eta biosegurtasunaren onurak eskura izan daitezzen kontuan hartzea;
- b) Elkarlanean ikerketa-programak egitea susta dadin kontuan hartzea, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan. Hori programa-arlo honetan aipatutako jarduerak bultzatzeko egin beharko litzateke, bereziki tokian tokiko biztanleekin eta indigenekin eta beren komunitateekin elkarlanean aritzeari dagokionez, eta aniztasun biologikoaren kontserbazioan eta baliabide jasangarrien erabileran aplikatu beharko litzateke. Bestalde, ikerketa-programa horiek jarduera horiekin harremana duten talde horien metodo eta ezagutza tradizionalak bultzatzeko ere sustatu beharko lirateke;
- c) Garapen bidean dauden herrialdeek teknologien erosketak, transferentziak eta egokitzapenak bizkortzea, elikagaien segurtasuna sustatzen duten nazio mailako jarduerak bultzatzeko. Hori produktibitatearen funtsezko areagotze jasangarrira bideratutako sistemak sortuz lortu beharko litzateke, tokian tokiko ekosistemak kaltetu gabe eta arriskutan jarri gabe³³;
- d) D programa-arloan oinarritutako segurtasun-prozedura egokiak lantzea, iritzi etikoak kontuan hartuta.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 5.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 50 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu.

³³ Ikus 34. atala (Teknologia ekologikoki arrazionalaren transferentzia, lankidetzeta eta gaitasuna areagotzea).

Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak*:

* Ikus 6. eta 7. paragrafoak.

c) Giza baliabideen garapena:

Maila guztietan, oinarrizko zientzietan eta zientzia aplikatuetan profesional adituen gaitasuna –zientzialarien, teknikarien eta dibulgazioaz arduratzen diren langileen gaitasuna barne– mota honetako edozein programaren ezinbesteko osagaietako bat da. Funtsezkoa da bioteknologiaren abantailak eta arriskuak ezagutzea. Ikerketek arduratzen diren langileen kudeaketa zuzenak diziplinarteko tamaina honetako proiektuak arrakastaz amaitzeko duen garrantzia dela eta, zientzialarien hezkuntza iraunkorreko programa ofizialetan kudeaketaren inguruko trebakuntza sartu beharko litzateke. Proiektu zehatzen inguruan ere trebakuntza-programak sortu beharko lirateke, lurralde edo nazio mailan hainbat diziplinatan trebatuta eta teknologia aurreratuak erabiltzeko moduan egongo diren langileak izateko beharra asetzeko; hori garatutako herrialdeetatik garapen bidean dauden herrialdeetara "intelektualen irteera" murrizteko egin beharko litzateke. Berezi zientzialarien, dibulgatzaileen eta erabiltzaileen arteko lankidetzaren nabarmendu beharko litzateke, baita sistema integratuak lortzeko beren trebakuntza ere. Bestalde, trebakuntza-programak gauzatzeari eta ezagutzak trukatzeari arreta berezia jarri beharko litzateke, batez ere bioteknologia tradizionalaren eta segurtasun-prozeduretako trebakuntza-programen arloetan.

d) Gaitasuna areagotzea:

Ezinbestekoa izango da erakundeak hobetzeko neurriak hartzea edo gaitasun tekniko eta administratiboa eta kudeaketa eta planifikazio mailako gaitasuna areagotzeko egokiak diren neurriak hartzea nazio mailan. Hori programa-arlo honetako jarduerak babesteko egin beharko litzateke. Neurri hauek hartu ahal izateko, nazioarteko eta zientzia, teknika eta finantza alorretako laguntza eduki beharko litzateke, lankidetzaren

teknikoa emateko eta garapen bidean dauden herrialdeen gaitasuna areagotzeko. E programa-arloan honi buruzko zehaztasun gehiago ematen dira.

B. Giza osasuna hobetzea

Ekintzarako oinarriak:

Giza osasuna hobetzea garapenaren funtsezko helburua da. Ingurugiroaren kalitatearen hondatzea –bereziki airearen, uraren eta luraren kutsadura– geroz eta gehiago kezkatzen duen arazoa da; hau produktu kimiko toxikoen, hondakin arriskutsuen, erraziazioen eta beste iturri batzuen eraginez gertatu da. Garapena ezegokiaren ondorioa den ingurugiroaren degradazioak eragin zuzen eta negatiboa du giza osasunean. Elikadura urriak, pobreziak, giza kokapen eskasek, edateko kalitate oneko ur faltak eta saneamendu-instalazio ezegokiak areagotu egiten dute kutsakorrak diren eta ez diren gaixotasunen arazoa. Ondorioz, jendearen osasunak eta ongizateak geroz eta presio gehiago jasaten dituzte.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburu nagusia, bioteknologia ekologikoki era arrazionalen aplikatuz, ondorengo ataletan oro har osasunerako programa orokorrari laguntza ematea da³⁴:

- a) Kutsakorrak diren gaixotasun nagusien aurkako borrokan laguntzeko programak sendotzea edo martxan jartzea (larrialdi kasuetan);
- b) Adin guztietako pertsonak osasuntsuak izan daitezen bultzatzea;
- c) Kutsakorrak ez diren gaixotasunen tratamendu espezifikoak eta beren aurkako babesari laguntzen dieten programak lantzea eta hobetzea;
- d) D programa-multzoan oinarritutako segurtasun-prozedura egokiak lantzea eta sendotzea, iritzi etikoak kontuan hartuta;
- e) Oinarritzko ikerketak eta ikerketa aplikatuak egiteko eta diziplinarteko ikerketak zuzentzeko gaitasun gehiago sortzea.

Jarduerak:

³⁴ Ikus 6. atala (Giza osasuna babestea eta sustatzea).

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakundeen, erakunde akademikoen eta zientifikoen eta industria farmazeutikoaren babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete, segurtasunaren eta etikaren inguruko iritziak kontuan hartuta:

- a) Nazio eta nazioarte mailan programak prestatzea, osasuna oro har hobetzeko eta gaixotasunetatik babesteko behar gehien duten munduko herrialdeak zein diren zehazteko eta berek laguntza gehiago jasotzeko;
- b) Proposatutako jardueren eragingarritasuna eta etekinak eta arriskuak ebaluatzeko irizpideak lantzea;
- c) Hautaketa-prozedurak, laginketa sistematikoak eta botiken ebaluazioa eta medikuntza-teknologiak prestatzea eta martxan jartzea, esperimentaziorako arriskutsuak direnen erabilera debekatzeko. Horrez gain, ugalketarako osasunarekin harremana duten botika eta teknologia berriek kalterik ez dutela egiten, eragingarriak direla eta iritzi etikoak kontuan hartzen dituztela segurtatzea;
- d) Edateko ura hobetzea, laginketa sistematikoak egitea eta bere kalitatea ebaluatzea. Horretarako neurri zehatz eta egokiak hartu beharko lirateke, esate baterako, uraren eta substantzia kutsakorren bidez transmititutako organismo patogenoen diagnostikoen formulazioa;
- e) Gaixotasun kutsakor nagusien aurkako txerto berriak eta hobetuak garatzea eta guztiontzat eskuragarri egitea. Txerto hauek eragingarriak eta seguruak izan behar dute eta gutxieneko dosi kopuruarekin babesa eskaini beharko dute. Era berean, haurtzaroan izaten diren ohiko gaixotasunen aurka borroka egiteko beharrezkoak diren txertoak garatzeko ahalegina areagotu egin beharko litzateke;
- f) Ondorengoa egiteko aukera ematen duten txertoak banatzeko sistema biodegradagarriak prestatzea: egungo askotariko dosien programak bazterrerara uztea, biztanleen tratamendu hobia erraztea eta immunizazio gastuak murriztea;
- g) Gaixotasunen bektore transmititzaileen –adibidez eltxoen eta bere barietate gogorren– aurkako borroka biologikorako eragile eragingarriak prestatzea. Horretarako, ingurugiroa babestearekin harremana duten aldeak kontuan hartu beharko lirateke;

- h) Bioteknologia modernoaren erremintak erabiltzea eta, beste batzuen artean, diagnostikoak egiteko metodo berriak, botika berriak eta tratamendu hobekak eta botikak banatzeko sistema hobekak garatzea;
- i) Sendabelarren eta antzeko beste iturrien hobekuntza eta erabilera eragingarriagoa sustatzea;
- j) Bioteknologiari eratorritako materialak eskuragarriagoak izan daitezkeen prozedurak lantzea, giza osasuna hobetzeko erabil daitezkeen.

b) Datuak eta informazioa:

Ondorengo jarduerak egin beharko lirateke:

- a) Teknologien gizarte, ekologia eta finantza alorretako abantaila konparatiboak ebaluatzeko ikerketak; segurtasunaren eta mundu-mailako etikaren inguruko kontuen esparruan, oinarrizko osasun eta ugalketarako osasun arreta izateko egin beharko lirateke ikerketa horiek;
- a) Erabakiak hartzeko ardura dutenei eta oro har jendeari zuzendutako hezkuntza publikoko programak prestatzea, bioteknologia modernoarekin harremana duten etekinen eta arriskuen ezagutza eta ulermena sustatzeko. Horretarako iritzi etikoak eta kulturalak hartu behar dira kontuan.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoak egin behar lukete:

- a) D programa-multzoan oinarritutako segurtasun-prozedura egokiak lantzea, iritzi etikoak kontuan hartuta;
- b) Oro har osasuna hobetzeko nazio mailako programak formula daitezkeen laguntzea, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan. Bereziki gaixotasun kutsakorren aurkako babesa, haurtzaroko ohiko gaixotasunak eta gaixotasunen transmisiorako faktoreak hartu beharko lirateke kontuan.

Gauzatzeko bideak:

Aipatutako helburuak lortzeko hainbat jarduera berehala gauzatu beharko lirateke, hurrengo mendearen hasierarako gaixotasun kutsakor nagusien aurkako borrokan pauso nabarmenak lortu nahi badira. Hainbat gaixotasun munduko lurralde guztietara hedatu direla eta, mundu mailako neurriak hartu behar dira. Zehatz non dauden jakina den gaixotasunen kasuan, egokiagoak izango dira nazio eta lurralde mailako politikak. Helburuak lortzeko ondorengoa ezinbestekoa da:

- a) Konpromiso politiko jasagarria;
- b) Lehentasun nazionalak, epe zehatzekin
- c) Ekarpem zientifikoak eta finantza-ekarpemak mundu eta nazio mailan.

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 14.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 130 milioi dolar inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Ongi koordinatutako diziplina anitzeko ekimenak beharrezkoak dira, zientzialarien, finantza-erakundeen eta industriaren arteko lankidetzaz lantzeko. Mundu mailan, horrek herrialde desberdinetako ikerketa-erakundeen arteko lankidetzaz ekar dezake; gainera, gobernuarte mailan finantzatuta egongo litzateke eta nazio mailan antzeko lankidetzaz ere izan dezake. Ikerketari eta garapenari eman beharreko babesaz sendotzea ere ezinbestekoa izango da, teknologia egokiaren transferentzia egiteko mekanismoekin batera.

c) Giza baliabideen garapena:

Mundu mailan teknologiaren alorrean trebakuntza eta transferentzia beharrezkoak dira, izan ere, honela lurraldeek eta herrialdeek informazioa eta ezagutza teknikoak eskuratzeko aukera izango dute eta informazioaren eta ezagutzaren trukean parte hartu ahal izango dute. Bereziki tokian tokiko ezagutzen edo ezagutza tradizionalen eta hauekin lotura duen bioteknologiaren inguruan egingo litzateke hori. Ezinbestekoa da garapen bidean dauden herrialdeen gaitasun

endogenoa sortzea edo sendotzea, honela bioteknologian produkzio prozesuetan aktiboki parte hartu ahal izango baitute. Langileen trebakuntza hiru mailatan egin ahal izango litzateke:

- a) Oinarrizko ikerketak egiteko eta produktuei zuzendutako ikerketak egiteko beharrezkoak diren zientifikoen mailan;
- b) Osasun-langileen (produktu berriak segurtasunez erabiltzen erakutsi beharko litzaieke) eta diziplinarteko ikerketa konplexuetarako beharrezkoak diren zientzia-programen zuzendarien mailan;
- c) Konponbideak arazoa dagoen tokian bertan aurrera eramateko beharrezkoak diren hirugarren mailako teknikarien mailan.
- d) Gaitasuna areagotzea³⁵

³⁵ Ikus E programa-arloa.

C. Ingurugiroaren babesa areagotzea

Ekintzarako oinarriak:

Ingurugiroaren babesa garapen jasangarriaren elementu osagarria da. Ingurugiroaren osagai biotiko eta abiotiko guztiak daude mehatxaturik: batetik, aniztasun biologikoa osatzen duten animaliak, landareak, mikrobioak eta ekosistemak; bestetik, habitatetako eta ekosistemetako osagai fisikoak diren airea, lurra eta ura eta, azkenik, aniztasun biologikoaren osagaien eta sostengatzen duten habitaten eta ekosistemen arteko elkarreagin guztiak. Hazten ari den munduko populazioak sustantzia kimikoak, energia eta berrizgarriak ez diren baliabideak geroz eta gehiago erabiltzen dituela eta, erabilera horrekin lotura duten ingurugiroko arazo guztiak ere hazi egingo dira. Hondakinen pilaketari aurre hartzeko eta birziklatzea sustatzeko geroz eta ahalegin gehiago egiten badira ere, badirudi gehiegizko kontsumoarengatik, sortutako hondakinen bolumen handiarengatik eta lurra jasangarria ez den moduan erabiltzeagatik ingurugiroari eragindako kalteak areagotzen joango direla.

Dagoeneko ongi zehaztuta dago garapen jasangarrirako landareen, animalien eta mikrobioen hozi-plasmez osatutako erreserba genetikoaren beharra dagoela. Bioteknologia ekosistemen eta paisaia degradatuen birgaitzean asko lagundu dezakeen baliabideetako bat da. Hori baso-sartzeko eta baso-berritzeko teknika berriak landuz, hozi-plasma kontserbatuz eta landareta barietate berriak landatuz lortu ahal izango da. Halaber, bioteknologiak ekosistemetan sartutako organismoek gainerako organismoetan sortutako eraginak aztertzen lagundu dezake.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburua ingurugiroaren degradazio-prozesuari aurre hartzea, prozesua geldiaraztea eta prozesuan esku-hartzea da; hori bioteknologia beste teknologia batzuekin batera era egokian erabiliz lortu ahal izango da. Era berean, segurtasun-prozedurei babesa eman behar zaie, programaren osagai baitira. Helburu zehatzen artean, helburu zehatzak dituzten programa jakinak ahalik eta azkarren martxan jartzea da. Hori ondorengo lortzeko egin beharko litzateke:

- a) Baliabide naturalak era egokian erabiltzen dituzten produkzio-prozesuak onartzea. Hau biomasaren birziklatzearen, energiaren berreskurapenaren eta hondakinen produkzioa ahalik eta gehien murriztearen bidez lortu beharko litzateke³⁶;
- b) Bioteknologiaren erabilera sustatzea. Horretarako ondorengoa nabarmendu beharko litzateke: lurren eta uren saneamendu biologikorako neurriak, hondakinen tratamendua, lurren kontserbazioa, baso-sartzea, baso-berritzea eta lurren birgaitzea³⁷, ³⁸;
- c) Bioteknologiak eta beren produktuak ingurugiroa bere osotasunean kontserbatzeko aplikatzea, epe luzera segurtasun ekologikoa ezartzeko.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakundeen, sektore pribatuaren, gobernuz kanpoko erakundeen eta erakunde akademikoen eta zientifikoen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Ingurugiroarentzako kaltegarriak diren produkzio-prozesuei dagokienez, beren ordezkioak aurkitzea edo ekologikoki arrazionalak diren hobekuntzak egitea;
- b) Aplikazioak egitea, jasagarriak ez diren sargai kimiko sintetikoaren beharra ahalik eta gehien murrizteko eta ekologikoki egokiak diren produktuak –produktu naturalak barne– ahalik eta gehien erabiltzeko (Ikus A programa-multzoa);
- c) Hondakinen produkzioa murrizteko, deuseztatutako hondakinak tratatzeko eta biodegradagarriak diren materialak erabiltzeko prozedurak lantzea;
- d) Energia errekuperatzeko eta energia iturri berriztagarriak, animalientzako pentsuak eta lehengaiak eskuratzeko prozedurak lantzea. Hori hondakin organikoaren birziklatzearen eta biomasaren bidez lortuko litzateke;
- e) Ingurugiroko sustantzia kutsagarriak –ustekabeen gertatutako hidrokarbuo isuriak barne– deuseztatzeko prozedurak lantzea. Bereziki ohiko teknikak eskura ez daudenean

³⁶ Ikus 21. atala (Hondakin solidoen kudeaketa ekologikoki arrazionala eta erabilitako urekin lotura duten auziak).

³⁷ Ikus 10. atala (Lurreko baliabideak planifikatzeko eta antolatzeke ikuspegi integratua).

³⁸ Ikus 18. atala (Ur gezetako baliabideen horniketa eta kalitatea babestea: ur gezetako baliabideen ustiapenerako, antolakuntzarako eta erabilerarako irizpide integratuak aplikatzea).

edo teknika horiek garestiak, eraginik gabeak edo ezegokiak direnean landu behar dira prozedura berriak;

- f) Bereziki tokian tokiko espezieei dagokienez, material begetalen erabilgarritasuna areagotzeko prozedurak lantzea. Hori baso-sartzean eta baso-berritzean erabiltzeko eta basoen errendimendu jasangarria hobetzeko egin beharko litzateke;
- g) Lurrak birgaitzeko eta kontserbatzeko iraunkorrak diren material begetalen erabilgarritasuna hobetzeko aplikazioa garatzea;
- h) Izurriteen aurkako borroka integraturako metodoak erabil daitezten sustatzea. Metodo horiek borroka biologikorako eragileen erabilera arrazionalen oinarrituta egon beharko lukete;
- i) Ongarriak aplikatzeko nazio mailako programetan ongarri biologikoen erabilera egokia sustatzea;
- j) Bioteknologia egokiak erabil daitezten sustatzea, aniztasun biologikoaren kontserbaziorako eta azterketa zientifikorako eta baliabide biologikoen erabilera jasangarrirako;
- k) Erraz aplika daitezkeen teknologiak lantzea, estoldetako urak eta hondakin organikoak tratatzeko;
- l) Teknologia berriak lantzea, ezaugarri biologiko erabilgarriak izan ditzaketen organismoak azkar hautatzeko;
- m) Bioteknologia berriak sustatzea, baliabide mineralak ekologikoki era jasangarrian ustiatzeko.

b) Datuak eta informazioa:

Bioteknologiari buruzko informazioa eta mundu mailan datu-basetan oinarritutako zerbitzuak eskuragarri egon daitezten aukerak hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, ikertzeko, trebatzeko eta garatzeko gaitasuna sendotzea, programa-arlo honetan aipatzen diren jarduerentzat lagungarri izan dadin;
- b) Ingurugiroarentzat garrantzi handia duten bioteknologia ekologikoki arrazionalak pixkanaka areagotzeko eta hedatzeko mekanismoak sortzea. Bereziki epe motzera begira egin beharko litzateke hori, baita bioteknologia horiek merkatuan botere mugatua duten kasuetan ere;
- c) Parte hartzen duten herrialdeen artean lankidetzaz eta bioteknologiaren transferentzia areagotzea, gai honen inguruko beren gaitasuna sustatzeko;
- d) D programa-arloan oinarritutako segurtasun-prozedura egokiak lantzea, iritzi etikoak kontuan hartuta.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 1.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 10 milioi dolar inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak*:

Ikus 23tik 25era bitarteko paragrafoak.

c) Giza baliabideen garapena:

Programa-arlo honetako jarduerak areagotu egingo dute trebatutako langileak izateko beharra. Beraz, indarrean dauden trebakuntza-programei eman beharreko babesa areagotu egin beharko da, esate baterako unibertsitate eta institutu tekniko mailetan; horrez gain, herrialdeen eta lurraldeen artean trebatutako langileen trukea ere areagotu egin beharko da. Trebakuntza-programa berriak eta osagarriak ere prestatu beharko dira,

esate baterako teknikarientzako eta laguntzeaz arduratzen diren langileentzako. Halaber, gobernuetan, finantza-erakundeetan eta beste erakunde batzuetan erabakiak hartzeaz arduratzen direnen artean oinarri biologikoen ezagutzak eta beren ondorio arau-emaileak hobetzeko behar handia dago.

d) Gaitasuna areagotzea:

Ezinbestekoa izango da erakunde eskudunek aurrez aipatutako jarduerak gauzatzeko eta bioteknologiaren alorreko aurrerapen berriei erantzunez era dinamikoan aritzeko nahiko ardura eta gaitasun (politika, finantza eta lan arlokoa) izatea (Ikus E programa-multzoa).

D. Segurtasuna areagotzea eta lankidetzarako nazioarteko mekanismoak martxan jartzea

Ekintzarako oinarriak:

Ezinbestekoa da nazioartean adostutako printzipioak sakonago lantzea; printzipio hauek nazio mailan bioteknologiaren alor guztietako arriskuen eta kudeaketaren ebaluazioaz landutakoetan oinarrituta egon beharko lukete. Mugako segurtasun- eta kontrol-prozedura egokiak eta garbiak ezartzen direnean bakarrik eskuratu ahal izango ditu komunitateak oro har bioteknologiaren gehienezko etekinak eta izan ditzakeen abantailak, eta arriskuak onartzeko aukera askoz hobea izango du. Hauetako segurtasun-prozedura asko funtsezko hainbat printzipiotan oinarritu daitezke. Horien artean, besteak beste, ondorengoak egongo lirateke: Batetik, familiartasunaren printzipioan oinarritutako organismoaren lehen mailako iritzia, esparru malguaren barruan aplikatuta, nazio mailako beharrak kontuan hartuta eta progresioa pausoz pauso eta kasuz kasu hartzea dela onartuta; baina, horrez gain, kontuan hartu behar da esperientziak esaten duela kasu askotan ikuspegi zabalagoa erabili beharko litzatekeela, beste batzuen artean sinplifikazioa eta kategorizazioa ekarriko luketen lehen aldiko esperientzietan oinarrituta. Bestetik, arriskuen ebaluazioaren eta kudeaketaren iritzi osagarria eta, azkenik, erabilera itxiaren bidez egindako sailkapena edo medioan sarrera.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburua bioteknologiaren garapenean, aplikazioan, trukean eta transferentzian segurtasuna izan dadin zaintzea da, eta hori arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruz aplikatu behar diren printzipioen inguruko nazioarteko hitzarmen baten bidez egin beharko litzateke. Horrez gain, osasunaren eta ingurugiroaren inguruko gaietara erreferentzia berezia egin beharko litzateke eta ahalik eta jende gehienak parte hartu beharko luke, dagozkien iritzi etikoak kontuan hartuta.

Jarduerak:

Programa-arlo honetan proposatutako jarduerak aurrera eramateko nazioarte mailako lankidetzaren estua ezinbestekoa da. Jarduera horiek bioteknologia ekologikoki arrazionalaren aplikazioa bizkortzeko proiektatutako jardueretan eta aurretik dauden jardueretan oinarritu beharko litzateke, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan.

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen, sektore pribatuaren, gobernuz kanpoko erakundeen eta erakunde akademikoen eta zientifikoaren babesarekin, ondorengo neurriak hartu beharko lituzkete:

- a) Segurtasun-prozedurak normalean eskura egon daitezzen zaintzea, dagoen informazioaren bilketaren bidez eta herrialde eta lurralde desberdinetako beharretara egokitzearen bidez;
- b) Behar denaren arabera, aurretik dauden segurtasun-prozedurak garatzen jarraitzea arriskuen ebaluazioaren eta kudeaketaren alorretan garapen eta kategorizazio zientifikoa sustatzeko (beharrak alor hauetakoak izango lirateke: informazioa, datu-baseak, liberaziorako arriskuak eta baldintzak ebaluatzeko prozedurak, segurtasun-baldintzen eraketa, zaintza eta ikuskapena eta indarrean dauden nazio, lurralde eta nazioarte mailako ekimenen integrazioa, betiere eta ahal den neurrian bikoizketa ekidinez);
- c) Nazioartean adostutako printzipioen esparruan bateragarriak diren segurtasun-prozedurak pilatzea, eguneratzea eta lantzea, bioteknologiaren alorreko arauentzako oinarri gisa. Honen barruan nazioarteko hitzarmenaren beharra eta bideragarritasuna aztertzea egongo litzateke. Horrez gain, informazioaren trukea sustatzea, ondorengo garapenaren oinarri gisa; horretarako nazioarteko organoek edo beste organo jakitun batzuek egindako lanean oinarritu beharko litzateke;
- d) Nazio eta lurralde mailan proposatutako tekniken arauak aplikatzeari buruzko trebakuntza-programak gauzatzea;
- e) Informazioaren trukean laguntza ematea; informazio hori, batetik, erabilera segururako eta arriskuak kudeatzeko beharrezkoak diren prozedurei buruzkoa eta, bestetik, bioteknologiako produktuek liberaziorako behar dituzten baldintzei buruzkoa izango litzateke. Horrez gain, bioteknologiako produktuak erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen larrialdi egoeretan laguntza berehala ematea.

b) Datuak eta informazioa*:

* Ikus 32 eta 33 paragrafoak.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, bioteknologiaren inguruko abantailen eta arriskuen kontzientzia handiagoa sortzeaz arduratu beharko lukete.

Jarduera osagarri hauen artean ondorengoak sartuko lirateke (ikus 32. paragrafoak ere):

- a) Herrialdeen artean lurralde mailako bilera bat edo gehiago antolatzea, segurtasun biologikoaren inguruan nazioarteko lankidetzaz errazteko hartu beharreko neurri osagarriak zein diren zehazteko;
- b) Nazio, lurralde eta mundu mailan harremanetarako guneak izango dituen nazioarte mailako sarea sortzea;
- c) Hala eskatzen dutenei laguntza zuzena ematea, nazioarteko sarearen bidez; horretarako informazio-sareak, datu-baseak eta informazio-prozedurak erabili beharko lirateke;
- d) Bioteknologiaren liberazioan izan beharreko segurtasunari buruz nazioartean onartutako arauen beharra eta bideragarritasuna kontuan hartzea, arriskuen ebaluazioa eta kudeaketa barne. Horrez gain, erantzukizunen eta kalte-ordainen alorretan nazio mailako legea egitea erraztuko duten arauen bideragarritasuna aztertzeak aukera kontuan hartzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 2 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberrakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak**

** Ikus 32. paragrafoa.

c) Giza baliabideen garapena**

d) Gaitasuna areagotzea:

Garapen bidean dauden herrialdeei nazioarte mailako laguntza teknikoa eta finantza alorreko laguntza eman behar litzaieke eta lankidetzat tekniko egokia eman beharko litzaieke. Hori nazio mailan beren teknika, enpresa, planifikazio eta administrazio alorretako gaitasuna sustatzeko egin beharko litzateke, programa-arlo honetako jarduerak bultzatu ahal izateko (Ikus E programa-arloa ere).

E. Bioteknologia ekologikoki arrazionalaren garapena eta aplikazioa erraztuko dituen mekanismoak martxan jartzea

Ekintzarako oinarriak:

Bioteknologia bizkor garatzen eta aplikatzen bada, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, nazio eta lurralde mailako erakundeen gaitasuna sendotzeko ahalegin berezia egin beharko da. Garapen bidean dauden herrialdeetan gaitzen duten faktoreak gutxi izaten dira. Esate baterako faktore hauen eskasia izaten da: hezkuntzarako gaitasuna, ezagutza teknikoak, ikerketarako eta garapenerako instalazioak eta funtsak, industria-oinarria sortzeko gaitasuna, kapitala (baita arrisku-kapitala ere), merkatuaren ikerketan jabetza intelektualaren eta ezagutzen inguruko eskubideen babesa, ebaluazio teknologikoa, ebaluazio sozioekonomikoa eta segurtasunaren ebaluazioa. Ondorioz, ezinbestekoa da alor hauetan eta beste batzuetan gaitasuna ezar dadin ahalegina egitea eta ahalegin horrek finantza aldetik behar adina babes izatea. Beraz, ezinbestekoa da garapen bidean dauden herrialdeen gaitasun endogenoa sendotzea, ikerketak babesteko nazioarteko ekimen berrien bidez. Honen helburua bioteknologia berriaren eta tradizionalaren garapena eta aplikazioa bizkortzea da, herri, nazio eta lurralde mailan garapen jasagarria izateko beharrei erantzuteko. Prozesu honen zati gisa nazio mailako mekanismoak sortu beharko lirateke; mekanismo horiek jendeak bioteknologia ikertzeari eta aplikatzeari buruz duen iritziaren berri emateko aukera eman beharko lukete.

Nazio, lurralde eta mundu mailako ekintza batzuek A, B, C eta D programa-arloetan aipatzen diren auzi batzuez arduratzen dira. Horrez gain, hainbat herrialderi arauak eta arau horiek aplikatzeko sistema nazionalak lantzeko aholkularitza ere ematen diete. Hala ere, jarduera

horiek ez dira koordinaturik egoten eta hainbat erakundek, lehentasunek, eskumenek, aldi baterako esparruek, finantza-iturriek eta baliabideen mugek baldintzatzen dituzte. Ikuspegi koherenteagoa eta koordinatuagoa behar da eskura ditugun baliabideak eragingarritasun gehiagorekin aprobetxatzeko. Teknologia berri gehien kasuan gertatzen den bezala, bioteknologian ikerketak eta beren emaitzen aplikazioek eragin sozioekonomiko eta kultural garrantzitsuak, bai positiboak, bai negatiboak izan ditzakete. Eragin horiek bioteknologiaren garapenaren lehen etapetan zehaztu beharko lirateke kontu handiz, bioteknologiaren transferentziaren ondorioei behar bezala erantzuteko.

Helburuak:

Helburuak ondorengoak dira:

- a) Ondorengo neurrien bidez bioteknologiaren garapena eta aplikazioa sustatzea (garapen bidean dauden herrialdeei garrantzi berezia eman behar zaie puntu honetan):
 - i) Nazio, lurralde eta mundu mailan egiten diren jarduerak areagotzea;
 - ii) Nazio, lurralde eta nazioarte mailan, bioteknologiari –bereziki produktuen ikerketari eta garapenari– behar duen babesa ematea;
 - iii) Jendearengan bioteknologiarekin harremana duten etekinen eta arriskuen inguruan kontzientzia gehiago sortzea, garapen jasagarriari laguntzeko;
 - iv) Inbertsioak egiteko, industriaren gaitasuna areagotzeko eta banaketarako eta merkaturatzeko aldekoa den giroa sor dadin laguntzea;
 - v) Herrialde guztien artean zientziaren alorreko trukeak bizkortzea eta "intelektualen exodoa" geldiaraztea;
 - vi) Herrialde indigenen eta beren komunitateen metodo tradizionalak eta ezagutzak onartzea eta bultzatzea eta bioteknologiaren aurrerapenetatik lortutako etekin ekonomiko eta komertzialak elkarbanatzeko aukera izan dezaten zaintzea³⁹;
- b) Uneko jarduerak hobetzeko bitartekoak zein diren zehaztea. Horretarako, ahal den neurrian, dauden mekanismoak bereziki lurralde mailakoak, sustatu behar dira. Gainera, mekanismo horiek ekimen osagarrien beharrak zein motatakoak diren zehazteko eta

³⁹ Ikus 26. atala (Herrialde indigenen eta beren komunitateen zeregina onartzea eta sendotzea).

beharrei erantzun ahal izateko –baita nazioarteko mota guztietako estrategia berriei erantzuteko ere– estrategia sustatzeko aukera eman behar dute;

- c) Herri, lurralde eta nazioarte mailan, dagokionaren arabera, segurtasuna eta arriskuak ebaluatzeko egokiak diren mekanismoak ezartzea edo egokitzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen, sektore pribatuaren, gobernuz kanpoko erakundeen eta instituzio akademikoen eta zientifikoen babesarekin, ondorengo jarduerak gauzatu beharko lituzkete:

- i) Politikak formulatzea eta baliabide osagarriak mobilizatzea, bioteknologia berriak eskuragarri izateko, bereziki garapen bidean dauden herrialdeentzako eskuragarriagoak izateko eta beren artea trukeak egiteko;
- ii) Programak gauzatzea, jendearengan eta erabakiak hartzeaz arduratzen direnengan bioteknologia ekologikoki era arrazionalen aplikatuz gero lor daitezkeen etekinen eta izan daitezkeen arriskuen inguruko kontzientzia sortzeko;
- iii) Nazio, lurralde eta mundu mailan, mekanismoen, programen eta ekintzen azterketa egitea berehala. Hori mekanismo, programa eta ekintza horien alde positiboak, ahulguneak eta eskasiak zehazteko eta garapen bidean dauden herrialdeetan lehentasuna duten beharrak ebaluatzeko egin beharko litzateke;
- iv) Azterketa osagarria, kritikoa eta urgentea egitea, bioteknologiaren aplikazio ekologikoki arrazionalerako gaitasun endogenoa sendotzeko bitartekoak zein diren zehaztu ahal izateko, bai garapen bidean dauden herrialdeetan, bai herrialde horien artean. Honetarako, lehenengo, aurretik martxan dauden mekanismoak hobetzeko bitartekoak zein diren adierazi behar da eta, ondoren, nazioartean izan daitezkeen mekanismo berrien azterketa egin behar da, esate baterako, bioteknologiako lurralde mailako zentroen azterketa;
- v) Plan estrategikoak lantzea ikerketa egokien, produktuen garapenaren eta beren merkaturatzearen bidez ezagunak diren mugak gainditzeko;

vi) Kalitate oneko bermeei buruzko arauak ezartzea bioteknologiaren aplikazioentzako eta, beharrezkoa denean, beren produktuentzako.

b) Datuak eta informazioa:

Ondorengoa egin beharko litzateke: informazioa hedatzeko dauden sistemak eskuragarri izan daitezen lan egitea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeen artean; hala behar denean sistema horiek eskuratzeko bideak hobetzea eta informazio-gida bat prestatzeko aukera aztertzea.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokien mailan eta nazioarteko eta lurraldeko erakundeekin laguntzarekin, ekimen berriak jarri beharko lituzkete martxan. Ekimen hauek ondorengoa egiteko egokiak izan beharko lukete: batetik, arazo zehatzen inguruko ikerketetan lehentasuna duten atalak zehazteko; bestetik, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek eta herrialde hauen eta bertako enpresen artean bioteknologia berriak eskuratzeko aukera errazteko. Honen guztiaren helburuak herrialde horien gaitasun instituzionala eta ikerketarako gaitasuna sor dadin sustatzea eta gaitasun endogenoa sendotzea dira.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 5 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Lurralde eta mundu mailako komunitate zientifikoekin artean ikastaro praktikoak, sinposioak, mintegiak eta beste truke batzuk antolatu beharko lirateke, lehentasuna duten gai zehatzen inguruan. Truke horiek egiteko herrialde bakoitzeko giza baliabide zientifikoak eta teknologikoak erabat erabili beharko lirateke.

c) Giza baliabideen garapena:

Nazio, lurralde eta mundu mailan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, langileak trebatzeko beharrak zehaztea eta trebakuntza-programa berriak lantzea ezinbestekoa da. Horretarako babes berezia beharko da, batetik, graduatu, gradu ondoko eta doktoratu ondoko mailetan trebakuntza areagotzearen bidez eta, bestetik, teknikariak eta laguntzarako langileak trebatzearen bidez; puntu honetan aholkularitza-zerbitzuetan, azterketa eta proiektu teknikoetan eta merkatuaren ikerketetan adituak diren langileak prestatzeari garrantzi berezia eman beharko litzaioke. Halaber, batetik, munduko hainbat herrialdeetako ikerketa-erakunde aurreratuetan zientzialariak eta teknikariak prestatzeaz arduratzen diren irakasleentzako trebakuntza-programak eta, bestetik, zientzialarientzako eta teknikarientzako sari, pizgarri eta onarpen egokiak eskaintzen dituzten sistemak lantzea ere ezinbestekoa da (ikus 44. paragrafoa). Horrez gain, garapen bidean dauden herrialdeetan, nazio mailako zerbitzuen baldintzak hobetu egin beharko dira eta tokian tokiko langile trebatuen iraunkortasuna sustatu egin beharko da. Gizarteari bioteknologia aplikatzearen eta garapenaren eragin sozialei eta kulturei buruzko informazioa eman beharko litzaioke.

d) Gaitasuna areagotzea:

Bioteknologiaren ikerketa eta garapena baldintza tekniko konplexuetan eta maila praktikoan egiten dira herrialde askotan. Ikerketa, hedapen eta jarduera teknologikoetarako beharrezkoa den azpiegitura era dezentralizatuan erabiltzeko moduan dagoela segurtatzeko jarduerak beharrezkoak dira. Oinarrizko eta aplikatutako ikerketarako eta garapenerako, mundu eta lurralde mailako lankidetzak ere areagotu egin beharko da eta ahal den guztia egin beharko da lurralde eta nazio mailan dauden instalazioak erabat erabil daitezela segurtatzeko. Dagoeneko herrialde batzuetan badaude horretarako erakundeak eta trebakuntzarako eta taldeko ikerketa-proiektuetarako erabiltzeko aukera badago. Unibertsitateak, eskola teknikoak eta ikerketarako herri mailako erakundeak sendotzea beharrezkoa da, bioteknologia eta bera aplikatzeko hedapen-zerbitzuak sustatzeko, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan.

17. ATALA: Ozeanoen eta mota guztietako itsasoen –itsaso itxiak eta erdi itxiak barne– eta kostaldeko guneen babes eta bertako baliabide bizidunen babes, arrazoizko erabilera eta garapena

Sarrera

Ingurune itsastarra –hau da ozeanoak, itsaso guztiak eta ondoko kostaldeko guneak– multzo integratu bat da; ingurune hori bizitzari eusteko munduko sisteman ezinbestekoa da eta garapen jasangarrirako aukerak ematen dituen baliabide baliotsua da. Nazioarteko eskubidea atal honetan aipatzen da eta Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko xedapenetan dago islatuta⁴⁰. ⁴¹Xedapen horietan estatuen eskubideak eta betebeharrak adierazten dira eta ingurune itsastarraren eta kostaren eta beren baliabideen garapen jasangarrirako eta babesarako nazioarteko oinarria da. Horrek ingurune itsastarraren eta kostaldeko guneen antolaketarako eta garapenerako ikuspegi berriak eskatzen ditu azpilurralde, lurralde eta mundu mailan; antolaketak eta garapenak edukiaren aldetik integratuak izan behar dute eta aurreikuspenarentz eta prebentziorantz zuzenduta egon behar dute, ondorengo puntuetan adierazten den moduan⁴²:

- a) Kostako eta itsasoko guneen antolaketa integratua eta garapen jasangarria, horien artean gune ekonomiko eskusiboak;
- b) Ingurune itsastarra babestea;
- c) Itsas zabaleko itsas baliabide bizidunen ustiapen jasangarria eta kontserbazioa
- d) Eskumen nazionalera lotutako itsas baliabide bizidunen ustiapen jasangarria eta kontserbazioa;
- e) Itsasoko inguruaren eta klimaren aldaketaren inguruan sortutako zalantza nagusiei irtenbidea ematea;
- f) Nazioarte mailan lankidetzaren sendotzea eta lurralde mailan lankidetzaren eta koordinazioaren sendotzea;
- g) Uharte txikien garapen jasangarria.

⁴⁰ Atal honetan Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentziokoaren inguruan egiten diren erreferentziak ez dute aurretik epaitzen Konbentziokoaren sinadurari edo berrespenari edo atxikimenduari buruzko edozein estaturen jarrera.

⁴¹ Atal honetan Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentziokoaren inguruan egiten diren erreferentziak ez dute aurretik epaitzen Konbentziokoaren bateratutako zerbait dela uste duen edozein estaturen jarrera.

⁴² Atal honetako programa-arloetan ez da ulertuko erabaki diren gauza guztiek beren gune itsastarren jabetzei edo mugei buruz eztabaidak dituzten estatuen eskubideak aurretik epaitzen dituztela.

Garapen bidean dauden herrialdeek ondoren aipatuko diren jarduerak honakoaren arabera gauzatuko dituzte: batetik, bakoitzaren gaitasun teknologikoaren eta finantza-gaitasunaren arabera eta, bestetik, garapenerako beharretarako baliabideen aukeraketan dituzten lehentasunen arabera. Horrez gain, besterik ezean, teknologiaren tranferentziaren eta behar dituzten eta lortzen dituzten finantza-baliabideen arabera izango da.

Programa-arloak

A. Kostako eta itsasoko guneen antolaketa integratua eta garapen jasangarria, horien artean gune ekonomiko eskusiboak

Ekintzarako oinarriak:

Kostaldean habitat desberdin eta produktibo asko daude eta oso garrantzitsuak dira giza kokalekuetarako, garapenerako eta tokian tokiko iraupenerako. Munduko biztanleen erdia baino gehiago kostatik 60 kilometro baino gutxiagora bizi da eta proportzio hori hiru laurden izatera igo daiteke 2020 urterako. Munduko behartsu asko kostaldean daude pilatuta. Kostaldeko baliabideak ezinbestekoak dira komunitate askorentzat eta herrialde indigena askorentzat. Gune ekonomiko eskusiboa ere gune itsastar garrantzitsua da eta gune horietan, estatuak garapenez eta baliabide naturalen kontserbazioaz arduratzen dira, beren herrialdeen onerako. Estatu txikien edo irletako herrialdeen kasuan, garapenerako jardueretarako gunerik garrantzitsuenak dira.

Nazio, azpinazio, lurralde eta mundu mailan ahalegin handia egiten ari diren arren, itsasoko eta kostaldeko baliabideen antolaketa bideratzeko egungo moduak ez du beti garapen jasangarria lortzeko aukera eman, eta kostaldeko baliabideak eta ingurugiroa oso azkar degradatzen eta higatzen ari dira munduko leku askotan.

Helburuak:

Itsasertzeko estatuak beren eskumen nazionalaren barruan dauden kostaldea eta ingurune itsastarra era integratuan antolatzeko eta era jasangarrian garatzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako, beste batzuen artean, ondorengoa egin behar dute:

- a) Politikak formulatzeko eta erabakiak hartzeko prozesu integratua sortzea; bertan interesa duten sektore guztiek hartu beharko dute parte. Hau erabilera desberdinen artean bateragarritasuna eta oreka sustatzeko egin behar da;
- b) Kostako guneen eta beren interakzioen uneko erabilerak eta aurrera begira pentsatutako erabilerak zehaztea;
- c) Kostaldean antolaketekin harremana duten ongi definitutako arazoetan arreta jartzea;
- d) Proiektuak planifikatzeko eta gauzatzeko unean prebentzioaren eta arretaren inguruko ikuspegiak hartzea. Barruan proiektu handien ingurugiroko eraginen aurretiko ebaluazioa eta behaketa sistematikoa sartuko lirarteke;
- e) Nazio mailan, esate baterako baliabideen kontabilitatea eta ingurugiroaren

kontabilitatea metodoen garapena eta aplikazioa sustatzea. Metodo hauek kostaldearen eta inguru itsastarraren erabilera ezberdinen ondorioz lortutako balio aldaketak islatu beharko lituzkete; horretarako faktore hauek hartu beharko lirateke kontuan: kutsadura, itsas higadura, baliabideen galera eta habitaten suntsiketa;

- f) Ahal den neurrian, jendeari, taldeei eta interesa duten erakundeei informazio eskuratzeko eta kontsultatuak izateko aukera ematea eta, maila egokian, planifikatzeko eta erabakiak hartzeko unean partze hartzeko aukera ematea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Itsasertzeko estatu bakoitzak koordinaziorako mekanismo egokiak –esate baterako, goi mailako politika planifikatzeko erakundea– martxan jartzeko, edo hala behar denean sendotzeko, aukera aztertu beharko luke, bai herri mailan, bai nazio mailan, kostaldeko guneen eta ingurune itsastarren eta beren baliabideen antolaketa integraturako eta garapen jasangarrirako. Mekanismo horien barruan, hala behar izanez gero, honakoei kontsulta egitea sartuko litzateke: sektore akademikoa eta sektore pribatua, gobernuz kanpoko erakundeak, tokian tokiko komunitateak, baliabideen erabiltzaile-taldeak eta herrialde indigenak. Koordinaziorako mekanismo nazional horiek, beste batzuen artean, ondorengoak egiteko aukera emango lukete:

- a) Lurraren eta uraren erabileraren eta jardueren lokalizazioaren inguruko politikak formulatzeko eta aplikatzeko;
- b) Dagokien mailetan, kostaldeko guneen eta ingurune itsastarraren antolaketa integraturako eta garapen jasangarrirako planak eta programak aplikatzeko;
- c) Gai kritikoak adierazten diren kostaldeko gunetako deskribapen sinoptikoak prestatzeko; gai horien artean ondorengoak egon daitezke: gune higatuak, prozesu fisikoak, garapeneko ereduak, erabiltzaileen arteko gatazkak eta antolakuntzarako lehentasun espezifikoak;
- d) Ingurugiroaren eragina aurretik ebaluatzeko, proiektu handiak sistematikoki behatzeko eta jarraitzeko eta emaitzak erabakiak hartzeko prozesuan sistematikoki sartzeko;
- e) Larrialdi egoerentarako planak egiteko, batetik, gizakiak eragindako hondamendiei

- eta hondamendi naturalei erantzuteko eta, bestetik, klima aldatuz gero izan daitezkeen eraginei eta itsasoaren mailaren igoerari erantzuteko. Horrez gain, plan hauek degradazioari eta jatorri antropogenikoa duen kutsadurari aurre egiteko ere izan beharko lukete, baita petrolioaren eta beste sustantzia batzuen isurketei aurre egiteko ere;
- f) Ondorengo gaiei dagokienez, kostako giza kokapenetako egoera hobetzeko: batetik, etxebizitza eta edateko ura eta, bestetik, hondakin-uren, hondakin solidoen eta iturri industrialen tratamendua eta suntsiketa;
 - g) Aldian-aldean kanpoko faktoreen eta fenomenoaren ondorioak ebaluatzeko. Hau kostaldeko guneen eta inguru itsastarraren antolaketa integratuaren eta garapen jasangarriaren helburuak lortzeko egin beharko litzateke;
 - h) Aldatutako habitat kritikoak kontserbatzeko eta indartzeko;
 - i) Kostaldeko gunetan erabiltzen dituzten edo gune horiei eragiten dieten kokaguneeen, nekazaritzaren, turismoaren, arrantzaren, portuen eta industrien garapen jasangarriari buruzko programa sektorialak integratzeko;
 - j) Azpiegitura eta ordezko lanbidea egokitzeko;
 - k) Giza baliabideen garapenerako eta trebakuntzarako;
 - l) Hezkuntza publikoaren, sentsibilizazioaren eta informazioaren inguruko programak aurrera eramateko;
 - m) Teknologia ekologikoki arrazionalak eta jarduera jasangarriak sustatzeko;
 - n) Ingurugiroaren inguruko kalitatearen irizpideak aldi berean formulatzeko eta aplikatzeko.

Itsasertzeko estatuek, hala eskatzen dutenean nazioarteko erakundeen babesarekin, beren jurisdikzio nazionalaren barruan dauden itsasoko espezieen eta habitaten aniztasun biologikoari eta produktibitateari eusteko neurriak hartu beharko lituzkete. Neurri horien barruan, besteak beste, ondorengo jarduerak sartuko lirateke: itsasoko aniztasun biologikoaren inguruko ikerketak, arriskuan dauden espezieen eta kostaldeko eta itsasoko habitat kritikoaren inbentarioak, babestutako guneen kokapena eta antolaketa eta ikerketa zientifikoei eta beren emaitzen hedapenari babesa.

b) Datuak eta informazioa:

Itsasertzeko estatuek, hala behar denean, informazioa biltzeko, aztertzeko, ebaluatzeko

eta erabiltzeko beren gaitasuna areagotu egin beharko lukete, baliabideen erabilera jasangarrirako; horrez gain, kostaldeko guneei eta ingurune itsastarrei eragiten dieten jarduerak sortutako ingurune-inpaktuari buruzko azterketak egin beharko lituzkete. Baliabideen antolaketarako baliagarria den informazioa lortzeari babes eman beharko litzaioke eta honek lehentasuna izan beharko lukete. Horretarako kostaldeko guneeetan eta ingurune itsastarretan gertatzen ari diren aldaketen intentsitatea eta tamaina hartu behar dira kontuan. Helburu hori lortzeko, besteak beste, ondorengoa egitea ezinbestekoa da:

- a) Datu-baseak egitea eta mantentzea, kostaldeko guneeak eta itsaso guztiak eta beren baliabideak ebaluatzeko eta antolatzeko;
- b) Adierazle sozioekonomikoak eta ingurugiroko adierazleak prestatzea;
- c) Aldizka kostaldeko eta itsasoko guneeetako ingurugiroaren egoerari buruzko ebaluazioa egitea;
- d) Kostaldeko guneeetako baliabideen, jardueren, erabileren, habitaten eta babestutako guneen deskripzio sinoptikoak prestatzea eta mantentzea, garapen jasangarrirako aplikatu daitezkeen irizpideak oinarri hartuta;
- e) Informazioa eta datuak trukitzea.

Garapen bidean dauden herrialdeekin eta, hala behar denean, azpilurraldeko eta lurraldeko mekanismoekin lankidetzara sendotu egin beharko litzateke, herrialde horiek aipatu berri diren helburuak lortzeko duten gaitasuna hobetzeko.

c) Lankidetzara eta koordinazioa nazioartean eta lurralde mailan:

Alde biko izaera duten nazioarteko lankidetzaren eta koordinazioaren funtzioa eta, hala badagokio, azpilurralde, lurraldearte, lurralde edo mundu mailako funtzioa itsasertzeko estatuen ahalegin nazionala babestea eta osatzea da. Hori kostaldeko guneen eta ingurune itsastarraren antolaketa integratua eta garapen jasangarria sustatzeko egin beharko litzateke.

Estatuek kostaldeko guneen antolaketa eta garapen integraturako nazio mailako arauak prestatzen lagundu beharko lukete, behar denaren arabera, eta horretarako eskuratutako esperientzia erabili beharko lukete. 1994 baino lehen mundu mailako biltzarra egin liteke gai honen inguruko esperientziak trukatzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 6.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 50 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Estatuek beharrezkoak diren ikerketak egiten, kostaldea behatzeko sistemak egiten eta informazioa kudeatzen lagundu beharko lukete. Garapen bidean dauden herrialdeei ekologikoki kalterik eragiten ez duten teknologiak eta metodologiak eskura izateko aukera eman beharko litzaieke, kostaldeko eta itsasoko guneen garapen jasangarrirako; gainera, teknologiak eta metodologiak herrialde horietara transferitu beharko lituzkete. Halaber, teknologiak eta beren gaitasun zientifikoa eta teknologikoa garatu beharko lituzkete.

Nazioarteko erakundeek –azpilurralde, lurralde edo mundu mailakoek–, aurrez aipatutako jarduerekin harremanetan, hala eskatzen duten itsasertzeko estatuei babesa eman beharko liekete eta kasu berezia egin behar liekete garapen bidean dauden herrialdeei.

c) Giza baliabideen garapena:

Itsasertzeko estatuek kostaldeko guneen eta gune itsastarren antolaketa integratuaren eta garapen jasangarriaren inguruko hezkuntzaren eta trebakuntzaren antolaketa sustatu eta erraztu beharko lukete; hori, besteak beste, zientzialariei, teknikariei, administrariei (komunitateetan lan egiten duten administrariak barne), erabiltzaileei, buruzagiei, populazio indigenei, arrantzaleei, emakumei eta gazteei zuzenduta egin beharko lukete.

Hezkuntza-programetan eta jendea sentsibilizatzeko programetan ingurugiroaren antolaketarekin, garapenarekin eta babesarekin lotura duten kontuak sartu beharko lirateke; horretarako ekologiaren inguruko ezagutza tradizionalak eta balio soziokulturalak behar bezala hartu beharko lirateke kontuan.

Nazioarteko erakundeek –azpilurralde, lurralde edo mundu mailakoek–, aurrez aipatutako alorrekin harremanetan, hala eskatzen duten itsasertzeko estatuei babesa eman beharko liekete eta kasu berezia egin behar liekete garapen bidean dauden herrialdeei.

d) Gaitasuna areagotzea:

Hala eskatzen duten itsasertzeko estatuei erabateko laguntza eman beharko litzaielike beren gaitasuna areagotzeko, eta, hala behar denean, gaitasuna sendotzea garapenerako alde biko eta alde anitzeko lankidetzaren barruan sartu beharko litzateke. Itsasertzeko estatuek, besteak beste, ondorengoa egiteko aukera aztertu beharko lukete:

- a) Herri mailan gaitasuna areagotzeko aukera;
- b) Tokian tokiko agintariei, enpresa-elkarteei, sektore akademikoari, baliabideen erabiltzaile-taldeei eta oro har jendeari kostaldeko eta itsasoko arazoei buruz kontsulta egiteko aukera;
- c) Gaitasuna areagotzen den bitartean programa sektorialak koordinatzeko aukera;
- d) Giza baliabideen eta azpiegitura zientifikoaren eta teknologikoaren garapenaren inguruan uneko eta etorkizuneko gaitasunak, zerbitzuak eta beharrak zehazteko aukera;
- e) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak eta ikerketarako bitartekoak garatzeko aukera;
- f) Giza baliabideen eta hezkuntzaren garapena sustatzeko eta errazteko aukera;
- g) Kostako eta itsasoko baliabideen antolaketa integratuaren inguruko goi mailako ikastegiak babesteko aukera;
- h) Kostaldeko eta itsasoko guneen antolaketa integratuaren inguruan erakustaldi esperimentalarako programak eta proiektuak babesteko

aukera.

B. Inguru itsastarra babestea

Ekintzarako oinarriak:

Ingurune itsastarraren degradazioa hainbat arrazoiengatik gertatzen ari da. Itsas kutsaduraren % 70 lurreko iturriek eragindakoa da eta itsas garraioak eta itsasoan egindako isurketek bakoitzak kutsaduraren % 10 eragiten dute. Ingurune itsastarrari kalte gehien egiten dioten kutsatzaileak ondorengoak dira: hondakin-urak, mantenu gaiak, konposatu organiko sintetikoak, sedimentuak, zakarra eta material plastikoak, metalak, erradionuklidoak, petrolioak eta hidrokarburo aromatiko poliziklikoak. Kutsatzaile hauek ez daude garrantziaren arabera ordenatuta eta nazioaren eta lurraldearen arabera egoera desberdinean daude. Lurreko iturrietako sustantzia kutsatzaile askok garrantzi berezia dute ingurune itsastarrarentzako, izan ere, beren ezaugarrien artean, kate trofikoan toxikotasuna, iraunkortasuna eta bioakumulazioa dituzte batera. Gaur egun ez dago lurreko iturriek eragiten duten itsas kutsadurari aurre egiteko mundu mailako planik.

Lurreko jarduera askok ere eragiten dute ingurune itsastarraren degradazioa. Giza asentamenduek, lurra erabiltzeko moduek, kostaldean azpiegiturak eraikitzeak, nekazaritzak, basogintzak, hiriaren garapenak, turismoak eta industriak ere eragin diezaiokete ingurune itsastarrari. Kostaldearen higadurak eta sedimentazioak ere ardura berezia sorrarazten dute.

Itsas garraioak eta itsasoko jarduerak ere eragiten dute kutsadura. Urtean, gutxi gorabehera, 600.000 tona petrolio isurtzen dira ozeanoetan, ohiko itsas garraioaren, istripuen eta legez kanpoko deskargen ondorioz. Kostaldean egiten diren petrolioak eta gasa ateratzeko jardueri dagokienez, gaur egun nazioarte mailako arauak daude makinarien inguruko deskargen inguruan eta lurralde mailako sei konbentzio aztertzen ari dira plataformetako deskargak ikuskatzeko. Beren izaera eta garrantzia kontuan hartuta, kostaldeetan petrolioak esploratzeko eta ateratzeko jarduerak ingurugiroan duten eragina, oro har, itsas kutsaduraren zati txiki bat besterik ez da.

Ingurune itsastarraren degradazioari aurre hartzeko baliagarriagoa izango da arreta eta prebentzioa oinarri dituen estrategia erreakzioa oinarri duena baino. Horretarako, besteak beste, ondorengo ezinbestekoa da: arretazko neurriak hartzea, ingurune-inpaktua ebaluatzea, produkzioarako teknika garbiak erabiltzea, birziklatzea, ingurugiro-auditoriak egitea eta hondakinak ahalik eta gehien murriztea, hondakin-urak tratatzeko instalazioak eraikitzea eta hobetzea, gai arriskutsuak behar bezala manipulatzeko antolakuntza-irizpide kualitatiboak

izatea eta airetik, lurretik eta uretatik datozen eragin kaltegarrien ikuspegi zabalagoa izatea. Antolaketako esparru guztietan kostaldeko giza kokalekuen hobekuntza eta kostaldeko guneen antolaketa eta garapen integratua sartu beharko lirateke.

Helburuak:

Estatuek inguru itsastarraren degradazioa ekiditeko, murrizteko eta kontrolatzeko konpromisoa hartu dute, Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko xedapenen arabera eta beren politiken, lehentasunen eta baliabideen eremuan. Hori baliabide bizidunen produkzioarako eta mantenurako gaitasunari eusteko eta hobetzeko egin beharko litzateke. Horretarako ondorengoa beharrezkoa da:

- a) Prebentzioarako, arretarako eta aurreikuspenarako irizpideak aplikatzea, inguru itsastarraren degradazioa ekiditeko eta epe luzeak edo itzuliezinak diren eragin kaltegarrien arriskua murrizteko;
- b) Aurretik, inguru itsastarrean eragin kaltegarriak eta handiak izan ditzaketen jardueren ebaluaketa egitea;
- c) Inguru itsastarraren babes ingurugiroaren, gizartearen eta ekonomiaren garapenaren alorretako politika orokorretan integratzea;
- d) Pizgarri ekonomikoak ezartzea, behar denean, teknologia garbiak eta ingurugiroko kostuek sartzearekin bat datozen beste bitarteko batzuk aplikatzeko, esaterako "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioa. Hori inguru itsastarraren degradazioa ekiditeko egin beharko litzateke;
- e) Kostaldean bizi diren biztanleen, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleen, bizitza-maila hobetzea. Hori kostaldeko eta itsasoko inguruaren degradazioa murrizten laguntzeko egin beharko litzateke.

Konpromiso hori betetzeko garapen bidean dauden herrialdeek hartutako neurriak babesteko finantza-baliabide osagarriak ematea ezinbestekoa izango dela esateko garaian ados daude estatuak; baliabide horiek nazioarteko mekanismo egokien bidez bideratu beharko dira. Horrez gain, gutxiago kutsatzen duten teknologiak eta teknologia horiei dagozkien ikerketak egiteko aukera guztiek izan behar dutela esateko garaian ere ados daude.

Jarduerak

a) Kudeaketa-jarduerak:

Lurreko jarduerak eraginda inguru itsastarraren degradazioaren prebentzioa, murrizketa eta kontrola.

Lurreko jarduerak eragindako ingurune itsastarraren degradazioari aurre egiteko konpromisoa betetzeko, estatuek nazio mailan neurriak hartu beharko lituzkete, eta, hala behar izanez gero, baita lurralde eta azpilurralde mailan ere. Neurri horiek A programarako jardueren arabera hartu beharko lituzkete. Horrez gain, inguru itsastarra lurreko iturriek eragindako kutsaduraren aurrean babesteko Montrealgo arauak kontuan hartu beharko lituzkete.

Horretarako, ingurugiro, zientzia, teknika eta finantza alorretako nazioarteko erakundeen babesarekin, estatuek beste gauza batzuen artean ondorengo lortzeko lagundu beharko lukete:

- a) Behar denaren arabera, Montrealgo arauak eguneratzeko, sendotzeko eta zabaltzeko aukera aztertzeko;
- b) Behar denaren arabera, lurralde mailan indarrean dauden hitzarmenen eta planen eragingarritasuna ebaluatzeko, beharrezkoak diren neurriak babesteko bitartekoak zein diren zehazteko. Horren helburua lurreko jarduerak itsasoan sortutako degradazioa ekiditeko, murrizteko eta kontrolatzeko aukera izatea da;
- c) Behar denaren arabera, lurralde mailako hitzarmen berriak formulatzen hasteko eta hori egin dadin sustatzeko;
- d) Lurreko iturriek eraginda inguru itsastarraren kutsadura mota nagusiei aurre egiteko teknologien inguruko orientazioa emateko bitartekoak lantzeko, informazio zientifiko fidagarrienekin bat;
- e) Mundu mailako finantza-mekanismoentzako orientazio arau-emailea ezartzeko;
- f) Nazioarteko lankidetzak behar duten beste alor batzuk bereizteko.

NBIPren Administrazio kontseiluari ahalik eta azkarren lurreko iturriek eragindako ingurune itsastarraren kutsadurari buruzko gobernuarteko bilera bat prestatzeko eskatu zaio.

Hondakin-urei dagokienez, estatuek aztertu beharreko jardueren artean, ondorengoak

egongo lirateke:

- a) Kostaldeko garapen-planak formulatzeko edo berrikusteko garaian hondakin-uren arazoak kontuan hartzea; horien artean giza kokapenen inguruko planak ere sartuko lirateke;
- b) Hondakin-urak tratatzeko instalazioak eraikitzea eta mantentzea, politikaren eta ahalmen nazionalaren arabera eta izan daitezkeen nazioarteko lankidetzaren arabera;
- c) Hustubideen ahoak kostaldean kokatzea ingurugiroaren kalitatearen maila onargarriari eusteko moduan eta itsaskien haztegiak, uraren hartuneak eta bainurako guneak agente patogenoekin kontaktuan ez egoteko moduan;
- d) Etxeko isurkarien eta industriako isurkari bateragarrien tratamendu osagarri ekologikoki arrazionalak sustatzea, aukera dagoenean sistemarekin bateragarriak ez diren isurkarien sarreraren kontrolak erabiliz;
- e) Ibaietan, estuarioetan edo itsasoan husten diren udalerriko hondakin-uren lehen mailako tratamendua sustatzea edo leku bakoitzerako irtenbide egokiak aurkitzea;
- f) Behar denaren arabera, herri, nazio, azpilurralde eta lurralde mailan programa erregulatzailerak eta zaintza-programak martxan jartzea eta hobetzea, isurkarien deskarga kontrolatzeko. Hori hondakin-uren isurkarien gutxieneko arauak eta uraren kalitatearen inguruko irizpideak erabiliz eta ur hartzaileen ezaugarriak eta kutsatzaile mota eta beren bolumena behar bezala kontuan hartuta egin beharko litzateke.

Beste kutsadura-iturri batzuei dagokienez, estatuek aztertu beharrekoen artean lehentasuna duten neurrien artean ondorengoak egon litezke:

- a) Behar denaren arabera, programa erregulatzailerak eta zaintza-programak martxan jartzea edo hobetzea, kontroleko eta birziklatzeko teknologien garapena eta aplikazioa barne dituen isurkarien eta emisioen deskarga kontrolatzeko;
- b) Arriskuen eta ingurugiro-inpaktuaren ebaluazioa sustatzea, ingurugiro-kalitatearen maila onargarria lortzen laguntzeko;
- c) Lurralde mailan, behar denaren arabera, instalazio berrietako iturri lokalizatuen emisio kutsatzaileen inguruko ebaluazioa eta lankidetzaren sustatzea;
- d) Ingurune itsastarrean maila arriskutsuetara iritsi daitezkeen konposatu organo halogenatuen emisioak edo deskargak deuseztatzea;
- e) Ingurune itsastarrean maila arriskutsuetara iritsi daitezkeen konposatu organiko

- sintetikoaren emisioak edo deskargak deuseztatzea;
- f) Kostaldeko uretan, arazoak dauden lekuetan, sartzen diren nitrogeno eta fosforo deskarga antropogenikoen inguruko kontrolen erabilera sustatzea. Horien artean, esate baterako, inguru itsastarra edo bere baliabideak mehatxatzen dituen eutrofizazioa dago;
 - g) Garapen bidean dauden herrialdeekin lan egitea, finantzaren eta teknologiaren alorretako babesak emanez. Horren helburua, batetik, sustantziak eta hondakin toxiko iraunkorrak edo biologikoki metatzaileak izan daitezkeenak ahalik eta gehien kontrolatu eta murriztu daitezkeen lortzea da eta, bestetik, itsasoan botatzearen ordez hondakinak lurlean deuseztatzeko sistema ekologikoki arrazionalak martxan jartzea;
 - h) Lurlean erabiltzeko teknika eta jarduera ekologikoki arrazionalak eratzen eta aplikatzen laguntzea, inguru itsastarraren kutsadura edo degradazioa eragingo luketen estuarioetara eta uren ibileretara egindako isurketak murrizteko;
 - i) Ingurugiroa gutxiago kaltetzen duten plagiziden eta ongarrien erabilera eta plagen aurkako borrokarako modu berriak sustatzea; horrez gain, ekologikoki arrazionalak ez direnak debekatzeko aukera aztertzea;
 - j) Nazio, azpilurralde eta lurralde mailan, lokalizatu gabeko iturrietatik datozen kutsatzaileen deskarga kontrolatzeko ekimen berriak onartzea. Horretarako hondakin-uren eta hondakinen antolaketa-sistemak, nekazaritzako jarduerak eta meatzaritzarako, eraikuntzarako eta garraiorako metodo berriak sortu beharko dira.

Ingurune itsastarraren degradazioa eragiten duen kostaldeko eta itsasoko guneen suntsiketa fisikoari dagokionez, lehentasuna duten neurrien artean kostaldearen higaduraren eta sedimentazioaren kontrola eta prebentzioa sartu beharko liriateke; puntu honetan, beste batzuen artean lurraren erabilerako eta eraikuntzako teknikekin eta jarduerekin harremana duten faktore antropogenikoek eragindako higadura eta sedimentazioa hartu beharko dira kontuan. Arro hidrografikoak antolatzekeo jarduerak sustatu beharko liriateke inguru itsastarraren degradazioa prebenitzeko, kontrolatzeko eta murrizteko.

Itsasoko jarduerak eraginda inguru itsastarraren degradazioaren prebentzioa, murrizketa eta kontrola.

Estatuek, batetik, beren kasa, lurralde mailan edo bi aldeko edo alde askotako mailatan eta, bestetik, INEren eta azpilurralde, lurralde edo mundu mailako beste nazioarteko

erakunde eskudunen barruan aritu beharko lukete. Gainera, dagokien mailan, ingurune itsastarraren degradazioari aurre egiteko beharrezkoak diren neurri osagarriak ebaluatu beharko lituzkete:

- a) Itsas garraioak egiten duenaren ondorioz, estatuak ondorengoa egin behar lukete:
- i. Itsas garraioarekin harremana duten hitzarmenen eta protokoloen aplikazio eta berrespen zabalagoa sustatzea;
 - ii. Aurreko puntuan aipatutako prozesuak erraztea, beren eskaeren arabera, horretarako estatuei babesak emanaz, berek zehaztutako oztopoak gaituzten laguntzeko;
 - iii. Itsasontziek eragindako itsasoaren kutsadura zaintzeko lanetan elkarlanean aritzea, bereziki legez kontrako deskargei dagokienez (esate baterako, aireko zaintzaren bidez), eta MARPOL Hitzarmenaren deskargei buruzko xedapenak zorrotzago bete daitezzen behartzea;
 - iv. INEk bereziki arriskuan daudelako berezitako gunetan itsasontziek eragindako kutsadura-maila ebaluatzea eta, kasuaren arabera, gune horietan beharrezkoak diren neurriak aplikatzea, guztiek onartutako nazioarteko araudiak bete daitezzen lortzeko;
 - v. Nazioarteko eskubideen arabera, beren gune ekonomiko eksklusiboen barruan itsasertzeko izendatutako guneak errespetatzeko neurriak hartzea, ekosistema bakanak edo ahulak –adibidez, koralezko arrezifeak eta mangladiak– babesteko eta zaintzeko;
 - vi. Lasta-uraren deskargaren inguruan arau egokiak onartzeko aukera aztertzea, kanpoko organismoen hedapena ekiditeko;
 - vii. Nabigazioaren segurtasuna sustatzea, dagokionaren arabera, kostaldearen eta itsasoko ibilaldien kartografiaren bidez;
 - viii. Nazioarteko araudi zorrotzagoak behar diren ebaluatzea, kargaontziek – karga soltean eramaten duten itsasontziak barne– eragindako istripuen eta kutsaduraren arriskua gehiago murrizteko;
 - ix. Erregai nuklear irradiatua flaskoetan sartuta itsasontzietan garraiatzeari buruzko arautegia osatzeko INE eta AEAI elkarlanean aritu daitezzen bultzatzea;
 - x. INEren merkantzia-ontzi nuklearrentzako segurtasun-arautegia

berrikustea eta eguneratzea eta berrikusitako arautegia aplikatzeko erarik onena aztertzea;

- xi. INEren barruan, itsasontziek eragiten duten airearen kutsadura murrizteko neurriak prestatzearekin harremanetan, indarrean dauden jarduerak babestea;
- xii. INEren barruan, gai arriskutsuak eta toxikoak urez garraiatzeko nazioarteko erregimena prestatzearekin lotura, indarrean dauden jarduerak babestea eta, gainera, Funtsaren Hitzarmenaren arabera aurrez jarritakoen antzeko konpentsazio-funtsak ezartzea egokia den aztertzea, petrolio ez beste gaien kutsadurak eragindako kalteei dagokienez;

b) Isurketen ondorioz, estatuak ondorengoa egin beharko lukete:

- i. Itsasoan egiten diren isurketei buruzko hitzarmenetan berrespen, aplikazio eta parte-hartze handiagoa sustatzea eta Isurketei buruzko Londresko Hitzarmenerako etorkizuneko estrategia berehala adostea;
- ii. Isurketei buruzko Londresko Hitzarmeneko aldeek neurri egokiak har ditzaten bultzatzea, ozeanoetan egiten diren isurketei eta gai arriskutsuen errausketei amaiera emateko;

c) Itsasoko petrolio eta gas plataformei dagokienez, estatuak deskargei, isurpenei eta segurtasunari buruzko egungo neurri erregulatzailerak aztertu eta neurri osagarrien beharra ebaluatu beharko lituzkete;

d) Portuei dagokienez, estatuak ondorengoa egin beharko lukete: portuetan hondakin kimikoak, petrolio-hondakinak eta itsasontzietako zakarra jasotzeko instalazioak eraiki daitezen laguntzea, batez ere MARPOL Hitzarmenak gune berezi gisa izendatu dituenetan; horrez gain, portuetan laketontzientzako eta arrantza-ontzientzako instalazio txikiagoak egin daitezen bultzatzea.

INEk eta, dagokienaren arabera, Nazio Batuen beste erakunde eskudun batzuek itsas-zirkulazio handia dagoen lekuetan –adibidez, itsasontzi asko igarotzen diren nazioarteko itsasarteetan– ingurune itsastarraren kutsadura maila ebaluatu beharko lukete, estaturen batek hala eskatuz gero. Hori oro har onartuta dauden nazioarteko arauak bete daitezen lortzeko egin beharko litzateke, bereziki Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren III. zatian itsasontzien legez kanpoko deskargei buruz esaten denearekin

lotuta dauden arauak bete daitezzen.

Estatuek inkrustazioaren aurkako pinturretan erabiltzen diren konposatu organoestannikoek sortutako uren kutsadura gutxitzeko neurriak hartu beharko lituzkete.

Estatuek Hidrokarburo bidezko Kutsaduraren aurkako Lankidetzari, Prestakuntzari eta Borrokari buruzko Nazioarteko Hitzarmena berresteko aukera aztertu beharko lukete. Hitzarmen honetan, beste batzuen artean eta dagokienaren arabera, nazio eta nazioarte mailan larrialdi-egoeratarako planen prestakuntza aipatzen da, petrolio-isurketen kasuetan esku-hartzeko eta horretarako langileak prestatzeko materialen horniketa barne. Horrez gain, Hitzarmena zabaltzeko aukera ere barne hartu beharko litzateke, gai kimikoen isurketak gertatzen direnean esku hartu ahal izateko.

Estatuek areagotu egin beharko lukete nazioarteko lankidetzari, petrolioaren edo gai kimikoen isurketak izanez gero, gobernuarteko erakunde eskudunekin –azpilurralde, lurralde edo mundu mailako erakundeekin– eta, behar den kasuetan, industria-erakundeekin lankidetzan esku hartzeko lurralde mailako zentroak edo mekanismoak, behar denaren arabera, sendotzeko edo sortzeko.

b) Datuak eta informazioa:

Estatuek, hala dagokienean, eskura dituzten baliabideen arabera eta beren gaitasuna eta baliabide teknikoak eta zientifikoak behar bezala kontuan hartuta, ingurune itsastarraren egoeraren behaketa sistematikoa egin beharko lukete. Horretarako, dagokienaren arabera, estatuek ondorengoa egiteko aukera aztertu beharko lukete:

- a) Antolaketarako oinarri gisa, ingurune itsastarraren kalitatea eta itsasoko degradazioaren arrazoiak eta eraginak neurtzeko behaketa sistemak ezartzeko aukera;
- b) Aldizka lurreko eta itsasoko jarduerak eragindako itsasoko degradazioari buruzko eta degradazioa prebenitzeko, kontrolatzeko eta murrizteko hartu beharreko neurriei buruzko informazioa trukatzeko aukera;
- c) Nazioarteko behaketa sistematikoko programak –esate baterako, Muskuiluak zaintzeko Nazioarteko Programa– babesteko eta hedatzeko aukera, aurretik dauden baliabideak oinarri hartuta eta garapen bidean dauden herrialdeei kasu berezia

- eginez;
- d) Itsasoko kutsaduraren aurkako borrokari buruzko informazioa trukatzeko zentroa eratzeko aukera. Zentro horren zereginen barruan hainbat prozesu eta teknologia egongo lirатеke, itsasoaren kutsadura kontrolatzeko eta prozesu eta teknologia horiek garapen bidean dauden herrialdeetara eta beharra duten beste herrialdeetara transferi daitezen babesteko;
 - e) Kostan lurreko jardueren eraginez eta itsasoko iturrien eraginez ingurune itsastarrera iristen diren kutsatzaileen iturriei, motei, kantitateei eta eraginei buruzko informazioarekin, mundu mailako datu-basea eta profila prestatzeko aukera;
 - f) Gaitasuna areagotzeko eta hezkuntzarako programetarako nahiko funts emateko aukera, garapen bidean dauden herrialdeen parte-hartze osoa lortzeko, bereziki datuak eta informazioa biltzeko, aztertzeko eta erabiltzeko Nazio Batuen sistemaren organoek eta erakundeek babestutako nazioarteko proiektu guztietan.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 200 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Dagokienaren arabera, nazio, azpilurralde eta lurralde mailako ekintza-programetarako, 34. atalaren arabera teknologiaren transferentzia eta finantza-baliabideak beharko dira, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan. Honen barruan ondorengo puntuak sartu beharko lirатеke:

- a) Produktorako teknologia garbiak edo kutsaduraren aurkako borrokan teknika ekonomikoak aukeratzeko eta onartzeko garaian industriei laguntza;

- b) Garapen bidean dauden herrialdeetan estolderia instalatzeko eta hondakin-urak tratatzeko merkeak diren eta mantentze-lan eskasa behar duten teknologien planifikazioa, garapena eta aplikazioa;
- c) Giza jarduerak eta beste jarduera mota batzuek ingurune itsastarrean duten eragina sistematikoki behatzeko laborategi-ekipoa;
- d) Petrolioaren eta gai kimikoen isurketen aurkako borrokan egokiak diren materialen aukeraketa; horien artean material eta teknika merkeak egongo lirateke, leku guztietan eskura daitezkeenak eta garapen bidean dauden herrialdeetan kutsadurak sortutako larrialdi egoeretarako egokiak direnak;
- e) Ingurune itsastarrean meta daitezkeen organohalogeno iraunkorren erabileraren azterketa, behar bezala kontrola ezin daitezkeenak bereizteko eta erabakiak hartzeko ordurako egutegi batekin ahalik eta azkarren eta pixkanaka-pixkanaka desagertarazteko oinarria izateko;
- f) Informazioa koordinatzeko zentro baten eraketa eta informazio hori garapen bidean dauden herrialdeei eta behar duten herrialdeei helarazteko babesa. Informazio hori, batetik, ingurune itsastarraren kutsaduraren aurkako borrokari buruzkoa izango litzateke eta, bestetik, ingurune itsastarraren kutsaduraren aurkako borrokarako prozesuei eta teknologiei buruzkoa.

c) Giza baliabideen garapena:

Estatuek beren kasa edo elkarri lagunduz eta, kasuaren arabera, azpilurralde, lurralde edo mundu mailako nazioarteko erakundeen babesarekin, ndorengoa egin beharko lukete:

- a) Ingurune itsastarra behar bezala babesteko beharrezkoak diren oinarrizko langileei trebakuntza ematea, nazio, lurralde edo azpilurralde mailan egiten diren trebakuntzako beharrei buruzko azterketetan ematen diren argibideen arabera;
- b) Itsasoaren inguruko ikerketa-programetan ingurune itsastarraren babeserako gaiak sar daitezen sustatzea;
- c) Petrolio-isurketei eta gai kimikoen isurketei aurre egin behar dieten langileentzako trebakuntza-ikastaroak antolatzea, dagokionaren arabera, petrolio- eta kimika-industriekin elkarlanean;
- d) Portuetako lanen eta garapenaren ingurugiro-aldeei buruz ikastaro praktikoak

- ematea;
- e) Itsasoko lanbide-heziketarako nazioarteko zentro espezializatu berriei edo dagoeneko badaudenei finantzazio segurua sendotzea eta ematea;
 - f) Alde biko eta alde askotako lankidetzaren bidez, ingurune itsastarraren degradazioa prebenitzeko eta murrizteko giza baliabideak sustatzeko garapen bidean dauden herrialdeek nazio mailan egiten duten ahalegina babestea eta osatzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Nazio mailako organoei kutsatzen duten lurreko jarduera eta gune guztiak aztertzeko gaitasuna eta aukera planifikatzeko eta koordinatzeko aukera eman beharko litzaieke; hau ingurune itsastarrean duten eragina zehazteko eta kontrolerako neurri egokiak proposatzeko egin beharko litzateke.

Garapen bidean dauden herrialdeetan ikerketa-erakundeak sendotu edo garatu egin beharko liriateke, beharraren arabera, itsasoaren kutsadura sistematikoki behatzeko, ingurune-inpaktua ebaluatzeko eta kontrolari buruzko gomendioak prestatzeko. Erakunde horietako administrazioko langileek eta teknikariek bertakoak izan beharko lukete.

Garapen bidean dauden herrialdeei ingurune itsastarrari mehatxu egiten dioten jarduerekin harremana duten arazoak prebenitzen eta konpontzen laguntzeko finantza-baliabide eta baliabide tekniko egokiak emateko xedapen bereziak beharko dira.

Hondakin-urak tratatzeko teknologia egokiak aplikatzeko eta ur horiek tratatzeko instalazioak eraikitzeko finantzazioa emateko nazioarteko mekanismo bat sortu beharko litzateke. Halaber mekanismo horren barruan, mesede moduan maileguak ematea edo nazioarteko organismoek eta lurralde mailako funts eskudunek diru-laguntzak ematea sartuko liriateke. Diru-laguntza edo mailegu horiek –edo zatiren bat– erabiltzaileek ordaindutako tarifen bidez berriro emango liriateke txandaka.

Programako jarduera hauek garatzeko garaian ezinbestekoa izango da garapen bidean dauden herrialdeen arazoei arreta berezia eskaintzea, izan ere, instalazio, aditu edo gaitasun tekniko falta dela eta, gehiegizko karga izango lukete.

C. Itsas zabaleko itsas baliabide bizidunen ustiapen jasangarria eta kontserbazioa

Ekintzarako oinarriak:

Azken hamarkadan, itsas zabaleko arrantza asko hedatu da eta gaur egun munduko arrantzaren % 5 hartzen du gutxi gorabehera. Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren itsas zabaleko baliabide bizidunei buruzko xedapenetan estatuek baliabide horien kontserbazioaren eta ustiapenaren inguruan dituzten eskubideak eta betebeharrak adierazten dira.

Alturako arrantzaren antolaketaren barruan kontserbaziorako neurri egokiak hartzea, zaintzea eta aplikatzea sartzen da. Hala ere, alturako arrantzaren antolaketa eskasa da alor askotan eta baliabide batzuk gehiegi erabiltzen dira. Hainbat arazo daude: kontrolatu gabeko arrantzaren arazoa, gehiegizko kapitalizazioa, floten gehiegizko tamaina, kontrolak saihesteko itsasontzien pabiloi aldaketa, aukeraketarako eskasak diren tresnen erabilera, datu-base zehaztugabeak eta estatuen artean beharko litzatekeen lankidetzaren falta. Funtsezkoa da itsas zabalean arrantza egiten duten nazionalen eta itsasontzien estatuek horren inguruko neurriak hartzea; horrez gain, alde biko eta azpilurralde, lurralde eta mundu mailako lankidetzaren kontuan hartu behar da, batez ere erabat migratzaileak diren espezieen eta partekatutako populazioen inguruan. Neurri horiek eta lankidetzaren horrek arrantza-jardueretako hutsuneak konpontzeko balio beharko lukete eta, horrez gain, ezagutza biologikoen eta arrantza-estatistiken hutsuneak konpontzeko eta datuak tratatzeko sistemak hobetzeko ere bai. Bereziki espezieen ugaritasunean oinarritutako antolaketa nabarmendu beharko litzateke, baita espezieen arteko harremanak kontuan hartzen dituzten beste metodo batzuk ere, bereziki ahitutako espezieen arazoari aurre egiteko garaian. Gainera, gutxiegi erabiltzen diren edo erabiltzen ez diren populazioen potentziala zehaztu beharko litzateke.

Helburuak:

Estatuek itsas zabaleko baliabide bizidunak era jasangarrian kontserbatzeko eta baliatzeko konpromisoa hartu dute. Horretarako ezinbestekoa da ondorengo egitea:

- a) Itsasoko baliabide bizidunen potentziala garatzea eta areagotzea, gizakien elikatzeko beharrak asetzeko eta helburu sozialak eta ekonomikoak eta garapeneko helburuak betetzeko;
- b) Itsas espezieen populazioari eustea edo berriro ezartzea, dagokien ingurugiro- eta ekonomia-faktoreen arabera ahalik eta errendimendu jasangarri gehiena produzitzeko

moduan, eta espezieen arteko harremanak kontuan hartuta;

- c) Arrantza selektiborako tresnen eraketa eta erabilera bultzatzea eta arrantzatu nahi diren espezieen galera eta beste espezieen harrapaketa gehigarriak ahalik eta gehien jaisten dituzten jarduerak martxan jar daitezen sustatzea;
- d) Arrantza-jardueren inguruko xedapenen zaintza eta aplikazio eragingarriez arduratzea;
- e) Arriskuan dauden itsasoko espezieak babestea eta berriz jartzea;
- f) Habitata eta ekologikoki arriskutan dauden beste guneak kontserbatzea;
- g) Itsaso zabaleko baliabide bizidunen inguruko ikerketa zientifikoa sustatzea.

Edozein estatuk edo nazioarteko erakundek, dagokionaren arabera, eskubidea edo eskuduntza du itsas zabalean itsasoko ugaztunen esplotazioa debekatzeko, mugatzeko edo arautzeko, 46. paragrafoan adierazten dena baino arau zorrotzagoak egiteko. Estatuak itsasoko ugaztunak kontserbatzeko lagundu egingo dute eta, bereziki zetazeoen kasuan, nazioarteko erakundeetan arituko dira elkarlanean beren kontserbaziorako, antolaketarako eta azterketarako.

Garapen bidean dauden herrialdeek aipatutako helburuak lortzeko duten gaitasuna beren azpiegituren arabera da; azpiegituraren barruan dituzten finantza-, zientzia- eta teknologia-bitartekoak sartzen dira. Finantzaren, zientziaren eta teknologiaren alorretan lankidetzaren eman behar litzaieke herrialde horiek helburu horiek lortzeko neurriak har ditzaten.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Estatuak neurri eragingarriak hartu beharko lituzkete, horien artean alde biko eta alde askotako lankidetzarako neurriak, dagokienaren arabera azpilurralde, lurralde eta mundu mailan. Hori itsas zabaleko arrantza Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren arabera antola dadin zaintzeko egin beharko litzateke. Bereziki ondorengoak egin beharko lukete:

- a) Beren banaketa-areak gune ekonomiko eskusiboen barruan eta kanpoan (partekatutak populazioak) dituzten espezieen populazioei buruzko xedapenak guztiz aplikatzea;
- b) Guztiz migratzaileak diren espezieei buruzko xedapenak guztiz aplikatzea;
- c) Hala dagokienez, arrantzarako espezieen populazioen antolaketa eta kontserbazio

- eragingarrietarako nazioarteko hitzarmenak negoziatzea;
- d) Antolaketa egokirako unitateak definitzea eta zehaztea;
- e) Estatuak ahalik eta azkarren gobernuarteko biltzarra antolatu beharko lukete, Nazio Batuen babesean, azpilurralde, lurralde eta mundu mailan dagozkien jarduerak kontuan hartuta. Biltzar hori erabat migratzaileak diren arrainen eta arrain-espezieen partekatutako populazioen inguruan Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean adierazten diren xedapenak eraginkortasunez aplikatu daitezkeen sustatzeko egin beharko litzateke. Biltzarra, beste batzuen artean, FAOren ikerketa zientifikoetan eta teknikoetan oinarritu beharko litzateke eta arrain populazio horien kontserbazioaren eta antolaketaren inguruko egungo arazoak zehaztu eta baloratu beharko lituzke; horrez gain, estatuen arteko arrantzari buruzko lankidetzak hobetzeko bitartekoak aztertzea beharko lituzke eta honen inguruko gomendioak eman.
- Biltzarraren lanak eta emaitzak Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren xedapenekin guztiz bateragarriak izan beharko lukete, bereziki itsasertzeko estatuen eta itsas zabalean arrantza egiten duten estatuen eskubideekin eta betebeharrekin.

Estatuak beren pabiloia itsas zabalean jasotzen duten itsasontzien arrantza-jarduera harrapaketa gehigarriak ahalik eta txikienak izateko moduan gauza dadin saiatu beharko lukete.

Estatuak nazioarteko eskubideekin bat datozen neurri eragingarriak hartu beharko lituzkete, beren pabiloia itsas zabalean jasotzen duten itsasontzien arrantza-jarduera zaintzeko eta kontrolatzeko. Hori antolakuntzaren eta kontserbazioaren inguruan dagozkien arauak bete daitezkeen zaintzeko egin beharko litzateke; arau horien artean harrapaketen eta arrantza-jardueren inguruko informazio oso, zehaztu, zehatz eta egokia aurkeztea egongo litzateke.

Estatuak nazioarteko eskubideekin bat datozen neurri eragingarriak hartu beharko lituzkete, beren nazionalen itsas zabaleko arrantza-jardueren kontserbazioaren eta antolaketaren inguruko arauak saihesteko itsasontzien pabiloia alda ditzaten ekiditeko.

Estatuak arrantzan dinamita eta pozoina eta antzeko beste jarduerak suntsitzaile batzuk erabiltzea debekatu beharko lukete.

Estatuak erabat aplikatu beharko lukete Batzar Nagusien 46/215 ebazpena, sare zuzenen

eta trebes-sareen bidez egiten den eskala handiko alturako arrantzaren ingurukoa.

Estatuek itsasoko baliabide bizidunak gizakientzako elikagai gisa erabilgarriago izateko neurriak hartu beharko lituzkete. Horretarako zakarrak, harrapaketen ondorengo galerak eta hondakinak gutxitu egin beharko lituzkete eta lantzeko, banatzeko eta garraiatzeko teknikak hobetu egin beharko lituzkete.

b) Datuak eta informazioa:

Estatuek, nazioarteko erakundeen –kasuaren arabera, azpilurralde, lurralde edo mundu mailako erakundeen– babesarekin, ondorengoa lortzeko lagundu behar lukete:

- a) Itsas zabaleko itsas baliabide bizidunen kontserbaziorako eta ustiapen jasangarrirako beharrezkoak diren datuen bilketa hobe dadin sustatzea;
- b) Aldizka arrantzaren ebaluaziorako informazio eta datu eguneratuak eta egokiak trukitzea;
- c) Analisisirako eta iragarpenetarako bitartekoak, esate baretako populazioen ebaluazioa eta eredu bioekonomikoak, sortzea eta partekatzea;
- d) Zaintzako eta ebaluazioko programa egokiak martxan jartzea edo zabaltzea.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailan:

Estatuek, alde biko eta alde askotako lankidetzaren bidez, azpilurralde eta lurralde mailako arrantza-organoen esparruan eta nazioarteko gobernuarteko erakundeekin, itsas zabaleko baliabide potentzialak ebaluatu beharko lituzkete eta espezie guztien inbentarioa egin beharko lukete (bai harrapatzeko bilatzen dituzten inbentarioak, bai bilatzen ez dituztenenak).

Estatuek, dagokienaren arabera eta behar denean, azpilurralde, lurralde eta mundu mailako gobernuarteko arrantza-organoen artean koordinazio eta lankidetzaren egokia egon dadin arduratu beharko lukete.

Azpilurralde, lurralde eta mundu mailako arrantza-organoen barruan lankidetzaren eragingarria sustatu beharko lukete. Mota honetako erakunderik ez dagoenean, estatuek, dagokienaren arabera, erakunde horiek eratzeko lan egin beharko lukete.

Hala behar denean, oraindik berei interesatzen zaien itsas zabaleko arrantza arautzen

duen azpilurraldeko edota lurraldeko arrantza erakundeko kide egin ez diren estatuak horretara bultzatu beharko lirateke.

Estatuek ondorengoa onartu beharko lukete:

- a) Baleen Ehiza Arautzeko 1946ko Nazioarteko Hitzarmena jarraituz, baleen populazioa kontserbatzeko eta antolatzeko eta baleen ehiza arautzeko Baleen Nazioarteko Batzordeak duen ardura;
- b) Bereziki balea handiei eta beste zetazeo batzuei buruzko ikerketak egiteko Baleen Nazioarteko Batzordeko Zientzia Komiteak egiten duen lana;
- c) Zetazeoak eta itsasoko beste ugaztun batzuk kontserbatzeko, antolatzeko eta aztertzeke hainbat erakundek egiten duten lana, esate baterako, Atun Tropikalaren Batzorde Interamerikanoaren eta Baltiko Itsasoko eta Ipar Itsasoko Zetazeo Txikiei buruzko Hitzarmenaren lana, Bonneko Hitzarmenaren barruan.

Estatuek zetazeoen kontserbazioan, antolaketan eta ikerketetan elkarlana egin beharko lukete.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 12 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Estatuek, nazioarteko erakunde egokien babesarekin, hala behar denean, lankidetzaprogramak prestatu beharko lituzkete teknikaren eta ikerketaren alorretan, itsas zabalean dauden espezieen bizi-zikloak eta migrazioak hobeto ezagutzeko eta garai

garrantzitsuenak eta gune kritikoak zein diren zehazteko.

Estatuek, nazioarteko erakundeen babesarekin –azpilurralde, lurralde edo mundu mailako erakundeen babesarekin– ondorengoa egin behar lukete:

- a) Itsas zabaleko arrantza-tokiei eta baliabide bizidunei buruzko datu-baseak prestatzea;
- b) Batetik, ingurune itsastarrari eta itsas zabaleko baliabide bizidunei eta, bestetik, arrazoi naturalen eta giza jardueren ondorioz lurralde eta mundu mailan gertatzen diren aldaketen ondorioei buruzko datuak biltzea eta parekatzea;
- c) Ikerketa-programen koordinazioan laguntzea itsas zabaleko baliabideak antolatzeke beharrezkoak diren ezagutzak zabaltzeko.

c) Giza baliabideen garapena:

Nazio mailan giza baliabideen garapenaren helburuek hauek izan beharko lukete: itsas zabaleko baliabideak garatzea eta antolatzea, alturako arrantzen tekniken eta itsas zabaleko baliabideen ebaluazioaren inguruan trebatzea, itsas zabaleko baliabideen eta hauekin lotura duten ingurugiroko beste gai batzuen antolaketari eta kontserbazioari ekiteko langile-taldea indartzea eta arrantza-ontzietan ontziratuko diren behatzaileak eta ikuskatzaileak trebatzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Estatuek, dagokienaren arabera eta nazioarteko erakundeen babesarekin –azpilurralde, lurralde edo mundu mailako erakundeen babesarekin–, batetik, zaintzarako, kontrolerako eta ikuskatzeko erakundeen sistemak eta estrukturak garatzeko eta hobetzeko eta, bestetik, itsasoko baliabide bizidunen populazioak ebaluatzeko ikerketarako azpiegiturak garatzeko edo hobetzeko elkarlana egin beharko lukete.

Ezinbestekoa da estatuen arteko elkarlana barne hartuko duen babes berezia izatea, ondorengo esparruetan garapen bidean dauden herrialdeen gaitasuna areagotzeko: informazioa eta datuen bilketa, bitarteko zientifiko eta teknologikoetan eta giza baliabideen garapean. Helburua garapen bidean dauden herrialdeek itsas zabaleko baliabide bizidunen kontserbazioan eta ustiapen jasangarrian era eragingarrian parte

hartzea izango litzateke.

D. Eskumen nazionalera lotutako itsas baliabide bizidunen ustiapen jasangarria eta kontserbazioa

Ekintzarako oinarriak:

Itsasoko arrantzak 80 eta 90 milioi tona arrain eta molusku inguru produzitzen ditu urtean, eta kopuru horren % 95 jurisdikzio nazionaleko uretan harrapatutakoa da. Azken lau hamarkadetan errendimendua boskoiztu egin da. Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean, gune ekonomiko eskusiboetarako eta jurisdikzio nazionalera lotuta dauden beste gune batzuetako itsas baliabide bizidunen inguruko xedapenetan, baliabide horien kontserbazioari eta ustiapenari buruzko estatuen eskubideak eta betebeharrak zein diren dago adierazita.

Itsasoko baliabide bizidunak proteina-iturri garrantzitsu dira herrialde askotan eta sarritan beren erabilerak garrantzi handia du tokian tokiko komunitateentzat eta herrialde indigenentzat. Baliabide horiek elikagaiak eta mantenugaiak eskaintzen dizkiete milioika pertsonari eta beren ustiapen jasangarriak geroz eta aukera gehiago ematen ditu behar sozialak eta elikaduraren inguruko beharrak asetzeko, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Aukera horiek gauzatu ahal izateko ezinbestekoa da ondorengo egitea: itsasoko baliabide bizidunen erreserbetako izakinen ezagutza eta inbentarioa hobetzea, bereziki gutxi edo batere erabiltzen ez diren populazioena edo espezieena; teknologia berriak erabiltzea; hondakinak ekiditeko manipulaziorako eta lanketarako instalazioak hobetzea eta, azkenik, gune ekonomiko eskusiboetarako eta jurisdikzio nazionalera lotutako beste guneetako itsasoko baliabide bizidunen antolaketa eta kontserbazio eragingarrirako trebatuta dauden langileen kalitatea eta hezkuntza hobetzea. Espezieen ugartasunean eta espezieen arteko harremana kontuan hartzen dituzten beste ikuspegi batzuetan oinarritutako antolaketa ere nabarmendu behar da.

Jurisdikzio nazionaleko gune askotan arrantzak geroz eta arazo larriagoak ditu, besteak beste, ondorengoak: bertako gehiegizko arrantza, atzerriko itsasontzien baimenik gabeko sartu-irtenak, ekosistemen degradazioa, floten gehiegizko kapitalizazioa eta tamaina handia, harrapaketen balorazio eskasa, selektiboak ez diren arrantza-ekipoak, fidagarriak ez diren datu-baseak eta artisau-arrantzaren eta eskala handitako arrantzaren arteko eta arrantzaren eta beste jardueren arteko geroz eta lehiakortasun handiagoa.

Arazoak ez dira arrantzara mugatzen. Koralezko arrezifeak eta itsasoko eta kostako beste hainbat habitat, adibidez mangladiak eta estuarioak, Lurreko ekosistema anitzenak, integratuenak eta produktiboak direnen artean daude. Funtzio ekologiko garrantzitsuak betetzen dituzte, kostaldeak

babesten dituzte eta elikadurarako, energiarako, turismorako eta ekonomiaren garapenerako baliabide kritikoak dira. Munduko hainbat zatitan, kostako eta itsasoko sistema horiek hainbat iturrietatik –bai giza iturrietatik, bai iturri naturaletatik– presioak eta mehatxuak jasaten dituzte.

Helburuak:

Itsasertzeko estatuek, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek eta beren ekonomiaren oinarri gisa beren gune ekonomiko eskusiboko itsas baliabide bizidunen ustiapena duten estatuek, beren gune ekonomiko eskusiboko eta beren jurisdikzio nazionalako beste gune batzuetako itsas baliabide bizidunen ustiapen jasagarriaren bidez erabateko etekin ekonomikoak lortu beharko lituzkete.

Estatuek beren jurisdikzio nazionalaren barruan dauden itsas baliabide bizidunak era jasagarrian kontserbatzeko eta ustiatzeko konpromisoa hartu dute. Horretarako, ondorengoa ezinbestekoa da:

- a) Itsasoko baliabide bizidunen potentziala garatzea eta areagotzea, gizakien elikatzeko beharrak asetzeko eta helburu soziala eta ekonomikoak eta garapeneko helburuak lortzeko;
- b) Ustiapen- eta antolaketa-programetan, tokian tokiko komunitateen, eskala txikian artisau-arrantzan aritzen direnen eta herrialde indigenen ezagutza tradizionalak eta interesak kontuan hartzea;
- c) Itsasoko espezieen populazioak mantentzea edo berrezartzea, ingurugiro- eta ekonomia-faktoreek uzten duten heinean ahalik eta harrapaketa jasagarri gehien egiteko moduan, espezieen arteko harremanak kontuan hartuta;
- d) Batetik, arrantzatu nahi diren espezieen harrapaketatako hondakinak eta beste espezie batzuen harrapaketa gehigarria ahalik eta gehien murrizten dituzten jarduerak eta, bestetik, arrantza selektiborako tresnak garatu eta erabili daitezten sustatzea;
- e) Arriskuan dauden itsasoko espezieak babestea eta berrezartzea;
- f) Ekosistema bakanak edo ahulak eta habitatak eta ekologikoki sentikorak diren guneak babestea.

Edozein estatuk edo nazioarteko erakundek, dagokionaren arabera, eskubidea edo eskuduntza du itsas zabalean itsasoko ugaztunen esplotazioa debekatzeko, mugatzeko edo arautzeko 74.

paragrafoan adierazten dena baino arau zorrotzagoak egiteko. Estatuak itsasoko ugaztunak kontserbatzeko lagundu egingo dute eta, bereziki zetazeoen kasuan, nazioarteko erakundeetan arituko dira elkarlanean beren kontserbaziorako, antolaketarako eta azterketarako.

Garapen bidean dauden herrialdeek aipatutako helburuak lortzeko duten gaitasuna beren finantza-, zientzia- eta teknologia-bitartekoen arabera da. Finantzaren, zientziaren eta teknologiaren alorretan lankidetzaren eman beharko litzateke herrialde horiek helburu horiek lortzeko neurriak hartzen dituzten.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Estatuak gune ekonomiko eksklusiboko eta beren jurisdikzio nazionalaren barruko itsas baliabide bizidunen kontserbazioa eta antolaketa Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmeneko xedapenetan aipatzen den bezala gauzatu daitezkeen behar den guztia egin beharko lukete.

Itsas Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmeneko xedapenak aplikatzeko garaian, estatuak kasu gehiago egin beharko liekete, batetik, partekatutako populazioen eta erabat migratzaile diren espezieen arazoei eta, bestetik, 73. paragrafoan aipatutako helburua guztiz kontuan hartuta, harrapaketa onargarrien soberakinak eskuratzeko aukerei.

Itsasertzeko estatuak, beste gauza batzuen artean, ondorengoa egin beharko lukete, beren kasa, alde biko edo alde askotako lankidetzaren bidez eta, behar denean, nazioarteko erakundeen –azpilurralde, lurralde edo mundu mailako erakundeen– babesarekin:

- a) Inbentarioak prestatuz, itsasoko baliabide bizidunen potentziala ebaluatzea, bereziki gutxi erabilitako edo batera erabili gabeko populazioena eta espezieena. Hau kontserbazio eta ustiapen jasangarrirako beharrezkoa denean egingo da;
- b) Itsasoko baliabide bizidunen ustiapen jasangarrirako estrategiak aplikatzea, eskala txikian artisauro-arrantzen aritzen direnen, tokian tokiko komunitateen eta herrialde indigenen beharrak eta interes bereziak kontuan hartuta. Horren helburua gizakien elikatze beharrak eta garapeneko beste behar batzuk asetzea da;

- c) Bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, itsas akuikulturaren, akuikulturaren eta arrantzaren garapenerako mekanismoak aplikatzea, eskala txikian, ur sakonetan eta ozeanoetan. Hori ikerketen arabera itsas baliabide bizidunak izan ditzaketen eta jurisdikzio nazionalen barruan dauden guneetan aplikatu beharko litzateke;
- d) Behar denean beren esparru juridikoak eta araudiaren esparruak sendotzea, bereziki kudeaketa-gaitasunaren, betetzearen eta zaintzaren alorretan; hori aipatutako estrategiekin harremana duten jarduerak erregulatzeko egin beharko litzateke;
- e) Gizakien elikadurarako itsasoko baliabide bizidunen erabilgarritasuna areagotzeko neurriak hartzea. Horretarako arrantzaren ondorengo zakarrak, galerak eta hondakinak gutxitu egin beharko lirateke eta lanketarako, banaketarako eta garraiorako teknikak hobetu beharko lirateke;
- f) Teknika ekologikoki arrazionalaren erabilera garatzea eta sustatzea, itsasoko baliabide bizidunen ustiapen jasangarriarekin bateragarri diren irizpideen arabera. Horren barruan arrantza-jarduera berri eta nagusiek ingurugiroan duten eraginaren ebaluazioa sartu beharko litzateke;
- g) Itsasoko baliabide bizidunen produktibitatea eta erabilera hobetzea, elikadurarako eta diru-sarrerak sortzeko.

Itsasertzeko estatuek itsasoko baliabide bizidunetan oinarritutako olgetarako jarduerak eta jarduera turistikoak hedatzeko aukera aztertu behar lukete, bereziki diru-sarrera berriak eskaintzeko. Jarduera horiek kontserbazioko eta garapen jasangarriko politikekin eta planekin bateragarriak izan beharko lukete.

Itsasertzeko estatuek eskala txikiko artisau-arrantzaren izaera jasangarria babestu beharko lukete. Horretarako, bakoitzari dagokionaren arabera, ondorengo egin behar lukete:

- a) Itsasoaren eta kostaldearen planifikazioan eskala txikiko artisau-arrantzaren garapena sartzeari. Horretarako, batetik, arrantzaleen, eskala txikiko arrantza-ustiapenetako langileen, emakumeen, tokian tokiko komunitateen eta herrialde indigenen interesak kontuan hartu behar dira eta, bestetik, hala behar denean talde horiek ordezkartzea izatea sustatu behar da;

- b) Eskala txikian arrantzan aritzen direnen eskubideak, herrialde indigenen eta tokian tokiko komunitateen egoera berezia eta beren habitatak oinarri jasangarriarekin erabiltzeko eta babesteko dituzten eskubideak onartzea;
- c) Baliabide bizidunei eta itsasoko ingurugiroari buruzko ezagutza tradizionalak eskuratzeko eta zaintzeko sistemak ezartzea eta ezagutza horiek antolakuntza-sistemetan gehitu daitezzen sustatzea.

Itsasertzeko estatuek ondorengo segurtatu beharko lukete: itsasoko baliabide bizidunen garapenari edo kontserbazioari buruzko nazioarteko hitzarmenak negoziatzeko eta aplikatzeko garaian tokian tokiko komunitateen eta herrialde indigenen interesak, bereziki biziraupenerako duten eskubidea, kontuan har daitezela.

Itsasertzeko estatuek, hala behar denean nazioarteko erakundeen babesarekin, beren jurisdikzio nazionalaren barruan dauden itsasoko eta kostaldeko guneetan akuikulturarako duten aukera aztertu beharko lukete eta espezie berriak sartzeko zaintza egokiak aplikatu beharko lituzkete.

Estatuek arrantzan dinamita eta pozoia eta antzeko jarduera suntsitzaileak erabiltzea debekatu beharko lukete.

Estatuek itsasoko ekosistemak biodibertsitate eta produktibitate maila altuekin mugatu beharko lituzkete eta garrantzi berezia duten beste habitat batzuk ere mugatu beharko lituzkete. Horrez gain, gune horien erabilerari beharrezkoak diren mugak ezarri beharko litzaizkioke, beste batzuen artean gune babestuak izendatuz. Dagokionaren arabera, ondorengoari eman beharko litzaioke lehentasuna:

- a) Koralezko arrezifeen ekosistemei;
- b) Estuarioei;
- c) Gune epeletako eta tropikaletako lur zingiratsuei, horien artean mangladiei;
- d) Kostaldeko etzalekuei eta itsas algei;
- e) Ugalketarako beste gune batzuei eta kumeei.

b) Datuak eta informazioa:

Estatuek, beren kasa edo alde biko edo alde askotako lankidetzaren bidez eta, behar bada, nazioarteko erakundeen –azpilurralde, lurralde edo mundu mailako erakundeen– babesarekin, ondorengoa egin behar lukete:

- a) Jurisdikzio nazionalaren barruan dauden itsas baliabide bizidunen kontserbaziorako eta ustiapen jasangarrirako beharrezkoak diren datuen bilketa eta trukea hobe daitezen sustatzea;
- b) Aldizka, arrantza-tokiak ebaluatzeko beharrezkoak diren eguneratutako datuak eta informazioa trukitzea;
- c) Bitarteko analitikoak eta aurreikuspenak egiteko bitartekoak prestatzea eta partekatzea, esate baterako, populazioen eredu bioekonomikoak eta ebaluazio-ereduak;
- d) Zaintzarako eta ebaluaziorako programa egokiak martxan jartzea edo hedatzea;
- e) Gune hauen deskripzio sinoptikoa osatzea edo eguneratzea: habitat kritikoen, itsasoko baliabide bizidunen eta gune ekonomiko eskusiboetako eta jurisdikzio nazionalaren barruan dauden beste gune batzuetako itsasoko biodibertsitatearen deskripzio sinoptikoa. Horretarako arrazoi naturalek eta gizakiaren jarduerak ingurugiroan eragindako aldaketak kontuan hartu behar dira.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailan:

Estatuek ondorengoa lortzeko lagundu beharko lukete, alde biko eta alde askotako lankidetzaren bidez eta Nazio Batuen erakunde eskudunen eta nazioarteko beste erakunde batzuen babesarekin:

- a) Finantza eta teknika alorretako lankidetzaren garatzea lortzeko, eskala txikiko eta handiko arrantzarako eta kostako akuikulturarako eta itsas akuikulturarako garapen bidean dauden herrialdeen gaitasuna areagotu ahal izateko;
- b) Garapen bidean dauden herrialdeetan, itsasoko baliabideek malnutrizioa desagertarazteko egin dezaketen ekarpena sustatzeko eta elikagaiei dagokienez inoren laguntzarik behar ez

izatea lor dezaten bultzatzeko. Horretarako, beste batzuen artean, harrapaketen ondorengo galerak ahalik eta gehien gutxitu beharko lirateke eta baliabideak errendimendu jasangarri bermatuak izateko antolatu beharko lirateke;

- c) Arretaz aukeratutako arrantza-aparailuak eta arrantza-jarduerak erabiltzeko hitzartutako irizpideak formulatzeko, arrantzatu nahi diren espezieen harraketan hondakinak ahalik eta gehien gutxitu eta beste espezieen harrapaketa gehigarria ahalik eta gehien gutxitu ahal izateko;
- d) Arrainen eta itsaskien kalitatea areagotzeko, beste batzuen artean hori bermatuko duten sistema nazionalen bidez. Sistema horien helburua ondorengoa da: merkatuetara sarbidea sustatzea, kontsumitzaileen konfiantza areagotzea eta errendimendu ekonomikoa ahalik eta gehien areagotzea.

Hala dagokienean eta hala behar bada, estatuek itsaso itxien eta erditxien koordinazio eta lankidetzaz egokiaz arduratu beharko lukete. Horrez gain, azpilurralde, lurralde eta mundu mailako gobernuarteko arrantza-erakundeen arteko koordinazioaz eta lankidetzaz ere arduratu beharko lukete.

Estatuek ondorengoa onartu beharko lukete:

- a) Baleen Ehiza Arautzeko Nazioarteko Hitzarmena jarraituz, baleen populazioa kontserbatzeko eta antolatzeko eta baleen ehiza arautzeko Baleen Nazioarteko Batzordeak duen ardura;
- b) Bereziki balea handiei eta beste zetazeo batzuei buruzko ikerketak egiteko Baleen Nazioarteko Batzordeko Zientzia Komiteak egiten duen lana;
- c) Zetazeoak eta itsasoko beste ugaztun batzuk kontserbatzeko, antolatzeko eta aztertzeko hainbat erakundek egiten duten lana, esate baterako, Atun Tropikalaren Batzorde Interamerikanoaren eta Baltiko Itsasoko eta Ipar Itsasoko Zetazeo Txikiei buruzko Hitzarmenaren lana, Bonneko Hitzarmenaren barruan.

Estatuek zetazeoen kontserbaziorako, antolaketarako eta ikerketarako elkarlana egin beharko lukete.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 6.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 60 milioi dolar inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Gobernuek, behar denean gobernuarteko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin behar lukete:

- a) Bereziki garapen bidean dauden herrialdeek teknologia ekologikoki arrazionalaren transferentzia eskura izan dezaten erraztea, arrantza-tokiak, akuikultura eta itsas akuikultura garatzeko;
- b) Baliabideei buruzko informazio transferitzeko mekanismoei kasu gehiago egitea eta herri mailako arrantza-komunitateen arrantzako eta akuikulturako teknologiak hobetzea;
- c) Egokiak diren antolakutza-sistema tradizionalen ikerketa, ebaluazio zientifikoa eta erabilera sustatzea;
- d) FAOren/Itsasoa Exploratzeko Nazioarteko Kontseiluaren (IENK) jarduera-arautegia aplikatzeko aukera aztertzea, transferentziak ikertzeko eta itsasoko eta ur gezatako organismoak sartzeko;
- e) Itsasoko baliabide bizidunentzako garrantzi berezia duten itsasoko guneen inguruko ikerketa zientifikoa sustatzea, esate baterako aniztasun, endemikotasun eta produktibitate handia duten guneen eta migratzaileek geldialdiak egiten dituzten guneena.

c) Giza baliabideen garapena:

Beren kasa edo alde biko eta alde askotako laguntzaren bidez eta, dagokienaren arabera, nazioarteko erakundeen –azpilurralde, lurralde edo mundu mailako erakundeen– babesarekin, garapen bidean dauden herrialdeek beste gauza batzuen artean ondorengoa egin dezaten bultzatu eta babestu behar dute estatuek:

- a) Itsasoko baliabide bizidunei buruzko diziplina anitzeko hezkuntza, trebakuntza eta ikerketa hedatzea, bereziki gizarte zientzien eta ekonomi zientzien alorretan;
- b) Nazio eta lurralde mailan trebakuntzarako aukerak eskaintzea, artisau-arrantza (bizi irauteko arrantza motak barne) babesteko. Horren helburua ondorengoa da: itsasoko baliabide bizidunen eskala txikiko ustiapena garatzea eta tokian tokiko komunitateen, eskala txikiko arrantza-industriatako langileen, emakumeen eta herrialde indigenen parte-hartze zuzena sustatzea;
- c) Maila guztietako irakaskutza-programetan itsasoko baliabide bizidunen garrantziari buruzko gaiak gehitzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Itsasertzeko estatuek azpilurralde, lurralde eta mundu mailako erakunde eskudunen babesarekin ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Ikerketarako gaitasuna areagotzea, itsasoko baliabide bizidunak ebaluatzeko eta zaintzeko;
- b) Tokian tokiko arrantza-komunitateei, bereziki ogibide nagusia arrantza duten komunitateei, herrialde indigenei eta emakumeei, laguntza ematea. Beste batzuen artean eta bakoitzari dagokionaren arabera, ezagutza tradizionalak antolatzeke, mantentzeko, trukatzeko eta hobetzeko eta itsasoko ekosistemei buruzko ezagutzak hobetzeko finantza-laguntzaren eta laguntza teknikoaren bidez egin beharko litzateke hori;
- c) Akuikulturaren garapenerako estrategia jasangarriak martxan jartzea. Beste gauza batzuen artean, arrain-hazkuntzako nekazaritza-komunitateak babesteko ingurugiroaren antolaketa sartuko litzateke estrategia honen barruan;

d) Itsasoko baliabide bizidunen kontserbazioarekin eta antolaketarekin harremana duten helburuak eta jarduerak aplikatzeko gai diren erakundeak sortzea eta, behar denean, sendotzea.

Estatuen arteko babes eta lankidetzaz bereziak behar dira, garapen bidean dauden herrialdeen gaitasuna areagotzeko. Gaitasun hori batez ere ondorengo alorretan sendotu beharko litzateke: datuak eta informazioa, bitarteko zientifikoak eta teknikoak eta giza baliabideen garapena. Hori jurisdikzio nazionalaren barruan dauden itsasoko baliabide bizidunen kontserbazioan eta ustiapen jasangarrian era eragingarrian esku hartzeko egin beharko litzateke.

18. ATALA: Ur gezatako baliabideen horniketa eta kalitatea babestea: ur gezatako baliabideen ustiapenerako, antolakuntzarako eta erabilerarako irizpide integratuak aplikatzea

Sarrera

Ur gezatako baliabideak Lurreko hidrosferako funtsezko osagaiak dira, baita lurreko ekosistema guztietako ezinbesteko zati ere. Ur gezatako ingurunearen ezaugarri nagusia ziklo hidrokologikoa da eta ziklo honen barruan uholdeak eta lehortek sartzen dira; azken urteotan uholdeen eta lehorteen ondorioak gogortu eta lastu egin dira lurralde batzuetan. Munduko klimaren aldaketak eta atmosferaren kutsadurak ondorioak eragin ditzakete ur gezatako baliabideetan eta beren erabilgarritasunean eta, itsasoaren maila igotzearekin batera, kostaldeko gunexuak eta uharte txikiak ekosistemak arriskuan jar ditzakete.

Ura bizitzaren alde guztietan behar dugu. Helburu nagusia planetako biztanle guztientzako kalitate oneko ur-horniketa nahikoa izan dadin zaintzea da eta, era berean, ekosistemen funtzio hidrokologikoak, biologikoak eta kimikoak babestea; horretarako giza jarduerak naturaren gaitasunaren mugetara egokitu behar dira eta urarekin harremana duten gaixotasunen bektoreei aurre egin behar zaie. Ezinbestekoa da teknologia berritzaileak erabiltzea –horien artean teknologia lokal hobetuak– baliabide hidriko mugatuak erabat ustiatzeko eta kutsaduraren aurka babestea.

Baliabide hidrikoen planifikazio eta antolaketa integratuak egitea ezinbestekoa da, izan ere ur gezatako baliabide gutxi dago, pixkanaka suntsitzen ari dira, geroz eta kutsatuago daude eta munduko lurralde askotan baliabide hauekin bateragarriak ez diren jarduerak geroz eta gehiago dira. Integrazio horren barruan ur gezarekin harremana duten masa mota guztiak sartu beharko lirateke, bai lur gainekoak, bai lurpekoak, eta guztiz kontuan hartu beharko lituzke uraren kantitatea eta kalitatea. Garapen sozioekonomikoaren barruan, baliabide hidrikoen ustiapenaren sektore anitzeko izaera onartu beharra dago. Horrez gain, baliabide horiek jarduera askotan erabil daitezkeela ere onartu beharra dago; besteak beste, ondorengoetan: ur-horniketa eta saneamendua, nekazaritza, industria, hiriaren garapena, energia hidroelektrikoaren sorrera, barruko uretako arrantza, garraioa, olgeta-jarduerak, lur baxuen antolaketa eta lautadak eta beste jarduera batzuk. Ur-hornidurarako iturriak ustiatzeko ura erabiltzeko sistema arrazionalak –bai lur gainekoak, bai lurpekoak, bai beste edozein motatakoak– ura kontserbatzera eta eralketa ahalik eta gehien gutxitzera bideratutako pareko neurriekin babestuta egon behar dute. Hala ere, hala

behar denean, uholdeak prebenitzeko eta kontrolatzeko neurriei eta sedimentazioa kontrolatzeko neurriei lehentasuna eman beharko zaie.

Mugaz haraindiko uretako baliabideek eta beren erabilerak garrantzi handia dute itsasertzeko estatuentzat. Horri dagokionez, estatu horien arteko lankidetzak onuragarria izan daiteke, aurretik dauden hitzarmenen edo beste mekanismo batzuen arabera. Horretarako interesdun itsasertzeetako estatu guztien interesak hartu behar dira kontuan.

Ur gezatako baliabideen sektorerako ondorengo programa-arloak proposatu dira:

- a) Baliabide hidrikoen antolaketa eta ustiaketa integratuak;
- b) Baliabide hidrikoen ebaluazioa;
- c) Baliabide hidrikoen, uraren kalitatearen eta uretako ekosistemen babesa;
- d) Edateko uraren horniketa eta saneamendua;
- e) Ura eta hiriko garapen jasangarria;
- f) Ura elikagaien produkzio jasangarrirako eta nekazaritzaren garapen jasangarrirako;
- g) Klimaren aldaketak baliabide hidrikoetan izango dituen eraginak.

Programa-arloak

A. Baliabide hidrikoen antolaketa eta ustiaketa integratuak

Ekintzarako oinarriak:

Normalean baliabide hidrikoen ustiapenak produktibitate ekonomikoari eta gizarte-ongizateari egiten dioten ekarpena ez da baloratzen, nahiz eta neurri handi batean jarduera sozial eta ekonomiko guztien oinarria ur edangarriaren horniketa eta kalitatea diren. Populazioa eta jarduera ekonomikoak areagotzearekin batera, herrialde askotan denbora gutxian ura gutxitzen ari da edo garapen ekonomikoan oztopoak eragiten ditu. Bestalde, uraren eskaera asko hazi da; hori horrela gertatzearen arrazoiak hauek dira % 70 eta % 80 artean nekazaritzako ureztatzeen ondorioz, % 20 baino gutxigon industriaren eraginez eta % 6n etxeko kontsumoaren ondorioz. Batetik, baliabide mugatu eta zaugarri gisa ur geza orokorrean antolatzea eta, bestetik, politika ekonomiko eta sozial nazionalaren barruan plan eta programa hidriko sektorialak sartzeari 90eko hamarkadan eta ondoren hartuko diren neurrien artean garrantzi gehien izango dutenak dira. Hala ere, baliabide hidrikoen garapenaren inguruko ardurak hainbat erakunde sektorialen artean banatu dira eta banaketa hori uste baino traba gehiago sortzen ari da baliabide horien antolaketa integratua sustatzeko garaian. Gauzatzeko eta koordinatzeko mekanismo eragingarriak behar dira.

Helburuak:

Helburu orokorra herrialde guztietako ur gezatako beharrak asetzea da, beren garapen jasangarrirako.

Baliabide hidrikoen antolaketa integratua ura ekosistemaren zatia, baliabide naturala eta ondasun soziala eta ekonomikoa dela ulertzean dago oinarrituta eta, ondorioz, kantitateak eta kalitateak bere erabilera zehazten dute. Helburu horrekin, baliabide horiek babestu egin behar dira, uretako ekosistemen funtzionamendua eta baliabidearen izaera iraunkorra kontuan hartuta, giza jardueretan dagoen uraren beharrak bateratzeko eta asetzeko. Baliabide hidrikoak ustiatzeko eta erabiltzeko garaian, oinarritzko beharrei erantzuteari eta ekosistemak babesteari eman behar zaie garrantzia. Hala ere, behar horiek asetu ondoren, uraren erabiltzaileek tarifa egokiak ordaindu behar dituzte.

Baliabide hidrikoen antolaketa integratua, lurrekin eta urekin harremana duten aldean integrazioa barne, biltzeko arroen edo azpiarroen bidez egin beharko litzateke. Helburu nagusiak lau hauek dira:

- a) Baliabide hidrikoen antolaketaren ikuspegi dinamikoa, interaktiboa eta sektore anitzekoa –ur gezaren horniketa-iturri posibleen babesa eta zehaztapena barne– sustatzea. Ikuspegi horren barruan teknologiaren, ekonomiaren, ingurugiroaren eta osasunaren barruko gaiak ere sartuko lirateke;
- b) Baliabide hidrikoen erabilera, babes, kontserbazio eta antolaketa jasangarriak eta arrazionalak planifikatzea, garapen ekonomiko nazionalerako politika-esparruaren barruan herritarren beharren eta lehentasunen arabera;
- c) Ekonomikoki eragingarriak eta sozialki egokiak diren proiektuak eta programak lantzea, aplikatzea eta ebaluatzea argi definitutako estrategien barruan. Estrategia horiek jendeak –emakumeak, gazteak, herrialde indigenak eta tokian tokiko komunitateak barne– uraren antolaketari buruzko neurrietan eta erabakietan erabateko parte-hartzea izatean oinarrituta egon beharko lukete;
- d) Bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, erakunde-, zuzenbide- eta finantza-mekanismo egokiak zehaztea eta, behar denaren arabera, sendotzea edo martxan jartzea, baliabide hidrikoen buruzko politika eta politika horren gauzatzea aurrerapen sozialaren eta hazkunde ekonomiko jasangarriaren katalizatzaile izan daitezen lortzeko.

Mugaz haraindiko baliabide hidrikoak tarteko direnean, ezinbestekoa izango da itsasertzeko estatuak baliabide horien inguruko estrategiak formulatzea, baliabide horiek erabiltzeko ekintza-programak prestatzea eta, hala behar denean, estrategia eta ekintza-programa horien armonizazioa kontuan hartzea.

Estatu guztiek ondorengo helburuak finkatzeko aukera izango lukete, dagokienaren eta dituzten baliabideen arabera eta alde biko eta alde askotako erakundeen –eta dagokienaren arabera Nazio Batuen eta beste erakunde eskudun batzuen– lankidetzaren bidez:

- a) 2000 urterako:
 - i) Gastu eta helburu finkoa duten nazio mailako ekintza-programak garatzea edo martxan jartzea eta azpiegitura instituzionalak eta bitarteko juridiko egokiak ezartzea;
 - ii) Uraren ustiapenerako programa eragingarriak ezartzea, baliabideen ustiapenerako

sistema jasangarriak lortzeko;

b) 2025 urterako:

i) Ur gezari buruzko programa-arlo guztietako helburu azpisektorialak lortzea.

Lehenago aipatutako i) eta ii) puntuetan aipatutako helburuak Batzar Nagusiaren 44/228 ebazpeneko xedapenen arabera garapen bidean dauden herrialdeei ematen zaizkien finantza-baliabide berrien eta osagarrien arabera lortuko dira.

Jarduerak:

Estatu guztiek ondorengoa egin dezakete beren baliabideen antolaketa integratua hobetzeko, beren gaitasunaren eta dituzten baliabideen arabera eta alde biko eta alde askotako erakundeen –eta dagokionaren arabera Nazio Batuen eta beste erakunde eskudun batzuen– lankidetzaren bidez:

- a) Nazio mailan gastu kalkulatuak eta helburu finkoak dituzten ekintza-planak eta inbertsio-programak formulatzea;
- b) Ur gezaren horniketarako iturri posibleak babesteko eta kontserbatzeko neurriak, horien artean dagokien baliabideen katalogazioa, lurraren erabileraren planifikazioarekin, basoen erabilerarekin, mendien hegien eta ibaien hertzeen babesarekin eta, azkenik, ustiapenarekin eta kontserbazioarekin harremana duten beste hainbat jarduerarekin osatzea;
- c) Datu-base interaktiboak, aurreikuspenetarako ereduak, planifikazio ekonomikorako ereduak eta baliabide hidrikoen antolaketarako eta planifikaziorako metodoak, horien artean ingurugiro-inpaktuaren ebaluaziorako metodoak, garatzea;
- d) Muga fisikoaren eta sozioekonomikoaren barruan baliabide hidrikoen esleipena optimizatzea;
- e) Baliabideen esleipenari buruzko erabakiak aplikatzea, eskaeraren kudeaketaren, prezioaren finkapenerako mekanismoen eta arauketa-neurrien bidez;
- f) Uholdeen eta lehorteen aurka borroka egitea, beste batzuen artean arriskuen analisiaren

eta ondorio sozialen eta ingurugiroko ondorioen ebaluazioaren bidez.

- g) Uraren erabilera arrazionalerako planak sustatzea, jendearen kontzientzia areagotzearen, hezkuntza-programen eta kontsumo-tarifak eta beste bitarteko ekonomiko batzuk inposatzearen bidez;
- h) Baliabide hidrikoak mugiaraztea, batez ere gune elkorretan eta erdielkorretan;
- i) Ur gezatako baliabideen inguruko ikerketa zientifikoan nazioarteko lankidetzak sustatzea;
- j) Uraren horniketarako iturri berriak eta ordezkioak garatzea, esate baterako, itsasoko ura gezatzea, lurpeko urak artifizialki berritzea, kalitate gutxiko ura erabiltzea, hondakin-urak aprobetxatzea eta ura birziklatzea;
- k) Baliabide hidrikoen kantitatearen eta kalitatearen antolaketa integratzea, lur gaineko eta lurpeko urak barne;
- l) Uraren kontserbazioa sustatzea, ustiapenerako eta xahutzea ahalik eta gehien gutxitzeko plan hobegoen eta eragingarriagoen bidez. Plan horietan erabiltzaile guztiek parte hartu beharko lukete, beste batzuen artean ura aurrezteko mekanismoen garapenarekin batera;
- m) Ura erabiltzen duten taldeak babestea, tokian tokiko baliabide hidrikoen antolaketa optimizatzeko;
- n) Jendeak parte hartzeko teknikak onartzea eta erabakiak hartzeko unean aplikatzea; gainera, baliabide hidrikoen planifikazioan eta antolaketan emakumearen lana sendotzea;
- o) Behar denaren arabera, dagokien maila guztietan lankidetzak –mekanismoak barne– garatzea eta sendotzea, mailen arabera ondorengoaren bidez:
 - i) Maila baxuan, oro har maila horretako baliabide hidrikoen antolaketa nazioarteko legediaren arabera delegatuz, gobernuko zerbitzuen decentralizazioa barne; izan ere zerbitzu horien tokian tokiko agintarien, enpresa pribatuen eta komunitateen esku geratzeko lirateke;

- ii) Nazio mailan, baliabide hidrikoak planifikazio nazionalaren prozesuaren barruan planifikatuz eta antolatuz eta, behar denean, ur gezaren araudia eta ikuskapen banandua ezarriz, nazioaren legeetan eta neurri ekonomikoetan oinarrituta;
 - iii) Lurralde mailan, dagokionaren arabera, nazio mailako estrategiak eta ekintza-planak armonizatzeko aukera aztertuz;
 - iv) Mundu mailan, ardurak hobeto mugatuz, lana hobeto banatuz eta nazioarteko erakundeen eta programen koordinazioa hobetuz; horretarako baliabide hidrikoen antolaketarekin harremana duten iritzien eta esperientzien trukeak erraztu behar dira;
- p) Informazioa eta operazio-ildoak zabaltzea eta uraren erabiltzaileen hezkuntza sustatzea, beste batzuen artean, Nazio Batuak Uraren Munduko Eguna izendatzeko aukera aztertzearen bidez.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 115 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabekoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Baliabide hidrikoak era eragingarrian eta jasangarrian antolatzeko batu-base interaktiboak, iragarpenak egiteko metodoak eta planifikazio ekonomikorako eredu egokiak garatzeak teknika berriak aplikatzera derrigortuko du; teknika berri horiek informazio geografikorako sistemak eta adituen sistemak izan litezke eta sistema horiek sektore anitzetako informazioa bildu, parekatu, aztertu eta hedatu egingo lukete eta

ahalik eta erabakirik onenak hartzen utzi beharko lukete. Horrez gain, batetik, ur-horniketarako iturri berriak eta ordezkioak eta, bestetik uraren ustiapenerako gastu gutxiko teknologiak bultzatzeak ikerketa aplikatu berritzailea eskatuko du. Honen ondorioz, garapen bidean dauden herrialdeen artean teknika eta teknologia berriak transferitu, egokitu eta hedatu beharko dira eta gaitasun endogenoa garatu beharko da, baliabide hidrikoen antolaketaren alde teknikoen, ekonomikoen eta sozialen eta ingururoaren aldean integrazioaren neurri erantsiari aurre egiteko eta gizakiarengan sortutako eraginaren ondorioen aurreikuspeni aurre egiteko.

Ura ondasun ekonomikoa eta soziala dela onartzearen ondorioz, uraren erabiltzaileei (etxeei, hiriko guneei eta industriako eta nekazaritzako uraren erabiltzaile taldeei) tarifak kobratzeko dauden aukerak lekuan bertan egiaztatu eta sakonago aztertu behar dira. Aukera-gastuak eta ingurugiroan sortutako eraginak kontuan dituzten bitarteko ekonomikoak gehiago garatu beharko dira. Nekazaritzako eta hiriko guneetan lekuan bertan aztertu beharko litzateke erabiltzaileek ordaintzeko aurretiko joera.

Baliabide hidrikoen ustiapena eta antolaketa era integratuan planifikatu beharko lirateke eta horretarako epe luzerako eta epe motzerako planifikaziorako beharrak kontuan eduki beharko lirateke. Hau da, planifikazio horretan batetik, jasangarritasunaren printzipioan oinarrituta ingurugiroarekin, ekonomiarekin eta gizartearekin lotura duten gaiak hartu beharko lirateke kontuan; bestetik, erabiltzaile guztien beharrak eta urarekin lotura duten arriskuen prebentzioarekin eta arrisku horiek arintzearekin harremana dutenak sartu beharko lirateke eta, azkenik, garapen sozioekonomikoaren planifikazio-prozesuko zati izan beharko luke. Baliabide urri eta zaurgarri bezala, uraren antolaketa jasangarriko baldintzetako bat planifikazioko eta ustiapeneko jarduera guztietan bere gastu integral guztiak onartzeko obligazioa da. Planifikazioan inbertsioaren etekinak eta ustiapeneko eta ingurugiroa babesteko gastuak hartu beharko lirateke kontuan, baita aukera-kostuak ere, uraren ordezeko ustiapen baliotsuenaren arabera. Tarifa horiek ez zaizkie derrigorrez guztiei kobratu behar. Hala ere, kobratzeko mekanismoek, ahal den neurrian, komunitateek ordaintzeko duten gaitasuna eta uraren gastu errealak islatu behar dituzte, bereziki ura ondasun ekonomiko gisa erabiltzen denean.

Ondasun ekonomiko eta sozial gisa eta bizitzaren oinarri gisa, uraren funtzioa eskaeraren kudeaketa-mekanismoetan islatu beharko litzateke eta ura kontserbatzearen eta berriro ustiatzearen bidez, baliabideen eboluzioaren bidez eta finantza-bitartekoen bidez hartu

beharko litzateke kontuan.

Inbertsio pribatuen eta publikoen estrategien inguruan lehentasunak berriro finkatzeko garaian ondorengo hartu beharko litzateke kontuan:

- a) Aurretik dauden proiektuen erabateko erabilera, beren mantentzearen, birgaitzearen eta funtzionamendu ezin hobearen bidez;
- b) Teknologia garbiak, berriak edo ordezkoak; eta
- c) Ingurugiroko eta gizarteko aldeekin bateragarri den energia hidroelektrikoaren ekoizpena.

c) Giza baliabideen garapena:

Baliabide hidrikoen antolaketa mailarik baxuenaren esku uzteko, langileak maila guztietan hezi eta trebatu behar dira eta ezinbestekoa da emakumeek hezkuntza- eta trebakuntza-programetan baldintza berdinetan parte-har dezaten lortzea. Jendeak parte hartzeko teknikak martxan jartzea nabarmendu behar da, emakumeek, gazteek, herrialde indigenek, tokian tokiko komunitateek paper handiagoa izatea barne. Uraren antolaketaren askotariko funtzioekin harremana duten ezagutzak ere sustatu beharko dituzte udaletako administrazioek eta ura antolatzeko erakundeek; ondorengo hauek ere sustatu behar dituzte ezagutza horiek: sektore pribatuak, herri eta nazio mailako gobernuz kanpoko erakundeek, kooperatibek, enpresek eta uraren erabiltzaileen taldeek. Jendea urak daukan garrantziaren eta bere antolaketa egokiaren inguruan heztea ere beharrezkoa da.

Printzipio horiek betetzeko, komunitateek nahiko gaitasun izan behar dute. Edozein mailatan –nazioarte, nazio edo herri mailan– uraren ustiapenerako eta antolaketarako esparrua finkatzen dutenek gaitasun hori sortzeko edo areagotzeko behar adina bitarteko badaudela segurtatu behar dute. Bitarteko horiek desberdinak dira kasuen arabera, baina normalean ondorengoak barne hartuko ditu:

- a) Sentsibilizazio-programak. Programa horien barruan, besteak beste, konpromisoa areagotzeko eta maila guztietan laguntzeko sustapena eta programa horiek

- bultzatzeko mundu eta herri mailako ekintza-neurrien hasiera sartuko lirateke;
- b) Maila guztietan baliabide hidrikoen administratzaileen trebakuntza, erabakiak hartzeko elementu guztiak behar bezala ulertzeko moduan;
 - c) Garapen bidean dauden herrialdeen lanbide-heziketako gaitasuna sendotzea;
 - d) Beharrezkoak diren langileen -horien artean hedatze-zerbitzuetako langileen-trebakuntza egokia;
 - e) Karrerako egituren hobekuntza;
 - f) Ezagutza eta teknologia egokien banaketa, bai datuak biltzeko, bai garapen planifikatua gauzatzeko. Horren barruan kutsatzen ez duten teknologiak eta uneko inbertsio-sistemaren emaitza onenak lortzeko beharrezko ezagutzak sartuko lirateke.

d) Gaitasuna areagotzea:

Eskaera argia dagoenean, baliabide hidrikoen antolaketa integraturako gaitasun instituzionala aztertu eta garatu beharko litzateke. Askotan, aurretik dauden egitura administratiboak bertako uraren baliabideak antolatzeko gai izango dira, baina, agian, adibidez ibaiko arroen, eskualdeko garapenerako batzarren eta herri mailako komunitateen batzordeen ikuspegian oinarritutako erakunde berriak beharrezkoak dira. Baliabide hidrikoen antolaketa-sistema soziopolitikoko hainbat mailatan egiten bada ere, eskaerari erantzuten dion antolaketak berari dagozkion erakundeak maila egokietan garatzeko eskatzen du, lan hori lurraren erabileraren antolaketarekin integratzeko beharra kontuan hartuta.

Antolaketa ahal den mailarik baxuenean aurrera eramateko ingurua sortzean, herri-administrazioen zeregina, besteak beste, ondorengo izango da: finantza-baliabideak eta giza baliabideak mugiaraztea, legeak egitea, arauak sortzea eta beste funtzio arau-emaile batzuk gauzatea, uraren eta lurraren erabilera gainbegiratzea eta ebaluatzea eta jendeak parte hartzeko aukera sortzea. Nazioarteko erakundeek eta erakunde emaileek zeregin garrantzitsua izan behar dute garapen bidean dauden herrialdeei baliabide hidrikoen antolaketa integraturako inguru egokia sor dezaten babesa emateko. Besteak beste,

emaileek garapen bidean dauden herrialdeetako herri mailako erakundeei babes egokia eman beharko liekete, esate baterako, komunitatean oinarrituta dauden erakundeei, gobernuz kanpoko erakundeei eta emakume-taldeei.

B. Baliabide hidrikoen ebaluazioa

Ekintzarako oinarriak:

Baliabide hidrikoen ebaluazioa, ur gezatako iturri posibleen zehaztapena barne, etengabe ondorengoa zehaztean oinarritzen da, uretako baliabideen eta baliabide horiei eragiten dieten giza jardueren iturriak, kantitatea eta kalitatea zehaztean. Ebaluazio hori, batetik, bere antolaketa jasangarrirako eta, bestetik, ustiatzeko aukera ebaluatzeko aurretiko baldintza zehazteko oinarri praktikoa da. Hala ere, ardura sortzen duena zera da, uretako baliabideen, zerbitzu hidrologikoen eta erakunde konexuen inguruko informazio zehatzena eta fidagarriena behar denean zailagoa izatea informazio hori eskaintzea, bereziki, lurpeko urei eta uraren kalitateari buruzko informazioari dagokionean. Oztopo nagusiak hauek dira: ebaluazio hori egiteko finantza-baliabide falta, zerbitzu hidrologikoen izaera zatikatua eta langile trebatu falta. Era berean, garapen bidean dauden herrialdeentzat geroz eta zailagoa da datuak biltzeko eta erabiltzeko teknologia aurreratuak eskura izatea. Hala ere, nazio mailako datu-baseak sortzeak ezinbesteko garrantzia du, baliabide hidrikoak ebaluatzeko eta uholdeen, lehorteen, desertifikazioaren eta kutsaduraren eraginak arintzeko.

Helburuak:

Mar del Platako Ekintza Planean oinarrituta, programa-arlo hau 90eko hamarkadan eta ondoren luzatu da, baliabide hidrikoen kantitatearen eta kalitatearen ebaluazioaz eta iragarpenaz arduratzeko helburuarekin. Hori ondorengoa lortzeko egin beharko litzateke: baliabide horien eta etorkizuneko horniketarako aukeren bolumen osoa kalkulatzeko, kalitatearen egungo baldintzak zehaztea, eskaintzaren eta eskaeraren artean egon daitezkeen desorekak aurreikustea eta baliabide horien erabilera arrazionalerako datu-base zientifikoak sortzea.

Ondorioz, ondorengo bost helburu zehatzak finkatu dira:

- a) Herrialde guztiei, beren garapen maila kontuan hartu gabe, beren beharretara egokituta, baliabide hidrikoak ebaluatzeko teknologiak ematea. Puntu honetan klimaren aldaketa ur gezatako baliabideengan duen eragina ebaluatzeko metodoak ere sartuko lirateke;
- b) Beren aukera ekonomikoen arabera, herrialde guztiek baliabide hidrikoak ebaluatzeko finantza-baliabideak eman ditzaten lortzea. Finantza-baliabide horiek baliabide hidrikoen

inguruko informazioaren balio ekonomikoak eta sozialak justifikatutakoak izango dira;

- c) Ebaluazioaren ondoren lortutako informazioa baliabide hidrikoen politikak prestatzeko garaian ahalik eta gehien erabil dadin zaintzea;
- d) Herrialde guztiek erabiltzaileentzako informazio integratua biltzeko, lantzeko, gordetzeko, berreskuratzeko eta hedatzeko xedapen instituzionalak onar ditzaten lortzea; informazio hori arro hidrografikoetan eta lurpeko akuiferoetan dauden baliabide hidrikoen kalitateari eta kantitateari buruzkoa izango litzateke;
- e) Baliabide hidrikoak ebaluatzeko erakundeek behar bezala prestatutako nahiko langile aditu izan ditzaten lortzea; langile horiei beren lanak arrakastaz betetzeko beharrezkoak diren trebakuntza- eta hobekuntza-zerbitzuak eskaini beharko lizkiete.

Estatu guztiek ondorengo helburuak finkatzeko aukera izango lukete, beren gaitasunaren eta dituzten baliabideen arabera eta alde biko eta alde askotako erakundeen –eta dagokionaren arabera Nazio Batuen eta beste erakunde batzuen– lankidetzaren bidez:

- a) 2000 urterako, baliabide hidrikoen ebaluaziorako zerbitzuak jartzeko bideragarritasuna zehatz-mehatz aztertzea;
- b) Epe luzeko helburu gisa, dentsitate handiko sare hidrometrikotan oinarritutako zerbitzu erabat operatiboak izatea.

Jarduerak:

Estatu guztiek ondorengo jarduerak gauza ditzakete, beren gaitasunaren eta baliabideen arabera eta alde biko eta alde askotako erakundeen –eta dagokionaren arabera Nazio Batuen eta beste erakunde eskudun batzuen– lankidetzaren bidez:

a) Esparru instituzionala:

- i) Nazio mailan araudien esparru eta lehentasun egokiak ezartzea;
- ii) Herrialde guztietan, baliabide hidrikoen eta uholdeak eta lehorreak aurreikusteko zerbitzuen ebaluazio egokiaz arduratzeko beharrezkoa den erakundeen gaitasuna –

xedapen legegileak eta arau-emaileak barne– ezartzea eta sendotzea;

- iii) Nazio mailan datu hidrologikoak biltzeaz, izateaz eta aztertzeaz arduratzen diren erakundeen artean lankidetzaz eragingarria martxan jartzea eta mantentzea;
- iv) Mugaz haraindiko baliabide hidrikoak ebaluatzeko garaian elkarlanean aritzea, itsasertzeko estatu interesatu guztien aurretiko onespenerekin;

b) Datuen sistemak:

- i) Datuak biltzeko uneko sareak berraztertzea eta egokiak diren ebaluatzea. Puntu honetan uholdeak eta lehortean iragartzeko denbora errealean datuak ematen dituzten sareak ere sartuko lirateke;
- ii) Sareak hobetzea, lur gaineko eta lurpeko uren kantitateari eta kalitateari buruzko datuak eta luraren erabilerari buruzko datuak emateko onartutako arauetara egokitzea;
- iii) Arau uniformeak eta beste neurri batzuk aplikatzea datuen bateragarritasunaz arduratzeko;
- iv) Datu hidrologikoak gordetzeko, lantzeko eta aztertzeko erabiltzeko diren instalazioak eta prozedurak hobetzea eta datu horiek eta dagozkien iragarpenak erabiltzaile izan daitezkeenei ematea;
- v) Nazio mailako datu hidrologikoen erabilgarritasunari buruzko datu-basea eratzea;
- vi) "Datuak salbatzeko" operazioak gauzatzea, esate baterako baliabide hidrikoen nazio mailako erregistroak sortuz;
- vii) Datu hidrologikoak lantzeko frogatutako teknikak aplikatzea;
- viii) Datu hidrologiko zehatzetatik abiatuta, arloka kalkuluak egitea;
- ix) Kontrol urrunaren bidez lortutako datuak onartzea eta, hala behar denean,

informazio geografikoko sistemak erabiltzea;

c) Datuen hedapena:

- i) Planifikazioko hainbat lan egiteko behar diren baliabide hidrikoei buruzko datuak zehaztea;
- ii) Behar den moduan baliabide hidrikoei buruzko datuak eta informazioa aztertzea eta aurkeztea, herrialdeetako garapen sozioekonomikoa planifikatzeko eta antolatzeko, ingurugiroa babesteko estrategiak erabiltzeko eta zehazki urarekin harremana duten proiektuak diseinatzeko eta gauzatzeko;
- iii) Uholdeetarako eta lehorteetarako, oro har publikoari eta hiritarren defentsari zuzendutako iragarpenak eta abisuak ezartzea;

d) Ikerketa eta garapena:

- i) Nazio, azpilurralde, lurralde eta nazioarte mailan ikerketa- eta garapen-programak eratzea edo sendotzea, baliabide hidrikoak ebaluatzeko jardueri laguntzeko;
- ii) Ikerketa- eta garapen-jarduerak behatzea, ezagutzak eta tokiko beste baliabide batzuk ustia daitezen zaintzeko eta dagokion herrialdearen edo dagokien herrialdeen beharretarako egokiak izan daitezen zaintzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 355 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 145 milioi barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Garrantzi gehien duten ikerketa-jarduerak ondorengoak dira:

- a) eredu hidrologiko osoak sortzea, klimaren aldaketak sortutako eraginak azter daitezten bultzatzeko eta baliabide hidrikoak makroeskalan ebaluatzeko;
- b) hainbat mailatan lurreko hidrologiaren eta ekologiaren arteko tartea ixtea, esate baterako, landaretzaren galeraren atzean urarekin harremana duten prozesu kritikoak eta lurraren degradazioa eta bere berreskurapena; eta
- c) uraren kalitatearen sorreran funtsezko prozesuak aztertzea, korrante hidrologikoen eta prozedura biogeokimikoen arteko desberdintasuna moztearekin batera. Ikerketa-ereduek oreka hidrologikoari buruzko ikerketetan oinarrituta egon beharko lukete eta kontsumorako uraren erabilera ere hartu beharko luke barruan. Ikuspegi hori arro hidrografikoei ere aplikatu beharko litzaieke.

Baliabide hidrikoak ebaluatzeko ezinbestekoa da teknologiaren egungo transmisio-, egokitze- eta hedatze-sistemak sendotzea, erabilera praktikorako teknologia berriak garatzea eta gaitasun endogenoa garatzea. Jarduera horiei ekin aurretik, baliabide hidrikoei buruz zerbitzu publikoek, sektore pribatuak, hezkuntza-zentroek, aholkulariek, uraren erabiltzaileen herri mailako erakundeek eta beste hainbatek duten informazioarekin katalogoak prestatzea beharrezkoa da.

c) Giza baliabideen garapena:

Baliabide hidrikoen ebaluazioak trebatutako eta motibatutako nahiko jende egon eta manten dadila eskatzen du, lehenagotik aurrera eraman beharreko jarduerak gauzatzeko. Hezkuntza- eta trebakuntza-planak eratu edo sendotu beharko dira, herri, nazio, azpilurralde edo lurralde mailan, langile trebatuen eskaintza egokiaz arduratzeko. Horrez gain, lan-baldintzak eta karrerarako aurreikuspen erakargarriak sustatu beharko lirateke profesionalentzako eta teknikarientzako. Giza baliabideen beharrak aldian-aldian egiaztatu beharko lirateke langintza maila guztietan. Behar horiei erantzuteko planak prestatu

beharko dira heziketarako eta prestakuntzarako aukeren bidez eta ikastaroen eta hitzaldien nazioarteko programekin.

Baliabide hidrikoen ebaluazioa eta iragarpen hidrológicoak egiteko ongi prestatutako jendea izateak garrantzi handia duela kontuan hartuta, langileekin harremana duten auziei kasu berezia egin behar litzaieke programa-arlo honetan. Helburuak baliabide hidrikoen ebaluazioan lan egingo luketen langileak erakartzea eta mantentzea izan beharko luke, beharrezko langile-kopurua trebakuntza-maila egokiarekin izateko moduan, planifikatzen diren jarduerak era eragingarrian gauzatzeaz arduratu daitezten. Agian, nazio eta nazioarte mailan irakaskuntza behar da; lanerako baldintza egokiak sortzea nazio mailako arduratu izango da.

Ondorengo neurriak gomendatzen dira:

- a) Herrialde bakoitzaren beharren arabera, irakaskuntza eta hezkuntza alorretan dauden beharrak zehaztea;
- b) Urarekin harremana duten gaien buruzko irakaskuntza- eta hezkuntza-programak eratzea eta sendotzea, ingurugiroa eta garapena kontuan hartzen dituen testuinguruaren barruan. Programa horiek baliabide hidrikoak ebaluatzekeo jardueretan parte hartzen duten langile-maila guztiei zuzenduta prestatu beharko lirake. Horretarako, behar denean, hezkuntzako teknologia berria erabili beharko litzateke eta bai gizonezkoek, bai emakumezkoek esku hartu beharko lukete;
- c) Uraz arduratzen diren nazio eta herri mailako funtzionarioentzako, kontratazio-, langileen kudeaketa- eta ordainketa-politika arrazionalak martxan jartzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Nazio mailako sare hidrometrikoko operatiboetan oinarritutako baliabide hidrikoen ebaluazioak bitarteko proposak eskatzen ditu maila guztietan. Herrialde bakoitzaren gaitasuna sustatzeko nazio mailako babeserako jarduerak behar dira; esate baterako ondorengo jarduerak:

- a) Baliabide hidrikoen ebaluazioaren antolaketa legegilea eta arau-emailea berrikustea;

- b) Uraren sektoreko erakundeen arteko lankidetzak estua erraztea, bereziki informazioaren ekoizleak eta erabiltzaileak artean;
- c) Baliabide hidrikoen baldintzen eta joeren ebaluazio errealistetan oinarritutako uraren antolaketarako politikak aplikatzea;
- d) Uraren erabiltzaile taldeen –horien artean, emakumeak, gazteak, herrialde indigenak eta tokian tokiko komunitateak– kudeatzeko gaitasuna sendotzea, herri mailako erabilera eragingarria hobetzeko.

C. Baliabide hidrikoen, uraren kalitatearen eta uretako ekosistemaren babesa

Ekintzarako oinarriak:

Ur geza baliabide zatiezina da. Epe luzera begira munduko ur gezaren baliabideen ustiapenak ur gezarekin eta bere kalitatearekin harremana duten elementuen erlazioaren antolaketa globala eta onarpena eskatzen ditu. Munduan ur gezaren iturri potentzialen galerarengatik, uraren kalitatearen degradazioarengatik eta lur gaineko eta lurpeko uren kutsadurarengatik arazoak ez dituzten lurralde gutxi daude. Ibaietako eta aintziretako uraren kalitateari gehien eragiten dioten aldeak ondorengoak dira, garrantziaren arabera ordenatuta (hala ere, egoeraren arabera ordena aldatu egin daiteke): gaizki tratatutako etxeko hondakin-uren isurketa, industriako hondakinen kontrol ezegokiak, bilketa-guneen galerak eta suntsiketa, lantegien zuhurtziarik gabeko kokapena, baso-soiltzea, nekazaritza migratzailea eta laborantzako metodo txarrak. Egoera horiek elikagaien eta plagiziden lixibazioa sortzen dute. Uretako ekosistemak nahasi egiten dira eta ur gezatako baliabide bizidunak mehatxaturik egoten dira. Egoera zehatz batzuetan, baliabide hidrikoak ustiatzeko proiektuek ere eragiten dute uretako ekosistemetan, adibidez, presa handiek, ibaien ibilgua aldatzeak eta ureztatze-sistemek. Higaduraren, sedimentazioaren, baso-soiltzearen eta desertifikazioaren ondorioz lurraren degradazioa areagotu egin da eta urtegiak eraiki izanak, kasu batzuetan, eragin negatiboak sortu ditu ekosistemetan. Arazo horietako asko ingurugiroa suntsitzen duen garapen-eredua erabiltzearen ondorioz sortu dira. Ingurugiroaren suntsiketa jendeak lur gaineko eta lurpeko baliabide hidrikoen babesaren inguruan ezagutzarik eta hezkuntzarik ez duelako gertatu da. Ekologiarengan eta giza osasunean sortutako eraginak ondorio neurgarriak dira, baina garapen bidean dauden herrialde gehienetan eragin horiek behatzeko dituzten bitartekoak ez dira nahikoak edo ez dute bitartekorik. Oro har, jendeak ez ditu ezagutzen baliabide hidrikoen eta uretako ekosistemen ustiapenaren, antolaketaren, erabileraren eta tratamenduaren arteko loturak. Kasu egokietan, ezinbestekoa da prebentziozko ikuspuntua hartzea, ur-iturri berriak birgaitzeko, tratatzeko eta ustiatzeko behar diren neurri garestiak ekiditeko.

Helburuak:

Ur gezatako sistemen elkarrekiko lotura konplexuak baliabide horien antolaketa orokorra eskatzen du (lotura hori arro hidrografikoen antolaketan oinarrituta dago) eta biztanleen eta ingurugiroaren

beharren azterketa orekatuan oinarrituta egon behar du. Mar del Platako Ekintza Planean baliabide hidrikoak ustiatzeko proiektuen eta ondorio fisiko, kimiko, biologiko, sanitario eta sozioekonomiko garrantzitsuen arteko berezko lotura onartu zen. Une horretan ingurugiroaren osasunaren helburu nagusia ondorengoa izango zela zehaztu zen: "uraren erabilera desberdinek ingurugiroan dituzten eraginak ebaluatzea, urarekin harremana duten gaixotasunak kontrolatzeko neurriak babestea eta ekosistemak babestea"⁴³.

Denbora luzean saturatu gabeko guneen eta akuiferoen kutsadura-maila eta larritasuna gutxietsi egin dira, oso eskuragarri ez zeudelako eta sistema akuiferoen inguruko informazio fidagarririk ez zegoelako. Beraz, lurpeko urak babestea baliabide hidrikoak antolatzeko ezinbesteko elementua da.

Aldi berean hiru helburu lortzen saiatu beharra dago, uraren kalitatearen elementuak baliabide hidrikoen antolaketan sartzeko:

- a) Ekosistemak osorik mantentzea, uretako ekosistemak –baliabide bizidunak barne– zaintzeko eta degradazio era guztien aurrean eragingarritasunez babesteko antolaketa-printzipioaren arabera;
- b) Osasun publikoa babestea; helburu hori aurrera eramateko, germen patogenorik gabeko ur edangarria banatzeaz gain, uretako ingurunean egoten diren gaixotasunen bektoreen aurka egin beharko da;
- c) Giza baliabideak garatzea; helburu hori gaitasuna sustatzeko funtsezkoa eta uraren kalitatea kontrolatzeko baldintza da.

Estatu guztiek ondorengo helburuak finkatzeko aukera izango lukete, beren gaitasunaren eta dituzten baliabideen arabera eta alde biko eta alde askotako erakundeen – eta dagokionaren arabera Nazio Batuen eta beste erakunde eskudun batzuen– lankidetzaren bidez:

- a) Batetik, era jasangarrian ustiatzeko gara litezkeen lur gaineko eta lurpeko baliabideak zehaztea eta, bestetik, erabil litezkeen uraren menpeko beste baliabide garrantzitsuak zehaztea. Era berean, baliabide horiek babesteko, kontserbatzeko eta era arrazionalen eta

⁴³ Urari buruzko Nazio Batuen Biltzarraren Txostena, Mar del Plata, 1977ko martxoaren 14tik 25era (Nazio Batuen argitalpena, salmenta-zenbakia: S.77.II.A.12), lehen zatia, I. atala, C azpiatala, 35. paragrafoa.

jasangarrian ustiatzeko programak martxan jartzea;

- b) Ur-horniketarako iturri posible guztiak zehaztea eta babes, kontserbazio eta erabilera arrazionalerako planak prestatzea;
- c) Uraren kutsaduraren prebentziorako eta kontrolerako programa eragingarriak martxan jartzea. Programa horiek ondorengo atalen konbinazio egokian oinarrituko lirateke: batetik, kutsadura bere oinarrian murrizteko estrategien; bestetik, ingurugiro-inpaktuaren ebaluazioen eta, azkenik, beren garapen sozioekonomikoarekin proportzionalak diren eta iturri zehatz garrantzitsuen eta arrisku handiko iturri ez zehatzen deskargei aplika dakiekeen derrigorrezko arauen konbinazioan;
- d) Bakoitzari dagokionaren arabera, uraren kalitatea behatzeko eta antolatzeko programetan parte hartzea; esate baterako, ondorengo programetan: Uraren Kalitatea Behatzeko Munduko Programan, Barruko urak era ekologikoki arrazionalen antolatzeko NBIPren programan, Ur Kontinentaletako Arrantzari buruzko FAOren lurralde mailako erakundeetan edo Uretako hegaztien habitat gisa nazioarte mailako garrantzia duten marisme buruzko hitzarmenean;
- e) Urarekin harremana duten gaixotasunen eragina murriztea; lehenik eta behin, 2000 urterako drakunkuliasia (Gineako zizarearen gaixotasuna) eta onkozerkosia (ibaietako itsutasuna) desagertaraztea;
- f) Gaitasunaren eta beharren arabera, biologiako, medikuntzako, fisikako eta kimikako kalitate-irizpideak ezartzea ur-masa guztientzako (lur gaineko eta lurpeko urak), beren kalitatea etengabe hobetzeko;
- g) Baliabide hidrikoen antolaketa ekologikoki jasangarriaren ikuspegi integratua hartzea; ikuspegi honen barruan uretako ekosistemen eta ur gezatako baliabide bizidunen babesa sartu beharko litzateke;
- h) Ur gezatako baliabideen eta hauekin lotura duten kostaldeetako ekosistemen antolaketa ekologikoki arrazionalerako estrategia aplikatzea, besteak beste, arrantza-tokien, akuikulturaren, bazkalekuen, nekazaritza-jardueren eta biodibertsitatearen azterketaren bidez.

Jarduerak:

Estatu guztiek ondorengo jarduerak gauza ditzakete, beren gaitasunaren eta dituzten baliabideen arabera eta alde biko eta alde askotako erakundeen –eta dagokionaren arabera Nazio Batuen eta beste erakunde eskudun batzuen– lankidetzaren bidez:

a) Baliabide hidrikoak babestea eta kontserbatzea:

- i) Gizartearen sektore guztietan ur-horniketako iturri posibleak zehazteko eta babesteko gaitasun teknikoa eta instituzionala ezartzea eta sendotzea;
- ii) Ur-horniketako iturri posibleak zehaztea eta profil nazionalak prestatzea;
- iii) Baliabide hidrikoak babesteko eta kontserbatzeko plan nazionalak lantzea;
- iv) Bilketa-gune garrantzitsuak eta degradatuak birgaitzea, batez ere uharte txikietan;
- v) Erabil daitezkeen bilketa-guneetan inor sar ez dadin, xedapen administratiboak eta legislatiboak sendotzea;

b) Uraren kutsadura kontrolatzea eta aurreikustea:

- i) Iturri mota guztiei, behar denaren arabera, "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioa eta in situ eta ex situ saneamendua aplikatzea;
- ii) Etxeetako hondakin-urak eta isurkari industrialak tratatzeko instalazioak eraiki daitezen sustatzea eta teknologia egokiak garatzea, tokian tokiko metodoak eta metodo tradizional baliagarriak kontuan hartuta;
- iii) Isurkinak biltzeko eta isurkinak botatzeko urentzako arauak ezartzea;
- iv) Hala behar denean, arretaren printzipioa uraren kalitatearen antolaketan sartzea; horretarako kutsadura ahalik eta gehien murrizteari eta prebentzioari arreta berezia eskaini behar zaie. Hori teknologia berriak erabiliz, produktuak eta prozesuak aldatuz, kutsadura bere iturburuan murriztuz, isurkariak berriro ustiatzearen bidez, birziklatze- eta errekupeazio-tekniken bidez, tratamenduen bidez eta isurkariak arrisku ekologikorik

gabe deuseztatuz lortuko litzateke;

- v) Baliabide hidrikoak ustiatzeko proiektu nagusi guztiek ingurugiroan izan dezaketen inpaktua nahitez ebaluatzea, bereziki baliabide horien kalitateari eta uretako ekosistemari kalte egin badiezaiekete. Hori neurri zuzentzaile egokiak formulatzearekin eta industria-instalazio berrien, hondakin solidoen zabortegeien eta azpiegitura garatzeko proiektuen sendotutako kontrolarekin batera egin beharko litzateke;
- vi) Arriskuen ebaluaketa eta kudeaketa aplikatzea, alor honetan erabakiak hartzeko eta ontzat har daitezen lortzeko;
- vii) Kutsadura barreiatua ekiditeko ingurugiroko metodo onenak zehaztea eta aplikatzea, esate baterako, ongarri nitrogenatuen eta beste produktu agrokimiko batzuen (plagiziden, herbiziden) erabilera mugatuaren, arrazionalaren eta planifikatuaren bidez;
- viii) Nekazaritzan, akuikulturan, industrian eta beste sektore batzuetan behar bezala tratatutako eta garbitutako hondakin-urak erabil daitezen sustatzea eta bultzatzea;

c) Kutsatzaileak ez diren teknologiak garatzea eta aplikatzea:

- i) Hondakin industrialen isurketak kontrolatzea, beste batzuen artean, hondakin gutxi sortzen dituzten produkzio-teknikak eta ura birzirkulatzeko teknikak era integratuan erabiliz eta bizitza zikloaren azterketa zabaletik eratorritako kautelazko neurriak aplikatuz;
- ii) Udaletako hondakin-urak tratatzea, nekazaritzan eta akuikulturan arriskurik gabe erabiltzeko;
- iii) Bioteknologiak hobetzea, beste batzuen artean, hondakinak tratatzeko, ongarri biologikoak ekoizteko eta beste jardura batzuk aurrera eramateko;
- iv) Uraren kutsadurari aurre egiteko metodo egokiak garatzea, jardura tradizionalak eta tokian tokiko jardura baliagarriak kontuan hartuta;

d) Lurpeko urak babestea:

- i) Lurpeko urak degradatzen ez dituzten labore-motak garatzea;
- ii) Uharte txikietako eta kostaldeko lautadetako akuiferoetan itsasoaren maila igotzearen edo kostako akuiferoen gehiegizko ustiapenaren ondorioz sortutako gatz-intrusioak gutxitzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatzea;
- iii) Akuiferoen kutsadura prebenitzea, lurra inpregnatzen duten gai toxikoen kontrolaren bidez eta lurpeko uren filtrazio- eta xurgatze-eremuetan babes-guneak ezarriz;
- iv) Hondakindegia diseinatzea eta antolatzea, informazio hidrogeologiko bideragarrian eta ondorioen ebaluazioan oinarrituta. Horretarako eskura dauden teknologia aplikagarriak hobeto erabili behar dira;
- v) Putzuak eta iturriak dauden guneen segurtasuna eta osotasuna hobetzeko neurriak sustatzea, akuiferoetan agente patogeno biologikoen eta produktu kimiko arriskutsuen intrusioa murrizteko;
- vi) Uraren kalitatea behatzea, behar denaren arabera, bereziki material toxikoak eta arriskutsuak dituzten zaborteziek kaltetu ditzaketen lurpeko eta lur gaineko uren kalitatea behatzea;

e) Uretako ekosistemak babestea:

- i) Ur-masa kutsatuak edo degradatuak birgaitzea habitatak eta uretako ekosistemak leheneratzeko;
- ii) Nekazaritzako eta beste jarduera batzuetako lurrak birgaitzeko programak gauzatzea, nekazaritzako ekoizpenerako eta tropikoetako biodibertsitatearentzako garrantzitsuak diren lurpeko uren baliabideak babesteko eta erabiltzeko neurri baliokideak hartuz;
- iii) Gune zingiratsuak kontserbatzea eta babestea (ekologikoki duten garrantziarengatik eta espezie askoren habitata delako), faktore sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta;
- iv) Uretako beste espezie batzuk suntsi ditzaketen uretako espezie kaltegarriak kontrolatzea;

f) Ur gezatako baliabide bizidunak babestea:

- i) Uraren kalitatea kontrolatzea eta behatzea, barruko uretako arrantzaren garapen jasangarria ez eragozteko;
- ii) Ekosistemak kutsaduraren eta degradazioaren aurrean babestea, ur gezatan akuikulturako proiektuak gauzatu ahal izateko;

g) Hondakinak jasotzen dituzten urak eta baliabide hidrikoak behatzea eta gainbegiratzea:

- i) Hondakinak jasotzen dituzten urak eta kutsadura sortzen duten iturri jakinak eta zehaztugabeak etengabe behatzeko eta gainbegiratzeko sareak martxan jartzea;
- ii) Informazio geografikoko sistemetako zati diren ingurugiro-inpaktuen ebaluazioak aplikatu daitezkeen sustatzea eta aplikazio horiek hedatzea;
- iii) Kutsadura iturriak behatzea, arauak eta xedapenak behar bezala betetzeko eta isurketetarako baimenen kontzesioa arautzeko;
- iv) Ingurugiroarentzako kaltegarriak izan daitezkeen produktu kimikoen erabilera behatzea nekazaritzan;
- v) Lurra era arrazionalen erabiltzea, bere degradazioa eta higadura ekiditeko eta aintzirak eta beste ur-masa batzuk ez lohitzeko;

h) Baliabide hidrikoen kalitatea babesteko beharrezkoak diren baliabide juridiko nazionalak eta internazionalak lantzea, komeni denaren arabera, ondorengoa egiteko:

- i) Ur nazionaletan eta mugaz haraindiko uretan kutsadura eta bere eraginak zaintzeko eta kontrolatzeko;
- ii) Urruneko kutsatzaileen garraio atmosferikoaren aurka borroka egiteko;
- iii) Nazio mailako edo mugaz haraindiko ur-masen ustekabeko edo nahita egindako isurketei aurre egiteko;

iv) Ingurugiro-inpaktuaren ebaluazioak egiteko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 1.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 340 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berriazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Estatuek ikerketa-proiektuak gauzatu beharko lituzkete elkarrekin, arro edo herrialde bakoitzeko baldintzetara egokituta, arazo teknikoentzako irtenbideak aurkitzeko. Estatuak, lurralde mailako ikerketa-institutuen laguntzarekin, sare bidez lotutako ikerketa-zentroak sendotzeko eta garatzeko aukera aztertu beharko lukete. Ura ikertzen duten nazioarteko erakundeen eskutik, ikerketa-zentroen eta lekuan bertako azterketen IparHego lotura aktiboa bultzatu beharko litzateke. Garrantzitsua da baliabide hidrikoak ustiatzeko funtsen gutxieneko ehunekoa ikerketarako eta garapenerako bideratzea, bereziki kanpoko iturriek finantzatutako proiektuetan.

Uretako sistema konplexuak behatzeak eta ebaluatzeak diziplinarteko ikerlanak eskatzen ditu askotan, hainbat erakunderen eta programa osoko diziplina ezberdinetako zientzialarien parte-hartzearekin. Uraren kalitateari buruzko nazioarteko programak, adibidez GEMS/WATER, garapen bidean dauden herrialdeetan uraren kalitatea ikertzera bideratu beharko lirateke. Erraz erabiltzeko informatika-programak prestatu beharko lirateke eta informazio geografikoko sistemak eta munduko baliabideei buruzko datu-basea sortu beharko lirateke, behatzeko datuak erabiltzeko, aztertzeko eta interpretatzeko eta antolaketa-estrategiak prestatzeko.

c) Giza baliabideen garapena:

Langile profesionalek eta zuzendariak planteamendu berritzaileak onartu beharko lituzkete etengabe aldatzen diren beharrei eta arazoei erantzuteko. Uraren kutsadurarekin harremana duten auziekin lotuta, malgutasuna eta moldagarritasuna antzeman beharko lirateke. Aldian-aldian trebakuntza-ekintzak egin beharko lirateke maila guztietan, uraren kalitatea kontrolatzeaz arduratzen diren erakundeetan. Horrez gain, erakunde horien barruan, uraren kalitatea behatzeko eta kontrolatzeko alde zehatzetarako irakaskuntza-teknika berritzaileak onartu beharko lirateke, esate baterako, hezkuntzaren inguruko ezagutzen garapena, lanean trebakuntza, arazoak planteatzeko eta konpontzeko diren mintegiak eta hobekuntza-ikastaroak.

Ikuspegi egokien artean ondorengoak egongo lirateke: batetik, tokian tokiko agintariak uraren babesa, tratamendua eta erabilera administratzeko dituzten giza baliabideen ustiapena eta hobekuntza, bereziki hiriko guneeetan; eta, bestetik, lurralde mailan, egungo zentroetan uraren kalitatea babesteari eta kontrolatzeari buruzko ikastaroen eta hezkuntza- edo trebakuntza-ikastaroen eraketa. Ikastaro horiek laborategietako teknikarientzako eta lekuan bertan ikertzen dutenentzako izango lirateke, baita emakumeentzako eta uraren erabiltzaile-taldeentzako ere.

d) Gaitasuna areagotzea:

Uretako baliabideak eta ekosistemak kutsaduraren aurrean eragingarritasunez babesteak ia herrialde guztien egungo gaitasuna asko hobetzeko eskatzen du. Uraren kalitatea kontrolatzeko programek gutxieneko azpiegitura eta jende-kopurua eskatzen dituzte irtenbide teknikoak aurkitzeko eta aurrera eramateko eta xedapen arau-emaileak aplikatzeko. Egungo eta etorkizuneko arazoetako bat instalazio horiek era jasangarrian funtzionatzeko eta mantentzeko zer egin behar den jakitea da. Aurretik egindako inbertsioen bidez lortutako baliabideak gehiago honda ez daitezen, ezinbestekoa da hainbat arlotan neurriak berehala hartzea.

D. Edateko uraren horniketa eta saneamendua

Ekintzarako oinarriak:

Edateko uraren horniketa eta ingurugiroaren saneamendua ezinbestekoak dira ingurugiroa babesteko, osasuna hobetzeko eta pobrezia aurre egiteko. Edateko ura ere funtsezkoa da jardura tradizioaletarako eta kulturaletarako. Garapen bidean dauden herrialdeetan, gaixotasunen % 80 eta heriotzen herena baino gehiago ur kutsatua kontsumitzearen ondorio direla kalkulatu da eta, batez beste, pertsona bakoitzaren denbora produktiboaren hamarrena urarekin harremana duten gaixotasunen ondorioz galtzen dela. 80ko hamarkadan egin ziren ahalegin bateratuen ondorioz, munduko ehunka milioi pertsona behartsuri ura eta saneamendu-zerbitzua helarazi zitzaizkien. Ahalegin horien artean nabarmenena 1981ean Edateko Uraren eta Ingurugiroaren Saneamenduaren Nazioarteko Hamarkada hasia izan zen; hori Mar de Platako Ekintza Planaren ondorio izan zen eta 1977an onartu zen Urari buruzko Nazio Batuen Biltzarrean. Premisa ondorengoa aipatu zen: "herrialde guztiek, beren garapen-maila eta baldintza ekonomikoak eta sozialak edozein direla ere, beren oinarriko beharren arabera edateko ur kantitatea eta kalitatea izateko eskubidea dute" 2/. Hamarkadaren helburua edateko ur kontrolatua eta saneamendu-zerbitzuak ez zituzten hiriko eta nekazaritzako gunetan 1990erako aukera horiek izatea zen, baina hamarkadan aurrerapen handia egin bazen ere, ez zen nahikoa izan. Garapen bidean dagoen munduan hiru pertsonatetik batek ez ditu oraindik osasunerako eta duintasunerako ezinbestekoak diren bi elementu horiek. Garapen bidean dauden herrialdeetan giza gorotzak eta hondakin-urak uraren kalitatea hondatzen duten arrazoi garrantzitsuak direla ere onartu da eta, egokiak badira, eskuragarri dauden teknologiak sartzeak eta hondakin-urak garbitzeko estazioak eraikitzeak onura ugari ekar ditzake.

Helburuak:

New Delhiko Deklarazioan (New Delhin, 1990eko irailaren 10etik 14ra izan zen 90eko hamarkadan Edateko Urari eta Ingurugiroaren Saneamenduari buruzko Mundu mailako Kontsulta Bileran onartu zena), oinarri jasangarriaren gainean, guztiek edateko nahiko ura izateko eta guztientzako saneamendu-zerbitzu egokiak jartzeko beharra aldarrikatu zen formalki, eta "zerbait guztiontzat eta ez asko gutxi batzuentzat" printzipioa nabarmendu zen. Programa horren helburu nagusiak lau printzipio nagusitan biltzen dira:

- a) Osasunaren eta ingurugiroaren babesa, uretako baliabideen eta hondakin likidoen eta solidoen

antolaketa integratuaren bidez;

- b) Irizpide integratua sustatzeko aldaketa instituzionalak; batetik, prozeduretan, jardueretan eta jokaeran aldaketak eta, bestetik, sektoreko erakunde guztietan emakumearen erabateko parte-hartzea barne;
- c) Zerbitzuen administrazio komunitarioa; ur-horniketako eta saneamenduko programak gauzatu eta mantendu ditzaten herri mailako erakundeak sendotzeko hartu beharreko neurrien babesarekin;
- d) Finantza-jarduera arrazionalak; jarduera horiek aurretik dauden aktiboak hobeto administratzearen bidez eta teknologia egokiak zabal erabiliz lortutakoak dira.

Eskuratutako esperientziak erakutsi du herrialde bakoitzak bere helburu espezifikoak jarri behar dituela. 1990eko irailean izan zen Haurtzaroaren aldeko Munduko Gailurrean, Estatueta edo Gobernuetako buruek, batetik, guztiek ur-horniketa izateko eta saneamendu-zerbitzua izateko eta, bestetik, 1995erako drakunkulosia (Gineako zizarearen gaixotasuna) desagertarazteko eskatu zuten. Helbururik errealistena 2025 urterako edateko ur-horniketa guztientzat izatea dela kontuan hartuta, hori lortzeko, egun egiten diren inbertsioen bikoitza egin beharko litzateke urteko. Beraz, egungo eta etorkizuneko beharrei aurre egiteko estrategia errealista zerbitzu merkeagoak jartzea da, komunitate mailan errazago martxan jartzeko eta mantentzeko.

Jarduerak:

Estatu guztiek ondorengo jarduerak gauza ditzakete, beren gaitasunaren eta dituzten baliabideen arabera eta alde biko eta alde askotako erakundeen –eta dagokienaren arabera Nazio Batuen eta beste erakunde eskudun batzuen– lankidetzaren bidez:

a) Ingurugiroa eta osasuna:

- i) Edateko ur-horniketako iturrientzako gunebabestuak ezartzea;
- ii) Gorotzen eta hondakin-uren deuseztapen sanitarioa egitea, hiriko eta nekazaritzako guneeetan hondakin likidoak tratatzeko sistema egokiak erabiliz;
- iii) Hiriko eta nekazaritzako guneeetako ur-horniketa hedatzea eta, uraren horniketa-sareaz

gain, euri-ura hartzeko sistemak ezartzea eta hedatzea, bereziki uharte txikietan;

- iv) Hondakin-urak tratatzeko instalazioak eta drainatze-sistemak eraikitzea eta, behar denean, hedatzea;
- v) Hiriko eta nekazaritzako gunetako etxeetako eta industrietako hondakin likidoak segurtasunez tratatzea eta berreskuratzea;
- vi) Urarekin lotutako gaixotasunei aurre egitea;

b) Jendea eta erakundeak:

- i) Baliabide hidrikoen antolaketan administrazio publikoaren funtzionamendua hobetzea eta, era berean, tokian tokiko agintarien lana erabat onartzea;
- ii) Parte-hartzean oinarritutako uren ustiapena eta antolaketa sustatzea, erabiltzaileek, planifikatzaileek eta politikak formulatzeaz arduratzen direnek maila guztietan esku hartzeko moduan;
- iii) Erabakiak egokien izan daitekeen mailarik baxuenean har daitezkeela esaten duen printzipioa aplikatzea; horretarako jendeari kontsulta egin behar zaio eta urarekin harremana duten proiektuen planifikazioan eta gauzatzeko unean erabiltzaileek parte hartu behar dute;
- iv) Maila guztietan giza baliabideak garatzea, emakumearentzako programa bereziekin;
- v) Hezkuntza-programa zabalak eratzea; programa horietan garbitasuna, antolaketa lokala eta arriskuen murrizketa nabarmendu beharko lirateke;
- vi) Programak finantzatzeko, gauzatzeko eta jarraitzeko nazioarteko babeserako mekanismoak sortzea;

c) Nazio eta komunitate mailako kudeaketa:

- i) Komunitateei laguntza ematea, beren sistemak oinarri jasangarriaren gainean administra

ditzaten;

- ii) Herriko biztanleak, bereziki emakumeak, gazteak, herrialde indigenak eta tokian tokiko herrialdeak, uraren antolaketan parte har dezaten bultzatzea;
- iii) Nazio mailako plan hidraulikoak uren herri mailako antolaketa komunitarioekin lotzea;
- iv) Uraren komunitatearen antolaketa planifikazio orokorraren barruan sartzea;
- v) Herri mailan osasunerako eta ingurugirorako lehen mailako laguntza sustatzea, beste batzuen artean, tokian tokiko komunitateei zuzenduta uraren antolakuntzarako eta osasunerako lehen mailako arretarako tekniken inguruko trebakuntzaren bidez;
- vi) Zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeei laguntzea, gastuen ikuspuntutik eragingarriagoak izan daitezen eta kontsumitzaileen beharrei hobeto erantzun diezaieten;
- vii) Arreta urria duten nekazaritzako guneei eta diru-sarrera baxuko hiri-inguruko guneei arreta gehiago eskaintzea;
- viii) Akatsak dituzten sistemak birgaitzea, hondakinak gutxitzea eta ura eta hondakin likidoak segurtasunez berreskuratzea;
- ix) Ura era arrazionalen erabiltzeko programak eratzea eta bere ustiapena eta mantenua segurtzea;
- x) Irtenbide tekniko egokiak ikertzea eta aplikatzea;
- xi) Hiriko hondakin likidoak tratatzeko gaitasuna era adierazgarrian areagotzea, hondakin bolumena handitzearekin bat;

d) Kontzientzia sortzea eta jendearen informazioa/parte-hartzea:

- i) Azpinazio eta nazio mailan, behaketa-lana eta informazio sektoriala sendotzea;
- ii) Urtero behaketaren emaitzak lantzea, aztertzea eta argitaratzea, nazio eta herri mailan,

- sektorearen antolatze eta interes eta kontzientzia orokorra sortzeko bitarteko gisa;
- iii) Lurralde eta mundu mailara mugatutako adierazle sektorialak erabiltzea, sektorea sustatzeko eta funtsak biltzeko;
 - iv) Sektorean koordinazioa, planifikazioa eta gauzatzea hobetzea, behaketaren eta informazioaren kudeaketa eragingarriagoaren laguntzaren bidez, sektorearen xurgatzeko ahalmena areagotzeko, bereziki autolaguntzako komunitateko proiektuetan.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1992-2000) batez besteko gastua 20.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 7.400 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Ur-horniketarako pentsatutako zerbitzuen bideragarritasuna, onarpena eta iraunkortasuna segurtatzeko, martxan jarri beharreko teknologiek komunitate bakoitzaren baldintzek ezarritako beharrei eta mugei erantzun beharko liekete. Esate baterako, diseinuaren inguruko irizpideen barruan faktore teknikoak, sanitarioak, sozialak, probintzialak eta instituzionalak eta ingurugiroko faktoreak sartuko lirateke eta aurreikusitako sistemaren ezaugarriak, tamaina eta gastua zehaztuko lituzke. Babeserako nazioarteko programek garapen bidean dauden herrialdeei, besteak beste, ondorengoa lortzen lagundu beharko liekete:

- a) Ahal den neurrian gastu gutxiko bitarteko zientifikoak eta teknologikoak erabiltzen;
- b) Ahal den guztietan, jarduera tradizioaletara eta tokian tokiko jardueretara jotzea, herriaren parte-hartzea ahalik eta gehien igotzeko eta mantentzeko;

c) Institutu nazional teknikoei eta zientifikoei laguntza ematea, uraren eta saneamenduaren sektoreentzako ezinbestekoak diren alorretan ikasketa-planak gara ditzaten.

c) Giza baliabideen garapena:

Nazio, probintzia, merkataritza eta komunitate mailan, ur-horniketa eta saneamendua eraginkortasunez aurreikusteko eta antolatzeko eta funtsei ahalik eta etekin gehien ateratzeko, herrialde bakoitzean behar adina langile eta teknikari trebatu beharko lirateke. Horretarako, herrialdeek giza baliabideen garapenerako planak prestatu beharko lituzkete, uneko baldintzak eta aurreikusitako garapena kontuan hartuta. Ondoren, nazio mailako trebakuntza-erakundeek garapena eta emaitzak sustatu beharko lirateke gaitasun instituzionala sortzeko garaian lan nagusia egin dezaten. Herrialdeek emakumeei hezkuntza egokia ematea ere oso garrantzitsua da; hezkuntzak ekipoen etengabeko mantentze-lanari, uretako baliabideen antolaketari eta ingurugiroaren saneamenduari buruzkoa izan behar luke.

d) Gaitasuna areagotzea:

Ur-horniketarako eta saneamendurako programak gauzatzea nazio mailako lana da. Sistemek funtzionatzeko proiektuak gauzatzeko ardura, ahal den neurrian, maila administratibo guztiengan utzi beharko litzateke, baita komunitateengan eta zerbitzatutako jendearengan ere. Horrek nazioko agintariak –Nazio Batuen sistemako erakundeekin eta organoekin batera eta nazioetako programei kanpoko laguntza ematen dieten beste erakundeekin batera– maila guztietan laguntzeko mekanismoak eta prozedurak onartu beharko lituzketela esan nahi du. Hori oso garrantzitsua da komunitatean eta jasangarritasuna lortzeko bitarteko gisa komunitateek duten gaitasunean oinarritutako ikuspegiak ahalik eta gehien erabiltzeko. Horrek etxeetako ur-horniketekin eta saneamenduarekin harremana duten sorkuntzan, planifikazioan, erabakietan, gauzatzean eta ebaluazioan komunitatearen –emakumea barne– parte-hartze handia eragingo du.

Maila administratibo guztietan gaitasun nazional orokorra sortzea ezinbestekoa izango da. Gaitasun horren barruan ondorengoak egongo litzateke: garapen instituzionala, koordinazioa, giza baliabideak, komunitatearen parte-hartzea, osasunaren eta garbitasunaren inguruko hezkuntza eta alfabetizazioa; hori guztia, batetik, ur-horniketaren eta saneamenduaren bidez garapen sozioekonomikoa eta osasunaren garapena hobetzeko edozein ahaleginekin eta, bestetik, giza ingurunean dituen eraginekin duten funtsezko harremanaren arabera egin

beharko litzateke. Beraz, gaitasuna areagotzeak gauzatze-estrategien funtsezko giltza izan behar du. Gaitasun instituzionala areagotzeari sektorearen horniketari eta ekipamenduari adina garrantzia eman beharko litzaioke, funtsak bi osagaietara bidera daitezen. Hori programak edo proiektuak planifikatzeko edo formulatzeko garaian egin ahal izango da, helburuen eta jomugen definizio argiarekin batera. Horren inguruan, garapen bidean dauden herrialdeen arteko lankidetzak teknikoak erabakigarriak dira, informazio eta esperientzia aldetik aberastasuna dagoelako eta asmatuta dagoena berriro asmatzen ez hasteko. Ikuspegi hori eragingarria da gastuen aldetik hainbat herrialdeetako proiektu askotan.

19. ATALA: Produktu kimikoen kudeaketa ekologikoki arrazionala, nazioartean produktu toxikoen eta arriskutsuen legez kanpoko salerosketa prebenitzea barne

Sarrera

Munduko komunitatearen helburu sozialak eta ekonomikoak erdiesteko ezinbestekoa da produktu kimiko pila bat erabiltzea, eta jarduera moderno onenek frogatu dute produktu horiek lasai, eraginkortasun ekonomikoarekin eta segurtasun-maila handiarekin erabil daitezkeela. Hala ere, oraindik gauza asko egin behar da produktu kimiko toxikoen kudeaketa ekologikoki arrazionala garapen jasangarriaren printzipioen bidez eta gizateriarentzako bizi-kalitatea hobetzearen bidez hedatzeko. Bi arazo nagusiak, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan, ondorengoak dira:

- a) Produktu kimiko kopuru handia erabiltzeak dakarren arriskua ebaluatzeko informazio zientifikoaren gabezia; eta
- b) Produktu kimikoen datuak eskura dauden kasuetan, produktu horiek ebaluatzeko baliabide falta.

Azken garaiotan, munduko gune industrial garrantzitsu batzuetan kutsadura kimiko handia produzitzen jarraitu dute eta kutsadura horrek, batetik, osasunean, egitura genetikoetan eta giza ugalketan eta, bestetik, ingurugiroan kalte handiak eragin ditu. Birgaitzeak inbertsio handiak eta teknika berrien garapena eskatzen ditu. Oraindik kutsadura oso urrutira hedatzearen garrantzia ulertzen eta ezagutzen bakarrik hasi dira; kutsaduraren eragina atmosferaren funtsezko prozesu kimikoetan eta fisikoetan eta Lurraren kliman ere nabaritu daiteke.

Nazioarte mailako erakunde asko produktu kimikoen segurtasunarekin harremana duten gaietan ari dira lanean. Herrialde askotan segurtasun hori sustatzeko programak daude. Jarduera horiek nazioartean ondorioak dituzte, izan ere, arrisku kimikoek ez dituzte nazioen mugak errespetatzen. Hala ere, produktu kimikoen kudeaketa ekologikoki arrazionala lortu nahi bada, ezinbestekoa da nazio eta nazioarte mailako ahalegina nabarmen areagotzea.

Sei programa-arlo proposatu dira:

- a) Produktu kimikoen arriskuen nazioarteko ebaluazioa hedatzea eta bizkortzea;
- b) Produktu kimikoen sailkapena eta etiketatua bateratzea;
- c) Produktu kimiko toxikoei eta produktu kimikoen arriskuei buruzko informazioa trukitzea;
- d) Arriskuak gutxitzeko programak antolatzea;
- e) Produktu kimikoak kudeatzeko nazio mailako gaitasuna eta bitartekoak sustatzea;
- f) Produktu toxikoen eta arriskutsuen legez kontrako nazioarteko zirkulazioa prebenitzea. Horrez gain, G atala programa-arlo batzuekin harremana duen nazioarteko lankidetzaren sendotzeari buruzkoa da.

Sei programa-arloak eragingarritasunez aplikatzeko, ezinbestekoa da nazioartean lan handia egitea, nazioartean martxan dauden jarduerak hobeto koordinatzea eta teknika-, zientzia-, hezkuntza- eta finantza-bitartekoak zehaztea eta aplikatzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Hein handiagoan edo txikiagoan, programa-arloen barruan ondorengo atalak sartuko lirateke: gai kimikoen berezko ezaugarrietan oinarritutako arriskuak ebaluatzea, esposizio maila zehatzaren inguruko arriskuak ebaluatzea eta arriskuen maila onargarria eta kudeaketa zehaztea.

Produktu Kimikoen aurrean Babesteko Nazioarteko Programaren (PKBNP) barruan, segurtasun kimikoaren inguruan Nazio Batuen Ingurugiro Programaren (NBIP), Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) eta Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) artean elkarri lagundu beharko liekete eta laguntza horrek produktu kimiko toxikoen kudeaketa ekologikoki arrazionalaz arduratzeko nazioarteko lankidetzaren ardatz izan beharko luke. Horrez gain, beste programekin lankidetzaren ere sustatu beharko litzateke, esate baterako, Ekonomi Lankidetzaren eta Garapeneko Erakundearen (ELGE) eta Europako Batasunaren programekin eta produktu kimikoei buruzko lurraldeko eta gobernuarteko beste programekin.

Produktu kimikoen ebaluazioaz eta kudeaketaz arduratzen diren nazioarteko erakundearen eta Nazio Batuen organismoen artean koordinazioa gehiago sustatu beharko litzateke. PKBNPren barruan, 1991ko abenduan gobernuarteko bilera egin zen Londresen. Bilera hori NBIPren zuzendari exekutiboak deitu zuen gai honen inguruko azterketekin jarraitzeko (ikus 75 eta 76

paragrafoak).

Segurtasun kimikoa lortzeko ezinbesteko baldintza bat produktu kimikoen arriskuen inguruan ahalik eta ulermenik handiena egotea da. Komunitateak eta langileek informaturik egoteko duten eskubidea onartu egin beharko litzateke. Hala ere, gai arriskutsuen identitatea jakiteko eskubideak orekatuta egon beharko luke industriak ezkutuko informazio komertziala babesteko duen eskubidearekin (atal honetan industria aipatzen denean, enpresa transnazional handiei eta nazio mailako enpresei buruz ari da). Produktuak behar bezala zaintzeko eta ikuskatzeko sektore industrialaren ekimenak sustatu beharko lirateke. Industriak arau operatibo egokiak aplikatu beharko lituzke herrialde guztietan, giza osasunean eta ingurugiroan kalteak ekiditeko.

Nazioarte mailan produktu toxikoen eta arriskutsuen zirkulazioaren zati bat nazioko legeria eta nazioarteko agiri juridikoak hautsiz egiten den susmoa dago. Honek ingurugiroari eta herrialde guztietako, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako, osasun publikoari kalte egiten die.

Batzar Nagusiaren 1989ko abenduaren 22ko 44/226 ebazpenean, lurralde mailako batzordeei eskura dituzten baliabideekin produktu eta hondakin toxikoen eta arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioa prebenitzen lagun dezatela eskatzen zaie. Horretarako, lurralde mailan, legez kanpoko zirkulazio horri eta lurraldeko ingurugiroan eta osasunean dituen eraginei buruzko ebaluazioak egin eta behatu beharko lituzkete etengabe. Batzarrak besteekin hitzartuta jarduteko eta Nazio Batuen Ingurugiro Programarekin elkarlanean aritzeko ere eskatu die lurralde mailako batzordeei, produktu eta hondakin toxikoen eta arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioaren zaintza eta ebaluazioa eragingarria eta koordinatua izan daitezen.

Programa-arloak

A. Produktu kimikoen arriskuen nazioarteko ebaluazioa hedatzea eta bizkortzea

Ekintzarako oinarriak:

Produktu kimikoek giza osasunean eta ingurugiroan arrisku asko sor ditzakete eta arrisku horien ebaluazioa beren erabilera probetxugarria eta arriskurik gabea planifikatzeko ezinbesteko baldintza da. Merkatuan dauden 100.000 gai kimikoen artean eta jatorri naturala duten eta gizakiarekin kontaktuan dauden milaka gairen artean, askok elikagaiak, merkataritzako produktuak eta ingurugiroaren hainbat sektore kutsatzen dituzte. Zorionez, produktu kimiko gehienenen aurreko esposizioa (1.500 produktu inguruk munduko produkzioaren % 95 osatzen dute) oso mugatua da, izan ere normalean kantitate oso txikitan erabiltzen dira. Baina arazo larri bat badago: askotan ez daude arriskuak ebaluatzeko ezinbestekoak diren datuak; kantitate handitan produzitzen diren produktu kimiko askoren inguruko datuak ere ez daude askotan. ELGEren produktu kimikoen programaren inguruan, gai kimiko batzuen inguruko datu horiek biltzen hasiak dira.

Arriskuak ebaluatzeko baliabide asko erabili behar dira. Nazioarteko lankidetzak sendotuko balitz eta koordinazio hobea lortuko balitz merkeagoa izango litzateke ebaluazioa, izan ere eskura dauden baliabideak ahalik eta gehien erabiliko lirateke eta jarduerak behin baino gehiagotan egitea ekidingo litzateke. Hala ere, herrialde bakoitzak langile-talde teknikoa eduki beharko luke toxikotasun-probak egiteko eta esposizioen analisia egiteko. Bi elementu horiek dira arriskuen ebaluazioan garrantzitsuenak.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Arriskuen nazioarteko ebaluazioa sendotzea. 2000 urte inguruan, uneko aukeraketa- eta ebaluzio-irizpideak erabilita, lehentasuna duten ehunka produktu edo produktu-multzo kimiko ebaluatu beharko lirateke mundu mailan kutsatzaile nagusien artean;
- b) Gai kimiko toxiko gehiagoren inguruan esposizio-maila onargarriei buruzko gidalerro gehiago prestatzea, adituen azterketa eta zientzialarien adostasuna oinarri hartuta. Gidalerro horietan osasunarekin eta ingurugiroarekin eta faktore sozioekonomikoekin harremana duten esposizio-maila altuenen arteko bereizketa egin beharko litzateke.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Arriskuak ebaluatzeko programak sendotzea eta zabaltzea Nazio Batuen (NBIP, LANE, OME) sistemaren PKBNPn eta FAOn, beste erakunde batzuekin -adibidez, Ekonomi Lankidetzak eta Garapeneko Erakundearekin- batera. Horretarako, beharrezkoak diren ardurak kontuan hartuta, ondorengoei buruzko hitzartutako irizpidea hartu behar da abiapuntu gisa: datuen bermeei eta kalitateari buruzkoa, ebaluazio-irizpideen aplikazioari buruzkoa eta arriskuak kontrolatzeko jarduerekin lotura duten azterketei eta adituen azterketei buruzkoa;
- b) Mekanismoak sor daitezen sustatzea, produktu kimikoen eta prozesu konplexuen arriskuen ebaluazioaren inguruko hainbat puntuz arduratzen diren gobernuen, industrien, hezkuntzako goi mailako erakundeen eta gobernu kanpoko erakunde eskudunen arteko lankidetzak areagotzeko. Bereziki ikerketako jarduerak sustatu eta koordinatu behar dira, produktu kimiko toxikoen ekintza-mekanismoak hobeto ulertzeko helburuarekin;
- c) Herrialdeek produktu kimikoei buruzko ebaluazioen txostenak trukatzeko prozedurak era ditzaten sustatzea, produktu kimikoen nazio mailako ebaluazio-programetan erabiltzeko.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokienaren arabera eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Produktu kimikoen arriskuak, hau da, barruko ezaugarriak, ebaluatzeari lehentasuna ematea, arriskuen ebaluaziorako oinarri egoki gisa;
- b) Ebaluazioak egiteko beharrezkoak diren datuak sortzea, besteak beste, PKBNP (NBIP, OME, LANE), FAO, ELGE eta Europako Batasuna eta programa zehatzak dituzten

lurralde eta gobernuak baliatuz. Industriak ere aktiboki parte hartu beharko luke.

Industriak berak sortzen dituen gaien inguruko datuak eman beharko lituzke. Datu hauek giza osasunaren eta ingurugiroaren aurrean gai horrek sor dezakeen arriskua ebaluatzeko behar dira. Datu horiek nazioako agintari eskudunen esku eta arriskuak ebaluatzeaz arduratzen diren nazioarteko erakundeen esku utzi beharko lirateke. Ahal den neurrian, jendearen esku ere utzi beharko lirateke eta horretarako konfidentzialtasunaren eskubide legitimoa hartu beharko litzateke kontuan.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek, dagokienaren arabera eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Mundu mailako interesa duten produktu kimiko batzuek ebaluatzeko lehentasunak zehazteko irizpideak erabakitzea;
- b) Esposizio-maila eta ingurugiro-behaketa ebaluatzeko estrategiak aztertzea, ondorengoa egiteko: eskura dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, datuen bateragarritasuna ziurtatzeko eta esposizio-mailak ebaluatzeko nazio eta nazioarte mailako estrategia koherenteak onar daitezen bultzatzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Produktu kimikoen arriskuak ebaluatzeko datu eta metodo gehienak garatutako herrialdeetakoak dira. Ebaluatzeko lana zabaltzeko eta bizkortzeko ezinbestekoa da ikerketaren industriak eta eta institutuek segurtasunerako beren ikerketak eta saioak asko areagotzea. Gastuen barruan Nazio Batuen organo eskudunen gaitasuna sendotzeko beharra agerian geratu da eta gastu horiek PKBNPren egungo esperientzian oinarrituta daude. Askotan zenbatu ezin diren gastu handiak ez direla sartu nabarmendu behar da. Horrez gain, kontuan hartu behar da ondorengoa egiteko gastuak sartuta daudela: batetik, industriarako eta gobernuentzako ebaluazioak oinarritzeko segurtasun-datuak sortzeko gastuak; eta, bestetik aurrekarien dokumentuak eta ebaluazioko behin-behineko txostenak PKBNPri, Potentzialki Toxikoak diren Produktu Kimikoen Nazioarteko

Erregistroari (PTPKNE) eta ELGERi emateko gobernuentzako gastuak. Nazio Batuen sistematik kanpo dauden organoen –adibidez, ELGERen eta Europako Batasunaren– barruan lan horiek azkartzeko gastuak ere sartzen dira.

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 30 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuak ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Ikerketetarako ahalegin berezia egin beharko litzateke produktu kimikoen ebaluazio-metodoak hobetzeko. Hori arriskuak ebaluatu ahal izateko eta datu toxikologikoen eta epidemiologikoen aplikaziorako prozedurak hobetu ahal izateko erreferentzia-eremu komuna finkatzeko egin beharko litzateke. Horren helburua produktu kimiko horiek gizakien osasunean eta ingurugiroan duten eragina aurreikustea da; honela erabakiak hartu behar dituztenek produktu kimiko batzuek sorrarazten dituzten arriskuak murrizteko politikak eta neurriak hartu ahal izango dituzte.

Jardueren barruan ondorengoak sartuko litzateke:

- a) Ingurugirorako edo giza osasunerako arrisku handia edo kontrolaezina sortzen duten produktu kimiko toxikoak edo toxikoak, iraunkorrak eta bioakumulatiboak diren produktuak ordezkatzeko ikerketak sendotzea;
- b) Animaliak erabiltzean oinarritzen diren ikerketak eta metodoak ordezkatzeko berriak sustatzea (probatarako animalien erabilera gutxitzeko);
- c) Azterketa epidemiologiko egokiak egin daitezkeen sustatzea, produktu kimikoen aurreko esposizioaren eta gaixotasun batzuen arteko kausazko harremana finkatzeko;

d) Toxikologia ekologikoko azterketak sustatzea produktu kimikoek ingurugiroan sor dezaketen arriskua ebaluatzeko.

c) Giza baliabideen garapena:

Nazioarteko erakundeek, gobenuen eta gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartzearekin, emakumeek eta hurrek esku hartzeko trebakuntza- eta hezkuntza-proiektuak jarri beharko lituzkete martxan, berek baitira esposizioan gehien egoten direnak. Honela, herrialdeek, batez ere garapen bidean dauden herrialdeek, nazioartean arrisku kimikoei buruz egiten diren ebaluazioak ahalik eta gehien erabiltzeko aukera izango lukete.

d) Gaitasuna areagotzea:

Nazioarteko erakundeek nazioartean arriskuak ebaluatzeko egin diren, egiten ari diren eta egingo diren lanak aprobetxatu beharko lituzkete. Honela, herrialdeei, batez ere garapen bidean dauden herrialdeei, nazio eta lurralde mailan arriskuak ebaluatzeko gaitasuna sortzen eta finkatzeko lagunduko liekete. Horren helburua produktu kimiko toxikoak eta arriskutsuak egitean eta erabiltzean dauden arriskuak ahalik eta gehien gutxitzeko eta, hala behar denean, ekiditeko aukera izatea da. Arrisku kimikoen nazio eta nazioarte mailako fiskalizazioa eta ebaluazioa hedatzeko eta bizkortzeko jarduerak bideratzeko lankidetzat teknikoak eta finantza-babesa edo espezieetan laguntza aurreikusi beharko lirateke, produktu kimikoak hobeto aukeratu ahal izateko.

B. Produktu kimikoen sailkapena eta etiketatua bateratzea

Ekintzarako oinarriak:

Produktu kimikoei etiketa egokia jartzea eta segurtasunari buruzko datuekin orri bat banatzea produktu kimikoak segurtasunez manipulatzeko eta erabiltzeko ikasteko erarik sinpleenak eta eragingarrienak dira. Esate baterako, produktu kimikoen nazioarteko segurtasun-txartelak edo osasunean eta ingurugiroan sorrarazten dituzten arriskuen ebaluazioan oinarritutako antzeko idatziak egin daitezke.

Merkantzia arriskutsuak, horien artean produktu kimikoak, seguru garraiatzeko, gaur egun Nazio Batuen esparruan landutako sistema nagusia aplikatzen da. Sistema horretan, batez ere produktu kimikoek sortzen dituzten arrisku larriak hartzen dira kontuan.

Oraindik mundu mailan ez dago bateratutako sailkapen- eta etiketatu-sistematik, produktu kimikoak lanean, etxean eta beste hainbat lekutan arriskurik gabe erabil daitezkeen laguntzeko. Produktu kimikoen sailkapena helburu askorekin egin daiteke eta etiketatu-sistema finkatzeko bitarteko garrantzitsua da. Ezinbestekoa da martxan dagoen lanean oinarrituta sailkapen- eta etiketatu-sistema normalizatuak lantzea.

Helburuak:

2000 urterako, ahal den neurrian, mundu mailan bateratutako sailkapen- eta etiketatu-sistema eduki beharko litzateke, eta barruan hainbat produktu kimikoren segurtasunari buruzko eta erraz uler daitezkeen ikurrei buruzko datu-orria izan beharko luke.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Nazioarteko erakunde eskudunen eta, hala dagokienez, industriaren laguntzaren bidez, gobernuek produktu kimikoei etiketak jartzeko sailkapen-sistema bateratua eratzeke eta lantzeko proiektua jarri beharko lukete martxan. Etiketa hauek Nazio Batuetako hizkuntza ofizial guztietan idatzita egon beharko lukete eta piktograma egokiak izan beharko litzateke. Era honetako etiketatu-sistemak ez luke justifikatu gabeko murrizketa komertzialen inposizioa sorrarazi behar. Sistema berria zatika egin beharko litzateke, egungo sistemak ahalik eta gehien aprobetxatu beharko litzateke eta edozein

aplikaziotarako behar diren etiketak izango lituzke barruan.

b) Datuak eta informazioa:

Nazioarteko organoek –besteak beste, PKBNPk (NBIP, OIT, OMS), FAO, Itsasoaren Nazioarteko Erakundeak (INE), Salgai Arriskutsuak Garraiatzeko Nazio Batuen Adituen Batzordeak eta ELGEk– sailkapen-sistemak, etiketatu-sistemak eta informazioa hedatzeko beste sistema batzuk dituzten lurraldeetako eta nazioetako agintarien laguntzarekin, koordinazio-taldea eratu beharko lukete eta talde horrek ondorengoaz arduratu beharko luke:

- a) Egun indarrean dauden arriskuen sailkapen-sistemak eta informazioa ebaluatzeaz eta, behar izanez gero, egiteaz, mundu mailan bateratutako sistema osatzeko printzipio orokorrak ezartzeko abiapuntu gisa;
- b) Mundu mailan arriskuen sailkapen-sistema sortzeko lan-plana egiteaz eta martxan jartzeaz. Plan horren barruan ondorengo atalak sartu beharko lirateke: egin beharreko lanen azalpena, plana amaitzeko epea eta koordinazio-taldeko partaide bakoitzak egin beharreko lanaren banaketa;
- c) Arriskuen sailkapen-sistema bateratua egiteaz;
- d) Arriskuen inguruko terminologia eta ikurrak estandarizatzeko proposamenak lantzeaz, produktu kimikoen arriskuak hobeto kontrolatzeko, nazioarteko merkataritza errazteko eta informazioa erabiltzaileen hizkuntzara errazago itzultzeko;
- e) Etiketatu-sistema bateratua egiteaz.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa honekin lotutako laguntza teknikoko gastuak E programa-arloko gastuen barruan sartu ditu. Idazkaritzak nazioarteko erakundeak

sendotzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 3 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

b) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek eta erakundeek eta gobernu kanpoko erakundeek, Nazio Batuen erakunde eta programa eskudunen laguntzarekin, trebakuntza-ikastaroak eta informazio-kanpainak antolatu beharko lituzkete. Ikastaro eta kanpaina horiek produktu kimikoen sailkapen-sistema bateratu berrien eta etiketatu-sistemen erabilera eta ulermena sustatu beharko lituzkete.

c) Gaitasuna areagotzea:

Produktu kimikoak kudeatzeko nazio mailako gaitasuna sendotzeko, baita sailkapen- eta etiketatu-sistema berriak lantzeko, martxan jartzeko eta egokitzeko ere, oztupo komertzialak sortzea ekidin beharko litzateke eta guztiz kontuan hartu beharko lirateke herrialde askok gaitasunaren eta baliabideen aldetik dituzten mugak, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek sistema horiek aplikatzeko dituzten mugak.

C. Produktu kimiko toxikoei eta produktu kimikoen arriskuei buruzko informazioa trukatzeari

Ekintzarako oinarriak:

Ondorengo jarduerak produktu kimikoak erabiltzearekin harremana duten etekinei eta arriskuei buruzko informazioa trukatzeari dute harremana eta beren helburua informazio zientifikoa, teknikoa, ekonomikoa eta juridikoa trukatzaren bidez produktu kimikoak behar bezala kudeatzea da.

Nazioarteko merkataritzaren helburu diren produktu kimikoei buruzko informazioa trukatzeko Londresko Gidalerroa gobernuek onartutako orientazio-multzoa da. Bere helburua produktu kimikoei buruzko informazioa trukatzeko produktu horiek erabiltzeko garaian segurtasuna areagotzea da. Gidalerroek produktu kimiko debekatuen edo gogor mugatuen inguruko informazioa trukatzeari buruz xedapen bereziak dituzte.

Garapen bidean dauden herrialdeetara herrialde ekoizleetan debekatuta dauden edo herrialde industrializatu batzuetan gogor mugatu diren produktu kimikoak esportatzen dira, eta honek kezka sortzen du, izan ere herrialde inportatzaile batzuek ez dute produktu horiek segurtasun-baldintza egokiak erabiltzeko behar adina gaitasun, ez baitute produktu kimiko horien erabilgarritasuna, biltegiatzea, formulazioa eta deuseztapena kontrolatzeko behar den azpiegitura.

Arazo horri aurre egiteko, 1989an jakinaren gainean egonda alde aurreko baimenaren prozedura sartu zen, batetik, nazioarteko merkataritzaren helburu diren produktu kimikoei buruzko informazioa trukatzeko Londresko Gidalerroetan (NBIP) eta, bestetik, Plagizidak Banatzeko eta Erabiltzeko Nazioarteko Jokabide-kodean (FAO). Gainera, NBIPren eta FAOren arteko programa jarri da martxan produktu kimikoei jakinaren gainean egonda alde aurreko baimenaren prozedura aplikatzeko. Prozedura horren barruan bai prozeduraren helburu diren produktuen aukeraketa, bai prozeduraren arabera erabakiak hartzeko orientazio-dokumentuen prestaketa sartzen dira. Laneko segurtasun edo osasun arrazoiengatik produktu kimiko arriskutsuen erabilera debekatu egin den kasuetan, LANEren produktu kimikoei buruzko hitzarmenak herrialde esportatzaileen eta inportatzaileen artean harremanak egon daitezela eskatzen du. Muga-zergei eta Merkataritzari buruzko Hitzarmen Orokorraren (GATT) barruan negoziazioak egin ziren barruko merkatuan debekatutako produktuekin edo gogor mugatutakoekin lotura duten bitarteko lotesleak sortzeko. Horrez gain, GATTen Kontseiluak, C/M/251 agirian adierazten den erabakiaren arabera, lantaldearen agintaldia luzatzea erabaki zuen, taldearen hurrengo bileraren egunetik hasita hiru hilabeteko epean. Halaber, bilera horren deialdia egiteko, lehendakariari egutegiari buruzko

kontsultak egiteko baimena eman dio.

Hala ere, jakinaren gainean egonda aldez aurreko baimenaren prozedurak garrantzi handia du eta ezinbestekoa da potentzialki toxikoak diren produktu guztiei buruzko informazioa trukatzeari.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Interesa dutenen artean informazioaren trukea areagotu dadin sustatzea. Informazio hori produktu kimikoak segurtasunez erabiltzeko baldintzei, produktuen erabilerari eta beren emisioei buruz izango litzateke;
- b) 2000 urterako, ahal den neurrian, jakinaren gainean egonda aldez aurreko baimenaren prozeduran guztiz parte hartzea eta gauzatzea. Honen barruan, zuzendutako Londresko Gidalerroetan eta FAOren Nazioarteko Jokabide-kodean agertzen diren eta juridikoki lotesleak diren bitartekoen derrigorrezko aplikazio posibleak sartuko lirateke. Hori aurrera eramateko, jakinaren gainean egonda aldez aurreko baimenaren prozedurarekin lortutako esperientzia kontuan hartu behar da.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, dagokienaren arabera eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Produktu kimiko toxikoei buruzko informazioa trukatzeari arduratzen diren nazio mailako erakundeak sendotzea eta ez dauden lekuetan nazio mailako zentroak sor daitezen sustatzea;
- b) Produktu kimiko toxikoei buruzko informazioa trukatzeari arduratzen diren nazioarteko erakundeak eta sareak, adibidez PTPKNE, sendotzea;
- c) Beste herrialde batzuekin, bereziki nahiko gaitasun tekniko ez duten herrialdeekin, lankidetzan tekniko jarduerak gauzatzea eta informazioa ematea, dagozkien datu teknikoak interpretatzeko trebakuntza-jarduerak barne. Esate baterako, ondorengoetan

azaltzen direnak: ingurugiro-higienearen irizpideei buruzko dokumentuetan, osasunari eta segurtasunari buruzko orientazio-dokumentuetan eta produktu kimikoak segurtasunez erabiltzeko nazioarteko fitxategietan (Produktu Kimikoen aurrean Babesteko Nazioarteko Programan –PKBNPn– argitaratutakoak); produktu kimikoek gizakiengan sorraraz ditzaketen arrisku kartzinogenikoen ebaluazioari buruzko monografikoetan (Minbiziari buruzko Ikerketen Nazioarteko Organismoak –MINOk– argitaratutakoa); erabakiak hartzeko orientazio-dokumentuetan (FAO/NBIPk elkarrekin sortutako programak – jakinaren gainean egonda alde aurreko baimenaren inguruko programak– banatzen ditu) eta industriak eta beste iturri batzuek aurkeztutako datuetan;

- d) Jakinaren gainean egonda alde aurreko baimenaren arabera prozedurak aplikatzea eta, lortutako esperientzia kontuan hartuta, nazioarteko erakunde eskudunek –adibidez, NBIPk, GATtek, FAOk, OMEk eta beste batzuek–, beren eskuduntza esparruen barruan, baliabide juridikoki lotesleen ondorio libreei ekin diezaieten bultzatzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokienaren arabera eta nazioarteko eta lurraldeko erakunde eskudunen babesarekin, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Garapen bidean dauden herrialdeetan produktu kimikoei buruzko informazio-sistema nazionalak sortzeko laguntza ematea eta nazioarteko sistemetan sar daitezen erraztea;
- b) Produktu kimikoei buruzko datu-baseak eta informazio-sistemak hobetzea, isurpenei buruzko inbentarioa prestatzeko programak barne. Hori sistema horien aplikazioaren inguruko trebakuntzaren bidez eta ekipo eta programa informatikoen eta beste zerbitzu batzuen horniketaren bidez egin beharko litzateke;
- c) Herrialde inportatzaileei debekatuta dauden edo murrizketa handiak dituzten produktu kimikoei buruzko ezagutza eta informazioa ematea, herrialde horiek inportazio horien inguruan eta produktu horien manipulatzeko moduaren inguruan beren iritzia emateko aukera izan dezaten eta erabakiak har ditzaten. Horrez gain, herrialde inportatzaileen eta esportatzaileen artean, produktu kimikoen merkatuan ardura bateratuko sistemak ezartzea;

d) Debehatuta dauden edo murrizketa handiak dituzten produktu kimikoak ordezkatzeko erabili daitezkeen produktuek ingurugiroan eta giza osasunean zein arrisku sor ditzaketen ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa zabaltzea.

Nazio Batuen erakundeek, ahal duten neurrian, nazioarteko mailako mota guztietako informazio-materiala eskura jarri beharko lukete. Informazio hori produktu kimiko toxikoei buruzkoa izango litzateke eta Nazio Batuen barruan ofizial diren hizkuntza guztietan kaleratu beharko litzateke.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Gobernuek eta nazioarteko erakunde eskudunek, industriaren laguntzarekin, produktu kimikoei buruzko informazioa trukatzearaz arduratuko diren nazioko agintarien sarea, behar denaren arabera, sortzeko, sendotzeko eta hedatzeko lanean lagundu beharko lukete. Gainera, truke teknikorako programa ere eratu beharko lukete herrialde partaide bakoitzean langile adituen taldea sortzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 10 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta beste bestekoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

20. ATALA: Hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionala, hondakin arriskutsuen legez kanpoko salerosketa prebenitzea barne

Sarrera

Osasunaren eta ingurugiroaren babesaz, baliabide naturalen antolaketa egokiaz eta garapen jasangarriaz arduratzeko, garrantzi handia du hondakin arriskutsuen produkzioa, biltegitratzea, tratamendua, birziklatzea eta berrerabilpena, garrazioa, berreskurapena eta deuseztapena eragingarritasunez kontrolatzeak. Honrrek nazioarteko komunitatearen, gobernuen eta industriaren arteko lankidetzeta eta parte-hartze aktiboa mugatuko du. Dokumentu honetako helburuak lortzeko industriak enpresa industrial asko hartuko ditu bere barruan, mugaz haraindiko enpresak eta enpresa nazionalak barne.

Hori lortzeko funtsezko elementuak hondakin arriskutsuen produkzioaren prebentzioa eta kutsatutako lekuen birgaitzea dira, eta bietarako ezagutzak, esperientziadun pertsonak, instalazio egokiak, finantza-baliabideak eta gaitasun teknikoa eta zientifikoa behar dira.

Atal honetan deskribatutako jarduera asko beste atal batzuetan deskribatutako programa-arlo askorekin lotuta daudenez eta berengan eragina izan behar dutenez, beharrezkoa da hondakin arriskutsuen kudeaketaz ari garenean ikuspegi orokor integratua izatea.

Nazioarte mailan, hondakin arriskutsuen mugimendu gehienak legedia nazionalak eta nazioarteko bitartekoak urratuz gauzatzen diren kezka dago; hori herrialde guztietako, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako, ingurugiroaren eta osasun publikoaren kalterako da.

1989ko abenduaren 22ko 44/226 ebazpeneko I. sailean, Batzar Nagusiak lurralde mailako batzorde guztiei berek dauzkaten baliabideen artean produktu eta hondakin toxikoen eta arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioa prebenitzeari laguntza emateko eskatu zien; hori lurralde mailan legez kanpoko zirkulazio hori eta ingurugiroan eta osasunean dituen ondorioak zainduz eta berari buruzko ebaluazioak eginez egin beharko litzateke. Batzarrak elkarrekin ados jarrita lan egiteko eta Nazio Batuen Ingurugiro Programarekin (NBIP) elkarlanean aritzeko eskatu zien lurralde mailako batzordeei, produktu eta hondakin toxikoen eta arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioaren zaintza eta ebaluazio eragingarriari eta koordinatuei eusteko.

Helburu nagusia

Bizi-zikloaren kudeaketa integratuaren esparruan, helburu nagusia hondakin arriskutsuen produkzioa ahal den neurrian ekiditea eta ahal den gehien murriztea eta hondakin horiek ingurugiroari kalterik ez egiteko moduan kudeatzea da.

Helmuga nagusiak

Helmuga nagusiak ondorengoak dira:

- a) Hondakin arriskutsuak prebenitzea edo ahalik eta gehien murriztea, gutxiago kutsatzen duen sistema orokor integratu baten zati gisa; hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduak desagertaraztea edo ahalik eta gehien murriztea, hondakin horien kudeaketa ekologikoki arrazionalarekin eta eragingarriarekin bat etorri arte, eta, azkenik, beren jatorrizko herrialdean hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalaren aukerak ahalik eta neurririk handienez aplikatu daitezkeen bermatzea (autosufizientziaren printzipioa). Mugaz haraindi aurrera eramaten diren mugimendu guztiek ingurugiroak eta ekonomiak baldintzatuta egon behar dute eta interesa duten estatuen arteko hitzarmenetan oinarrituta egon behar dute;
- b) Hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduak kontrolatzeari eta desagertartzeari buruzko Basileako Hitzarmena berrestea. Horrez gain, Basileako Hitzarmena aplikatu ahal izateko behar diren protokoloak –adibidez, ardurari eta kalte-ordainei buruzko protokoloa– eta mekanismoak eta gidalerroak lantzea;
- c) Afrikara inportazioak debekatzeari, mugaz haraindiko mugimenduak ikuskatzeari eta Afrikaren barruan hondakin arriskutsuak kudeatzeari buruzko Bamakoko Hitzarmena berrestea eta erabat aplikatzea. Horrez gain, berehala ardurei eta kalte-ordainei buruzko protokoloa egitea;
- d) Hondakin arriskutsuak ez esportatzea beren interesengatik edo nazioarteko hitzarmenen ondorioz hondakin horien inportazioa debekatu duten herrialdeetara, esate baterako Bamakoko Hitzarmeneko eta Lomeko laugarren Hitzarmeneko kideen herrialdeetara edo antzeko debekuak dituzten beste hitzarmenak sinatu dituzten herrialdeetara.

Atal honetan ondorengo programa-arloak sartzen dira:

- a) Hondakin arriskutsuen prebentzioa sustatzea eta ahalik eta gehien murriztea;
- b) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren inguruan erakundeen gaitasuna sustatzea eta sendotzea;
- c) Hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduen kudeaketaren inguruan nazioarteko lankidetzak sustatzea eta sendotzea;
- d) Hondakin arriskutsuen legez kanpoko nazioarteko zirkulazioa prebenitzea.

Programa-arloak

A. Hondakin arriskutsuen prebentzioa sustatzea eta ahalik eta gehien murriztea

Ekintzarako oinarriak:

Giza osasuna eta ingurugiroaren kalitatea etengabe degradatzen ari dira, izan ere geroz eta hondakin arriskutsu gehiago produzitzen da. Hondakin horiek produzitzeko, manipulatzeko eta deuseztatzeko hiritarrek eta gizarteak ordaindu beharreko gastu zuzenak eta zeharkako gastuak areagotzen ari dira. Beraz, ezinbestekoa da hondakin arriskutsuen prebentzioaren eta kudeaketaren alde ekonomikoei buruzko ezagutzak eta informazioa areagotzea, enpleguarekin eta ingurugiroko abantailekin harremana duten eraginak barne. Horren helburua pizgarri ekonomikoen bidez garapen programetan aurreko asmoak betetzeko behar adina kapital-inbertsio aurreikus dadin behatzea da. Hondakin arriskutsuen kudeaketaren inguruko lehenetsun nagusia ahalik eta gehien murriztea da, prozesu industrialak eta kontsumo-motak aldatzeko irizpide zabalagoaren zati gisa, kutsaduraren prebentzioko eta gutxiago kutsatzen duen produkzioko estrategien bidez.

Estrategia horien faktore garrantzitsuenen artean, hondakin arriskutsuak berreskuratzea dago, gero materia erabilgarri bilakatu ahal izateko. Ondorioz, hondakin gutxiago produzitzen duten teknologiaren aplikazioa eta teknologia berrien aldaketa eta garapena hondakin arriskutsuak ahalik eta gehien murrizteko ezinbesteko aldetzat jotzen dira gaur egun.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Hondakin arriskutsuen produkzioa ahal den neurrian murriztea, gutxiago kutsatzen duen produkzio-sistema integratuaren zati gisa;
- b) Lehengaiak ahalik eta gehien aprobetxatzea, horretarako, hala egin daitekeenean eta ekologikoki arrazionala denean, produkzio-prozesuetan sortutako hondakinak erabiliz;
- c) Hondakin arriskutsuen prebentzioaren eta kudeaketaren alde ekonomikoei buruzko ezagutzak eta informazioa areagotzea.

Helburu horiek lortzeko eta horrela garapen industrialaren eragina eta gastua murrizteko, beren garapenari kalterik egin gabe beharrezko teknologiak martxan jartzeko aukera duten herrialdeek ondorengo aurreikusteko politikak jarri beharko lituzkete martxan:

- a) Gutxiago kutsatzen duten produkzio-motak eta hondakin arriskutsuak ahalik eta gehien murrizteko metodoak planifikazio mota guztietan sartzea, baita helmuga zehatzeak finkatzea ere;
- b) Mekanismo erregulatzailen erabilera eta merkatuen erabilera sustatzea;
- c) Tarteko helmuga jartzea, sortutako hondakin arriskutsuen kopurua egonkortzeko;
- d) Epe luzera begira programak eta politikak martxan jartzea. Programa eta politika hauetan, hala behar denean, helmugan ezarri beharko lirateke fabrikazio unitateko sortzen den hondakin arriskutsu kopurua murrizteko;
- e) Hondakinen korronteak kualitatiboki hobe daitezen lortzea, batez ere korronte horien ezaugarri arriskutsuak murrizteko diren jardueren bidez;
- f) Hondakin arriskutsuen prebentziorako eta kudeaketarako metodoak eta politikak onar daitezen laguntzea, herrialde bakoitzaren garapen maila kontuan hartuta. Metodo eta politika horietan, gastuaren eta eragingarritasunaren arteko loturak egokia izan beharko du.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Gobernuak erosketetarako arauak edo zehaztapenak ezarri beharko lituzkete edo lehendik daudenak aldatu beharko lituzkete, material birziklatuak diskriminatuak ez izateko, material horiek ekologikoki arrazionalak badira behintzat;
- b) Gobernuak, ahal duten neurrian eta alde askotako lankidetzarekin, pizgarri ekonomikoak edo, hala dagokienean, arau-emaileak eskaini beharko lituzkete, ondorengoa egiteko: industriak gutxiago kutsatzen duten produkzio-motak martxan jar ditzan bultzatzeko; industriak prebentzio-teknologietan edota birziklatzean inberti dezan bultzatzeko, hondakin arriskutsuak, horien artean hondakin birziklatuak, era ekologikoki arrazionalan kudeatu ahal izateko, eta, azkenik, hondakinak ahalik eta

gehien gutxitzera bideratutako inbertsioak sustatzeko;

- c) Gobernuek gaur egun hondakin arriskutsuak sortzen dituzten eta deuseztatzeko edo era ekologikoki arrazionalen tratatzeko arazo bereziak sorrarazten dituzten prozesu eta sustantzientzako ordezeko eragingarriak ikertzeko eta garatzeko jarduerak areagotu egin beharko lituzkete, gastuen arabera. Horren inguruan, gehiegizko arriskua sortzen duten edo beste bide batzuetatik aurre egin ezin zaien gaiak eta toxikoak, iraunkorrak eta bioakumulatiboak diren gaiak, ahalik eta azkarren eta bideragarria den neurrian, guztiz deuseztatzeko aukera aztertu beharko litzateke. Garapen bidean dauden herrialdeentzako ekonomikoki eskuragarri diren aukerak nabarmendu beharko lirateke;
- d) Gobernuek, berek dituzten gaitasunaren eta baliabideen arabera eta, dagokienaren arabera, Nazio Batuekin eta beste erakundeekin eta industriekin elkarlanean, jatorriz bertakoak diren hondakin arriskutsuak manipulatzeko nazio mailako zerbitzua jarri beharko lukete;
- e) Garatutako herrialdeetako gobernuek garapen bidean dauden herrialdeetara teknologia ekologikoki arrazionalak eta ezagutza praktikoak transferitzea bultzatu beharko lukete; batez ere gutxi kutsatzen duten eta hondakin gutxi sorrarazten dituzten teknologi transferentzia bultzatu beharko lukete. Hori [34. atalaren](#) arabera egin beharko lukete. Horrek industriaren berrikuntza bultzatuko duten aldagetak sorraraziko ditu. Gobernuek, hala behar denean, industriarekin elkarlanean aritu behar lukete, gutxiago kutsatuz produzitu ahal izateko gidalerroak eta jokabide-kodeak lantzen, merkatarien eta industrialarien sektorearteko elkarteen bidez;
- f) Gobernuek industria ondorengoa egitera bultzatu beharko lukete: hondakinak sortzen diren lekuan bertan edo ahalik eta gertuen tratatzera, birziklatzera, berrerabiltzera eta deuseztatzera. Hori hondakinak ezinbestean sortzen direnean eta industriarentzat bai ekonomiaren aldetik, bai ingurugiroaren aldetik eragingarria denean egin beharko litzateke;
- g) Gobernuek teknologien ebaluazioa sustatu beharko lukete eta horretarako, esate baterako, ebaluazio-zentro teknologikoetara jo beharko lukete;

- h) Gobernuek gutxiago kutsatzen duen produkzioa bultzatu beharko lukete eta horretarako teknologia ekologikoki arrazionalari buruzko trebakuntza eta informazioa emateko zentroak eratu beharko lituzkete;
- i) Industriak ingurugiroa antolatzekeko sistemak jarri beharko lituzke martxan eta sistema horien barruan beren produkzio- eta banaketa-lekuetan ingurugiro-ikuskapena egitea sartu beharko lukete, gutxiago kutsatzen duten produkzio-metodoak non instalatu behar diren zehazteko;
- j) Nazio Batuen erakunde eskudun eta egoki batek, beste erakunde batzuekin elkarlanean, metodo desberdinen gastuak eta etekinak balioztatzeke gidalerroak prestatzeke aurrea hartu beharko luke. Honen helburua gutxiago kutsatzen duten produkzio-prozesuak martxan jartzea eta hondakin arriskutsuak ahalik eta gehien murriztu daitezen, era ekologikoki arrazionalerako kudea daitezen eta kutsatutako lekuak sanea daitezen lortzea da. Horretarako, hala behar denean, Nairobín 1991n gobernuek aukeratutako adituek egin zuten bilerako txostena kontuan hartu behar da; bilera hori nazioarteko estrategia, ekintza-programa eta hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalerako gidalerro teknikoak prestatzeke egin zen, Basileako Hitzarmenarekin harremanetan NBIPren idazkaritzan egiten den lanarekin lotuta;
- k) Gobernuek arauak sortu behar dituzte eta arau horietan industriek beren jardueretan sortzen dituzten hondakin arriskutsuen deustapen ekologikoki arrazionala egitekeo duten ardura hitzartu beharko litzateke.

b) Datuak eta informazioa:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Gobernuek, nazioarteko erakundeen laguntzarekin, aurretik dauden informazio-sistemen balioa zehaztekeo mekanismoak martxan jarri beharko lituzkete;
- b) Gobernuek informazioa biltzeaz eta hedatzeaz arduratuko diren nazio eta lurralde mailako zentroak eta sareak eratu beharko lituzkete, erakunde publikoek, industriak eta gobernuz kanpoko beste erakunde batzuek erraz iritsi eta erabili ahal izatekeo

moduan;

- c) Nazioarteko erakundeek, Produkzio Garbirako NBIPren Programaren eta Gutxiago kutsatzen duten produkzio-prozesuei buruzko nazioarteko informazio-zentroaren bitartez, gutxiago kutsatzen duten produkzio-moduei buruzko informazioa biltzeko sistemak hedatu eta sendotu beharko lituzkete;
- d) Nazio Batuen organo eta erakunde guztien aldetik, Produkzio Garbiaren Sarearen bidez lortutako informazioa erabil dadin sustatu beharko litzateke;
- e) Ekonomi Lankidetzak eta Garapeneko Erakundeak (ELGE), beste erakunde batzuekin elkarlanean, bere kide diren herrialdeen esperientziei buruzko azterketa egin beharko luke. Esperientzia horiek hondakin arriskutsuak kudeatzeko eta gutxiago kutsatzen duten teknologiak erabiltzeko erreglamentazio ekonomikorako planak eta pizgarriak emateko mekanismoak martxan jartzearen ingurukoak izango lirateke. Ondoren, lortutako informazioa hedatu egin beharko lukete;
- f) Industriak bere eragiketetan argi joka dezan eta hondakin arriskutsuen produkzioaren, kudeaketaren eta deuseztapenaren ondorioak jasan ditzaketen komunitateei beharrezko informazioa eman diezaien sustatu beharko lukete gobernuek.

c) Lankidetzak eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Nazioarteko eta lurraldeko lankidetzak Basileako Hitzarmena eta Bamakoko Hitzarmena berretsi ditzaten eta beren aplikazioa susta dezaten bultzatu beharko lituzke estatuak. Lurralde mailako lankidetzak ezinbestekoa izango da Afrikan ez beste lurraldeetan antzeko hitzarmenak lantzeko, hala behar izango balitz. Bestalde, beharrezkoa da nazioarte, lurralde eta nazio mailako politikak eta bitartekoak eragingarritasunez koordinatzea. Proposatutako beste jardueretako bat hondakin arriskutsuen kudeaketaren ondorioen behaketan elkarlana egitea da.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 750 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Teknologien garapenarekin eta ikerketarekin harremana duten ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Gobernuek, beren ahalmenaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen, beste erakunde eskudunen eta behar izanez gero industrien laguntzarekin, gutxiago kutsatzen duten teknologien inguruko ikerketa- eta garapen-programentzako finantza-babesa asko areagotu beharko lukete. Programa horietan bioteknologiaren erabilera ere sartu beharko litzateke;
- b) Estatuak, hala behar denean nazioarteko erakundeekin elkarlanean, industriek sortzen dituzten hondakin arriskutsuak oinarri hartuta, ingurugiroarentzako arriskugarrienak diren prozesuak etengabe deuseztatzeari buruz industriak berak azterketak egin eta bultzatzea lagundu beharko lukete;
- c) Estatuak industriak ondorengoa egin dezan bultzatu beharko lukete: gutxiago kutsatzeko produkzio-modua produktuak diseinatzeko prozesuetan eta kudeaketa-jardueretan sartzearen inguruko irizpideak finkatzeko planak egin ditzan;
- d) Estatuak industriak ingurugiroaren aurrean jarrera arduratsua har dezan bultzatu beharko lukete. Industriak jarrera hori hondakin arriskutsuak murriztuz; hondakin arriskutsuak berriro erabiliz, birziklatuz eta era ekologikoki arrazionalen

berreskuratuz eta hondakinak behin betiko desagertaraziz hartu beharko luke.

c) Giza baliabideen garapena:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Gobernuek, nazioarteko erakundeek eta industriak industria-trebakuntzarako programak gauza daitezen sustatu beharko lukete. Horretarako, prebentzio-teknikak eta hondakin arriskutsuak ahalik eta gehien murrizteko teknikak gehitu beharko lituzkete eta herri mailan frogak egiteko proiektuak martxan jarri beharko lituzkete, gutxi kutsatzen duen produkzioaren inguruan "arrakasta izan duten kasuak" aurkeztu ahal izateko;
- b) Industriak trebakuntza-programetan gutxi kutsatzen duten produkzioko printzipio eta adibide zehatzak sartu beharko lituzke eta, horrez gain, sektoreka edo herrialdeka frogak egiteko sareak edo proiektuak jarri beharko lituzke martxan;
- c) Gizarteko sektore guztiek gutxi kutsatzen duen produkzioari buruz sentsibilizazio-kanpainak antolatu eta martxan jarri beharko lituzkete eta, horrez gain, industriarekin eta beste sektoreekin elkarriketa eta lankidetzatza bultzatu beharko lituzkete.

d) Gaitasuna areagotzea:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Garapen bidean dauden herrialdeetako gobernuek, industriarekin elkarlanean eta nazioarteko erakunde eskudunen babesarekin, hondakin arriskutsuen produkzioaren inguruko inbentarioak prestatu beharko lituzkete, batetik, teknologien transferentziaren inguruan eta, bestetik, hondakin arriskutsuen kudeaketa arrazionalerako eta hondakinak deuseztatzekeo neurriak aplikatzearen inguruan beren beharrak zein diren finkatzeko;
- b) Gobernuek beren asmo eta lege nazionaletan ingurugiroa babesteko sistema integratua sartu beharko lukete. Sistema horrek iturrietan prebentzio-irizpideen eta murrizketa-irizpideen bidez funtzionatuko luke, "kutsatzen duenak ordaindu egiten

du" irizpidea kontuan hartuta. Horrez gain, hondakin arriskutsuak murrizteko programak jarri beharko lituzkete martxan eta programa horietan ingurugiroaren kontrolerako egokiak diren helburuak eta neurriak finkatu beharko lirateke;

- c) Gobernuek industriei sektoreetako kanpainak antolatzeko lagundu beharko liekete. Kanpaina horiek gutxiago kutsatzen duten produkzio-prozesuen ingurukoak eta hondakin arriskutsuak ahalik eta gehien murrizteko prozesuen ingurukoak izango lirateke. Horrez gain, hondakin horiek eta beren isurpenak murrizteko lanetan ere lagundu beharko liekete;
- d) Gobernuek ingurugiro-inpaktua ebaluatzeko prozedura nazionalak eratu eta, hala behar izanez gero, sendotu beharko lituzkete. Horretarako, hondakin arriskutsuak produzitzen direnetik deuseztatzen diren arteko kudeaketa-metodoa kontuan hartu beharko lukete. Horren helburua hondakin arriskutsuen produkzioa hondakin horien manipulazio, biltegitatze, deuseztatze eta suntsitze seguruagoen bidez ahalik eta gehien murrizteko aukera zehaztea da;
- e) Gobernuek, industriarekin eta nazioarteko erakunde eskudunen laguntzarekin, kudeaketa-metodoak behatzeko eta aplikatzeko prozedurak landu beharko lituzkete, produkzioetik hasi eta deuseztapenera arte, ingurugiro-ikuskapena egitea barne hartuta;
- f) Garapenerako alde biko eta alde askotako laguntza-erakundeek gutxiago kutsatzen duten teknologiak garapen bidean dauden herrialdeetara eta enpresa txikietara eta ertainetara transferitzeko diru-kopurua asko handitu beharko lukete.

B. Hondakin arriskutsuen kudeaketaren inguruan erakundeen gaitasuna sustatzea eta sendotzea

Ekintzarako oinarriak:

Herrialde askok ez dute hondakin arriskutsuak manipulatzeko eta kudeatzeko gaitasunik. Hori, bereziki, ondorengo arrazoiengatik gertatzen da: azpiegitura egokiaren falta, arautegiaren inguruko akatsak, trebakuntza- eta hezkuntza-programen eskasia eta hondakin arriskutsuen inguruko hainbat atalez arduratzen diren ministerioen eta erakundeen arteko koordinazio falta. Horrez gain, ondorengo gaien inguruan ezagutza falta dago: ingurugiroaren kutsaduraren inguruan, hondakin arriskutsuen aurrean egoteak herritarren –bereziki emakumeen eta haurren– osasunean sor ditzakeen arriskuen inguruan eta ekosistemen inguruan; arriskuen ebaluazioaren inguruan eta, azkenik, hondakinen ezaugarrien inguruan. Ezinbestekoa da kutsadura-arriskuaren maila handienak zein herrialdek dituzten zehaztea eta, hala behar izanez gero, neurri zuzentzaileak aplikatzea. Hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalaz arduratzeko funtsezko lehentasunak sentsibilizazio-, hezkuntza- eta trebakuntza-programak lantzea izan behar du; programa horiek gizarteko sektore guztiak hartu behar dituzte. Horrez gain, ezinbestekoa da ikerketa-programak egitea hondakin arriskutsuen jatorria ulertzeko, bere eragin ekologikoak zehazteko eta hondakin horiek arriskurik gabe manipulatzeko teknologiak lantzeko. Azkenik, ezinbestekoa da hondakin arriskutsuak kudeatzeaz arduratzen diren erakundeen gaitasuna sendotzea.

Helburuak:

Progama-multzo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Nazio mailan koordinazio-, legegintza- eta araudi-neurri egokiak hartzea, hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalerako. Neurri horien artean, nazioarteko eta lurraldeko hitzarmenak aplikatzeko neurriak sartu beharko lirateke;
- b) Hondakin arriskutsuen inguruko auziei buruzko informazio- eta sentsibilizazio-programak antolatzea eta herrialde guztietako industrietako eta administrazio publikoko langile guztientzako oinarrizko hezkuntza-programak eta trebakuntza-programak egon daitezen arduratzea;
- c) Herrialdeetan dauden hondakin arriskutsuei buruzko ikerketen programa zabalak martxan

jartzea;

- d) Zerbitzu-industrien gaitasuna sendotzea, hondakin arriskutsuak manipulatzeko aukera emateko, eta nazioarteko sareak sendotzea;
- e) Garapen bidean dauden herrialde guztietan langileak maila guztietan hezteko eta trebatzeko herri mailako gaitasuna sortzea, hondakin arriskutsuak manipulatzeko, behatzeko eta ekologikoki era arrazionalen kudeatzeko;
- f) Hondakin arriskutsuen biltegietatik datorren kutsaduraren aurrean gizakiaren esposizio-maila ebalua dadin sustatzea eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak zehaztea;
- g) Hondakin arriskutsuek giza osasunean eta ingurugiroan sor ditzaketen eraginak eta arriskuak ebalua daitezen bultzatzea, horretarako prozedura, metodologia eta irizpide egokiak edo isurpenei buruzko gidalerroak eta arauak onartzuz;
- h) Hondakin arriskutsuek giza osasunean eta ingurugiroan sor ditzaketen eraginei buruzko ezagutzak hobetzea;
- i) Gobernuei eta oro har jendeari hondakin arriskutsuek giza osasunean eta ingurugiroan sor ditzaketen eraginei buruzko informazioa ematea. Informazio horren barruan infekzioak sor ditzaketen hondakinak ere sartuko lirateke.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Gobernuek hondakin arriskutsuen, hondakin horiek tratatzeko edo botatzeko lekuen eta birgaitu behar diren leku kutsatuen inbentarioak –horien artean ordenagailu bidezko inbentarioak– prestatu eta mantendu beharko lituzkete. Horrez gain, esposizio-mailek osasunean eta ingurugiroan sortzen duten arriskuak ebaluatu beharko lituzkete; halaber, zaborteziak garbitzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztu beharko lituzkete. Industriak beharrezkoa den informazio guztia eman beharko luke;

- b) Gobernuek, industriak eta nazioarteko erakundeek erraz aplikatu daitezkeen gidalerroak eta metodoak egiten lagundu beharko lukete, hondakin arriskutsuak bereizteko eta sailkatzeko;
- c) Gobernuek fiskalizatu gabeko hondakin arriskutsuen zaborte-gietatik gertu bizi diren biztanleen esposizio-maila eta osasun-egoera ebaluatu beharko lituzkete eta neurri zuzentzaileak hartu beharko lituzkete;
- d) Osasun-irizietatik abiatuta, nazioarteko erakundeek irizpide hobekak formulatu beharko lituzkete. Horretarako erabakiak hartzeko nazioarteko prozesuak hartu beharko lituzkete kontuan. Horrez gain, gidalerro tekniko praktikoak prestatzen lagundu beharko lukete, hondakin arriskutsuen prebentzioarako eta gai horiek ahalik eta gehien murrizteko eta arriskurik gabe manipulatzeko eta deuseztatzeko;
- e) Garapen bidean dauden herrialdeetako gobernuek diziplinarteko eta sektorearteko taldeak ondorengoa egitera bultzatu beharko lituzkete: hondakin arriskutsuen osasunarentzat sorrarazten dituzten arriskuen ebaluazioarekin, prebentzioarekin eta kontrolarekin harremana duten trebakuntza- eta ikerketa-jarduerak martxan jartzera. Lan hori aurrera eraman ahal izateko nazioarteko erakundeen eta organismoen laguntza eduki beharko lukete. Talde horiek lurralde mailan antzeko programak sortzeko eredu izan behar lukete;
- f) Gobernuek, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta, hala dagokienez, beste erakunde eskudunen laguntzarekin, ahal den neurrian industria txikietan eta ertainetan hondakin arriskutsuak tratatzeko eta deuseztatzeko instalazio konbinatuak eraiki daitezkeen bultzatu beharko lukete;
- g) Gobernuek hondakin arriskutsuen biltegien identifikazioa eta garbiketa sustatu beharko lituzkete, industriarekin eta nazioarteko erakundeekin elkarlanean. Horretarako teknologiak, ezagutza espezializatua eta finantza-baliabideak eman beharko liriteke eta, ahal den neurrian, "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioa aplikatu beharko lituzkete;
- h) Gobernuek beren instalazio militarretan hondakin arriskutsuak tratatzeko eta deuseztatzeko nazio mailan aplikatu daitezkeen ingurugiroko arauak betetzen dituztela

ziurtatu beharko lukete.

b) Datuak eta informazioa:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Gobernuak, nazioarteko eta lurraldeko erakundeek eta industriak hondakin arriskutsuek osasunarekin duten harremanari buruzko hainbat alderdiren informazio tekniko eta zientifikoaren hedapena erraztu eta hedatu beharko lukete eta aplikatu daitezkeen bultzatu beharko lukete;
- b) Gobernuak osasunarentzako kaltegarriak diren eraginen eta esposizioan dauden herrialdeen jakinarazpen- eta erregistro-sistemak eratu beharko lituzkete. Horrez gain, hondakin arriskutsuek sortzen dituzten arriskuak ebaluatzeko datu-baseak sortu beharko lituzkete;
- c) Gobernuak hondakin arriskutsuak produzitzen, deuseztatzen edo birziklatzen dituztenei buruzko informazioa biltzen saiatu beharko lukete eta informazio hori interesa duten pertsonari eta erakundeei eman behar liekete.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailan:

Gobernuak, beren gaitasunaren eta dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta, hala dagokienean, nazioarteko beste erakundeen babesarekin, ondorengoak egin beharko lukete:

- a) Lurralde eta herri mailan, talde instituzionalen eta diziplinariako taldeen integrazioa eta funtzionamendua sustatzea eta babestea. Talde horiek, beren gaitasunaren arabera, hondakin arriskutsuen inguruko arriskuak ebaluatzeko, kudeatzeko eta murrizteko prozedurak hobetzeko jardueretan lagundu beharko lukete;
- b) Garapen bidean dauden herrialdeetan, gaitasunaren handitzea, garapena eta ikerketa teknologikoak babestea, giza baliabideen garapenarekin harremanetan. Horretarako,

sareak sendotzeari babes berezia eman beharko litzaioke;

- c) Hondakin arriskutsuak jatorrizko herrialdeetan deuseztatzearen inguruan autosufizientzia sustatzea, ekologikoki arrazionala den neurrian eta bideragarria den neurrian. Mugaz haraindi egiten diren mugimenduek arrazoi ekologikoei eta ekonomikoei egin beharko liekete kasu eta interesa duten estatu guztien arteko hitzarmenetan oinarrituta egon beharko lukete.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak mundu mailan programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 18.500 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta horietatik 3.500 milioi garapen bidean dauden herrialdeei dagozkie. Kopuru horren barruan nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 500 milioi inguru ere sartzen dira. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Gobernuek, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta, dagokienaren arabera, beste erakunde eskudunen eta industriaren laguntzarekin, garapen bidean dauden herrialdeetan hondakin arriskutsuen inguruko ikerketetarako kudeaketei babes gehiago eman beharko liekete;
- b) Gobernuek, nazioarteko erakundeen laguntzarekin, hondakin arriskutsuen giza osasunean sor ditzaketen eraginei buruzko ikerketak egin beharko lituzkete garapen bidean dauden herrialdeetan. Ikerketa horien barruan, epe luzera haurrengan eta emakumeengan sor ditzaketen eraginak aztertu beharko lituzkete;

- c) Gobernuak industria txikiaren eta ertainaren beharrak kontuan hartzen dituen ikerketak egin beharko lituzkete;
- d) Gobernuak eta nazioarteko erakundeek, industriaren laguntzarekin, hondakin arriskutsuen manipulazioari, biltegiatzeari, tratamenduari eta era ekologikoki arrazionalen deuseztatzeari buruzko ikerketa teknologikoak eta hondakin horien ebaluazioari, kudeaketari eta deuseztapenari buruzko ikerketa teknologikoak areagotu beharko lituzkete;
- e) Nazioarteko erakundeek hondakin arriskutsuak manipulatzeko, biltegiatzeko, tratatzeko eta deuseztatzeeko teknologia egokiak eta hobetuak zehaztu beharko lituzkete.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuak ondorengoak egin beharko lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta, dagokienaren arabera, beste erakunde batzuen eta industriaren babesarekin:

- a) Hondakin arriskutsuen inguruko gaiari buruzko jendearen kontzientzia eta informazioa areagotzea eta hondakin horiei buruzko informazioa bil eta heda dadin sustatzea, jende guztiak ulertzeko moduan;
- b) Hondakin arriskutsuen kudeaketa-programetan jendearen, bereziki emakumeen eta herritarren, parte-hartzea areagotzea;
- c) Industrian eta administrazio publikoan gizonentzako eta emakumeentzako programak martxan jartzea. Programa horien helburua eguneroko bizitzako arazo zehatzez aritzea da, esate baterako ondorengo gai hauez aritzea: hondakin arriskutsuak ahalik eta gehien gutxitzeko programen planifikazioaz eta aplikazioaz, material arriskutsuen zenbaketaz eta arautzeari buruzko programa egokien eraketaz;
- d) Hondakin arriskutsuak era ekologikoki arrazionalen kudeatzeko eta ahalik eta gehien murrizteko teknologien inguruan langileen, industriaren administrazioen eta garapen bidean dauden herrialdeetan araudiaz arduratzen diren administrazio

publikoko langileen trebakuntza sustatzea.

Ondorengo jarduerak ere gauzatu beharko lirateke:

- a) Gobernuek, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen, beste erakunde batzuen eta gobernu kanpoko erakundeen babesarekin, hondakin arriskutsuen eta ingurugiroan eta giza osasunean sortzen dituzten eraginen inguruko hezkuntza-materialen lanketan eta hedapenean lagundu beharko lukete. Material hori eskolek, emakume-taldeek eta oro har jendeak erabiltzeko izango litzateke;
- b) Gobernuek, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta beste erakunde batzuen laguntzarekin, hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalerako programak sortu edo sendotu beharko lituzkete, dagozkien osasun-arauen eta ingurugiro-arauen arabera. Horrez gain, behaketa-sistemen irismena hedatu beharko lukete, hondakin arriskutsuen aurrean egoteak populazioarengan eta ingurugiroan sortutako eraginak zehazteko;
- c) Nazioarteko erakundeek beren kide diren estatuei laguntza eman behar liekete, hondakin arriskutsuen aurrean egoteak osasunean eta ingurugiroan sor ditzakeen arriskuak ebaluatzeko eta hondakinen maila edo mota desberdinak kontrolatzearen inguruko lehentasunak zehazteko;
- d) Gobernuek, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta beste erakunde eskudunen babesarekin, hondakin arriskutsuen kudeaketaren inguruko trebakuntza irakasteaz arduratuko liratekeen zentro espezializatuak sor daitezten sustatu beharko lukete. Zentro horiek nazioko erakunde egokietan oinarrituta egon beharko lukete. Horrez gain, nazioarteko lankidetzak sustatu beharko lukete, besteak beste, garapen bidean dauden herrialdeen eta garatutako herrialdeen artean lotura instituzionalak sortuz.

d) Gaitasuna areagotzea:

Beren jarduerak edonon gauzatzen dituztela ere, hondakin arriskutsuen produkzioaren eta deuseztapenaren inguruan enpresa transnasionalek eta enpresa handiek jatorrizko

herrialdean indarrean daudenen antzeko arau operatiboak edo zorrotzagoak martxan jartzeko konpromisoa har dezaten eta politikak onar ditzaten bultzatu beharko litzateke; era berean, gobernuek hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionala eskatzen duen araudia martxan jartzeko ahalegina egin dezaten bultzatu beharko litzateke.

Nazioarteko erakundeek, batetik, hondakin arriskutsuen aurrean egoteak osasunean eta ingurugiroan sor ditzakeen arriskuak ebaluatzeke eta, bestetik, hondakinen maila edo mota desberdinak kontrolatzearen inguruan lehentasunak zehazteko laguntza eman beharko liekete beren kide diren estatuei.

Gobernuek ondorengoa egin beharko lukete, beren gaitasunaren eta eskura ditzuten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta beste erakunde eta industria eskudunen babesarekin:

- a) Hondakin arriskutsuen inguruko araudia behatzeaz eta aplikatzeaz arduratzen diren erakunde nazionaleri babesa ematea, bereziki nazioarteko hitzarmenak aplikatzeko bitartekoak ematea;
- b) Hondakin arriskutsuez arduratzen diren industria-erakundeak eta hondakin horiek manipulatzeko zerbitzu-enpresak sortzea;
- c) Hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalerako gidalerro teknikoak onartzea eta lurraldeko eta nazioarteko hitzarmenen aplikazioa babestea;
- d) Hondakin arriskutsuen inguruan zerbitzuak ematen dituzten nazioarteko sare espezialistak sortzea eta hedatzea eta herrialdeen artean informazio-trukea izatea;
- e) Hondakin arriskutsuak tratatzeko nazio, azpilurralde eta lurralde mailan zentroak sortzeko eta administratzeko aukera ebaluatzea. Zentro horiek hezkuntzaren eta trebakuntzaren inguruko helburuak lortzeko eta hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalerako transferentziak egiteko eta sustatzeko erabili ahal izango lirateke;
- f) Erakunde edo zentro espezializatu akademikoak eta ikerketa-erakunde edo -zentroak finkatzea eta hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalari buruzko hezkuntza- eta trebakuntza-jarduerak gauzatu ahal izateko sendotzea;

- g) Hondakin arriskutsuen kudeaketaz arduratzen diren maila guztietako langileak trebatu eta hezi ahal izateko gaitasun eta egitura nazionalak sortzeko programak lantzea;
- h) Industrien ingurugiro-ikuskapenak egitea, hondakin arriskutsuak kudeatzeko barruko sistemak hobetzeko.

C. Hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduen kudeaketaren inguruan nazioarteko lankidetzak sustatzea eta sendotzea

Ekintzarako oinarriak:

Hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduen kudeaketaren inguruan nazioarteko lankidetzak –fiskalizazioko eta behaketako jarduerak barne– sustatzeko eta sendotzeko, ezinbestekoa da ardura-irizpidea aplikatzea. Hainbat bitarteko juridikotan eta nazioarteko bitartekotan aplikatutako prozedurak eta irizpideak bateratu egin behar dira. Horrez gain, ezinbestekoa da ingurugiroarentzako arriskutsuak diren hondakinak zehazteko dauden irizpideak garatzea edo bateratzea eta behaketarako gaitasuna sortzea.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalerako nazioarteko lankidetzak erraztea eta sendotzea. Honen barruan hondakin horien –errekuperaziorako hondakinak barne– mugaz haraindiko mugimenduen fiskalizazioa eta behaketa ere sartuko litzateke. Hori nazioartean hondakin arriskutsuak zehaztearen eta sailkatzearen inguruan eta nazioarteko bitarteko juridikoak bateratzearen inguruan onartutako irizpideak aplikatuz egin beharko litzateke;
- b) Hondakin arriskutsuez era ekologikoki arrazionalen arduratzeko behar den gaitasuna ez duten herrialdeetara edo beren inportazioa debekatu duten herrialdeetara hondakin horien esportazioa debeka dadin agintzea edo esportatzen ez uztea;

- c) Basileako Hitzarmenaren arabera errekuaratze-operazioetarako diren hondakin arriskutsuen eta birziklatze ekologikoki eta ekonomikoki arrazionalerako aukera duten hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduak fiskalizatzeko prozedurak sor daitezzen bultzatzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Irizpideak eta araudiak sendotzea eta bateratzea

Gobernuek ondorengo egin beharko lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta, hala behar denean, beste erakunde eskudunen babesarekin:

- a) Basileako Hitzarmenean eta lurralde mailako beste hitzarmen batzuetan eta hauekin lotura duten hitzarmenetan aurreikusitako jakinarazpen-prozedurak nazio mailako legeetan sartzea;
- b) Hala behar denean, hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduak arautzen dituzten lurralde mailako hitzarmenak –adibidez, Bamakoko Hitzarmena– lantzea;
- c) Lurralde mailako hitzarmen horiek nazioarteko hitzarmenekin eta protokoloekin bateragarri eta osagarri izan daitezzen laguntzea;
- d) Hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduen fiskalizaziorako eta behaketarako nazio eta lurralde mailako gaitasuna eta bitartekoak sendotzea;
- e) Basileako Hitzarmenaren eta, hala dagokienean, lurralde mailako beste hitzarmenen barruan irizpide eta gidalerro argiak landu daitezzen sustatzea. Bi helbururekin egingo litzateke hori: batetik, ekologiaren eta ekonomiaren aldetik arrazionalak diren baliabideak errekuaratzeko, birziklatzeko, ustiatzeko, zuzenean berrerabiltzeko edo

beste erabileraren baterako jarduerak gauzatzeko eta, bestetik, errekupeziarako – baita bideragarria eta egokia den kasuetarako ere– jarduera onargarriak zein diren zehazteko, jarduera horien inguruko gehiegikeriak eta iruzurrak prebenitzeko;

- f) Nazio eta lurralde mailan, hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduak kontrolatzeko eta behatzeko sistemak martxan jartzeko aukera aztertzea;
- g) Hondakin arriskutsuen tratamendu ekologikoki arrazionala ebaluatzeko gidalerroak egitea;
- h) Nazio mailan hondakin arriskutsuak zein diren zehazteko gidalerroak egitea, nazioartean eta, hala dagokienean lurralde mailan, hitzartutako irizpideak kontuan hartuta. Horrez gain, legedia nazionalak zerrendatutako hondakin arriskutsuen arrisku-mailen zerrenda prestatzea;
- i) Hondakin arriskutsuen inguruko saiakuntzarako, karakterizaziorako eta sailkapenerako metodo egokiak prestatzea eta erabiltzea eta segurtasun-arauak eta -printzipioak onartzea edo daudenak egokitzea, hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalerako.

Aurretik dauden hitzarmenak aplikatzea:

Gobernuek Basileako Hitzarmena eta Bamakoko Hitzarmena berrets ditzaten bultzatu behar da eta lehenbailehen dagozkien protokoloak –adibidez ardurari eta kalte-ordainketari buruzkoak– lantzen has daitezen sustatu behar da. Horrez gain, hitzarmenak errazago aplikatzeko beharrezkoak diren mekanismoak eta gidalerroak prestatu ditzaten ere sustatu behar da.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Programa-arlo honen gaia nahiko berria dela eta, orain arte ez dira nahiko azterketa egin aurreikusitako jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren gastuak zehazteko eta, beraz, ezin dira kalkulatu gastuak. Hala ere, programa honetan gaitasuna areagotzearekin lotura duten jarduera batzuk [B programa-arloaren](#) barruan daude sartuta.

Basileako Hitzarmeneko behin-behineko idazkaritzak azterketa bat egin beharko luke 2000 urtera arte egin beharreko jardueretarako gutxi gorabehera zenbat diru beharko den zehazteko.

- d) Adaptar las técnicas de ordenación de las zonas costeras, tales como la planificación, los emplazamientos y las evaluaciones de los efectos en el medio ambiente, utilizando Sistemas de Información Geográfica adecuados a las características especiales de las islas pequeñas, teniendo en cuenta los valores tradicionales y culturales de las poblaciones indígenas de los países insulares;
- e) Examinar las disposiciones institucionales existentes y adoptar y poner en practica las reformas institucionales pertinentes que sean esenciales para la eficaz aplicación de los planes de desarrollo sostenible, teniendo en cuenta la coordinación intersectorial y la participación comunitaria en el proceso de planificación;
- f) Ejecutar planes de desarrollo sostenible que incluyan el examen y la modificación de las políticas y practicas actuales que no sean sostenibles;
- g) Con sentido de la precaución y la anticipación, formular y poner en practica estrategias de respuesta racionales para hacer frente a los efectos ambientales, sociales y económicos del cambio climático y la elevación del nivel del mar, y preparar planes adecuados para esas eventualidades;
- h) Fomentar la utilización de tecnologías ecológicamente racionales para el desarrollo sostenible en los pequeños Estados insulares en desarrollo y determinar las tecnologías que se deban excluir a causa de la amenaza que representan para los ecosistemas insulares esenciales.

b) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek ondorengo egin behar lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen eta beste erakunde eskudunen laguntzarekin:

- a) Hondakin arriskutsuen kudeaketa ekologikoki arrazionalaren inguruko politikak lantzea edo onartzea, nazioartean dauden bitartekoak kontuan hartuta;

- b) Dagokien erakundeei gomendioak ematea edo arauak prestatzea edo egokitzea, "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioaren bidezko aplikazioa barne. Horrez gain, neurri arau-emaileak prestatzea eta egokitzea Basileako Hitzarmeneko, Bamakoko Hitzarmeneko eta beste hitzarmen batzuetako eta etorkizuneko hitzarmenetako betebeharrak eta printzipioak betetzeko, hala behar izanez gero, mugaz haraindiko mugimenduek eta hondakin arriskutsuen deuseztapenak sortutako kalteen arduren eta kalte-ordainen inguruko arauak eta prozedura egokiak prestatzeko protokoloak barne;
- c) Hondakin arriskutsuez era ekologikoki arrazionalen arduratzeko gaitasuna ez duten herrialdeentzako edo beren inportazioa debekatu duten herrialdeentzako, hondakin horien inguruko aginduak edota debekuak martxan jartzeko politikak aplikatzea;
- d) Basileako Hitzarmenaren eta lurralde mailako hitzarmenen inguruan, larrialdi egoeretan behin-behineko finantza-laguntza emateko bideragarritasuna aztertzea, hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduek edo hondakin horien ebakuazioan zehar sortutako istripuen ondorengo kalteak ahalik eta gehien murrizteko.

D. Hondakin arriskutsuen legez kanpoko nazioarteko zirkulazioa prebenitzea

EKintzarako oinarriak:

Hondakin arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioa prebenitzeak herrialde guztietako ingurugiroari eta herri-osasunari onurak ekarriko dizkie. Bestalde, honek Basileako Hitzarmenaren eta nazioarteko eta lurraldeko beste bitartekoen –adibidez Bamakako Hitzarmenaren eta Lomeko Laugarren Hitzarmenaren– eraginkortasunari lagunduko dio, hitzarmen horietan finkatutako kontrolak bete daitezen bultzatuz. Basileako Hitzarmeneko IX. artikuluan hondakin arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioaren inguruko gaiak aztertzen dira. Hondakin arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioak mehatxu larriak eragin ditzake giza osasunean eta ingurugiroan eta igorpen horiek jasotzen dituzten herrialdeei ohiz kanpoko arduraz harraraz diezaike.

Prebentzio eragingarrian eragingarritasuna izateko zigor egokien zaintza, aplikazio eta inposizio eragingarriak ezinbestekoak dira.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Edozein estaturen lurretan hondakin arriskutsuak legez kanpo eta nazioko legeria eta nazioarteko bitarteko juridikoak urratuz sartzeko edozein saiakeraz jabetzeko eta geldiarazteko gaitasun nazionala sendotzea;
- b) Herrialde guztiei, batez ere garapen bidean dauden herrialdeei, laguntza ematea, hondakin arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioari buruzko informazio guztia lortu ahal izan dezaten;
- c) Basileako Hitzarmenaren inguruan, legez kanpoko zirkulazioaren ondorioak jasaten dituzten herrialdeei laguntza ematea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek ondorengo egin beharko lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuekin eta, hala dagokienean, beste erakunde eskudunekin elkarlanean:

- a) Hondakin arriskutsuen legez kanpoko inportazioa eta esportazioa prebenitzeko legedia onartzea, hala behar denean, eta aplikatzea;
- b) Legea aplikatzeko programa nazional egokiak prestatzea, ondorengoa lortzeko: legeria hori betetzen den zaintzeko; zigor egokiak aplikatuz, urratzeaz jabetzeko eta zigortzeko eta, azkenik, oro har estatuak dakitenaren arabera, hondakin arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioan parte hartu dutenei kasu berezia egiteko eta bereziki legez kanpo batetik bestera eraman daitezkeen hondakin arriskutsuei kasu berezia egiteko.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek, dagokienaren arabera, informazio-sarea eta alerta-sistema jarri beharko lituzkete martxan, hondakin arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioaz jabetzeko lana babesteko. Sare eta sistema horien funtzionamenduan herri mailako komunitateek eta interesa duten beste batzuek parte hartzeko aukera ere izan beharko lukete.

Gobernuek hondakin arriskutsuen mugaz haraindiko mugimenduen inguruko informazioaren trukaketan elkarlana egin beharko lukete eta informazio hori Nazio Batuen erakundeko organo eskudunaren –NBIPren eta lurralde mailako batzordeen– esku utzi beharko lukete.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

NBIPrekin eta Nazio Batuen sistemako beste organo eskudunekin elkarlanean, organo horietako adituen babesarekin eta gomendioekin eta Basileako Hitzarmena kontuan hartuta, lurralde mailako batzordeek hondakin arriskutsuen legez kanpoko zirkulazioa behatzen eta ebaluatzen jarraituko dute. Horrez gain, legez kanpoko zirkulazio horrek ingurugiroan, ekonomian eta osasun publikoan sor ditzakeen eraginak etengabe behatzen eta ebaluatzen ere jarraituko du. Horretarako, NBIPk eta APBESek legez kanpoko zirkulazioari buruzko egindako ebaluazioaren emaitzak eta ebaluazio horien bidez lortutako esperientzia erabiliko dituzte.

Herrialdeek eta, hala dagokienez, nazioarteko erakundeek erakundeen eta arauen gaitasuna sendotzeko elkarlana egin beharko lukete, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, hondakin arriskutsuen legez kanpoko inportazioa eta esportazioa prebenitzeko.

21. ATALA: Hondakin solidoen kudeaketa ekologikoki arrazionala eta erabilitako urekin lotura duten auziak

Sarrera

Atal hau Batzar Nagusiaren 44/228 ebazpeneko 3. paragrafoko I. sailean eta 12 g) paragrafoko I. sailean esaten dena betetzeko sartu da Agenda 21en. Paragrafo horietan ondorengo aipatzen da: lehenik, herrialde guztietan, garapen jasangarria eta ingurugiroaren aldetik arrazionala sustatzeko nazioko eta nazioarteko ahaleginak areagotzearen inguruan, Biltzarrak ingurugiroaren degradazioaren eraginak geldiarazteko eta buelta emateko estrategiak eta neurriak eratu behar dituela baieztatu zuen Batzarrak; bestetik, hondakinen kudeaketa ekologikoki arrazionala Lurreko ingurugiroaren kalitateari eusteko eta, batez ere, herrialde guztietan garapen jasangarria eta ekologikoki arrazionala lortzeko garrantzi gehien duten atalen artean dagoela baieztatu zuen Batzarrak.

Agenda 21eko atal honetan aipatzen diren programa-eremuak Agenda 21eko beste atal batzuetako ondorengo programa-arloekin daude lotuta:

- a) Ur gezatako baliabideen horniketa eta kalitatea babestea: ur gezatako baliabideen ustiapenerako, antolakuntzarako eta erabilerarako irizpide integratuak aplikatzea (18. atala);
- b) Giza kokapenen garapen jasangarria sustatzea (7. atala);
- c) Giza osasunaren babesa eta sustapena (6. atala);
- d) Kontsumo-moten bilakaera (4. atala).

Atal honen barruan, hondakin solidoen artean ondorengoak sartzen dira: etxeetako hondakinak, arriskutsuak ez diren hondakinak, hondakin komertzialak eta instituzionalak, kaleko zakarrak eta obra-hondakinak. Herrialde batzuetan, hondakin solidoen kudeaketa-sistema giza hondakinez ere arduratzen da, esaterako gorotzez, errausketetako errautsez, hobi septikoetako lokatzaz eta estoldetako ura tratatzeko instalazioetako lokatzaz. Hondakin horiek ezaugarri arriskutsuak badituzte, hondakin arriskutsu bezala erabili beharko dira.

Hondakinen kudeaketa ekologikoki arrazionalak sortutako hondakinak era seguruan erabiliz deuseztatzea edo aprobetxatzea baino zerbait gehiago izan behar du eta arazoaren funtsezko arazoia konpontzen saiatu behar da; horretarako, jasangarriak ez diren produkzio- eta kontsumo-

arauak aldatzen saiatu behar du. Horretarako, bizi-zikloaren kudeaketa integratuaren kontzeptua aplikatu behar da; kontzeptu hori garapena ingurugiroa babestearekin lotzeko aukera bakarra da.

Ondorioz, beharrezkoa den ekintza-esparruak helburuen hierarkian egon beharko luke oinarrituta eta hondakinekin harremana duten lau programa-arlo nagusitan banatuko litzateke. Programa-arloak ondorengoak dira:

- a) Hondakinak ahalik eta gehien murriztea;
- b) Hondakinen berrerabilpena eta birziklatze ekologikoki arrazionala ahalik eta gehien sustatzea;
- c) Hondakinen deuseztatze eta tratamendu ekologikoki arrazionalak sustatzea;
- d) Hondakinez arduratzen diren zerbitzuen irismena areagotzea.

Lau programa-arloak korrelazioan jarririk daudenez eta batak besteari babesa ematen dionez, integratuta egon beharko lukete udalerrietako hondakin solidoen kudeaketarako eremu zabala eta ekologikoki arrazionala eratzeko. Jardueren konbinazioak eta lau programa-arlo horietako bakoitzari ematen zaion garrantzia aldatu egiten dira tokian tokiko baldintza sozioekonomikoen eta fisikoen, sortzen den hondakin kopuruaren eta beren konposizioen arabera. Gizarteko sektore guztiek programa-arlo guztietan parte hartu beharko lukete.

Programa-arloak

A. Hondakinak ahalik eta gehien murriztea

Ekintzarako oinarriak:

Jasangarriak ez diren produkzio- eta kontsumo-arauak egoteak areagotu egin ditu ingurugiroan dauden hondakin iraunkorren kantitatea eta barietatea inoiz ez bezalako erritmoan. Joera horren ondorioz, mendearen amaierarako sortutako hondakin kantitatea asko hazi daiteke eta 2025erako laukoiztu edo boskoiztu egin daiteke. Bizimoduaren eta produkzio- eta kontsumo-moten transformazioan oinarritutako hondakinen kudeaketa prebentiboaren ikuspegiak egungo joeren norabidea aldatzeko aukera gehienak eskaintzen ditu.

Helburuak:

Programa honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Hitzartutako epean, betiko deuseztatu behar diren hondakinen produkzioa egonkortzea edo murriztea. Horretarako, hondakinen pisuan, bolumenean eta konposizioan oinarritutako helburuak formulatu behar dira. Horrez gain, bereziketa sustatu behar da, hondakinen birziklatzea eta berrerabilpena laguntzeko;
- b) Hondakinen kopurua zehazteko eta beren konposizioan aldaketak egiteko prozedurak sendotzea, hondakinak ahalik eta gehien murrizteko politikak formulatzeko. Horretarako bitarteko ekonomikoak edo beste mota batzuetakoak erabili behar dira produkzio- eta kontsumo-moten inguruko aldaketa probetxugarriak sustatzeko.

Gobernuek ondorengoa egin beharko lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuekin eta, hala dagokienean, beste erakunde eskudunekin elkarlanean:

- a) 2000 urterako, nazio, lurralde eta nazioarte mailan, hondakinen joeren inguruko informazioa lortzeko, tratatzeko eta aztertzeko eta hondakinak ahalik eta gehien murrizteko politikak aplikatzeko behar adina gaitasun izatea;
- b) 2000 urterako herrialde, industrializatu guztietan, behin betiko deuseztatzeko diren hondakinen produkzioa –biztanle bakoitzeko hondakinen produkzioa barne, kontzeptu hau aplikatzen den kasuetan– ordu arte lortutako mailan egonkortzeko edo, bideragarria bada, gutxitzeko programak sortzea; garapen bidean dauden herrialdeek helburu hori

lortzen saiatu behar lukete, garapenerako beren aurreikuspenak tartean sartu gabe;

- c) 2000 urterako, herrialde guztietan, eta bereziki herrialde industrializatueta, material arriskutsuentzako arauak betetzen ez dituzten hondakin agrokimikoen, edukiontzien eta paketatze-materialen produkzioa murrizteko programak aplikatzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek hondakinen eraketaren murrizketa mantentzeko programak jarri beharko lituzkete martxan. Gobernu kanpoko erakundeek eta kontsumitzaile-taldeek programa horietan parte har dezaten bultzatu beharko litzateke; programa horiek, behar izanez gero, nazioarteko erakundeekin lankidetzan era litezke. Programa horiek, ahal den neurrian, uneko edo aurreikusitako jardueretan oinarritu beharko lituzkete eta ondorengoa egin beharko litzateke:

- a) Ikerketak eta teknologia ekologikoki arrazionalak lantzearen inguruko gaitasun nazionala garatzea eta sendotzea eta hondakinak ahalik eta gehien murrizteko neurriak hartzea;
- b) Jasangarriak ez diren produkzio- eta kontsumo-motak murrizteko pizgarriak ematea;
- c) Beharrezkoa den kasuetan, garapenerako plan nazionalen barruan, hondakinen sorrera ahalik eta gehien murrizteko plan nazionalak lantzea;
- d) Nazio Batuen sisteman egindako erosketetan, hondakinak ahalik eta gehien murriztearen inguruko gaiak nabarmentzea.

b) Datuak eta informazioa:

Behaketa ezinbesteko baldintza da hondakinen kantitatearen eta kalitatearen inguruko aldaketa eta ingurugiroan eta osasunean sortzen dituzten ondorioak gertutik jarraitzeko. Gobernuek, nazioarteko erakundeekin babesarekin, ondorengoa egin behar lukete:

- a) Nazio mailan hondakinen produkzioa behatzeko metodologiak eratzea eta aplikatzea;

- b) Datuak biltzea eta aztertzea, helburu nazionalak finkatzea eta lortutako aurrerapenen inguruan jakinaren gainean egotea;
- c) Hondakinen inguruan nazio mailako politikak ekologiaren aldetik egokiak diren ebaluatzeko datuak erabiltzea neurri zuzentzaileak hartzeko oinarri gisa;
- d) Mundu mailako informazio-sistemei informazioa ematea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Nazio Batuek eta gobernuarteko erakundeek, gobernuen laguntzarekin, hondakinen ahalik eta murrizketa gehiena susta dadin lagundu beharko lukete eta horretarako informazioaren, ezagutza teknikoaren eta esperientziaren trukea erraztu beharko lukete. Ondorengo zerrendan gauza daitezkeen jarduerak aipatzen dira (zerrenda hau ez da oso zehatza):

- a) Hondakinen produkzioa behatzeko erak zehaztea, garatzea eta bateratzea eta era horiek herrialdeetara transmititzea;
- b) Hondakinak ahalik eta gehien murriztearen eta teknologia garbien inguruko informazio-sareen jarduerak zehaztea eta hedatzea;
- c) Aldian-aldean ebaluazioak egitea, herrialdeen datuak parekatzea eta aztertzea eta, Nazio Batuen foro egoki baten bidez, interesa duten herrialdeei informazioa sistematikoki ematea;
- d) Hondakinak murrizteko bitarteko guztien eragingarritasuna aztertzea eta zein bitarteko berri erabil daitezkeen eta herrialdeetan martxan jartzeko zein teknika behar diren zehaztea. Horrez gain, martxan jartzeko orientazioak eta kodeak eratu beharko lirateke;
- e) Kontsumitzaileen artean, hondakinak murrizteak izan ditzakeen ondorio sozialak eta ekonomikoak ikertzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak herrialde industrializatuek ondorengo aukera azter dezaten iradoki du: hondakin solidoen kudeaketako eta estoldetako ura deuseztatzeko gastuen gutxi gorabehera % 1en baliokidea inbertitzea hondakinak murrizteko. Egungo kopuruetan, zenbateko hori urteko 6.500 milioi dolarrekoa izango litzateke, udalerrietako hondakin solidoak ahalik eta gehien murrizteko behar diren 1.800 milioi inguru barne. Kopuru zehatzak udalerrietan, probintzietan eta nazioetan aurrekontuez arduratzen diren agintari eskudunek zehaztuko lituzkete, tokian tokiko egoeretan oinarrituta.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Ezinbestekoa da hondakinak ahalik eta gehien murrizteko teknologia eta prozedura egokiak zehaztea eta hedatzea. Lan hori gobernuek koordinatu beharko lukete gobernuz kanpoko erakundeekin, ikerketa-erakundeekin eta Nazio Batuen erakunde eskudunekin lankidetzan eta beren laguntzarekin, eta ondorengo puntuak sar litezke:

- a) Hondakinak ahalik eta gehien murrizteko bitarteko guztien eraingarritasuna etengabe aztertzea eta erabil litezkeen bitarteko berriak eta bitarteko horiek herrialdeetan martxan jartzeko teknikak identifikatzea. Horrez gain, martxan jartzeko orientazioak eta kodeak eratu beharko lirateke;
- b) Gai honen nazio mailako kudeaketa-programako helburu nagusi gisa, hondakinak ahalik eta gehien murriz daitezen eta hondakinak prebeni daitezen sustatzea;
- c) Hezkuntza publikoa eta arauzko pizgarriak eta beste mota batekoak sustatzea, industriak produktuen diseinua alda dezan eta prozesu industrialen ondorioz sortzen diren hondakinak murriztu daitezen. Hori produkzio-teknologia garbiagoak erabiliz eta administrazioaren lan onarekin lor liteke. Bestalde, industriak eta kontsumutzaileek arriskurik gabe erabil daitezkeen ontzi-motak berriro erabil ditzaten bultzatu beharko litzateke;
- d) Nazio mailako gaitasunaren arabera, hondakinak murrizteko bitartekoak ahalik eta gehien hobetzeko frogaketa- eta esperimentazio-programak gauzatzea;

- e) Nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta beste produktu iraunkorrak era egokian garraiatzeko, biltegitzeko, kontserbatzeko eta kudeatzeko prozedurak eratzea, hondakin solido bilakatzen diren produktu horien galerak gutxitzeko;
- f) Hondakinak murrizteko teknologiak industriara pasatu daitezen sustatzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan eta ibaiadarretarako eta hondakin solidoentzako nazio mailako arau zehatzak prestatzea, besteak beste, lehengaien eta energiaren kontsumoa kontuan hartuta.

c) Giza baliabideen garapena:

Hondakinak ahalik eta gehien murrizteko egin beharreko giza baliabideen garapenak ez luke hondakinen kudeaketako sektoreko profesionalei bakarrik zuzenduta egon behar, baizik eta herritarren eta industriaren babesa ere izan beharko luke. Beraz, giza baliabideen garapenerako programen helburuak kontzientzia sortzea eta interesa duten taldeak eta oro har jendea heztea eta informatzea izan beharko luke. Herrialdeetako ikasketa-programetan hondakinen prebentzioari eta murrizketari buruzko printzipioak eta praktikak eta ingurugiroan sortutako eraginari buruzko materiala sartu beharko lituzkete.

B. Hondakinen berrerabilpena eta birziklatze ekologikoki arrazionala ahalik eta gehien sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Ohiko zabortegien errepresioak, hondakinak deuseztatzeko kontrol ekologiko zorrotzagoen aplikazioak eta iraunkorrakoak diren hondakinen kopurua areagotzeak, bereziki herrialde industrialetan, hondakinak deuseztatzeko zerbitzuen gastuak denbora gutxian igotzen lagundu dute. Gastu horiek bikoiztu edo hirukoiztu egin daitezke hamarkadaren amaierarako. Gaur egun hondakinak deuseztatzeko erabiltzen diren jarduerak ingurugiroari mehatxu egiten diote. Hondakinak deuseztatzeko zerbitzuen ekonomia aldatzen doan heinean, baliabideak birziklatzea eta berreskuratzea geroz eta errentagarriagoa da. Hondakinak kudeatzeko etorkizuneko programetan baliabideen errendimenduan oinarritutako ikuspegiak ahalik eta gehien baliatu beharko lirateke, hondakinen produkzioa kontrolatzeko. Jarduera horiek jendea hezteko programekin batera gauzatu beharko lirateke. Ustiapen- eta birziklatze-programak lantzeko garaian, garrantzitsua da aprobetxatutako materialetatik eratorritako produktuentzako merkatuak zehaztea.

Helburuak:

Programa-arlo honen helburuak ondorengoak dira:

- a) Hondakinak birziklatzeko sistema nazionalak sendotzea eta aplikatzea;
- b) Sortutako hondakinak, papera barne, barruan berriro aprobetxatzeko eta birziklatzeko Nazio Batuen sistemaren barruan eredu izango den programa bat sortzea;
- c) Hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko sistemak sustatzeko eta martxan jartzeko informazioa, teknikak eta bitartekoak eta politika-bitartekoak hedatzea.

Gobernuek ondorengoa egin beharko lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batueekin eta, hala dagokienean, beste erakunde eskudunekin lankidetzan:

- a) 2000 urterako, dagokienaren arabera, lurralde, nazio eta herri mailan, hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko politikak eta neurriak aplikatu ahal izateko behar den finantza-gaitasuna eta gaitasun teknologikoak sustatzea;

- b) 2000 urterako herrialde inustrializatu guztietan eta 2010erako garapen bidean dauden herrialdeetan, nazio mailako garapen-programa izatea. Programa horren barruan, ahal den neurrian, hondakinak berriro erabiltzeko eta behar bezala birziklatzeko helburua sartu beharko litzateke.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek, instituzioek eta gobernuz kanpoko erakundeek –kontsumitzaileen, emakumeen eta gazteen taldeak barne–, Nazio Batuen sistemako erakunde eskudunekin elkarlanean, hondakin gehiagoren berrerabilpena eta birziklatzea frogatzeko eta martxan jartzeko programei ekin beharko liekete. Programa horiek, ahal den neurrian, martxan dauden eta pentsatuta dauden jarduenetan oinarritu beharko lirateke eta, horrez gain, ondorengoa bultzatu beharko lukete:

- a) Geroz eta hondakin gehiago berrerabiltzeko eta birziklatzeko gaitasun nazionala garatzea eta sendotzea;
- b) Hondakinen inguruko nazio mailako politikak berrikustea eta berritzea, berriro erabiltzeko eta birziklatzeko pizgarriak emateko;
- c) Hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea erabiltzen dituzten eta horiei lehentasuna ematen dieten hondakinen kudeaketarako plan nazionalak prestatzea eta aplikatzea;
- d) Erosketarako indarrean dauden arauak edo zehaztapenak aldatzea, birziklatutako materialaren aurkako diskriminazioa ekiditeko. Horretarako energiaren eta lehengaien kontsumoko ekonomikoak hartu behar dira kontuan;
- e) Jendea sentibilizatzeko eta informatzeko programak lantzea, birziklatutako produktuen erabilera sustatzeko.

b) Datuak eta informazioa:

Informazioa eta ikerketa ezinbestekoak dira herrialde bakoitzera egokitutako hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko modu abantailatsuak, errentagarriak eta sozialki

onargarriak zehazteko. Esate baterako, nazio eta herri mailako gobernuek, Nazio Batuen eta nazioarte beste erakundeen laguntzarekin, babeserako ondorengo jarduerak gauza ditzakete:

- a) Udalerrietako edozein motatako hondakin solidoak birziklatzeko aukeren eta tekniken azterketa zabala egitea. Berrerabilpen- eta birziklatze-politikek hondakinak kudeatzeko nazio eta herri mailako programetako zati izan beharko lukete;
- b) Hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko egungo jardueren irismena eta metodoak ebaluatzea eta areagotzeko eta babesteko moduak zehatzea;
- c) Ikerketerako programa esperimentalentzako finantzazioa gehitzea, hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko aukerak probatzeko. Aukera horiek, esate baterako, ondorengoak izan daitezke: birziklatzeko artisau-industria txikiak erabiltzea; abono organikoa sortzea; lurrak tratatutako hondakin-urekin ureztatzea eta hondakinen bidez energia berreskuratzea;
- d) Hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko gidalerroak eta jarduerak prestatzea;
- e) Hondakinen inguruko informazioa biltzeko, aztertzeko eta funtsezko hartzaile-taldeei hedatzeko ahalegina areagotzea. Ikerketerarako beka bereziak eman litezke, lehiaketa bidez esleituta, birziklatze-teknikak berritzeko ikerketa-proiektuak sustatzeko;
- f) Birziklatutako produktuentzako izan daitezkeen merkatuak zehaztea.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Nazio Batuak eta, hala dagokienean, nazioarteko beste erakunde eskudunak barne direla, bi estaturen edo estatu askoren arteko elkarlanaren bidez, estatuak ondorengoa egin behar lukete:

- a) Aldian-aldian herrialde bakoitzak hondakinak zein neurritan aprobetxatzen eta birziklatzen dituen aztertzea;
- b) Hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko tekniken eta metodoen eragingarritasuna aztertzea eta beren aplikazioa herrialdeetan hedatzeko modua

aztertzea;

- c) Hondakinak era seguruan birziklatzeko eta berriro erabiltzeko nazioarteko gidalerroak aztertzea eta eguneratzea;
- d) Garapen bidean dauden herrialdeetako komunitate txikietan, hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko industriei babesa emateko programa egokiak lantzea.

Gauzatze bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak kalkulatu duenaren arabera, hondakinak kudeatzeko udalerrietako gastuen % 1en baliokidea hondakinak era seguruan berriro erabiltzeko proiektu egokietarako erabiliz gero, munduan horretarako erabili beharreko kopurua 8.000 milioi dolarrekoa izango litzateke. Idazkaritzak programa hau garapen bidean dauden herrialdeetan aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) babeste besteko gastua 850 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta dohaintza moduan edo mesede moduan emango dira. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Teknologien transferentziak hondakinak birziklatzeari eta berriro erabiltzeari laguntza eman beharko lieke, ondoren aipatzen den moduan:

- a) Birziklatzeko teknologien –adibidez, plastikoak, goma eta papera berriro erabiltzeko makineriaren– transferentzia alde biko eta alde askotako laguntza-programetan gehituz;
- b) Aurretik dauden teknologiak, batez ere herri mailakoak, garatuz eta hobetuz eta lurraldeko eta lurraldearteko laguntza-tekniken inguruko programen barruan beren transferentzia erraztuz;

c) Hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko teknologien transferentzian lagunduz.

Hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko pizgarriak asko dira. Herrialdeek ondorengo aukerak kontuan har ditzakete industriak, erakundeek, merkataritza-establezimenduek eta partikularrek hondakinak deuseztatu beharrean birziklatu ditzaten bultzatzeko:

- a) Herrietako eta udalerrietako agintariei pizgarriak eskaintzea, beren hondakinak ahalik eta gehien birzikla ditzaten;
- b) Hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko jarduera informatzaileei laguntza teknikoa ematea;
- c) Bitarteko ekonomikoak eta arau-emaileak erabiltzea, baita pizgarri fiskalak ere, hondakinak sortzen dituztenek hondakin horien deuseztapena ordaindu behar dutela esaten duen printzipioa babesteko;
- d) Hondakinen berrerabilpenean eta birziklatzean inbertsioak sustatzeko baldintza juridikoak eta ekonomikoak aurreikustea;
- e) Berrerabilpenerako eta birziklatzeko pizgarri gisa mekanismo zehatzak, adibidez biltegi- eta itzultze-sistema, erabiltzea;
- f) Etxeko hondakinen zatiak bereiz jaso daitezzen sustatzea;
- g) Teknikoko birzikla daitezkeen hondakinen komertzializazioa areagotzeko pizgarriak ematea;
- h) Ahal den neurrian birziklatutako materialak erabil daitezzen sustatzea, batez ere paketatzean;
- i) Birziklatutako produktuentzako merkatuak sor daitezzen sustatzea eta horretarako programak sortzea.

c) Giza baliabideen garapena:

Hondakinak kudeatzeko egungo jarduerak berriro bideratzeko trebakuntza ematea beharrezkoa da, berrerabilpenean eta birziklatzean sartu ahal izateko. Gobernuak, Nazio Batuekin eta nazioarteko eta lurraldeko erakundeekin elkarlanean, har litezkeen neurriak proposatzen dituen ondorengo zerrenda onartu beharko lukete:

- a) Trebakuntza-programetan hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko zerbitzuak gehitzea, hiriko administrazioaren eta azpiegiturak sortzearen inguruan lankidetzak teknikoki programen zati osagarri gisa;
- b) Ur-horniketararen eta ingurugiro-saneamenduaren inguruko trebakuntza-programak hedatzea, hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko teknikak eta politikak gehituz;
- c) Hondakinak berriro erabiltzeak eta birziklatzeak hiritarrentzako ekartzen dituen onuren eta betebeharren irakaskuntza hezkuntza orokorreko ikasketa-programetan eta ikastaroetan gehitzea;
- d) Tokian tokiko udaleko agintarien laguntzarekin, gobernuz kanpoko erakundeek, erakunde komunitarioek, emakume- eta gazte-taldeek eta interes publikoko taldeen programek, komunitatean oinarritutako kanpainen bidez, hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko babes komunitario mugiaraz dezaten bultzatzea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Hondakin bolumen handia berriro erabiltzearen eta birziklatzearen onerako gaitasuna areagotzea ondorengo puntuetan oinarritu beharko litzateke:

- a) Hondakinak kudeatzeko politika nazionalak eta pizgarriak martxan jartzea;
- b) Herriko eta udaleko agintariak hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko komunitatearen babesa mugiarazteko aukera izatea. Horretarako, hondakinak berriro erabiltzeko eta birziklatzeko jardueretarako egituratu gabe dagoen sektoreaz arduratu beharko lukete lehenik eta babesa eman beharko liekete; horrez gain, hondakinen kudeaketa planifikatu beharko lukete eta baliabideak berreskuratzeko sistemak eratu.

C. Hondakinen deuseztatze eta tratamendu ekologikoki arrazionalak sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Hondakinak mailarik baxuenera jaitsita ere, beti geratzen dira batzuk, baita tratatu ondoren ere; hondakinen zabor guztiek sortzen duten hondakin-efektuen bat zabor horiek egiten diren ingurugiroan. Beraz, hondakinak tratatzeko eta deuseztatzeko jarduerak hobetzeko tarte bat badago eta horretarako, esate baterako, itsasora hondakin-lokatza isurtzea ekidin behar da. Garapen bidean dauden herrialdeetan arazo hori funtsezkoagoa da: hiriko hondakinen artean % 10 gutxienez tratatu egiten dira eta tratamendu horretako zati txiki batean bakarrik betetzen dira kalitate arau egokiak. Gorotz-materialak tratatzeari eta deuseztatzeari lehentasuna eman beharko litzaiokete, giza osasunari kalte handia eragin baitiezaiokete.

Helburuak:

Programa-arlo honetako helburua sortutako hondakinetatik ahalik eta gehien era seguruaren bidez tratatzea eta eliminatzea da.

Gobernuek ondorengo egin behar lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuekin eta, hala dagokienez, beste erakunde eskudunekin elkarlanean:

- a) 2000 urterako, ingurune hartzailea asimilatze gaitasunean eta jatorrian oinarrituta dauden hondakinak deuseztatzearen eta tratatzearen inguruan kalitate-irizpideak, -helburuak eta -arauak ezartzea;
- b) 2000 urterako, hondakinek sortutako kutsaduraren eraginak behatzeko behar adina gaitasun izatea eta behaketa sistematikoa egitea, hala behar denean behaketa epidemiologikoa barne;
- c) 1995erako herrialde industrializatuek eta 2005erako garapen bidean dauden herrialdeek gutxienez estoldetako uraren, hondakin-uren eta hondakin solidoen % 50 tratatzen edo deuseztatzen dituzten behatzea. Nazioarteko eta nazioko ingurugiro- eta osasun-kalitateko gidalerroen arabera behatu beharko lirateke tratatze- eta deuseztatze-prozesu horiek;
- d) 2025erako estoldetako ur, hondakin-ur eta hondakin solido guztiak nazioko edo nazioarteko ingurugiro-kalitateko gidalerroen arabera deuseztatzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Industriarekin batera eta Nazio Batuen sistemako erakunde eskudunen laguntzarekin, gobernuek, erakundeek eta gobernuz kanpoko erakundeek hondakinek sortutako kutsadura hobeto kudeatzeko eta gutxitzeko programak jarri beharko lituzkete martxan. Ahal den guztietan, programa horiek indarrean dauden edo prestatuta dauden jardueretan oinarrituta egon beharko lukete eta ondorengo aurreikusi beharko lukete:

- a) Hondakinak era seguruan tratatzeko eta deuseztatzeko gaitasun nazionala garatzea eta sendotzea;
- b) Hondakinek sortutako kutsadura murrizteko hondakinak kudeatzeko politika nazionalak berrikustea eta berritzea;
- c) Herrialdeek hondakinak beren lurraldeen barruan eta jatorritik ahal den gertuen deuseztatzeko irtenbideak aurki ditzaten bultzatzea; deuseztatze horrek kudeaketa ekologikoki arrazionalarekin eta eragingarriarekin bateragarria izan beharko luke. Herrialde batzuetan, mugaz haraindiko mugimenduak daude hondakinen kudeaketa ekologikoki arrazionalaz eta eragingarriaz arduratzeko. Mugimendu horiek dagozkien hitzarmenak betetzen dituzte, jurisdikzio nazionalaren barruan dauden guneeetan aplikatzen direnak barne;
- d) Giza hondakinak kudeatzeko planak eratzea. Plan horiek teknologia egokiak lantzeari eta aplikatzeari eta aplikatzeko eskura dauden baliabideei behar adina arreta eskaini beharko liekete.

b) Datuak eta informazioa:

Arauk ezartzea eta behatzea hondakinek sortutako kutsadura murrizteko funtsezko bi elementu dira. Ondorengo jarduera espezifikoetan nazioarteko erakundeek har ditzaketen babes-neurriak aipatzen dira (esate baterako, erakunde hauek har ditzaketenak: Giza Kokapenatarako Nazio Batuen Zentroa (Habitat), Nazio Batuen Ingurugiro Programa eta Osasunaren Munduko Erakundea):

- a) Hondakinek ingurugiroan sortzen duten kutsaduraren eraginaren inguruko proba zientifikoak biltzea eta analizatzea, hondakin solidoen kudeaketa ekologikoki arrazionalerako gomendatutako gidalerroak eta irizpide zientifikoak formulatzeko eta hedatzeko;
- b) Nazio mailan eta, hala dagokionean, herri mailan ekologikoki arrazionalak diren kalitate-arauak aholkatzea. Arau horiek irizpide eta gidalerro zientifikoetan egon beharko lukete oinarrituta;
- c) Lankidetzaren tekniko programetan eta hitzarmenetan behaketa-ekipoaren horniketa eta erabiltzeko behar den trebakuntza gehitzea;
- d) Informazioko zerbitzu zentrala eratzea, lurralde, nazio eta herri mailako sare zabalarekin, hondakinen kudeaketaren inguruko informazioa, segurtasunez deuseztatzeko informazioa barne, biltzeko eta hedatzeko.

c) Lankidetzaren eta koordinazioaren nazioarteko eta lurralde mailatan:

Bi estaturen artean edo estatu askoren artean, Nazio Batuekin eta, dagokienaren arabera, nazioarteko erakunde eskudunekin, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Hondakinak era seguruan isurtzeko eta deuseztatzeko ingurugiro- eta osasun-kalitateko metodologiak eta irizpideak zehaztea, lantzea eta bateratzea;
- b) Hondakinak era seguruan deuseztatzeko tekniken eragingarritasuna eta irizpideak aztertzea eta herrialdeetan aplikatu daitezkeen babesteko, alor horretako aurrerapenen berri izateko eta gaiaren inguruko informazioa hedatzeko modua aztertzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Hondakinak era seguruan deuseztatzeko programek bai garatutako herrialdeak, bai garapen bidean dauden herrialdeak hartzen dituzte. Garatutako herrialdeetan, instalazioak hobetzen saiatu beharra dago kalitate ekologikoko irizpide garrantzitsuenak betetzeko. Garapen bidean dauden herrialdeetan, berriz, hondakinak tratatzeko instalazio

berriak eraikitzeko inbertsio handiak egin behar dira.

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 15.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan eta mesede moduan emango dituen 3.400 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabekoak izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Hondakinek sortutako kutsadura murriztearen hainbat alderi buruzko gidalerro zientifikoak eta ikerketa erabakigarriak izango dira programa honen helburuak lortzeko. Gobernuek, udalerrietako agintariek eta tokian tokiko agintariek ondorengoa egin beharko lukete nazioarteko erakundeen laguntzarekin:

- a) Ondorengo gaiei buruzko gidalerro eta txosten teknikoak prestatzea: Hondakinen deuseztapena giza asentamenduetarako luraren erabileraren planifikazioan sartzea, ingurugiro-kalitateari buruzko arauak eta irizpideak, hondakinak era seguruan tratatzeko eta deuseztatzeko aukerak, hondakin industrialen tratamendua eta zabortegetako operazioak;
- b) Garrantzi handian duten gaiei buruzko ikerketei ekitea, esate baterako gai hauei buruz: hondakin-urak tratatzeko merkeak eta erraz mantentzekoak diren sistemak, lokatz-hondakinak era seguruan deuseztatzeko aukerak, hondakin industrialen tratamendua eta hondakinak ekologikoki era seguruan deuseztatzeko teknologia merkeak;
- c) 34. ataleko terminoen eta xedapenen arabera, industriako hondakinak tratatzeko prozesuen inguruko teknologiak era egokian transferitzea alde biko eta alde askotako lankidetzaren tekniko programen bidez eta enprekin eta industriarekin elkarlanean, enpresa handiak eta transnazionalak barne;
- d) Batetik, jardueren arreta instalazioen erreabilitazioan, funtzionamenduan eta

mantentze-lanetan jartzea eta, bestetik, laguntza teknikoaren arreta mantentze-lanetako jardueren eta tekniken hobekuntzan jartzea; horren ondoren, hondakinak tratatzeko instalazioak planifikatu eta eraiki beharko lirateke;

- e) Udalerrietako hondakin solidoen osagai arriskutsuak jatorritik era seguruan ahalik eta gehien urruntzeko eta deuseztatzeko programak sortzea;
- f) Ur-horniketako zerbitzuekin batera hondakinak jasotzeko zerbitzuak eta hondakinak tratatzeko instalazioak egon daitezen zaintzea eta zerbitzu horiek sortzeko behar adina inbertsio egin daitezen zaintzea.

c) Giza baliabideen garapena:

Hondakinak kudeatzeko egungo jarduerak hobetzeko trebakuntza eman beharko litzateke, jarduera horietan hondakinak era seguruan biltzeko eta deuseztatzeko lanak sartzeko. Ondorengo gobernuek, nazioarteko erakundeen laguntzarekin, martxan jarri beharreko neurrien zerrenda da:

- a) Ondorengo ataletan zentratuta dagoen hezkuntza akademiko eta praktikoa ematea: batetik, kutsaduraren murrizketan; bestetik, hondakinak tratatzeko eta deuseztatzeko teknologietan eta, azkenik, hondakinekin harremana duten azpiegituren funtzionamenduan eta mantentze-lanetan. Herrialdeen artean langileen trukeak egiteko programak jarri beharko lirateke martxan;
- b) Hondakinek sortutako kutsadura murrizteko neurriak aplikatzeari eta behatzeari buruz behar den hezkuntza ematea.

d) Gaitasuna areagotzea:

Berrikuntza instituzionalak eta gaitasuna areagotzea ezinbestekoak dira herrialdeek hondakinekin lotura duen kutsadura zenbatekoa den kalkula dezaten eta gutxiagotu dezaten. Helburu hori lortzeko jarduerak ondorengoak izango lirateke:

- a) Nazio eta herri mailan ingurugiroa babesteko erakunde independenteak sortzea eta aurretik dauden erakundeak sendotzea. Nazioarteko erakundeek eta emaileek

laguntza eman beharko lukete eskulan espezializatua trebatzeko eta beharrezkoa den ekipoa eskuratzeko;

- b) Kutsaduraren aurkako erakundeei agintaldi juridikoa eta finantza-gaitasuna ematea, beren funtzioak eragingarritasunez bete ahal izan ditzaten.

D. Hondakinez arduratzen diren zerbitzuen irismena areagotzea

Ekintzarako oinarriak:

Mendearen amaierarako, 2.000 milioi pertsona baino gehiagok ez ditu oinarrizko osasun-zerbitzuak izango eta garapen bidean dauden herrialdeetako hiriko populazioaren erdiak hondakin solidoak deuseztatzeko zerbitzu egokiak ez dituela izango balioztatu da. Urtero 5,2 milioi pertsona inguru, horien artean 5 urte baino gutxiago dituzten 4 milioi haur, hondakinekin harremana duten gaixotasunek jota hiltzen dira. Osasunean sortzen dituen eraginak oso larriak dira hiriko populazio behartsuaren kasuan. Hala ere, hondakinen kudeaketa desegokiak osasunean eta ingurugiroan dituzten eraginak zerbitzurik ez dituztenen kokalekuetatik harantzago nabaritzen dira eta, gune zabalagoetan, uraren, lurraren eta airearen kutsaduran nabaritzen dira. Beraz, hondakinak era seguruan biltzeko eta deuseztatzeko zerbitzuak hedatzea eta hobetzea erabakigarriak dira kutsadura gutxitu ahal izateko.

Helburuak:

Programa honen helburu nagusia populazioari hondakinak biltzeko eta deuseztatzeko ekologikoki kaltegarria ez den eta osasuna babesten duen zerbitzua eskaintzea da. Gobernuak ondorengoa egin beharko lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuekin eta, hala dagokienean, erakunde eskudunekin elkarlanean:

- a) 2000 urterako, hondakinak biltzeko bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzuak emateko gaitasun teknikoa eta finantza-gaitasuna eta giza baliabidea izatea;
- b) 2025 urterako, hiriko populazio guztiari hondakinak deuseztatzeko zerbitzu egokiak ematea;
- c) 2025 urterako, hiriko populazio guztiarentzako hondakinak deuseztatzeko zerbitzuak eta nekazaritzako populazioarentzako ingurugiro-saneamenduko zerbitzuak izan daitezen saiatzea.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Gobernuek ondorengoa egin beharko lukete, beren gaitasunaren eta eskura dituzten baliabideen arabera eta Nazio Batuen erakundeekin eta, hala dagokienean, beste erakunde eskudunekin elkarlanean:

- a) Hondakinak kudeatzeko zerbitzuak ez dituzten guneetan, zerbitzu horiek garatzeko finantzaziorako mekanismoak martxan jartzea, baliabideak sortzeko metodo egokiak barne;
- b) Hala behar denean "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioa aplikatzea, hondakinak kudeatzeko tarifak ezartzearen bidez. Tarifa horietan zerbitzua eskaintzeko gastua islatu behar da eta hondakinak sortzen dituztenek berek ingurugiroari kalte ez egiteko moduan deuseztatzeko gastuak ordain ditzaten lortu behar da;
- c) Hondakin solidoak kudeatzeko planifikazioan eta aplikazioan komunitatearen parte-hartzea instituzionaliza dadin sustatzea.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek ondorengoa egin behar lukete, Nazio Batuen eta nazioarteko erakundeen laguntzarekin:

- a) Hondakinen produkzioa zaintzeko moduak lantzea eta aplikatzea;
- b) Datuak biltzea eta aztertzea, helburuak finkatzeko eta lortutako aurrerapenen inguruan jakinaren gainean egoteko;
- c) Aurretik dauden sistemetan oinarritutako informazioko munduko sistemari informazioa ematea;
- d) Informazio sareen jarduerak sendotzea, hondakinak deuseztatzeko irtenbide berriak eta merkeak aplikatzeari buruz aurrez aukeratutako hartzaileen artean informazio zehatza hedatzeko;

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Ur-horniketako eta saneamenduko zerbitzuak ez dituztenei zerbitzu horiek helarazteko Nazio Batuen eta beste hainbat erakunderen programa asko daude. Edateko Uraren Horniketarako eta Ingurugiro Saneamendurako Laguntza Kontseiluaren Munduko Foroa programa horiek koordinatzeaz eta lankidetzaz sustatzeaz arduratzen da gaur egun. Hala ere, zerbitzu horiek ez dituen hiriko populazio behartsua handitzen ari denez eta, horrez gain, hondakin solidoak deuseztatzeko arazoa konpontzeko beharra dagoenez, ezinbestekoa da hondakinak deuseztatzeko hiriko zerbitzuak dituen populazioa berehala handitzeko mekanismo osagarriak izatea. Nazioarteko komunitateak orokorrean eta Nazio Batuen organismo zehatz batzuek ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarraren ondoren, ingurugiroari eta kokalekuetako azpiegiturari buruzko programa martxan jartzea, Nazio Batuen sistemaren barruan alor honetan lanean ari diren erakundeen jarduerak koordinatzeko eta hondakinen kudeaketaren inguruko gaiei buruzko informazioa hedatzeko zentroa eratzeke;
- b) Hondakinak ebakutzeko zerbitzuak ez dituztenentzako zerbitzu horiek sortzea eta lortutako aurrerapenen inguruan sistematikoki informatzea;
- c) Zerbitzuen irismena hedatzeko tekniken eta metodoen eragingarritasuna aztertzea eta prozesuak bizkortzeko era berritzaileak bilatzea.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 7.500 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan eta mesede moduan emango dituen 2.600 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Nazio Batuen sistemako erakunde eskudunen laguntzarekin, gobernuek, erakundeek eta gobernuz kanpoko erakundeek garapen bidean dauden munduko lurraldeetan hainbat programa jarri beharko lituzkete martxan, hondakinak deuseztatzeko zerbitzurik ez duten herrialdeei zerbitzu horiek eskaintzeko. Ahal den guztietan, programa horiek martxan dauden jardueretan edo prestatuta daudenetan egon beharko lukete oinarrituta eta berriro orientatu beharko lirateke.

Hondakinak deuseztatzeko zerbitzuen hedapena bizkortu egin liteke nazio eta herri mailako politikak aldatuz. Aldaketa horiek ondorengoak izan litezke:

- a) Hondakinak kudeatzeko kostu gutxiko irtenbide guztiak ezagutzea eta erabiltzea, egokia denean, jarduera- eta araudi-kodeetan beren instituzionalizazioa eta sarrera barne;
- b) Hondakinen kudeaketa-zerbitzuak kokaleku guztietara hedatzeari lehentasuna ematea, behar denaren eta dagokienaren arabera. Horretarako ez da kontuan hartu behar kokalekuen egoera juridikoa zein den eta garrantzi berezia eman behar zaio hondakinak deuseztatzeko zerbitzurik ez duen populazioari –bereziki hiriko jende behartsuari– zerbitzu horiek emateko beharrak asetzeari;
- c) Hondakinen kudeaketa-zerbitzuen prestazioa eta mantentzea oinarrizko beste zerbitzu batzuekin sartzea, esate baterako ur-horniketa eta euri-uren drainatzea.

Ikerketa-jarduerak susta litezke. Esate baterako, herrialdeek ondorengoa egin dezakete, nazioarteko erakunde eta gobernuz kanpoko erakunde eskudunekin elkarlanean:

- a) Jende asko bizi den gunetarako eta hedadura txikiko uharteetarako, hondakinak kudeatzeko irtenbideak aurkitzea eta ekipoa lortzea. Bereziki, etxeko hondakinak biltzeko eta biltegiratzeko sistema egokiak eta giza jatorriko hondakinak deuseztatzeko modu errentagarriak eta higienikoak behar dira;
- b) Zerbitzurik ez duten diru-sarrera gutxiko gunetan zerbitzu horiek emateko irtenbide egokiei eta moduei buruzko gidalerroak, kasuen azterketak, politika orokorren azterketak eta txosten teknikoak prestatzea eta hedatzea;

- c) Hondakinen, bereziki etxeko hondakinen, kudeaketan komunitateak parte-hartze aktiboa izan dezan kanpainak martxan jartzea. Bereziki emakumeek eta gazteek parte har dezaten bultzatu beharko litzateke;
- d) Herrialdeen artean teknologia egokien transferentzia sustatzea, bereziki dentsitate handiko sentamenduentzako egokiak direnen transferentzia.

c) Giza baliabideen garapena:

Nazioarteko erakundeek, gobernuek eta tokian tokiko administrazioek, gobernuz kanpoko erakundeen laguntzarekin, kostu gutxiko hondakinak biltzeko eta deuseztatzeko aukeretan eta, bereziki, planifikatzeko eta martxan jartzeko beharrezkoak diren tekniketan oinarritutako trebakuntza eman beharko lukete. Trebakuntza horren barruan nazioartean garapen bidean dauden herrialdeen artean langileen arteko trukeak egitea sar liteke. Kasu berezia egin beharko litzaioke hondakinak kudeatzen dituzten erakundeetako administrazio-langileen baldintzak eta ezagutzak hobetzeari.

Administrazio teknika hobetzeak etekin handiak lortzea ekar lezake hondakinak kudeatzeko zerbitzuen eragingarritasuna areagotzearen inguruan. Nazio Batuek, nazioarteko erakundeek eta finantza-erakundeek, nazio eta herri mailako gobernuen laguntzarekin, kudeaketaren inguruko informazio-sistemak garatu eta martxan jarri beharko lituzkete, udaletako erregistroak eta kontuak mantentzeko eta eragingarritasuna eta errendimendua ebaluatzeko.

d) Gaitasuna areagotzea:

Gobernuek, erakundeek eta gobernuz kanpoko erakundeek, Nazio Batuen sistemaren organismo eskudunen laguntzarekin, hondakinak biltzeko eta deuseztatzeko zerbitzuak ez dituzten herrialdeei zerbitzu horiek emateko programak gauzatzeko gaitasuna garatu beharko lukete. Alor horretan egin beharko liratekeen jarduera batzuk ondorengoak dira:

- a) Egungo mekanismo instituzionalen barruan, zerbitzuak ez dituzten komunitate behartsuei zerbitzu horiek planifikatzeko eta emateko sail berezia sortzea, beren parte-hartzearekin;

- b) Indarrean dauden kodeak eta araudiak berrikustea, hondakinak deuseztatzeko aukera teknologiko guztiak erabiltzeko aukera emateko;
- c) Zerbitzuak planifikatzeko eta eskaintzeko erakundeen gaitasuna sustatzea eta prozedurak sortzea.

22. ATALA: Hondakin erradioaktiboen kudeaketa kaltegabea eta ekologikoki arrazionala

Programa-arloak

Hondakin erradioaktiboen kudeaketa kaltegabea eta ekologikoki arrazionala sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Erregai nuklearren zikloan eta aplikazio nuklearretan (medikuntzan, ikerketan eta industrian erradionuklidoen erabilera) hondakin erradioaktiboak sortzen dira. Hondakin erradioaktiboen arrisku erradiologikoak eta segurtasunaren inguruko arriskuak aldakorrak dira: batzuk arrisku gutxiak dira, bizitza motza eta erradioaktibitate maila txikia dituzte eta, besteak, aldiz, arrisku handiak dira, erradioaktibitate maila handia baitute. Munduan, gutxi gorabehera, erradioaktibitate maila txikiko edo ertaineko 200.000 metro kubiko hondakin sortzen dira urtean; bestalde, energia nuklearraren produkzioaren erradioaktibitate maila handiko 10.000 metro kubiko hondakin sortzen dira (betiko deuseztatzeko kontsumitutako erregai nuklearrez gain). Bolumen hauek gehitzen ari dira energia nuklearra sortzeko unitate gehiago martxan jartzen diren heinean, instalazio nuklearrak eraisten diren heinean eta erabilera erradionuklidoa areagotu egiten den heinean. Erradioaktibitate maila handiko hondakinek erradionuklidoen % 99 dute gutxigorabehera eta, ondorioz, arrisku erradiologiko gehien sortzen dituztenak dira. Aplikazio nuklearren hondakinen bolumena normalean askoz txikiagoa izaten da: normalean urteko eta herrialdeko dozenaka metro kubiko edo gutxiago. Hala ere, jardueren kontzentrazioa, bereziki zigilatutako erradiazio-iturrietan, handia izan daiteke; honek babes erradiologikorako neurri oso zorrotzak hartu izana arrazoitzen du. Hondakinen bolumenaren igoera arretaz aztertu beharreko gaia da.

Hondakin erradioaktiboen kudeaketa kaltegabea eta ekologikoki arrazionala –minimizazioaren, garraioaren eta deuseztapenaren alorrak barne– oso garrantzitsua da hondakin horien ezaugarriengatik. Energia nuklearraren inguruko programa garrantzitsuak dituzten herrialde gehienetan teknika eta administrazio aldetik neurriak hartu dira, hondakinen kudeaketa-sistema martxan jartzeko. Oraindik programa nuklear nazionala prestatzen ari diren edo aplikazio nuklear batzuk bakarrik dituzten beste herrialde askotan mota honetako sistemen beharra dago.

Helburua:

Programa-arlo honen helburua hondakinen kudeaketa, garraio, biltegitratze eta deuseztatze kaltegabeaz arduratzea da, hondakin nuklearren kudeaketaren ikuspegi interaktiboaren eta integratuaren eta segurtasunaren esparru zabalaren barruan gizakien osasuna eta ingurugiroa zaintzeko.

Jarduerak:

a) Kudeaketa-jarduerak:

Estatuek, nazioarteko erakunde eskudunekin elkarlanean, hala dagokienean, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Hondakin erradioaktiboen sorrera ahalik eta gehien gutxitzeko eta, hala behar bada, mugatzeko neurri politikoak eta praktikoak har daitezten sustatzea eta hondakin horien tratamendu, egokitzapen, garraio eta deuseztatze kaltegabeak aurreikustea;
- b) EAEIren barruan, hondakin erradioaktiboen inguruko arauak edo jarraibideak eta jarduera-kodeak prestatzeko eta promulgatzeko egiten den ahaleginari babes ematea, hondakin erradioaktiboen kudeaketa eta deuseztatze kaltegabeerako eta ekologikoki arrazionalerako nazioartean onartutako oinarri gisa;
- c) Hondakin erradioaktiboen, agortutako erradiazio-iturrien eta erreaktore nuklearrek kontsumitutako erregaien biltegitratze, garraio eta deuseztapen kaltegabeak sustatzea (batez ere, herrialde guztietan eta bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan dagoeneko erregai horiek deuseztatu egin behar direla zehaztuta badago). Horretarako herrialde horiei teknologia egokien tranferentzia erraztu beharko litzaieke edo erradioazio-iturrien hornitzaileari itzuli egin beharko litzaizkioke erabili ondoren, nazioarteko araudien edo jarraibideen arabera;
- d) Planifikazio egokia sustatzea, hala dagokionean ingurugiro-inpaktuaren eta kudeaketa kaltegabearen eta ekologikoki arrazionalaren ebaluazioa barne. Honen barruan, hondakinak sortzen dituzten jardueren aurretiko eta ondorengo larrialdiko prozedurak, biltegitratzea, garraioa eta deuseztapena sartzen dira.

b) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailatan:

Estatuek, nazioarteko erakunde eskudunekin elkarlanean, hala dagokienean, ondorengo egin beharko lukete:

- a) Hondakin Erradioaktiboen Mugaz Haraindiko Mugimenduei buruzko Jarduera Kodea aplikatzeko ahalegina bikoiztea eta, EAEIren babesean eta garraio era desberdinez arduratzen diren nazioarteko erakunde eskudunekin elkarlanean, mugimendu horien kontuei buruzko azterketa etengabe egitea, bitarteko loteslea formalizatzeko komenentzia barne;
- b) Isurketei buruzko Londresko Hitzarmena sinatu zuten aldeek erradioaktibitate maila txikiko hondakinak itsasoan deuseztatzearen inguruko egungo borondatezko etenaldiaren ordezkari debekua jartzeko azterketak osa ditzaten bultzatu beharko litzaieke. Horretarako kontuan hartu behar da arretaren printzipioa, erabaki egokiak gaiaren inguruan jakinaren gainean egonda hartzeko;
- c) Nazioartean hitzartutako eta aplikatutako printzipioen eta gidalerroen arabera datu zientifikoek biltegitatze edo deuseztatzeak gizateriari eta ingurune itsastarrari ez diela ezin onartuzko kalterik egingo frogatzen ez bada eta itsasoaren beste legezko erabilera batzuk eragozten ez baditu, aktibitate handiko, ertaineko edo txikiko hondakin erradioaktiboak biltegitatzen edo deuseztatzen ez uztea eta hori ez sustatzea. Prozesu honek arretaren printzipioan oinarrituta egon behar du;
- d) Hondakin erradioaktiboak hondakinen inportazioa indibidualki edo nazioarteko hitzarmen baten barruan debekatzen duten herrialdeetara ez esportatzea, esate baterako, Hondakin arriskutsuen inportazioa debekatzeari eta Afrikan hondakin horien mugaz haraindiko mugimenduak kontrolatzeari buruzko Bamakoko Hitzarmena, Lomeko Laugarren Hitzarmena eta inportazio hori debekatzen duten beste hitzarmen batzuek sinatu dituzten herrialdeetara ez esportatzea;
- e) Nazioarteko zuzenbidearen arabera aplikagarriak diren neurrian, lurralde mailako beste hitzarmen batzuetan onartu dituzten erabakiak errespetatzea; hitzarmen horiek ingurugiroari buruzkoak izan behar dute eta hondakin erradioaktiboen kudeaketa kaltegabearen eta ekologikoki arrazionalaren aldean ingurukoak izan behar dute.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Nazio mailan, hondakin erradioaktiboak kudeatzeko eta deuseztatzeko gastuak handiak dira eta deuseztatzeko erabiltzen den teknologiaren arabera asko aldatzen dira.

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jardurak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 8 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du. Benetako kostuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Estatuek, nazioarteko erakundeekin elkarlanean, hala dagokienean, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Erradioaktibitate maila handia duten hondakinak kalterik eragin gabe eta era ekologikoki arrazionalen tratatzeko, prozesatzeko eta deuseztatzeko (deuseztapen geologiko sakona barne) erak ikertu eta garatu daitezkeen sustatzea;
- b) Hondakin erradioaktiboak deuseztatzeak osasunean eta ingurugiroan eragin dezakeen inpaktua zehazteko ikerketa- eta ebaluazio-programak gauzatzea.

c) Gaitasuna areagotzea eta giza baliabdeen garapena:

Estatuek, nazioarteko erakunde eskudunekin elkarlanean, hala dagokienean, garapen bidean dauden herrialdeei laguntza eman beharko liekete, hondakin erradioaktiboek kudeaketarako azpiegitura eratze edota sendotzeko. Beste gauza batzuen artean, aplikazio nuklearretatik eratorritako hondakinak manipulatzeko, tratatzeko, biltegitzeko eta deuseztatzeko araudien, erakundeen, esku-lan espezializatuaren eta instalazioen bitartez lortuko litzateke hori.

III. SAILA: Talde nagusiak indartzea

23 ATALA: Hitzaurrea

Talde sozial guztien benetako dedikazioak eta parte-hartzeak bereziko garrantzia izango dute gobernuak Agenda 21en programa-arlo guztietan onartu dituzten helburuak, politikak eta mekanismoak eraginkortasunez gauzatu ahal izateko.

Garapen jasagarria lortzeko funtsezko baldintzetako bat erabakiak hartzeko unean iritzi publikoak parte-hartze zabala izatea da. Horrez gain, ingurugiroaren eta garapenaren egoera zehatzetan, argi geratu da partaidetzako era berriak erabiltzeko beharra, hain juxtu jendeak, taldeek eta erakundeek ondorengo egiteko beharra: ingurugiro-inpaktua ebaluatzeko prozesuan parte hartzeko; erabakiak hartzeko mekanismoak ezagutzeko eta mekanismo hauetan parte hartzeko, batez ere erabaki horiek berek bizi edo lan egiten duten komunitateari eragiteko aukera dagoen kasuetan. Pertsona, talde edo erakunde guztiek agintari nazionalen ingurugiroari eta garapenari buruz duten informazioa eskuratzeko aukera izan behar dute, ingurugiroan kontuan hartzeko moduko ondorioak sortzen dituzten edo sor ditzaketen produktuei eta jardueri buruzko informazioa eta ingurugiroa babesteko neurriei buruzko informazioa barne.

Agenda 21 gauzatzeaz arduratzen diren Nazio Batuen erakundearen edo organismoen lanarekin edo lan horretan gobernuaren kanpoko erakundearen parte-hartzearekin lotura duten politika, definizio edo arau guztiak modu berean aplikatu beharko lirateke talde garrantzitsu guztietan.

Ondorengo programa-arloek garapen jasagarria lortzeko ahalegin komunak babesteko gizartearen benetako partaidetza sustatzeko bideekin harremana dute.

24. ATALA: Garapen jasangarria eta zuzena lortzeko, emakumearen mesedetan mundu mailan neurriak hartzea

Programa-arloak

Ekintzarako oinarriak:

Nazioarteko komunitateak garapenaren inguruko jarduera guztietan emakumearen erabateko eta bidezko integrazioa eta integrazio mesedegarria lortzeko ekintza-plan eta konbentzio ugari babestu ditu, horien artean bereziki Nairobiko Estrategiak⁴⁴. Estrategia horiek emakumearen aurrerapenerako etorkizunera orientatuta daude eta estrategia horietan ekosistemen nazio eta nazioarte mailako antolaketan eta ingurugiroaren degradazioaren aurkako borrokan emakumearen parte-hartzea nabarmentzen da. Batetik, sexuagatiko bereizkeria desagertarazteko eta, bestetik, emakumeek lurreko baliabideak eta beste hainbat baliabide, hezkuntza eta lana segurua eta baldintza beretan eskura ditzaten bermatzeko hainbat konbentzio onartu dira, besteak beste, Emakumearen aurkako bereizkeria era guztiak desagertarazteari buruzko hitzarmena (Batzar Nagusien 34/180 ebazpena, eranskina) eta LANEren eta UNESCOren konbentzioak. Haurren Biziraupenari, Babesari eta Garapenari buruzko 90eko hamarkadako Munduko Deklarazioa eta deklarazio hau gauzatzeko Ekintza Plana (A/45/625, eranskina) ere gai honi lotuta daude. Programa hauek eragingarritasunez gauzatzea izaera politikoa eta ekonomikoa duten erabakiak hartzeko unean emakumeek duten partaidetza aktiboaren araberakoa izango da eta ezinbestekoa izango da Agenda 21 arrakastaz gauzatzeko.

Helburuak:

Gobernuei ondorengo helburuak proposatu zaizkie:

- a) Emakumearen aurrerapenerako etorkizunera orientatutako Nairobiko Estrategiak aplikatzea, bereziki ekosistema nazionalak antolatzeko eta ingurugiroaren degradazioaren aurka borroka egiteko lanean emakumeak duen parte hartzearen inguruan;
- b) Ingurugiroaren eta garapenaren alorretan, erabakiak hartzeko postuetan eta planifikazioko, aholkularitza teknikoko, zuzendaritzako eta hedapeneko postuetan emakumeen kopurua

⁴⁴ Nazio Batuen Erakundeak Hamarkadan Emakumearentzako egin dituen Lorpenak Aztertzeke eta Ebaluatzeke Munduko Biltzarraren Txostena: Berdintasuna, Garapena eta Bakea, Nairobi, 1985eko uztailaren 15etik 26ra (Nazio Batuen argitalpenak, salmenta-zenbakia: S.85.IV.10), I. atala, A saila.

areagotzea;

- c) Gehienez ere 2000 urtea baino lehen, garapen jasagarrian eta bizitza publikoan emakumearen parte-hartzea eragozten duten oztopo konstituzionalak, juridikoak, administratiboak, kulturalak, sozialak eta ekonomikoak eta portaerako oztopoak desagertarazteko beharrezkoak diren estrategiak lantzeko eta aldarrikatzeko aukera aztertzea;
- d) Nazio, lurralde eta nazioarte mailan, gehienez ere 1995 urtea baino lehen, ingurugiroari eta garapenari buruzko politikak eta programek emakumearengan zein ondorio dituzten ebaluatzeko eta politika eta programa horiek aplikatzeko mekanismoak eratzea. Horrez gain, emakumeek politika eta programa horietan lagundu dezaten eta beren etekinak jaso ditzaten lan egitea;
- e) Hezkuntza-programak eta beste mota batzuetako materialak, dagokienaren arabera, ebaluatzea, aztertzea, berrikustea eta aplikatzea, ondorengo bultzatzeko: batetik, sexuen arteko desberdintasunarekin lotutako ezagutzen hedapena eta, bestetik, emakumeak bete ditzakeen zereginen balorazioa. Hau irakaskuntza akademikoaren eta ez akademikoaren bidez eta trebakuntza-erakundeen bidez egin beharko litzateke, gobernuz kanpoko erakundeen laguntzarekin;
- f) Politika ofizialak eta gidalerro, estrategia eta plan nazional argiak formulatzea eta aplikatzea, gizartearen alde guztietan berdintasuna lortzeko. Berdintasuna lortzearen barruan, batetik, emakumearen alfabetizazioaren, eskolatzearen, elikaduraren eta osasunaren sustapena eta, bestetik, erabakiak hartzeko funtsezko postuetan eta ingurugiroaren antolaketan emakumearen parte-hartzea sartzen dira, bereziki baliabideak eskuratzeari dagokionean. Horretarako kreditu mota guztiak eskuratzeko aukera erraztu beharko litzateke, bereziki egituratu gabeko sektoreetan. Horrez gain, emakumeek jabetza-eskubideak izan ditzaten eta nekazaritzako sargaiak eta lanabesak izan ditzaten segurtatzeko neurriak hartu beharko lirateke;
- g) Herrialde bakoitzaren baldintzen arabera, berehala neurriak hartzea emakumeek eta gizonek seme-alaba kopurua eta banaketa era librean eta arduratsuan erabaki ahal izateko eskubide bera izan dezaten eta informazioa, hezkuntza eta bitartekoak eskuratzeko aukera bera izan dezaten lortzeko. Honek beren eskubide hori beren askatasunarekin, duintasunarekin eta

balio pertsonalekin bat gauzatzeko aukera eman behar lieke;

- h) Emakumearen aurkako indarkeria debekatuko lukeen legeria onartzeko, sendotzeko eta betearazteko aukera aztertzea eta emakumearen aurkako edozein indarkeria mota desagertarazteko beharrezkoak diren neurri administratiboak eta sozialak eta hezkuntzako neurriak aplikatzea.

Jarduerak:

Gobernuek aktiboki egin beharko lukete lan ondorengoa martxan jartzeko:

- a) Erabakiak formulatzeko lanetan, planifikatzaile lanetan, zuzendari lanetan, zientziaren arloko lanetan eta garapen jasangarrirako politikak eta programak formulatzeko, garatzeko eta aplikatzeko aholkulari teknikari lanetan geroz eta emakume gehiagok parte hartzeko planak lantzeko eta politikak aztertzeko neurriak;
- b) Erakundeak, gobernuz kanpoko erakundeak eta emakume-taldeak sendotzeko neurriak eta garapen jasangarrirako gaitasuna areagotzeko bitartekoak emateko neurriak;
- c) Emakumeen eta nesken analfabetismoa desagertarazteko eta hezkuntza-erakundeetan beren matrikula-kopurua gehitzeko, emakume eta neska guztiak lehen eta bigarren hezkuntzan aritzeko helburua sustatzeko eta berek zientzian eta teknologian, batez ere bigarren hezkuntzaren ondorengo mailetan, trebatzeko aukera gehiago sortzeko neurriak;
- d) Emakumeek eta neska gazteek etxean eta etxetik kanpo duten lan bolumen handia murriztu dadin sustatzeko eta etxeko lanak gizonen eta emakumeen artean berdin banatzeko programak. Horretarako, gobernuek, tokian tokiko agintariek, enplegu-emaeleek eta hala dagokien erakundeek haurtzaindegi gehiago eta eskolaurreko hezkuntza emateko erakunde gehiago sortu beharko lituzkete eta ordaindu behar dutenen ahalmenaren arabera egokituta egon beharko lukete. Horrez gain, emakumeei galdetuta landu, garatu eta hobetu diren teknologia ekologikoki bideragarrien horniketa, kontsumorako ur-horniketa zuzena eta saneamenduko erregai eta zerbitzu egokien horniketa eragingarria sustatzeko programak;
- e) Osasun prebentiboko eta sendagarriko zerbitzuak eratzeko eta sendotzeko programak. Programa horiek emakumean zentratuta eta berek administratuta egon beharko lukete, eta beren barruan, batetik, ugalketa-osasuneko zerbitzu seguruak eta eragingarriak eta, bestetik,

familiaren tamaina egokiaren planifikazioa era arduratsuan eta, hala dagokienean, askatasunarekin, duintasunarekin eta balore pertsonalekin bat datozen zerbitzuak hartu beharko lituzke. Programek osasun-zerbitzu orokorren prestazioan –jaioaurreko arreta-zerbitzuak eta osasunaren eta gurasotasun arduratsuaren inguruko hezkuntza eta informazioa barne direla– zentratuta egon beharko lukete; horrez gain, emakumeei beren haurrak guztiz eradoskitzeko aukera eman beharko litzaieke, gutxienez haurra izan eta lehenengo lau hilabeteetan zehar. Programek emakumearen produkzio- eta ugalketa-funtzioetan eta bere ongizatean egon beharko lukete oinarrituta eta haur guztiei, berdintasunean, osasun-zerbitzu hobek emateko beharrari eta amek eta seme-alabek gaixotzeko eta hiltzeko duten arriskua murrizteko beharrari kasu berezia egin beharko liekete;

- f) Bai sektore egituratuan, bai egituratu gabean, emakumeek lanean aukera berdinak izan ditzaten eta ordainsari berdinak jaso ditzaten babesteko eta areagotzeko programak. Hau babes ekonomiko, politiko eta sozial egokiko sistemen eta zerbitzuen bidez egingo litzateke eta programa hauen barruan haurrentzako arreta-zerbitzuak –batez ere hartzaindegiak–, aitentzako baimenak eta, azkenik, kredituak, lurrak eta beste baliabide natural batzuk baldintza beretan eskuratzeko aukerak sartu beharko lirateke;
- g) Nekazaritzako guneeetan banku-sistemak martxan jartzeko programak, nekazaritzako guneeetako emakumeei kredituak eta nekazaritzarako sargaiak eta lanabesak eskuratzeko aukera errazteko eta areagotzeko;
- h) Kontsumitzaileen ezagutza eta emakumearen parte-hartze aktiboa areagotzeko programak. Programak horiek, bereziki herrialde industrializatuetan, kontsumo eta produkzio jasangarrien ereduak murrizteko edo deuseztatzeko beharrezko aldaketak egiteko lanean emakumeen zeregin erabakigarria nabarmendu beharko lukete, jarduera produktibo ekologikoki arrazionalan inbertsioak sustatzeko eta ingurugiroaren eta ikuspuntu sozialaren aldetik industriaren garapen zuzurra eragiteko;
- i) Sozializazio-motetan, komunikabideetan, iragarkietan eta irakaskuntza akademikoan eta ez akademikoan aldaketak egitearen bidez, emakumearen aurka dauden irudiak, ideia estereotipatuak eta portaera negatiboak eta aurreiritziak deuseztatzeko programak;

- j) Alor honetan egindako aurrerapenak aztertzeko neurriak. Horien artean azterketa-txosten bat prestatzea eta 1995ean emakumeari buruz egin beharreko mundu mailako biltzarrerako gomendioak dituen ebaluazioak egitea.

Gobernuek, orain arte hala egin ez badute, emakumearen inguruko hitzarmen guztiak berretsi ditzaten bultzatu behar da. Hitzarmenak berretsi dituztenek betearazi egin beharko lituzkete eta prozedura juridikoak, konstituzionalak eta administratiboak eratu beharko lituzkete onartutako eskubideak nazioko lege bilakatzeko. Horrez gain, lege horiek aplikatzeko neurriak hartu beharko lituzkete emakumearen gaitasun juridikoa sendotzeko eta garapen jasangarriaren inguruko auzietan eta erabakietan bere parte-hartze osoa eta berdina bultzatzeko.

Emakumearen aurkako bereizkeria era guztiak desagertarazteari buruzko hitzarmeneko estatuek hitzarmena aztertu beharko lukete eta 2000 urtea baino lehen zuzenketak proposatu beharko lituzkete, ingurugiroari eta garapenari buruzko hitzarmeneko elementuak sustatzeko. Horretarako kasu berezia egin behar zaie baliabide naturalak, teknologia, finantzazio-modu berritzaileak eta kostu gutxiko etxebizitzak eskura eduki ahal izateko auziei eta erabiltzeko eskubideei, baita etxean eta lanean kutsaduraren eta toxikotasunaren aurkako borrokari ere. Hitzarmeneko alde diren estatuek ingurugiroak eta garapenak konbentzioaren barruan zein garrantzi izango duten zehaztu beharko lukete eta emakumearen aurkako bazterkeria desagertarazteko batzordeari auzi horien inguruko txostenak aurkezteari buruzko gidalerroak lantzeko eskatu beharko liokete, hitzarmenaren artikulua batzuetan adierazten denaren arabera.

a) Berehalako neurriak hartzeko eskatzen duten multzoak:

Herrialdeek neurriak hartu behar dituzte berehala garapen bidean dauden herrialdeetako ingurugiroan eta ekonomian gertatzen ari den degradazio azkarrari aurre hartzeko. Degradazio honek, oro har, nekazaritzako lurretako emakumeen eta haurren bizitzari eragiten die; emakume eta haur horiek, gainera, lehortearren, desertifikazioaren eta baso-soiltzearen, armaden arteko borroken, hondamendi naturalen eta hondakin toxikoen eraginak eta produktu kimiko ezegokiak erabiltzearen ondorioak ere jasaten dituzte.

Helburu horiek lortzeko, erabakiak hartzeko garaian eta garapen jasangarria lortzeko jarduerak gauzatzeko garaian parte hartu beharko luke emakumeak.

b) Ikertzea, datuak biltzea eta informazioa hedatzea:

Herrialdeek, erakunde akademikoen eta ikertzaile lokalen laguntzarekin, datu-baseak eta politiken inguruko informazio- eta azterketa-sistemak sortu beharko lituzkete. Horrez gain, partaidetza bultzatzeko ekintzara bideratutako ikerketak egin beharko lituzkete, sexuen arteko desberdintasunak kontuan hartuta. Ikerketek ondorengo alorren ingurukoak izan beharko lukete:

- a) Baliabide naturalen kudeaketari eta kontserbazioari buruz emakumearen ezagutzaren eta esperientziaren ingurukoak. Ezagutza eta esperientzia horiek garapen jasangarria lortzeko informazio-sistemen datu-baseetan sartu beharko liriateke;
- b) Egiturak doitzeko programek emakumearengan dituzten ondorioen ingurukoak. Egiturak doitzeko programei buruzko ikerketetan, programa hauek bereziki emakumearengan zein era desberdinetan eragiten duten begiratu beharko litzateke, batez ere gizarte-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak murrizteari eta elikadurarentzako eta erregaiarentzako laguntzak desagertarazteari dagokienean;
- c) Ingurugiroaren degradazioak –bereziki lehorteek, desertifikazioak, produktu kimiko toxikoek eta armaden arteko borrokek– emakumearengan dituen ondorioen ingurukoak;
- d) Gizonek eta emakumeek betetzen dituzten funtzioen eta ingurugiroaren eta garapenaren artean dauden lotura estrukturalen ingurukoak;
- e) Ordaindu gabeko lanaren balioa eta gaur egun "etxeko lana" esaten zaion lana baliabideen zenbaketa-mekanismoetan sartzearen ingurukoak, emakumeak ekonomiari egiten dion ekarpenaren benetako balioa hobeto irudikatzeko. Horretarako, 1993an argitaratuko den Nazio Batuen kontu nazionaletarako sistemarako berrikusitako gidalerroak erabili beharko liriateke;
- f) Programak eta politikak formulatzeko eta behatzeko oinarrizko elementu gisa, ingurugiroan, gizartean eta sexu bakoitzean sortutako eraginen inguruko azterketak gauzatzeko eta kontuan hartzeko neurrien ingurukoak;
- g) Garatutako herrialdeetako eta garapen bidean dauden herrialdeetako nekazaritzako eta hiriko guneetan trebakuntza-, ikerketa- eta informazio-zentroak sortzeko programen ingurukoak, emakumeari teknologia ekologikoki arrazionalen berri emateko.

c) Lankidetzeta eta koordinazioa nazioarte eta lurralde mailan:

Nazio Batuen idazkari nagusiak erakundearen instituzio guztien egokitasuna aztertu behar luke, baita emakumearen lanari arreta berezia eskaintzen diotenak ere, garapeneko eta ingurugiroko helburuak bete ahal izateko; horrez gain, beren gaitasuna sendotzeko gomendioak formulatu beharko lituzke. Alor honetan, arreta berezia izatea merezi duten erakundeak ondorengoak dira: Emakumearen Aurrerapenetarako Saila (Garapen Sozialerako eta Giza Arazoetarako Zentroa, Nazio Batuen Vienako bulegoa), Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Funtza (UNIFEM), Emakumearen Promoziorako Nazioarteko Ikerketa eta Trebakuntza Zentroa (INSTRAW) eta lurraldeetako batzordeen emakumearen inguruko programak. Azterketa horretan, Agenda 21 gauzatzeko garaian Nazio Batuen sistemako organo guztien ingurugiroko eta garapeneko programak sendotzeko modua eta garapen jasangarriarekin lotura duten programetan eta erabakietan emakumea sartzeko modua aztertu beharko lirateke.

Nazio Batuen sistemako organo guztiek goi karguetako postu exekutiboetan eta erabakiak hartzeko postuetan zenbat emakume dauden berrikusi beharko lukete eta, hala behar izanez gero, kopuru hori areagotzeko programak onartu beharko lituzkete, Idazkaritzan emakumearen baldintzak hobetzeari buruzko kontseilu ekonomiko eta sozialearen 1991/17 ebazpenaren arabera.

UNIFEMek galdeketak egin beharko lituzke aldian-aldian emaileen artean, UNICEFen laguntzarekin, garapen jasangarriaren eta erabakiak hartzeko garaian emakumearen parte-hartzea –batez ere diru-sarrera gutxi dituzten emakumeen parte-hartzea– areagotzeko garapen jasangarriarekin lotura duten operazio-proiektuak eta -programak sustatzeko. GNBPk ingurugiroari eta garapenari buruzko koordinazio-zentro bana sortu behar luke emakumearentzako bere ordezkari egoiliar bakoitzaren bulegoetan, alor hauetan informazioa emateko eta esperientziaren eta informazioaren trukea sustatzeko. Biltzarreko jardueri jarraipena egiten eta Agenda 21 gauzatzen parte hartuko duten Nazio Batuen sistemako erakundeek, gobernuek eta gobernuz kanpoko erakundeek politika, programa eta jarduera guztietan sexuen arteko desberdintasunei buruzko kontuak erabat kontuan hartzeko lan egin beharko lukete.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 40 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako kostuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

25. ATALA: Haurtzarora eta gaztarora garapen jasangarrian

Sarrera

Munduko biztanleen % 30 gazteak dira. Ingurugiroari eta garapenari buruzko erabakiak hartzeko garaian eta programak gauzatzeko garaian gazteek parte hartzea ezinbestekoa da Agenda 21ek denbora luzean arrakasta izan dezan.

Programa-arloak

A. Ingurugiroa babesteko eta garapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko garaian gazteen lana eta beren parte-hartze aktiboa bultzatzea

Ekintzarako oinarriak:

Mundu osoko gazte guztiek erabakiak hartzeko prozesuetan, maila guztietan, aktiboki parte-hartzea ezinbestekoa da, izan ere egungo beren bizitzak etorkizunean izango du eragina. Gazteen ekarpen intelektualaz eta berek babesa mugiarazteko duten gaitasunaz gain, gazteek gauzak aztertzeke era berezia dute eta hori kontuan hartzekoa da.

Nazioarteko komunitatean neurri eta gomendio asko proposatu dira gazteek etorkizun seguruz eta osasun onaz goza dezaten arduratzeko, baita kalitatezko ingurugiroaz, bizi-kalitate hobez eta hezkuntzarako eta lanerako aukerez goza dezaten ere. Gai hauek kontuan hartu behar dira garapena planifikatzeko garaian.

Helburuak:

Gazte-elkarteei kontsulta egin ondoren, herrialde bakoitzak prozesu bat sortu beharko luke gazte-elkarteen eta gobernuaren artean maila guztietan elkarrizketa sustatzeko; horrez gain, gazteek informazioa eskuratzeko aukera izateko mekanismoak eratu beharko lituzke eta mekanismo horiek erabaki ofizialen inguruan, baita Agenda 21ean gauzatzean ere, beren iritziak emateko aukera segurtatu beharko liekete gazteei.

2000 urterako, herrialde bakoitzak ondorengoa segurtatu beharko luke: gazteen % 50 bigarren hezkuntzan edo pedagogia-programetan edo lanbide-heziketako programetan matrikulatuta egotea edo hauetan sartzeko aukera izatea; gainera, bi sexuetako kopuruak antzekoak izatea.

Horrez gain, partaidetza- eta sarrera-indizeak igoarazi egin beharko lituzkete urtetik urtera.

Herrialde guztiek gazteen arteko langabezia-maila jaisteko ekimenak jarri beharko lituzkete martxan, bereziki langabezia-tasa orokorrekin alderatuta kopuru hauek gehiegizkoak diren herrialdeetan.

Herrialde guztiek eta Nazio Batuek gazteen ordezkariak Nazio Batuen prozesu guztietan parte hartzeko mekanismoak sustatu eta sortu daitezten lagundu beharko lukete, gazteek prozesu horietan eragina izan dezaten.

Herrialde guztiek gazteen, bereziki emakume gazteen eta neskatilen, giza eskubideak urratzearen aurka borroka egin beharko lukete eta gazte guztiei beren helburu eta aukera pertsonalak, ekonomikoak eta sozialak gauzatzeko behar dituzten babes juridikoa, ezagutza teknikoak, aukerak eta babesa segurtatzeko modua aztertu beharko lukete.

Jarduerak:

Gobernuek, beren estrategien arabera, ondorengo neurriak hartu beharko lituzkete:

- a) Gehienez ere 1993rako, herri, nazio eta lurralde mailan, ingurugiroari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan kontsultak egitea eta bi sexuetakoko gazteek parte hartzeko aukera izatea aurreikusten duten prozedurak eratzea;
- b) Gazteen erakundeekin elkarrizketa sustatzea, garapenarekin harremana duten gaiei eta ingurugiroari buruzko planak eta programak idazteko eta ebaluatzeko garaian;
- c) Nazioarte, lurralde eta herri mailako gazteen beste foro batzuetako biltzarretan, garapen sozialaren eta ekonomikoaren inguruko eta baliabideen kudeaketaren inguruko gazteen erabakiak barne hartzen dituzten gomendioak dagozkien politiketan sartzeko aukera aztertzea;
- d) Gazte guztiek hezkuntza-mota guztietan sartzeko aukera izan dezaten arduratzea eta, hala behar denean, beste hezkuntza-sistema batzuk martxan jartzea; hezkuntzak gazteen behar ekonomikoak eta sozialak isla ditzan arduratzea eta hezkuntza-programa guztietan sentsibilizazio ekologikoaren eta garapen jasangarriaren kontzeptuak sar daitezten arduratzea. Horrez gain, lanbide-heziketa zabaltzea, ezagutza praktikoak areagotzeko metodo berritzaileak aplikatuz, esate baterako, ingurugiroarekin harremana duten esplorazio-

jarduerak aplikatuz;

- e) Ministerio eta erakunde eskudunekin eta gazteen ordezkariekin elkarlanean, lanerako aukerak sortzeko eta bi sexuetako gazteei eskatzen zaien trebakuntza emateko estrategiak lantzea eta aplikatzea;
- f) Gazteek eta gobernuz kanpoko gazte-erakundeek osatutako lan-taldeak eratzea, populazio gazteari zuzenduta, gazteentzako berebiziko garrantzia duten gaien inguruko hezkuntza- eta sentsibilizazio-programak lantzeko. Lan-talde hauek irakaskuntza akademikoko eta ez akademikoko metodoak erabili beharko lituzkete ahalik eta jende gehienarengana iristeko. Nazio eta herri mailako komunikabideek, gobernuz kanpoko erakundeek, ekonomia-elkargoek eta beste erakunde batzuek beren lehiaketak eskaini beharko lizkiekete lan-talde hauei;
- g) Programei, proiektuei, sareei, erakunde nazionaleri eta gobernuz kanpoko gazte-erakundeei babesa ematea, programak proiektuen beharren arabera integratzea aztertzeko; horrez gain, proiektuen aukeraketan, formulazioan, gauzatzean eta jarraipenean gazteen parte-hartzea sustatzea;
- h) Batzar Nagusiak 1968an, 1977an, 1985ean eta 1989an onartutako xedapenetan esaten denaren arabera, nazioarteko bileretako beren ordezkarietan gazteen ordezkariak gehitzea.

Gazteentzako programak dituzten nazioarteko erakundeek eta Nazio Batuek neurriak hartu beharko lituzkete ondorengoa egiteko:

- a) Gazteekin harremana duten beren programak aztertzeko eta beren arteko koordinazioa nola areagotu aztertzeko;
- b) Gobernuen, gazteen erakundeen eta gobernuz kanpoko beste erakundeen gazteen egungo egoeraren eta beren jardueren inguruko informazioaren hedapena areagotzeko; horrez gain, Agenda 21 gauza dadin zaintzeko eta ebaluatzeko;
- c) Gazteen Nazioarteko Urterako Nazio Batuen Funts Fiduziariora sustatzeko eta funts honen administrazioan gazteen ordezkariekin elkarlanean aritzeko; horretarako, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako gazteen beharrei egin behar zaie kasu.

Gauzatzeko bideak:

Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 1,5 dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta dohaintza edo mesede gisa emango dituzte. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

B. Haurrak eta garapen jasangarria

Ekintzarako oinarriak:

Haurrek Lurra zaintzeko ardura hartuko dute oinordetzan eta horren inguruan kontuan hartu behar da garapen bidean dauden herrialde askotan populazioaren erdia baino gehiago osatzen dutela. Horrez gain, garapen bidean dauden herrialdeetako haurrek eta herrialde industrializatuetakako haurrek ingurugiroaren degradazioaren eraginean aurrean zaugarritasun-maila berbera dute. Halaber, ingurugiroa zaintzeko beharraren aldekoak dira. Ezinbestekoa da ingurugiroarekin eta garapenarekin lotutako partaidetza-prozesuan haurtzaroko interes zehatzak guztiz kontuan hartzea, etorkizunean ingurugiroa hobetzeko hartzen diren neurrien jarraipena babesteko.

Helburuak:

Gobernuek ondorengoaz arduratu beharko lukete, beren politiken arabera:

- a) Haurren biziraupenaz, babesaz eta garapenaz arduratzea, Haurren aldeko 1990ko Munduko Gailurrean sinatutako helburuen arabera (A/45/625, eranskina);
- b) Haurren interesak guztiz kontuan hartzen direla behatzea, bereziki garapen jasangarriaren eta ingurugiroa hobetzearen alorretan.

Jarduerak:

Gobernuek neurri erabakigarriak hartu beharko lituzkete ondorengoaz arduratzeko:

- a) Haurtzaroaren aldeko programak gauzatzea. Programa hauek 90eko hamarkadan ingurugiroari eta garapenari buruzko alorretan haurtzaroaren inguruan jarritako helburuak lortzera bideratuta egongo lirateke, bereziki osasunaren, elikaduraren, alfabetizazioaren eta pobrezioa gutxitzearen alorretan;
- b) Sortzen den lehenengo aukeran Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (1989ko azaroaren 20ko Batzar Nagusiaren 44/25 xedapena, eranskina) berrestea eta aplikatzea, gaztaroko eta haurtzaroko oinarrizko beharrak kontuan hartuta;
- c) Ingurugiroa babesteko oinarrizko jarduerak sustatzea, komunitateen oinarrizko beharrei erantzuteko; etxean eta komunitatean haurrentzako onuragarriagoa den ingurugiroa

sortzea eta tokian tokiko biztanleen –bereziki emakumeen, gazteen, haurren eta herrialde indigenen– parte-hartzea sustatzea. Horrez gain, agintari izendatzea, komunitate mailan baliabideen antolakuntza integratua lortzeko, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan;

- d) Haurrak eta gazteak eskolatzeko aukerak hedatzea eta ingurugiroaren eta garapenaren alorretan arduraren kontzientzia sortzeko hezkuntza hedatzea. Horrez gain, nesken hezkuntzari kasu berezia egitea;
- e) Komunitateak eskola eta osasun-zentro lokalen bidez mugiaraztea, ingurugiroaren gaiei buruz komunitatea sentibilizatzeko garaian haurrak eta beren gurasoak helburu nagusi izan daitezen;
- f) Herri, lurralde eta nazio mailan, haurren interesak ingurugiroarekin eta garapenarekin lotutako politika eta estrategia guztietan sartzeko prozedurak eratzea; politika eta estrategia horien artean ondorengo gaiekin lotura dutenak egongo lirateke: batetik, baliabide naturalen esleipena eta baliabide horiek erabiltzeko eskubidea; bestetik, etxebizitza eta aisialdirako beharrak eta, azkenik, kutsaduraren eta toxikotasunaren aurkako borroka, bai nekazaritzako guneeetan, bai hiriko guneeetan.

Nazioarteko eta lurraldeko erakundeek beren lankidetzak eskaini beharko lukete eta proposamen-multzoen koordinazioaz arduratu beharko lukete. UNICEFek Nazio Batuen beste erakundeekin, gobernuekin eta gobernu kanpoko erakundeekin elkarlana egiten jarraitu beharko luke haurren aldeko programak eta aurrez aipatutako jardueretara bideratutako haurren programak formulatzeko garaian.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Finantzazioaren inguruko jarduera gehien beharrak beste programetako kalkuluetan sartu dira.

b) Giza baliabideen garapena eta gaitasuna areagotzea:

Atal honetako jarduerak gaitasuna eta hezkuntza areagotzearekin harremana duten ekimenak bultzatzeko Agenda 21eko beste ataletan aipatzen diren jarduerak bultzatu beharko lituzkete.

26. ATALA: Herrialde indigenen eta beren komunitateen zeregina onartzea eta sendotzea

Programa-arloak

Ekintzarako oinarriak:

Herrialde indigenek eta beren komunitateek harreman historikoa izan duten beren lurrekin, eta, oro har, lur horietako jatorrizko biztanleen ondorengo izaten dira. Atal honetan, "lurrak" hitzaren barruan populazio horiek tradizionalki bizi diren gunetako ingurugiroa sartzan dela ulertu behar da. Herrialde indigenek eta beren komunitateek munduko populazioaren zati handi bat osatzen dute. Belaunaldi askotan zehar beren lurren, beren baliabide naturalen eta ingurugiroaren inguruko ezagutza zientifiko tradizional holistikoak bildu dituzte. Herrialde indigenek eta beren komunitateek oinarritzko giza eskubideez eta askatasunaz guztiz gozatu behar dute inolako trabarik eta diskriminaziorik gabe. Beren lurretan garapen jasangarriaren jardueretan erabat parte hartzeko aukerak murriztu egin dira pixkanaka, ekonomiaren, gizartearen eta historiaren inguruko faktoreen emaitza gisa. Inguru naturalaren eta bere garapen jasangarriaren eta herrialde indigenen ongizate kulturalaren, sozialaren, ekonomikoaren eta fisikoaren arteko elkarrekiko harremana kontuan hartuta, garapen ekologikoki arrazionala eta jasangarria lortzeko nazio eta nazioarteko jardueretan herrialde indigenen eta beren komunitateen lana onartu, sustatu eta sendotu egin beharko litzateke eta lekua egin beharko litzateke.

Beste programa-arlo batzuetako xedeei eta jarduerari atxikitako helburu batzuk dagoeneko adierazita daude nazioarteko bitarteko juridikoetan, esaten baterako LANeren Herrialde indigenei eta tribuen herrialdeei buruzko konbenioan (169 zenbakia). Bitarteko juridiko horiek Giza Eskubideen Batzordeko Herrialde Indigenei buruzko Nazio Batuen Lan Taldea prestatzen ari den herrialde indigenen eskubideei buruzko deklarazio unibertsalaren proiektuan sartzan ari dira. Munduko Herrialde Indigenen Nazioarteko Urtea (1993) –1990eko abenduaren 18ko Batzar Nagusiak 45/164 xedapenean onartutakoa– aukera egokia da nazioarteko lankidetzaren teknika eta finantza-lankidetzaren mugiarazten jarraitzeko.

Helburuak:

Herrialde indigenei eta beren komunitateei beren lankidetzaren osoa emateko garaian, gobernuek eta, hala dagokienez, gobernuarteko erakundeek ondorengo helburuak proposatu beharko litzateke:

- a) Herrialde indigenei eta beren komunitateei agintea emateko prozesuak eratzea. Prozesu horiek ondorengo puntuak barruan izango dituzten neurriak hartzearen bidez eratu beharko lirateke:
- i) Nazio mailan, bitarteko juridiko edo politika egokiak onartzea edo berrestea;
 - ii) Herrialde indigenen eta beren komunitateen lurrek ingurugiroarentzako arriskutsuak diren jardueren aurrean babestuta egon behar dutela onartzea edo ikuspuntu sozialetik eta kulturaletik herrialde indigenak desagokitzat jotzen dituen jardueren aurrean babestuta egon behar dutela onartzea;
 - iii) Beren balioak, ezagutza tradizionalak eta baliabideak antolatzeko jarduerak onartzea, garapen ekologikoki arrazionala eta jasangarria sustatzeko helburuarekin;
 - iv) Baliabide berriztagarrien, ekosistemen eta ustiapen jasangarriaren menpekotasun tradizionalak eta zuzenak herrialde indigenen eta beren komunitateen ongizate kulturalerako, ekonomikorako eta fisikorako ezinbestekoa izaten jarraitzen duela onartzea;
 - v) Lurraren antolaketarekin eta baliabideen kudeaketarekin lotura duten arazoak konpontzeko eztabaiden irtenbideei buruzko nazioko hitzarmenak eratzea eta sendotzea;
 - vi) Beste produkzio-bide ekologikoki arrazionalak sustatzea, garapen jasangarrian eragingarritasunez parte hartu ahal izan dezaten, bizi-kalitatea hobetzeko beste aukera batzuk segurtatzeko;
 - vii) Komunitate indigenen gaitasuna areagotzeari arreta eskaintzea, esperientzien, ezagutzen eta baliabideak antolatzeko jarduera tradizionalen egokitzapena eta trukea oinarri hartuta, komunitate horien garapen jasangarria segurtatzeko;
- b) Hala behar denean, baliabideak antolatzearekin lotura duten nazio mailako politikak, legeak eta programak eta berei eragin diezaieketen beste edozein prozesu formulatzeko garaian herrialde indigenen eta beren komunitateen parte-hartze aktiboa areagotzeko hitzarmenak eratzea. Horrez gain, gai horien inguruko politiken eta programen mesedetan

proposamenak formula ditzaten bultzatzeko hitzarmenak areagotzea;

- c) Nazio eta herri mailan, herrialde indigenek eta beren komunitateek baliabideak antolatzeke eta kontserbatzeke estrategietan eta beste programa batzuetan parte hartzea; estrategia eta programa horiek garapen jasangarriko estrategiak babesteko eta aztertzeke erata egongo lirakeke, Agenda 21eko beste programa-arlo batzuetan iradokitzen direnak bezala.

Jarduerak:

Agian beharrezkoa da, lege nazionalarekin bat, herrialde indigena batzuek eta beren komunitateek beren lurak kontrolatzeko aukera gehiago izatea, beren baliabideen antolaketaz arduratzea, berei eragiten dien garapenari buruzko erabakiak hartzeke garaian parte hartzea eta, hala dagokienez, gune babestuak eratzeko edo antolatzeke garaian parte hartzea. Ondoren gobernuek onartu ditzaketen neurri zehatz batzuk aipatzen dira:

- a) Herrialde indigenen eta beren komunitateen inguruan indarrean dauden nazioarteko hitzarmenak berresteko eta aplikatzeko aukera aztertzea (oraindik egin ez den tokietan) eta Batzar Nagusiak herrialde indigenen eskubideei buruzko deklarazioa onar dezan babestea;
- b) Batetik, herrialde indigenek beren sistema eta jardura ohiturazkoak eta administratiboak zaintzeke duten eskubidea eta, bestetik, indigenen jabetza intelektuala eta kulturala babesten dituzten politikak edo bitarteko juridikoak onartzea edo berrestea.

Nazio Batuen erakundeek, nazioarte beste finantza- eta garapen-erakundeek eta gobernuek, dagokienaren arabera herrialde indigenen eta beren komunitateen parte-hartze aktiboan oinarrituta, besteak beste ondorengo neurriak hartu beharko lituzkete beren balioak, iritziak eta ezagutzak eta emakume indigenaren ekarpen bikaina baliabideak antolatzeke politiketan eta programetan eta berei eragin diezaieketen beste politiketan eta programetan sartzeko:

- a) Nazioarteko erakunde bakoitzean koordinazio-zentro berezia izendatzea; urtero erakundeen artean bilera koordinatuak antolatzea, dagokienaren arabera gobernuei eta erakunde indigenei galdetuta, eta erakunde operazional bakoitzean eta erakundeen artean prozedurak sortzea gobernuei laguntza emateko. Honen helburua herrialde indigenen iritzia etengabe eta koordinaturik politiken eta programen lanketan eta aplikazioan sartzea da. Prozedura honekin bat, herrialde indigenei eta beren komunitateei informazioa eskaini beharko litzaieke, kontsultak egin beharko lirakeke eta nazio mailako erabakiak hartzeke

- garaian parte hartzen utzi behar litzaieke, bereziki lurralde eta nazioarte mailako lankidetzako ahaleginei dagokienean. Horrez gain, politika eta programa horietan indigenen herri mailako ekimenetan oinarritutako estrategiak guztiz hartu beharko lirateke kontuan;
- b) Gaitasuna areagotzeko programei teknika- eta finantza-laguntza ematea herrialde indigenen eta beren komunitateen garapen autonomo jasangarriari babesa emateko;
- c) Ondorengora bideratutako ikerketa- eta irakaskuntza-programak sendotzea:
- i) Herrialde indigenek ingurugiroarekin lotuta kudeaketaren inguruan dituzten ezagutzak eta esperientzia hobeto uler daitezzen lortzeko eta uneko garapenaren arazoetara aplikatzeko programak;
 - ii) Herrialde indigenen baliabideak antolatzeko sistemen eragingarritasuna areagotzeko programak, esate baterako berrikuntza teknologiko egokien egokitzapena eta hedapena sustatuz;
- d) Herrialde indigenek eta beren komunitateek baliabideak antolatzeko eta kontserbatzeko estrategietan (adibidez, Munduko Ingurugiro Funtsaren eta Tropikoetako Basogintzako Ekintza Planaren bidez finantzatutako proiektu egokiekin harremanetan aplika daitezkeenetan) eta Agenda 21en aurreikusitako jardueretan egiten dituzten ahaleginei laguntzea, horien artean garapen jasangarriarekin lotura duten proiektuak babesteko beste mota batzuetako datuen eta informazioaren bilketari, analisiari eta erabilerari buruzko programetan egiten dituzten ahaleginei laguntzea.

Gobernuek, herrialde indigenekin eta beren komunitateekin elkarlanean, dagokienaren arabera, ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Herrialde indigenekin eta beren komunitateekin kontsultak egiteko mekanismo nazionalak sortzea edo sendotzea, batetik, beren beharrak kontuan hartzeko eta, bestetik, beren balioak eta ezagutza eta jardura tradizionalak edo beste mota batzuetakoak baliabide naturalen antolaketari eta kontserbazioari buruzko politika eta programa nazionaletan eta beren herrialdeei eragin diezaieketen garapeneko beste programa batzuetan sartzeko;
- b) Dagokionaren arabera, lurralde mailan elkarlanean aritzea, indigenen auzi komunez jarduteko. Hau garapen jasangarrian herrialde horien parte-hartzea onartzeko eta

areagotzeko egin beharko litzateke.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 3 milioi dolarrekoak izango dela balioztatu du, eta dohaintza edo mesede gisa emango dituzte. Kalkulu horiek adierazleak eta batez bestekoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b) Mekanismo juridikoak eta administratiboak:

Gobernuek, kaltetutako herrialde indigenekin elkarlanean, herrialde indigenen eta beren komunitateen eskubideak eta ardurak herrialde bakoitzeko legedietan sartu beharko lituzkete, egoera bakoitzaren arabera ahalik eta modurik egokienean. Garapen bidean dauden herrialdeek jarduera hauek gauzatu ahal izateko laguntza teknikoa eska dezakete.

c) Giza baliabideen garapena:

Nazioarteko garapeneko erakundeek eta gobernuek herrialde indigenen eta beren komunitateen hezkuntzarako eta trebakuntzarako finantza-baliabideak eta beste mota batzuetakoak bideratu beharko lituzkete, beren garapen autonomo jasangarria lortzeko, nazio mailan garapen jasangarriari eta zuzenari ekarpenak egiteko eta bertan parte hartzeko aukera izateko. Kasu berezia egin beharko litzaiokie emakume indigenaren papera sendotzeari.

27. ATALA: Garapen jasangarria lortzeko lanean elkartutako gobernuz kanpoko erakundeen lana sendotzea

Programa-arloak

Ekintzarako oinarriak:

Gobernuz kanpoko erakundeek funtsezko zeregina betetzen dute demokrazia esku-hartzaileari forma emateko garaian eta demokrazia mota hori aplikatzeko garaian. Gizartean betetzen duten lan arduratsuari eta konstruktiboari esker ospe handia dute. Erakunde ofizianak eta ez ofizialak eta herri-mugimenduak Agenda 21 gauzatzeko kide gisa onartu beharko lirateke. Gobernuz kanpoko erakundeek gizartean betetzen duten lan independenteak benetako parte-hartzea eskatzen du. Beraz, independentzia gobernuz kanpoko erakundeen ezaugarri nagusietako bat da eta benetan parte hartzeko aurretiko baldintza.

Nazioarteko komunitatearen arazo nagusietako bat hauxe da, gizarteko sektore guztietan helburu komuna izaten saia daitezen sustatzeko beharra; hori garapeneko ezin eutsizko ereduaren ordeztu garapen era ekologiko arrazional eta jasangarria bultzatuz egin beharko litzateke. Hori sektore guztiek lan sozialeko eta elkarrizketako benetako enpresan parte hartzeko duten borondatearen araberakoa izango da, baina, era berean, bakoitzaren funtzioen, arduren eta gaitasun berezien independentzia onartu beharko dute.

Agenda 21eko sail honek aipatzen dituen taldeen ordezkari diren irabazi-asmorik gabeko erakundeekin batera, gobernuz kanpoko erakundeek ongi finkatutako esperientzia, trebetasun eta gaitasun ugari dituzte garapen jasangarria, ekologikoki arrazionala eta sozialki arduratsua aplikatzeko eta aztertzeko garrantzi berezia duten alorretan, Agenda 21en aurreikusten den bezala. Beraz, gobernuz kanpoko erakundeen komunitateak mundu mailako sarea eskaintzen du eta sare hori erabili eta sendotu egin beharko litzateke eta eskumenak eman beharko litzazkioke helburu komun horiek lortzeko jarduerak babesteko.

Gobernuz kanpoko erakundeek egin dezaketen ekarpena guztiz gauza dadin lortzeko, erakunde horien eta nazioarteko erakundeen eta gobernu nazional eta lokalen arteko gehieneko komunikazioa eta lankidetzaren sustatu beharko lirateke, Agenda 21 gauzatzeko ardura duten erakundeen inguruan. Gobernuz kanpoko erakundeek beren arteko komunikazioa eta lankidetzaren sustatzea ere ezinbestekoa izango da, garapen jasangarria gauzatzeko faktore gisa beren eragingarritasuna areagotzeko.

Helburuak:

Gizarteak, gobernuek eta nazioarteko erakundeek mekanismoak garatu beharko lituzkete gobernuz kanpoko erakundeek garapen jasangarriaren eta ekologikoki arrazionalaren prozesuan beren elkarlana era arduratsuan eta eragingarritasunez bete dezaten.

Gobernuz kanpoko erakundeen funtzio asoziatua sendotzeko, Nazio Batuen sistemak eta gobernuek, gobernuz kanpoko erakundeei kontsulta egin ondoren, prozedura eta mekanismo ofizialak aztertzeko prozesua jarri beharko lukete martxan, erakunde horiek politikak formulatzeko garaian, erabakiak hartzeko garaian, erabaki horiek gauzatzeko garaian eta gainerako maila guztietan parte har dezaten.

1995erako, nazio mailan, gobernu guztien eta gobernuz kanpoko erakundeen eta beren sare antolatuen artean elkarrizketa bultzatu beharko litzateke; elkarrizketa horrek alde guztientzako produktiboak izan behar du. Horren helburua garapen ekologikoki arrazionala eta jasangarria lortzeko bakoitzaren funtzioak onartzea eta sendotzea da.

Gobernuek eta nazioarteko erakundeek Agenda 21 nola gauzatzen den aztertzeko mekanismo eta prozedura ofizialak sortzen, martxan jartzen eta ebaluatzen gobernuz kanpoko erakundeek ere parte har dezaten sustatu eta utzi beharko lukete.

Jarduerak:

Nazio Batuen sistemak, nazioarteko finantza- eta garapen-erakundeek eta gobernuarteko erakunde eta foro guztiek, gobernuz kanpoko erakundeei kontsulta egin ondoren, ondorengo lortzeko neurriak hartu beharko lituzkete:

- a) Gobernuz kanpoko erakundeek politikak formulatzeko; erabakiak hartzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko eta gaiaren inguruan informazioa emateko garaian erabiltzen dituzten uneko prozedurak eta mekanismoak hobetzeko moduak aztertzeko neurriak. Laguntza hori hainbat erakunderi ematen diete, erakundeen arteko eztabaidetan eta Nazio Batuen biltzarretan;
- b) Aurreko a) puntua oinarri hartuta, erakundeek erabiltzen dituzten mekanismoak eta prozedurak hobetzeko edo, ez baleude, sortzeko neurriak, politikak eta programak formulatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko gobernuz kanpoko erakundeen esperientzia eta

iritziak erabili ahal izateko;

- c) Gobernu kanpoko erakundeei finantzazio eta administrazio alorretan ematen zaien babesa aztertze eta planak eta programak prestatzen zenbateraino parte hartzen duten eta parte-hartze horren eragingarritasuna zenbaterainokoa den aztertze neurriak, elkarte sozial gisa duten funtzioa areagotzeko;
- d) Gobernu kanpoko erakundeek Agenda 21en gauzatzea maila guztietan aztertze eta ebaluatze ezarritako prozeduretan parte har dezaten lortzeko bitarteko malguak eta eragingarriak sortzeko neurriak;
- e) Agenda 21 gauzatze formulatutako politikak eta programak aztertze eta ebaluatze garaian gobernu kanpoko erakundeen eta beren sare antolatuen parte-hartzea sustatze eta baimentze neurriak eta garapen bidean dauden herrialdeetako gobernu kanpoko erakundeei eta beren sare antolatuei babesa emateko neurriak;
- f) Agenda 21 gauzatzearen inguruan, Batzar Nagusiari, gobernuarteko beste organo eta erakundeei eta Nazio Batuen foroei dagozkien idazkaritza nagusiaren txostenetan, gobernu kanpoko erakundeen azterketa-sistemen eta ebaluazio-prozesuen ondorioak kontuan hartze neurriak, Agenda 21en azterketa-prozesuaren arabera;
- g) Gobernu kanpoko erakundeei datu eta informazio zehatzak eta egokiak eskuratzeko aukera emateko neurriak, beren programen eta jardueren eta garapen jasangarria babesteko beren funtzioen eragingarritasuna sustatze.

Gobernuek neurriak hartu beharko lituzkete ondorengo lortzeko:

- a) Gizarteko sektore guztiak ordezkatzeko dituzten gobernu kanpoko erakundeekin eta beren sare antolatuekin elkarrizketa sortzeko edo dagoeneko sortuta dagoen elkarrizketa hobetzeko. Honek ondorengo egiteko balioko luke:
 - i) erakunde hauen eskubideak eta ardurak aztertze;
 - ii) gobernu kanpoko erakundeen ekarpen integratuak politikak formulatzeko gobernuen prozesuei begira eragingarritasunez bideratzeko; eta

- iii) programen mailan nazioko politikak gauzatzeko garaian gobernuz kanpoko erakundeen betebeharrak koordinatzeko;
- b) Garapen jasangarria lor dadin prestatutako jardueretan, gobernuz kanpoko erakundeen eta tokian tokiko agintarien arteko ekarriketa eta elkarketa sustatzeko eta hori posible egiteko;
- c) Agenda 21 gauzatzeko nazio mailan martxan jarritako mekanismo edo prozedura guztietan gobernuz kanpoko erakundeek parte har dezaten lortzeko; horretarako hezkuntzaren, pobrezia gutxitzearen eta ingurugiroa babestearen eta birgaitzearen alorretan beren gaitasun indibidualak ahalik eta hobekien erabili beharko lirateke;
- d) Agenda 21 maila guztietan gauzatzeko inguruko politikak sortzeko eta ebaluatzeko garaian gobernuz kanpoko erakundeen ikuskapen- eta azterketa-mekanismoen ondorioak kontuan hartzeko;
- e) Gobernuen irakaskuntza-sistemak aztertzeko, hezkuntza akademikoaren eta ez akademikoaren eta hedapenaren alorretan gobernuz kanpoko erakundeek parte har dezaten uzteko eta hori areagotzeko modua aurkitzeko;
- f) Ikerketak egiteko garaian eta programak formulatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko garaian eragingarritasunez laguntzeko beharrezkoak diren datuak eta informazioa gobernuz kanpoko erakundeen eskura jartzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Erakunde ofizialen eta gobernuz kanpoko erakundeen taldeen arteko elkarketak eta ekarriketa izateko moduak hobetzeari buruzko iritzien azterketa-prozesuen eta eboluzioen lortutako emaitzen arabera, nazio eta nazioarte mailan gastu baxu samarrak eta aurreikus ez daitezkeenak egin beharko dira, kontsultak egiteko prozedurak eta mekanismoak hobetzeko helburuarekin. Horrez gain, gobernuz kanpoko erakundeek finantzazio osagarria beharko dute Agenda 21 behatzeko sistemak sortzeko edo dauden sistemak hobetzeko edo sistemei laguntzeko. Gastu hauek handiak izango dira, baina ezin dira kalkulatu eskura dagoen

informazioa oinarri hartuta.

b) Gaitasuna areagotzea:

Ezinbestekoa da Nazio Batuen sistemak eta gobernuarteko beste erakunde eta foro batzuek, alde biko programek eta sektore pribatuak, dagokienaren arabera, gobernu kanpoko erakundeei eta beren sare antolatuei administrazio eta finantza alorretan laguntza gehiago ematea. Laguntza hori bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan oinarritutako erakundeek jaso beharko lukete, bereziki Agenda 21 behatzeko eta ebaluatzeko programetan laguntzen dutenek eta programak formulatzeko eta gauzatzeko beren parte-hartzea areagotzeko nazio eta lurralde mailan gobernu kanpoko erakundeen trebakuntza sustatzen dutenek (eta erakunde horien trebakuntza-programak sortzen laguntzen dutenek).

Ezinbestekoa da gobernuak, herrialde bakoitzaren baldintzen arabera, ondorengoa lortzeko eta bermatzeko beharrezkoa den legedia promulgatzea edo sendotzea: gobernu kanpoko erakundeek kontsultarako taldeak sor ditzaten uzteko eta gobernu kanpoko erakundeek jendearen interesa akzio judizialak gauzatuz babesteko duten eskubidea bermatzeko.

28. ATALA: Agenda 21 babesteko tokian tokiko agintarien ekimenak

Programa-arloak

Ekintzarako oinarriak:

Agenda 21eko arazo eta irtenbide asko tokian tokiko jarduerekin eta tokian tokiko agintarien parte-hartzearekin eta lankidetzarekin lotzen direnez, programako helburuak lortzeko faktore erabakigarriak izango dira. Azpiegitura ekonomikoak, sozialak eta ekologikoak sortzeaz eta mantentzeaz eta azpiegitura horien funtzionamenduaz arduratzen diren herri mailako agintariak planifikazio-prozesuak ikuskatzen dituzte, herri mailako politika eta arau ekologikoak eratzen dituzte eta nazio eta azpinazio mailan ingurugiro-politikak gauza daitezen laguntzen dute. Herritarrengandik gertuen dauden agintariak direnez, funtzio oso garrantzitsua betetzen dute garapen jasangarriaren inguruan jendea hezteko eta mugiarazteko garaian.

Helburuak:

Programa-arlo honetan ondorengo helburuak proposatzen dira:

- a) 1996rako, herrialde bakoitzeko tokian tokiko agintari gehienek komunitatearentzako "Tokiko Agenda 21"en inguruan beren herritarren artean kontsultak egin beharko lituzkete eta adostasuna lortu beharko lukete;
- b) 1993rako, nazioarteko komunitateak kontsulta-prozesua jarri beharko luke abian, tokian tokiko agintarien arteko lankidetzaren areagotzeko helburuarekin;
- c) 1994rako, udal elkarteetako ordezkariak eta herri mailako beste agintariak lankidetzaren eta koordinazio-mailak areagotu egin beharko lituzkete, tokian tokiko agintarien artean informazioaren eta esperientziaren trukea areagotzeko;
- d) Herrialde bakoitzeko herri mailako agintariak emakumeak eta gazteak erabakiak hartzeko, planifikatzeko eta gauzatzeko prozesuetan ordezkatuak egon daitezen lortzeko programak gauzatu eta ikuskatu ditzaten bultzatu beharko litzateke.

Jarduerak:

Tokian tokiko agintari bakoitzak elkarrizketak hasi beharko lituzke hiritarrek, erakunde lokalekin eta enpresa pribatuekin eta "Tokiko Agenda 21" onartu beharko luke. Kontsultak eginez eta adostasuna sustatuz, tokian tokiko agintariak hiritarren eta hiri-, enpresa- eta

industria-erakunde lokalen aldetik ekarpenak eskuratuko lituzkete eta estrategia hobek formulatzeko behar duten informazioa lortuko lukete. Kontsulta-prozesuak garapen jasagarriari buruzko gaien inguruko etxeetako kontzientzia areagotu egingo luke. Agenda 21eko helburuak lortzeko tokian tokiko agintarien programak, politikak, legeria eta arautegiak Agenda 21en inguruan onartutako herri mailako programen arabera ebaluatuko eta aldatuko lirateke. Herri, nazio, lurralde eta nazioarte mailako finantzazioa lortzeko proposamenak babesteko estrategiak ere erabili litezke.

Erakundeen eta organoen arteko elkarteak ere susta litezke, tokian tokiko agintarien programatzeko nazioarteko finantzazio gehiago mugiarazteko. Esate baterako, ondorengo erakundeen arteko elkarteak susta daitezke: GNPB, Giza Kokapenatarako Nazio Batuen Zentroa (Habitat), NBIP, Munduko Bankua, lurralde mailako bankuak, Herri Mailako Agintarien Nazioarteko Batasuna, Metropoli Handien Munduko Elkarte, Munduko Hiri Handien Gailurra, Hiri Batuen Erakundea eta nazioarteko beste hainbat erakunde. Helburu garrantzitsuetako bat tokian tokiko agintarien gaitasuna areagotzeaz eta tokiko ingurugiroa antolatzeaz arduratzen diren erakundeak babestea, hedatzea eta hobetzea izango litzateke. Horretarako:

- a) Habitati eta Nazio Batuen sisteman dagokien beste erakunde eta organoei hauxe eskatzen zaie: tokian tokiko agintarien estrategiei buruzko informazioa biltzeko beren zerbitzuak sendotu ditzatela, bereziki nazioarteko finantzazioa beharko dutenei buruzko informazioa;
- b) Aldian-aldian kontsultak egin litezke nazioarteko elkarteetan eta garapen bidean dauden herrialdeetan, estrategiak aztertzeko eta nazioarteko babesa ahalik eta erarik egokienean mugiarazteko. Sektoreka eginiko kontsulta hori herrialdeetan une berean egindako hitzartutako kontsulten –kontsulta-taldeetan eta mahai-inguruetan egiten diren kontsulten– osagarri izango litzateke.

Tokian tokiko agintarien elkarteetako ordezkariak tokian tokiko agintarien artean informazioa, esperientzia eta laguntza teknikoa trukatzeko prozesuak sor ditzaten bultzatu behar da.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Alde guztiek programa honetako finantzaren alorreko beharrak berriro ebalua ditzaten gomendatzen da. Biltzarreko idazkaritzak atal honetako jarduerak gauzatzeko nazioarteko

idazkaritza-zerbitzuak sendotzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua gutxi gorabehera milioi 1 dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta mesede edo dohaintza moduan emango dira. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu.

b) Giza baliabideen garapena eta gaitasuna areagotzea:

Programa honek Agenda 21eko beste ataletan gaitasuna eta hezkuntza areagotzeko azaltzen diren jarduerak erraztu beharko lituzke.

29. ATALA: Langileen eta beren sindikatuen papera indartzea

Programa-arloak

Ekintzarako oinarriak:

Garapen jasangarria aurrera eramateko jardueren barruan nazio eta enpresa mailako akordioak eta aukerak sartzeko dira eta interesdun nagusien artean langileak daude. Sindikatuek, langileen ordezkari direnez, funtsezko lana betetzen dute garapen jasangarria lor dadin errazteko, industriaren aldaketekin duten harremana, lan-inguruaren eta ingurugiroaren babesari ematen dioten lehentasuna eta garapen ekonomiko eta sozialki arduratsuaren aldeko sustapena kontuan hartuta. Sindikatuen eta beren bazkide kopuru handiaren arteko lankidetzaren sarea bide garrantzitsua da garapen jasangarriaren aldeko kontzeptuak eta jarduerak babesteko neurriak bideratzeko. Hiru alderdiko kudeaketa ezartzeko printzipioak garapen jasangarriarekin harremanetan langileen eta beren ordezkarien eta gobernuen eta nagusien arteko lankidetzaren sendotzeko oinarri dira.

Helburuak:

Helburu nagusia pobrezia desagertaraztea da eta guztientzako lan jasangarria eskaintzea, inguru seguruak, garbiak eta osasuntsuak lortzen lagundu dezan: lanerako giroa, komunitatearen giroa eta ingurugiro naturala. Langileek Agenda 21ekin lotura duten jarduerak gauzatzeko eta ebaluatzeko lanetan guztiz parte hartu beharko lukete.

Asmo hau 2000 urterako betetzeko, ondorengo helburuak proposatzen dira:

- a) LANEREN hitzarmenak berretsi daitezela sustatzea eta nazio mailan dagokion legeria promulgatzea;
- b) Segurtasunaren, osasunaren eta garapen jasangarriaren alorretan, bi eta hiru alderditako mekanismoak eratzea;
- c) Garapen jasangarria lortzea bideratutako ingurugiro-hitzarmen kolektiboen kopurua areagotzea;
- d) Estatistika-metodo onartuen arabera zenbatutako laneko istripuak, lesioak eta gaixotasunak gutxitzea;

- e) Langileen hezkuntzaren eta trebakuntzaren eta langileak lanean berriro heztearen inguruko neurriak areagotzea, bereziki laneko osasunaren eta segurtasunaren eta ingurugiroaren alorretan.

Jarduerak:

a) Elkartzeko askatasuna sustatzea:

Langileek eta beren sindikatuek erabateko lana eta garapen jasangarrian babestutakoa egin dezaten, gobernuek eta nagusiek langileek elkartzeko duten eskubidea sustatu beharko lukete eta erakundeak sortzeko eskubidea babestu beharko lukete, LANEren hitzarmenetan aurreikusitakoaren arabera. Gobernuek hitzarmen horiek berretsi eta aplikatu egin beharko lituzkete, oraindik hala egin ez badute.

b) Parte-hartzea eta kontsulta sendotzea:

Gobernuek, merkataritzak eta industriak ingurugiroari eta garapenari buruzko nazioko eta nazioarteko politikak eta programak formulatzearen, gauzatzearen eta ebaluatzearen inguruko erabakiak hartzeko unean langileek eta beren sindikatuek aktiboki parte har dezaten bermatu beharko lukete, baita lanaren, industria-estrategien, lana adosteko programen eta teknologien transferentzien inguruko politiken inguruan ere.

Sindikatuek, nagusiek eta gobernuek elkarlana egin beharko lukete garapen jasangarriaren kontzeptuak zuzen aplikatu daitezkeen behatzeko.

Lantokietan eta komunitate eta nazio mailan bi alderditako (nagusien eta langileen artean) edo hiru alderditako (nagusien, langileen eta gobernuen artean) lankidetzarako mekanismoak sustatu beharko lirake, segurtasunaren, osasunaren, ingurugiroaren eta zuzentasunaren inguruko kontuez aritzeko, lantokietan emakumeek dituzten eskubideei eta baldintzei erreferentzia berezia eginez.

Gobernuek eta nagusiek langileek eta beren sindikatuek erabakiak hartzeko prozesuetan eragingarritasunez parte hartzeko behar duten informazio osoa izan dezaten arduratu beharko lukete.

Sindikatuek garapen jasangarriaren alde guztiei buruzko politikak definitzen, garatzen eta sustatzen jarraitu beharko lukete.

Sindikatuak eta nagusiek erreferentzia-eremua eratu beharko lukete ingurugiro-politika bateratua formulatzeko eta, horrez gain, lehentasunak finkatu beharko lituzkete lanaren esparrua eta enpresak ingurugiroaren inguruan duen portaera hobetzeko.

Sindikatuak ondorengoa egin beharko lukete:

- a) Langileek lantokietako ingurugiro-ikuskapenetan eta ingurugiro-inpaktuaren ebaluazioetan parte hartzeko duten aukera segurtatzen saiatzea;
- b) Tokian tokiko komunitateetan ingurugiroarekin eta garapenarekin lotura duten jardueretan parte hartzea eta interes komuneko arazo posiblei buruzko jardura bateratuak bultzatzea;
- c) Garapen jasagarriari buruzko lurraldeko eta nazioarteko erakundeen jardueretan aktiboki parte hartzea, bereziki Nazio Batuen sisteman.

c) Trebakuntza egokia ematea:

Langileek eta beren ordezkariak beren ingurugiro-kontzientzia areagotzeko, beren osasuna babesteko eta beren segurtasunaz arduratzeko eta beren ongizate ekonomiko eta soziala hobetzeko behar adina trebakuntza jasotzeko eskubidea eduki beharko lukete. Trebakuntzak bizimodu jasagarriak sustatzeko eta laneko ingurua hobetzeko behar dituzten ezagutzak eman beharko lizkieke. Sindikatuak, nagusiek, gobernuek eta nazioarteko erakundeek beren jardueren barruan dauden trebakuntzako beharrak ebaluatzeko garaian elkarrekin lan egin beharko lukete. Langileek eta beren ordezkariak ere parte hartu beharko lukete nagusiek eta gobernuek langileentzako antolatutako trebakuntza-programak formulatzeko eta gauzatzeko lanetan.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 300 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak dohaintza edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako

gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

b)

Gaitasuna areagotzea:

Kasu berezia egin beharko litzaioke hiru alderdiko elkarrekin kide bakoitzaren (governuak eta patronalen eta langileen elkarrekin) gaitasuna sendotzeko, garapen jasagarriaren alde lankidetzaz erraztu ahal izateko.

30. ATALA: Merkataritzaren eta industriaren papera indartzea

Sarrera

Merkataritzak eta industriak, nazioarteko enpresak barne direla, funtsezko eginbeharra betetzen dute herrialde baten garapen sozial eta ekonomikoan. Politika egonkorren erregimenak merkataritza eta industria modu arduratsu eta eraginkorrean funtzionatzera bultzatzen ditu, bai eta epe luzerako politikak aplikatzera ere. Etengabeko arrakasta garapen-prozesuaren funtsezko helburua da, eta nagusiki merkataritzako eta industriako jardueren emaitza da. Egituratutako nahiz egituratu gabeko sektoreetako merkataritza-enpresa handi eta txikiek elkartruckerako, enplegurako eta biziraupenerako aukerak eskaintzen dituzte. Emakumeei eskaintzen zaizkien merkataritza-aukerek haien garapen profesionala bultzatzen dute, haien funtzio ekonomikoa indartzen dute eta sistema sozialak eraldatzen laguntzen dute. Merkataritzak eta industriak, nazioarteko enpresak barne, eta haiek ordezkatzen dituzten erakundeek erabat hartu behar dute parte Agenda 21i loturiko jarduerak gauzatzen eta ebaluatzen.

Merkataritzako eta industriako politikak eta eragiketek, nazioarteko enpresenak barne, zeregin garrantzitsua bete dezakete baliabideak eta ingurugiroa erabiltzearen ondorio kaltegarriak murrizteko; hori lortzeko, beharrezkoa da produkzio-prozesuak, prebentzioko estrategiak, teknologiak eta produkzioko prozedura garbiak eraginkortasun handiagoz erabiltzea produktuaren bizitza-zikloan zehar, hondakinak ahalik eta gehien murrizteko edo erabat desagerrarazteko. Berrikuntza teknologikoak, garapena, aplikazioak, teknologien transferentzia eta elkartzearen eta kooperazioaren alderdi orokorrenak ere neurri handi batean merkataritzari eta industriari eragiten dieten gaiak dira.

Merkataritzak eta industriak, nazioarteko enpresek barne, geroz eta gehiago aitortu beharko lukete ingurugiroaren antolamendua enpresen lehentasun nagusietako bat dela eta garapen jasangarriaren funtsezko faktorea dela. Enpresaburu artatsu batzuk jada hasi dira "arreta arduratsuaz" jokatzeko, eta produkzioko politika eta programa arduratsuak aplikatzen dituzte, langileekin eta publikoarekin jarrera irekia eta elkarriketa izatea bultzatzen dute, eta ingurugiroko auditoretzak eta ingurugiroko arauak betetzen diren ikusteko ebaluazioak egiten dituzte. Merkataritza eta industriako buruzagi hauek, nazioarteko enpresetakoak barne, geroz eta ekimen gehiago egiten dituzte euren borondatez autokontrolak sustatzeko eta aplikatzeko, eta geroz eta erantzukizun handiagoak hartzen dituzte beren jarduerak gizakion osasunean eta ingurugiroan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten. Herrialde askotan ezarritako araudiek, kontsumitzaileak eta

publikoa geroz eta kontzientziatuago egoteak eta merkataritzako eta industriako buruzagi arduratsuek ere hau horrela izan dadin lagundu dute. Merkataritzak eta industriak ere geroz eta sarriago laguntzen dute garapen jasangarria lortzen, tresna ekonomikoak erabiliz, esate baterako, merkatu libreko mekanismoak. Izan ere, mekanismo horietan ondasun eta zerbitzuen prezioak sargaien, produkzioaren, erabileraren, birziklatzearen eta ezabaketaren ingurugiro-kostuak islatu beharko lituzke, herrialde bakoitzeko baldintza jakinen arabera.

Produktzio-sistemak baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzen dituzten eta, aldi berean, hondakin gutxiago sortzen dituzten teknologia eta prozesuen bidez hobetzea (baliabide gutxiagorekin emaitza hobeak lortzea) bide egokia da merkataritza eta industria jasangarria izatera irits daitezen. Era berean, aukera desberdin eta eraginkorragoak bultzatzeko, beharrezkoa da sormena, lehiakortasuna eta borondatezko ekimenak erraztea eta sustatzea. Eskakizun garrantzitsu horiek betetzera eta merkataritza eta industriaren papera indartzera bideratutako bi programa proposatzen dira.

Programa-arloak

A. Produkzio garbia bultzatzea

Ekintzarako oinarriak:

Geroz eta gehiago aitortzen da baliabideak modu ez-eraginkorrean erabiltzen dituzten produkzio, teknologia eta kudeaketak berriro erabiliko ez diren hondakinak sorrarazten dituztela, gizakion osasunarentzat eta ingurugiroarentzat kaltegarriak diren hondakinak sortzen dituztela eta behin erabili ondoren beste ondorio batzuek dituzten eta birziklatzen zailak diren produktuak fabrikatzen dituztela; horregatik, produkzio, teknologia eta kudeaketa horiek produktuaren bizitza-zikloan zehar hondakinak ahalik eta gehien murrizten dituzten teknologia, ingeniari-tzeta-sistema eta kudeaketa eta teknika ezin hobeeekin ordezkatu behar dira. Produkzio garbiaren kontzeptuak produktuaren bizitza-zikloaren etapa bakoitzean ahalik eta eraginkortasun-maila handiena lortzeko ahalegina egiteko eskatzen du. Kontzeptu hau aplikatuz gero, enpresaren lehiakortasun orokorra hobetu egingo litzateke. ONUDik 1991ko urrian Kopenhaguen ministerio-mailan antolaturiko Ekologikoki Jasangarria den Industria Garapenari buruzko Biltzarrean produkzio garbiko politiketara igarotzea beharrezkoa dela aitortu zen⁴⁵.

Helburuak:

Gobernu, enpresa eta industriek, nazioarteko enpresek barne, baliabideen erabilera eraginkorragoa egiten saiatu beharko lukete, hondakinak berriro erabiltzea eta birziklatzea areagotuz, eta produktu ekonomikoko unitate bakoitzeko hondakin-kantitatea murriztuz.

Jarduerak:

Gobernuek, merkataritzak eta industriak garapen jasangarriaren printzipioak eta irizpideak aplikatzeko elkarteak indartu egin beharko lituzkete.

Gobernuek tresna ekonomikoen eta neurri legalen (adibidez, legeak, legeriak eta arauak) konbinazio egokia hautatu eta aplikatu beharko lukete, merkataritzarekin eta industriarekin kontsultatu ondoren, produkzio garbiko sistemak erabiltzea bultzatzeko, bereziki enpresa txiki eta ertainetan. Borondatezko ekimen pribatuak ere sustatu behar dira.

Gobernuek, merkataritzak eta industriak, nazioarteko enpresek eta irakaskuntza-erakundeek eta nazioarteko erakundeek, ingurugiroaren kostuak kontabilitateko eta prezioak finkatzeko

⁴⁵ Ikus A/CONF.151/PC/125.

mekanismoetan eranstea ahalbidetuko duten kontzeptu eta metodologiak sortu eta aplikatzen saiatu beharko lukete.

Merkataritza eta industriak honako hauek egin ditzaten bultzatu beharko litzateke:

- a) Urtero ingurugiroari loturiko beren jardueren eta energia eta baliabide naturalen erabileraren berri ematea;
- b) Ingurugiro-jarduera egokiak bultzatzen dituzten jokabide-kodeak bereganatzea, esate baterako, Nazioarteko Merkataritza Ganberaren Garapen Jasangarriaren aldeko Enpresen Gutuna, eta industria kimikoak bere gain hartu duen arreta arduratsuaren ekimena, eta haren aplikazioaren berri ematea.

Gobernuek produkzioko teknika garbien hautapena, ebaluazioa, ikerketa eta garapena, kudeaketa, merkaturatzea eta aplikazioa hartzen dituzten enpresen arteko kooperazio teknologiko eta teknikoak bultzatu beharko lituzkete.

Industriak produkzio garbiko politikak sartu beharko lituzke bere eragiketa eta inbertsioetan eta, horrez gain, hornitzaileengan eta kontsumitzaileengan duen eragina ere kontuan hartu beharko luke.

Industriako eta merkataritzako elkarteek langile eta sindikatuarekin elkarlanean jardun beharko lukete, garapen jasangarriko eragiketarako egiteko beharrezkoak diren ezaupideak eta aplikazioak etengabe hobetzeko.

Industriako eta merkataritzako elkarteek enpresa bakoitza kontzientzia eta erantzukizun ekologikoa maila guztietan areagotzeko programak aplikatzera bultzatu beharko lukete, enpresa guztiek ingurugiroari dagokion beren jarduerak hobetu dezaten, onarturiko nazioarteko kudeaketa-jardueretan oinarrituz.

Nazioarteko erakundeek hezkuntza, prestakuntza eta sentikortzeko jarduerak areagotu egin beharko lituzkete produkzio garbiari dagokionez, industriarekin, irakaskuntza-erakundeekin eta estatuko nahiz lurraldeko autoritate eskudunekin lankidetzan.

Nazioarteko eta gobernu kanpoko erakundeek, elkarte komertzial eta zientifikoak barne, produkzioko teknika garbiei buruzko informazioa zabaltzea bultzatu beharko lukete, lehendik dauden datu-baseak hedatuz, adibidez: NBIPren produkzio-prozesu ez hain poluitzaileei buruzko nazioarteko informazio-zentroa (ICPIC), ONUDIren Teknologia eta Industriako

Informazio Bankua (INTIB) eta CCiren Ingurugiroko Nazioarteko Bulegoa (IEB). Horrez gain, estatuetako nahiz nazioarteko informazio-sistemen sareak ezarri beharko lituzkete.

B. Enpresen erantzukizuna areagotzea

Ekintzarako oinarriak:

Enpresa-espirtua berrikuntzak egitea lortzeko, merkatuaren eraginkortasuna handitzeko eta erronka eta aukerei erantzuteko dagoen indar bultzatzaile garrantzitsuenetakoa da. Bereziki, enpresa txiki eta ertainek zeregin oso garrantzitsua betetzen dute herrialdeen garapen sozial eta ekonomikoan. Sarri landa-garapenaren bultzatzaile nagusiak izaten dira, eta emakumeen bizirauteko ahalmena hobetzeko behar diren aldi baterako baliabideak jartzen dituzte. Enpresaburu arduratsuek zeregin garrantzitsua bete dezakete baliabideen erabileraren eraginkortasuna hobetzeko, arriskuak murrizteko, hondakinak ahalik eta gehien murrizteko eta ingurugiroaren ezaugarriak gordetzeko.

Helburuak:

Honako helburu hauek proposatzen dira:

- a) Enpresaburuek baliabide naturalak kudeatzea eta erabiltzean gerentzia arduratsuaren kontzeptua bultzatzea;
- b) Garapen jasangarriko politikak bere egiten dituzten eta aplikatzen dituzten enpresaburuen kopurua handitzea.

Jarduerak:

Gobernuek modu jasangarrian administraturiko enpresen ezarpena eta eragiketak bultzatu beharko lituzkete. Hori lortzeko, neurri arautzaileak ezarri beharko lituzkete, pizgarri ekonomikoak eskaini eta prozedura administratiboak modernizatu, eskaerak onartzeko unean ahalik eta eraginkortasun handiena bermatzeko. Helburua inbertsioei buruzko erabakiak, aholkularitza eta laguntza ematea erraztea da, eta horretarako informazioa, azpiegiturak eta kudeaketa arduratsua eskaini behar dira.

Gobernuek, sektore pribatuarekin lankidetzan, garapen jasangarriko proiektu eta programetarako arrisku-kapitaleko funtsak ezartzea bultzatu beharko lukete.

Merkataritza, industria, irakaskuntza-erakunde eta nazioarteko erakundeekin batera, gobernuek gaikuntza-jarduerak bultzatu beharko lituzkete, enpresen kudeaketaren alderdi ekologikoei buruz. Horrez gain, gazteentzako ikaskuntza-programei ere arreta eman beharko liekete.

Merkataritza eta industria, nazioarteko enpresak barne, honako hauek egitera bultzatu beharko lirateke: garapen jasangarriari buruzko mundu-mailako politikak ezarri; garatzeko bidean dauden herrialdeetan kokatzen diren eta zati handi batean enpresa nagusikoak diren enpresa afiliatuen esku ekologikoki arrazionalak diren teknologiak jarri (ez-ohiko kanpo-errekarguak ezarri gabe); atzerriko enpresa afiliatuak prozedurak alda ditzaten animatu, baldintza ekologiko lokalak isla ditzaten; eta, azkenik, esperientziak autoritate lokalekin, gobernuekin eta nazioarteko erakundeekin partekatu.

Merkataritzako eta industriako enpresa handiek, nazioarteko enpresek barne, enpresa txiki eta ertainekin elkartzeko programak ezartzeko aukera kontuan hartu beharko lukete, kudeaketa, merkatuen garapen eta ezaupide teknologikoen arloko esperientziak trukatzearraste, nazioarteko erakundeekin laguntzaz.

Merkataritzak eta industriak kontseilu nagusiak ezarri beharko lituzkete garapen jasangarria lortzeko eta egituratutako nahiz egituratu gabeko sektoreetan enpresa-jarduerak sustatzen laguntzeko. Enpresa-emakumeak bertan sartzea erraztu beharko litzateke.

Merkataritzak eta industriak, nazioarteko enpresek barne, ekologikoki arrazionalak diren teknologien eta ingurugiroa antolatzeko sistemen ikerketa eta garapena areagotu egin beharko lituzkete, irakaskuntzako, ingeniartzako eta zientzietako erakundeekin lankidetzan; horrez gain, dagokionean ezaupide autoktonoak erabili beharko lituzkete.

Merkataritzak eta industriak, nazioarteko enpresek barne, produktuen eta prozesuen kudeaketa arduratsu eta etikoa bermatu beharko lukete, osasunaren, segurtasunaren eta ingurugiroaren ikuspuntutik. Hori lortzeko, merkataritzak eta industriak autorregulazioa areagotu egin beharko lukete, kodeen, araudien eta ekimenen bidez orientatu beharko lukete, eta plangintza komertzialeko elementu guztietan eta erabakiak hartzerakoan integratu beharko lituzkete. Horrez gain, langileekin eta publikoarekin jarrera irekia eta elkarrizketa bultzatu beharko lituzkete.

Laguntza finantzarioko erakunde aldeanitzek eta aldebikoek enpresa txiki eta ertainei babes eta laguntza ematen jarraitu beharko lukete, garapen jasangarriko jarduerak egin ditzaten.

Nazio Batuetako erakundeek eta organismoek politikak eta estrategiak finkatzeko prozesuen mekanismoak hobetu egin beharko lituzkete, bai eta merkataritzaren eta industriaren ekarpenak ere, atzerriko inbertsioetan ingurugiroari loturiko alderdian kontuan gehiago hartzeko.

Nazioarteko erakundeek ikerketari eta garapenari laguntza handiagoa eman beharko liekete,

garapen jasagarria lortzeko eskakizun teknologiko eta administratiboak hobetzeari dagokionez, bereziki garatzeko bidean dauden herrialdeetako enpresa txiki eta ertainentzat.

Gauzatzeko bideak:

Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Programa-arlo honetan sartzen diren jarduerak nagusiki lehendik dauden jardueren orientazioa aldatu egiten dute, eta ez da espero kostu osagarriak garrantzitsuak izango direnik. Gobernuen eta nazioarteko erakundeen jardueren kostua beste programa-arlo batzuetan ere sartuta dago.

31. ATALA: Komunitate zientifiko eta teknologikoa

Sarrera

Atal honek honako gai hau du ardatz: ingeniari, arkitekto, industria-diseinatzaile, hirigile eta beste profesional eta zuzendariak osaturiko komunitate zientifiko eta teknologikoak ingurugiroari eta garapenari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartze ireki eta eraginkorragoa egin dezan lortzea. Garrantzitsua da politika publikoa zehazten laguntzeko erabakiak hartzen dituzten arduradunek eta publikoak oro har zientziak eta teknologiak giza gaitan duten zeregina hobeto ezagutu eta ulertzea. Zeregin horrek handitu eta sakondu egin beharko luke, komunitate zientifiko eta teknologikoaren eta publikoaren arteko lankidetzaren harremana finkatu arte. Komunitate zientifiko eta teknologikoaren eta erabakiak hartzeko arduradunen arteko komunikazioa eta lankidetzaren hobetuz gero, informazio eta ezaupide teknikoak eta zientifikoak gehiago erabiliko dira politikak eta programak aplikatzeko. Erabakiak hartzeko arduradunek baldintza egokiagoak sortu beharko lituzkete garapen jasangarriari buruzko gaikuntza eta ikerketa independenteak hobetzeko. Beharrezkoa izango da lehendik dauden diziplina anitzeko planteamenduak indartzea eta komunitate teknologiko eta zientifikoaren eta erabakiak hartzeko arduradunen arteko diziplinari ikasketa gehiago prestatzea, publikoaren laguntzaz, garapen jasangarriaren kontzeptuan ekimen eta ezaupide praktikoak integratzeko. Publikoari lagundu egin beharko litzaioke bere iritzia komunitate zientifiko eta teknologikoari jakinarazten, zientzia eta teknologia publikoaren bizitzan eragin positiboa izan dezaten aplikatzeko moduei dagokienez. Hori dela eta, komunitate zientifiko eta teknologikoak mugarik gabe ikertzeko, ikerlanak argitaratzeko eta bere ondorioak libreki trukatzeko independentzia izango duela bermatu behar da. Nazioartean onartutako printzipio etiko eta jokabide-kodeak komunitate zientifiko eta teknologikoak erabil ditzan onartu eta aplikatuko balira, profesionaltasuna areagotu egingo litzateke eta ingurugiroari eta garapenari egiten dizkieten ekarpenen balioa hobeto eta bizkorrago aitortuko litzateke, ezaupide zientifikoaren etengabeko eboluzioa eta ziurtasunik eza kontuan hartuz.

Programa-arloak

A. Komunitate zientifiko eta teknologikoaren, erabakiak hartzeko arduradunen eta publikoaren arteko komunikazioa eta kooperazioa hobetzea

Ekintzarako oinarriak:

Komunitate zientifiko eta teknologikoak eta politikak ezartzeko arduradunek elkarlana areagotu egin beharko lukete, eskura ditugun ezaupide onenetan oinarrituriko garapen jasangarriko estrategiak aplikatzeko. Horrek esan nahi du erabakiak hartzeko arduradunek ikerketa sakonak egiteko behar den esparrua ezarri beharko luketela, komunitate zientifiko eta teknologikoak ateratzen dituen ondorioak erabat eta libreki komunikatu ahal izan ditzan. Era berean, erabakiak hartzeko ardura duten organoei ikerketen emaitzak eta emaitzek sorrarazitako kezkek jakinarazteko baliabideak prestatu beharko lituzkete, ezaupide zientifiko eta teknologikoak politika eta programa estrategikoekin ahalik eta hobekien uztartu ahal izateko. Horrez gain, elkarrizketa horrek komunitate zientifiko eta teknologikoari ikerketako lehentasunak ezartzen eta irtenbide konstruktiboak lortzeko neurriak proposatzen lagunduko lioke.

Helburuak:

Honako helburuak proposatzen dira:

- a) Erabakiak hartzeko prozesua hedatzea eta irekiago bihurtzea, eta garapen eta ingurugiroaren esparrua ere hedatzea, komunitate zientifiko eta teknologikoaren eta erabakiak hartzeko arduradunen arteko kooperazioa maila guztietan bultzatzeko;
- b) Erkidego zientifikoaren eta teknologikoaren eta publikoaren artean ezaupideen eta kezken trukea hobetzea, politikak eta programak hobeto ezarri eta uler daitezen eta jendeak hobeto har ditzan.

Jarduerak:

Gobernuek honako jarduera hauek egin beharko lituzkete:

- a) Estatuko jarduera zientifiko eta teknologikoek garapen jasangarriaren beharrei hobeto erantzun diezaieten lortzeko modua aztertzea, ikerketa eta garapeneko estatuko sistemak indartzera bideratutako ahaleginaren barruan. Besteak beste, aholkularitza zientifiko eta teknologikoko kontseilu, erakunde eta batzordeak indartu eta haien kide-kopurua handitu

behar dira, honako hau lortzeko:

- i) Gobernuari eta publikoari programa zientifiko eta teknologikoko behar guztien berri ematea;
 - ii) Iritzi publikoaren sektore guztiak ordezkaturata egotea;
- b) Lurraldeen garapen jasangarriko beharrez arduratzen diren kooperazioko lurralde-mekanismoak sustatzea. Kooperazioko lurralde-mekanismo horien sustapena parte-hartze publiko eta pribatuaren bidez erraztu liteke; mekanismo horiekin batera, mundu osoan profesionalen sareak indartzea gobernuentzat, industriarentzat, gobernu kanpoko irakaskuntza-erakundeentzat eta bestelako estatuko nahiz nazioarteko erakundeentzat lagungarria izango litzateke;
- c) Mekanismo egokien bidez kontsulta, kooperazio eta negoziazioko gobernu arteko prozesuei ekarpen zientifiko eta teknikoak egitea, nazioarteko eta lurraldeko hitzarmenak egin ahal izateko;
- d) Aholkularitza zientifiko eta teknologikoko zerbitzuak indartzea, Nazio Batuetako eta nazioarteko beste erakundeetako mailarik gorenetera iritsi arte. Helburua zientzia eta teknologia garapen jasangarriko politika eta estrategiatan integratzea da;
- e) Unibertsitateetako eta ikerketa-erakundeetako ikerketen emaitzak zabaltzeko programak hobetzea eta indartzea. Horretarako, beharrezkoa da komunitate zientifiko eta teknologikoari eta irakasleei aitortzen eta laguntza handiagoak ematea, berek arduratzen baitira informazio zientifiko eta tekniko politikak ezartzeko arduradunei, beste esparruetako profesionalei eta, oro har, publikoari jakinarazteaz eta informazio hori interpretatzeaz. Laguntza horrek ezaupideak transferitzean eta plangintza-teknikak transferitu eta egokitzean oinarritu beharko luke. Horretarako, zientzialarien eta erabakiak hartzeko arduradunen artean datuak eta informazioak erabat eta inongo oztoporik gabe zabaltzea behar dira. Garapen jasangarriko behar lokaletarako egokiak eta ulerterrazak diren ikerketa zientifikoko estatuko txostenak eta txosten teknikoak argitaratzeak ere zientziaren eta erabakiak hartzearen arteko lankidetzak hobetu egingo luke, eta emaitza zientifikoak aplikatzea erraztu egingo luke;

- f) Ikerketako sektore ofizial nahiz independenteen eta industriaren arteko harremana hobetzea, ikerketa industria-estrategiaren elementu garrantzitsu bihurtzeko;
- g) Emakumeak diziplina zientifiko eta teknologikoetan erabat parte hartzea bultzatzea eta indartzea;
- h) Informazio-teknikak garatzea eta aplikatzea, garapen jasangarriari loturiko informazioa areago zabaltzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Kostuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak kalkulatu du programa honetako jarduerak egiteko urteroko kostua 15 milioi dolarrekoa izango dela (1993-2000); diru hori nazioarteko komunitateak emango du, emakida moduan edo baldintza lagungarrietan. Kalkulu horiek gutxi gorabeherakoak besterik ez dira, eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako kostuak eta finantza-baldintzak, ez-kontzesionarioak barne, besteak beste gobernuek gauzatzen dituzten estrategia eta programa zehatzen arabera izango dira.

b) Ahalmena areagotzea:

Garapeneko eta ingurugiroko gaien inguruko gobernuarteko taldeak antolatu beharko lirake alderdi zientifiko eta teknikoak lantzeko, eta erantzuteko ahalmenari eta ondorengo ekintza-programetara egokitzeko ahalmenari buruzko ikerketak egin beharko lirake.

B. Zientzia eta teknologiari buruzko jokabide-kodeak eta gidalerroak indartzea

Ekintzarako oinarriak:

Zientzia eta teknologiako espezialistek berezko hainbat erantzukizun berezi dituzte, tradizio baten oinordeko diren aldetik, eta egia bilatzera eta biosfera garapen jasangarriaren alde babesteko beharra asetzerantz bideratutako diziplinen kide diren aldetik.

Ingurugiroari eta garapenari eragiten dioten erabakiak hartzeari buruzko kontzientzia etikoa handitzea lagungarria izan beharko litzateke bizitzari eusten dioten sistemak gorde eta hobetzeko lehentasun egokiak ezartzeko, sistema horien izaeratik beragatik. Ondorioz, egungo eta etorkizuneko gizarteek prozesu natural bideragarrien funtzionamendua modu egokian baloratuko dutela bermatu beharko litzateke. Hori dela eta, komunitate zientifiko eta teknologikoarentzako jokabide-kodeak eta gidalerroak indartuz gero, ingurugiroarekiko kontzientzia handitu egingo litzateke eta garapen jasangarria lagunduko luke. Era berean, komunitate zientifiko eta teknologikoari abegikortasun handiagoa izatea ekarriko luke, eta zientzia eta teknologiaren "erantzukizuna" erraztuko luke.

Helburuak:

Helburuak honako hau izan beharko luke: zientzia eta teknologiari buruzko jokabide-kodeak eta gidalerroak nazioartean onartuak izan daitezen prestatzea, hobetzea eta sustatzea. Jokabide-kode eta gidalerro horiek bizitzari eusten dioten sistemak erabat bilduko lituzkete, eta zientziak eta teknologiak ingurugiroaren eta garapenaren beharrak elkarrekin bateragarriak egiteko zein zeregin garrantzitsua betetzen duten kontuan hartuko litzateke. Printzipio, jokabide-kode eta gidalerro horiek erabakiak hartzeko prozesuan eraginkorrak izan daitezen, zientzialarien eta komunitate teknologikoaren arteko hitzarmena izateaz gain, gizarte osoaren babesa ere lortu beharko lukete.

Jarduerak:

Honako jarduera hauek egin litezke:

- a) Estatuko nahiz nazioarteko kooperazioa indartzea, gobernuz kanpoko sektorearena ere bai, ekologikoki arrazionala eta jasangarria den garapenari buruzko jokabide-kodeak eta gidalerroak prestatzeko, Rioko Deklarazioa eta indarrean dauden jokabide-kodeak eta gidalerroak kontuan hartuz;

- b) Etika ekologikoari eta garapenaren etikari buruzko estatuko aholkularitza-taldeak ezartzea eta indartzea, zientzia eta teknologiko komunitateari eta gizarte osoari eragiten dien balio-esparru komun bat sortzeko eta etengabeko elkarrizketa bultzatzeko;
- c) Etika ekologikoari eta garapenaren etikari buruzko hezkuntza eta gaikuntza areagotzea, helburu horiek hezkuntzako programetan eta ikerketako lehentasunetan integratzeko;
- d) Ingurugiroari eta garapenari buruzko estatuko eta nazioarteko tresna juridikoak berrikustea eta eraldatzea, arauzko mekanismo horietan jokabide-kode eta gidalerro egokiak jasotzen direla bermatzeko.

Gauzatzeko bideak:

a) Kostuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak kalkulatu du programa honetako jarduerak egiteko urteroko kostua 5 milioi dolarrekoa izango dela (1993-2000); diru hori nazioarteko komunitateak emango du, emakida moduan edo baldintza lagungarrietan. Kalkulu horiek gutxi gorabeherakoak besterik ez dira, eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako kostuak eta finantza-baldintzak, ezkontzesionarioak barne, besteak beste gobernuek gauzatzen dituzten estrategia eta programa zehatzen araberakoak izango dira.

b) Ahalmena handitzea:

Komunitate zientifiko eta teknologikoaren parte-hartzearekin jokabide-kodeak eta gidalerroak ezarri beharko lirateke, baita printzipio egokiei buruz ere, komunitate horrek bere ikerketa-jardueretan eta garapen jasangarria lortzera bideratutako programak gauzatzean aplikatu ditzen. UNESCOk jarduera horien aplikazioa zuzen lezake, Nazio Batuetako beste erakunde batzuen eta gobernuarteko nahiz gobernu kanpoko beste erakunde batzuen laguntzarekin.

32. ATALA: Nekazarien papera indartzea*

Programa-arloa

* Atal honetan, "nekazariei" egiten zaizkien erreferentzia guztiek bizimodua nekazaritzari loturiko jarduerekin irabazten duten landa-inguruetakoko pertsona guztiei egiten diete erreferentzia. "Nekazaritza" terminoak arrantza eta baso-baliabideen ustiapena ere bere baitan biltzen du.

Ekintzarako oinarriak:

Lurraren gainazalaren heren batek nekazaritzan dihardu, eta hori da munduko biztanleen zati handi baten jarduera nagusia. Landa-jarduerak naturarekin harreman estuan egiten dira, eta naturari balioa eranstean die baliabide berriztagarriak produzituz; aitzitik, gehiegizko ustiapenaren eta kudeaketa okerraren ondorioz zaugarri bihurtzen du.

Landa-inguruetakoko etxeak, herri indigenak eta haien komunitateak eta nekazariak (hauetako asko emakumeak dira) izan dira Lurraren baliabide askoren administratzaile. Nekazariak ingurune fisikoa zaindu egin behar dute, bizimodua bertatik ateratzen baitute. Azken 20 urteotan, nekazaritzako produkzio erantsia ikaragarri hazi da. Hala eta guztiz ere, hazkuntza hori populazioaren hazkundeak, nazioarteko zorrak edo oinarritzko produktuen prezioen jaitsierak gainditu du. Gainera, nekazaritza-jarduerak behar dituzten baliabide naturalek zainketa egokia behar dute, eta nekazaritza-produkzioko sistemen bideragarritasunak geroz eta kezka handiagoa sortzen du.

Nekazaria ardatz duen planteamendua gakoa da nekazaritza jasangarria lortzeko, bai herrialde garatuetan eta bai garatzeko bidean dauden herrialdeetan ere; horregatik, Agenda 21en sartzen diren programa-arlo askok helburu hori lortu nahi dute. Garatzeko bidean dauden herrialdeen landa-populazioaren zati handi bat batez ere biziraupenera bideratutako maila txikiko nekazaritzaren menpekota da, eta familiaren lanean oinarritzen da. Hala ere, baliabideak, teknologia eta bizirauteko eta produkzioko beste bide batzuk eskuratzeko aukera murriztua du. Horren ondorioz, baliabide naturalak gehiegi ustiatzen ditu, bazter-lurrak barne.

Agenda 21 ekosistema marjinal eta hauskorretan bizi diren herrien garapen jasangarriaz ere arduratzen da. Gai horren inguruko programa-arloek arrakasta izan dezaten, funtsezkoak dira

nekazarien motibazioa eta jarrerak, bai eta nekazariei baliabide naturalak modu eraginkor eta jasangarrian aprobetxa ditzaten pizgarriak ematen dizkieten gobernuen politikak ere. Nekazariek, batez ere emakumeek, ziurtasun-gabezia ekonomiko, juridiko eta instituzional handiekin egiten dute topo beren lurretan eta beste baliabideetan inbertitzen dutenean. Erabakiak hartzea erakunde lokal eta komunitarioen mesedetan deszentralizatzea funtsezkoa da biztanleen portaera aldatzeko eta nekazaritza jasangarriaren berezko estrategiak aplikatzeko. Programa-arlo hau helburu hori lortzen lagun dezaketen jardueraz arduratzen da.

Helburuak:

Honako helburu hauek proposatzen dira:

- a) Erabakiak hartzeko prozesu deszentralizatua sustatzea, herrixketako erakunde lokalak sortuz eta indartuz; erakunde horiek boterea eta erantzukizuna lurraeren lehen mailako erabiltzaileen esku utziko dute.
- b) Emakumeen eta talde ahulenen ahalmen legala babestea eta handitzea, lurra eskuratzeari, erabiltzeari eta jabegoan izateari dagokienez;
- c) Nekazaritza jasangarriak berezko dituen jarduerak eta teknologiak sustatu eta bultzatzea;
- d) Input txikiko eta energia-kontsumo txikiko teknologien arloan burujabetasuna bultzatzen duten politikak eta jarduera autoktonoak ezartzea edo indartzea, bai eta ingurugiroko kostuak kontuan hartzen dituzten prezioak finkatzeko mekanismoak ezartzea ere;
- e) Nekazariei pizgarriak eta motibazioa eskaintzen dizkien esparru politikoa ezartzea, nekazaritza-jarduera eraginkorrak eta jasangarriak beregana ditzaten;
- f) Gizonezko nahiz emakumezko nekazariek helburu horiek betetzera bideratutako politikak sortzeko eta aplikatzeko garaian parte har dezaten bultzatzea, ordezkatzeko dituzten erakunde bidez.

Jarduerak:

a) Kudeaketari loturiko jarduerak:

Gobernuek honako hau egin beharko lukete:

- a) Bizirauteko baliabideei, nekazaritzari eta landa-garapenari, ekosistema hauskorren kudeaketari, nekazaritzan ura erabiltzeari eta baliabide naturalen kudeaketa jasangarriari buruzko programak gauzatzen direla bermatzea;
- b) Nekazari bakoitzak baliabide naturalen erabilera eraginkor eta jasangarriari buruz hartzen dituen erabakietan eragiten duten prezioak finkatzeko mekanismoak, merkataritza-politikak, zerga-pizgarriak eta politika egiteko beste tresna batzuk sustatzea. Erabaki horiek familietan, elikadura-segurtasunean, nekazaritza-sektoreko diru-sarreretan, enpleguan eta ingurugiroan dituzten eraginak guztiz hartu beharko dira kontuan;
- c) Nekazariak eta ordezkatzan dituzten erakundeek politikak sortzen parte har dezaten bultzatzea;
- d) Emakumeak luraren jabe izateko eta lurra erabiltzeko duen eskubidea babestea, aitortzea eta formalizatzea; gauza bera luraren gain dituen eskubideekin eta kreditua, teknologia, inputak eta gaikuntza-jarduerak eskuratzeko duen eskubidearekin;
- e) Nekazarien elkarteak osa daitezen bultzatzea, beharrezkoa baldintza juridiko eta sozialak sortuz.

Nekazarien elkarteei babesa ematea honela antola liteke:

- a) Estatuko nahiz nazioarteko ikerketa-zentroek nekazarien elkarteekin lankidetzan jardun beharko lukete, lekuetara egokitutako eta ingurugiroa kaltetzen ez duten nekazaritza-teknikak ezartzeko;
- b) Gobernu, garapeneko erakunde aldeanitz eta aldebiko eta gobernuz kanpoko erakundeek nekazari-elkarteekin lan egin beharko lukete, zenbait eremu agroekologikotarako nekazaritza-garapeneko proiektuak eratzeko.

b) Datuak eta informazioa:

Gobernuek eta nekazarien erakundeek honako hau egin beharko lukete:

- a) Ezaupide eta praktika lokalak eta proiektuen arloan maila lokalean jasotako esperientziak dokumentatzeko, sintetizatze eta zabaltzeko mekanismoak ezartzea, nekazaritzan,

baso-baliabideen ustiapenean eta arrantzan diharduten herriei eragiten dieten politikak sortzeko eta aplikatzeko garaian iraganeko ikasgaiak aprobe txatu ahal izateko;

b) Lurzoruak, ura eta baso-baliabideak zaintzen laguntzen duten nekazaritzako jardueri buruz esperientziak trukatzeko sareak ezartzea, produktu kimikoen erabilera ahalik eta gehien murriztea eta nekazaritzako hondakinak murriztu edo berrerabiltzea;

c) Oinarriztat nekazaritzako beharrak eta ezaupideak erabiltzen saiatzen diren proiektu esperimentalak eta zabalkunde-zerbitzuak prestatzea.

c) Nazioarteko eta lurraldeko kooperazioa:

FAO, NGNF, EMP, Mundu Bankua, garapeneko lurralde-bankuak eta landa-garapenaz arduratzen diren beste nazioarteko erakunde batzuk nekazariak eta haien ordezkariak beren erabakietan parte har dezaten ahalegina egin beharko lukete.

Nekazarien erakunde ordezkariak programak ezarri beharko lituzkete nekazarien erakundeak antolatu eta babesteko, batez ere garatzeko bidean dauden herrialdeetan.

Gauzatzeko bideak:

a) Kostuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Programen arlo honetarako behar den finantzazioa 14. atalean ebaluatu da (Nekazaritza eta landa-garapen jasangarriak sustatzea), bereziki "Nekazaritza jasangarria lortzeko herriaren parte-hartzea ziurtatzea eta giza baliabideen garapena bultzatzea" zatian. 3. atalean (Pobreziaren aurkako borroka), 12. atalean (Ekosistema hauskorren antolaketa: desertifikazioaren eta lehortearen aurkako borroka) eta 13. atalean aipaturiko gastuek ere (Ekosistema hauskorren antolaketa: gunee menditsuen garapen jasangarria) programa-arlo honekin dute zerikusia.

b) Bitarteko zientifiko eta teknologikoak:

Gobernuek eta nazioarteko erakundeek, estatuko ikerketa-erakundeekin eta gobernu kanpoko erakundeekin lankidetzan, honako hau egin beharko lukete:

- a) Ekologikoki arrazionalak diren nekazaritzako teknologiak sortzea, uzten errendimendua handitu, lurzoruen kalitatea gorde, substantzia nutritiboak birziklatu, ur eta energia gutxi erabili eta plagak eta belar txarrak kontrolpean eduki egingo dituztenak;
- b) Baliabide asko eta gutxi erabiltzen dituzten nekazaritzen gaineko azterketak egitea, haien produktibitatea eta jasangarritasuna konparatu ahal izateko. Ikerketa ingurugiroko esparru eta esparru soziologiko desberdinetan egin beharko litzateke, ahal bada;
- c) Gizakion lana eta animalien energia nahiz erabil daitezkeen eta erraz manten daitezkeen eskuzko ekipoak eta animaliek tiratuz erabiltzeko ekipoak ezin hobeto aprobetxatzen dituzten mekanizazioari buruzko ikerketak babestea. Nekazaritzako teknologien garapenean nekazariak dituzten baliabideak eta animaliek nekazaritzan diharduten familietan eta ekologian betetzen duten zeregina ere kontuan hartu beharko lirateke.

c) Giza baliabideen garapena:

Gobernuek, alde biko eta alde anitzeko garapeneko erakunde nahiz erakunde zientifikoek laguntzaz, ikasketa-programak prestatu beharko lituzkete nekazaritza-gaikuntzako institutueterako eta erakundeetarako, eta programa horietan nekazaritza eta ekologia uztartu egin beharko lirateke. Nekazaritzako ekologiako diziplinarteko programak egotea ezinbestekoa da nekazaritzako ingeniarien eta nekazaritza-luzapeneko agenteen belaunaldi berria gaitzeko.

d) Ahalmena areagotzea:

Herrialde bakoitzeko egoera zehatzaren arabera, gobernuek honako hau egin beharko lukete:

- a) Nekazariari luraren jabetza eraginkorra emateko mekanismo instituzionalak eta juridikoak sortzea. Lurraren gaineko eskubideak zehazten dituzten legerik ez egoteak oztopatu egin ditu luraren degradazioaren aurkako neurriak garatzeko bidean dauden herrialdeetako nekazaritza-komunitate askotan;
- b) Jasangarritasuna azpimarratzen duten nekazaritzako erakundeak indartzea, honako hauen bidez: maila lokalean administratutako kreditu-sistema eta laguntza teknikoa, sargaien produkzioko eta banaketako establezimendu lokalak, maila txikiko elaborazio-

unitate eta ekipo egokiak eta merkaturatze- eta banaketa-sistemak;

- c) Mekanismoak ezartzea nekazariak, eta bereziki emakumeek eta talde indigenetako nekazariak, nekazaritza-gaikuntzako jarduerak, kredituak eta elikagaien segurtasuna bermatzeko teknologia hobea eskuratu ahal izan ditzaten.

IV. SAILA: Gauzatzeko bideak

33. ATALA: Finantzaketako baliabideak eta mekanismoak

Sarrera

Batzar Nagusiak, 1989ko abenduaren 22an emandako 44/228 Ebazpenean, besteak beste, Nazio Batuen Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Batzarrak honako hau egin behar zuela erabaki zuen:

Finantza-baliabide berriak eta osagarriak eskaintzeko bideak zehaztea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeentzat, ingurugiroaren arloko programa eta proiektu arrazionalak finantzatzeko, estatuko helburu, lehentasun eta garapen-planen arabera. Era berean, finantza-baliabide berri eta osagarri horiek hornitzeko zaintza eraginkorra ezartzeko moduak aztertzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeei dagokienez, nazioarteko komunitateak datu zehatz eta fidagarrietan oinarrituz neurri egokiak har ditzan;

Mundu guztian interesa duten ingurugiro-arazo larriak konpontzeko neurriak hartzea bideratutako finantza-baliabideak eskaintzeko bideak zehaztea. Horrez gain, finantza-baliabiderik, esperientziarik edo ezaupide teknikorik ez dutelako neurri horiek aplikatzeak zama berezia edo ohiz kanpokoa ekarriko liekeen herrialdeei (eta bereziki garapen bidean daudenei) babesa ematea;

Finantzaketa-mekanismo ugari aztertzea, borondatezkoak barne, eta nazioarteko funts berezia eta bestelako irizpide berritzaileak ezartzeko aukera kontuan hartzea, aldeko oinarri baten gainean garapen bidean dauden herrialdeei ingurugiroko teknologia arrazionalak modu eraginkor eta bizkorragoan transmititzea lortu ahal izateko;

Finantza-beharrak kuantitatiboki zehaztea, Batzarraren erabakiak eta gomendioak ongi aplikatu ahal izateko eta baliabide osagarrien iturriak, konbentzionalak ez direnak barne, finkatu ahal izateko.

Atal honetan Agenda 21 gauzatzeko finantzazioa aztertu da; programa hori ingurugiroko kezkak garapen azeleratuko prozesu batean integratzen dituen mundu-mailako adostasunaren adierazgarri da. Gainerako atal bakoitzerako, Batzarraren idazkaritzak garapen bidean dauden herrialdeentzat gauzatzearen guztizko kostua kalkulatu du, eta nazioarteko komunitateak emakida gisa edo laguntza gisa ematen dituen funtsen beharrak ere balioetsi ditu. Balioespen horiek agerian utzi dute hainbat herrialdek eta nazioarteko komunitateak ahalegin askoz ere

handiagoa egin behar dutela.

Ekintzarako oinarriak:

Hazkunde ekonomikoa, garapen soziala eta pobrezia desagerraraztea dira garapen bidean dauden herrialdeen lehentasun nagusi eta absolutuak; era berean, estatuko eta munduko jasangarritasunari buruzko helburuak betetzeko ezinbestekoak dira. Agenda 21 erabat gauzatzek ekarriko lituzkeen mundu-mailako onurak kontuan hartuz, garapen bidean dauden herrialdeei baliabide eraginkorrak eskaintzea (besteak beste, finantza-baliabideak eta teknologia, horiek gabe zail izango baitzaie beren konpromisoak guztiz betetzea) onuragarria izango da herrialde garatuen eta garapen bidean daudenen interesentzat, baita gizateria osoaren eta etorkizuneko belaunaldien interesentzat ere.

Gelditasunaren kostua Agenda 21 gauzatzeko kostu finantzarioa baino handiagoa izan liteke. Gelditasunak etorkizuneko belaunaldien aukerak murriztu egingo ditu.

Ingurugiroko arazoei aurre egiteko, ahalegin bereziak egin beharko dira. Ingurugiroko arazo lokalak nahiz mundu-mailakoak elkarri lotuta daude. Klimaren Aldaketei buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak eta Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmenak munduko arazo garrantzitsuenetako bi aipatzen dituzte.

Truke librea eta merkatuetarako sarbidea bultzatzen duten estatuko nahiz nazioarteko baldintza ekonomikoak ezartzea lagungarria izango da hazkunde ekonomikoa eta ingurugiroa babestea elkarren gainean oinarritu daitezen, eta hori onuragarria izango da herrialde guztientzat, baina bereziki garapen bidean dauden herrialdeentzat eta merkatu-ekonomiarako trantsizioan dauden herrialdeentzat (2. atalean gai horiei buruzko azterketa sakonagoa egin da).

Horrez gain, garapen jasangarria bultzatzeko ere nazioarteko kooperazioa indartu beharko litzateke, garapen bidean dauden herrialdeen eta, bereziki, atzeratuen dauden herrialdeen ahaleginak babesteko eta osatzeko.

Herrialde guztiek Agenda 21 politika eta programa nazional nola bihur daitekeen aztertu beharko lukete, ingurugiroko eta garapeneko alderdiak bateratzen dituen prozesuaren bidez. Lehentasun nazionalak eta lokalak ezarri beharko lirateke, herriaren eta komunitatearen parte-hartzea bultzatzen duten baliabideen bidez; halaber, gizon eta emakumeentzat aukera-berdintasuna sustatu behar da.

Munduko herrialde guztietan harreman ebolutiboa egon dadin, bereziki garatutako eta garapen

bidean dauden herrialdeen artean, garapen jasangarriko estrategiak eta finantzaketa-maila handiagoak eta aurreikusteko modukoak behar dira, epe luzeagoko helburuak betetzeko. Hori lortzeko, garapen bidean dauden herrialdeek beren lehentasunezko ekintzak eta laguntza-premiak finkatu behar dituzte, eta herrialde garatuek lehentasun horiei erantzuteko konpromisoa hartu behar dute. Ildo horretatik, kontsultako taldeak, mahai inguruko bilerak eta oinarri nazionalako beste mekanismo batzuek prozesua errazteko zeregina bete dezakete.

Agenda 21eko garapen jasangarriko programa handiak gauzatzeko, garapen bidean dauden herrialdeei finantza-baliabide berri eta osagarri ugari eskaini beharko zaizkie. Funtsak emakida gisa edo baldintza lagungarrietan eman beharko litzaizkieke, irizpide eta adierazle arrazional eta berdintasunezkoetan oinarrituz. Agenda 21 pixkanaka-pixkanaka gauzatzen den heinean, beharrezkoak diren finantza-baliabide horiek hornitu beharko liriateke. Hasierako etapa funtsak baldintza lagungarrietan emateko konpromiso esanguratsuekin bizkortuko da.

Helburuak:

Hona hemen helburuak:

- a) Agenda 21 gauzatzeko finantza-baliabideei eta finantzaketa-mekanismoei buruzko neurriak hartzea;
- b) Finantza-baliabide berriak eta osagarriak eskaintzea, era berean nahikoak eta aurreikusteko modukoak direnak;
- c) Agenda 21gauzatzeko erabili beharreko finantzaketa-mekanismoen erabilpen osoa eta etengabeko hobetze kualitatiboa lortzen saiatzea.

Jarduerak:

Funtsean, atal honetako jarduerak Agenda 21en gainerako atal guztien gauzatzeari lotuta daude.

Gauzatzeko bideak:

Oro har, Agenda 21 gauzatzeko finantzaketa herrialde bakoitzeko sektore publiko eta pribatuetatik etorriko da. Garapen bidean dauden herrialdeetan, bereziki herrialde atzeratuenetan, garapena lortzeko laguntza ofiziala kanpo-finantzaketako iturri garrantzitsua da, eta funts berri eta osagarri handiak beharko dira garapen jasangarria eta Agenda 21 gauzatzea lortzeko. Herrialde garatuek Nazio Batuek onarturiko helburu bat betetzeko konpromisoak, hau da, HPGaren % 0,7

garapenerako laguntza ofizial moduan emateko konpromisoak berretsi egiten dituzte eta, helburu horretara oraindik iritsi ez diren heinean, euren laguntza-programak handitzeko prest daude, helburu hori ahalik eta lasterren lortzeko eta Agenda 21 bizkor eta eraginkortasunez gauzatuko dela bermatzeko. Zenbait herrialdek helburu hori 2000. urtean betetzea adostu dute. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeak helburu hori betetzeko egindako aurrerapausoak aldiro-aldiro aztertuko eta zainduko zituela erabaki zen. Azterketa-prozesu honek sistematikoki Agenda 21 gauzatzen dela zaintzea eta erabilgarri dauden finantza-baliabideak aztertzea sistematikoki konbinatu beharko lituzke. Helburua bete duten herrialdeak goraiatu egin behar dira eta mugitu beharreko baliabide osagarri handiak errazteko ahalegin komuna bultzatzen jarrai dezaten lortu behar da. Beste herrialde garatu batzuk, garapen bidean dauden herrialdeen erreformarako ahaleginak babestuz, garapenerako ematen duten laguntza ofiziala handitzeko egin ditzaketen ahalegin guztiak egiten dituzte. Testuinguru horretan, herrialde garatuen arteko zama berdintasunez banatzeak duen garrantzia argi geratzen da. Beste herrialde batzuek, eta horien artean merkatu-ekonomiarako trantsizioan daudenek, herrialde garatuen laguntzak euren borondatez handitu ahal izango dituzte.

Agenda 21erako funtsak eta Batzarraren beste produktu batzuk eskaintzeko garaian, baliabide berri eta osagarrien erabilgarritasuna ahalik eta gehien handitu behar da eta eskura dauden finantzaketako mekanismo eta iturri guztiak erabili behar dira. Horien artean sartzen dira, besteak beste, honako hauek:

a) Garapenerako banku eta funts aldeanitzak:

- i) Sustapenerako Nazioarteko Elkarte (SNE). SNEko ordezkariak SNEren baliabideen hamargarren berraztertzean aztertuko dituzten alderdi eta aukeren artean, Munduko Bankuko lehendakariak Nazio Batuen Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Batzarrean egindako deklarazioari arreta berezia eskaini beharko litzaioke, herrialde behartsuenei Agenda 21en jasotako garapen jasangarriko bere helburuak betetzen laguntzeko;
- ii) Garapenerako lurraldeko eta azpilurraldeko bankuak. Garapenerako lurraldeko eta azpilurraldeko banku eta funtsek zeregin zabal eta eraginkorragoa bete beharko lukete baliabideak baldintza lagungarrietan edo Agenda 21 gauzatzeko beharrezkoak diren beste baldintza lagungarri batzuetan emateko;
- iii) Munduko Bankuak, GNBPK eta NBIPk batera administratzen duten Ingurugirorako Mundu

Funtsaren funts osagarriak, emakida gisa eta baldintza lagungarrietan ematen direnak, munduko ingurugiroarentzat onurak lortzera bideratuta daude. Ingurugirorako Mundu Funtsak Agenda 21en esparruan adostutako jardueren kostu gehigarriak ordaindu beharko lituzke, bereziki garapen bidean dauden herrialdeentzat. Hori dela eta, Funtsa berregituratu egin beharko litzateke, besteak beste, honako hauek egiteko:

Parte-hartze unibertsala sustatzea:

Agenda 21en programen arlo egokiak bere baitan hartzeko behar bezain malgua izatea, munduko ingurugirorako onurak lortzeko, adostutako moduan;

Erabakiak hartzean eta Funtsaren funtzionamenduan administrazio gardena eta demokratikoa ziurtatzea, garapen bidean dauden herrialdeen ordezkariak orekatu eta berdintasunezkoa bermatuz, eta herrialde emaileen finantzaketa-ahaleginei dagokien pisua ematea;

Finantza-baliabide berriak eta osagarriak emakida gisa eta baldintza lagungarrietan ziurtatzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeentzat;

Herrialde garatuen laguntzetan oinarritutako funtsen korrontea aurreikusteko modukoa izan dadin saiatzeko, eta zamaren berdintasunezko banaketak duen garrantzia kontuan hartzea;

Funtsak eskuratzea eta haiek ordaintzea bi aldeek hitzartutako irizpideen arabera egitea, baldintzagarritasun-mota berririk sartu gabe;

- b) Erakunde espezializatuak, Nazio Batuetako gainerako organoak eta gobernuei Agenda 21 gauzatzen laguntzeko zereginak esleitu zaizkien beste nazioarteko erakunde batzuk;
- c) Ahalmena areagotzeko eta kooperazio teknikoko erakunde aldeanitzak. GNBPri beharrezko finantza-baliabideak eman behar zaizkio, bere kanpo-bulegoen sarea eta kooperazio teknikoaren arloko bere agintaldi eta esperientzia luzeak erabil ditzan, estatu-mailan ahalmena areagotzea errazteko. Horrela, erakunde espezializatuen eta Nazio Batuetako gainerako organoen ezaupideak bakoitzari dagokion arloan aprobetxatu egingo lirateke, bereziki NBIPren eta banku alde anitzen eta garapeneko lurralde-bankuen kasuan;

- d) Laguntzako alde biko programak. Programa horiek indartu egin beharko lirateke garapen jasangarria sustatzeko;
- e) Zorraren zama arintzea. Garrantzitsua da garapen bidean dauden eta diru-sarrera txikiak eta ertainak dituzten herrialdeen zor-arazoei irtenbide iraunkorrak aurkitzea, garapen jasangarria lortzeko beharrezko dituzten baliabideak eman ahal izateko. Parisko Clubaren hartzekodun guztiek berehala 1991ko abenduko akordioa aplikatu beharko lukete, egitura egokitzen ari diren herrialde zordun behartsuenen zorraren zama arintzeko; zorraren zama arintzeko neurriak etengabe aztertu beharko lirateke, herri horiek etengabe dituzten zailtasunei erantzuteko;
- f) Funtz pribatuak. Gobernu kanpoko bideetatik ematen diren borondatezko laguntzak handitu egin litezke; izan ere, berriki garapenerako laguntza ofizialaren % 10 ingurura iristeraino hazi dira.

Inbertsioak.

Atzerriko zuzeneko inbertsioak eta teknologia-transferentziak maila handiagoan egitea bultzatu beharko litzateke, inbertsioa sustatzen duten politika nazionalen bidez eta batera sorturiko enpresen eta beste mekanismo batzuen bidez.

Finantzaketa-mekanismo berriak. Finantza-baliabide publiko eta pribatu berriak sortzeko modu berriak asmatu beharko lirateke, bereziki:

- a) Zorraren zama arintzeko hainbat modu, Parisko Clubaren zorraz edo zor ofizialaz gain, zor-trukeak gehiago erabiltzea barne;
- b) Pizgarri eta mekanismo ekonomiko eta fiskalak erabiltzea;
- c) Negozia daitezkeen baimenen bideragarritasuna;
- d) Borondatezko funtsak eta laguntzak bide pribatuetatik jasotzeko mekanismo berriak, horien artean gobernu kanpoko erakundeen bidez;
- e) Gaur egun helburu militarretara bideratutako baliabideak berriro esleitzea.

Jasangarritasuna lortzeko, garrantzitsua da nazioarteko eta estatuko klima ekonomiko lagungarria izatea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeentzat, hazkunde eta garapen ekonomiko

jasangarria lortzeko.

Batzarreko idazkaritzak kalkulatu du garapen bidean dauden herrialdeetan Agenda 21eko jarduerak egiteko urteroko kostua (1993-2000) 600.000 milioi dolarrekoa izango dela, eta kopuru horretatik, 125.000 milioi nazioarteko komunitateak emango du, emakida moduan edo baldintza lagungarrietan. Kalkulu horiek gutxi gorabeherakoak besterik ez dira, eta gobernuek ez dituzten aztertu. Benetako kostuak, besteak beste, gobernuek gauzatzen dituzten estrategia eta programa zehatzen arabera izango dira.

Garatutako herrialdeek eta egin dezaketen beste herrialde batzuek hasierako finantza-konpromisoak hartu beharko lituzkete Batzarraren erabakiak praktikan jartzeko. Plan eta konpromiso horien berri eman beharko liokete Nazio Batuen Batzar Nagusiari bere berrogeita zazpigarren saio-aldian, 1992an.

Garapen bidean dauden herrialdeek ere garapen jasangarriko plan nazionalak egiten hasi beharko lukete, Batzarraren erabakiak praktikan jartzeko.

Ezinbestekoa da Agenda 21en finantzazioa aztertzea eta zaintzea. [38. atalean](#) (Nazioarteko akordio instituzionalak) Batzarrak bultzatzen dituen jarduerak eraginkortasunez gauzatzeari loturiko alderdiak aztertzen dira. Garrantzitsua izango da aldiro-aldiro funtsak eta mekanismoak egokiak diren berrikustea, eta atal honetan adostutako helburuak betetzeko ahaleginak egiten direla ziurtatzea.

34. ATALA: Ekologikoki arrazionala den teknologiaren transferentzia, lankidetzeta eta ahalmena handitzea

Sarrera

Ekologikoki arrazionalak diren teknologiek ingurugiroa babesten dute, ez dute horrenbeste poluitzen, baliabide guztiak modu jasangarriagoan erabiltzen dituzte, hondakin eta produktuen zati handiagoa birziklatzen dute eta hondakinak ordezkatzeko dituzten teknologiek baino modu onargarriagoan tratatzen dituzte.

Poluzioaren testuinguruan, ekologikoki arrazionalak diren teknologiak hondakinik sortzen ez duten edo hondakin gutxi sortzen dituzten "prozesu eta produktuen teknologiak" dira, poluzioa prebenitzeko. Poluzioa tratatzeko "azken etapako" teknologiak ere talde horretan sartzen dira, poluzioa sortu ondoren tratatzeko.

Ekologikoki arrazionalak diren teknologiak ez dira teknologia isolatu hutsak, ezaupide teknikoak, prozedurak, ondasunak eta zerbitzuak, ekipoak eta antolamenduko nahiz kudeaketako prozedurak dituzten erabateko sistemak dira. Ondorioz, teknologien transferentzia aztertzean, giza baliabideak garatzeari eta ahalmen lokala areagotzeari buruzko aukera teknologikoen alderdiak ere aztertu beharko lirateke, bai eta gizonaren eta emakumearen berezko interesei loturiko alderdiak ere. Ekologikoki arrazionalak diren teknologiak bateragarriak izan beharko lukete maila nazionallean zehazten diren lehentasun sozioekonomikoekin, kulturekin eta ingurugirokoekin.

Ekologikoki arrazionalak diren teknologiak eskuratzeko eta horiek baldintza lagungarrietan transferitzeko beharra dago, bereziki garatzeko bidean dauden herrialdeei, kooperazio teknologikoa bultzatzen duten eta beharrezko ezaupide teknologiko espezializatuak transferitzea ahalbidetzen duten babes-neurrien bidez. Horrez gain, neurri horiek ahalmen ekonomiko, tekniko eta administratiboa bultzatu behar dute, transferitzen den teknologia eraginkortasunez erabiltzeko eta areago garatzeko. Kooperazio teknologikoa egiteko, beharrezkoa da teknologia transferitzen nahiz jasotzen duten herrialdeetako enpresek eta gobernuek elkarrekin ahaleginak egitea. Ondorioz, kooperazio horrek prozesu errepikakor bat eskatzen du, eta bertan gobernuak, sektore pribatuak eta ikerketa eta garapeneko erakundeek hartu behar dute parte, teknologia

transferitzean ahalik eta emaitza onenak lortzeko. Kooperazio teknologikoari dagokionez epe luzerako harremana arrakastatsua izan dadin, nahitaez etengabeko gaikuntza sistematikoa beharko da, eta ahalmena maila guztietan handitu egin beharko da denbora luzean zehar.

Atal honetan proposatzen diren jarduerak informazioari, teknologiak eskuratzeari eta haiek transferitzeari buruzko baldintzak eta prozesuak hobetzera bideratuta daude (teknologia modernoena eta hari loturiko ezaupide espezializatuak barne), bereziki garapen bidean dauden herrialdeentzat. Horrez gain, teknologiaren arloko elkarte kooperatiboak eta lankidetzarako mekanismoak eta ahalmena areagotzearekin dute zerikusia, garapen jasangarria bultzatzeko asmoz. Garapen jasangarria lortzeko, munduko ekonomiari eusteko, ingurugiroa babesteko eta pobrezia eta giza sufrimendua baretzeko gaitasuna areagotzeko ezinbestekoak izango dira teknologia berriak eta eragingarriak, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Jarduera hauen azpian, egun erabiltzen den teknologia hobetzeko eta eskuragarriagoek eta ekologikoki arazoizkoagoek ordezkatzeko beharra dago.

Ekintzarako oinarriak:

Agenda 21en atal honek ez die kalterik egiten nazioarteko bitartekoetan onartuko diren teknologien transferentziari buruzko konpromiso eta konponbide zehatzei.

Informazio zientifikoaren eta teknologikoaren eskuragarritasuna eta teknologia ekologikoki arrazionalera sarrera eta bere transferentzia ezinbesteko baldintzak dira garapen jasangarrirako. Egungo teknologien alde ekologikoei buruzko informazio egokia ematearen barruan elkarrekin harremanetan dauden bi osagai sartzen dira: batetik, egungo teknologiei eta teknologia modernoiei buruzko informazioa hobetzea eta teknologia horiek ingurugiroan sortzen dituzten arriskuei buruzko informazioa hobetzea eta, bestetik, teknologia ekologikoki arrazionalak eskuratzeko aukerak areagotzea.

Informazio teknologia errazago eskuratzeko helburu nagusia aukeraketak jakinaren gainean egonda egin daitezen uztea da. Aukeraketa horiek teknologia horiek eskuratzeko aukera eta beren transferentzia erraztu egingo dute eta herrialdeen gaitasun teknologiko endogenoa sendotzea ere erraztuko dute.

Ezagutza teknologiko erabilgarri asko jabetza publikokoak dira. Beharrezko da garapen bidean dauden herrialdeek patenteen bidez babestuta ez dauden teknologiak edo jabetza publikoko teknologiak eskuratzeko aukera izatea. Garapen bidean dauden herrialdeek teknologia horiek eragingarritasunez erabiltzeko beharrezkoak diren ezagutza tekniko eta espezializatuak

eskuratzeko aukera ere izan beharko lukete.

Ezinbestekoa da patente eta jabego intelektualeko eskubideen funtzioak eta teknologia ekologikoki arrazionala eskuratzeko eta transferitzeko garaian sortutako eraginak aztertzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Horrez gain, beharrezkoa da garapen bidean dauden herrialdeek teknologia ekologikoki arrazionala eskuratzeko aukera seguruaren kontzeptua aztertzen jarraitzea, patenteen bidez babestutako eskubideekin harremanetan, garapen bidean dauden herrialdeen alor honetako beharrak eragingarritasunez asetzeko.

Patentatutako teknologia merkatuan eskuratu daiteke eta nazioarteko enpresen jarduerak bide garrantzitsua dira teknologia horiek transferitzeko. Ezagutza komun hauek aprobetxatzen saiatu beharko lukete eta tokian tokiko berrikuntzekin elkartu beharko lituzkete ordeko teknologiak lortzeko. Teknologia ekologikoki arrazionalak eta teknologia modernoak batez ere garapen bidean dauden herrialdeek eskuratzeko aukera segurtatzen duten kontzeptuak eta moduak aztertzen jarraitzen den bitartean, teknologia ekologikoki arrazionalak eskuratzeko aukerak dagokienaren arabera sustatu, erraztu eta finantzatu beharko lirateke. Horretarako, era berean, teknologia ekologikoki arrazional berrien ikerketa eta garapena sustatzen duten berritzaileei pizgarriak eman beharko litzaizkieke.

Herrialde hartzaileek teknologia eta babes gehiago behar dute beren gaitasun zientifikoa, teknologikoa, profesionala eta kidekoak gehiago garatzen laguntzeko, aurretik dauden teknologiak eta gaitasuna kontuan hartuta. Babes horrek teknologia arrazionalagoak hautatzeko aukera ematen die herrialdeei, bereziki garapen bidean dauden herrialdeei. Kasu horretan herrialde horiek teknologia ekologikoki arrazionalak hobeto ebaluatzeko aukera izango lukete transferitu aurretik eta behar bezala aplikatzeko eta erabiltzeko aukera izango lukete. Horrez gain, aurretik dauden teknologiak hobetzeko eta beren beharretara eta garapeneko beren lehentasunetara egokitzeak aukera izango lukete.

Ezinbestekoa da ikertzeko eta garatzeko gaitasuna duen masa kritikoa izatea teknologia ekologikoki arrazionalak eragingarritasunez hedatzeko eta erabiltzeko eta nazio mailan sortzeko. Hezkuntza- eta heziketa-programek helburuetara orientatutako ikerketa-jarduera definituen beharrak islatu beharko lituzkete eta teknologia ekologikoki arrazionalekin ohituta dauden eta diziplinarteko ikuspuntua duten espezialistak produzitzeko ahalegina egin beharko lukete. Masa kritiko hau lortzeak ondorengo eragiten du: batetik, zientzialarien, ingeniarien, hezitzaileen eta erdi mailako artisauen, teknikarien eta administratzaileen gaitasuna hobetzea eta, bestetik, dagozkien babes sozialeko edo administratiboko sistemak sustatzea. Horrez gain, teknologia ekologikoki

arrazionalak transferitu ondoren, tokiko edo nazioko kulturaren era berritzailean egokitu eta sartu behar dira.

Helburuak:

Ondorengo helburuak proposatzen dira:

- a) Guztiek, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek, informazio zientifikoa eta teknologikoa, teknologia modernoenei buruzko informazioa barne, eskura izateko aukeraz arduratzea;
- b) Teknologia ekologikoki arrazionalera sarrera eta beren transferentzia eta dagozkien ezagutza tekniko espezializatuak sustatzea, erraztea eta, dagozkionaren arabera, finantzatzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Hori aldeko baldintzatan eta hitzartutako konponbideen arabera mesede gisa eta lehentasunezko baldintzetan egin beharko litzateke, jabego intelektualaren eskubideak babesteko beharra eta Agenda 21en inguruan garapen bidean dauden herrialdeen behar bereziak kontuan hartuta;
- c) Aintzat hartu ez diren edo baztertuak geratu diren teknologia autoktono ekologikoki arrazionalak mantentzen eta sustatu daitezkeen bultzatzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Horretarako herrialde horietan lehentasuna duten beharrak bereziki kontuan hartu behar dira eta gizonen eta emakumeen funtzio osagarriak hartu behar dira kontuan;
- d) Gaitasun endogenoa sustatzeari laguntza ematea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, teknologia ekologikoki arrazionalak ebaluatzeko, onartzeko, kudeatzeko eta aplikatzeko aukera izan dezaten. Hau, besteak beste, ondorengoaren bidez lor daiteke:
 - i) Giza baliabideak garatuz;
 - ii) Ikerketarako eta garapenerako erakundeen gaitasuna eta programak gauzatzeko erakundeen gaitasuna sendotuz;
 - iii) Behar teknologikoen sektorearteko ebaluazio integratuak gauzatzuz, herrialdeen asmoekin, helburuekin eta lehentasunekin bat, Agenda 21ek nazio mailarako aurreikusten duenaren arabera;
- e) Teknologia ekologikoki arrazionalen eta erabiltzaile posibleen artean epe luzera begira elkarte

teknologikoak sustatzea.

Jarduerak:

a) Nazio, azpilurralde, lurralde eta nazioarte mailako sistemak lotuko dituen nazioarteko informazio-sarea sortzea:

Aurretik dauden nazioko, azpilurraldeko, lurraldeko eta nazioarteko informazio-sistemak garatu eta uztartu egin beharko lirateke, informazioa trukatzeko lurralde mailako zentroen bidez. Informazio-zentro horiek ekonomiaren hainbat sektore hartuko lituzkete, esate baterako nekazaritza, industria eta energia. Sarearen barruan, besteak beste, nazio, azpilurralde eta lurralde mailako patente-bulegoak ere sar litezke eta bulego horietan teknologia modernoagoari buruzko txostenak idazteko behar den guztia izan beharko lukete. Informazioa trukatzeko zentroen sareak aurretik dauden teknologiei, beren iturriari, ingurugiroan sortzen dituzten arriskuei eta eskuratzeko baldintza orokorrei buruzko informazioa hedatuko luke. Informazio-eskareraren arabera funtzionatuko lukete eta azken erabiltzaileek nahi duten informazioa eskuratzeko beharretan zentratuko lirateke. Nazioarteko, lurraldeko eta azpilurraldeko erakundeek; enpresa-elkargoek; merkataritza-elkartek; gobernuz kanpoko erakundeek; gobernuek eta sortu edo sendotu berriak diren nazio mailako sareek egin dezaketen lanaren funtzio positiboak eta egin ditzaketen ekarpenak kontuan hartu beharko lirateke.

Informazioa trukatzeko nazioarteko eta lurraldeko zentroek, behar izanez gero, erabiltzaileei beren beharrak definitzen eta beren beharrak aseko lituzkeen informazioa hedatzen lagundu beharko liekete; horretarako berriak, informazio publikoa eta aurretik dauden komunikazioak transmititzeko sistemak erabili beharko lirateke. Hedatuko litzatekeen informazioan teknologia ekologikoki arrazionala arrakastaz garatu eta aplikatu deneko kasu zehatzen xehetasunak nabarmenduko lirateke eta zehatz-mehatz azalduko lirateke. Eragingarriak izateko, informazioa trukatzeko zentroek informazioa emateaz gain beste zerbitzu batzuk ere eskaini beharko lituzkete; honela, aholkularitza, trebakuntza, teknologiak eta teknologien ebaluazioak lortu ahal izateko iturriak sartu beharko lituzkete. Era horretan, informazioa trukatzeko zentroek

enpresa mistoak eta era askotako elkarteak sortzea bultzatuko lukete.

Nazio Batuen erakunde eskudunek informazio trukatzeko nazio eta lurralde mailan dauden zentroen edo sistemen inbentarioak egin beharko lituzkete. Aurretik dagoen egitura sendotu eta hobetu egin beharko litzateke hala behar den kasuetan. Behar izanez gero, informazio-sistema berriak landu beharko lirateke nazioarteko sarean aurkitutako hutsuneak betetzeko.

b) Transferentzia teknologikora sarbidea babestea eta sustatzea:

Gobernuek eta nazioarteko erakundeek teknologia ekologikoki arrazionalerara sartzeko eta teknologia hauek bereziki garapen bidean dauden herrialdeetara transferitzeko modu eragingarriak sustatu beharko lituzkete. Horrez gain, sektore pribatuak gauza bera egin dezan bultzatu beharko lukete. Hau, besteak beste, ondorengo jardueren bidez lor liteke:

- a) Jabego publikoko edo jabari publikoko teknologia ekologikoki arrazionalen transferentzia eragingarriko politikak eta programak formulatuz;
- b) Sektore pribatuak eta sektore publikoak teknologia ekologikoki arrazionalak berritu, merkaturatu eta erabili ditzaten bultzatzeko aldeko baldintzak sortuz;
- c) Gobernuek eta, hala behar denean, erakunde eskudunek aurretik dauden politikak, diru-laguntzak eta politika fiskalak barne, eta araudiak aztertuz, teknologia ekologikoki arrazionalerara sarrera, beren transferentzia eta beren sarrera sustatzen edo oztopatzen duten zehazteko;
- d) Ingurugiroa eta garapena guztiz integratzen diren eremuan, jabego pribatuko teknologia ekologikoki arrazionalen transferentziari jarritako oztopoak aztertuz eta oztopoak gutxitzeko neurri orokorrak hartuz eta, era berean, teknologia horiek transferitzeko pizgarri zehatzak –fiskalak edo beste mota batekoak– sortuz;
- e) Jabego pribatuko teknologien kasuan, ondorengo neurriak har litezke, bereziki garapen bidean dauden herrialdeen onerako:
 - i) Garatutako herrialdeek, eta horretarako aukera duten herrialdeek, pizgarri egokiak –fiskalak edo beste mota batekoak– sortzea eta hobetzea, enpresek garapen jasagarriaren elementu osagarri gisa teknologia ekologikoki arrazionala, batez ere

garapen bidean dauden herrialdeetara, transferi dezaten bultzatzeko;

- ii) Patenteen bidez babestutako teknologia ekologikoki arrazionalak sarbidea eta beren transferentzia erraztea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetara;
- iii) Patenteak eta lizentziak baldintza komertzialetan erostea garapen bidean dauden herrialdeetara baldintza ez komertzialetan transferitzeko, garapen jasangarrian laguntzeko zati gisa, jabego intelektualaren eskubideak babesteko beharra kontuan hartuta;
- iv) Estatu bakoitzak bera atxikitako nazioarteko hitzarmenak betez eta berauetan onartutako egoera berezien arabera, jabego intelektualaren eskubideen gehiegizko erabilera ekiditeko neurriak hartzea, jabego hori eskuratzearen inguruko arauak barne, lizentziak sortzearen erregimen loteslearen bidez eta behar adina kalte-ordain ordaintzeari eutsiz;
- v) Teknologia ekologikoki arrazionalak eskuratzeko finantza-baliabideak ematea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek beren garapen jasangarria sustatzeko neurriak aplikatzeko aukera izan dezaten, izan ere bestela karga berezia edo neurrigabea izango litzateke berentzat;
- f) Guztiek, batez ere garapen bidean dauden herrialdeek, teknologia ekologikoki arrazionalak eskuratzeko aukera izateko eta herrialde horietara transferitzeko mekanismoak eratu, era berean, teknologiak transferitzeko nazioarteko jokaera-kodearen negoziazio-prozesuaren bilakaera kontuan hartuta, UNCTADek Cartagena de Indiasen (Kolonbia) 1992ko otsailean bere saioen zortzigarren aldian erabaki zuen bezala.

c) Garatzeko gaitasuna hobetzea eta teknologia ekologikoki arrazionalak kudeatzea:

Azpilurralde, lurralde eta nazioarte mailako esparruak eratu eta sendotu beharko liriateke teknologia ekologikoki arrazionalak eta hauei dagozkien ezagutza tekniko espezializatuak garatzeko, transferitzeko eta aplikatzeko. Horretarako garapen bidean dauden herrialdeen beharrei kasu berezia egin beharko litzateke eta funtzio horiek dagozkien organoetan sartu beharko liriateke. Esparru horiek teknologia ekologikoki arrazionalen ikerketa, garapena eta transferentzia sustatzeko garatutako herrialdeen eta garapen bidean dauden herrialdeen

ekimenak erraztuko lituzkete. Hori neurri handi batean herrialdeen barruan eta herrialdeen artean, komunitate zientifiko eta teknologikoen, industriaren eta gobernuen artean ahaleginak elkartzearen bidez lortuko litzateke.

Teknologia berriak ebaluatzeko, garatzeko, kudeatzeko eta aplikatzeko gaitasun nazionala sustatu beharko litzateke. Honek ondorengoa egitera derrigortzen du: aurretik dauden erakundeak sendotzera, maila guztietako langileak trebatzera eta teknologien erabiltzaileak heztera.

d) Ikerketa sareen lankidetzaren sarea eratzea:

Nazio, azpilurralde, lurralde eta nazioarteko maila lankidetzaren zentroen artean laguntza-sarea eratu beharko lirateke teknologia ekologikoki arrazionalen alorrean. Horren helburua teknologia ekologikoki arrazionala eskuratzeko eta teknologia mota hori garatzeko, kudeatzeko eta transferitzeko aukera hobetzea da, garapen bidean dauden herrialdeen artean eta garatutako herrialdeen eta garapen bidean dauden herrialdeen arteko transferentziak eta lankidetzaren barne. Horretarako, bereziki ikerketak egiteko, garapenerako eta frogak egiteko aurretik dauden eta erakunde nazionalekin lotuta dauden azpilurralde edo lurralde mailako zentroak hartu behar dira oinarri, sektore pribatuarekin elkarlanean.

e) Lankidetzaren eta laguntza-programak babestea:

Lankidetzaren eta laguntza-programei babesa eman beharko litzaieke, baita Nazio Batuen organismoek eta beste erakunde publiko eta pribatu eskudun batzuek eskaintzen dituztenei ere, baina bereziki garapen bidean dauden herrialdeetako programei eman behar zaie babesa. Trebakuntzaren, mantentzearen, behar teknologiko nazionalen ebaluazioaren, ingurugiro-inpaktuaren ebaluazioen eta garapen jasangarria planifikatzaren alorrean, batetik, ikerketaren eta garapenaren barruan eta, bestetik, gaitasun teknologikoa eta giza baliabideak sortzearen barruan egin beharko litzateke hori.

Garapen bidean dauden lurraldeen ikerketa zientifikoko, informazioa hedatzeko eta teknologien garapenerako nazioarteko, azpilurraldeko, lurraldeko, alde anitzeko eta alde biko programei ere babesa eman beharko litzaieke. Besteak beste, ikerketako enpresa eta erakunde publiko eta pribatuen parte-hartzearen bidez eta alor honetan garapen bidean dauden herrialdeen arteko lankidetzaren teknikoko finantza-programen bidez egin daiteke hori.

Honekin batera elementu horien arteko lotura sortu beharko litzateke, garapen jasangarrirako teknologien ezagutzaren, hedapenaren eta aplikazioaren inguruko eragingarritasuna segurtatzeko.

Mundu, azpilurralde eta lurralde mailako programak formulatzearen barruan, beharretan oinarritutako lurralde, azpilurralde eta nazio mailako lehentasunak zehaztea eta ebaluatzea sartu beharko litzateke. Programa horiek oinarritzeko planak eta azterketak finantzazio posible baten oinarri izan litezke. Finantzazio hori garapeneko banku alde anitzek, alde biko erakundeek, sektore pribatuko erakundeek eta gobernuz kanpoko erakundeek eskaini beharko lukete.

Egun garatutako herrialdeetako erakundeetan lan egiten duten eta garapen bidean dauden herrialdeetakoak diren adituek teknologia ekologikoki arrazionalen alorrean bisitak egitea bultzatu beharko litzateke eta aditu horiek beren lurraldeetara beren borondatez itzultzea bultzatu beharko litzateke.

f) Teknologia ekologikoki arrazionalen kudeaketa babesteko ebaluazio teknologikoa:

Nazioarteko komunitateak –bereziki Nazio Batuen organismoek–, nazioarteko erakundeek, beste erakunde eskudunek eta erakunde pribatuek elkarlanean aritu behar lukete behar teknologikoa ebaluatzeko esperientziak trukatzeko eta gaitasuna sustatzeko, batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan. Hori teknologia ekologikoki arrazionala oinarritutako aukeraketak egin ahal izatekoa egin beharko litzateke. Horretarako ondorengoa egin behar lukete:

- a) Teknologia ekologikoki arrazionalen kudeaketarako teknologiak ebaluatzeko gaitasuna sortzea, ingurugiroan sortutako eraginen eta ingurugiroarentzako sortzen dituen arriskuen ebaluazioa barne. Horretarako arrazoi ekologikoei edo osasun arrazoiaren inguruko debekuei lotutako teknologiaren transferentzien inguruko zaintza behar bezala hartu behar da kontuan;
- b) Teknologia ekologikoki arrazionala ebaluatzeko lurralde, azpilurralde eta nazio mailako zentroen nazioarteko sarea sendotzea, informazioa tukatzeko zentroekin batera, teknologia ebaluatzeko aurretik aipatutako iturriak nazio guztien onurarako aprobetxatzeko. Hasiera batean, zentro horiek egoera nazional zehatzetan aholkularitza

eskaini eta trebakuntza eman dezakete eta, horrez gain, teknologia ekologikoki arrazionalak ebaluatzearen inguruan trebakuntza sortzea bultzatu dezakete. Hala behar izanez gero, erakunde berriak sortu aurretik, jarduera horien ardura lurralde mailan dauden erakundeei emateko aukera aztertu beharko litzateke eta jarduera horren finantzazioa sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarrekin bidez bideratzeko aukera ere aztertu beharko litzateke.

g) Lankidetzarako mekanismoak eta elkarrekin:

Epe luzera begira, garatutako herrialdeen eta garapen bidean dauden herrialdeen artean elkarrekin aritzeko hitzarmenak sustatu beharko lirateke, teknologia ekologikoki arrazionalak garatzeko. Enpresa transnazionalak ingurugiroa babesteko eta hobetzeko beharrezkoak diren eta gutxi zabaldua dauden ezagutza teknikoaren jasotzaile dira eta horregatik funtzio eta interes bereziak dituzte, batetik, teknologien transferentziaren inguruko lankidetzak sustatzeko garaian, transferentzia horretarako bide garrantzitsuak direlako, eta, bestetik, trebatutako giza baliabideen erreserba sortzeko eta beharrezko azpiegitura sustatzeko garaian.

Teknologien banatzaileen eta onuradunen enpresa mistoak sustatu beharko lirateke, garapen bidean dauden herrialdeen politikako lehentasunak eta helburuak kontuan hartuta. Atzerriko inbertsio zuzenarekin batera, enpresa misto horiek bide garrantzitsuak izan daitezke teknologia ekologikoki arrazionalak transferitzeko. Enpresa misto eta inbertsio zuzen horien bidez, ingurugiroa antolatzen jarduerak arrazionalak transferitzea eta mantentzea posible izango litzateke.

Gauzatzen bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzen urteko (1993-2000) batez besteko gastua 450 eta 600 milioi dolar artekoa izango dela balioztatu du, eta nazioarteko komunitateak mesede eta dohaintza moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuak ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak

gauzatzeko aukeratutako programen araberakoak izango dira.

35. ATALA: Garapen jasangarria lortzeko zientziaren zeregina

Sarrera

Atal hau eguneroko biziraupenaren alde eta gizateriaren etorkizuneko garapenaren alde ingurugiroaren eta garapenaren antolaketa zehatza babesteko zientziaren zereginari eta erabilerari buruzkoa da. Atal honetan proposatzen diren atalak oso zabalak dira, Agenda 21eko gainerako ataletan bereizitako behar zientifiko zehatzak babestu ahal izateko. Zientziaren funtzioetako batek informazioa ematea izan behar du eta informazio horrek erabakiak hartzeko prozesuan ingurugiroari eta garapenari buruzko politikak hobeto formulatzen eta aukeratzen lagundu beharko luke. Baldintza hori betetzeko ezinbestekoa izango da zientzien ezagutza areagotzea, epe luzerako ebaluazio zientifikoak hobetzea, herrialde guztietan gaitasun zientifikoa sendotzea eta zientziek sortzen diren beharrak kontuan izan ditzaten lortzea.

Zientzialariek hobeto ulertzen dituzte orain ondorengo alorretako joera posibleak: klimaren aladaketa, baliabideen kontsumo-tasaren igoera, joera demografikoak eta ingurugiroaren degradazioa. Garapeneko epe luzeko estrategiak lantzeko garaian ezinbestekoa da alor horietan eta beste alorretan gertatzen diren aldaketak kontuan hartzea. Estrategia horien oinarri zientifikoa hobetzeko lehen neurri gisa, ezinbestekoa da ondorengo gaiak hobeto ulertzea: lurra, ozeanoak, atmosfera eta, azkenik, uraren eta elikagaien zikloen eta ziklo biogeomikoen eta Lurra sistemaren zati diren energia korronteen ekintza interkonektatua. Hori behar-beharrezkoa da, batetik, planeta mantentzeko gaitasuna eta, bestetik, giza jarduerak eragindako tentsioen aurrean erreperatzeko aukera ahalik eta zehatzen kalkulatu ahal izateko. Zientziek ezagutza hori prozesu ekologikoak sakonago ikertuz eta egun eskura dauden baliabide moderno eta eragingarriak aplikatzearen bidez eskaini dezakete; baliabide horiek telebehaketako gailuak, behaketako tresna elektronikoak eta konputagailuen bidez kalkulatzeko eta ereduak lantzeko gaitasuna izan daitezke. Zientziek zeregin garrantzitsua dute eta zeregin hori Lurra planetak bizitzari eusteko duen oinarritzko garrantzia planetak funtzionatzen jarraitzeko garapeneko estrategia egokiekin lotzeko lanean oinarrituta dago. Zientziek geroz eta zeregin garrantzitsuagoa izan behar dute baliabideen ustiapenaren eragingarritasuna areagotzeko garaian eta garapeneko jardura, baliabide eta aukera berriak aurkitzeko garaian. Ezinbestekoa da zientziek baliabideak erabiltzeko geroz eta joera motelagoak –industrian, nekazaritzan eta garraioan geroz eta energia gutxiago erabiltzea barne– ebaluatzea eta sustatzea etengabe. Beraz, zientziak ezinbesteko osagai bilakatzen ari dira, geroz eta neurri handiagoan gainera, garapen jasangarria lortzeko era posibleak bilatzeko garaian.

Garapen jasagarria lortzeko helburuak antolatzeko eta babesteko ezagutza zientifikoak aplikatu beharko lirateke, Lurra sistemaren egungo egoeraren eta etorkizuneko aurreikuspenen ebaluazio zientifikoaren bidez. Ebaluazio horiek zientzien egungo eta etorkizuneko berrikuntzetan egon beharko lukete oinarrituta eta erabakiak hartzeko prozesuan eta zientzien eta politiken formulazioen arteko interakzio-prozesuetan erabili beharko lirateke. Beharrezkoa da zientziek ekarpen gehiago egitea ezagutzak areagotzeko eta zientzien eta gizartearen integrazioa errazteko. Helburu horiek lortzeko gaitasun zientifikoa areagotzea ere nahitaezkoa izango da, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Oso garrantzitsua da garapen bidean dauden herrialdeetako zientzialariek mundu mailako ingurugiroaren eta garapenaren arazoei buruzkoak diren nazioarteko ikerketa zientifikoaren programetan parte hartzea, herrialde guztiek berdintasunean parte hartu ahal izan dezaten munduko ingurugiroari eta garapenari buruzko gaien negozioazioetan. Ingurugiroko itzuliezineko kalteen mehatxuaren aurrean, ezagutza zientifikoaren gabeziak ez du aitzakia izan behar berez justifika daitezkeen neurriak atzeratzeko garaian. Arretaren printzipioan oinarritutako ikuspegiak oinarri zientifiko solidoa eman dezake oraindik guztiz ulertzen ez diren eta beren ondorioak oraindik aurreikus ez daitezkeen sistema konplexuen inguruko politikak formulatzeko.

XXI. mendean Ingurugiroarentzako eta Garapenerako Zientziaren Programari buruzko Nazioarteko Biltzarraren (ASCEND 21) ondorioetara eta gomendioetara egokitzen diren programa-arloak ondorengoak dira:

- a) Antolaketa jasagarrirako oinarri zientifikoa sendotzea;
- b) Ezagutza zientifikoak areagotzea;
- c) Epe luzera ebaluazio zientifikoa hobetzea;
- d) Ahalmen zientifikoa areagotzea.

Programa-arloak

A. Antolaketa jasangarrirako oinarri zientifikoa sendotzea

Ekintzarako oinarriak:

Garapen jasangarriak, besteak beste, hauxe eskatzen du: batetik, epe luzearako ikuspuntuak izateko; bestetik, mundu mailako aldaketek herri eta lurralde mailan sortzen dituzten eraginak garapenaren prozesuan integratzeko eta, azkenik, eskuragarri dauden ezagutza zientifiko eta tradizional hobekuntza erabiltzeko. Garapenaren prozesua etengabe ebaluatu behar da, ikerketa zientifikoak kontuan hartuta. Hori baliabideen erabilerak sistema ekologikoan ahalik eta ondorio gutxien izan ditzala segurtatzeko egin beharko litzateke. Hala ere, etorkizuna zalantzarikoa da eta ezustekoak gertatuko dira. Ondorioz, ingurugiroa eta garapena antolatzeke politikak egokiek solidoak izan behar dute ikuspuntu zientifikotik eta erantzunaren malgutasuna segurtatzeko hainbat aukera izan beharko lituzke. Arretaren printzipioan oinarritutako ikuspegia garrantzitsua da. Askotan komunikazio falta dago zientzialarien, politikak formulatzeaz arduratzen direnen eta, oro har, jendearen artean, izan ere, beren interesak gobernuaren erakundeek eta gobernu kanpoko erakundeek adierazten dituzte. Komunikazio hobekuntza egon beharko luke zientzialarien, erabakiak hartzeaz arduratzen direnen eta, oro har, jendearen artean.

Helburuak:

Helburu nagusia hauxe da: herrialde bakoitzak, hala eskatzen dien nazioarteko erakundeekin babesarekin, beren ezagutza zientifikoaren egoera eta ikerketako beharren eta lehentasunen egoera zehaztea. Hori ahalik eta azkarren ondorengo alorretan hobekuntza nabarmenak izan daitezkeen lortzeko egin beharko litzateke:

- a) Oinarri zientifikoa eskala handian hedatzea eta garapen bidean dauden herrialdeen gaitasun zientifikoa eta ikerketarako gaitasuna sendotzea, bereziki ingurugiroaren eta garapenaren alorretan;
- b) Ingurugiroari eta garapenari buruzko politikak formulatzea, ebaluazio eta ezagutza zientifiko onenak oinarri hartuta eta nazioarteko lankidetzaren areagotzeko beharra eta erabiltzen diren prozesuen eta aukeren inguruko zalantzak kontuan hartuta;
- c) Zientzien eta erabakiak hartzeko prozesuen arteko elkarrekintza bultzatzea, hala dagokienez, arretaren printzipioan oinarritutako ikuspegia erabiliz, produktibo eta

kontsumoko egungo jarraibideak aldatzeko. Horren helburua hainbat aukeraren artean hautaketa egiteko garaian sortzen diren zalantzak gutxitzeko denbora aurreratzea da;

- d) Ezagutzak, bereziki ezagutza autoktonoak eta lokalak, lantzea eta hainbat giro eta kulturatako gaitasuna gehitzea, garapean maila jasangarriak lortzeko. Horretarako, nazio, lurralde eta nazioarte mailako baldintzen artean dauden harremanak hartu behar dira kontuan;
- e) Zientzialarien arteko lankidetzaren areagotzea, diziplinarteko ikerketako jarduerak eta programak sustatuz;
- f) Garapen jasangarriaren inguruko lehentasunak finkatzeko eta erabakiak hartzeko garaian herriak parte hartzea.

Jarduerak:

Herrialdeek, hala eskatuz gero nazioarteko erakundeekin laguntzarekin, ondorengo jarduerak gauzatu beharko lituzkete:

- a) Garapen jasangarria sustatzeko behar diren natur zientzien eta gizarte-zientzien inguruko datuen inbentariak prestatzea;
- b) Nazioarteko ikerketa-jardueren inguruan ikerketetako beharrak eta lehentasunak zehaztea;
- c) Herri, nazio, azpilurralde eta lurralde mailan eta Nazio Batuen sistemaren barruan mailarik altuenetan beharrezkoak diren mekanismo instituzionalak sendotzea eta sortzea. Horren helburua ingurugiroari eta garapenari buruzkoak diren eta epe luzera garapen jasangarriaren helburuekin bateragarri diren politiken formulazioa hobetzeko oinarri zientifiko solidoa eratzea da. Alor honetan egun egiten diren ikerketak hedatu egin beharko lirarteke, garapen jasangarriko eredu hipotetikoak formulatzeko garaian epe luzera helburu sozialak finkatzeko jendeak gehiago parte har dezan lortzeko;
- d) Garapen jasangarriko beharrezkoak diren bitartekoak lantzea, aplikatzea eta eratzea ondorengo kontuan hartuta:

- i) Bizi-kalitatearen adierazleak. Adierazle horien artean, esate baterako, osasuna, hezkuntza, gizarte-ongizatea, ingurugiroaren egoera eta ekonomia sartu beharko lirateke;
 - ii) Garapen ekologikoki arrazionalaren eta pizgarrien egitura berri eta hobetuen arabeko irizpide ekonomikoak, baliabideen antolaketa hobetzeko;
 - iii) Epe luzerako ingurugiro-politiken formulazioa, arriskuen kudeaketa eta teknologia ekologikoki arrazionalen ebaluazioa;
- e) Ekosistemen egoeren eta giza komunitateen osasunaren arteko loturei buruzko datuak biltzea, aztertzea eta integratzea, osasunarekin eta ingurugiroarekin harremanetan garapeneko politiken eta estrategien arteko gastuen eta etekinen inguruko ezagutza hobetzeko, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;
- f) Nazio eta lurralde mailan garapen jasangarria lortzeko moduen azterketa zientifikoak egitea, metodo alderagarriak eta osagarriak erabiliz. Azterketa horiek nazioarte mailako lan zientifikoaren bidez koordinatuta egongo lirateke eta neurri handi batean tokian tokiko adituen parte-hartzearekin gauzatu beharko lirateke; horrez gain, dagokienaren arabera, lurralde mailako ikerketa-sare edo zentroetako diziplina anitzetako ekipoei eskatu beharko litzaizkieke, nazio mailako gaitasuna eta baliabideen erabilgarritasuna kontuan hartuta;
- g) Lurralde eta mundu mailan, ikerketa zientifikoaren lehentasunezko ordena zehazteko gaitasuna hobetzea, garapen jasangarriaren beharrei erantzuteko. Hori ikerketa prozesua da eta epe motzerako eta luzerako etekinei buruzko eta epe luzerako arrisku eta gastu posiblei buruzko iritzi zientifikoak emateko eskatzen du. Erraz egokitzen dena izan beharko luke eta aztertutako beharrak kontuan hartu beharko lituzke. Arriskuak ebaluatzeko erabiltzen erraza den metodologia gardenaren bidez gauzatu beharko litzateke;
- h) Zientzia formalen emaitzak kultura desberdinen ezagutza tradizionalekin uztartzeko metodoak lantzea. Metodo horiek frogatu egin beharko lirateke azterketa esperimentalak erabiliz. Herri mailan landu beharko lirateke eta talde indigenen eta dagokien egungo "zientzia aurreratu"aren arteko loturak adostu beharko lirateke. Horretarako

ingurugiroaren eta garapen jasangarriaren aldeko emaitzen hedapena eta aplikazioa nabarmendu egin beharko lirateke.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 150 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 30 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berriazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Bitarteko zientifikoaren eta teknologikoaren artean ondorengo puntuak sartzen dira:

- a) Nazio, azpinazio, lurralde eta mundu mailan, ikerketa zientifikoko programa berriei babesa ematea, alde sozioekonomikoak eta giza aldeak kontuan hartuta. Hori bi helbururekin egin beharko litzateke: batetik, jarduera eta ezagutza zientifiko tradizionalen eta konbentzionalen arteko sinergia osatzea eta bultzatzea eta, bestetik, ingurugiroa degradatzeari eta birgaitzeari buruzko diziplinarteko ikerketak sendotzea;
- b) Metodologia aztertzeke eta gidalerroak formulatzeko frogaketa-eredu desberdinak (esate baterako, baldintza sozioekonomikoak, ingurugiro-baldintzak) eratzea;
- c) Arriskuak ebaluatzeko metodoak lantzeko babesa ematea, politikak formulatzeaz arduratzen direnei ikerketa zientifikoaren barruan lehentasunezko ordena zehazten laguntzeko.

B. Ezagutza zientifikoak areagotzea

Ekintzarako oinarriak:

Garapen jasagarria sustatzeko Lurraren mantenurako gaitasuna zenbaterainokoa den eta bizitzari eusteko bere gaitasuna gutxitu edo areagotu dezaketen prozesuak zein diren zehatz jakin beharko litzateke. Munduko ingurugiroa aurreko beste edozein mendetan baino azkarrago ari da aldatzeko; horren ondorioz, edozein ezusteko gerta liteke eta datorren mendean, agian, aldaketa ekologiko garrantzitsuak gerta litezke. Era berean, energiaren, uraren eta berriztagarriak ez diren beste baliabideen giza kontsumoa areagotzen ari da, bai biztanle bakoitzeko, bai orokorrean, eta munduko leku askotan defizit handiak gerta daitezke, ingurugiroaren baldintzak aldatuko ez balira ere. Prozesu sozialak hainbat aldaketaren menpe daude, bai denbora, bai espazioan, lurraldeetan eta kulturetan. Prozesu horiek baldintza ekologikoen bilakaeran eragiten dute eta, era berean, baldintza horien eragina jasotzen dute. Giza faktoreak dira harreman-multzo korapilatsu horien artean bultzatzaile indartsuenak eta mundu mailako aldaketetan eragin zuzena dute. Ondorioz, nahitaezkoa da klimaren aldaketaren eta garapen era jasangarriagoen jatorrietan eta ondorioetan gizakiak duen garrantzia aztertzea.

Helburuak:

Funtsezko helburuak hauek dira: batetik, gizakien eta naturaren sistema ekologikoen arteko loturari buruzko oinarriko ezagutzak hobetzea eta areagotzea eta, bestetik, azterketak eta iragarpenak egiteko bitartekoak hobetzea, garapenaren aukerak ingurugiroan dituzten eraginak hobeto ulertzeko. Eragin horiek ondorengo jardueren bidez ulertu beharko lirateke:

- a) Ikerketa-programak gauzatu, bere sistema naturalek baldintzatutako Lurraren mantenurako gaitasuna hobeto ulertzeko. Sistema naturalen barruan, besteak beste, ondorengoak egongo lirateke: ziklo biogeokimikoak, atmosferak osatzen duen sistema, ozeanoa, biosfera eta kriosfera, biosfera eta dibertsitate biologikoa, nekazaritzako ekosistema eta lurreko eta uretako beste ekosistema batzuk;
- b) Lurraren sistema naturalek gizakien jardueren ondorioz jasotako eragina –geroz eta handiagoa den eragina– zein eratakoa den zehatzago ebaluatu ahal izateko azterketak eta iragarpenerak egiteko bitarteko berriak landuz eta aplikatuz. Hemen gizakiek bai nahita, bai nahi gabe egindako jarduerak eta jarduera eta joera horien eraginak eta ondorioak

sartuko lirateke;

- c) Zientzia fisikoak, ekonomikoak eta sozialak integratuz, joera ekonomikoek eta sozialek ingurugiroan duten eragina eta herri eta mundu mailako ekonomiek ingurugiroaren degradazioan duten eragina hobeto ulertzeko.

Jarduerak:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Behaketarako sare zabala antolatzea, ondorengo helbuekin: zikloak deskribatzea (esate baterako, munduko zikloak eta ziklo biogeokimikoak eta hidrologikoak), beren jokaeren inguruko hipotesiak frogatzea eta munduko ziklo desberdinen eta nazio, azpilurralde, lurralde eta mundu mailako beren ondorioen arteko elkarreraginen inguruko ikerketak hobetzea, tolerantziaren eta zaugarritasunaren inguruko gidari gisa;
- b) Nazio, azpilurralde, lurralde eta nazioarte mailan, munduko kimika atmosferikoaren eta gas termoaktiboen iturrien eta hustulekuen behaketa- eta ikerketa-programei babes gehiago eskaintzea eta emaitzak jendeak ulertzeko moduan aurkez daitezten lortzea;
- c) Nazio, azpilurralde, lurralde eta nazioarte mailan, itsasoko eta lurreko sistemei buruzko ikerketa-programei babesa ematea, beren osagaien inguruko lurreko mundu mailako datu-baseak sendotzea, ebaluazioa gertutik jarraitzeko behar diren sistemak hedatzea eta Lurra sistemaren eta bere azpisistemen iragarpen-ereduen prestaketa hobetzea, intentsitaten desberdineko giza jardueren eraginekin harremanetan sistema horien funtzionamendu-ereduen prestaketa barne. Ikerketa-programetan Agenda 21eko beste ataletan aipatutako programak sartu beharko lirateke; programa horiek munduko aldaketei buruzko garapeneko programen lankidetzak eta bateratze-mekanismoei babesa ematen diete;
- d) Sateliteen misioen, sareen, sistemen eta prozeduren koordinazioa bultzatzea, datuak lantzeko eta hedatzeko, eta Lurra behatzeko datuak erabiltzen dituztenen artean eta Mundua Behatzeko Nazio Batuen Sistemaren artean loturak sortzea;
- e) Ingurugiroaren nahasmenduen eraginez, epe motzera eta epe luzera lurreko, kostaldeko, itsasoko eta ur gezatako ekosistemetan eta dibertsitate biologikoetan gerta daitezkeen erreakzioak aurreikusteko gaitasuna areagotzea eta leheneratzeko jarduera ekologikoak

gehiago garatzea;

- f) Ekosistemen funtzionamenduan eta bizitzaren euskarriaren munduko sistemaren barruan dibertsitate biologikoaren funtzioa eta espezieen galera aztertzea;
- g) Kostaldeetako baliabideen antolaketa arrazionalerako beharrezkoak diren mundu mailako behaketa-sistemak martxan jartzea eta ur gezaren kantitatea eta kalitatea behatzeko sistemak nabarmen hedatzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;
- h) Lurra espaziotik behatzeko sistemak lantzea, Lurra sistema bezala uler dadin lortzeko. Horren bidez atmosferaren, hidrosferaren eta litosferaren arteko elkarreaginaren neurketa integratua eta konstantea eta epe luzera balioko lukeena egin ahal izango litzateke. Horrez gain, datuak banatzeko sistemak lantzea; sistema horiek behaketaren bidez lortutako datuen erabilera erraztuko lukete;
- i) Datuak eta informazioa automatikoki biltzeko, erregistratzeko eta datu-baseetara transmititzeko aukera ematen duten sistemak eta teknologiak lantzea eta aplikatzea, itsasoko, lurreko eta atmosferako prozesuak ikuskatzeko eta hondamendi naturalak gertatu aurretik jakinaren gainean egoteko;
- j) Ingeniaritza-zientziek Lurra sistemari buruzko diziplina anitzeko ikerketa-programei egindako ekarpena hobetzea, bereziki hondamendi naturalei aurre egiteko eta beren eragin negatiboak gutxitzeko prestakuntza areagotzearen inguruan;
- k) Fisika-, ekonomia- eta gizarte-zientziak integratzeko ikerketak areagotzea, portaera ekonomikoak eta sozialak ingurugiroan dituzten eraginak eta ingurugiroaren degradazioak munduko ekonomietan eta ekonomia lokaletan dituen eraginak hobeto ulertzeko. Eta, bereziki, ondorengoa egiteko:
 - i) Gizakiek indar bultzatzaile gisa dituzten jarrerei eta portaerari buruzko ikerketak egiteko, ingurugiroaren aldaketen zergatiak eta ondorioak eta baliabideen erabilera ulertzeko;
 - ii) Munduko klimaren aldaketaren aurrean gizakiek, ekonomiek eta gizarteak emandako

erantzunari buruzko ikerketak sustatzeko;

- I) Erraz erabil daitezkeen teknologia eta sistema berrien garapena babestea. Teknologia eta sistema horiek diziplina anitzeko prozesu fisikoen, kimikoen, biologikoen eta sozialen eta giza prozesuen integrazioa erraztu beharko lukete eta, era berean, erabakiak hartzeaz arduratzen direnei eta, oro har, jendeari informazioa eta ezagutzak eman beharko lizkiekete.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 2.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 1.500 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak ondorengoak dira:

- a) Unibertsitateetako elkarrekin, ikerketa-institutuetan eta gobernuz kanpoko erakundeetan garatzen diren nazio mailako ikerketa-jarduerak babestea eta jardura horiek lurralde eta mundu mailako programetan aktiboki parte har dezaten lortzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;
- b) Teknologia eta sistema eragileen erabilera sustatzea, esate baterako ondorengo erabilera: superkonputagailuak; espazioa, lurrean eta ozeanoan oinarritutako behaketa-teknologiak; kudeaketa-datuak eta datu-baseen inguruko teknologiak. Horrez gain, klima behatzeko mundu mailako sistema lantzea eta aplikatzea

C. Epe luzera ebaluazio zientifikoa hobetzea

Ekintzarako oinarriak:

Ingurugiroaren eta garapenaren alorretan ikerketa zientifikoaren beharrak asetzea zientziak garapen jasagarriaren prozesuari eskain diezaiokeen babesaren lehen etapa bakarrik da. Eskuratutako ezagutzak uneko egoeraren eta etorkizuneko hainbat egoera posibleren ebaluazio zientifikoak egiteko (auditoriak) erabili egin daitezke. Horrek esan nahi du biosfera egoera osasuntsuan mantendu beharra dagoela eta beharrezkoa dela dibertsitate biologikoaren galerak gutxitzea. Populazioari eta biosferari epe luzera eragingo dioten ingurugiroko aldaketa asko mundu mailakoak badira ere, aldaketa garrantzitsuenak nazio eta herri mailakoak dira. Era berean, herri eta lurralde mailako giza jarduerak askotan mundu mailako mehatxuak eragiten dituzte, esate baterako, ozono-geruza estratosferikoaren galera. Beraz, beharrezkoa da mundu, lurralde eta herri mailan ebaluazio eta proiektio zientifikoak egitea. Herrialde eta erakunde askok prestatu dituzte dagoeneko ingurugiroari eta garapenari buruzko txostenak eta txosten horietan egungo baldintzak ikuskatzen dira eta etorkizuneko joerak adierazten dira. Lurralde eta mundu mailako ebaluazioek txosten horiek erabil ditzakete eta gehiago hedatu beharko lirateke. Horrez gain, etorkizunean gizakien erreakzio posibleei buruzko hainbat hipotesiren inguruko etorkizuneko baldintzen azterketa zehatzen emaitzak jaso ditzakete, eskura dituzten eredu onenak erabiliz. Ebaluazio guztiak garapeneko era baliagarriak zehazteari begira egin beharko lirateke, lurralde bakoitzaren karga ekologikoaren eta sozioekonomikoaren gaitasunaren barruan. Ingurugiro lokalari buruzko ezagutza tradizionalak erabat aprobetxatu beharko lirateke.

Helburuak:

Helburu nagusia, nazio, azpilurralde, lurralde eta mundu mailan, garapenaren barruko ingurugiroko gaien egungo egoeraren eta joeren ebaluazioak eskaintzea da, eskura dauden ezagutza zientifiko onenak oinarri hartuta. Hori estrategia desberdinak lantzeko egin beharko litzateke eta horretarako tokian tokiko ezagutzak hartu beharko lirateke kontuan, epe luzerako politikak formulatzeko garaian beharrezkoak diren denboraren eta lekuaren eskala desberdinak izateko.

Jarduerak:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Garapenaren eta ingurugiroaren inguruko gaiei buruzko datuak eta estatistikak biltzeko egungo sistemak koordinatzea epe luzerako ebaluazio zientifikoaren prestakuntza errazago egiteko. Datu horiek, esate baterako, ondorengo gaiei buruzkoak izan daitezke: baliabideen agortzea, inportazio eta esportazio korranteak, energiaren erabilera, osasunean dituen eraginak eta joera demografikoak. Bestalde, B programa-arloko jardueren bidez lortutako datuak mundu, lurralde eta herri mailako ingurugiroko ebaluazioei aplikatzea eta ebaluazioen banaketa zabala sustatzea, jendeak ulertzeko modukoak izan daitezen eta beren beharretara irekiak egon daitezen;
- b) Nazio eta lurralde mailan eta bost urtetik behin mundu mailan auditoriak era integratuan egiteko metodologia prestatzea. Auditoriek garapeneko prozesuaren moduak eta ezaugarriak hobetzen lagundu beharko lukete eta horretarako mundu eta lurralde mailako bizitzari eusteko sistemen gaitasuna aztertu beharko litzateke bereziki, gizakien bizimoduen eta gainerako izakien bizimoduen beharrei erantzuteko eta degradazioa handiagoaren aurrean zaugarriak diren sektoreak eta baliabideak zein diren zehazteko. Zeregin honetan nazio, lurralde eta mundu mailako zientzia guztiak sartuko lirateke eta gobernuek erakundeek, gobernu kanpoko erakundeek, unibertsitateek eta ikerketa-erakundeek antolatuko lukete, nazioarteko gobernuetako erakundeen eta gobernu kanpoko erakundeen eta Nazio Batuen organoen laguntzarekin, hala dagokienean eta beharrezkoa denean. Auditoria horien emaitzak jende guztiaren eskura jarri beharko lirateke.

Gauzatzeko bideak:

Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jardurak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 35 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak mesede moduan edo dohaintza moduan emango dituen 18 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen araberakoak izango dira.

A programa-arloaren eremuaren barruan datuen egungo beharri dagokionez, datuak

biltzeko eta alerta-sistemak eratzeko babesa emango da nazio mailan. Horren barruan puntu hauek sartuko lirateke: datu-baseak eta informazio-sistemak sortzea, txostenak aurkeztea, datuak ebaluatzea eta lurralde bakoitzean materiala hedatzea.

D. Ahalmen zientifikoa areagotzea

Ekintzarako oinarriak:

Zientziek ingurugiroko eta garapeneko gaiekin harremanetan duten garrantzia kontuan hartuta, ezinbestekoa da herrialde guztieen, bereziki garapen bidean dauden herrialdeen, gaitasun zientifikoa areagotzea eta sendotzea, garapen jasangarriaren alde ikerketa eta garapen zientifikoko jardueri ekiteko lanean erabat parte har dezaten. Gaitasun zientifikoa eta teknologikoa areagotzeko era asko daude. Garrantzitsuenetako batzuk hauek dira: zientzialariek era produktiboagoan lan egiteko aukera izan dezaten garapen bidean dauden herrialdeei ikerketako eta garapenerako azpiegiturak hobetzeko laguntza ematea eta zientziaren eta teknologiaren alorrean irakastea eta trebatzea; ikerketako eta garapeneko jarduerak sustatzeko pizgarriak ematea eta, azkenik, jarduera horien emaitzak ekonomiaren sektore produktiboagoetan gehiago erabiltzea. Gaitasuna areagotzeak jendearengan kontzientzia gehiago sortzeko eta zientziak hobeto uler daitezen bultzatzeko oinarria osatuko du. Ezinbestekoa da garapen bidean dauden herrialdeek beren baliabideen eta sistema ekologikoen oinarriak aztertzeko eta hobeto antolatzeko beren gaitasuna sendotzeari aparteko garrantzia ematea, nazio, lurralde eta mundu mailako arazoei aurre egiteko. Horrez gain, ingurugiroaren arazoei mundu mailan duten garrantzia eta konplexutasuna kontuan hartuta, mundu osoan hainbat diziplinatako espezialistak aintzakotzat hartzea beharrezkoa dela bistakoa da.

Helburuak:

Funtsezko helburua herrialdeen, bereziki garapen bidean dauden herrialdeen, gaitasun zientifikoa areagotzea da, ondorengoak kontuan hartuta:

- a) Batetik, herri mailako ikerketa- eta garapen-jardueretarako irakaskuntza- eta trebakuntza-jarduerak eta zerbitzuak eta instalazioak sustatzea eta, bestetik, oinarrizko diziplina zientifikoa eta ingurugiroarekin lotura duten zientzietan giza baliabideak garatzea. Horretarako, hala behar denean, jasangarritasunaren inguruko ezagutza tradizionalak eta lokalak erabili beharko lirateke;
- b) 2000 urterako zientzialarien, bereziki emakume zientzialarien, kopurua nabarmen areagotzea, egun zientzialari gutxi dituzten garapen bidean dauden herrialdeetan;

- c) Garapen bidean dauden herrialdeetako zientzialarien exodoa nabarmen gutxitzea eta joan direnak itzul daitezen bultzatzea;
- d) Zientzialariek eta erabakiak hartzeaz arduratzen direnek euri dagokien informazioa eskuratzeko aukera hobetzea, jendeak informazioa beti izan dezan eta erabakiak hartzeko garaian parte har dezan;
- e) Zientzialariek nazio, lurralde eta mundu mailan ingurugiroari eta garapenari buruzko programetan, baita diziplina anitzeko ikerketetan ere, parte hartzea;
- f) Bakoitzak eskumena duen alorretan, garapen bidean dauden herrialdeetako zientzialarien hezkuntza akademikoa etengabe eguneratzea.

Jarduerak:

Ondorengo jarduerak gauzatu beharko lirateke:

- a) Zientzialarien hezkuntza eta trebakuntza sustatzea, ez beren diziplinetan bakarrik, baizik eta ikerketako eta garapeneko proiektuetan ingurugiroko balioak zehazteko, arrazionalizatzeko eta gehitzeko trebakuntzan ere bai; sistema naturaletan, ekologian eta baliabideen antolaketan oinarri sendoa jar dadin lortzea eta, azkenik, ingurugiroarekin eta garapenarekin lotura duten diziplinarteko programetan, baita zientzia sozial aplikatuetan ere, lan egiteko espezialistak prestatzea;
- b) Eskoletan, unibertsitateetan eta ikerketa-erakundeetan azpiegitura zientifikoak sendotzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Horretarako ekipo zientifiko aproposa eta egungo argitalpen zientifikoak eskuratzeko aukera izan behar dute. Horren helburua herrialde horiek zientzialari kopuru egokia prestatzea eta mantentzea da;
- c) Nazio mailan datu-base zientifikoak eta teknologikoak lantzea eta hedatzea, datuak euskarri eta sistema bateratuetan prozesatzea eta informazio zientifikoko eta teknologikoko lurralde mailako sareetako liburutegi gordailuzainetara sarbidea erraztea. Mundu edo lurralde mailako datu-zentroek eta sare-sistemek informazio zientifikoa eta teknologikoa eta datu-baseak jaso ditzaten sustatzea;

- d) Lurralde eta mundu mailan, nazio mailako datu-base zientifikoei eta teknologikoei lotuta dauden informazio zientifikoko eta teknologikoko sareak antolatzea eta hedatzea; lurralde eta mundu mailan programa zientifikoetako informazioa biltzea, lantzea eta hedatzea; desberdintasun linguistikoaren ondorioz informazioaren aurkakoak diren oztopoak murrizteko jarduerak hedatzea; konputagailu bidez informazioa berreskuratzeko sistemen aplikazioak areagotzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, literatura zientifikoa areagotzeari aurre egin ahal izateko;
- e) Nazio, lurralde eta mundu mailan langile espezializatuen arteko loturak antolatzea, sendotzea eta lantzea, informazioaren eta datu zientifiko eta teknologikoen truke osoa eta irekia sustatzeko eta garapen ekologikoki arrazionalari eta jasangarriari buruzko laguntza teknikoa errazteko. Hori oinarritzko ikerketak elkar banatzeko mekanismoak antolatzearen bidez eta nazioarteko sareak eta zentroak hobetzearen eta antolatzearen bidez egingo litzateke; horren barruan ikerketarako, trebakuntzarako eta behaketarako datu-base zientifiko nazionalekin lurralde mailako lotura sartuko litzateke. Mekanismo horiek herrialde desberdinetan ingurugiroan espezializatuta dauden zientifikoaren arteko lankidetzak teknikoa hobetzeko eta nazio eta lurralde mailan industriaren eta ikerketa-erakundearen arteko lotura solidoak sortzeko izan beharko lukete;
- f) Natur zientzietan eta gizarte-zientzietan espezialista direnen sareen eta unibertsitateen artean loturak hobetzea eta berriak sortzea, ingurugiroaren eta garapenaren alorretako politiken aukerak formulatzeko garaian gaitasun nazionala sendotzeko;
- g) Ingurugiroari eta garapenari buruzko tokian tokiko ezagutzen inguruan informazioa biltzea, aztertzea eta argitaratzea eta ezagutza horiek dituzten komunitateei ezagutza horiek aprobetxatu ahal izateko laguntza ematea.

Gauzatzeko bitartekoak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 750 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 470 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta

gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berriazko programen arabera izango dira.

b) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Bitarteko zientifiko eta teknologiko barruan ondorengoa sartzen da: batetik, diziplina anitzeko ikerketako eta trebakuntzako lurralde mailako sareak eta zentroak areagotzea eta sendotzea, horretarako garapen bidean dauden lurraldeetan garapen jasagarriari eta teknologiar buruz dauden instalazioak eta laguntza-sistema konexua erabili behar dira; bestetik, ekimen independenteen eta tokian tokiko enpresen berrikuntzen eta gaitasunaren indarra sustatzea eta aprobetxatzea. Sare eta zentro horien funtzioaren barruan, esate baterako, ondorengo puntuak sartuko lirateke:

- a) Lurralde bereko herrialde guztien artean lankidetzak zientifikoak babestea eta koordinatzea;
- b) Behaketa-zentroen artean loturak eratzea eta ingurugiro-baldintzen eta garapeneko baldintzen ebaluazioak egitea;
- c) Garapen jasagarria bultzatzeko jardueren inguruko nazio mailako azterketak babestea eta koordinatzea;
- d) Zientziaren alorreko hezkuntza eta trebakuntza antolatzea;
- e) Informazioaren, behaketaren eta ebaluazioaren inguruko sistemak eta datu-baseak sortzea eta mantentzea.

c) Gaitasuna areagotzea:

Gaitasuna areagotzearen barruan ondorengoa sartuko litzateke:

- a) Zientzialariek beren jatorrizko herrialdeetan eragingarritasunez lan egin ahal izateko baldintzak (esate baterako, soldadak, ekipoak eta liburutegiak) sortzea;

b) Nazio, lurralde eta mundu mailan ikerketa zientifikoak gauzatzeko eta informazio zientifiko eta teknologikoa garapen ekologikoki arrazional eta jasangarrira aplikatzeko gaitasuna hobetzea. Honen barruan, batetik, garapen bidean dauden herrialdeen behar zientifikoak asetzeko mundu eta lurralde mailako informazio zientifiko eta teknologikoko sareek eragingarritasunez funtzionatu ahal izateko beharrezkoak diren finantza-baliabideak areagotzeko beharra eta, bestetik, emakumearen gaitasuna areagotu dadin segurtatzeko beharra sartzen dira. Emakumearen gaitasuna ikerketen alorrean ikerketa- eta trebakuntza-jardueretan emakumeek gehiago parte hartuz segurtatu liteke.

36. ATALA: Heziketa, trebakuntza eta kontzientzi hartzea sustatzea

Sarrera

Hezkuntza, jendearen kontzientzia areagotzea eta trebakuntza guztiz lotuta daude Agenda 21eko arlo guztiei eta talde nagusiei dagozkien oinarritzko beharrak asetzeari, beharrezko egiturak sortzeari, datuei eta informazioari, zientziari eta funtzioari buruzkoekin are lotuago daude. Atal honetan proposamen orokorrak formulatzen dira eta sektoreen gaiekin harremana duten aparteko gomendioak beste atal batzuetan ematen dira. 1977an izan zen eta UNESCOk eta NBIPk antolatu zuen Ingurugiro Hezkuntzari buruzko Tbilisiko Gobernuarteko Biltzarreko⁴⁶ Adierazpenetik eta gomendioetatik Agiri honetan agertzen diren proposamenen funtsezko printzipioak hartu dira.

Atal honetan deskribatutako programa-arloak ondorengoak dira:

- a) Hezkuntza garapen jasangarriari begira berriro orientatzea;
- b) Jendearen kontzientzia areagotzea;
- c) Trebakuntza sustatzea.

Programa-arloak

⁴⁶ Ingurugiro Hezkuntzari buruzko Gobernuarteko Biltzarra: Azken txostena (Paris, UNESCO, 1978), III. atala

A. Hezkuntza garapen jasangarriari begira berriro orientatzea

Ekintzarako oinarriak:

Hezkuntza –hezkuntza akademikoa barne–, jendearen kontzientzi hartzea eta trebakuntza prozesu baten barruan daude eta prozesu horrek gizakiei eta gizarteari beren gaitasun ezkutua erabat garatzen uzten die. Hezkuntzak berebiziko garrantzia du, batetik, garapen jasangarria sustatzeko eta, bestetik, ingurugiroari eta garapenari buruzko gaiei heldu ahal izateko herrialdeen gaitasuna areagotzeko. Oinarrizko hezkuntzak ingurugiroari eta garapenari buruzko hezkuntzarako oinarri gisa balio du eta garapenak ikasketen funtsezko zati izan behar du. Bai hezkuntza akademikoa, bai hezkuntza ez akademikoa ezinbestekoak dira jendearen jarrera aldatzeko; jendearen jarrera eurek garapen jasangarriaren inguruko arazoak ebaluatzeko eta arazo horiei aurre egiteko adina gaitasun izan dezaten aldatu beharko litzateke. Garapen jasangarriarekin bat, kontzientzia, balio eta jarrera, teknika eta jokaera ekologikoak eta etikoak eskuratzeko ere beharrezkoa da hezkuntza, eta horiek guztiek erabakiak hartzeko prozesuan jendeak parte hartzea bultzatu behar lukete. Eragingarriak izateko, ingurugiroaren eta garapenaren inguruko hezkuntzak inguru fisiko/biologikoaren eta sozioekonomikoaren dinamikaz eta giza garapenaz (garapen espirituala sar daiteke honen barruan) arduratu beharko luke, diziplina guztietan integratu beharko luke eta metodo akademikoak eta ez akademikoak eta komunikaziorako bide eragingarriak erabili beharko lituzke.

Helburuak:

Herrialdeek eta lurralde eta nazioarte mailako erakundeek beren lehentasunak eta aplikaziorako epeak beren beharren politiken eta programen arabera zehaztuko dituztela kontuan hartuta, ondorengo helburuak proposatzen dira:

- a) "Guztionezko Hezkuntzari buruzko Munduko Biltzarra: Ikasketzaren oinarrizko beharrak asetzea"ren gomendioak babestea⁴⁷ (Jomtien (Tailandia), 1990eko martxoaren 5etik 9ra), guztiek oinarrizko hezkuntzara sarbidea izan dezaten saiatzeko, irakaskuntza akademikoaren eta ez akademikoaren bidez eskola-adina duten nesken % 80k eta mutilen % 80k gutxienez lehen hezkuntza amai dezaten lortzea eta helduen arteko analfabetismoa

⁴⁷ "Guztionezko Hezkuntzari buruzko Munduko Biltzarra: Ikasketzaren oinarrizko beharrak asetzea"ren azken txostena, Jomtien, Tailandia, 1990eko martxoaren 5etik 9ra, (New York, Guztionezko Hezkuntzari buruzko Munduko Biltzarrerako Erakundearteko Batzordea (GNBP, UNESCO, UNICEF, Munduko Bankua), New York, 1990).

gutxienez 1990eko mailaren erdira jaitea. Jarduerak ondorengoan zentratu beharko lirateke: analfabetismo maila altuan murriztea eta emakumeek oinarrizko hezkuntza eskuratzeko duten aukera falta konpentsatzea, gizonen alfabetizazio-mailekin bateragarriak izatea lortzeko;

- b) Ahalik eta azkarren, gizarteko sektore guztietan ingurugiroaren eta garapenaren inguruko kontzientzia sortzea mundu mailan;
- c) Populazioko talde guztietan, gizarte-hezkuntzarekin lotuta, ingurugiroari eta garapenari buruzko hezkuntza eskola-adinetik hasi eta helduarora iritsi arte eman dadin saiatzea;
- d) Kontzeptu ekologikoak eta garapeneko kontzeptuak, demografia barne, irakaskuntza-programa guztietan sar daitezen proposatzea, bereziki herri mailako ingurugiroko eta garapeneko arazoan arrazoi nagusien azterketa. Horretarako, eskura dauden kalitate oneneko proba zientifikoetara eta ezagutzako beste iturri egokietara jo behar da eta maila guztietan erabakiak hartzeaz arduratzen direnen trebakuntza hobetzea nabarmendu behar da.

Jarduerak:

Herrialdeek eta lurralde eta nazioarte mailako erakundeek beren lehentasunak eta aplikaziorako epeak beren beharren politiken eta programen arabera zehaztuko dituztela kontuan hartuta, ondorengo jarduerak proposatzen dira:

- a) Herrialde guztiei Jomtiengo Biltzarreko aholkuak beren egin ditzaten eta Biltzarraren ekintza-eremua aplikatzen saia daitezen aholkatzen zaie. Jarduera horren barruan estrategia eta jarduera nazionalen prestaketa egongo litzateke eta estrategia eta jarduera horiek ondorengo lortzeko izango lirateke: oinarrizko irakaskuntzaren beharrak asetzeko, sarbidea orokortzeko eta ekitatea sustatzeko, hezkuntzaren irismena eta bideak hedatzeko, babeserako politikako testuingurua pestatzeko, baliabideak mugiarazteko eta helburu horien lortzea oztopatzen duten egungo desberdintasun ekonomiko eta sozialak eta sexu arteko desberdintasunak konpentsatzeko nazioarteko lankidetzara sendotzeko. Gobernu kanpoko erakundeek ekarpen handia egin diezaiekete hezkuntza-programak formulatzeari eta aplikatzeari eta gaitasun hori onartu egin beharko litzateke;

- b) Gobernuek estrategiak eguneratu edo prestatu beharko lituzkete, datozen hiru urteetan ingurugiroa eta garapena irakaskuntzako maila guztietan diziplinarteko gai gisa integratzeko. Jarduera hori gizarteko sektore guztiekin lankidetzan gauzatu beharko litzateke. Estrategietan politikak eta jarduerak formulatu beharko lirateke eta gauzatzeko, ebaluatzeko eta aztertze beharrak, gastuak, bitartekoak eta programak zehaztu beharko lirateke. Ikerketa-programen azterketa zehatza egin beharko litzateke diziplina anitzeko ikuspegia ezartzeko; ikuspegi horren barruan ingurugiroko eta garapeneko gaiak eta soziokultura eta demografia aldetik dituzten aldeak eta loturak sartuko lirateke. Komunitateak zehaztutako beharrak eta ezagutzako sistemak errespetatu egin beharko lirateke, zientzia eta sentsibilitate kulturala eta soziala barne;
- c) Herrialdeek hezkuntza ekologikoa koordinatzeko kontsultarako erakunde nazionalak edo gai desberdinen inguruko mahai-inguruak (adibidez, ingurugiroari, garapenari, hezkuntzari, emakumeari edo beste edozeri buruzkoak eta gobernu kanpoko erakundeen artekoak) antola ditzaten aholkatzen zaie. Horren helburua lankidetzaren suspertzea, baliabideak mugi daitezela laguntzea eta nazioarteko parte-hartzerako informazio-iturriak eta koordinazio-iturriak sortzea izango litzateke. Erakunde horiek herrialde eta komunitate talde desberdinak mugiarazten eta jarduerak errazago egiten lagunduko dute, batetik, beren beharrak ebaluatu ahal izateko eta, bestetik, ingurugiroaren eta garapenaren alorretan beren ekimenak lantzeko eta martxan jarri ahal izateko behar dituzten teknikak eskuratzeko;
- d) Hezkuntzako agintariek, komunitateetako taldeen eta gobernu kanpoko erakundeen laguntza egokiarekin, beren laguntza eman dezaten edo hezkuntza-programak eratu ditzaten aholkatzen da. Laguntza eta programa horiek irakasle, administratzaile eta hezkuntzako planifikatzaile guztientzako eta sektore guztietako irakasle ez akademikoentzako izango lirateke. Horretarako, ingurugiroari eta garapenari buruzko hezkuntzaren izaera eta bertan erabiltzen diren metodoak hartu beharko lirateke kontuan eta gobernu kanpoko erakundeen esperientzia egokia erabili beharko litzateke;
- e) Agintari eskudunek eskola guztiek ingurugiro-jarduerari buruzko lanetarako planak lantzeko laguntza jaso dezaten arduratu beharko lukete; lan horietan ikasleek eta hezkuntzako langileek parte hartu beharko lukete. Eskolek ikasleek ondorengo azterketetan eta jardueretan parte har dezaten bultzatu beharko lukete: batetik,

ingurugiroaren osasunari -edateko ura, saneamendua eta elikadura eta ekosistemak barne- buruzko lurralde eta herri mailako azterketetan; eta, bestetik, ingurugiroaren alorreko jardueretan. Azterketa mota horiek parke nazionaletan, fauna eta flora erreserbetan, balio ekologikoa duten gune babestuetan eta abarretan egindako zerbitzuekin eta ikerketekin lotu beharko lirateke;

- f) Hezkuntzako agintariak, batetik, frogatutako balioa duten metodo pedagogikoak eta, bestetik, beren aplikazio praktikorako metodo pedagogiko berritzaileen prestaketa sustatu beharko lukete. Halaber, komunitate lokaletan egokiak diren irakaskuntza-sistema tradizionalen balioa onartu beharko lukete;
- g) Datozen bi urteetan, Nazio Batuen sistemak bere hezkuntza-programen azterketa egiten hasi beharko luke eta barruan jendearen trebakuntza eta kontzientzi hartzea sartu beharko lituzkete; hori lehentasunak finkatzeko eta baliabideak berriro esleitzeko egingo litzateke. UNESCOren eta NBIPren Ingurugiro Hezkuntzako Nazioarteko Programak bi urterako programa sortu beharko luke, Nazio Batuen sistemako organo eskudunen, gobernuen, gobernuz kanpoko erakundeen eta beste erakunde batzuen laguntzarekin. Programa horiek Biltzarraren erabakiak Nazio Batuen egituretan sartzeko izango lirateke eta maila eta egoera desberdinetako hezleen beharretara egokitu beharko lirateke. Lurraldeko erakundeek eta nazioko agintariak antzeko programak eta aukerak landu ditzaten bultzatu beharko litzateke. Horretarako biztanleen sektore desberdinak mugiarazteko modua aztertu beharko lukete, ingurugiroari eta garapenari buruzko hezkuntzaren alorrean dituzten beharrak ebaluatzeko eta behar horiei aurre egiteko;
- h) Ezinbestekoa da bi urteko epean informazioaren trukea sendotzea; hori ingurugiroari eta garapenari buruzko hezkuntza eta jendearen kontzientzia sustatzeko beharrezkoak diren teknologiak eta bitartekoak hobetuz lor daiteke. Herrialdeek beren artean eta gizarteko sektoreekin eta populazio-taldeekin elkarlanean aritu beharko lukete, ingurugiroaren eta garapenaren alorretan lurralde mailako gaiak eta ekimenak barne hartzen dituzten hezkuntzako bitartekoak prestatzeko; horretarako beren beharretara egokitutako irakaskuntzako materialak eta baliabideak erabili beharko lituzkete;
- i) Herrialdeek unibertsitatei eta hirugarren mailako beste erakunde eta sareei laguntza eman diezaiekete, ingurugiroari eta garapenari buruzko hezkuntza-jardueretan. Ikasle guztiei diziplinarteko ikastaroak eskaini beharko litzaizkieke. Batetik, lurralde mailan

dauden jarduera-sareak eta, bestetik, garapen jasangarriaren inguruko hezkuntzako irizpide komunak eta ikerketa sustatzen dituzten unibertsitateetako jarduerak sendotu egin beharko lirateke eta elkarte eta lotura berriak sortu beharko lirateke enpresaren sektoreekin eta beste sektore independenteekin, teknologia, esperientzia praktikoa eta ezagutzak trukatzeko;

- j) Nazioarteko erakundeen, gobernuz kanpoko erakundeen eta beste sektore batzuen laguntzarekin, herrialdeek nazio edo lurralde mailako diziplinarteko ikerketa- eta hezkuntza-zentroak sendotu edo sortu ditzakete, ondorengo gaien inguruan: ingurugiroa eta garapena, zuzenbidea eta ingurugiroko arazo zehatzen kudeaketa. Zentro horiek unibertsitateak edo herri edo lurraldeetan dauden sareak izan litezke eta ikerketaren eta informazioa hedatzearen alorretan lankidetzak sustatu beharko lukete. Mundu mailan, funtzio horiek erakunde egokien esku utzi beharko lirateke;
- k) Herrialdeek hezkuntza ez akademikoko jarduerak erraztu eta sustatu beharko lituzkete herri, lurralde eta nazio mailan; hori irakasle ez akademikoen eta komunitatean oinarritutako beste erakundeen ahaleginen babesaren eta lankidetzaren bidez egin beharko lukete. Nazio Batuen sistemaren erakunde eskudunek, gobernuz kanpoko erakundeen laguntzarekin, nazioarteko sarearen garapena sustatu beharko lukete hezkuntzaren alorreko mundu mailako helburuak lortzeko. Nazio eta herri mailako foro publiko eta akademikoetan ingurugiroko eta garapeneko gaiak aztertu beharko lirateke eta politikak formulatzeaz arduratzen direnei aukera jasangarriak proposatu beharko lizkiekete;
- l) Hezkuntzako agintariek helduentzako edozein motatako hezkuntza-programak sustatu beharko lituzkete, gobernuz kanpoko erakundeen laguntzarekin, emakumeen eta herrialde indigenen erakundeak barne. Honen helburua ingurugiroaren eta garapenaren alorretan etengabeko hezkuntza sustatzea da eta horretarako lehen eta bigarren mailako eskolak erabili beharko lituzkete eta tokian tokiko arazoetan zentratu beharko lirateke. Agintari horiek eta industriak merkataritza-, industria- eta nekazaritza-eskolek beren ikasketa-programetan naturari buruzko gaiak sar ditzaten bultzatu beharko lukete. Enpresen sektoreak garapen jasangarria sar lezake bere irakaskuntza- eta trebakuntza-programetan. Gradu ondoko programetan erabakiak hartzeaz arduratuko direnak trebatzeko ikastaro bereziak sartu beharko lituzkete;

- m) Gobernuek eta hezkuntzako agintariak emakumeentzako aukerak sustatu beharko lituzkete tradizionalak ez diren alorretan eta sexuen arteko desberdinasunen inguruko aurreiritziak sortzen dituzten hezkuntza-programak desagertarazi egin beharko lituzkete. Hori honakoaren bidez lor liteke: programa aurreratuetan emakumea ikasle edo irakasle gisa sartuz eta izen emateko aukerak hobetuz; irakaskuntzarako langileak hartzeko garaian, irakasleak onartzeko xedapenak eta arauak berrituz eta, azkenik, hala behar den kasuetan, haurtzaindegi-zerbitzuak eratzeko pizgarriak sortuz. Nerabeen hezkuntzari eta emakumeen alfabetizazio-programei lehentasuna eman beharko litzaieke;
- n) Gobernuek garapen jasangarriaren inguruan herrialde indigenek dituzten esperientziek eta ulermenek hezkuntzan eta trebakuntzan beren funtzioa bete dezaten herrialde horiek duten eskubidea bermatu beharko lukete, eta horretarako, behar izanez gero, legeria sortu beharko lukete;
- o) Nazio Batuek Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarraren hezkuntzari eta hedapenari buruzko erabakiak behatzen eta ebaluatzen jarraitu beharko lukete, Nazio Batuen erakunde egokien bidez. Behar denaren arabera, gobernuekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin elkarlanean, Nazio Batuek erabakiak era desberdinetara aurkeztu eta hedatu beharko lituzkete eta Biltzarraren erabakiek hezkuntzan dituzten ondorioak etengabe aplikatzen eta aztertzen diren zaindu beharko lukete, bereziki horretarako ekitaldiak eta biltzarrak eginez.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 8.000 eta 9.000 milioi dolar ingurukoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 3.500 eta 4.500 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

Herrialde bakoitzaren egoera kontuan hartuta, ingurugiroarekin eta garapenarekin lotuta

dauden hezkuntzako, trebakuntzako eta kontzientzi hartzeko jardueri babesa eman dakieke, hala behar den kasuetan. Horretarako, besteak beste, neurri hauek hartu beharko lirateke:

- a) Aurrekontuak esleitzeko garaian sektore horiei lehentasun gehiago ematea eta egitura aldetik izan daitezkeen eskaeretatik babestea;
- b) Indarrean dauden hezkuntzako aurrekontuen barruan esleipenak aldatzea, lehen hezkuntzari mesede egiteko; horretarako ingurugiroa eta garapena nabarmendu beharko lirateke;
- c) Tokian tokiko komunitateek gastuetan ahalik eta gehien parte har dezaten eta komunitate aberatsenek gutxien dutenei lagun diezaieten baldintzak hobetzea;
- d) Emaile partikularren funts osagarriak lortzea, herrialderik behartsuenentzako eta alfabetizazio-tasa % 40 baino txikiagoa den herrialdeetarako;
- e) Zorrak hezkuntza-jardueren bidez ordain daitezen sustatzea;
- f) Irakaskuntza pribatuaren inguruko murrizketa kentzea eta gobernuz kanpoko erakundeek, eskala txikiko herri-erakundeak barne, jasotzen eta ematen dituzten funtsen mugimenduak areagotzea;
- g) Aurretik dauden instalazioak eragingarritasunez erabil daitezen sustatzea, esate baterako, eskoletan hainbat txanda eginez. Horrez gain, telebista bidezko unibertsitatea eta urrutiko beste irakaskuntza mota batzuk guztiz aprobetxatzea;
- h) Dohain edo erdia dohain den irakaskuntzarako zabalkunde-bideak erabiltzea;
- i) Garapen bidean dauden herrialdeetako eta garatutako herrialdeetako unibertsitateen artean alde biko harremanak sustatzea.

B. Jendearen kontzientzia areagotzea

Ekintzarako oinarriak:

Oraindik kontzientzia gutxi dago giza jardueren eta inguruaren artean dagoen harremaren inguruan, izan ere informazioa ez da nahikoa eta ez da zehatza. Garapen bidean dauden herrialdeek bereziki ez dute horretarako behar den teknologiarik eta espezialistarik. Ezinbestekoa da jendea ingurugiroaren eta garapenaren arazoan inguruan sentsibilizatzea, arazo horiei irtenbidea emateko jendeak parte hartzea eta, azkenik, ingurugiroaren alorrean ardura pertsonalaren ustea sustatzea eta garapen jasangarriaren inguruan motibazioa eta dedikazioa bultzatzea.

Helburuak:

Helburua jendearen kontzientzia orokorra areagotzea da, mundu mailako hezkuntza-kanpainaren ezinbesteko zati gisa eta garapen jasangarriarekin bateragarriak diren jarrerak, balioak eta neurriak sendotzeko. Garrantzitsua da agintea, ardura eta baliabideak mailarik egokienaren ardurapean uztearen printzipioa nabarmentzea; horretarako jendearen kontzientzia areagotzeko jardueretarako ardurari eta kontrol lokalari lehentasuna eman behar zaie.

Jarduerak:

Herrialdeek eta lurralde eta nazioarte mailako erakundeek beren lehentasunak eta aplikaziorako epeak beren beharren politiken eta programen arabera zehaztuko dituztela kontuan hartuta, ondorengo helburuak proposatzen dira:

- a) Herrialdeek ingurugiroari eta garapenari buruzko kontsultarako erakundeak sendotu egin beharko lituzkete edo jendeari informazio emateko berriak sortu beharko lituzkete. Horrez gain, Nazio Batuekin, gobernu kanpoko erakundeekin eta zabalkunde-bide garrantzitsuenekin jarduerak koordinatu beharko lituzkete. Jendeak politikari eta ingurugiro-ebaluazioei buruzko eztabaidetan parte hartzea sustatu beharko lukete. Gobernuak informazio-sare nazionalen eta lokalen sorrera erraztu eta babestu beharko lukete eta hori aurretik dauden sistemen bidez egin beharko litzateke;
- b) Nazio Batuen sistemak hedapeneko bere bideak hobetu egin beharko lituzke, jendea hezteko eta sentsibilizatzeko jardueren azterketaren bidez. Hori sistemaren –bereziki bere

informazio-erakundeen eta nazio eta lurralde mailako operazioen– alde guztiek gehiago parte har dezaten eta beren artean koordinazio gehiago egon dadin sustatzeko egin behar da. Hedapen-kanpainen emaitzen azterketa sistematikoak egin beharko lirateke eta horretarako komunitatearen talde zehatzen beharrak eta ekarpenak eduki beharko lirateke kontuan;

c) Herrialdeek eta, dagokienaren arabera, lurralde mailako erakundeek ingurugiroari eta garapenari buruzko informazio-zerbitzu publikoak eskain ditzaten sustatu behar da, talde guztien, sektore pribatuaren eta, bereziki, erabakiak hartzeaz arduratzen direnen kontzientzia areagotzeko;

d) Herrialdeek sektore guztietako, bereziki hirugarren sektoreko, irakastegiek jendearen kontzientzia areagotzeko lanean ekarpen gehiago egin ditzaten sustatu beharko lukete. Mota guztietako eta jende guztiarentzako material didaktikoek eskura dagoen informazio zientifiko onenean egon beharko lukete oinarrituta eta bai natur zientziak, bai gizarte-zientziak eta portaeren ingurukoak hartu beharko lituzkete. Material horrek baldintza estetikoak eta etikoak kontuan hartu beharko lituzke;

e) Herrialdeek eta Nazio Batuen sistemak lankidetzako harremana sustatu beharko lukete komunikabideekin, herri-antzetian aritzen diren taldeekin eta ikuskizunen eta publizitatearen inguruko enpresekin. Ondoren, jendearen portaeran eta kontsumoko arauetan eragitearen inguruan eztabaidak sortarazi beharko lituzkete eta beren metodoak asko erabili beharko lituzkete. Lankidetzak horrek ingurugiroari buruzko eztabaidetan jendearen parte-hartze aktiboa ere areagotuko luke. UNICEFek haurrei begira prestatutako materiala landu beharko luke komunikabideentzako, baliabide didaktiko gisa. Horren helburua eskolaz kanpoko informazio publikoaren sektorearen eta lehen hezkuntzako ikasketa-programen artean lotura estua sortzea izango litzateke. UNESCOk, NBIPk eta unibertsitateek zerbitzuen aurreko ikasketa-programak ingurugiroarekin eta garapenarekin lotura duten gaiekin aberastu beharko lituzkete kazetarietzako;

f) Herrialdeek, komunitate zientifikoaren laguntzarekin, komunikazioen teknologia modernoak erabiltzeko bideak eratu beharko lituzkete, jendearengana eragingarritasunez iristeko. Hezkuntzako nazio eta herri mailako agintariek eta gai honen inguruko Nazio Batuen erakundeek ikus-entzunezko baliabideen erabilera, dagokienaren arabera, areagotu egin beharko lukete, bereziki nekazaritzako guneetan. Hori zerbitzu mugikorren

unitateak erabiliz eta garapen bidean dauden herrialdeetarako irratsaio eta telebista-programak ekoitziz lortuko litzateke. Saio eta programa horiek jendearen parte-hartzea sustatu beharko lukete, metodo elkarreragileak erabili beharko lituzkete eta metodo modernoagoak eta herri mailako zabalkunde-bideak integratu beharko lituzkete;

- g) Herrialdeek, hala behar izanez gero, jolas- eta turismo-jarduera ekologikoki arrazionalak babestu beharko lituzkete. Horretarako, Turismoari buruzko Hagako Adierazpenean (1989) eta Turismoaren Munduko Erakundearen eta NBIPren egungo pogrametan oinarritu beharko lukete eta museoak, leku historikoak, lorategi zoologikoak, lorategi botanikoak, parke nazionalak eta beste gune babestuak arrazionalki erabili beharko lituzkete;
- h) Herrialdeek hauxe bultzatu beharko lukete: gobernuz kanpoko erakundeek ingurugiroari eta garapenari buruzko arazoen inguruko jarduerak areagotu ditzaten. Hori hedapeneko ekimen bateratuen bidez eta gizarteko beste erakunde batzuen arteko truke gehiagoren bidez egin beharko litzateke;
- i) Herrialdeek eta Nazio Batuen sistemak beren arteko elkarreragina areagotu egin behar lukete eta, hala dagokienean, herrialde indigenak beren ingurugiro lokalaren antolaketan, planifikazioa eta garapenean sartu beharko lituzkete. Horrez gain, ezagutza tradizionalen eta lorpen sozialaren hedapena sustatu beharko lukete, tokian tokiko ohituretan oinarritutako bitartekoen bidez, bereziki nekazaritzako guneetan. Horretarako ahalegin horiek zabalkunde-bide elektronikoeekin integratu beharko lituzkete, ahal den kasu guztietan;
- j) UNICEFek, UNESCOk, GNBPK eta gobernuz kanpoko beste erakundeek babeserako programak eratu beharko lituzkete, gazteek eta hurrek ingurugiroarekin eta garapenarekin harremana duten gaietan parte har dezaten; horretarako esate baterako haurrentzako eta gazteentzako bilera informatiboak antolatu beharko lituzkete. Haurtzaroaren aldeko Munduko Gailurrean onartutako erabakiak hartu beharko lirateke oinarri gisa (A/45/625, eranskina);
- k) Herrialdeek, Nazio Batuek eta gobernuz kanpoko erakundeek gizonak eta emakumeek hedapen-kanpainetan parte har dezaten sustatu beharko lukete. Horretarako, ingurugiroko jardueretan familiak duen funtzioa, ezagutza eta balio sozialak transmititzeko garaian emakumeak egiten duen ekarpena eta giza baliabideen garapena nabarmendu

beharko lirateke;

- l) Gizartean dagoen indarkeriaren ondorioen inguruan jendearen kontzientzia areagotu egin beharko litzateke.

Gauzatzeko bideak:

a) **Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:**

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 1.200 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 110 milioi inguru barne. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

C. Trebakuntza sustatzea

Ekintzarako oinarriak:

Trebakuntza bitarteko oso garrantzitsua da giza baliabideak garatzeko eta mundu jasangarriagoa lortzeko bidea errazteko. Trebakuntzaren barruan lana lortzen laguntzen duten ezagunak ematea eta ingurugiroaren eta garapenaren alorreko jardueretan parte hartzea sartuko lirateke. Era berean, trebakuntza-programek ingurugiroaren eta garapenaren inguruko kontzientzia gehiago sustatu beharko lukete ikasketa-prozesu dual gisa.

Helburuak:

Ondorengo helburuak proposatzen dira:

- a) Lanbide-heziketako programak prestatzea edo sendotzea. Programa horiek ingurugiroaren eta garapenaren beharrei erantzun beharko liekete eta trebakuntzarako aukerak bermatu beharko lituzkete, baldintza sozialak, adina, sexua, arraza edo erlijioa kontuan hartu gabe;
- b) Lanerako indar malgua eta moldakorra, adin desberdinetakoa, sustatzea, ingurugiroaren eta garapenaren inguruan areagotzen ari diren arazoei eta gizarte jasangarriaren trantsizioak eragindako aldaketei aurre egin ahal izateko moduan;
- c) Gaitasun nazionala areagotzea, bereziki irakaskuntza eta trebakuntza zientifikoen alorretan, batetik, gobernuek, enplegatzailleek eta lankideek ingurugiroaren eta garapenaren alorrean beren helburuak lotzeko aukera izan dezaten eta, bestetik, teknologia berrien eta ezagutza tekniko ekologikoki arrazionalen eta sozialki onargarrien transferentzia eta asimilazioa erraztu ahal izateko;
- d) Ingurugiro-ekologiaren eta giza ekologiaren inguruko gaiak administrazioaren maila guztietan eta kudeaketa funtzionalaren alor guztietan –adibidez, merkaturatzean, produkzioan eta finantzetan– integratu daitezten lortzea.

Jarduerak:

Herrialdeek, Nazio Batuen sistemaren laguntzarekin, langileak trebatzeko behar nazionalak zehaztu beharko lituzkete eta behar horiek asetzeko hartu beharreko neurriak ebaluatu egin beharko lituzkete. Nazio Batuen sistemak arlo horretan lortutako aurrerapenak aztertzeko

ekimena martxan jar lezake 1995ean.

Elkarte profesional nazionalak beren kode deontologikoak eta jokabide-kodeak landu eta aztertu ditzaten bultzatu behar da, ingurugiroaren aldeko loturak eta ardurak sendotzeko. Erakunde profesionalek babestutako programetako langileen trebakuntzako eta garapeneko elementuek erabakiak hartzeko etapa guztietan eta politiketan garapen jasangarriaren aplikazioari buruzko ezagutzak eta informazioa sartzen utzi beharko lukete.

Herrialdeek eta irakaskuntza-erakundeek dagoeneko badauden trebakuntza-programetan ingurugiroari eta garapenari buruzko gaiak sartu beharko lituzkete eta beren metodologiaren eta ebaluazioen trukea sustatu beharko lukete.

Herrialdeek gizarteko sektore guztiek –esate baterako, industriak, unibertsitateak, gobernuetako funtzionarioek eta langileak, gobernu kanpoko erakundeak eta komunitateetako erakundeak– beren trebakuntzako jarduera guztietan ingurugiroaren antolaketaren barruko osagai bat sar dezaten bultzatu beharko lukete. Horretarako langileak beharrak berehalaz asetzean arreta berezia jarri beharko lukete; behar horiek irakastegietan edo lanean epe motzeko trebakuntza emanez asetu beharko lirатеke. Kudeaketako langileak ingurugiroaren alorrean trebatzeko aukerak areagotu egin beharko lirатеke eta "irakasleak trebatzeko" programa espezializatuak jarri beharko lirатеke martxan, herrialde eta enpresa mailan trebakuntza babesteko. Jarduera ekologikoki arrazionalan trebatzeko irizpide berriak landu beharko lirатеke; jarduera horiek lanerako aukerak sortu beharko lituzkete eta tokian tokiko baliabideen erabileran oinarritutako metodoak ahalik eta gehien aprobetxatu beharko lituzkete.

Herrialdeek arte- eta lanbide-eskoletan, bigarren mailako eskoletan eta unibertsitateetan graduatuentzako trebakuntza-programa praktikoak eratu edo sendotu beharko lituzkete herrialde guztietan. Horren helburua ikasleak lan-merkatuko beharrak asetzeko eta beren bizimodua ateratzeko prestatzea da. Trebakuntza-programak eta hausnarketa-programak eratu beharko lirатеke, lanean eta laneko neurketetan ondorioak dituzten egituren doiketei aurre egiteko.

Gobernuak geografia, kultura edo gizarte aldetik isolatuta dauden pertsonekin harremanetan jar daitezten bultzatu behar da, trebakuntzako beren beharrak zehatzeko. Horren helburua lanerako jardueren garapenari eta bizimodu jasangarriari ahalik eta ekarpen handiena egiteko aukera ematea da.

Gobernuek, industriak, sindikatuek eta kontsumitzaileek ingurugiro osasungarriaren eta enpresa-jarduera osasungarrien artean dagoen harremana uler dadin sustatu beharko lukete.

Herrialdeek ekologiako zerbitzu teknikoa garatu beharko lukete. Zerbitzu horiek herri mailan trebatutakoak eta kontratatutakoak izango lirateke eta tokian tokiko komunitateei eta biztanleei, bereziki nekazaritzako eta hiriko gune baztertuei, behar dituzten zerbitzuak emateko gaitasuna izan behar dute, ingurugiroaren alorreko lehen mailako arretarekin hasita.

Herrialdeek eskura dauden garapenari eta ingurugiroari buruzko informazioa eta ezagutzak eskuratzeko aukerak eta bere azterketa eta erabilera eragingarria areagotu egin beharko lituzkete. Aurretik dauden trebakuntza-programa bereziak sendotu egin beharko lirateke, talde berezien informaziorako beharrei babesa emateko. Programa horiek produktibitatean, osasunean, segurtasunean eta lanean dituzten eraginak ebaluatu beharko lirateke. Nazio eta lurralde mailako informazio-sistemak sortu beharko lirateke eta sistema horiek etengabe gai honen inguruko trebakuntzarako eta lanerako aukerei buruzko datuak emango lituzkete. Ingurugiroan eta garapenean trebatzeko baliabideei buruzko gidak prestatu eta eguneratu beharko lirateke eta gida horiek trebakuntza-programei, ikasketa-programei, metodoei eta nazio, lurralde eta nazioarte mailako ebaluazioen emaitzei buruzko informazioa izan beharko lukete.

Laguntza-erakundeek garapeneko proiektu guztien trebakuntzako osagaiak sendotu beharko lituzkete eta lan horretan diziiplina anitzeko ikuspegia eta hedapenaren sustapena nabarmendu behar dira eta garapen jasagarria lortzeko trantsizioan beharrezkoak diren adituak eskaini behar dira. Nazio Batuen sistemako eragiketa-jardueretarako ingurugiroa antolatzeke GNBPrek gidalerroek helburu hori lotzeko lanetan lagundu dezakete.

Enplegatzaileen eta langileek erakundeen sareek, industria elkarteek eta gobernuz kanpoko erakundeek trebakuntza- eta hedapen-programetan esperientzia trukatzea erraztu beharko lukete.

Gobernuek, nazioarteko erakunde eskudunekin elkarlanean, nazio, lurralde eta herri mailan mehatxu eta larrialdi-egoera ekologikoei aurre egiteko estrategiak prestatu eta aplikatu beharko lituzkete. Horretarako, jendearen prestakuntza areagotzeko berehalako trebakuntza- eta hedapen-programa praktikoak nabarmendu beharko lituzkete.

Nazio Batuen sistemak, dagokionaren arabera, bere trebakuntza-programak hedatu beharko lituzke, bereziki enplegatzaileen eta langileen erakundeentzako trebakuntza ekologikoaren eta

babeserako jardueren alorretan.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 5.000 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du, nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango dituen 2.000 milioi dolar inguru barne. Kalkulu horiek gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baliabideak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabekoak izango dira.

37. ATALA: Garapen bidean dauden herrialdeen gaitasuna areagotzeko mekanismo nazionalak eta nazioarteko lankidetzak

Programa-arloak

Ekintzarako oinarriak:

Garapen jasagarria lortzeko herrialdeen gaitasuna neurri handi batean beren populazioen eta erakundeen gaitasunaren araberakoa eta beren baldintza ekologikoen eta geografikoen araberakoa da. Hain juxtu, gaitasuna areagotzearen barruan herrialdeko gizakien, zientziaren, teknologiaren, antolakuntzaren, erakundeen eta baliabideen potentziala sartzen dira. Gaitasuna areagotzearen funtsezko helburua politikako aukerekin eta garapeneko aukerak gauzatzeko moduekin lotura duten eta berebiziko garrantzia duten gaiak ebaluatzeko eta gai horiei heltzeko gaitasuna sendotzea da. Honek ingurugiroaren aukerak eta mugak eta herrialdeko populazioak bere egiten dituen beharrak ulertzeko eskatzen du. Ondorioz, herrialde guztiek dute beren gaitasun nazionala sendotzeko beharra.

Agenda 21 gauzatzeko gaitasun endogenoa areagotzeak herrialde bakoitzak ahalegina egiteko eskatzen du, Nazio Batuen sistemako erakunde egokiekin eta garatutako herrialdeekin elkarlanean. Nazioarteko komunitateak ere lagundu lezake lan honetan, nazio, azpilurralde eta lurralde mailan eta udaletxeen, gobernuz kanpoko erakundeen, unibertsitateen eta ikerketa zentroen eta enpresen eta beste instituzio eta erakunde pribatuen bidez. Ezinbestekoa da herrialde bakoitzak bere lehentasunak eta Agenda 21 gauzatzeko gaitasuna areagotzeko bideak zehaztea, ingurugiro eta ekonomia alorretako beharrak kontuan hartuta. Norberak eta erakundeak dituen ezagutza praktikoak, espezializatuak eta teknikoak ezinbestekoak dira erakundeak garatzeko, politikak aztertzeko, garapena antolatzeko eta ordezkotako ekintza-motak ebaluatzeko. Horren helburua erakundeek teknologiak eskura izateko aukera eta beren transferentzia hobetzea eta garapen ekonomikoa sustatzea da. Lankidetzak teknikoak, teknologien transferentziaren eta ezagutza teknikoaren inguruko lankidetzak barne, norberaren eta taldearen gaitasunak garatzera eta sendotzera bideratutako jarduerak hartzen ditu bere barruan. Epe luzera gaitasuna areagotzeko erabili beharko litzateke. Lankidetzak teknikoak, teknologien transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin lotzen dena barne, ondorengo kasuetan bakarrik

izango da eragingarria: batetik, hasieratik herrialde bakoitzak ingurugiroaren eta garapenaren alorretan dituen estrategiekin eta lehentasunekin lotzen denean eta, bestetik, garapeneko erakundeek eta gobernuek prozesu horri babes emateko politika eta prozedura hobek eta koherenteagoak definitzen dituztenean.

Helburuak:

Programa-arlo honetan gaitasun endogenoa areagotzeko helburu nagusiak ingurugiroaren alorrean nazioaren gaitasuna eta berekin lotura duten azpilurralde eta lurraldearen gaitasuna garatzea eta hobetzea dira; hori gobernuz kanpoko sektoreen parte-hartzearekin egin beharko litzateke. Programak laguntza eman lezake ondorengo jardueren bidez:

- a) Parte hartzeko etengabeko prozesua martxan jartzearen bidez, batetik, Agenda 21 sustatzearekin lotuta herrialdeen beharrak eta lehentasunak zehazteko eta, bestetik, giza baliabide teknikoaren eta profesionalen garapenari eta herrialdeen programetan agertzen diren gaitasun eta azpiegitura instituzionalen garapenari garrantzia emateko. Horretarako, aurretik dauden giza baliabideak behar bezala erabiltzeko dagoen gaitasuna eta erakundearen eta gobernuz kanpoko erakundearen –erakunde zientifikoak eta teknologikoak barne– eragingarritasunaren hobekuntza hartu behar dira kontuan;
- b) Lehentasunak berriro zehaztuz, lankidetzaren teknikoak, teknologiak transferitzeko prozesuarekin eta ezagutza teknikoekin lotuta dagoena barne, berriro orientatzearen bidez. Horretarako hartzaileen baldintza zehatzei eta behar espezifikoari kasu berezia egin behar zaie eta, era berean, herrialde bakoitzaren ekintza-programei babes ematen dietenen arteko koordinazioa hobetu beharko litzateke. Koordinazio hori gobernuz kanpoko erakundeetara eta erakunde zientifiko eta teknologikoetara eta, kasuaren arabera, merkataritzako eta industriako erakundeetara ere hedatu beharko litzateke;
- c) Programen planifikazioaren eta gauzatzearen ikuspegi kronologikoa aldatzearen bidez. Hori azpiegitura instituzionalen gaitasuna garatzeko eta sendotzeko egin beharko litzateke, berehala konpondu beharreko arazoei erantzuteaz gain, epe luzera sor daitezkeen auzi berriei erantzuteko gaitasuna hobetzeko;
- d) Ingurugiroarekin edo garapenarekin lotura duten alde askotako nazioarteko erakundeak hobetzearen eta berriro orientatzearen bidez, erakunde horiek ingurugiroa eta garapena

integratzeko beharrezkoak diren potentziala eta gaitasuna izan ditzatela segurtatzeko;

- e) Gaitasun eta potentzial instituzionala, bai publikoa, bai pribatua, hobetzearen bidez, garapeneko proiektu guztien ingurugiro-inpaktua ebaluatzeko.

Helburu zehatzen artean ondorengoak dira aipagarrienak:

- a) Herrialde bakoitzak garapen jasangarriko estrategia nazionalak lantzeko gaitasuna eta potentziala areagotzeko beharren azterketa bukatuta izaten saiatu beharko luke ahalik eta azkarren eta, aukera izanez gero, 1994 baino lehen. Agenda 21ekin lotutako bere ekintza-programa gauzatzearekin eta prestatzearekin lotutako beharrak ere sartuko lirateke;
- b) 1997rako, idazkari nagusiak Batzar Nagusiari txosten bat aurkeztu beharko lioke ondorengoari buruz: batetik, garapen jasangarrirako lankidetzaren programen gauza dadin sendotzeko politikak, koordinazio sistemak eta prozedurak hobetzeari buruz eta, bestetik, lankidetzaren hori sendotzeko beharrezkoak diren neurri osagarriari buruz. Txosten hori herrialdeek, nazioarteko erakundeek, ingurugiroaz eta garapenaz arduratzen diren erakundeek, erakunde emaileek eta gobernuz kanpoko elkarteek emandako informazioa oinarri hartuta landu beharko litzateke.

Jarduerak:

a) Adostasun nazionala garatzea eta Agenda 21 gauatzeko gaitasuna areagotzeko estrategiak formulatzea:

Planifikazioaren inguruan, garrantzitsua da herrialde guztiek gizarteko maila guztietan adostasun nazionala erraztea, epe motzera eta luzera Agenda 21en dagokien zatia gauatzeko beren gaitasuna areagotzeko beharrezkoak dituzten politikekin eta programekin harremanetan. Adostasun horrek gaiarekin lotura duten interes taldeen arteko elkarriketaren emaitza izan behar luke eta ingurugiroarekin eta garapenarekin lotura duten jarduerak integratzeko ondorengo zehazteko balio behar luke: ezagutza espezializatuen gabeziak; gaitasun eta potentzial instituzionalak eta ingurugiroaren ezagutzak eta antolaketa hobetzeko beharrezkoak diren teknologiaren, zientziaren eta baliabideen alorreko beharrak. Erakunde espezializatuekin eta gobernuarteko eta gobernuz kanpoko beste nazioarteko erakundeekin elkarlanean eta gobernuak hala eskatuz gero, GNBPK laguntza eskaini dezakete

lankidetza teknikorako beharrak –teknologiaren transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin lotura duten beharrak barne– zehazteko eta Agenda 21 gauzatzeko garapenerako laguntzarako beharrak zehazteko. Planifikazio nazionalerako prozesuak, kasu honetan garapen jasangarrirako estrategia edo ekintza-plan nazionalekin elkartuta, lankidetza eta laguntza horretarako ingurua eratu beharko luke. GNBPK kanpoko bere bulegoen sarea eta agintaritza zabala erabili eta hobetu beharko lituzke laguntza emateko. Horretarako lankidetza teknikoaren alorreko bere esperientzian oinarritu beharko luke, nazio eta lurralde mailan gaitasuna areagotu dadin errazteko, eta beste erakunde batzuen esperientziara jo beharko litzateke, bereziki ondorengo erakundeetara: NBIP, Munduko Bankua, lurraldeko garapenerako batzordeak eta bankuak eta gobernuarteko edo gobernu kanpoko gai honen inguruko nazioarteko erakundeak.

b) Sektoreen estrategien eremuan, iturri nazionalak zehaztea eta lankidetza teknikorako –teknologiaren eta ezagutza teknikoaren transferentziarekin lotura duen lankidetza barne-eskaerak formulatzea:

Nazioarteko erakundeekin eta erakunde emaileekin lankidetza teknikoaren inguruko hitzarmenak –teknologiaren transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin lotura dutenak barne– sinatu nahi dituzten herrialdeek horren inguruko eskaerak formulatu beharko lituzkete, sektore edo azpisektore batzuen gaitasuna areagotzeko epe luzerako estrategien inguruan. Estrategietan, dagokienaren arabera, ondorengo hartu beharko litzateke kontuan: aurrera eraman beharreko politiken inguruko akordioak, aurrekontuen alorreko gaiak, erakundeen arteko lankidetza eta koordinazioa giza baliabideen, teknologiaren eta ekipozientifikoaren beharrak. Sektore publikoaren eta pribatuaren alorreko beharrak ere kontuan hartu beharko lirateke eta trebakuntza- eta ikerketa-programak eta hezkuntza zientifikoaren alorreko programak sendotzeko aukera aztertu beharko litzateke; honen barruan, batetik, garatutako herrialdeetako trebakuntza eta, bestetik, garapen bidean dauden herrialdeetan goi mailako ikasketak egiteko zentroen sendotzea sartuko lirateke. Herrialdeek organo zentral bat izendatzeko eta sendotzeko aukera izan beharko lukete; organo horren zeregina lankidetza teknikoaren antolatzea eta koordinatzea izango litzateke eta lehentasunak zehazteko eta baliabideak esleitzeko prozesuaren barruan egongo litzateke.

c) Lankidetza teknikoaren aztertzearen mekanismoa eratzea, teknologiaren transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin harremanetan:

Emailleek eta hartzaileek, Nazio Batuen sistemako erakundeek eta instituzioek eta nazioarteko erakunde publiko eta pribatuek lankidetzaz-prozesuaren garapena aztertu beharko lukete, lankidetzaz tekniko jarduerari dagokienez, garapen jasangarriari lotuta dauden teknologien transferentziari eta ezagutza teknikoari dagozkien jarduerak barne. Prozesu hori errazteko eta GNBPK eta beste erakunde batzuek Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra prestatzeko egindako lana kontuan hartuta, idazkari nagusiak kontsulta bat egin dezake garapen bidean dauden herrialdeen, lurralde mailako erakundeen, Nazio Batuen sistemako erakundeen eta instituzioen –lurraldeetako batzordeak barne– artean eta laguntzaz eta ingurugiroaz arduratzen diren alde biko eta alde anitzeko erakundeen artean. Horren helburua herrialdeen gaitasun endogenoa sendotzen jarraitzea eta lankidetzaz tekniko prozesuak hobetzea da, teknologien transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin lotura dutenak barne. Azterketa horretan ondorengo aldeak sartu beharko lirateke:

- a) Ingurugiroaren eta garapenaren antolaketa integraturako dauden gaitasuna eta potentziala ebaluatzea, potentzial eta gaitasun teknikoak, teknologikoak eta instituzionalak eta garapeneko proiektuen ingurugiro-inpaktua ebaluatzeko zerbitzuak barne; klimaren aldaketari eta aniztasun biologikoari buruzko Agenda 21en eta mundu mailako konbentzioen lankidetzaz tekniko beharrei erantzuteko eta behar horien arabera ekiteko gaitasuna ebaluatzea;
- b) Indarrean dauden lankidetzaz tekniko jarduerak –teknologien transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin harremana duen jarduera barne– ingurugiroaren eta garapenaren antolaketa integraturako gaitasun eta potentzial nazionala zein eratan sendotzen eta hobetzen duten ebaluatzea. Nazioarteko lankidetzaz teknikoaren kalitatea hobetzeko bideak ebaluatzea, teknologien transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin harreman duen bidea barne;
- c) Gaitasuna eta potentziala hobetzeko jarduerari ekiteko estrategia prestatzea. Estrategia horretan ingurugiroaren eta garapenaren integrazio operazionalerako beharrak onartu beharko lirateke epe luzeagorako konpromisoarekin eta, bestalde, estrategia horrek herrialde bakoitzak partaidetzaz-prozesu baten bidez eratutako programa nazionalen multzoan oinarrituta egon behar du;
- d) Udalbatzen, gobernuz kanpoko erakundeen, unibertsitateen, trebakuntza- eta ikerketa-

zentroen, enpresen eta beste herrialdeetako eta beren herrialdeetako kideak dituzten erakunde publiko eta pribatuen arteko epe luzerako lankidetzak-hitzarmenetara gehiagotan jotzeko aukera izatea. Gai horren inguruan, GNBPren garapen jasangarriko programak eta sareak ebaluatu beharko liriateke;

- e) Proiektuen jasangarritasuna sendotzea, proiektuak egiteko garaian ondorengo kontuan hartzeko: batetik, ingurugiro-inpaktua; bestetik, erakundeen eta giza baliabideen garapenari erantzuteko gastuak eta, azkenik, gauzatzeko eta mantentze-lanetarako teknologiko eta finantzako eta antolakuntzako beharrak;
- f) Lankidetzak teknikoak hobetzea, teknologien transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin eta kudeaketa prozesuekin lotura duen lankidetzak barne. Horretarako gaitasuna eta potentziala areagotzeko kasu berezia egin behar zaio, ingurugiroko eta garapeneko programetarako garapen jasangarriko estrategien zati osagarri gisa. Hori herrialdeen koordinazio-prozesuetan –kontsulta-taldeetan bileretan eta mahai-inguruetan– eta sektoreen koordinazio-mekanismoetan hartu behar da kontuan, garapen bidean dauden herrialdeek hainbat iturritatik etorritako laguntza lortzeko garaian aktiboki parte hartzeko aukera izan dezaten.

d) Nazio Batuen sistemak gaitasuna eta potentziala areagotzeko ekimenei emandako laguntza teknikoak eta kolektiboak areagotzea:

Nazio Batuen sistemako erakundeek, organoek eta instituzioek, dagokienaren arabera, lankidetzak teknikoak jarduerak sendotu ditzakete, teknologien transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin lotura duten jarduerak barne, nazioarteko eta lurraldeko beste erakundeekin eta sektore publikoarekin eta pribatuarekin elkarlanean. Horren helburua ingurugiroaren eta garapenaren gaiekin lotura duten auziei heltzea eta hartzen diren neurrien koherentzia eta bateragarritasuna sustatzea da. Erakundeek laguntza eta babesak eman beharko liekete hala eskatzen duten herrialdeei, bereziki gutxien aurreratuta dauden herrialdeei, ingurugiroko eta garapeneko politika nazionalekin harremana duten auzien inguruan eta giza baliabideen garapenaren inguruan. Horrez gain, adituak, legeria, baliabide naturalak eta ingurugiroari buruzko datuak bidaltzearen inguruan ere laguntza eta babesak eman beharko lituzkete.

GNBPk, Munduko Bankuak eta garapeneko alde anitzeko lurraldeko bankuek laguntza eman beharko lukete, koordinazioko nazio eta lurralde mailako mekanismoetan parte hartzeko testuinguruaren barruan, nazio mailan gaitasuna eta potentziala areagotzeko jarduerak errazteko. Horretarako, batetik, ingurugiroaren alorrean NBIPk duen gaitasun operazionalan eta esperientzia zehatzean eta, bestetik, Nazio Batuen sistemako erakunde eta organismo espezializatuek eta lurralde eta azpilurralde mailako erakundeek beren alorretan dituzten gaitasun eta esperientzian oinarritu beharko lukete. Hori lortzeko, GNBPk gaitasuna eta potentziala areagotzeko jardueren funtsak mugiarazi beharko lituzke eta kanpoko bulegoen sareez eta lankidetzak teknikoaren alorreko bere agintaritzak eta esperientzia zabalaz – teknologiaren transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin lotutako esperientzia barne-baliatu beharko luke. GNBPk, nazioarteko erakunde horiekin batera, kontsulta-prozesuak garatzen jarraitu beharko luke era berean, gaitasuna eta potentziala areagotzeko nazioarteko komunitatearen funtsen mobilizazioa eta koordinazioa hobetzeko eta datu-base egokia eratzeko. Agian beharrezkoa izango da funtzio osagarri horiekin batera GNBPren gaitasuna sendotzea.

GNBPko ordezkari egoiliarren eta NBIPko ordezkarien laguntzarekin, lankidetzak teknikoak arduratzen den nazio mailako erakundeetan talde txiki bat sortu beharko luke, herrialdearen estrategiak eta lehentasunak kontuan hartuta prozesuak bideratzeaz arduradakin. Martxan dauden planifikazio-jarduerei esker lortutako esperientzia, Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrerako txosten nazionalak, kontserbaziorako estrategia nazionalak eta ingurugirorako ekintza-planak erabat erabili beharko lirateke eta garapen jasangarrirako strategiaren barruan sartu beharko lirateke, herrialdeak berak bultzatuta eta parte-hartzean oinarrituta. Hori informazio-sareekin eta erakunde emaileen kontsultekin osatu beharko litzateke, batetik, koordinazioa eta, bestetik, ezagutza zientifiko eta teknikoak eta beste erakunde batzuek duten informazioa eskuratzeko aukera hobetzeko.

e) Lurralde mailako laguntza-zerbitzua bateratzea:

Lurralde mailan, martxan dauden erakundeek lurralde eta azpilurralde mailako kontsulta-prozesuak eta mahai-inguruak hobetzea komeni den aztertu beharko lukete, Agenda 21 gauzatzearen inguruko datuen, informazioaren eta esperientziaren trukea errazago egiteko. Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarraren ekimenez lurralde mailako erakunde horiek gauzatutako gaitasuna areagotzeko buruzko lurraldeko azterketen emaitzak

kontuan hartuta eta lurralde mailako koordinazio-jarduerak gauatzeko aukera duten lurralde, azpilurralde edo nazio mailako erakundeekin elkarlanean, GNBPK gai honen inguruan ekarpen asko egin beharko lituzke. Horren inguruko nazio mailako erakundeak mekanismo zuzenak eratu beharko lituzke. Gai horren inguruko lurralde mailako erakundeen laguntzarekin eta garapeneko bankuen, alde biko laguntza-erakundeen eta gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartzearekin, lurraldeko herrialde guztien artean aldian-aldian egiteko berrikusketa-mekanismoa jarri beharko litzateke martxan. Beste aukera bat nazio eta lurralde mailako ikerketa- eta trebakuntza-mekanismoak eratzea da, lurralde eta azpilurralde mailako erakundeak oinarri hartuta.

Gauatzeko bideak:

Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Garapen bidean dauden herrialdeei ematen zaien laguntza teknikoaren gastuak, teknologien transferentziarekin eta ezagutza teknikoekin lotura duen laguntza barne, gutxi gorabehera 15.000 milioi dolarrekoak izango dira; kopuru hori garapenerako laguntza ofizialerako gastuen % 25 izango litzateke gutxi gorabehera. Agenda 21 gauatzeak funtsezko alorretarako funts horiek eta finantzazio osagarri hori eragingarritasun gehiagorekin erabiltzeko eskatzen du.

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 300 eta 1.000 milioi dolarren artekoa izango dela balioztatu du eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuak ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuak gauatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen arabera izango dira.

38. ATALA: Nazioarteko akordio instituzionalak

Ekintzarako oinarriak:

Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarraren agintaldia Batzar Nagusiaren 44/228 erabakiaren ondorioa da. Erabaki horretan, besteak beste, ondorengo adierazten da: batetik, Biltzarrak ingurugiroaren degradazioa geldiarazteko eta gertaera horri buelta emateko estrategiak eta neurriak prestatu behar ditu, herrialde guztien garapen jasangarri eta ekologikoki arrazionala sustatzeko nazioko eta nazioarteko ahaleginak areagotzearen barruan; eta, bestetik, garapen bidean dauden herrialdeetan hazkunde ekonomikoa sustatzea funtsezkoa da ingurugiroaren degradazioaren inguruko arazoei aurre egiteko. Biltzarraren jardueren gobernuarteko jarraipen-prozesua Nazio Batuen sistemaren inguruan garatuko da eta Batzar Nagusia gobernuei, Nazio Batuen sistemari eta ituna betez sortutako organoei orientazio orokorra emango dien goreneko foro arau-emailea izango da. Era berean, gobernuek eta lankidetzak ekonomikoko eta teknikoko lurralde mailako erakundeek lan garrantzitsua bete beharko dute Biltzarraren inguruan egiten diren jarduera guztiak jarraitzeko. Beren konpromisoek eta ekintzek Nazio Batuen sistemaren eta nazioarteko finantza-erakundeen bidez behar bezala babestuta egon beharko dute. Honela, etekinen elkarrekiko harremana egongo da ahalegin nazionalen eta nazioarteko ahaleginen artean.

Biltzarraren aginduak betetzeko nazioarteko akordioak behar dira Nazio Batuen sistemaren barruan eta akordio horiek ondorengoarekin bat etorri behar dute eta ondorengo egiten lagundu beharko lukete: batetik, ekonomiaren eta gizartearen alorretan eta hauekin lotutako beste alor batzuetan Nazio Batuen berregituratzea eta berrindartzea eta, bestetik, Nazio Batuak orokorrean berritzea, Idazkaritzan egiten ari diren aldaketak barne. Nazio Batuen sistema berritzeko eta berrindartzeko espirituari lotzeko, Agenda 21 gauzatzea eta Biltzarraren beste ondorio batzuk aplikatzea ekintzara eta emaitza praktikoetara bideratutako irizpidearen bidez egin beharko lirateke eta unibertsaltasunaren, demokrazioaren, transparentziaren, gastuen araberako eragingarritasunaren eta arduraren printzipioekin kontsekuente izan behar dute.

Nazio Batuen sistemak sektore askotan gaitasuna eta esperientzia zabala du, izan ere ingurugiroaren eta garapenaren alorrean nazioarteko lankidetzaren hainbat esparrutan erakunde espezializatuak ditu. Beraz, Nazio Batuen sistemak aukera paregabea du gobernuei garapen ekonomiko eta sozialerako arau eragingarriak ezartzen laguntzeko, herrialde guztiek Agenda 21en helburuak eta garapen jasangarria lortu ahal izateko.

Nazio Batuen sistemako organismo guztiek beren eskuduntzen barruan funtsezko betebeharra dute Agenda 21 garatzeko garaian. Behar den koordinazioa lortzeko eta Agenda 21 gauatzeko garaian ahaleginak ez bikoizteko, lan banaketa eragingarria egin beharko da Nazio Batuen sistemako kideen artean; lan banaketa hori beren agintaldietan eta beren konparaziozko abantailetan oinarrituta egongo da. Kide diren estatuak, organo zuzentzaile egokien bidez, lan horiek behar bezala egingo direla bermatzeko moduan daude. Organismoen jardueraren bilakaera errazteko eta beren ekimenak ezagunak izan daitezen sustatzeko, Nazio Batuen sistemako organo guztiei aldian-aldian Agenda 21 gauatzearekin lotura duten beren jardueren inguruko txostenak egin eta argitaratu ditzatela eskatu behar zaie. Etengabe beren politiken, programen, aurrekontuen eta jardueren azterketak arretaz egitea ere ezinbestekoa izango da.

Agenda 21 gauatzeko garaian garrantzitsua da gobernuz kanpoko erakundeek, komunitate zientifikoak, sektore pribatuak eta tokian tokiko taldeek eta komunitateek etengabe, aktiboki eta eragingarritasunez parte hartzea.

Aurrerago proposatzen den egitura instituzionala aurrera eramateko, ezinbestekoa da finantza-baliabideei eta -mekanismoei, teknologien transferentziari, Rioko Adierazpenari eta Agenda 21i buruzko akordioak lortzea. Bestalde, benetako neurrien eta finantza alorreko babesaren artean lotura eragingarria egon behar du, eta horrek lankidetzat estua eta eragingarria izateko eta Nazio Batuen sistemaren eta alde askotako finantza-erakundearen artean informazioa trukatzeko eskatuko du, mekanismo instituzionalen barruan Agenda 21 nola gauatzen den jarraitzeko.

Helburuak:

Helburu nagusia ingurugiroaren eta garapenaren inguruko auziak nazio, azpilurralde, lurralde eta nazioarte mailan integratzea da eta akordio instituzionalak Nazio Batuen sisteman integratzea.

Helburu zehatzak ondorengoak dira:

- a) Agenda 21 herrialde guztietan garapen jasagarria lortzeko moduan gauza dadin aztertzea eta bermatzea;
- b) Ingurugiroaren eta garapenaren alorrean Nazio Batuen sistemaren eginbeharra eta funtzionamendua nabarmentzea. Nazio Batuen sistemako erakunde, organismo eta programa guztiek Agenda 21 gauatzeko programa zehatzak onartu beharko lituzkete eta, bakoitzaren eskuduntzaren arabera, politikaren alorreko orientazioa eman beharko liekete Nazio Batuen

jardueretarako; horrez gain, hala eskatzen duten gobernuei aholkularitza eman beharko liekete;

- c) Nazio Batuen sisteman ingurugiroaren eta garapenaren alorreko lankidetzak eta koordinazioak sendotzea;
- d) Ingurugiroaren eta garapenaren alorrean, Nazio Batuen sistemaren eta azpilurralde, lurralde eta mundu mailako gobernuarteko eta gobernu kanpoko beste erakundeen arteko elkarrekintza eta lankidetzak sustatzea;
- e) Agenda 21 eragingarritasunez gauzatzeko, jarraitzeko eta aztertzeko beharrezkoak diren gaitasuna eta akordio instituzionalak sendotzea;
- f) Ingurugiroaren eta garapenaren alorretan nazio, azpilurralde eta lurralde mailan gaitasuna eta ekintza sendotu eta koordinatu daitezela laguntzea;
- g) Nazio Batuen erakunde, organo eta programen eta alde anitzeko finantza-erakundeen artean lankidetzaren eta informazioaren truke eragingarriak eratzea, Agenda 21 gauzatu ahal izateko jarraipena egiteko beharrezkoak diren akordio instituzionalen barruan;
- h) Ingurugiroaren eta garapenaren inguruan dauden edo sortu berri diren arazoei erantzutea;
- i) Akordio instituzional berriek Nazio Batuen sistemaren barruan berrindarketa eta arduren banaketa argia ekar ditzaten eta ahaleginak bikoiztea ekidin dezaten zaintzea. Horrez gain, akordio horiek, ahal den neurrian, dagoeneko badauden baliabideen arabera izatea.

Egitura instituzionala

A. Batzar Nagusia

Batzar Nagusia, mailarik gorenena duen gobernuarteko mekanismoa denez, biltzarrean izaten diren jardueren inguruko auzien organo arau-emaille eta ebaluaziorako organo nagusia da. Batzarrak Agenda 21en gauzatzearen inguruan azterketak antolatuko lituzke aldian-aldian. Lan hori betetzeko garaian, Batzarrak azterketa horien datak, egitura eta antolaketaren aldeak kontuan har ditzake. Zehazki, Batzarrak bilerak egiteko ohiz kanpoko garaia deitzeko aukera azter dezake, berandu jota 1997an, Agenda 21en azterketa eta ebaluazio orokorrak egiteko, dagozkien goi mailako prestaketekin batera.

B. Ekonomi eta Gizarte Kontseilua

Batzar Nagusiarekin harremanetan gutunak bere esku uzten duen funtzioaren testuinguruan eta ekonomiarekin, gizartearekin eta horiekin lotura duten alorretan Nazio Batuen egungo berregituratzearen eta berrindartzearen testuinguruan, Ekonomi eta Gizarteko Kontseiluak Batzar Nagusiari lagundu egingo lioke, sistemaren maila guztietan Agenda 21 gauzatzeko koordinazioa gainbegiratzearen bidez eta gai horretan aholkuak formulatzearen bidez. Horrez gain, Kontseiluak ingurugiroarekin eta garapenarekin harremana duten Nazio Batuen politiken eta programen aldean koordinazioa eta integrazioa zuzenduko luke sistema osoaren barruan eta Batzar Nagusiari, organismo espezializatu interesatuei eta kide diren estatuei aholku egokiak emango lizkieke. Agenda 21 gauzatzeko inguruko planetarako eta programetarako organismo espezializatuen txostenak aldian-aldian jasotzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko lirateke, Nazio Batuen Eskutitzaren 64. artikuluan esaten denaren arabera. Ekonomi eta Gizarte Kontseiluak 11. paragrafoan aipatzen den Garapen Jasangarriari buruzko Batzordearen lana eta ingurugiroa eta garapena integratzeko sistema osoan egindako jarduerak aztertu beharko lituzke aldian-aldian, goi mailako saioen serieak eta koordinazio-serieak erabat erabiliz.

C. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordea

Batetik, Biltzarraren jarduerari jarraipen eragingarria egiteko; bestetik, nazioarteko lankidetzaren areagotzeko eta ingurugiroaren eta garapenaren integrazioa aurrera eramateko erabakiak hartzeko gobernuarteko gaitasuna arrazionalizatzeko eta, azkenik, nazio, lurralde eta nazioarte mailan Agenda 21 gauzatzeko egindako aurrerapenak aztertzeko garapen jasangarriaren inguruko goi mailako batzordea eratu beharko litzateke, Nazio Batuen gutuneko 68. artikuluan arabera. Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeak Ekonomi eta Gizarteko

Kontseiluari emango lizkioke kontuak, Kontseiluari dagokion funtzioaren inguruan, gutunaren arabera, Batzar Nagusiarekin lotuta. Batzordea kide izateko aukeratutako estatuetako ordezkariak osatuko lukete, banaketa geografiko zuzena kontuan hartuta. Batzordeko kide ez diren estatuen ordezkariak behatzaile gisa joateko aukera izango lukete. Batzordeak Nazio Batuen sistemaren organoek, programek eta erakundeek, nazioarteko finantza-erakundeek eta gobernuarteko beste erakundeek parte-hartze aktiboa izan dezaten utzi beharko luke eta gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartzea –industria eta enpresa-elkarte zientifikoena barne– sustatuko luke. Batzordearen lehen bilera berandu jota 1993an egin beharko litzateke. 19. paragrafoan adierazten denaren arabera, Batzordeak idazkaritzaren babesa jaso beharko luke. Bien bitartean, Nazio Batuen idazkari nagusiari administrazioaren aldetik dagozkion behin-behineko akordioak zehazteko eskatzen zaio.

Batzar Nagusiak, bere saioen berrogeita zazpigarren aldian, ondorengoa zehaztu beharko luke: Batzordearen lana antolatzeko modalitate zehatzak, bere osaera, ingurugiroaren eta garapenaren alorreko gaiez arduratzen diren Nazio Batuen gobernuarteko gainerako erakundeekin izan beharreko harremana eta bileren maiztasuna, iraupena eta lekua. Modalitate horiek alor ekonomiko eta sozialetan eta horiei lotutako alorretan Nazio Batuen lanaren egungo berrindartze- eta berriguratze-prozesua izan beharko lukete kontuan, bereziki Batzar Nagusiaren 1991ko maiatzaren 13ko 45/264 ebazpenean eta 1992ko apirilaren 13ko 46/235 ebazpenean eta Batzarraren beste ebazpen batzuetan aholkatutako neurriak. Gai horren inguruan, Nazio Batuen idazkari nagusiari Batzarrean aurkezteko aholku eta proposamen egokiak dituen txostena prestatu dezala eskatzen zaio; horretarako Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarreko idazkari nagusiaren laguntza izango luke.

Garapen Jasangarriari buruzko Batzordeak ondorengo betebeharrak izango lituzke:

- a) Batetik, Nazio Batuen sistema osoan ingurugiroaren eta garapenaren helburuen integrazioarekin harremana duten jarduerak gauzatzeko garaian eta, bestetik, Agenda 21 gauzatzeko garaian egiten diren aurrerapenak zaintzea; hori Nazio Batuen sistemaren barruan ingurugiroaren eta garapenaren hainbat alorrez –finantzazioarekin lotura dutenak barne– arduratzen diren organo, erakunde, programa eta instituzio guztien txostenak aztertuz eta ebaluatuz egingo litzateke;
- b) Gobernuek aurkeztutako informazioa aztertzea, aldian-aldian emandako komunikazio edo txosten nazionaletan emandako informazioa barne, txosten edo komunikazio horiek

ondorengo gaiei buruzkoak diren kasuetan: Agenda 21 gauzatzeko aurrera eramandako jarduerak, aurre egin beharreko arazoak, finantza-baliabideekin eta teknologien transferentziarekin lotura duten arazoak eta ingurugiroarekin eta garapenarekin lotura duten eta egokiak izan daitezkeen beste auzi batzuk;

- c) Agenda 21en adierazitako konpromisoak betetzeko egiten diren aurrerapenak aztertzea, finantza-baliabideen horniketarekin eta teknologien transferentziarekin lotutakoak barne;
- d) Agenda 21 gauzatzeko testuinguru orokorraren barruan, gobernuz kanpoko erakunde egokien –baita sektore zientifikoaren eta pribatuaren– informazioa eta erantzunak jasotzea eta aztertzea;
- e) Nazio Batuen barruan, gobernuz kanpoko erakundeekin, sektore independentearekin eta Nazio Batuen sistematik kanpoko beste erakundeekin elkarrizketa sustatzea;
- f) Hala behar denean, kideen biltzarrak antolatzea eragin dezaketen aurrerapenen eta, era berean, ingurugiroari buruzko hitzarmenak aplikatzeko garaian egin diren aurrerapenen inguruko informazioa aztertzea;
- g) Batzar Nagusiari aholku egokiak aurkeztea, Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren bidez, Agenda 21 gauzatzearekin lotutako txostenen eta auzien azterketa integratua oinarri hartuta;
- h) Une egokian, lehenbailehen idazkari nagusiak Biltzarraren ondorengo alorretako gomendio guztien inguruan egin beharreko azterketen emaitzak aztertzea: gaitasuna areagotzeko programak, informazio-sareak, lan-taldeak eta lurralde eta azpilurralde mailan ingurugiroaren eta garapenaren integrazioa bultzatzeko beste mekanismo batzuk.

Gobernuarteko esparruaren barruan, Agenda 21 gauzatzeko prozesuari laguntzen dioten gobernuz kanpoko erakundeek –talde garrantzitsuei lotutakoak, bereziki emakume-taldeak, barne– informazio egokia –Nazio Batuen sisteman prestatzen diren txostenak, informazioa eta beste datuak barne– eskuratzeko aukera izatea aztertu beharko litzateke.

D. Idazkari nagusia

Ezinbestekoa da idazkari nagusiak zuzendaritza zuzen eta eragingarria gauzatzea, izan ere Biltzarraren ondorioz gauzatu beharreko jarduerak behar bezala aurrera eramateko eta Agenda 21 gauzatzeko Nazio Batuen sistemako akordio instituzionalak koordinatuko lituzke berak.

E. Goi mailako koordinaziorako erakundearteko mekanismoa

Agenda 21 ingurugiroa eta garapena integratzeko nazioarteko komunitatearen ahaleginentzako oinarri denez, programa horrek Nazio Batuen sistemaren jarduera egokiak koordinatzeko esparru nagusia izan beharko luke. Biltzarraren jarduerak jarraitzeko prozesuan Nazio Batuen sistemaren parte-hartzea eragingarritasunez behatu, koordinatu eta ikuskatu dadin zaintzeko, ezinbestekoa da koordinazio-mekanismo bat sortzea, eta mekanismo horren buruzagitza idazkari nagusiak izan behar du zuzenean.

Lan hori Koordinaziorako Administrazio Batzordeak (KAB) egin beharko luke; batzorde horren buru idazkari nagusia da. Honela, KAB alde askotako finantza-erakundeen eta goi mailako administrazio alorreko Nazio Batuen organoen arteko lotura eta komunikatzeko bidea izango litzateke. Idazkari nagusiak Batzordearen funtzionamendua berrindartzen jarraitu beharko luke. Nazio Batuen sistemako organismo eta instituzio guztietako buruzagi guztiak idazkari nagusiarekin elkarlanean arituko dira, KABek bere funtsezko zeregina eragingarritasunez betetzeko eta Agenda 21 behar bezala gauzatu dadin lortzeko. KABek garapen jasangarrirako lan-talde, azpibatzerde edo batzar berezia sortzeko aukera aztertu beharko luke, ingurugiroaren alorreko ofizialen esperientzia, Garapenerako Nazioarteko Erakundearen Ingurugiroari buruzko Batzordearen esperientzia eta GNBPren eta NBIPren funtzioak kontuan hartuta. Bere txostena gobernuarteko erakunde egokiei aurkeztu beharko litzaielike.

F. Goi mailako kontsulta-erakundea

Gobernuarteko erakundeek, idazkari nagusiak eta Nazio Batuen sistema osoak goi mailako kontsulta-erakunde baten ezagutzari etekina atera beharko liokete. Erakunde hori goi mailako jendeak osatuko luke eta bertako kideek ingurugiroari eta garapenari buruzko gaiak, dagozkien zientziekin batera, ezagutuko lituzkete eta idazkari nagusiak berak izendatuko lituzke taldeko kide. Gai honi dagokionez, idazkari nagusiak gomendio egokiak egin beharko litzioke Batzar Nagusiari bere saioen berrogeita zazpigarren aldian.

G. Babeserako egitura administratiboa

Biltzarraren jarduerak eta Agenda 21en gauzatzea jarraitzeko ezinbestekoa da Nazio Batuen Idazkaritzan babeserako idazkaritza-egitura izatea. Egitura hori ongi prestatutako langile adituez osatuta egongo litzateke eta, beste gauza batzuen artean, Biltzarra prestatzeko prozesuan jasotako esperientzia aprobetxatu beharko lukete. Egitura horrek gobernuarteko mekanismoen lana eta koordinaziorako erakundearteko mekanismoak babestu beharko lituzke. Egitura hori antolatzeko hartu beharreko neurriak idazkari nagusiak hartuko lituzke, erakundeko funtzionario administratiboen artean mailarik altuena duena delako, eta onartu beharreko xedapenei buruzko txostena –langileak aukeratzeko xedapenei buruzkoa barne– aurkeztu beharko luke ahalik eta azkarren. Horretarako gizonezkoak eta emakumezkoak kontratatzeko garaian oreka egokiari eustekak duen garrantzia hartu beharko luke kontuan, Nazio Batuen gutuneko 8. artikuluan adierazten denaren arabera. Nazio Batuen Idazkaritza berregituratzearen barruan, baliabideak behar bezala erabiltzeko beharra ere hartu beharko luke kontuan.

H. Nazio Batuen sistemako organoak, programak eta erakundeak

Biltzarraren jarduerari jarraipena egiteko prozesuan, bereziki Agenda 21 gauatzeko garaian, Nazio Batuen sistemako organo, programa eta erakunde guztiek lan garrantzitsua egin beharko dute, beren agintaldien eta beren eskuduntzen arabera, nazio mailako jarduerak babesteko eta osatzeko. Ingurugiroaren eta garapenaren integrazioa sustatzeko beren jarduera osagarrien koordinazioa eta izaera osagarria areagotu egin litezke herrialdeek zenbait organo zuzentzailetan jarrera koherenteak izan ditzaten bultzatzen badituzte.

1. Nazio Batuen Ingurugiro Programa

Biltzarraren jarduerari jarraipena egiteko prozesuan, ezinbestekoa izango da NBIPk eta bere Administrazio Kontseiluak beren funtzioak zabaltea eta sendotzea. Administrazio Kontseiluak, bere agintaldiaren arabera, ingurugiroaren alorrean arauen orientazioari eta koordinazioari buruz dagokion funtzioa betetzen jarraitu beharko luke, eta horretarako garapenerako aurreikuspenak hartu beharko lituzke kontuan.

NBIPren barruan lehentasuna duten atalen artean ondorengoak egongo lirateke:

- a) Bere funtzio katalitikoak sendotzea, Nazio Batuen sistema osoan ingurugiroaren alorreko

- jarduerak eta azterketak sustatzeko eta bultzatzeko;
- b) Ingurugiroaren alorrean eta, dagokienaren arabera, horretarako politiken aholkularitzan nazioarteko lankidetzak sustatzea;
 - c) Teknikak –esaterako, baliabide naturalen kontabilitatea– eta diziplinak –adibidez, ingurugiro-ekonomia– garatzea eta beren erabilera sustatzea;
 - d) Ingurugiroa zaintzea eta ebaluatzea, Nazio Batuen sistemako organismoek Munduko Behaketa Programan gehiago parte hartzearen bidez eta ikerketa-institutu pribatuen eta zientifikoaren eta gobernuz kanpoko ikerketa-institutuen bidez. Alerta goiztiarreko bere sistema sendotzea eta martxan jartzea;
 - e) Ikerketa zientifikoak koordinatzea eta sustatzea, erabakiak hartzeko oinarri sendoa ezartzeko;
 - f) Gobernuari eta Nazio Batuen sistemako organo, programa eta erakundeei ingurugiroari buruzko informazioa eta datuak ematea;
 - g) Ingurugiroa babestearen alorrean sentsibilitate handiagoa eta ekintza gehiago lortzea, oro har jendearen, gobernuz kanpoko entitateen eta gobernuarteko erakundeen bidez;
 - h) Ingurugiroari buruzko nazioarteko eskubidea, bereziki konbentziak eta gidalerroak gehiago garatzea; aplikatu daitezkeen bultzatzea eta, azkenik, geroz eta gehiago diren nazioarteko bitarteko juridikoetatik eratorritako koordinazio-lanak egitea. Azken puntu horren barruan hitzarmenetako idazkaritzaren funtzionamendua sartuko litzateke, etorkizunean sor daitezkeen idazkaritzak leku berean biltzeko aukera barne, baliabideak eragingarritasun gehiagorekin erabiltzeko beharra kontuan hartuta;
 - i) Ingurugiro-inpaktuen ebaluazioak ahalik eta gehien erabil daitezkeen gehiago garatzea eta sustatzea, Nazio Batuen sistemako organismo espezializatuen babesean egindako jarduerak barne eta garapen ekonomikorako proiektu edo jardura garrantzitsu guztiekin harremanetan;
 - j) Teknologia ekologikoki arrazionaleri buruzko informazioa, alde juridikoa barne, truka dadin

erraztea eta trebakuntza eskaintzea;

- k) Azpilurralde eta lurralde mailako lankidetzak sustatzea eta ingurugiroa babesteko neurriak eta programei babesa ematea, beste batzuen artean, ingurugiroaren alorrean Biltzarraren jarduerari jarraipena egiteko izendatzen diren lurralde mailako mekanismoak ekarpen handia eginez eta mekanismo horietan koordinazio-lan handia eginez;
- l) Hala eskatzen duten gobernuei aholkularitza tekniko, juridiko eta instituzionala ematea, beren esparru juridiko eta instituzional nazionalak eratzeko eta sendotzeko, batez ere gaitasuna areagotzeko GNBPrekin jarduerekin batera;
- m) Hala eskatzen duten gobernuei eta garapenerako organismo eta organoak babesa ematea, beren garapenerako politiketan eta programetan ingurugiroaren aldeak sar ditzaten, bereziki programak formulatzeko eta gauzatzeko garaian ingurugiroaren, teknikoaren eta politikaren alorreko aholkularitza ematearen bidez;
- n) Ingurugiroaren alorreko larrialdi egoerentarako ebaluazioko jarduerak eta laguntza areagotzea.

Ingurugiroaren alorreko garapeneraren aldeak kontuan hartuta eta funtzio horiek guztiak bete ditzan eta era berean Nazio Batuen sistemaren barruan ingurugiroaren alorreko organo nagusi gisa bere funtzioari euts diezaion, NBIPk ezagutza espezializatu gehiago eskuratzeko aukera izan beharko luke eta finantza-baliabide nahikoak izan beharko lituzke. Horrez gain, garapenerako jardueretan aritzen diren organoekin eta Nazio Batuen sistemako beste organo egokiekin elkarlan eta lankidetzak estuago izan beharko luke. NBIPren lurralde mailako bulegoak sendotu egin beharko lituzke, Nairobiko egoitza ahuldu gabe, eta NBIPk neurriak hartu beharko lituzke GNBPrekin eta Munduko Bankuarekin elkarrekin areagotzeko eta beren arteko lotura sendotzeko.

2. Garapenerako Nazio Batuen Programa

GNBPK, NBIPK bezala, lan erabakigarria betetzen du Biltzarraren jarduerari jarraipena egiteko garaian. Kanpoko bere bulego-sarearen bidez, Nazio Batuen sistemaren taldeko ekintza sustatuko luke, nazio, lurralde, lurraldearte eta mundu mailan Agenda 21 gauza dadin babesteko. Horretarako organismo espezializatuen eta operazio-jardueretan aritzen diren Nazio Batuen beste erakunde eta organoen ezagutzak aprobetxatu beharko lituzke.

Ezinbestekoa da GNBPKo ordezkari egoiarraren/koordinatzaile egoiarraren lana sendotzea operazio-jarduerak Nazio Batuen barruan bertan koordina daitezzen.

GNBPren zereginen artean ondorengoak egongo lirateke:

- a) Herri, nazio eta lurralde mailako gaitasuna hobetzeko Nazio Batuen sistemak jarduerak antolatzeari dagokionez, erakunde nagusia izatea;
- b) Gobernuen izenean, herrialde hartzaileen gaitasuna areagotzeko emaileen baliabideak mugiaraztea, hala dagokionean, GNBPK antolatutako emaileen mahai-inguruen bidez;
- c) Biltzarraren ondorioz sortutako jardueri jarraipena egiteko prozesuak babesteko bere programak sendotzea, programazioko bosgarren zikloari kalterik egin gabe;
- d) Hartzaile diren herrialdeei, hala eskatuz gero, Biltzarraren ondorioz sortutako jardueri jarraipena egiteko prozesuak koordinatzeko mekanismo eta sare nazionalak sor edo sendo ditzaten laguntzea;
- e) Hartzaile diren herrialdeei, hala eskatuz gero, barruko finantza-baliabideen mobilizazioa koordinatzen laguntzea;
- f) Agenda 21 gauzatzeko garaian hartzaile diren herrialdeetako emakumeen, gazteen eta beste talde garrantzitsuen zeregina eta parte-hartzea sustatzea eta sendotzea.

3. Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra

UNCTADek lan garrantzitsua egin beharko luke Agenda 21 gauzatzeko garaian, bere saioren zortzigarren aldian egin zen hedapenaren arabera. Horretarako garapenaren, nazioarteko merkataritzaren eta ingurugiroaren arteko elkarreraginaren garrantzia izan behar da kontuan, baita garapen jasangarriaren alorrean duen aginpidea ere.

4. Lurralde Sudanosaheliarrerako Nazio Batuen Bulegoa

GNBPren laguntzarekin eta NBIPren babesarekin, Lurralde Sudanosaheliarrerako Nazio Batuen Bulegoak (LSNBB) bere eskura egon daitezkeen baliabide osagarriekin egindako lana zabaldu egin beharko litzateke, batetik, bulego honek kontsulta-lan garrantzitsua eta egokia egin dezan eta, bestetik, lehortearen eta desertifikazioaren aurkako borrokaren eta lurren baliabideak antolatzearen inguruko Agenda 21eko xedapenak gauzatu ahal izateko eragingarritasunez

parte har dezan. Testuinguru honetan, lehortekak eta desertifikazioak kaltetutako herrialde guztien esperientzia aprobetxatu dezake, bereziki Afrikako herrialdeen eta kalte gehien jaso dituzten edo gutxien aurreratutakoen esperientzia.

5. Nazio Batuen sistemako organismo espezializatuak eta antzeko erakundeak eta gobernuarteko beste erakunde batzuk

Nazio Batuen sistemako organismo espezializatu guztiek, antzeko erakundeek eta gobernuarteko beste erakunde egokiek, bakoitzak bere eskuduntzaren barruan, lan handia egin behar dute Agenda 21eko zatiak gauzatzeko eta Biltzarraren beste erabakiak aurrera eramateko. Beren organo zuzentzaileek, Agenda 21ekin bat, jarduerak eta programak sendotzeko eta adosteko modua aztertzei aukera izan behar dute, bereziki garapen jasagarria sustatzeko proiektuen inguruan. Horrez gain, emaleekin eta finantza-erakundeekin akordio bereziak eratzeko modua aztertzei aukera izango dute, baliabide osagarriak behar dituzten proiektuak gauzatzeko.

I. Lankidetza eta gauzatzea lurralde eta azpilurralde mailan

Lurralde eta azpilurralde mailako lankidetza Biltzarraren emaitzen zati garrantzitsua izango da. Lurralde mailako batzordeek, garapeneko lurralde mailako bankuek eta lankidetza ekonomikoko eta teknikoko lurralde mailako erakundeek, hitzartutako beren aginteekin, prozesu horretan beren ekarpenak egiteko aukera izango dute, ondorengoaren bidez:

- a) Lurraldeko eta azpilurraldeko gaitasuna areagotu dadin bultzatzearen bidez;
- b) Ingurugiroaren aldeak lurralde eta azpilurralde mailako garapeneko politiketan integra daitezen sustatzearen bidez;
- c) Lurraldeko eta azpilurraldeko lankidetza sustatzearen bidez, dagokienaren arabera, garapen jasangarriarekin lotura duten mugaz haraindiko auziekin lotuta.

Lurraldeko batzordeek, dagokienaren arabera, sektoreetako organoen lurraldeko eta azpilurraldeko jarduerak eta Nazio Batuen beste alor batzuetako jarduerak beren gain hartu beharko lituzkete eta herrialdeei laguntza eman beharko liekete garapen jasangarria lortzeko. Nazio Batuen sistemako lurralde mailako batzorde eta programa horiek, lurralde mailako beste erakundeekin batera, Agenda 21en inguruan indarrean dauden jarduerak dagokienaren arabera aldatzeko beharra aztertu beharko lukete.

Lurralde mailako batzordeen eta beste erakunde egokien, garapeneko lurraldeko bankuen, gobernu kanpoko erakundeen eta lurralde mailako beste erakundeen artean lankidetza eta elkarlan estua egon beharko luke. NBIPk eta GNBPK, lurralde mailako batzordeekin batera, funtzio berezia izango lukete, batez ere beharrezko laguntza emateko garaian; horretarako kide diren estatuen gaitasun nazionala sortzea edo areagotzea nabarmendu beharko litzateke.

Proiektuak gauzatzeko garaian, GNBPre eta NBIPren arteko lankidetza estutzeko beharra dago, beste erakunde egokiekin batera, batetik, ingurugiroaren degradazioa edo bere eraginak geldiarazteko eta, bestetik, lurralde mailako garapen jasangarria lortzeko ingurugiroaren planifikazioan eta antolaketan trebakuntza-programak babesteko.

Helburu teknikoak eta ekonomikoak dituzten lurralde mailako gobernuarteko erakundeek lan handia egin behar dute gobernuari laguntza emateko garaian, gobernuak lurralde mailako garrantzia duten ingurugiroko auziak konpontzeko neurri koordinatuak har ditzaten.

Lurralde eta azpilurralde mailako erakundeek funtzio garrantzitsua izan beharko lukete lehortearen eta desertifikazioaren aurkako borrokaren inguruko Agenda 21eko xedapenak aplikatzeko garaian. GNBPK, NBIPk eta LSBNNk laguntza eman beharko liekete erakunde horiei, eta erakunde horiekin elkarlana egin beharko lukete.

Hala behar denean, lurralde eta azpilurralde mailako erakundeen eta Nazio Batuen sistemako erakunde egokien arteko lankidetzak sustatu beharko litzateke beste alor batzuetan.

J. Gauzatzea nazio mailan

Estatuek lan garrantzitsua egin behar dute Biltzarraren jarduerari jarraipena egiteko prozesuan eta Agenda 21 gauatzeko garaian. Nazio mailako jarduerak herrialde guztiek egin beharko lituzkete era integratuan, ingurugiroaren eta garapenaren alorreko gaiak era koherentean gauza daitezen.

Nazio Batuen sistemak, aurrez hala eskatuz gero, Agenda 21 sostengatzeko eta gauatzeko nazio mailako jarduera eta erabaki arau-emaileak babestu beharko lituzke.

Horrez gain, estatuek txosten nazionalak prestatzeko aukera aztertu beharko lukete. Testuinguru honetan, Nazio Batuen sistemako organoek laguntza eman beharko liekete hala eskatzen duten herrialdeei, bereziki garapen bidean dauden herrialdeei. Herrialdeek Agenda 21 gauatzeko ekintza-plan nazionalak prestatzeko aukera ere aztertu beharko lukete.

Laguntza ematearekin lotutako gaiez arduratzen diren partzuergoek, kontsulta-taldeek eta mahai-inguruek ahalegin gehiago egin beharko lukete, batetik, ingurugiroari buruzko gaiak eta honi lotutako garapeneko helburuak garapenerako laguntza-estrategietan sartzeko eta, bestetik, beren operazioak eta osaketa era egokian berriro bideratzeko eta adosteko aukera aztertzeko. Honen helburua prozesua erraztea da eta ingurugiroa eta garapena integratzeko ahalegin nazionala sakonago babestea.

Estatuek Agenda 21en gauatzearen jarraipena koordinatzeaz arduratuko litzatekeen egitura nazionala sortzeko aukera aztertu dezakete. Egitura horrek gobernu kanpoko erakundeen ezagutzak jasoko lituzke eta Nazio Batuei informazioa eta material gehiago aurkezteko aukera izango luke.

K. Nazio Batuetako organoen eta nazioarteko finantza-erakundeen arteko lankidetzak

Biltzarraren jarduerari egindako jarraipenaren arrakasta benetako jardueren eta finantza-babesaren arteko loturaren arabera izango da. Horrek, era berean, Nazio Batuen organoen eta alde askotako finantza-erakundeen arteko lankidetzak estua eta eragingarria eskatzen du. Idazkari nagusiak eta Nazio Batuen programen eta erakundeen zuzendariak eta alde askotako finantza-erakundeek lankidetzak hori ezartzeko garaian ardura berezia dute, bai Nazio batuen goi mailako koordinazio-mekanismoen barruan (Koordinaziorako Administrazio Batzordea), bai lurralde eta nazio mailan. Bereziki, alde askotako finantza-mekanismoen eta erakundeen

ordezkariak eta NGNFko ordezkariak aktiboki parte hartu beharko lukete Agenda 21 nola gauzatzen den jarraitzeaz arduratzen den gobernuarteko egituraren erabakietan.

L. Gobernuz kanpoko erakundeak

Gobernuz kanpoko erakunde eta talde garrantzitsuak partaide garrantzitsuak dira Agenda 21 gauzatzeko garaian. Gobernuz kanpoko erakunde egokiei, komunitate zientifikoari, sektore pribatuari eta emakume-taldeei Nazio Batuen sistemarekin elkarlanean aritzeko eta harremanak egokiak finkatzeko aukera eman beharko litzaieke. Garapen bidean dauden herrialdeetako gobernuz kanpoko erakundeei eta beren sare autonomoei babesa eman beharko litzaieke.

Nazio Batuen sistemak, finantzazioko eta garapeneko nazioarteko organismo guztiak barne, eta gobernuarteko erakunde eta foro guztiek, gobernuz kanpoko erakundeei kontsulta egin ondoren, ondorengoa lortzeko neurriak hartu beharko lituzkete:

- a) Gobernu kanpoko erakundeek, talde garrantzitsuekin lotura dutenak barne, maila guztietan Agenda 21 nola gauzatzen den aztertzeke eta ebaluatzeko ezarritako prozesuan parte har dezaten lortzeko neurri eskuragarriak eta eragingarriak ezartzeko eta prozesu horretan egin ditzaketen ekarpenak sustatzeko neurriak;
- b) Azterketa-prozesuaren barruan, Agenda 21 gauzatzearekin lotuta, idazkari nagusiak Batzar Nagusiarentzako egindako txostenetan eta Nazio Batuen organismoen eta gobernuarteko erakunde eta foro egokien txostenetan gobernuz kanpoko erakundeen azterketa-sistemen eta ebaluazio-prozesuen emaitzak kontuan hartzeko.

Gobernuz kanpoko erakundeek, talde garrantzitsuekin lotura dutenak barne, lan zabalagoa egiteko aukera izan dezaten prozedurak eratu beharko lirateke, Biltzarrean erabilitako prozeduretan oinarritutako akreditazio-sistemaren bidez. Erakunde horiek Nazio Batuen sistemak landutako txostenak eta gainerako informazioa eskuratzeko aukera izan beharko lukete. Batzar Nagusiak lehen aldi goiztiarrean Nazio Batuen sistemaren esparruan gobernuz kanpoko erakundeen parte hartzea sustatzeko moduak aztertu beharko lituzke, Biltzarraren jardueri jarraipena egiteko prozesuarekin lotuta.

Biltzarrak Agenda 21 gauzatzeko beste ekimen instituzional batzuek gogoan hartu ditu, esate baterako, gobernuz kanpoko izaera izango zukeen Lurra Planetaren Kontseilua sortzeko proposamena eta etorkizuneko belaunaldientzako tutore bat izendatzeko proposamena, tokian tokiko gobernuen eta enpresa-sektorearen beste ekimen batzuekin batera.

39. ATALA: Nazioarteko bitarteko eta mekanismo juridikoak

Ekintzarako oinarriak:

Izaera unibertsaleko, alde askotako eta alde biko itunak egiteko ondorengo funtsezko aldeak kontuan hartu beharko direla onartu behar da:

- a) Garapen jasangarriaren alorrean nazioarteko zuzenbidearen garapena; horretarako kasu berezia egin behar zaio ingurugiroaren kezken eta garapeneko kezken arteko oreka hauskorrari;
- b) Batetik, ingurugiroaren alorrean nazioarteko bitartekoen edo akordioen eta, bestetik, bitarteko edo akordio sozial eta ekonomikoen arteko harremana argitzeko eta sendotzeko beharra, garapen bidean dauden herrialdeen behar bereziak kontuan hartuta;
- c) Mundu mailan, herrialde guztien, horien artean garapen bidean dauden herrialdeen, parte-hartzearen eta ekarpenaren funtsezko garrantzia, garapen jasangarriaren inguruko nazioarteko zuzenbidearen alorrean itunak egiteko. Ingurugiroaren alorrean dauden nazioarteko bitarteko eta akordio juridiko asko garapen bidean dauden herrialdeen parte-hartze eta ekarpen egokirik gabe egin dira, beraz, agian aztertu egin beharko liriateke garapen bidean dauden herrialdeen kezkek eta interesak guztiz islatu ditzaten eta bitarteko eta akordio horien administrazioko erregimenaren oreka berma dezaten;
- d) Laguntza teknikoa eman beharko litzaieke garapen bidean dauden herrialdeei, ingurugiroaren zuzenbidearen alorrean legeak egiteko beren gaitasun nazionala hobetzeko ahaleginak babesteko;
- e) Mailakako garapenerako eta garapen jasangarrirako nazioarteko zuzenbidea kodifikatzeko etorkizuneko proiektuetan, Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordearen uneko lana kontuan hartu beharko litzateke;
- f) Garapen jasangarriaren alorrean mailakako garapenaren eta nazioarteko zuzenbidea kodifikatzearen inguruko negoziazio guztiak, oro har, era unibertsalean egin beharko liriateke, hainbat lurralderen egoera berezia kontuan hartuta.

Helburuak:

Nazioarteko ingurugiro zuzenbidearen azterketaren eta garapenaren helburu nagusiak ondorengoak izan beharko luke: batetik, zuzenbide horren eragingarritasuna ebaluatzea eta sustatzea eta, bestetik, ingurugiroari eta garapenari buruzko politiken integrazioa sustatzea. Hori nazioarteko akordio edo bitarteko eragingarrien bidez egingo litzateke, eta akordio eta bitarteko horietan printzipio nagusiak eta herrialde guztien behar eta interes partikularrak eta desberdinak hartu beharko lirateke kontuan.

Helburu zehatzak ondorengoak dira:

- a) Estatu batzuei, bereziki garapen bidean dauden herrialdeei, nazioarteko bitarteko eta akordio juridikoetan esku hartzen eta akordio eta bitarteko horiek aplikatzen uzten ez dieten zailtasunak zehaztea eta hauei aurre egitea eta, ahal den kasuetan, aztertzea eta berrikustea, ingurugiroaren eta garapenaren alorreko auziak integratzeko eta akordio edo bitarteko horiek aplikatzeko oinarri solidoak jartzeko;
- b) Mundu, lurralde edo azpilurralde mailan etorkizunean garapen jasangarriari buruzko bitarteko legislatiboak lantzeko lehentasunak ezartzea, alor horretan nazioarteko zuzenbidearen eragingarritasuna areagotzeko. Hori, batez ere, ingurugiroari eta garapenari buruzko gaiak integratuz egingo litzateke;
- c) Nazioarteko akordio edo hitzarmenen negoziazioan, aplikazioan, azterketan eta administrazioaren araudian interesa duten herrialde guztiek, batez ere garapen bidean dauden herrialdeek, parte har dezaten sustatzea eta babestea. Horrez gain, herrialde horiek laguntza teknikoa eta finantza-laguntza eta baliabideak ematea helburu hori lortzeko beste mekanismoei eta, hala behar denean, obligazio desberdinak erabiltzea;
- d) Unibertsalki edo herrialde askoren artean negoziatutako akordioen edo bitartekoen mailakako garapenaren bidez, ingurugiroa babesteko nazioarteko arauak sustatzea. Arau horiek herrialdeen egoera eta gaitasun desberdinak hartu beharko lituzkete kontuan. Estatuak ingurugiro politikek ingurugiroaren degradazioaren funtsezko arrazoiei aurre egin behar dietela onartzen dute, era horretan, har daitezkeen neurriek beharrezkoak ez diren merkataritzako murrizketak ekar ez ditzaten. Ingurugiroa helburu duten merkataritza-politikaren neurriek ez lukete bereizketa bidegabea edo ezin justifikatuzkoa ekarri behar, ez eta nazioarteko merkataritzaren ezkutuko murrizketa ere. Alde askotako neurriak ekidin beharko lirateke inportatzaile diren herrialdeen jurisdikziotik kanpoko ingurugiroko arrazoiei

aurre egiteko. Nazioarteko ingurugiroko arazoei erantzuteko hartzen diren neurriek nazioarteko adostasunean oinarrituta egon beharko lukete ahal den neurrian. Ingurugiroko hainbat helburu lortzera bideratutako barruko nerriek merkataritzako neurriak hartzeko eskatzen dute, eragingarriak izan daitezten. Ingurugiroko politikak aplikatzeko merkataritza-politikako neurriak hartzea beharrezkoa izango balitz, hainbat printzipio eta arau aplikatu beharko lirateke. Horien artean, besteak beste, ondorengoak egongo lirateke: diskriminaziorik ezaren printzipioa, aukeratutako merkataritza-neurriek helburuak lortzeko behar diren gutxieneko murrizketak aplikatuko lituztekeenak izango liratekeela esaten duen printzipioa, ingurugiroarekin lotura duten merkataritza-neurrien erabilera gardena zaintzeko eta arau nazionalak behar bezala jakinarazteko obligazioa eta, azkenik, nazioartean hitzartutako ingurugiroko helburuak lortzeko bidean aurrera egiten duten heinean, garapen bidean dauden herrialdeen baldintza bereziak eta beharrak kontuan hartzeko beharra;

- e) Legezko indarra duten bitartekoak erabat eta era zabalean aplika daitezzen zaintzea eta interesa dutenen aldetik akordioen eta bitartekoen azterketa eta adostasun egokiak erraztea, herrialde guztien, bereziki garapen bidean dauden herrialdeen, behar eta interes bereziak kontuan hartuta;
- f) Akordioak eta bitartekoak administratzeko instituzioen, mekanismoen eta prozeduren eragingarritasuna hobetzea;
- g) Egiazko gatazkak edo izan daitezkeenak zehaztea eta ekiditea, batez ere ingurugiroaren alorreko akordioen edo bitartekoen eta alor sozial eta ekonomikoko akordio edo bitartekoen artean. Horren helburua akordio edo bitarteko horiek beren artean sendotzea izango litzateke. Gatazkak sortzen direnean, era egokian konpondu beharko lirateke;
- h) Mekanismoen gaitasuna zabaltzeko eta sendotzeko aukera aztertzea eta ikertzea, horien artean Nazio Batuen sistemaren mekanismoen gaitasuna. Honen helburua, hala dagokienean eta interesa duten aldeek hala adostu dutenean, garapen jasagarriaren alorrean nazioarteko eztabaidak zehaztu, prebenitu eta konpondu daitezzen erraztea da. Horretarako mota honetako eztabaidak konpontzeko dauden alde biko eta alde anitzeko akordioak behar bezala hartu beharko lirateke kontuan.

Jarduerak:

Aplikatzeko jarduerak eta bitartekoak ekintzarako eta jarritako helburuak lortzeko oinarrien

arabera hartu beharko lirateke kontuan, estatu guztiek gai honen inguruan Batzar Nagusiari iradokizunak aurkezteko duten eskubidea kaltetu gabe. Iradokizun horiek garapen jasangarriari buruzko aparteko bilduma batean berresan beharko lirateke.

A. Garapen jasangarrirako nazioarteko zuzenbidearen alorreko azterketa, ebaluazioa eta ekintza-esparruak

Interesa duten herrialde guztien parte-hartze eragingarria segurtatzearekin batera, aldeek aldian-aldian ondorengoa aztertu eta ebaluatu beharko lukete: lortutako emaitzak, nazioartean dauden akordioen eta bitartekoen eragingarritasuna eta etorkizunean garapen jasangarriari buruzko bitarteko juridikoak lantzeko lehentasunak. Horren barruan, dagokienaren arabera, garapen jasangarriaren alorrean estatuen eskubideak eta betebeharrak zehazteko aukeraren azterketa sar liteke, Batzar Nagusiaren 44/228 ebazpenean adierazten den bezala. Kasu batzuetan, hainbat egoera kontuan hartzeko aukerari kasu berezia egin beharko litzaioke, hainbat betebeharrak hartuz edo mailaka aplikatuz. Lan hori betetzeko aukera bat NBIPren aurreko jardura izan liteke, eta horren arabera gobernuek izendatutako aditu juridikoak bil litezke, aurrerago erabakiko litzatekeen aldizkako epeetan, ingurugirora eta garapenera orientatutako ikuspegi zabalagoarekin.

Nazioarteko zuzenbidearekin bat datozen neurriak hartzeko aukera kontuan hartu beharko litzateke, gatazka armatuen garaietan nazioarteko zuzenbidearen arabera justifika ezin daitekeen ingurugiroaren eskala handiko suntsiketari aurre egiteko. Gai horren inguruan aritzeko foro egokiak Batzar Nagusia eta bere Seigarren Batzordea dira. Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen eskumen eta lan zehatzak kontuan hartu beharko lirateke.

Energia nuklearra arriskurik gabe eta era ekologikoki arrazionalen erabil dadin zaintzeko beharra kontuan hartuta eta alor honetan nazioarteko lankidetzak sendotzeko, Energia Atomikoaren Nazioarteko Organismoaren esparruan segurtasun nuklearrari buruzko konbentzioarekin harremanetan indarrean dauden negoziazioei amaiera emateko ahaleginak egin beharko lirateke.

B. Aplikaziorako mekanismoak

Nazioarteko akordioetako aldeek akordio horien aplikazio eragingarri, oso eta zuzena sustatzeko eta egiaztatze prozedura eta mekanismo egokiak aztertuko dituzte. Horretarako, estatuek, besteak beste, ondorengoa egin ahal izango dute:

- a) Nazioarteko bitarteko juridikoen aplikazio eragingarri, oso eta zuzenari buruzko txostenak prestatzeko sistema eragingarriak eta praktikoak eratzea;
- b) Nazioarteko organismo egokiek, adibidez NBIPk, aurrerago mekanismoak hobetzen lagundu dezaketen bide egokiak aztertzea.

C. Nazioarteko zuzenbidea eratzeko parte-hartze eragingarriak

Etorkizunean aurretik aipatutako ekintzarako oinarrietan eta helburuetan oinarrituta era litezkeen jardueretan eta orain arte aipatutako jardueretan herrialde guztiek, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek, parte hartzea zain liteke, laguntza-tekniko eta/ edo finantza-laguntza egokia ematearen bidez. Garapen bidean dauden herrialdeei babes eman beharko litzaieke hasieran, bai nazioarteko akordioak edo bitartekoak aplikatzeko ahalegin nazionalak egiteko, bai akordio edo bitarteko berrietan edo berrikusietan eta akordio edo bitarteko horiek nazioartean aplikatzeko garaian eragingarritasunez parte hartzeko. Babesaren barruan nazioarteko zuzenbidean ezagutza espezializatuak areagotzeko laguntza, bereziki garapen jasagarriarekin lotutakoa, eta erreferentziazko informazioa eta beharrezko ezagutza zientifiko eta teknikoak eskuratzeko modua sartu beharko lirateke.

D. Garapen jasangarriaren alorreko eztabaidak

Gatazkak prebenitzearen eta konpontzearen alorrean, estatuek sakonago aztertu beharko lituzkete egun eskura dituzten teknikak hedatzeko eta eragingarriago bihurtzeko metodoak, besteak beste, ondorengoa kontuan hartuta: batetik, nazioartean dauden akordioekin, bitartekoekin edo erakundeekin lortutako esperientzia egokia eta, bestetik, hala dagokienean, aplikatzeko bere mekanismoak, adibidez, prebentzio-moduak eta gatazkak konpontzeko moduak. Horren barruan, garapen jasangarriaren alorrean beste estatu batzuekin gatazkak sorraraz ditzakeen kasuetan informazio-datuak trukatzeko, jakinarazteko eta kontsultak egiteko mekanismoak eta prozedurak sar litezke. Horrez gain, Nazio Batuen gutunaren arabera sortutako gatazkak konpontzeko bide baketsuak eta eragingarriak ere sartuko lirateke; horien artean, dagokienaren arabera, bide hauek egongo lirateke: Nazioarteko Justizia Gorteari helegitea aurkeztea eta garapen jasangarriari buruzko itunetan mekanismo eta prozedura horiek sartzea.

40. ATALA: Erabakiak hartzeko informazioa

Sarrera

Garapen jasagarrian pertsona bakoitza informazioaren erabiltzailea eta eramailea da, hein handi batean eta horren barruan datuak, informazioa eta esperientzien eta ezagutzen multzo egokia daude. Informazioaren beharra mailan guztietan dago, bai nazio eta nazioarte mailan goi mailako zuzentzaritzan, bai komunitate eta gizabanako mailan. Bi programa-arlo aplikatu beharko lirateke, erabakiak geroz eta gehiago informazio fidagarrian oinarrituta aplika daitezen:

- a) Datuen inguruko desberdintasunak murriztea;
- b) Informazioa eskuratzeko aukerak hobetzea.

Programa-arloak

A. Datuen inguruko desberdintasunak murriztea

Ekintzarako oinarriak:

Dagoeneko datu ugari dauden arren, Agenda 21eko hainbat ataletan esaten den bezala, ezinbestekoa da datu mota gehiago biltzeaz gain, aldagarri sozioekonomikoen eta kutsaduraren, baliabide naturalen eta ekosistemen aldagarrien egoerak eta joerak adierazteko herri, lurralde eta mundu mailan datu mota gehiago biltzea. Datuen eskuragarritasunari eta datuak eskuratzeko aukerari dagokienez, mundu garatuaren eta garapen bidean dagoen munduaren arteko desberdintasuna areagotu egin da eta horrek asko gutxitzen du herrialdeek ingurugiroari eta garapenari buruzko funtsezko erabakiak hartzeko duten gaitasuna.

Datuak biltzeko eta ebaluatzeko, datu horiek informazio erabilgarri bilakatzeko eta datu horiek ebaluatzeko hutsune ugari daude garapen bidean dauden herrialdeen gaitasunean eta nazioarteko alor askotan. Gainera, ezinbestekoa da informazio-jardueren eta datu ekologikoen eta garapenerako datuen arteko koordinazioa hobetzea.

Normalean erabiltzen diren adierazleak –esaterako Nazio Produktu Gordina (NPG) edo kutsaduraren edo baliabideen korrante indibidualen neurketak– ez dituzte jasangarritasunaren inguruko argibideak ematen. Ingurugiroaren eta garapenaren hainbat sektoretako parametroen arteko elkarreragina ebaluatzeko metodoek akatsak dituzte edo gaizki aplikatzen dira. Ezinbestekoa da garapen jasangarriaren adierazleak eratzea; adierazle horiek maila guztietako erabakiak hartzeko oinarri solido gisa balio behar dute eta ingurugiroaren eta garapenaren sistema integratuen jasangarritasun autorregulatuari lagundu behar diote.

Helburuak:

Ondorengo helburuak nabarmendu beharko lirateke:

- a) Datuen bilketa eta ebaluazioa ekonomikoagoa eta egokiagoa izan daitezen lortzea, herri, nazio, lurralde eta mundu mailan erabiltzaileak eta informaziorako beren beharrak hobeto zehaztearen bidez;
- b) Erabakiak hartzeko prozesuetan sektore askotako informazioa biltzeko eta erabiltzeko herri, probintzia, nazio eta nazioarte mailako gaitasuna sendotzea eta erabakiak hartzeko datuak eta informazioa biltzeko eta aztertzeko gaitasuna sendotzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan;

- c) Sektore guztietako garapen jasangarriaren planifikazioa informazio fidagarri, egoki eta erabilgarria oinarri dadin bermatzeko herri, probintzia, nazio eta nazioarte mailako mekanismoak sortzea edo sendotzea;
- d) Informazio egokia eskuratzeko aukera bere erabilera errazteko moduan eta unean ematea.

Jarduerak:

a) Garapen jasangarrirako adierazleak eratzea:

Herrialdeek, nazio mailan, eta gobernuarteko eta gobernu kanpoko herrialdeek, nazioarte mailan, garapen jasangarriaren adierazleen kontzeptua garatu beharko lukete, identifikadore horiek ezartzeko. Bigarren mailako kontuetan eta, besterik ezean, nazio mailako kontuetan hainbat adierazle geroz eta gehiago erabil daitezten sustatzeko, ezinbestekoa da Nazio Batuen Estatistika bulegoa adierazleak ezartzeaz arduratzea, gai horren inguruan geroz eta esperientzia gehiago dagoela aprobetxatuz.

b) Garapen jasangarrirako adierazleak mundu mailan erabil daitezten sustatzea:

Nazio Batuen erakunde eta organo egokiek, nazioarteko gobernuetako, gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakundeekin elkarlanean, garapen jasangarriaren adierazle-multzo egokia eta beren nazio eskumenetik kanpo dauden inguruekin –ozeanoekin, goiko atmosferarekin eta lurraz haraindiko espazioarekin– lotura duten adierazleak erabili beharko lituzkete. Nazio Batuen sistemako organoek eta organismoek, interesa duten gainerako erakundeekin koordinaturik, aholkuak eman ditzateke, batetik, nazio, lurralde eta mundu mailan adierazleak batera garatzeko eta, bestetik, guztientzako eskura dauden txosten eta datu-base komunetan, nazioartean erabiltzeko adierazle horien multzo egokia sartzeko, nazioko subiranotasunarekin lotura duten gaiei lotuta.

c) Datuen bilketa eta erabilera hobetzea:

Herrialdeek eta, hala eskatzen dutenean, nazioarteko erakundeek ingurugiroari, baliabideei eta garapenari buruzko datuen inbentarioa egin beharko lukete, garapen jasangarria kudeatzeko, nazio eta mundu mailako lehentasunak oinarri hartuta. Halaber, akatsak zehaztu beharko lituzkete eta konpontzeko jarduerak antolatu beharko lituzkete.

Nazio Batuen sistemako organoen eta erakundeen barruan eta nazioarteko erakunde egokien barruan ezinbestekoa da datuak eskuratzeko jarduerak sendotzea. Jarduerak sendotu beharko lituzketen erakunde horien artean Mundu mailako Jagolaritza eta Mundu mailako Jagolaritza Meteorologikoa egongo lirateke, eta, bereziki, ondorengo gaietako jarduerak sendotu beharko lituzkete: hiritako airea, ur geza, lurreko baliabideak (horien artean basoak eta artzaintzarako lurrak), desertifikazioa, beste habitat batzuk, lurren degradazioa, dibertsitate biologikoa, ozeanoak eta goiko atmosfera. Herrialdeek eta nazioarteko erakundeek datuak biltzeko teknika berriak erabili beharko lituzkete, satellite bidezko telebehaketa barne. Garapenari buruzko datuak biltzeko jarduerak indartzeaz gain, ezinbestekoa da hainbat faktoreri –esate baterako, demografiari, urbanizazioari, pobrezari, osasunari eta baliabideak eskuratzeko eskubideari– eta talde bereziei –hala nola, emakumeei, herrialde indigenei, gazteei, haurrei eta minusbaliatuei– eta ingurugiroaren gaiekin dituzten harremanei kasu berezia egitea.

d) Datuak ebaluatzeko eta aztertzeke moduak hobetzea:

Nazioarteko erakunde eskudunek gomendio praktikoak landu beharko lituzkete nazio eta nazioarte mailan datuak era koordinatuan eta bateratuan biltzeko eta ebaluatzeko. Datuen eta informazioaren nazioko eta nazioarteko zentroek datuak biltzeko sistema iraunkorrak eta zehatzak jarri beharko lituzteke eta informazio geografikoko sistemak, adituen sistemak, ereduak eta datuak ebaluatzeko eta aztertzeke beste hainbat teknika erabili beharko lituzkete. Neurri horiek bereizleak izango dira, izan ere etorkizunean ezinbestekoa izango da satellite bidez lortutako datu guztiak prozesatzea. Garatutako herrialdeek, nazioarteko erakundeek eta sektore pribatuak batez ere garapen bidean dauden herrialdeekin elkarlana egin beharko lukete, azken herrialde horiek hala eskatuz gero, teknologiak eta ezagutzak eskuratzeko aukera errazteko.

e) Informazioko esparru zabala eratzea:

Gobernuek ingurugiroari eta garapenari buruzko informazioa sar dadin lortzeko nazio mailan beharrezkoak diren aldaketak egiteko aukera aztertu beharko lukete. Nazioarte mailan, ezinbestekoa da ingurugiroa ebaluatzeko jarduerak sendotzea eta garapenaren joerak zehazteko ahaleginekin koordinatzea.

f) Informazio tradizionala hedatzeko gaitasuna sendotzea:

Nazioarteko erakundeen laguntzarekin, herrialdeek babeserako mekanismoak ezarri beharko lituzkete, ingurugiroaren eta baliabide jasangarrien antolaketan, tokian tokiko komunitateei eta baliabideen erabiltzaileei, hala dagokienean, ezagutza eta ikuspegi tradizional eta autoktonoak aplikatzeko behar dituzten informazioa eta metodoak emateko. Horrek berebiziko garrantzia dauka nekazaritzako eta hiriko herrialdeetan eta indigenen, emakumeen eta gazteen taldeetan.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 1.900 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako programen arabera izango dira.

b) Bitarteko instituzionalak:

Nazio eta nazioarte mailan, ez dago gaitasun instituzionalik ingurugiroa eta garapena integratzeko eta adierazle egokiak eratzeko. Nabarmen sendotu beharko dira dauden erakundeak, esate baterako Ingurugiroa Behatzeko Munduko Sistema (GEMS) eta Munduko baliabideei buruzko datu-basea (GRID) NBIPren barruan eta Mundu mailako Jagolaritzaren sistema nagusiaren barruko erakunde batzuk. Mundu mailako Jagolaritza funtsezko elementua izan da ingurugiroarekin harremana duten datuentzako. Hainbat organismoren garapenari buruzko datu-baseekin lotura duten programak dauden arren, beren artean ez daude behar bezala koordinaturik. Nazio Batuen sistemako organismoen eta erakundeen garapenari buruzko datuekin lotura duten jarduerak eragingarritasun gehiagorekin koordinatu beharko lirarteke, agian "garapena behatzeko" mekanismo baliokideen eta osagarrien bidez. Mekanismo hori eta Mundu mailako Jagolaritza Nazio

Batuen bulego egoki baten bidez koordinatu beharko lirateke, ingurugiroaren eta garapenaren arazoak guztiz integra daitezzen zaintzeko.

c) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Teknologien transferentziari dagokionez, informazioaren eta datu-bilketaren bilakaera azkarrarekin, beharrezkoa da teknologia horiek azkar eta etengabe transferitzeko gidalerroak eta mekanismoak lantzea, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Hori 34. atalaren (Teknologia ekologikoki arrazionalaren transferentzia, lankidetzeta eta gaitasuna areagotzea) arabera eta jendea datuen erabileran trebatzeko egin beharko litzateke.

d) Giza baliabideen garapena:

Trebakuntza eskaini beharko litzateke alor eta maila guztietan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan. Trebakuntza horren barruan datuen bilketa, ebaluazioa eta lanketan parte hartzen duten pertsonen trebakuntza teknikoa eta erabakiak hartzeaz arduratzen direnei informazio hori erabiltzeko laguntza sartuko lirateke.

e) Gaitasuna areagotzea:

Herrialde guztiek, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek, erabakiak hartzeko prozesuetan behar dituzten datuak eragingarritasun gehiagorekin biltzeko, gordetzeko, antolatzeko, ebaluatzeko eta erabiltzeko gaitasuna sendotu egin beharko lukete, nazioarteko babesarekin.

B. Informazioa eskuratzeko aukerak hobetzea

Ekintzarako oinarriak:

Datu eta informazio aberastasun handia dago eta garapen jasangarria kudeatzeko erabil daitezke. Une egokian eta agregazio-maila egokian informazio egokia aurkitzea geroz eta zailagoa da.

Herrialde askotan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, informazioa ez da behar bezala antolatzen, finantza-baliabide eta langile trebatu falta dagoelako, informazioaren balioa eta eskuragarritasuna ez dituztelako jakiten eta premiazko berehalako beste hainbat arazo izaten direlako. Informazioa dagoen lekuetan ere, baliteke informazio hori eskuratzeko ez izatea erraza, bai eragingarritasunez eskuratzeko teknologia falta delako, bai gastu handia duelako, batez ere informazioa herrialdetik kanpo dagoen kasuetan eta merkataritzako merkatuetan eskura dagoen informazioaren kasuetan.

Helburuak:

Informazioa prozesatzeko eta trukatzeko nazioko eta nazioarteko mekanismoak eta horiei lotutako laguntza teknikoa sendotu egin beharko lirateke, nazio, lurralde eta nazioarte mailan sortutako informazioa eragingarritasunez eta zuzentasunez eskuratzeko aukera izan dadin, nazioko subiranotasunarekin eta jabetza intelektualaren eskubide aplikagarriekin lotuta.

Informazioa erabiltzeko eta zabaltzeko gaitasun nazionala sendotu beharko litzateke, gobernuetan, gobernuz kanpoko erakundeetan eta sektore pribatuan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan.

Datuak eta informazioa biltzeko, aztertzeko eta erabiltzeko garaian, Nazio Batuen sistemaren organoen eta erakundeen barruan, nazioarteko edozein mailatan, erabateko parte-hartzea segurtatu beharko litzateke, batez ere garapen bidean dauden herrialdeen parte-hartzea.

Jarduerak:

a) Erabakiak hartzeko prozesuan erabili daitekeen informazioa sortzea:

Herri, probintzia, nazio eta nazioarte mailan, herrialdeek eta nazioarteko erakundeek informazio-sistemak eta -zerbitzuak aztertu eta sendotu beharko lituzkete garapen jasangarriarekin harreman duten sektoreetan. Aurretik dagoen informazioa transforma

dadin indar berezia egin behar da, informazio hori erabakiak hartzeko eta hainbat erabiltzaile-taldetara orientatzeko erabilgarriagoa izateko. Ebaluazio zientifikoak eta sozioekonomikoak planifikaziorako eta informazio publikorako informazio egoki bilaka daitezten mekanismoak eratu edo sendotu beharko lirateke. Gai horren inguruan, bitarteko elektronikoak eta ez-elektronikoak erabili beharko lirateke.

b) Informazioa erabiltzeko arauak eta moduak eratzea:

Gobernuek gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakundeei laguntzeko aukera aztertu beharko lukete; laguntza hori informazioa herri, probintzia, nazio eta nazioarte mailan eragingarritasunez eta batera trukatzeko mekanismoak eratzeko ahaleginean eman beharko liekete. Horren barruan datu-motak, sarbidea eta hedapena eta komunikazioen elkarreragina berrikustea eta ezartzea sartuko lirateke.

c) Informazio-iturriei buruzko datuak lantzea:

Nazio Batuen sistemako organoek eta erakundeek eta gobernuarteko eta gobernu kanpoko beste erakundeek eskura dituzten iturriei buruzko informazioa eratu eta partekatu beharko lukete. Behar denaren arabera dauden programak, esate baterako Informazio Sistemen Koordinaziorako Kontsulta Batzordea (ISKKB) eta Ingurugiroaren Informaziorako Nazioarteko Sistema (INFOTERRA), aztertu eta sendotu egin beharko lirateke. Beste jardueretarako dagoen aukera zabalaren barruan, sareak eta koordinazioa sortzeko mekanismoak sustatu beharko lirateke, besteak beste, informazioa trukatzeko gobernu kanpoko erakundeen akordioak eta garapen jasangarrirako proiektuei buruzko informazioa trukatzeko jarduera emaileak. Sektore pribatuak esperientzia eta informazioa trukatzeko mekanismoak sendo ditzan bultzatu beharko litzateke.

d) Sare elektronikoaren formaziorako gaitasuna eratzea eta sendotzea:

Herrialdeek, nazioarteko erakundeek –horien artean Nazio Batuen sistemako organoek eta erakundeek– eta gobernu kanpoko erakundeek lotura elektronikoak jartzeko ekimenak aprobetxatu beharko lituzkete, ondorengo egiteko: informazioaren trukea babesteko; datu-baseetara eta beste informazio-iturri batzuetara sarbidea emateko; helburu zabalagoak –esate baterako Agenda 21 gauzatzea– betetzeko komunikazioa errazteko; gobernuarteko negoziazioak errazteko; garapen jasangarriko konbentzioak eta

neurriak berrikusteko; alerta ekologikoak transmititzeko eta datu teknikoak transferitzeko. Halaber, erakunde horiek hainbat sare elektronikoren arteko interkonexioa eta komunikazioko arau egokien eta protokoloen erabilera erraztu beharko lituzkete, komunikazio elektronikoen truke gardenerako. Hala behar den kasuetan, teknologia berriak sortu beharko lirateke eta teknologia horien erabilera sustatu beharko litzateke egungo azpiegituretarako eta metodoetara sarbiderik ez dutenek ere parte har dezaten uzteko. Gainera, informazioa sistema ez-elektronikoetatik eta ez-elektronikoetara transferitzeko mekanismoak sortu beharko lirateke, beste modu batera bazterrean geratuko zirenek ere parte hartzeko aukera izan dezaten.

e) Merkataritzako informazio-iturriak erabiltzea:

Herrialdeek eta nazioarteko erakundeek sektore pribatuan garapen jasangarriari buruz dagoen informazioaren inguruko azterketak eta egungo hedapen-sistemen inguruko azterketak egiteko aukera aztertu beharko lukete, merkataritza-jardueren eta merkataritzarekin lotutako jardueren bidez dauden hutsuneak eta konpontzeko moduak zehazteko, bereziki garapen bidean dauden herrialdeek parte hartzen duten jardueren edo berek gauzatzen dituzten jardueren bidez. Gainera, informazioa edo informazio hori eskuratzeko bidea zailtzen duten oztopo ekonomikoak edo beste mota batzuetakoak dauden kasuetan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, programa berritzaileak sortzeko aukera aztertu beharko litzateke, eta programa horiek informazio hori eskuratzeko bidea diruz lagunduko lukete edo ekonomiaren alorrekoak ez diren oztopoak deuseztatuko lituzkete.

Gauzatzeko bideak:

a) Gastuen finantzazioa eta ebaluazioa:

Biltzarreko idazkaritzak programa hau aurrera eramateko jarduerak gauzatzeko urteko (1993-2000) batez besteko gastua 165 milioi dolarrekoa izango dela balioztatu du eta nazioarteko komunitateak dohaintza moduan edo mesede moduan emango ditu. Kalkulu horiek adierazleak eta gutxi gorabeherakoak dira eta gobernuek ez dituzte aztertu. Benetako gastuak eta finantza-baldintzak, emakidunak ez direnak barne, beste batzuen artean gobernuek gauzatzeko aukeratutako estrategien eta berariazko programen

araberakoak izango dira.

b) Bitarteko instituzionalak:

Programa honetako alde instituzionalak bereziki aurretik dauden instituzioak sendotzeari buruzkoak eta gobernu kanpoko erakundeekin elkarlana sendotzeari buruzkoak dira eta Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarrak instituzioen inguruan hartzen dituen erabaki orokorrekin bateragarriak izan behar dute.

c) Gaitasuna areagotzea:

Garatutako herrialdeek eta nazioarteko erakunde eskudunek garapen bidean dauden herrialdeekin elkarlana egin beharko lukete ingurugiroari eta garapenari buruzko informazioa jasotzeko, biltzeko, berreskuratzeke, onartzeko, hedatzeko eta erabiltzeko gaitasuna hedatzeko. Horrez gain, jendeari informazio hori eskuratzeko aukera eskaini behar zaio, batetik, informazio lokalerako zerbitzuak jartzeko teknologia eta trebakuntza emanaz eta, bestetik, lurralde eta azpilurralde mailan herrialdeen arteko lankidetzarako eta elkarketarako akordioak babestuz.

d) Bitarteko zientifikoak eta teknologikoak:

Herrialde garatuek eta nazioarteko erakunde eskudunek babesa eman beharko liekete, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan, ingurugiroarentzako eta beren jardueretarako eta beharretarako egokiak diren ekipoen ikerketari eta garapenari, programei eta informatikaren alorreko beste aldeei.